Sarrera honen amaierarako utzi dut tesi hau burutzen lagundu didatenei eskerrak emateko betebeharrak atsegina. Esker ona, hasteko Miren Azkarate irakasleari, proposatu nion proiektu a onartu zuelako, eta urte luzeetako langintza honetan atseginez eta arretaz zuzendaritzaren eginkizunak bete dituelako. Orobat eskerrak eman nahi dizkiet Euskal Filologia Saileko Xabier Alberdi eta Igone Zabala irakasleei hainbat aldiz egindako galderei erantzun didatelako. Ezingo ditut aipatu gabe utzi Uzeiko Miel Loinaz, Miriam Urkia eta beste lankideen aldetik ere jaso ditudan laguntza eta aholkuak. Bai Zuzenbide Fakultatean eta baita Informatikakoan hainbat irakasle lankideren aldetik jaso ditudan aholkuak eta animoak ere eskertzekoak dira. Amaierarako utzi baditut ere, ez dira gutxiago merezi dutelako Arantza Gurmendi emaztea, eta Urko Elozegi semea, urte gehiegi iraun duen langintza honetan, ez bakarrik jasan eta adorea eman, baizik eta era askotan aurrera egiten lagundu didatelako.

## **I. ZATIA**

### **ZUZENBIDEKO HIZKERA BEREZIA**



## I. KAPITULUA

### XEDE BEREZIETARAKO HIZKERAK

#### 1.- SOZIOLINGUISTIKAREN HURBILPENA: HIZKUNTZAK ETA HIZKUNTZAREN ALDAERAK

Gure tesiaren gaitzat hartu dugun testu-multzoa '*zuzenbideko hizkera*'-ren ordezkarietat balioko digulakoan aukeratu dugu. '*Zuzenbideko hizkera*' izendapena badabilen terminoa dugu, ez da guk asmatutako berrikeria. Eta *zuzenbideko, ekonomiako, edo elektrodinamikako* hizkerak maiz aurkitzen ditugu bilduta *hizkera/hizkuntza tekniko, hizkera/hizkuntza berezi, hizkera/hizkuntza berezitu, berezitasunezko/espezialitateko hizkera/hizkuntza, xede bereziatarako hizkera/hizkuntza* bezalako hiperonimoetan, edo, azalduko dugun bezala, hizkuntza desberdinetan zehar, ingelesezko *LSP<sup>1</sup> (Language for Special (edo Specific) Purposes)* siglaren babesean. Kapitulu honetan saiatuko gara argitzen zein den *hizkera* horien errealitatea eta berezitasuna, halakorik badute.

Hizkuntzalaritza teorikoak, hizkuntza sistema bezala (Saussureren '*langue*') edo gaitasun bezala (Chomskyren '*competence*'), ulertzen dituzenez, badirudi ez duela biderik eskaintzen hizkuntzaren erabilera modu sistematikoan aztertzeke. Baina hizkuntzaren ikuspegi orokorra eman nahi badugu, ezin daiteke soilik egitura formal eta semantikotzat jo; beharrezkoa da haren gauzatzea, erabilera, aztertzea. Hizkuntza deskribatzeko, hortaz, ez da nahikoa hiztunaren gaitasunaren berri ematea, gizartearen konplexutasunak markatutako komunikazio-egoera desberdinetan hitzunek egiten dituzten erabilera konkretuak ere aztertu eta deskribatu behar dira.

Hortaz, hasteko, *hizkerez* bereziki eta modu orokorrean arduratu den diziplinaren, soziolinguiстикaren, hurbilpena zein den azaltzen saiatuko gara.

---

<sup>1</sup>Guk ere maiz erabiliko ditugu sigla horiek. Jatorrizko hizkuntzan nola diren edo nola ahoskatzen diren kontuan hartu gabe, letraz letra irakurriko ditugu euskaraz, beraz *LSP /eleesepe/* izango da, eta horrela irakurritako hitzari ipiniko diogu izen arruntaren deklinabide-atzizkia: *LSP, LSPek honako ezaugarriak dituzte, aurreko LSPari, LSPekin, LSPaz, LSPez,* eta abar eginez.

## 1.1.- Hizkuntz aldaerak soziolinguistikaren ikuspegitik

Hizkuntza, sistema osoa eta itxia izateaz gainera errealitate bizia denez, eten gabe aldatuz doa, eta gauzatzen den aldiro, modu berri batean egiten du. Pentsatu besterik ez dago edozein pertsonak hizkuntza bat erabiltzean, egoera eta komunikazio-ingurunearen arabera egiten dituen errealizazio desberdinetan, edo toki desberdinetako jendearen hizketetan izaten diren aldeetan. Soziolinguistika izan da hizkuntzaren gauzatze-era eta egora desberdinez sistematikoki arduratu den diziplina.

Hizkuntza baten izaera eta forma desberdinak *aldaerak* (*EN variety*, *FR variété*, *ES variedad*, *CA varietat*) deituko ditugu oro har, ikertzaile gehienek erabilera ikusiaz, eta erosotasun-arrazoiengatik gehien bat<sup>2</sup>, nahiz eta jakin autore guztiak, ez datozela bat izendapen orokor horrekin. Esate baterako, Fergusonek (1994) nahiago du '*variation*'-ez hitz egitea, '*variety*'-ren orde. Beste batzuen kasuan *language variety*-ren ondoan *discourse type* erabiltzen da, eta badira, Lamuela<sup>3</sup> (1983:48) bezala, *aldaera* hitzaren hedadura semantikoa murrizten dutenak, *erregistro* hitzari oposatuaz.

Baina, esan beharra dago hedadura semantikoaren eta hitz baten edo bestearen aukeraren gaineratik, *aldaera* adigaia ez dela inondik ere linguista eta soziolinguista guztiak eztabaidarik gabe onartutakoa. Esate baterako, Hudson (1996) soziolinguistak errotik kritikatzeko du *aldaeran oinarritutako eredia*, horren orde, '*item*'-ean<sup>4</sup> *oinarritutako eredia* proposatuaz. Hudson-en aburuz, *aldaera* adigaia guztiz lausoa da eta ez du balio lan zientifikorako, ez bada soilik adierazteko "*gizarte-banakera berdina duten hizkuntz gaien (item) multzoa*". Hain zuzen dio, *aldaeran oinarritutako eredian* espero daiteke edozein testu dugularik, *aldaera* bat eta bakarrekoa izango dela, baina gerta daiteke, eta gertatzen da esaldi bakar bateko '*item*' batzuek (hitz batzuek, esate baterako) isla dezaketela hiztunaren jatorri geografikoa, gehi haren maila soziala, gehi hizketakidearekiko erlazioa, gehi uneko formaltasuna, gehi beste zenbait zertzelada. Hots, Hudsonen aburuz, *aldaerakako* sailkapena baztergarria da hizkuntz analisirako.

Onarturik ere Hudsonen kritikaren puntu asko, autore gehienak, Rotaetxek gogoratzen zigun bezala, erabili egiten dute *aldaera* (*variety* / *variété*, *variedad*) hitza, eta aldaeren sailkapenak ere.

<sup>2</sup> Puntu honetan uste dugu euskaraz ere, *aldaera* hitzarekin gertatzen dela Karmele Rotaetxek (1988:22-31) gaztelaniazko *variedad lingüística* adierazpidearekin gertatzen dela esaten duena, alegia, termino neutro bat dela, aurretik definitu gabea, baina beharrezkoa gaiak hitz egin ahal izateko.

<sup>3</sup> Lamuelak (1983:48) hasieratik '*varietat*' eta '*registre*' berezi beharra azpimarratzen du.

<sup>4</sup> '*item*' hitza erabiltzen du Fergusonek.

Aldaera horien zernolakoak eta sailkapenak nahi adina irizpide desberdinen arabera egin ohi dira. Guri hemen aldaera-mota jakin bat mugatzera iristea beste helbururik interesatzen ez zaigunez, aldaera horien berri labur-laburra ematen saiatuko gara, gure interesgunearen eta beste aldaeren mugak ahalik eta garbien paratzeko.

Geografian oinarritutako aldaeren azterketa eta sailkapen-ahaleginak aspaldi samarretik zetozen: XVIII. mendean hasierako lanak egin baitziren, baina XIX. mendearen erdialdean, Graziadio Isaia Ascolik burututako lanari esker dialektologia zientifikoaren oinarriak ipini ziren. Haren ondotik aipagarria da Jules Gilliéron-en 1902ko *Atlas Linguistique de la France*, eta garaikide diren dialektologia eskolak, hala nola Parisekoa, Gaston Paris eta Paul Meyer-ekin, eta Suitzako, Louis Gachat, eta Jakob Jud-ekin. Beste aldaera-moten ikerkuntza zientifikoa, berriz, gerokoa da.

Gainerako aldaera-moten ikerkuntzan, neurri batean paradoxa badirudi ere, aipatu beharrekoa da Saussureren *Cours de Linguistique générale* hilondoko lanaren 1916ko argitalpena, estrukturalismoaren eta hizkuntzalaritza modernoaren abiapuntutzat aho batez ematen dena. Izan ere, hizkuntzaren sistematasuna oinarri-oinarrian ipintzen duen estrukturalismoaren baitan agertzen dira berezitasuneko hizkeren inguruko ikerkuntzak. Horrela, Pragako eskolak, 1929ko Tesietan abiapuntua jarririk, hurrengo hamarraldian txekieraren normalizazio-prozesuaren inguruan oso lan garrantzitsuak egin zituen berezitasuneko aldaeren gainean; geroagokoak dira oraindik, soziolinguistikaren eskutik datozen hizkuntzaren aldaera ez geografikoen azterketak, baina hizkuntz aldaerak bere orokortasunean sailkatzeko lehen saiakera zorrotza Eugenio Coseriuena (1958) dateke, zeinak aldaeren arteko desberdintasunen arabera sailkatu zituen, hiru multzo eginaz ondoko ezaugarri hauen arabera: desberdintasun diatopiko edo geografikoak, diastratikoak (berezitasuneko hizkerak) eta diafasikoak edo estilistikoak.

Harrezkero, gai hauetara hurbiltzeko ikuspegiak biderkatuaz joan zirenez, hala sailkapen irizpideetan nola aldaera bakoitza izendatzeko unean, Calvo Ramosek (1993:25) dioen bezala, izugarrizko ugaritasunarekin egiten dugu topo.

*Aldaera* adigaiaren erosotasuna onartuta ere, komeni da ez ahaztea haren erlatibotasuna, —Hudsonen aburuz (1996:24) zientifikotasun-eza— hainbat egilek (Fishman, 1971: 37, Rotaetxe, 1988:23) gogoratzen duten bezala. Esate baterako, aspaldidanik onartu den *dialekto geografikoaren* eta *hizkuntzaren* mugak, gorabehera sozio-politikoen eta prestigioa edo indarra bezalako balioen menpe daudela aho batez onartzen da, baina halaber behaketak erakutsi du hiztun batzuentzat *dialekto greografikoa* dena beste batzuentzat *aldaera funtzionala* edo

*lanbide-aldaera* izan daitekeela. Esate baterako, dialekto estandar bateko jaiotzetiko hiztun batentzat bere dialektoa besterik ez dena, jaiotzez beste dialektokoa izan eta estandar bezala ikasi duenarentzat, egoera berezi batzuetan aukeratzen duen erregistroa edo aldaera funtzionala izan daiteke (Hudson, 1996:48). Rotaetxek dioenez, aldaerek badituzte beren artean desberdintasun linguistikoak (fonologiaren, gramatikaren edo lexikoaren aldetik) baina beren desberdintasun nagusia gizartean egiten den erabileran datza eta balio funtzional hori ez dago kodearen ezaugarrien baitan baizik gizartean egiten den erabileraren baitan.

## 1.2.- Aldaeren sailkapenak

Hainbat irizpide desberdinetan oinarritutako era askotako sailkapenak aurki ditzakegu soziolinguista handien artean. Beste askoren gogoeta-iturri izan bide den sailkapen bitarikoa proposatzen du Hallidayk (82:50): alde batetik *dialektoak* edo *aldaera dialektala* eta bestetik *erregistroa* edo *aldaera diatipikoa* oposatzen dituen. Hallidayk azaltzen duenez, lehena, erabiltzailearen araberrako aldaera izango litzateke, eta erabilpenaren araberrakoa bigarrena. Bide bera urratzen dute Gregory eta Carrol-ek (1986) *aldaera dialektalak* (idioletokoa, garai-dialektoa, geografia-dialektoa, gizarte-dialektoa, norma-dialektoa eta norma gabeko dialektoa) eta *aldaera diatipikoak edo erregistroak* bereizi behar direla esaten dutenean.

Terminologiaren munduan ere sailkapen-mota horrek badu jarraitzailerik. Honela, esan daiteke nahiko antzekoa dela Cabré<sup>5</sup> (1992:67) proposatzen duena: Haren aburuz ere, alde batetik hiru dialekto-mota edo sistema bereizten dira: *geolektoak*, *sozirolektoak* eta *kronolektoak*, eta beste aldetik, hiztunak beti egokitzen dionez bere adierazbidea komunikazio-egoera espezifikuari, aldaera funtzional edo *erregistroak* daude.

Lamuela (1983:48) *aldaerak (varietat)* eta *erregistroak* bereiziaz hasten da, erabilera indibidualaren, jatorri kronologikoaren, kokapen geografikoaren edo giza-talde desberdinen erabileraren menpe daudenak *aldaeren* artean sartuaz, eta erabileraren ezaugarri errekurrenteen islada direnak, berriz, *erregistroen* artean. Baina, sailkapen bitariko horrek ez dio biderik ematen aldaera guztiak sailkatzeko, zeren *hizkera sektorialak (llenguatge sectorial)* ezin dira besterik

<sup>5</sup> "(...) tres sistemes dialectals: geolecte, sociolecte, cronolecte, tot parlant, adequa també la seva expressió a situacions de comunicació específiques a través de les distintes varietats funcionals o registres... que se materialitzen segon diversos criteris: a) el canal que se usa per transmetre la informació (oral/ escrit), b) El tema que es tracta (general/ especialitzat), c) El propòsit comunicatiu o tenor funcional (informar / avaluar / influir / argumentar), d) El grau de formalitat entre els interlocutors i el nivell d'abstracció (formal/ informal, abstract / menys abstract)". Cabré (1992:67)

gabe erregistro soiltzat eman; izan ere, dio, gehienetan haien inguruan eztabaidatzen dena, terminologia bereziki, askoz lotuagoa baitago denotazioaren zehaztasunari, erabilera-egoera batean edo bestean izan dezaketen efektuari baino (1983:57).

Aurrekoetan sailkapenak oro har bi polo bazituen ere, esan bezala, ez da hori aho batez onartutakoa. Wardhaughek (1992:37-73) bere liburuaren bigarren kapituluan erabiltzen dituen epigrafeak kontuan harturik *hizkuntzak*, *dialektoak* eta *eskualde-dialektoak* tratatzen ditu alde batetik, lurraldeari lotutako aldaerak alegia, *dialekto sozialak* bestetik, gizarte-talde desberdinekin elkartzen diren ezberdintasunaren adierazpen bezala, eta *estiloak*, hau da, hiztunak aukeratzen duen formaltasun-mailaren araberrakoak eta *erregistroak* azkenik, lanbide-talde edo gizarte-talde diskretoen araberrakoak.

Fergusonek (1994) bere aldetik, lau mota bereizten ditu hizkuntz aldakuntzetan (*variation*): *dialektoak*, *erregistroak*, *generoak* eta *elkarrizketari dagozkionak*. Lehenak, *dialektoak*, adierazten du nola aldatzen den jendearen hitz egiteko edo idazteko modua kontuan hartuta nongoak diren edo zein toki dagokien gizartean. Bigarrenari, *erregistro-aldakuntzari*, dagokio erabilera-egokiera desberdinen araberrako hizkuntz desberdintasuna. Hirugarrenak, *generoak*, esan nahi du mezu-motek, komunitate batean erregulariki errepikatzen direnean hartzen duten barne-egitura, beste mezu-motei buruz diferentea eta identifikagarria. Azkena, *elkarrizketari dagozkionak* azaltzeko, Fergusonek dio hitzezko elkarrekintzan abiatu-rik, hizketakideek, unean uneko komunikazio-helburuen araberrako diferentziak sortzeko joera dutela. Baina, aldakuntza-mota horiek ez dira elkarren baztertzaileak, alderantziz, zeren hizketa-ekintza (ahoz zein idatziz) bakoitzean eta une berean gauzatzen baitira dialektozko, erregistrozko, generozko eta elkarrizketazko aldakuntzak.

Duartek, (1990: 96-99) proposaturiko sailkapenean, *aldaera (varietat)* da hiperonimoa, adigai horren barruan sartzen dituelarik, hiru multzotan, hizkuntza gauzatzeko modu desberdin guztiak. Lehen multzo handi batean, erabiltzaileari lotutako aldaerak sartzen ditu, *aldaera dialektalak* deituaz. Bertan, *-lekto* bukaeradun hitzez izendatutako lau talde sartzen ditu: *Idiolektoak*, norberaren dialektoak, pertsona bakoitzaren aldaera propioak. *Kronolektoak* edo historiari lotutako dialektoak, hau da, garai historiko bakoitzeko aldaerak, une berean, hainbat belaunaldi batera bizi baitira, elkarrekin existi daitezkeenak. *Geolektoak* edo lurralde bakoitzeko hiztunek izaten dituzten aldaerak; euskararen kasuan *euskalki* deitu ohi direnak. Eta azkenik, *soziolektoak* edo gizarte-dialektoak, alegia, gizarte-talde bat (adin-talde, sexu-talde, gizarte-klase, lanbide-talde) osatzen duten pertsonen erabiltzen duten aldaera.



Sailkapeneko bigarren multzoan aldaera bakarra sartzen du, *estandarra*, hurrengo puntuan modu luzeagoan azalduko duguna.

Hirugarren multzoan, *aldaera funtzionalak* edo *erregistroak*, hau da, erabilerei lotutakoak biltzen ditu. Erregistroak, hizkuntz funtzioen araberakoak direnez, haiek hainbat, eta haien konbinazioetatik sortutako guztiak izan daitezke. Hirugarren multzo honetan sartuko lirateke, Duarte-ren arabera, berezitasuneko aldaerak.

### 1.3.- Estandar aldaera, estandarizazioa

Estandarraren adigaia soziolinguistikako gakoetako bat da. Guztiz estandarizaturiko hizkuntzetan gaia alde batera utz badaiteke ere, bederen beste aldaera edo hizkera bereziei dagokienez, euskararen kasuan bezala estandarra guztiz ezarririk ez dagoelarik, baldintza larria izaten da estandarizazioa hizkuntzaren erabilera berriak garatzeko orduan.

Estandarrak hitz egiten hasteko, Longman Dictionary (Richards et al, 1992)tik hartu dugun definizio xumetik abiatuko gara. Honela dio:

*“The variety of a language which has the highest status in a community or nation and which is usually based on the speech and writing of educated native speakers of the language”*

Definizioak aipatzen duen *status* hori ez da berez gertatzen den zerbait Hudsonen (1996:32) oharrarazten duen bezala: estandarra, gainerako aldaera geografiko edo sozialak ez bezala, hizkuntzaren gaineko gizarteren esku-hartzearen emaitza izaten da. Eta Fishmanek (1971:39) gogoratzen duenez, estandarra ez da hizkuntz komunitate guztietan dagoen zerbait. Nahiz eta beti egon den eta dagoen hiztunen eta hiztun-taldeen arteko negoziazio bat, estandarraz hitz egin ahal izateko, ekintza jakin batzuk ezinbestekoak izan ohi dira.

Estandarraren sorkuntzaren eta garapenaren gaia lotuta dago bai hizkuntza batek gizarte batean komunikazioa hutsik gabe eta modu eraginkorrean garraiatzeko duen ahalmenarekin eta bai hizkuntz komunitate batek bere burua batasun berezi bezala sentitzeko behararekin ere.

Izan ere, estandarrak, idealki batzeko helburua badu ere, bateratu eta berezi egin dezake. Aurretik zeuden dialekto eta aldaera guztien gaineratik batu egiten du, baina zenbait kasutan, bereiztekoa ere izaten da. Esate baterako, serbo-kroaziera, azken hamarkadan ezagutzen duen estandarizazioaren bidez hirutan banatzen ari da. Lehendik ere, idazkerak bereizten bazituen, gaurko egunean, bi estandarizazio-prozesu bortitz pairatzen ari da hala morfologian nola syntaxian,

eta bereziki lexikoan. Ondorioz, serbiera estandarra, kroaziera estandarra, eta zalantza gehiagorekin, bosniera estandarra sortzen ari baitira, elkarrengandik bereiziz. Antzeko zerbait esan daiteke gertatu dela, mendeetan zehar, Eskandinaviako hizkuntza germanikoekin. Beste neurri batean bada ere, *Standard British*, eta *Standard American* egoteak zentzu bera du.

Hortaz, ez du errealitatearen ikuspegi osoa ematen estandarraren funtzioa batasunaren baitan deskribatzen dutenen ikusmoldeak. Esate baterako Duarte-k (1990:98), dioenean estandarra dela hizkuntza beraren dialekto desberdinetako hiztunen harremanetarako adierazpide formaletarako erabiltzen den aldaera. Esan nahi baita, funtzio bateratzailea beti dagokio estandarrari, baina ez halabarrez hizkuntza baten mailan, baizik, hainbat arrazoi sozio-politiko direla-eta, hizkuntz aldaera bat estandarraren ezaugarriez hornitu nahi duen gizarte baten mailan baizik.

Aurreratu dugun estandarraren definizioa ez zaio guztiz egokitzen egoera orori; zalantzarik gabe estandarra guztiz garatuta daukaten kasuei dagokie. Argi ikus dadin, Europako hizkuntza ofizial nagusiez, hala nola frantsesa, espainiera, ingelesa, eta antzekoez ari gara. Komenigarria da hori argitzea zeren kasu askotan, euskararenean esate baterako, ezinbestekoa izango baita ñabardura asko sartzea, eta estandarraren adigaiak berak baino gehiago lagunduko digu estandarizazio-prozesuaz aritzeak.

Gainerako hizkuntz aldaeretatik bereizten duen estandarraren ezaugarria haren autonomia da. Esan nahi baita, estandarrak, finkatu eta gero, bere baitan daukala araua. Gainerako aldaerak heteronomoak izango diren bezala, estandarra autonomoa da. Autonomia horren oinarria, kodifikazioan dago: estandarraren oinarrian, hizkuntz maila guztietako deskribapen sakona behar da, baina deskribapen hori, normatibizazioaren lehengaia dugu. Normatibizazioa eta estandarra ezinbestean loturik daude.

Guztiz garatutako estandarretan araua hizkuntzaren alderdi guztietara iristen da: ebakera, ortografia, morfologia, sintaxia eta lexikoaz gaindi, erregistro eta estilo zehatzetara iristen da (Ammon, 1987:387). Arautzea, ez da modu berean egiten maila guztietan, noski. Ortografia, ezinbestean izan ohi da modu hertsienean araututakoa, baina ez dago hizkuntzaren alderdirik araugintzatik salbuesten denik.

Baina, esan dugun bezala, norbaitek —horretarako agintea duena izan arren— araua aldarrikatzeak ez du automatikoki estandarra eragiten. Arauaren onarpen soziala ezinbestekoa da. Hiztunek araua erabiltzen dutenean, ez soilik betetzeko, baizik eta arau horretaz baliatuaz betetzen ez dutenen jokaera zuzentzeko, orduan esan daiteke aldaera estandar bat ezarria dagoela.

Estandarra zeharo garatuta dagoela esan ahal izateko, ezinbestekoa izango da horretarako izendatutako aldaera gizarte horretako kide gehien-gehien bigarren hizkuntza gutxienez izatea.

Baina, esan bezalako estandarrak ez dira, hurrik eman ere, ugarietak. Lehen, adibide prototipikoenak ematearren, Europako estatu nagusietako hizkuntza ofizialak aipatu ditugu, baina ez dira hor amaitzen estandar finkatuak. Asian batez ere, hainbat kasutan ongi garatutako estandarrak dauzkaten hizkuntzak aurkitzen ditugu. Alabaina, gehiago dira estandarizazio prozesuetan, hau da, estandarrik ez dagoen egoeratik estandar bat gutxienez dagoen egoerara igarotzeko prozesuetan, murgildutakoak.

Prozesu horiek zertan dautzan deskribatzeko, oso onartua dago Haugenek 1966an argitaratutako «Dialect, language, nation» (*American Anthropologist*, 68, 922-35) artikuluan egindako prozesuen azalpena, Hudsonen (1996:32) bere egiten duena. Horein arabera, lau eragiketa-multzo nagusi behar izaten dira burututako estandarizazioz hitz egin ahal izateko, eta ondorioz, prozesu horien garatze-mailak erakusten du estandarizazioa zertan dagoen. Eragiketa horiek dira: a) hautaketa (*selection*), b) kodegintza (*codification*), c) funtzioen elaborazioa (*elaboration of function*) eta d) onarpena (*acceptance*). Ikus dezagun, gainera bada ere, zer diren:

- **a) Hautaketa.**

Horrek esan nahi du modu batean edo bestean, hizkuntz aldaera bat hautatua izan dela hizkuntza estandar gisa garatzeko. Hautaketa hori nola gertatzen den, nork, zeren artean, kasuistika aberats baten gaia izan daiteke. Maiz gertatu izan da hiri garrantzitsu batean, hizkuntz komunitate baten gune politiko eta ekonomiko nagusia denean, mintzatzen den aldaera hautatzea. Hori izango litzateke Londresko ingelesarekin, Parisko frantsesarekin edo Bartzelonako katalanarekin gertatutakoa. Beste batzuetan, arrazoi kulturalengatik prestigio berezia eskuratu duen dialektoa (Toscanako Florentziako italiara) aukeratzen da, edo hainbat dialektoren amalgama izatea, euskararen kasuan hautatu dena (Zuazo Zelaieta, 1988:370). Edozelan ere, hautaketa horrek mailaketa bat ezartzen du, aldaera bat hierarkikoki besteen gainetik ezartzen baita (Fairclough, 1993: 3247).

- **b) Kodegintza.**

Ezinbestekoa da kodea(k) lantzea eta egitea. Kodetzeak esan nahi du gramatikak eta hiztegiak ontzea, hautatutako aldaeraren arauak eta hitzak zein diren argi egon dadin. Nor den kodea osatzeko esku duen agintaria, aniztasunaren eredia da. Badira, gure inguruko hizkuntza erromantzeetan bezala, berariaz horretarako sortutako akademiak: Academia de la Crusca, (1582), Académie Française (1634), Real Academia Española (1713). Badira itzal handiko pertsonalitateak, hala nola Samuel Johnson Ingalaterran, Josef Dobrovsky

Txekoslovakian edo Pompeu Fabra Katalunian. Kodetze-maila minimoa lortu ezean estandarrik gabeko hizkuntza dela esango dugu.

- **c) Funtzioen elaborazioa.**

Horrek esan nahi du berariazko jarduera dagoela estandarra gizarte horretako zenbait arlotan erabil dadin zuzenduta. Arlo nagusitzat jotzen dira gobernu, administrazioa, hezkuntza, komunikabideak, produkzioa edo izkribu zientifikoak. Eragiketa horiek hizkuntzazkoak (hiztegi espezializatuak, formulak) eta hizkuntzaz kanpokoak (dauden baliabide lingustikoen erabilerarako konbentzio berriak) izan daitezke. Ikusiko dugun bezala, teknika eta zientzietako hizkera berezien garapena gaurko egunean guztiz lotuta dago estandar baten benetako ezarkuntzari.

- **d) Onarpena.**

Hautaturiko eta kodetutako aldaerak hizkuntz komunitatearen biztanle gehienek onarpen finkoa jaso behar du. Onarpen horrek normalean esan nahi du hizkuntzaren aldaera hori 'hizkuntza nazionalizat' begiesten dela. Begibistakoa da oso onarpen maila desberdina lor dezakeela estatu bateko hizkuntza ofizial bakarrak (egon daitezkeen beste hizkuntzen lehiaren beldurrik ez delarik, Frantzian bezala) esate baterako, eta elebitasuneko edo eleaniztasuneko kasu ugarietan aurkitzen diren beste hizkuntzak. Hizkuntza estandarren onarpena, guztiz lotuta dago, betiere, funtzio sinbolikoarekin. Naziotzat onartuak izan nahi duten komunitateek historikoki ahalegin handiak egin dituzte estandar propio baten jabe agertzeko; hainbat kasutan, hizkuntza batek eskain zezakeen ahalmen komunikazionala murriztearen truke bada ere.

Lau prozesu horien burutze-graduaren arabera esan daiteke estandarizazioa aurreratuta edo atzeratuta dagoen. Alabaina, hizkuntz komunitateak, estatuak, historia kulturalak, idazkeraren funtzioak, dialektoen arteko ulergarritasuna/ ulertezintasuna bezalako parametro desberdinak jokoan daudelarik, oso esanahi desberdina dauka estandarizazioak kasu batean edo bestean. Pentsatzea besterik ez dago Txinako kasuan non aspaldidaniko estatu zentralizatu batean idazkera bakarrari esker elkar uler dezaketeen ahoz gutiz ulertezinak diren aldaeretako hitzunez (Haugen, 1993:4341).

Europaz kanpoko adibideak alde batera utzita, estandarizazio prozesu berrietan, askotan bederen, konstante bat da idatzizkoaren kodetzeari, eta idatzizko kodearen erabilerari ematen zaiola lehentasuna. Idatziak oraingo gizarteetan duen garrantzia kontuan harturik, ahozkoaren estandarizazioa gerorako uztea bidezkoa ikusten da, nahiz eta erabateko estandarizazioa duten hizkuntzetan estandarrik hizkuntzaren gauzatze guztietara iristen diren.

Azpimarratu nahi genuke estandarra ez dela inolaz ere nahasi behar

hizkuntza-maila batekin edo erregistro batekin. Erabilera formaletarako aukeratzen dena estandarra izateak ez du inondik ere esan nahi estandarrak maila bakarra duenik ez eta, egoera jakin batzuetan bakarrik aukeratzen den aldaera denik. Estandarra guztiz garatuta duten gizarteetan, populazioaren zati handi batek estandarra baizik ez du erabiltzen egoera guztietan (Wardhaugh, 1992:45).

#### 1.4.- Erregistroak eta gaiaz espezializatuko hizkerak

Ikusi dugun bezala, nahiko onartuta dago soziolinguisten artean zeinahi izanda ere egiten den banaketa, aldaera-multzo nagusien artean *erregistroa* ipintzea ematea. Baina hemen ere, aztertu beharrekoa da zer den zehazki hitz horren barruan sartzen dena (hiztuna, norekin, nola, zertaz...)

Izan ere, hitz hau esanahi ugariarekin erabiltzen da, Biber eta Finegan-ek, (1994:4), (1994:50) erakusten duten bezala. Badira adigai horren ikuspegi guztiz murrizta ematen dutenak, esate baterako Wardhaugh (1992:65), zeinak formaltasun-mailarekin bakarrik lotzen baititu erregistroak.

Hedadura hori murrizten dutenen artean, beste hainbatek *erregistro* eta gaiaz berezitako hizkera edo espezialitateko hizkera berdintzat ematen dituzte. Horrela, *Longman Dictionary of Language Teaching and Applied Linguistics*, (1992:242) zeinetan '*register*' modu honetan definitzen baita: "*speech variety used by a particular group of people. usually sharing the same occupation (...) or the same interests (...)*". Alegia, berdindu egiten dira *erregistroaren* esanahia eta orain arte haren hiponimotzat hartu dugun arloaren araberako edo berezitasuneko hizkera. Modu beretsuko kontzeptzioan aurki daiteke Trudgillengan (1985:5 Chapter) zeinak okupazioari, lanbideari edo gaiari loturiko hizkuntzaren aldaerak *register* izendatzen baitutu

Baina Biber eta Finegan-ek, (1994:50) dioten bezala, nahiko modu orokorrean erabiltzen da *erregistro* hitza unean uneko hizkuntz erabilerarekin erlazionatutako aldaera adierazteko, erabiltzailearen "berezko" ezaugarriak adierazten duen *aldiera dialektalari* oposatuaz. Horrela jokatzen dute besteak beste Hallidayk (1985), Gregory eta Carroll-ek (1986), Montgomeryk (1985) Biberek (1994) Fergusonek eta adigai horren balioa arbuiatuz Hudsonnek (1992) ere.

Erregistroak sorrarazten dituzten hizketa-egoerak beren artean zertan desberdintzen diren azaltzeko oso ezaguna da John Pearcek proposaturiko parametro-hirukotea, Hallidayk bereganatutakoa (1982:48), eta bai Gregory eta Carroll-ek (1983:23), bai Montgomeryk (1995:105-135) eta baita Duartekek (1990:99) ere, beren aldetik errepikatzen dutena.

Hiru parametrook, *arloa (field)*, *tonua (tenor)* eta *modua (mode)* izendatu ohi dira.

Diskurtsoaren *arloa*, hiztunaren (edo idazlearen) komunikazio-helburuen ondorioa da, hau da, zertaz ari den, hizketaren bidez zein esperientzia transmititzen duen, hizketaren bidez zer gertatzen ari den; horrek denak, barnean hartzen du, noski, hizketaldiaren gaia eta tema (Gregory eta Carroll, 1983:23). Autore hauexek diotenez, ingelesa bezalako hizkuntza bateko errealizazioak diskurtsoaren arloen arabera sailkatzeko, hasiera-hasierako desberdintze bat egin daiteke ingeles teknikoaren eta ez-teknikoaren artean; esan nahi baita, helburuak halako moduan determinatutakoa non gai batera murriztua geratzen den (esate baterako matematiketako ingelesa, zuzenbideko ingelesa, linguistikako ingelesa ) eta hain mugatuak ez diren erabilerak.

*Tonua (tenor)* hizketa-egoeran gertatzen den erroren egiturari, hau da, hizketaldian parte hartzen duten erlazio sozialki esanguratsuen multzoari dagokio. Bertan sartzen dira hala parte-hartzaileen atributu iraunkorrak nola egoerarako aukeratutako errol espezifikoak. Formaltasuna, edo informaltasuna, erlazio pertsonalak, edo galdetzaile-, erantzule-, informatzaile-, arbuizatzaile-paperak dira tonua markatzen dutenak.

*Moduak*, komunikazioa nola ekoizten, transmititzen eta jasotzen den hartzen du kontuan. Moduak, lehenik, ahozkotasunari edo idatzizkotasunari egiten dio erreferentzia, baina askozaz xeheago ere aztertzen da: ozenki edo ahopeka hitz egitea, edo idazterakoan aukera daitezkeen aldagai eta modu guztiak sar baitaitezke hemen.

Hiru parametroen eredia nahiko zabalduz badago ere, ez dira falta bestelakoak, esate baterako Cabré (1992:67) proposatzen duena, eredu hari parametro bat gehitzen diona. Kataluniar irakaslearen arabera, aldaera funtzionalak edo *erregistroak*, ondoko lau irizpide hauetako bat edo gehiagoren bidez sailka daitezke: a) informazioa jaulkitzeko erabiltzen den kanala (ahozkoa, idatzizkoa); b) tratatzen den gaia (orokorra, berezia); c) komunikazioaren helburua (informazioa ematea, balioestea, eragina izatea, argudioak ematea...); eta d) hizketakideen arteko formaltasun-maila eta abstrakzio-maila (formala/informala, abstraktua/ gutxiago abstraktua). Lamuelak (1983:55-56) bere aldetik, bostetan banatzen ditu parametro horiek: diskurtsoaren arloa, diskurtsoan inplikaturiko pertsonen egotzitako paperen adierazpena, diskurtsoaren forma, diskurtsoaren estandartasuna eta diskurtsoaren funtzioa.

Badira, halaber, gai hori sakontasun bereziaz landu, eta beste ereduak proposatzen dituztenak, adibidez, Biber (1994:40-41) zeinak aldagetak eragiten dituzten zazpi egoera-parametro proposatzen baititu:

*"I.- Communicative Characteristics of participants; II.- Relations Between addressor and addressee; III.- Setting; IV.- Channel; V.- Relation of participants to the Text; VI.- Purposes, Intents and Goals; VII.- Topic/ Subject."*

Erregistroak baldintzatzen dituzten parametroak ezin dira hartu bakoitza erregistro banaren determinatzaile balira bezala. Alderantziz, parametro haiek arlo baten (edo gehiagoren), tonu baten eta modu baten bateratzeak ematen digu erregistro bakoitza. Edo Lamuelak (1983:55) proposatzen duen gisara esanda: erregistro bakoitza une berean hainbat parametrotan kokatzen da, eta parametro partikular bakoitzaren eragina diskurtsoaren karakterizatze linguistikoan era desberdinekoa izaten da. Guri, komunikazio-egoerarekin erlazionatutako zertzelada linguistikoak interesatzen zaizkigu.

Oso argigarria da Hudsonek (1995:47) erregistroen analisi multidimentsionalaren beharraz ari delarik proposatutako adibidea zeinetan erakusten baita teknikotasuna parametro-mota bati dagokiola, eta formaltasuna beste bati; eta bien konbinazioaz hainbat erregistro desberdin lor daitezkeela:

*"The dimension of formality is totally independent of the dimension of technicality, so four combinations of formality with technicality can be illustrated by the following perfectly normal sentences:*

<i>formal, technical</i>	<i>"We obtained some sodium chloride"</i>
<i>formal, non technical</i>	<i>"We obtained some salt"</i>
<i>informal, technical</i>	<i>"We got some sodium chloride"</i>
<i>informal, non technical</i>	<i>"We got some salt"</i>

Hudson-en adibide xume horrek oso argi erakusten du gaiak berezitako hizkeretan mailak edo erregistroak bereiz daitezkeela, aurrerago azalduko dugun bezala.

Erregistroak sorrarazten dituzten parametroen artean bada bat da guri bereziki interesatzen zaiguna: arloarena. Izan ere, arloarekin lotu ohi da berezitasuneko hizkeren ezaugarri nagusia: gaia. Hona aldatuko ditugu Duarteren (1990-99) hitzak, oso zehazki adierazten baitute ideia hori:

*"Dins de la classificació de les varietats de la llengua, situem òbviament els llenguatges d'especialitat entre les varietats funcionals. De fet els llenguatges d'especialitat es componen de registres diversos aglutinats per una unitat de camp temàtic."*

Duarterena ez da, ordea, puntu horretan ideia berritzaile edo bakartua: aurretik modu beretsuan aritu ziren Gregory eta Carroll (1983:25), eta Haensch (1983:11), eta geroago argitaratutako liburuan, Montgomery (1995:107) ikuspegi horrek soziolinguistikan duen hedadura eta onarpenaren lekuko baitira.

Lamuelaren (1983:57) aburuz, berriz, *hizkera sektorialak (llenguatge sectorial)* ezin dira besterik gabe erregistro soiltzat eman, zeren eta gehienetan haien inguruan eztabaidatzen dena, terminologia bereziki, askoz lotuagoa dago denotazioaren zehaztasunari, erabilera-egoera batean edo bestean izan ditzakeen efektuari baino.

Irizpide bati helduaz egin daitezkeen sailkapenak ez dira inoiz iristen errealitatean gertatzen diren fenomeno guztien berri ematera. Aldaeren paradigma, askok arbuaiatua, baliagarria izan badaiteke ere, ez da inondik ere nahikoa tratatzen ari garen hizkuntzaren gauzatze-moduen azalpen osoa emateko. Esate baterako, aldaera funtzionaltzat ematen ditugun erregistroek une berean aldaera sozial gisa joka dezakete, eta kasu asko aipa daitezke zeinetan dialekto geografikoek aldaera funtzionalaren funtzioa betetzen duten.

Irizpide bakarraren zurruntasunak dakartzan gehiegikeriak salatzen ditu Calvo Ramosek (1993:37), Haensch-en teknolektoaren karakterizazioaz ari dela, esanaz teknolektoaren eta soziolektoaren bereizkuntza gehiegizkoa dela. Izan ere, Haensch-ek *teknolekto* edo *llengua d'especialitat* idatzizko errealizazioa, erabat bereizten du soziolektotik, hau da, giza talde soziologiko batek garatzen duen *parlar professional* edo lanbide-hizkeretatik.

Bestelako iritzia agertzen du Hoffmannek (1987a:299) ez baitu kontraesanik ikusten alde batetik gaia dela hizkera berezien bereizgarri baieztatu ondoren soziolinguistikaren ikuspegitik soziolektoak direla aldezteko.

## 1.5.- Laburbilduz

Ikusi dugun bezala, *aldaera* adigaiak soziolinguisten artean erabateko adostasunik lortzen ez badu ere, uste dugu aldaeran oinarritutako ikuspegia lagungarri dela gaiaz berezitako hizkerak kokatzeko orduan.

Aldaeraren eredia onartzen duen soziolinguistikaren ikuspegitik, gaiaz berezitako hizkerak *erregistroen* artean sartu ohi dira. *Erregistro* adigaia, modu desberdinetan uler badaiteke ere, baliagarri izan daiteke gaiaren sarrera moduan. Baina soziolinguistikaren kezka nagusiak ez dira inola ere hizkuntza garatuetako erregistroen azterketara zuzendu. Izan ere, erregistro-aldaeren inguruko ikerkuntza-ahaleginen jomugak hasieran maizago bideratu dira (Biber & Finegan, 1994b:4) antropologia linguistikoaren eskutik<sup>6</sup>, mendebaldarrak ez diren kulturak aztertzeraz. Geroago, Ferguson (1968), Gumperz (1971), eta Halliday (1982) bezalako soziolinguistek aztertu zituzten gizarte-egoeretan eta komunikazio-erabileretan zehar gertatzen diren hizkuntza-aldakuntzak. 1975. urteetatik aurrera,

---

<sup>6</sup>Boas, Sapir, Malinowski, Whorf, Bloomfield eta Fith, esate baterako.



Chambersek, Trudgillek (1985), Labovek(1978) edo Fischer-ek jarraitu dituzte ikerkuntzak, baina interes guneak gehienetan gizarte-taldeetan egon dira: urrutiko hizkuntz komunitateetatik hirietako talde sozialen dialektotara pasa badira, soziolinguistikak ez du arreta berezirik ipini erregistroek, bere zabaltasunean eskain dezaketen ikerkuntzan.

## 2.- LSPen IKERTZAILEEN HURBILPENA

Ikusi dugu soziolinguistikak halako kokapen bat, nahiko eztabaidatua bada ere, ematen digula, baina esan behar da, hizkeren artean, gaiak berezitakoak ez direla izaten zientzia horren ikergaien erdigunekoak.

Beste aldetik, soziolinguistikaren ekarpenak, berak eskain dezakeen markoa eta interesguneak ez dira hizkera berezien inguruan sortzen diren galdera guztiei erantzuna emateko modukoak.

Baina soziolinguistikaren ondoan, badago hainbat lan teoriko eta praktiko egina gaitzat harturik oro har *LSP* (Languages for Special/ Specific Purposes) izendapenez ezagutzen den hizkuntz fenomeno. Ondorengo orrietan zehaztuko dugunez, diziplina horrek aurretik duen historia ez da baztertzekoa, baina, esan beharra dago hizkera bereziena oso garapen berriko ikergunea dela, eztabaidak maiz ugariagoak direla adostasuneko puntuak baino, eta izateko arrazoia ere, askok ukatzen diotela.

Ondoren, ikus dezagun nola planteatzen diren gauzak berariaz *LSP*, *lengua de especialidad*, *lengua especifica*... tratatzen dutenen artean. Hemen, alderdi soziolinguistikoak ahortzi gabe, beste batzuekin (funtzioa, komunikazioa, gaia) konbinatuz hartzen dira kontuan eta helburu praktikoak nagusitzen dira: *LSP*en irakaskuntza, lexikografia (terminologia), deskribapen linguistikoekin batera.

### 2.1.- LSParen definizio batzuk

Ondoren, *LSP* izendatzen den adigaiari hurbiltzeko, gure eskumenean <sup>7</sup> dauzkagun *LSP*en munduko autore adierazgarrienen lanetan jasotako hainbat definizio aztertu eta konparatuko ditugu.

Hortaz, jadanik 20 urte dituen, baina egunorokotasunik galdu ez duen J.C. Sager et al.-en lan klasikotik<sup>8</sup> abiaturretik, gaurko egunera arteko autore nagusien

---

<sup>7</sup> Irakur ditzakegun hizkuntzetara mugatuak baikaude, alemanezko eta errusierazko lanak ezin kontsultaturik.

lanetan eta baita hiztegi eta erakunde jakin batzuetan jaso daitezkeen definizio batzuk biltzen, eta haien arteko elementu komunak zein diren zedarritzen saiatu gara. Gure aukerak, *LSPen* mundura ikuspegi gehienbat linguistikotik, —linguistika bere zentzurik zabalenean harturik— hurbildu diren eskola eta joera anitzetako ikertzaileengana joango dira. Argi dugu, bide hau aukeratuta, oinarriztat hartuko ditugun autoreen hautua egiterakoan, oso garrantzitsuak diren, baina hain ezagunak ez diren hainbat ekarpen alde batera uzteko arriskua hartzen dugula.

Interesgarria iruditu zaigu, autore ezagun horiez gainera, daukaten itzalarengatik, beste definizio edo aurkezpen pare bat hona ekartzea, bata *Longman Dictionary of Language Teaching and Applied Linguistics* (1992), hizkuntzalaritza aplikatuko hiztegikoa, eta bestea, berriz DIN, normalizazio-erakundearena.

Has gaitzen, esan bezala, Sager et al.-ek (1980:69 et passim) hainbat aldiz errepikatzen duten definizioa hona ekarriaz:

*"Special languages are semi-autonomous, complex semiotic system based on and derived from general language; their use presupposes special education and is restricted to communication among specialists in the same or closely related fields".*

Bigarrena, Günther Haensch alemaniar lexikografoak katalanez argitaratutako artikulu batetik (1983:13-14) jaso dugu:

*"El tecnolecte és una llengua funcional dependent de la llengua general. un mitjà de comunicació entre especialistes. (...) Aleshores podem dir que el tecnolecte és un conjunt específic de recursos lèxics i morfosintàctics disponibles que es realitza en un context determinat sobre una determinada matèria, però també amb una finalitat específica des del punt de vista de l'emissor del missatge".*

Hirugarrenik ikus dezagun Hoffmannek<sup>9</sup> (1987b:658) bere hainbat artikulutan errepikatzen duen *LSPen* definizio-karakterizazioa:

*"A complete set of linguistic phenomena occurring within a definite sphere of communication and limited by specific intentions of its users, topics and conditions."*

<sup>8</sup> Ingeleseaz urte askotan egon den monografia zabal eta orokor bakarrak (Schröder 1991:3) alegia, Sager J C.; Dungworth D; eta McDonald P. F.ren *English Special Languages* liburua ezinbesteko erreferentzia gertatzen da kontsultatu ditugun autore gehienentzat.

<sup>9</sup> Garai bateko Ekialdeko Alemanian aritu zen ikertzaile ospetsua alboraezinezko erreferentzia bihurtu da; ziurrenik berau da, ingelesez argitaratutako hainbat lani esker, gehienetarik aipatzen den egilea *LSPei* dagokien edozein ikergai dela eta.

Kocourek<sup>10</sup>-ena da laugarrena. Ikertzaile honek bere lanean definiziorik eman nahi ez duela dirudien arren, espezialitateko hizkerei buruzko kapitulua laburbilduz, (1991: 42) "*definition récapitulative*" dela ohartaraziaz, deskribapen definitzaile hau ematen du:

*“La langue de spécialité est une variété de langue, à dominante cognitive, - dont les textes, cumulatifs, d’émotivité, de subjectivité et de métaphoricité contrôlées, et délimités de manière externe, ont pour but de signifier et de communiquer, au sein d’une collectivité restreinte, le contenu thématique, raisonné et circonstancié, - et dont les ressources, qui sous-tendent ces textes sur tous les plans linguistiques, sont marquées par des caractères graphiques, par des tendances syntaxiques et, surtout, par un ensemble rapidement renouvelable des unités lexicales qui requièrent, et reçoivent dans les textes, une précision sémantique métalinguistique.”*

Cabrérena<sup>11</sup> da hona dakargun bosgarren definizioa. *La terminología . La teoria els mètods les aplicacions* liburuan, LSPen definizioa zehatza ematetik ihes egiten badu ere, aski adierazgarria da ematen duen (1992:129) azalpen hau:

*“En aquest treball utilitzen el terme llenguatges d’especialitat o llenguatges especialitzats en el sentit de subconjunts del llenguatge general caracteritzats pragmàticament per tres variables: la temàtica, els usuaris i les situacions de comunicació.”*

Ikertzaile ezagunetan seigarren eta azken dakartzagun hauek Leratenak (1995a) dira. Uste dugunez osagarri direla, biak paratu ditugu elkarren ondoan:

*“La notion de langue spécialisée est plus pragmatique: c’est une langue naturelle considérée en tant que vecteur de connaissances spécialisées”.* (1995:20)

*On peut donc la définir comme l’usage d’une langue naturelle pour rendre compte techniquement des connaissances spécialisées.* (1995:21)

Ondoren, eta zazpigarren, terminologiaren munduan autoritate handikoa den DIN normalizazio-erakundearena; honela dio:

“El lenguaje especializado es el área de la lengua que aspira a una comunicación unívoca y libre de contradicciones en un área *específica*

<sup>10</sup> Ratislav Kocourek-ek Kanadan ikertzen duen txekiarrak frantsesez idatzi eta 1982an argitaratutako *La langue française de la science et de la technique* monografia, mundu frankofonoan ospe handiena lortu duena dela esan daiteke, eta oso entzute handikoa izan zen 1980ko hamarraldian euskal terminologiagintzaren munduan. 1991ko argitalpena, guk erabili duguna, funtsean 1982koaren berredizio osatua eta eguneratua da.

<sup>11</sup> Kataluniar terminologo eta lexikologoa, aurretik aski ezaguna bazen ere, *La terminología. La teoría, els mètodes, les aplicacions* liburuarekin, ingelesera itzuli ondoren lortutako mundu zabaleko itzalak ona ekartzea ezinbestekoa egiten du.

*determinada y cuyo funcionamiento encuentra un soporte decisivo en la terminología establecida*". DIN 2342 (Arntz, Picht, 1995:28

Zortzigarren eta azken, Longman delako hiztegitik, bi definizio desberdin, bata *Language for Special or Specific Purposes* sarrerari dagokio eta honela dio:

*"languages used for particular and restricted types of communication (...) and which contain lexical, grammatical, and other linguistic features which are different from ordinary language" (1992:204),*

eta bestea, *Special Language* sarrerari, oso argi geratzen ez delarik bi adigai desberdinez ari den ala ez:

*" a term used for the varieties of language used by specialists in writing about their subject matter, such as the language used in botany, law, nuclear physics or linguistics. The study of special languages includes the study of terminology (...) and (...) register (1992:342 )*

Garai eta eskola desberdinetako autore horien artean, ohi den bezala, ikuspegiak eta definizio-moduak zeharo bestelakoak direlarik, oso puntu desberdinak azpimarratzen badira ere, uste dugu, artez edo zeharka ateratzen direla hainbat alderdi komun; ondoko lerroetan saiatuko gara horiek azaltzen.

Definizio horietan guztietan agertzen da *hizkuntza, hizkuntza natural, edo hizkuntza orokor* adigaia, denetan adigai hori izanik hizkera bereziaren erreferentzia nagusia. Hona definizioetako esapideak:

'semi autonomous...based on and derived from general language'[Sager],  
'llengua funcional dependent de la llengua general'[Haensch]  
[...linguistic means used in...][Hoffmann],  
'varieté de langue' [Kocourek],  
'subconjunts del llenguatge general' [Cabré],  
langue naturelle considérée en tant que vecteur de connaissances spécialisées' 'area de la lengua'[DIN],  
'languages used for..[Longman].'

Ondorengo puntuan aztertzeke utziko dugu azpimultzoaren teoriari buruzko eztabaida, baina argi geratzen da autore horiek *LSP*az ari direlarik, hizkuntza formalak edo artifizialak alde batera uzten dituztela.

Denen adostasuna egiten duen bigarren puntua komunikazio-funtzioarena da. Hona ideia hori dakarten hitzak:

- communication..[Longman]
- to communication among specialists [Sager]
- un mitjà de comunicació [Haensch]
- used in a sphere of comunicacion '[Hoffmann]
- ont pour but de signifier et de communiquer' [Kocourek]
- les situations de comunicació [Cabré]
- rendre compte [Lerat]
- comunicación unívoca y libre [DIN]

Leratek 'communication' hitza erabiltzen ez badu ere, ez dugu uste arazorik dagoenik '*pour rendre compte*' haren baliokide hurbiltzat hartzeko.

*Komunikazio* adigai hori, oso modu zabalean ulertzen da.

Gai edo ezagutza espezializatuarena da definizio guztien adostasuna lortzen duen hirugarren ideia, oso modu desberdinetan formulatuta badago ere:

- for particular and restricted among specialists in the same or closely related fields [Sager]
- sobre una determinada materia [Haensch]
- on a restricted subject' [Hoffmann]
- le contenu thématique' [Kocourek]
- la temàtica [Cabrè]
- vecteur de connaissances spécialisées [Lerat]
- en un área específica determinada' [DIN]

Eta azkenik, hainbatzen formulazioetan espresuki, beste batzuetan ez hain argi, agertzen da espezialitate-hizkera ikasketa bereziei loturiko goi-mailako erabilera dela, gehienbat idatziz garatzen dena:

- special education [Sager]
- entre especialistas [Haensch]
- specialists in writing: botany. law, nuclear physics... [Longman]
- à dominante cognitive ... communauté restreinte [Kocourek]
- connaissances spécialisées [Lerat]

Zortzi definizio horien puntu komunak laburbilduz ondoriozta dezakegu espezialitate-hizkeraz edo *LSP*az ari diren autore horiek hizkuntza naturalaren barruko zerbaitez ari direla, hizkuntza naturalaren erabilera edo aldaera horren funtzio nagusia komunikazioarena dela, bere ezaugarria gai bereziei buruzko edukiak transmititzea dela, eta gehienentzat, halako ezagutza edo espezializazio maila jaso eskatzen diela erabiltzaileei.

## 2.2.- Diziplinaren izenaz

Gai honi hurbiltzerakoan, bibliografia aukeratzeko unean, esate baterako, edo jaso ditugun definizioetan, lehenik aurkitzen dugun arazoa da nola deitzen den gaia bera, nahiko nahasmendua baitago. Nahasmena, bi planotan dago adigaiarenean eta terminologiarenean. Ez dago batasunik ez batari ez besteari buruz, eta ez dago ziur jakiterik, autore bakoitzaren lanetan murgildu ezean, izenburu beraren barruan gai bera edo izen desberdinen estalpean gauza bera aurkituko dugun.

Neurri batean arazoa arindu diguna da hizkuntza ingelesa, onerako eta gaitzerako, arlo guztietan lortzen ari den nagusitasunari eta *lingua franca* izaerari esker, ikerkuntza munduan, beste hizkuntzetan ere erabiltzen den izendapen-estalki bat, badagoela. Guk geuk ere erabiltzen dugun *LSP*.

Izendapen hori ikusteak, hein batean, bideratzen gaitu, nahiz eta, esan bezala, izenaren atzean zer aurkituko dugun nahiko igarrezina izan.

Baina arazoa arindu egiten bada ere, inolaz ere ez garbitu. Azter dezagun hizkuntza desberdinetan, aurreko puntuan definizio bidez mugatzen saiatu garen adigaiarentzat agertzen diren izendapenak.

### 2.2.1.- Hizkuntzaz hizkuntza

- **Ingeleseaz.**

Ingeleseazko *LSP* siglek lortua dute jadanik neurri bateko unibertsaltasuna (Beaugrande, 1987, Picht eta Draskau, 1985) nahiz eta sigla horren azpiko sintagmak '*Language for Special Purposes*' edo '*Language for Specific Purposes*' irakurketetako zeini dagokion beti argi egon ez.

Dena den, *LSP* sigla zabalduena bada ere, ingelesez 'special language' (SL) ere erabiltzen da (Varantola, 1986), baita siglaziorik gabeko 'special subject languages' izendapena (Sager, Dungworth eta McDonald (1980) eta Special English (SE).

Glotodidaktikaren teorian eta praktikan ia erabateko adostasuna ikusten dugun *LSP* edo ESP (English for Special Purposes) erabiltzerakoan, nahiz eta '*Vocational English*', '*Job-specific English*', eta '*English for Academic Purposes*' eta '*English for Business and Economics*' bezalako izendapen espezifikokoak ere erabiltzen diren.

Frantsesezko eta katalanerazko lanetan nahiko zabalpen handiz erabiltzen dira sigla horiek: frantsesez *Lsp* formarekin, maiz '*langue de spécialité*' irakurtzen delarik, eta katalaneraz *LSP* sigla '*llenguatge de especialitat*' irakurketarekin.

- **Frantsesez**

Hainbat autoreengan izendapenaren inguruko gogoeta sakonak ere aurkitzen dira, terminologi arazo horri indar erabakigarria edo aitortuaz. Honela, esate baterako Rondeau (1984) '*langue de spécialité*' erabiltzearen aldeko azaltzen da, aurreko lanetan erabilitako '*langues spécialisés*' terminoa kritikapean jarriaz, haren aburuz aldaeren autonomia edota independentziaren idea ematen duelako. Baina autore berak bere lanetan zehar *Lsp* sigla, ere, termino neutroa bailitzan, erabiltzen du.

Alderantzizko bidea egin du Leratek (1995a:19) hain zuzen ere, aurreko liburu batean erabilitako *langage du droit* kritikapean jartzen baitu, bidenabar *langue de spécialité* ere kritikatuaz, eta *langue spécialisée* hobetsiaz. Leratek ingelesezko *language for special purposes* izendapena, bere anbiguotasunean onargarria dela gehitzen du.

Kocourek (1991) ere izendapen kontu honi hainbat orri eskaintzen dio, bere hautua orokorrean *Langue de specialité*-ren alde doalarik, baina bere liburuaren ikergunetzat, izenburuak dioen *Langue française de la technique et de la science* hartzen du.

Beste hainbat autoretan, Alain Rey (1976), Gaudin (1995) "*langues de spécialités*" pluralezko aldaera hobesten da, eta ez dira falta *technolecte* izendapena, bakarrik, edo beste batzuekin nahasian erabiltzen dutenak.

- **Katalanez**

Katalanari dagokionez, Haenschen (1983) artikulua, Bartzelonako *Revista de Llengua i Dret* aldizkariaren lehen alean, itzal handikoa izan zen. Bertan, *tecnolecte* hitza kontsokratzen du, erabateko bereizkuntza markatuaz aldaera funtzionalak diren *llengua d'especialitat* eta soziolektoak diren *llengua especial*-en artean. Baina ezin daiteke esan, ez adigaien definizioan ez terminologian, geroztik inolako batasuna egon denik

Horrela, Cabréren lanean gehien bat *llengua d'especialitat* eta *llenguatge d'especialitat* erabiltzen da; bere aldetik Marik (1988) *llenguatge d'especialitat* aukeratzen du, baina horren sinonimo edo azalpentzat jotzen ditu *LSP, Languages for Special Purposes*, edo *llenguatges per a propòsits específics*'. Aipatutako Lamuelaren 1986ko artikuluan '*llenguatge sectorial*' izendapena hobesten da, eta Marquet i Ferigle-ren 1995ko liburuan, hizkera zientifiko eta teknikoak *llengua d'especialitat* zein *llenguatge d'especialitat* direla dio.

- **Espainieraz**

Izendapen kontu honi berariaz lotutako artikulua batean Calvo Ramosek (1993) dioenez, gehien bat *tecnolecto, lengua especial, eta lengua funcional* izendapenak erabili izan dira.

Martin J et al.-en 1996ko liburuan, izenbururako aukeratzen da *lenguajes especiales* izendapena, ondoren, arloz arlo, izen-adjektibo espezifikoz (*lenguaje juridico-administrativo, lenguaje técnico*) bakoitza izendatzen duelarik.

Gutierrez Rodillak (1998:16) hizkera zientifikoaz onduko liburuan, gutxitan aipatzen ditu beste izendapen zabalagoak, baina testuan zehar *tecnolecto* haren sinonimotzat ematen du, noizean behin ere, *lengua de especialidad* eta *lenguaje de especialidad* ere erabiltzen dituelarik.

Martin Zorraquinok, (1997 318) berriz, *lenguaje sectorial* erabiltzen du, baina ez berezitasuneko hizkeraren adigaia izendatzeko, zeren *lenguas especiales* adigaiari askoz esanahi zabalagoa ematen baitio, aipatutako sektore-hizkerekin batera, *hizkera teknikoak* eta *argotak* ere bertan sartuaz.

- **Alemanez**

Badirudi alemanez ez dela, terminologiari dagokionez, dispertsio handirik gertatzen. Izan ere, *Fachsprache* hitza, aho batez ez bada ere, oso modu orokorrean erabiltzen dute hizkuntza horretako idazleek. Hitz elkartu horrek, osagaien arteko erlazio semantikorik ez zehaztea da, agian, arazoa saihestea erraztu duena; ziurrenik denek ez lukete onartuko *Sprache im Fach* interpretazio funtzionalista. Termino horretatik eratorritako esapideak dira *Fachsprachenforschung*, *Fachsprachen linguistik*. Badabilen beste terminoa, 'jasoagoa' eta erabiltzaileen joera linguistikoa argitanago jartzen duena da *Technolekt*

Gainetik bada ere egin dugun errepasso horretan egiaztatu dugunez, ez dago adostasunik izendapenetan, ez eta, jakina, ondoren aztertuko dugunez, adigaietan. Ikertzaile batzuek izendapenaren zehaztasunari garrantzi handia ematen badiote ere, ez da hori praktika orokorra, eta gero eta gehiago ugaritzen ari da *LSP* siglaren erabilera, bai ingelesez idatzitako lanen proportzia gehitzen ari delako, bai hizkuntza desberdinetako hainbat autorek izendapen neutrotzat hori erabiltzen dutelako.

### 2.2.2.- Arazo terminologikoak hizkuntza erromanikoetan: *lengua/lenguaje*, *llengua/ llenguatge*, *langue/langage*

Aurrerago jo baino lehen, ohar terminologiko xume bat egin nahi genuke aztertzen ari garen mundu honen deskribapenean hala euskaraz nola hizkuntza erromanikoetan gertatzen den hitz-nahastura bati buruz.

Izan ere, lan honetarako erabili ditugun hizkuntza erromanikoetako testuetan ia salbuespenik gabe agertzen da hitz-bikote bat, arazo handirik sortu ez, baina zebait kasutan nahasgarri gerta daitekeena, bereziki erreferentziak euskaratzekoan. Frantsesezko *langue du droit/ langage du droit/ langage juridique*, hirukoteak erakusten duena, edo gaztelaniazko *lengua/ lenguaje*, italierazko *lingua/ linguaccio* nahiz katalanezko *llengua/ llenguatge* bikoteez ari gara, itxuraz hizkuntza denetan joko berdintsua ahalbideratzen dutenak.



Gure eskarmentuak erakusten digenez, lau hizkuntza horietan bikoteak korrelatiboak dira, eta batetik besterako itzulpenetan ia modu automatikoan jotzen da ES *lengua* = FR *langue* = CA *llengua* = IT *lingua*, eta ES *lenguaje* = FR *langage* = CA *llenguatge* = IT *linguaccio* berdintasunak egitera.

Esan bezala, horrelako hitz-pareak ez dira hizkuntza guztietan gertatzen, izan ere, ingelesezko *language* hitzak, *speech*, *tongue*, *pattern* eta beste erdisinonimoren baten konkurrentzia badu eta alemanezko *Sprache* hitzak ere, *Sprachbau*-en edo metahizkuntzan *sprachliches System*-en konkurrentzia badu ere, guri dagokigun arloan, hizkuntza horiek ez dute erromantzeen bikoiztasun arazo hau, honela planteatuta, bederen, ezagutzen.

Arazo terminologiko honetan geratu bagara izan da euskaraz ere, beste erdisinonimoak (*lengoaia*, *mintzaira*) alde batera utzita, hizkuntza erromanikoen antzeko jokia egiten duen pare: *hizkuntza* / *hizkera* badugulako, eta haietatiko itzulpenak egitean zenbateraino den pertinentea hizkuntza erromanikoetako hitz-parearen oposizioa, eta zein erlaziotan dauden bi bikote-pareek garbitu nahiko genukeelako.

Horretaz, aipatutako hizkuntza erromaniko bakoitzeko hiztegi batzuek gainera, espezialitateko hizkerez arduratu diren autore batzuen jokabideak, hitz horien erabilerari dagokionez, aztertzen saiatuko gara.

### 2.2.2.1.- Hiztegietan

Begiratu ditugun gaztelaniazko hiztegiek<sup>12</sup> erakusten dutenez, hitz pare horrek, baditu puntuz puntu hitz berekin definitzen diren adierak; esate baterako, DRAEn irakurtzen dugun: *LENGUA 2. "Sistema de comunicación y expresión verbal propio de un pueblo o nación, o común a varios."* eta *LENGUAJE 2. "Sistema de comunicación y expresión verbal propio de un pueblo o nación, o común a varios"*.

Gure gaiari gehien lotzen zaizkien adieretara jotzen badugu, DRAEk berak *LENGUA* hitzaren 5 zenbakiko adieran dioena: "*Vocabulario y gramática peculiares de una época, de un escritor o de un grupo social*" oso zehatza ez bada ere, nahiko ondo egokitzen zaio gure gaiari; zertxobait zehatzagoa da *LENGUAJE* sarreraren 3. adierakoa: "*Manera de expresarse: LENGUAJE culto, grosero, sencillo, técnico, forense, vulgar*".

Balirudike bigarren honek gehixeago bideratuko lukeela espainieraz *lenguaje* hitza erabiltzera berezitasuneko hizkerei dagokienez. Baina gaztelaniazko *Gran Diccionario Laroussek* bere 6. adieran dio: *LENGUA. 6:*

“*Manera característica de hablar o escribir de una época, de un autor o de una profesión: la lengua de Quevedo, la lengua de los médicos.*”

Frantsesezko hiztegietan ere<sup>13</sup>, nabarmena da hitz horien espainierazko erabilerarekiko korrespondentzia ia adiera guztietan. On-line kontsultaturiko 1999ko hiztegi batean<sup>14</sup> gatzelaniazkoetan baino argiago da berezitasuneko hizkerari dagokien adieran ere ia bete-betean sinonimoak direla *langue/ langage* hitzak. Hona hiztegi horrek dioena: LANGUE 2. *Forme parlée ou écrite du langage propre à un milieu, à une profession, à un individu, etc. Langue savante, poétique. La langue de Rabelais.* Eta LANGAGE sarrerako 4. adieran: *Manière de s'exprimer propre à un ensemble social donné, à un individu, etc. Langage de la rue, langage soutenu, langage technique.*

Italierak ere berdintsu jokatzen du *Il Grande Dizionario Garzanti della lingua italiana*-k erakusten duenez: *Lingua . 8. il modo particolare de esprimersi di un ambiente, di un arte di una scienza: linguaggio: —letteraria, popolare, la —medica, giuridica.* eta *Linguaggio* sarreraren 3. adieran, berriz: *modo particolare o individuale di esprimersi, spec. con riferimento a un uso determinato della lingua, alla lingua di un certo ambiente sociale e professionale (...)* — *letterario, scientifico, filosofico, burocratico sportivo (...)* i *linguaggi settoriali (...)*. Oso berdintsuak dira *Il Dizionario della Lingua Italiana*-n irakur daitezkeenak.

Katalanezko hiztegi klasikoetan<sup>15</sup> adierak eta erabilerak beste hizkuntza erromanikoen oso antzekoak direla egiztatu ahal izan dugu, baina katalanezko on-line hiztegi batean<sup>16</sup> aurkitu dugu bi hitzen (*llengua/ llenguatge*) adieren arteko oposiziorik markatuena: *LLENGUA* sarreraren adiera linguistikoen artean batek ere ez du biderik ematen berezitasunari dagokion adjektibo bat ipintzeko; aldiz, *LLENGUATGE* sarreraren 3. adierak *3 Vocabulari i fraseologia propis d'un art, d'una branca de la ciència, etc. El llenguatge de la química:* bete-betean egokitzen zaio espezialitateko hizkerari.

Jarrera preskriptiboagoa sumatzen zaion katalanezko azken honek izan ezik, hizkuntza horietako hiztegi orokorrek erakusten dutenez, ezin esan daiteke bikoteok orokor/ berezi oposizioa markatzeko bide garbia ematen dutenik.

Bere aldetik Lazaro Carreter-ek (1971:251), *Diccionario de terminos filologicos*-delakoan ez du *lengua*-ren eta *lenguaje*-ren arteko ezberdintasunik

<sup>12</sup> *DRAE*, (1992), Maria Moliner (1990), Manuel Seco et al (1999), *Gran Diccionario de la lengua española . Larousse* (1996).

<sup>13</sup> *Grand Larousse de la Langue Francaise, Le petit Robert*

<sup>14</sup> <http://www.francophonie.hachette-livre.fr>

<sup>15</sup> *Pompeu Fabra, Diccionari de la Llengua Catalana*

<sup>16</sup> <http://www.grec.net/cgibin/lexicx.pgm> *Gran diccionari de la llengua catalana*

markatzen, eta esate baterako, 'jerga' hitza definitzen, berdin esaten du *lengua especial* eta *lenguaje profesional*.

### 2.2.2.2.- Erabileran

Begira dezagun, gaingiroki bada ere, berezitasuneko hizkerak gaitzat harturik idatzi izan duten egile batzuek nola jokatzen duten.

Hizkuntza barruko aldaeren taxonomiaz Calvo Ramosek (1993) egindako azterketan, ez du haintzat hartzen *lengua / lenguaje* oposizioa, eta haren erabileran, ez dirudi bereizketarik ikus daitekeenez.

Gutierrez Rodillak (1998:22) oro har, izenburutik hasita, *lenguaje* hitza erabiltzen du berezitasunezkoari dagokionean, eta *lengua*, berriz, nahiko modu sistematikoan hizkuntza orokorrari edo naturalari dagokionean; jokaera bera suma daiteke Martin J, et al. (1996) liburuan. Nahiko zabaldurik ikusten dugu joera hori espainieraz aritzen diren beste egile batzuen artean, hala nola Martin Zorraquinorengan (1997) edo Alvarengan (1993) baina salbuespenak ugariak izaten dira.

Zuzenbideko hizkeraz aritu direnen artean, Martin Martin J (1991), Hernández Gil (1989), Iturralde (1989), edo Caballero Bonald (1993) joera nagusia, zuzenbidezkoaz aritzerakoan, *lenguaje* hitza erabiltzearen aldekoa izaten da, baina esan behar da, hainbatetan, bi hitzen arteko aurkaritza lausotuta geratzen dela hizkuntza orokorraz ari direla ere hitz berberaz izendatzen dutelako Badenes Gasset (1973).

Frantsesez aurkitzen dugu dagokigun puntuari buruzko erabilera bereziena, eta gainera berariaz azaldutako gogoeta batean oinarrituta. Leratek 1995ako *Les langues spécialisées* liburuan esplizituki kritikatzten du beraren aurreko jokabidea esanez *langage du droit* esapidea aukeratzen zuela lehen, baina hautu horrekin, azaleko diferentziak, alegia arkaismoak edo fraseologietakoak nabarmentzera mugatzen zela. Orain, berriz, uste du *langue spécialisée* dela izendapenik abantailatsuen hizkuntzaren batasuna argi uzten duelako.

Horrelako azalpenik egin ez<sup>17</sup>, baina ia hutsik gabe, Kocourek (1991:10) izenburutik hasita, erabiltzen du *langue* hitza; bere sisteman, *langage* hitza hizkuntza naturaletik kanpo dauden sistema semiotikoak izendatzeko soilik

<sup>17</sup> "Nous supposerons que l'expression langue(s) de spécialité(s) ou langue(s) spécialisée(s) peut normalement être jugée comparable, souvent équivalente aux expressions suivantes: Fachsprache (Hoffmann '85:53) ou Fachsprachen (Fluck '85), special languages (Sager et al. '80; Hüllen, '81) et, dans une certaine mesure, language for special (specific) purposes (Mackay et Mountford edd. '78:iii.2-66; P Robinson '80:3" (Kocourek 1991:10)

erabiltzen delako. Bide beretik jotzen dute Phal-en (1969) edo Condamines eta Rebeyrolle-ren (1997) artikuluek.

Zuzenbideko hizkeraz aritu direnen artean, badira bi hitzon erabilera puntu honetan banatzen saiatu direnak. Honela Silance-k (1991:160), «Langage juridique et langue usuelle» izenburuko artikuluan, zuzenbideko hizkera hizkuntza arruntetik berezi nahian, *langue/langage* bi hitzen esanahien arteko diferentziak markatzen ditu<sup>18</sup> baina artikuluko bereko 146. orrialdean<sup>19</sup>, beste idazleen artean gertatzen den bezala, biak berdintzen ditu.

Hizkera juridikoaz tratatzen duten egile frankofono gehientsuenetan, Silancek defendatzen duen bezalako erabilera dago: *langage du droit* erabiltzen du Jestaz-ek (1991), *Le langage du Droit* da Sourieux eta Lerat-en liburuaren (1975) izenburua, Ingber eta Vassart-enaren (1991) berbera. Dominicyk (1991) beste askok bezala, *langage du droit* idazten du ia sistematikoki, nahiz eta orri berean *langue de spécialité* jarri. Gauza bera irakur dezakegu Woodlandengan (1991) edo Dessemonteten (1981) lanean.

Beraz, esan daiteke autore gehientsuenak saiatzen direla '*langage du droit*' eta ez '*langue du droit*' esapidea erabiltzen. Baina hala ere ezin dugu baieztatu hori erabateko jokabidea denik, zeren eta, pisu handiko salbuespenak baitaude. *Langue du droit* izendapena erabiltzen dute besteak beste: Gémarek eta Vo Ho-Thuy-k (1990) *bere Difficultés de la langue du droit au Canada* liburuaren izenburuan bertan, Groffierek, (1990) "*La langue du droit*", monografia osoan bezala, *langue/langage* bikotea, guztiz sinonimoak bailiran erabiltzen duelarik.

Aipatutako Gémarek, (1991) «Terminologie, langue et discours juridiques. Sens et signification du langage du droit» artikuluan berdin idazten du *langue juridique*-az (275 or.), *langue de spécialité*-az (277 or.) eta *langage*

<sup>18</sup>«Enfin, et par la suite, langage peut être synonyme de langue, autrefois dans tous les cas. Actuellement, dans ce sens, langage ne se dit plus guère que du langage des peuples civilisés ou des manières de parler spéciales comme l'argot, qui n'ont pas la fixité et la régularité des grandes langues de culture. Au contraire, langage s'emploie fréquemment par opposition à langue pour distinguer la fonction de s'exprimer par la parole en général : tel système linguistique fixé dans une société donnée. C'est ainsi que l'on oppose à la question de l'origine du langage (dans l'humanité) celle de l'origine de telle ou telle langue comme le français ou l'anglais. La langue est le système d'expression verbale de la pensée comportant un vocabulaire et une grammaire définis, relativement fixes, constituant une institution sociale durable, qui s'impose aux habitants d'un pays et demeure presque complètement indépendante de leur volonté. Nous pensons par conséquent pouvoir opposer le langage juridique, qui est un lien entre tous les juristes sans doute dans le monde entier, à la langue usuelle.» (Silance (1991:160)

<sup>19</sup>«Ces exemples montrent une certaine distorsion entre le langage courant et le langage juridique. Certaines expressions, certains mots utilisés dans la langue courante n'ont pas le même sens dans le langage juridique.» (Silance 1991:146)

*scientifique*-az (278 or.), inolako bereizketarik egin gabe *langue eta langage* hitzen esanahi zein erabileran.

Berezitasunezko hizkera gaitzat hartzen duten katalan egileen artean ez dago jokabide bakarrik. Horrela, Marquet i Feriglek (1997) edo Rierak (1994) egiten duten bezala, beste autore batzuek ere, modu sistematikoan erabiltzen dute *llengua/ llenguatge* oposizioa, bigarren hitz hori idatziaz berezitasunezko hizkerari dagokion guztietan. Beste batzuek, ordea, hala nola Haenschek (1983) edo Cabrék (1992) ez dute aukera zurrunik egiten. Haenschen lanean maiz irakur daiteke *llengua d'especialitat o tecnolecte*, eta Cabréren liburu nagusian, atalburu batean *Llengua general i llengua d'especialitat* irakurtzen dugu, eta hurrengoan, *Llenguatges artificials i llenguatges d'especialitat*. Dena den, Cabrék gehienetan *llenguatge* aukeratzen du berezitasunezkoak izendatzekoan.

Beste jokabidea ikus daiteke Duarte-ren lanetan (1984, 1990), izan ere, gai honi dedikatutako «Els llenguatges d'especialitat» artikulu osoan, eta irakurri dizkiogun gainerako lanetan, nahiko sistematikoki erabiltzen du *llenguatge* hitza berezitasuneko denean, eta *llengua* sistema linguistikoari dagokionean. Administrazio eta zuzenbide-munduko hizkeraz katalanez gehien idatzi dutenen artean Lamuelaren (1983), Mari i Mayansen (1988), Arbósen (1992), edo Badia i Margariten (1983) lanetan jokabide berbera ageri da.

### 2.2.2.3.- Laburbilduz

Begiratutako lau hizkuntzetako laginetan oso antzeko kasuak eta jokabideak daudelarik, esan daiteke hizkuntzok oro har ez dutela biderik ematen bikoteko hitz bakoitzaren adiera edo erabilera desberdinak taxuz finkatzeko, eta maiz gertatzen den bezala, autore, autore-talde, korrante, edo eskolaren arabera hitzen arteko oposizioari funtzionalitatearen bat egotz dakiokela, edo batere ez.

Hortaz, egileari edo eta testuinguruari begiratu beharko diogu kasu bakoitzean ziurtatu ahal izateko autorearen aukera lexikoak pertinentzia semantikorik baduenentz.

### 2.2.3.- Arazo terminologikoa euskaraz: hizkuntza / hizkera.

Euskarak badu horren antzera jokatzen duen bikote bat: *hizkuntza/ hizkera* hitzek osatzen dutena. Gure ustez, ordea, hitz horien erabilera ez da inguruko hizkuntza erromanikoen isla hutsa, eta badu bere historia eta oraingo erabilera propioa. Begira dezagun, gaingiroki bada ere, orain arte egin dugun bezala, zer erakusten duten hala hiztegiek nola testuek.

### 2.2.3.1.- Hiztegietan

- **Orotariko Euskal Hiztegia**

*HIZKERA* ♦ 1. Lengua, lenguaje | Habla, dialecto | Modo de hablar; estilo (de escribir) 2. Locución, modismo..'

*HIZKUNTZA* ♦ 1. Lengua; lenguaje. «Lengua, idioma» Lar y Añ. «Habla, lenguaje» Añ | Modo de hablar | Habla, dialecto ; conversación, modismo

OEHN ikus daitekeenez, ez dirudi euskal tradizioak bide argirik ematen duenik *hizkuntza* eta *hizkera* hitzen esanahia eta erabilera muga batez bereizteko; hala ere, badirudi HIZKUNTZAren lehen adieraren (lengua, idioma) adibideak ugariago direla esanahi bereko HIZKERARENak baino, eta alderantziz, gehiago direla HIZKERA hitzak modua adierazten duenekoak.

- **Sarasola, 1997**

*HIZKERA* 1. G.g.er. Hizkuntza 2. Hizkuntza bat hitz egiteko era.

*HIZKUNTZA* 1. Giza talde batek elkarrekin komunikatzeko duen hitzezko adierazpidea. 2. Hitzen bidezko adierazpide honetaz formaren aldetik egiten den erabilera. (...) hizkuntza mailak. Kultura hizkuntza, Literatura hizkuntza, Herri hizkuntza, Kale hizkuntza

HIZKERAREN lehen adieran agertzen den gaurko erabilera urriari buruzko oharra, OEHNko gurea berresten du; bigarren adierak eta HIZKUNTZAren bigarrenak ere, hitz horien sinonimia garbi uzten dute.

- **Elhuyar, 1996**

*HIZKERA* 1. Modo, forma de hablar, modo de expresión 2. Modo de hablar la lengua, modalidad lingüística, variedad lingüística, lenguaje

*HIZKUNTZA* 1. Lengua, lenguaje, idioma. 4. Lenguaje, modo de expresión.

Hiztegi elebidun honetan, HIZKERARI OEHN eta Sarasolaren hiztegian ematen zaion lehen adiera (“*idioma*”) ia desagertu egiten da, baina beste adierako sinonimia nabarmena da.

- **Euskalterm**

HIZKERA hitzak fitxa gutxi ditu, eta horietatik 3 sarrera bakarrik: *h*.

*formal lagunarteko h.ta berezko h.* gure ustez hizkuntza gauzatzeko modua edo erregistro bezala sailkatuko lirakeenak.

HIZKUNTZA hitza, aldiz fitxa ugariren osagaia da. Horietatik kenduz gero hizkuntza-sistema edo hizkuntza naturalari dagozkionak (*oil h., iturburu-h.*), hainbat ditugu gure aztergaiarekin lotzen direnak: *h. tekniko, h. funtzional, h. jaso, elkarrizketa-h* etab. Badira, zuzenean gure galderari erantzuten diotenak esate baterako: *Xede berezietarako hizkuntza*, eta *hizkuntza funtzional*. Bigarren fitxa horretan bien baliokidetzat adierazten da, honela:

*Definizioa* "Xede berezietarako hizkuntza; zientzietako, teknikako, ekonomiako, etab. etako hizkuntza, alegia." Beste hizkuntzetako baliokideetan LSP siglak ematen dira.

### 2.2.3.2.- Espezialitate-hizkeraz idatzi direnak

Gai hauek tratatu dituztenen artean batzuek (Sagarna, 1988, Mendiguren Bereziartu, 1996) *hizkuntza* hitza erabiltzen dute, hala hitz-elkartean nola izenondoaren aurretik: *zientzia-hizkuntza, hizkuntza teknikoa* (Sagarna, 1988:130), *hizkuntza berezia, hizkuntza zientifikoa* (Mendiguren Bereziartu, 1996), *hizkuntza teknikoa* (Zabala, 1996); *hizkuntza tekniko-zientifikoa* (Ensuntza, 1997: 763). Beste batzuek, aldiz, ez dute zurruntasun lexikorik puntu honetan, honela, Perez Gazteluk (1995), hainbat kasutan *hizkera* hitza erabili ondoren, ("Mitxelenak darabilen hizkera"), "*Eginkizun Berezietarako Hizkuntza*" esamoldez itzultzen du ingelesezko *Language for Special Purposes*

Hala ere, esango genuke maizago aurkitzen dela *hizkera* hitza berezitasuna adierazten duen beste izenondo edo izen bati loturik doanean: Agirrebalzategi (1976, 1981, 1985) Makazaga (1996) *hizkera teknikoa*; medikuntzako hizkerari buruz idatzi duten Manjonek (1996) eta Ugarteburuk (1997), *hizkera berezi, medikuntzaren hizkera* idatzi izan dute.

Zuzenbidekoa, edo administraziokoa berezitasunezko hizkera denean, oro har *hizkera* izendapena jasotzen duela esan daiteke. Horrela Barambones eta González-en (1994) artikuluan, *hizkera juridikoa*, Carlos del Olmok (1994): *lege-hizkera*, Olaizolak (1997: 129-146), eta oro har, IVAPen azken argitalpen nagusietan: Erkoreka eta Lozano (koord), (1994), Lozano (koord.), 1997.

Bengoetxeak (1993) bere unibertsitate mailako eskuliburuan, *hizkera juridikoarekin batera*, beste autoreetan aurkitu ez dugun *lengoaia juridikoa* esapidea erabiltzen du.

Zuzenbideko hizkerari buruz gehien idatzi duen idazleak, Andrés Urrutiak, bere artikulu eta liburuetan, sistematikoki *hizkera juridikoa*, *zuzenbideko hizkera* esapideak erabiltzen ditu, nahiz eta sistematikotasun horrek ez duen baztertzen noizean behinkako besteen agerpena.

Dena den, uste baino adibide gutxiago aurkitu ditugu; izan ere, oso lan gutxitan aztertzen baita gaia modu orokorrean. Topatu ditugun artikulu gehienetan, euskara izanik tratatzen den hizkuntza, askoz ugariago da *euskara* hitzarekin moldatutako esapidea: *euskara teknikoa*, *euskara juridikoa*, *espezialitateko euskara*.

### 2.2.3.3. Gure aukera

Oso zaila izango litzateke, arakatu ditugun lanetako erabileran oinarrituaz, erabateko ondorioak ateratzea. Izan ere, gai hori ukitzen duten euskal testuetan zalantza handiak ageri baitira bi hitzen artean guri interesatzen zaizkigun adierei dagokienez.

Bestalde, Euskaltermeko fitxa gehienei kasu eginez gero, eta bereziki *hizkuntza funtzional* edo *xede bereziatarako hizkuntza* fitxei, hautua *hizkuntza* hitzaren aldekoa izan beharko lukeela dirudi, baina gurea alderantzizkoa izango da.

Alde batetik, gure ustez, euskal tradizio idatziak, OEHn eta Sarasolaren hiztegian jasota azaltzen den bezala, oinarri batzuk ematen dizkigu *hizkera* hitza hobesteko hizkuntza baten aldaera edo modu partikularrari deitzeko: dialektoa, aldaera lokala, aldaera soziala, edo berezitasunari loturikoa izan, eta *hizkuntza* hitza, hizkuntza naturala, edo beste edozein komunikazio-sistema izendatzeko.

Beste aldetik, uste dugu mundu juridikoan eta administrazioarenean landu dela gehien hizkera berezien gaia azken urteotan, eta arlo horietan, oro har gertatzen denaren alderantziz, dudarik gabe baieztatu daiteke *hizkera* dela hitzik usua arlo horietako hizkuntzaren erabilera adierazteko. Horixe adierazten dute ikusitako adibideek.

Saiatuko gara gure erabileran jarraipide horri eusten, eta orobat, nahasbidea duten hizkuntzetako aipamenak egiten ditugunean kontuan hartzen. Izan ere, beste erroak baditu ere, oro har, euskaraz *hizkera/hizkuntza* bikoteak, hizkuntza erromanikoetako *langue/langage* parearen antzeko jokoak ematen baitu testu askotan.

Gure aukera horren arabera, bada, itzulpenean ari garelarik, hizkuntza erromanikoren bateko egileak ohartuki bereizketa bat egin nahi duela nabarmen ez denean, *langue/langage*; *lengua/lenguaje*; *llengua/ llenguatge*;



*lingua/linguaccio* bikoteetako edozein hitz erabiltzen duelarik, guk euskal kodera bihurtuko dugu modu honetan: *hizkuntza* = *hizkuntza naturala, sistema orokorra*, eta *hizkera* = hizkuntza baten modu partikularra.

Hautu horrek ez gaitu lotzen nahitaez soziolinguistikan *aldaera eremuan* oinarritutako teoria onartzera, eta, ez genuke, noski zalantza handirik izango, denborarekin erabilera baten edo besteren orokortzeak beste zerbait aginduko balu gure aukera aldatzeko.

### 2.3.- *LSPei* buruzko ikerketen eboluzio historikoa eta ikergaiak

Ezaguera edo eginkizun bereziko giza taldeen hizkerek zerbait berezia dutelako zantzua edo ideia aspaldikoa da, Platon eta Aristotelesen baitan aurkitzen baitira horren inguruko gogoetak, eta antzinatean egin izan dira hizkera espezialetako lexikoaren bilketa-lanak. Baina ikerkuntzaren gai berezi bezala, esan daiteke XIX. mendearen bukaeran aurkitzen direla bereriaz horretara emandako lehen lanak. Hala ere, 1920 eta 1930eko hamarraldietara arte joan behar dugu *LSPei* buruzko ikerlanen aurrekari sendoa aurkitzeko. Garai haietan badira hainbat ikerkuntza terminologiko, orokorrak alde batetik, eta merkataritzako hizkerari buruzkoak bestetik (Hoffmann, 1987b:659). Ordukoak dira estilistika funtzionalaren ildotik Pragako eskolako hizkuntzalariek egindako lanak. Esan daiteke harrezkero jadanik bi korrante nagusi bereiz daitezkeela *LSPen* ikerkuntzaren munduan: terminologiari gehienbat begiratzen diona eta funtzionalitateari garrantzi handiagoa ematen diona.

*LSPen* inguruko ikerkuntzaren garapen kronologikoari buruz, Schröder-ek (1991:9) dioen bezala, *LSPen* hiru garai historiko nagusi bereiz daitezke:

- Lexikoari begira dagoen aldia, zeinetan *LSPei* buruzko ikerkuntza batez ere terminologiara mugatua den, eta *hizkera espezial* adigaia hiztegi espezializatuari lotutako zerbait den.
- Morfosintaxia interesgunez duen aldia. Ikergunearen zabalpen bat gertatzen da, eta maila lexiko hutsetik perpaus mailara igarotzen da: *LSPen* ezaugarri nagusiak sintaxiaren mailan bilatzen dira.
- Testuari begiratzen dion aldia. Aldi honetan testu espeziala bera denez abiapuntua, *LSPen* inguruko ikerkuntzak testualizazioaren maila guztiak aztertu nahi ditu, pragmatikarena, eta linguistikaz kanpokoak barne.

Aldikatze horren adierazpen bezala interesgarri deritzogu Schröder-ek (1991:23) dakarren Lehmann-en 1988ko *Kleine Bibliographie fachsprachlicher Untersuchungen* artikulu eta monografiak bibliografian egiten duen sailkatzea. Schröder-enetik hartutako ondoko taulak (1.) erakusten duenez, 1965 eta 1986 arteko *LSPei* buruzko ikerkuntza-argitalpenetan espezialitateko testuen analisisan

ikergaitzat hartzen den hizkuntz maila nabarmenki aldatu egin da<sup>20</sup>, lexikoarenetik testu osoarenera (Weber 1982:219). Dena den, nabarmena bada ere nolako hazkundera hartu duen *LSP*enganako hurbilpen testualak, lexikoan eta terminologian oinarritutakoak garrantzia handia gorde du, hainbat alderditatik bera agertzen delarik ikusgarriena (Varantola, 1986:12).

Maila linguistikoa	1965-69	1975-79	1980-86
lexikoa	%44	%32	%30
sintaktikoa	% 9	%13	%14
testuala	%4	%35	%43

1. taula: *LSP*ei buruzko interes-aldiak Schröder-en arabera

Azken bi hamarraldietan, *LSP*en inguruko ikerkuntzak garapen handia izan du, eta nahiz eta 1970-1980ko aldian lortutako ospea zertxobait apaldu den, ikergaien eta ikuspegiaren arloak ugaritu egin dira aurreko taulak erakusten duenez. Geroko eboluzioak gure ustez berretsi du Hoffmannek<sup>21</sup> (1984:36) egiten zuen igarpena esanaz *LSP*etako testuen alderdi funtzionalak eta oro har testulinguistikak ikertzen dituenak izango zirela nagusi.

Beste aldetik, azpimarratzeko da nola aldatu den *LSP*en inguruko interesgunea terminologiaren ingurutik didaktikaren arlora. Hain da garrantzitsua alderdi hori non hainbat aldizkaritan *LSP* sigla hizkera espezializatuen irakaskuntzari lotuta ulertzen baita.

Azpimarratzekoa da *LSP*en inguruko ikerkuntza oso kontinentala dela lurraldez, Estatu Batuen eta mundu anglosaxoiaren nagusitasuna agertzen ez delarik, eta Europako Erdi-Ekialdekoagoa mendebalekoa baino gehiago. Izan ere, alemanek eta errusiarrek lideratu dituzte (Schröder, 1991: 24) ikerkuntza-lerro nagusiak, txekiarrak ere punta-puntan ibili direlarik, nahiz eta Frantzia-Quebec-ekoek ere ekarpen handiak egin dituzten. Hizkuntzei dagokienez, alemana, errusiera, frantsesa, ingelesa eta suediera dira geheien erabili direnak, nahiz eta azken urte hauetan, jatorri guztietako ikertzaileen lanak ingelesez irakur daitezkeen.

<sup>20</sup>Horren lekukotasun bat ematen digu Rondeau-k (1979:75) dioenean: "*La très grande majorité des travaux portant sur les Lsp de même que sur les terminologies couvre presque exclusivement l'aspect lexical de ces langues*"

<sup>21</sup>"*LSP research has emancipated itself from one-sided views, either lexicological or stylistic, paradigmatic or functional. It strives for a synthesis of competence and performance, of language system and communication. The future path is already indicated by slogans like 'language-in-function', which is easily replaced by 'sublanguage-in-function', and 'text linguistics', which reads in our case 'the linguistic analysis of special texts in their respective communicational frames'.*" (Hoffmann, 1984: 36)

*LSP*en ikerkuntza, hertsiki lotuta joaten da hizkuntzalaritza aplikatuko hainbat arlorekin. Horien artean azpimarratzekoak dira, aipatutako soziolinguistika, psikolinguistika, hizkuntza arrotzen irakaskuntza terminologia eta terminografia, hizkuntzalaritza kontrastiboa eta itzulpengintzaren teoria. Gure aldetik, lan honetan zehar azken hiru arloetatik egindako hurbilpenak izango ditugu kontuan gehienbat.

### 3.- *LSP*en IZAERA LINGUISTIKOAZ

Definizioen bidez gure ikergaiaren lerro nagusiak marraztu ondoren, ikus dezagun zer esan izan duten autore ezagunenek espezialiteko hizkeren edo testuen izaera linguistikoari buruz.

#### 3.1.- Izaera desberdin eta autonomia azpimarratzen dutenak

Mende honetako, hogeigarren eta hogeitamargarren urteetan hizkera berezien ikerkuntzan eta teorizazioan aurrelari izan zen Pragako Eskolaren garaian, hizkuntza 'arruntaren' eta hizkuntza 'berezien' arteko erabateko etena markatu nahi izan zen, hizkuntzako arau orokorrak espezialitateko hizkerari ezin zitzaizkiela aplikatu esatera iritxi arte (Gotti,1991:1). Horrelako kontzepzioek bizitza luzea izan dute. Autore italiarrak dakarren Bares-en (1972) aipua<sup>22</sup> horrela egiaztatzen du: haren arabera maila linguistiko guztietan aurki daitezke diferentziak, hala kualitatiboak, nola koantitatiboak.

Bide horretatik lan ugari lerratzen dira; gogora ekarriko dugu lehenago aipatu dugun *Longman* hiztegiko definizioa non argi eta garbi esaten den hizkera horiek badauzkatela zertzelada lexikoak, gramatikalak eta hizkuntzaren beste alderdietakoak ere, hizkuntza arruntekoekiko (*ordinary*) desberdinak direnak.

*LSP*en azterketa Wüster-en terminologiaren ikuspegitik —beraz, terminoaren eta hitzaren arteko oposizioan oinarrituaz— egiten dutenen artean, *LSP*en autonomia azpimarratu ohi da hizkuntza orokorrekiko. Horrela, terminologian oinarritzko eskuliburua izan den Picht eta Draskau-ren (1985:11) *Terminology: an Introduction* lanean nabarmentzen dira *LSP*en autonomia eta oposizio hori, beti ere, azpimarratuaz hizkuntza komunaren esistentzia ez dela arriskutan jartzen eta espezialitateko hizkuntza konkretuak desagertu egin daitezkeela.

<sup>22</sup> *Differences between technical English and current English can be found at all linguistic levels, and they manifest themselves in a different way both qualitatively and quantitatively.* Bares (1972:129)

Horien aburuz, Goffin-i (1991:139) jarraiki, teknolektoek hizkuntza orokorrarekiko desberdina den sistema bat osatzen dute, eta harengandik bereizten dira lexiko terminologikoa daukatelako, motibatua eta gardena omen dena, erakuntza semantiko bereziaren jabe direlako, taxonomia zerrendatzaileen itxura gehiago duena, beren ezaugarri morfo-sintagmatikoak bereziak direlako eta berariazko eraikuntza sintaktikoak ere badituztelako.

### 3.2.- LSPak azpiahizkuntzak direla diotenak

Ikusi ditugun LSPen definizio edo deskribapenen artean, hainbat oinarritzen dira *aldaera* edo *azpisistema* adigaiari, LSPen maila bateko autonomia linguistikoa azpimarratuaz.

Aurreko hurbilpen soziolinguistikoan bezala, hizkuntzaren sistema kontsidera daiteke diasistema-multzo batez osatua, zeinetan, hainbat parametroren arabera azpi-sistema, edo azpi-hizkuntza (*sublanguages*, *sous-languages*, *sous-systèmes*) berezi ahal izango genituzkeen. Horren arabera, hizkera bereziek, hizkuntzaren azpi-multzoren kontsiderazioa izango lukete.

Azpihizkuntza terminoa ez da berria, izan ere, estilistika funtzionalaren korranteak erabili izan du termino hori, baina Hoffmannek dioenez (1987b:658), korrante hark konnotazio soziolinguistiko indartsuz —linguistikoz baino areago— horniturik erabili zuen termino hori. LSPen ikertzaileen artean Hoffmannek eman dio bultzadarik handiena azpihizkuntzen teoriari. Honela definitzen du espezialitateko azpihizkuntza:

*"In our understanding of sublanguages a sublanguage is a subsystem of language which is actualized in the texts of specific spheres of communication"* (Hoffmann, 1987b:659).

Eta hortik eratorritako definizioa da gorago ikusitakoa (supra 2.1) non azpimarratzen den era guztietako gertakizun linguistikoek (*a complete set of linguistic phenomena*) osatzen dutela espezialitateko hizkera. Horren arabera, Hoffmannen azpihizkuntzen teoria ez da mugatzen testuen eta testu-osagaien analisi mikrolinguistikora; alderantziz, alderdi pragmatikoak ere kontuan hartzen ditu, izan ere, izaki estralinguistikoei (bereziki edukiei) erreferentzia egin ezean ez dago azpihizkera horien azterketa osoa aurrera eramaterik.

Hoffmannen bide beretsutik jo dute beste ikertzaile askok, esate baterako Sager et al.-ek (1980:63, 65), lehen partean garatu dugun soziolinguisten ikuspegia bereganatuaz, azpimarratzen dutenean dialektoetatik eta soziolektoetatik bereizten diren *azpihizkuntza mota* batzuk direla, eta hizketa-komunitate baten ezagueraren banakeran oinarritutakoak direla.

Gure ustez, gauza beretsua egiten du Kocourekek dioenean: "*Il semble évident qu'un découpage quelconque en variétés, en sous-ensembles de la langue est nécessaire.*" (1991:14) eta aurrerago zehazten duenean "*Ce n'est qu'un changement d'accent que de parler de la langue de spécialité tout en soulignant qu'il ne s'agit que d'une variété, d'une sous-langue de la langue tout entière.*" edo Cabrék lehen ikusitako definizio-azalpenean baieztatzen duenean *LSP*ak hizkuntza orokorraren azpiahizkuntzat hartuko dituela bere lanean.

Eskola berekoa ez bada ere, Haenschek (1983:12) ildo horretatik doazen planteamenduak egiten ditu. Nahiz eta zehazteko orduan argi uzten duen '*teknolektoak*' ez direla sistema linguistiko independenteak, baizik eta hizkuntza komuneko errealizazio linguistiko batzuen batura, beste pasarte batzuetan, irmoki azpimarratzen du kontraposizioa. Horrela, bai erabiltzen duen nomenklaturak non *dialecte, sociolecte, tecnolecte* hitzen jokoak adierazten duen antzeko autonomia linguistikoa ematen zaiela batzuei eta besteei, bai aldaerak eta hizkuntza komuna irudikatzen egin duen taulak (Haensch (83:12) aditzera ematen dute independentzia-maila garaia.

Ikusitako autoreek, eta beste zenbaitek, hala nola (Schröder-ek, 1991:5) Rondeauk (1983:26) Gutierrez Rodillak (1998:22), Duarte (1990), edo Lamuelak (1983) *LSP*en izaera azaltzeko azpiahizkuntza (*sublanguage, sous-langue*) hitzaren erabili izateak ez du esan nahi guztiak teoria berean oinarritzen direnik, are gutxiago ondorio beretara iristen direnik. Hainbatengan, azalpen-modu eroso bat besterik ez da; beste batzuek, Hoffmannek bereziki, ikusi dugunez, ikerkuntza-ildotzat hartu dute, baina badira adore handiaz aurkatzen dutenak.

### 3.3.- Azpiahizkuntza adigaiaren kritika.

Azpimultzoen, azpisisitemen edo azpiahizkuntzen adigaiak, ikusi dugun bezala, ez du adostasuna bereganatzen *LSP*en ikerkuntzan aritu direnen artean. Ikuspegi kritikoak aspaldikoak dira, eta badirudi eztabaida ez dela alde batera edo bestera makurtu. Azpisisitemaren adigaiak sozilinguistikak jorratutako *aldaerarekin* loturak dituenek, gogora ekarriko ditugu Hudsonen egindako kritikak; baina azpiahizkuntza adigaiaren balioaren ukoa, gehienetan hizkuntzalaritza teorikotik edo deskriptibotik datozen ikertzaileen eskutik dator.

Zentzu horretan ulertu behar da zuzenbideko hizkeraz ari zela Mounin hizkuntzalariak (1979:13) idatzitakoa:

*"Au sens propre il n'existe pas de langue du droit en soi, mais seulement, à l'intérieur de la langue française, un vocabulaire de droit et sans doute, quelques tours syntaxiques spécifiques."*

Edo Quemada (1978:1153) lexikologoaren epai zorrotza:

*"La linguistique descriptive tranche la querelle sur plusieurs plans: elle condamne les désignations de "langue" technique et scientifique qui sont également impropres. Il convient plutôt de parler de "vocabulaires", s'agissant d'emplois particuliers du français et de ses variétés qui font appel, pour la prononciation, la morphologie et la syntaxe, au fonds de la langue commune, caractère à partir duquel notre analyse établit des rapports fonctionnels mais non hiérarchisés".*

Gure ustez Lerat (1995:11) da, modu zabalenean azaltzen duena azpihizkuntzen ikuspegiaren aurkako arrazonamendua. Harentzat ez da onargarria<sup>23</sup> LSPei buruz aritzean akritikoki erabiltzen den "azpi-multzo", "azpi-sistema" edo "aldaera", adigaia, dialektoentzat onartzen duena. Izan ere, dialektoak, benetako azpi-hizkuntzak, fonetika eta flexio propioaren jabe baitira; LSPak, berriz, eta adibide gisa automobilari buruzko hizkera aipatzen du, goitik behera frantses hutsa dira, ez beste ezer; alegia, hizkuntzaren erabilera bat (ezaguera espezializatuen berri modu teknikoan emateko egiten den erabilera), edo beste modura esanda, hizkuntza, ezaguera espezializatuen bektore den heinean<sup>24</sup>.

Hizkuntza espezializatuak horrela ulertuaz, haien azterketa linguistikoaren oinarri teoriak, hizkuntzalaritza orokorrean bilatu beharko dira, eta ez soziolinguistikan edo zeharo defnigaitza den linguistika aplikatuan. Leratek azpi-hizkuntzen teoria arbuiatuaz hizkuntzalaritza orokorraren hurbilpena eta metodologia hobesten baditu ere, ez du LSP adigaiaren balioa ukatzen beste zenbait autorek egin duten bezala.

### 3.4.- LSP adigaiaren arbuiapena

Hizkuntzalaritzaren aldetik esan daiteke ez duela inoiz harrera onegia izan LSPen inguruko teorizazioak ez eta hizkera berezien inguruko ikerkuntzak. Horren arrazoietakoa bat izan daiteke, Kocourek (1991:15) dioen bezala, hizkuntzalaritzan joera nagusia izan dela beti Saussurek *langue* eta Chomskyren kontzepzioan *competence* deitzen direnez ia eskusiboki arduratzea. Hortaz, esan daiteke, lehen aipatutako Mouninen eta Quemadaren lanetik at, ez dagoela LSPen errealitate linguistikoei buruzko azterketa "klasikorik". Hizkuntzalaritzak, kritikatu baino areago, ahaztu egin du (Goffin, 1991:31) gai hori. Ez dira falta,

<sup>23</sup> "Une redéfinition des "langues de spécialité" s'impose préalablement, pour avoir une idée précise de leur mode d'existence grammatical et sémantique. L'idée qu'il s'agit de "sous-systèmes" est à la fois courante et fausse (...)". Lerat (1995:11)

haatik, ikuspegi linguistiko orokorretik eta besteetatik *LSP* adiagaiari egindako kritikak.

*LSP* kontzeptuaren hutsaltasuna eta funtzionalitaterik eza izan da Opitz-en hainbat lanen gaia. Ikertzaile alemaniarra hasten da<sup>25</sup> (1981:187) *LSP vs Language for General Purposes (LGP)* aurkaritza kritikatzeko, esanaz dikotomia horrek ez oinarrikerik ez funtzionalitaterik ez duela zeren aurkaritzaz hitz egin ahal izateko, gutxienez aurrez aurre jartzen diren zerek edo haietako batek, zehazki definiturik egon beharko luke, baina ez dago 'common language'-ren definizioa ematerik. Izan ere, autore gehienek erabileran, nozio horrekin aditzera ematen dena, Opitzen hitzetan, halako aterki zabal bat da, zeinaren azpian estalpetzen baitira izan daitezkeen aplikazio espezializatu guztiak, eta hortaz, 'common language' ezin daiteke erabili 'definiens' gisa *LSP* 'definiendum'-aren izaera definitzeko. *LGP*, hizkera estandarra eta antzekoak guztiz defingaitzak dira, eta ondorioz, defingaitzagoak haiekiko erlazioan definitu nahi diren *LSP*ak. Izan ere, dio, hizkuntzaren edozein errealizazio delarik ere, beti izango da xede bereziren bat, hizkuntza gauzatzea ez baita inoiz xede gabeko zerbait. Hartaz, xede bereziko hizkera dela esateak ez digu inolako zehaztapenik eskaintzen. Eta hori, Opitzen ustetan, demostra daiteke bai lexiko mailan eta bai egitura sintaktikoen mailan: ez dago ez batean eta ez bestean mugarik ezartzerik *LGP*aren eta *LSP*aren artean, ez dago, beraz, linguistikoki definitzerik *LSP*a *LGP*ari oposatutako zerbait bezala.

Opitzen aburuz, hala ere, *LSP* kontzeptua linguistikoki onartezina<sup>26</sup> bada ere, erabilgarria da, baina ezinbesteko baldintza izango da testuan oinarritutako ikerketa izatea.

*LSP* kontzeptua beste hurbilpen batzuetatik ere kritikagai izan da. Bereziiki interesgarria iruditzen zaigu Gaudin-ek (1995:229) Gambier-ek, (1991:32) eta beste zenbaitek urratutako bidea, funtsean terminoaren eta hitzaren arteko oposizioaren kritikatik abiatuaz, *LSP*arena benetako kontzeptua ote den zalantzan jartzen baitute.

Gaudinen ustez (1995:230) ez da oraino egin konparazio-lan seriorik hizkera horien lexikoak eta erabilerak ikuspegi hertsiki linguistikotik ikertzeko.

---

<sup>24</sup> "La notion de langue spécialisée est plus pragmatique: c'est une langue naturelle considérée en tant que vecteur de connaissances spécialisées". Lerat (1995:20). (...) "On peut donc la définir comme l'usage d'une langue naturelle pour rendre compte techniquement des connaissances spécialisées". Lerat (1995:21)

<sup>25</sup> "(...) common language cannot serve as a *definiens* to establish the identity of *LSP* which would be one of its constituent parts, located next to a hypothetical "language for ordinary purposes". Opitz (1981:18)

<sup>26</sup> "If there is one thing we have learned since we began toying around with the concept of *LSP* a dozen of years ago, it is that *LSP* possesses an obvious reality in the conduct of everyday linguistic affairs, but that it is a mysteriously evanescent chimera when dragged into the cruel bright of linguistic sciences." Opitz (1981:185)

Bere kritikaren gai hartzen du Kocourek, esanaz honek modu akritikoan hartzen duela *aldaera* adigaia. Hain zuzen ere, dio, *aldaerez* hitz egin nahi badugu, *aldaera* bakoitza besteengandik zertan bereizten den zehaztu beharko dugu, baina alferrikako ahalegina izango litzateke. Izan ere, Gaudinen eta Gambier-en ustez, *LSP*ak oinarritzeko (terminologiaren berezitasuna oinarritzeko bezala) hartzen den *arloa* (*domaine*) kontzeptua epistemologikoki zalantzazkoa da, ideologiaren edo instituzioen ikuspegi-beharren arabera baita. Hainbat aldiz aipatzen diren hizkuntzaren maila guztietako ezaugarri bereizgarriak, dio, ustezkoak besterik ez dira. Eta *komunikazio* espezializatuaren azalpena jotzeak are gutxiago argitzen ditu iluntasunak, ezin baita zehaztu noiz edo zergatik den espezializatua komunikazio mota bat edo bestea (Gaudin, 1995:230).

*LSP* kontzeptuaren kritika horrek ez dakar ondorio bezala adigaia arbitratzea, haren erabilgarritasuna ez baita zalantzan jartzen<sup>27</sup>, baizik haren ikerketarako beste bideak proposatzea, eta bereziki, Leratek bezala, hizkuntzalaritza orokorraren kategoriekin lan egitea. Gaudinek dioen bezala, benetako kontzeptu izan ala ez, bada praktikan baliagarritasuna erakutsi duen nozioa.

*LSP* kontzeptuaren kritikari ekin dio halaber Kraghek (1990:42), esaten duenean *LSP*ak begiztatu beharko liratekeela ez hizkuntzaren forma desberdin bezala baizik hizkuntza bera erabiltzeko modu desberdin legez eta arbitratzen duenean ezaugarri linguistiko eta testualetan oinarrituriko *LSP*en definizioek bereizkuntzarako irizpide egokiak eskaintzen dituztela.

### 3.5.- *LSP*en ezaugarri linguistikoak

Ikus dezagun orain, zeinahi izanda ere *LSP*en kontzepzioa (hizkuntza autonomo, azpihizkuntza ala hizkuntza orokorraren agerpen-modu) zein ezaugarri linguistiko egozten dioten autore desberdinek espezialitateko hizkerari.

Aurrerago esan dugun bezala, Hoffmann izan daiteke azpihizkuntzen teoriaren ordezkariarik adierazgarriena. Begira dezagun, bada, puntu honen sarrera moduan zer dioten Leipzig-ko irakasleak.

Azpihizkuntzen teoriari Hoffmmanekin (1987b:658) batera jarraiki, mezuaren edukia edo testuaren gaia izanik azpihizkuntzen arteko bereizgarriarik nabarmenena, haiek ezagutzeko beren lexiko berezira jo behar da.

<sup>27</sup>"La critique de la notion de langue de spécialité a été faite en plusieurs occasions (Gaudin et Assal 1991; Gambier, 1988; Gaudin 1993a). Il est clair qu'il ne s'agit pas d'un concept, mais d'une notion de sens commun qui peut constituer un obstacle, si l'on se pose des questions d'ordre épistémologique. (...) Cependant, dans la pratique quotidienne, la notion de langue de spécialité est utile (...)". Gaudin (1995:229)



Azterketaren lehen maila, bokabulario berezien bilketa-lanari dagokio, bi helburu nagusirekin: bata diziplinaren marko kontzeptualaren eta termino horien arteko korrespondentzia sistematikoa baieztatzeko eta bestea, testuen analisi estatistikoari ekiteko.

Bigarrena hiztegi horren hitz-eraketari dagokio, eta analisi horrek erakutsiko digu eredu eta lanabes bakoitzaren produktibitate-maila eta motibazio-erlazioak zein diren.

Hirugarren urratsean terminoen analisi semantikoari ekiten zaio, haien sema-egituraren deskribapen zehatza eta sememen definizio argia egin ahal izateko.

Laugarren mailan, espezialitateko testuen morfologia eta kategoria gramatikalak dira aztergai, horrelako testuetan zein diren hitz-forma ugariak argitzeko asmoz.

Bosgarrenean, hitzen konbinagarritasuna da aztergai, eta azterketa horrek erakusten du hizkuntzan dauden aukera asko eta asko ez direla gauzatzen azpiahizkuntzetan.

Seigarren urratsean, sintagmen egitura aztertzen da, eta ezaguna denez, izen-sintagmaren maiztasuna agertzen da, hizkera espezializatuen funtzio nagusia izendapena baita.

Zazpigarrenean, esaldiaren mailara iristen da. Hor ere, badira ezaugarriak, hala nola esaldien luzerari, eta eredu batzuen nagusitasunari dagokienez.

Eta azkenik, zortzigarren urratsean, testua, egiturazko eta funtziozko osotasun gisa harturik, hainbat informazio pertinente atera dezakegu azpiahizkuntzen espezifikitateari buruz.

Hoffmannen arabera ezaugarri linguistikoak maila horietan denetan azter badaitezke ere, horrek ez du esan nahi maila batek, edo guztiek batera harturik ere, erabateko muga marka dezaketarik espezialitateko hizkeren artean, Hoffmannek berak<sup>28</sup> (1987a:298) gogorarazten duen bezala.

Sager et al.-en arabera, (1980:40), hizkera espezialetan (*SL*), testu-forma bereziak agertzen dira, sintaxia mugatua da, eta defenda daiteke morfologia ere hala dela, baina ezin esan egitura sintaktiko berezirik dagoenik oro har —salbuespenak, patenteen eta legeen sintaxian egongo liriateke, egotekotan—; baina lexikoa da beti ere haien ezaugarriarik nabarmenena. Zerbaitek markatu izan baditu hizkuntzak azken hamarraldietan, hain zuzen ere, hizkera espezializatuetan

---

<sup>28</sup>*It is therefore practically impossible to demarcate the size of the so-called common vocabulary to give a complete list of its elements or to classify every word of a language as belonging or not belonging to it.* (Hoffmann, 1987a:298)

gertatu den lexikoaren garapen erraldoia izan da. Lexikoari dagokionez, semantikaren mailan aurki daitezke diferentzia sakonenak; autore horien ustez: espezialiteteko hizkerak gai berezietako adigaiak antolatu eta egituratzeko erreferentzia-sistema garatu behar baitu<sup>29</sup>.

*LSP* baten eta hizkuntza orokorraren lexikoa bereizteko ezinezkoa denez erabateko muga-lerroa marraztea (1980:68)<sup>30</sup> azterketa estatistikoetara jo behar da, Hoffmannek erakutsi duen bezala. Maiztasun-kontakteten bidez, hizkera bereziei buruz asko jakin daiteke, baina halaz ere ezinezkoa da ezaugarri linguistiko hutsetan oinarriturik *LSP* bakoitza bereiztea eta zedarritzea.

Cabreren ikuspegia puntu honetan nahiko hurbil dago Sager eta al.-enetik. Kataluniarrak dio (1992:140) hainbat ezaugarri linguistiko direla testu espezializatua karakterizatzen dutenak: a) hautaketa lexikoa, b) egitura jakin batzuen maiztasuna, c) sistema linguistiko orokorreko banako eta egitura batzuen presentzia/absentzia, eta d) kode alternatibo (ez linguistikoen) erabilera. Aurrerago (1992:151), ezaugarri horien artean, lexikoari, terminologia bereziari, dagokiona garrantzitsuena dela azpimarratzen du. Baina ezaugarri horiek gorabehera, beste autoreekin bat datorrelarik, dio (1992:124) oso zaila denez espezialitateko hizkerak termino linguistikoetan definitzea, ezinbestekoa dela irizpide pragmatiko eta funtzionaletara jotzea.

Modu beretsuan formulatzen dute Haenschek (1983:14)<sup>31</sup> edo Varantolak (1986:16), Martin Zorraquinok (1997:321) edo Gutierrez Rodillak (1998:37) *LSP*en ezaugarri linguistikoei dagokiena. Horiek ere, bakoitzak bere ñabardurekin, lehen tokian, lexiko bereziarena ipintzen dute, beste arloetako ezaugarriak ukatu gabe.

1970ko hamarraldian, aipaturiko Quémadak (1978:1153), eta Mouninek, bereziki, ezaugarriak lexikotik at egon daitezkeela ukatu gabe, indar handiaz azpimarratu dute lexikoari dagokion berezitasuna.

<sup>29</sup>Baina, beste pasarte batean diotenez (Sager-et al, 1980:230) lexikoari dagokionez ere, SL baten lexikoa jasotzerakoan, erreferentzia berezia daukaten guztiak jaso behar dira, harekin batera erreferentzia orokorra daukatenak baztertu gabe.

<sup>30</sup> "There is no absolute borderline between general and special language as the relative proportion of special terms may at best permit merely a distinction between retrospective and innovatory speech acts. The threshold between general and special language can be delineated only by pragmatic criteria derived from usage." (Sager et al.1980:68)

<sup>31</sup> "El tecnolecte es caracteriza per tres elements: 1. Un vocabulari específic. 2. Per l'us específic de determinats recursos morfosintàctics disponibles en la llengua general, o, almenys, possibles en ella. 3. Per certes normes en la formació de paraules". (Haensch, 1983:14)

### 3.6.- Gure azterlanerako ondorioak

Aztertu ditugun autoreen artean, espezialitateko hizkerari buruzko kontzepzio bat edo bestea eduki, inork ez du esaten LSP bata besteetatik edo LGPtik bereiz daitekeenik aurreikusitako ezaugarri linguistiko batzuen arabera. Alegia, ez dago elementu lexikorik, ez hitz ez hitz-serierik, ez karakteristika morfologikorik edo sintaktikorik duda gabe adieraziko digunik *LSP* jakin baten aurrean aurkitzen garela.

Autore horien arabera, *LSP* testuetan badira hala ere, zenbait hizkuntz-alderdi bereizgarri hala nola baliabide sintaktiko eta morfologiko batzuen presentzia edo absentzia, beste batzuen erabilera-maiztasun diferentziatua, kategoria gramatikal batzuen maiztasun desberdina, baina guztien gainetik, lexikoan aurkitzen da elementurik bereizgarriena

Gure tesiaren helburuetarako biderik zuzenena iruditzen zaigu eztabaida teoriko guztiak argitzen saiatu gabe, bide pragmatikotik jotzea Kocourek (1991:24) ondoko aipuan aholkatzen duen bezala:

*"La linguistique sérieuse, théorique ou descriptive, peut-elle analyser un aspect linguistique particulier d'un ensemble de textes déterminé d'une manière externe à la linguistique? Si on dit non, on écarte toute analyse linguistique basé sur un corpus de textes. On peut formuler une hypothèse qu'il est linguistiquement légitime de choisir un ensemble de textes, délimités d'une manière externe, dans le but de déterminer les ressources linguistiques sous-tendues, de dégager les propriétés, les principes, les tendances de ce sous-ensemble de textes, et, en ce faisant, d'enrichir, de préciser, d'approfondir la connaissance et la compréhension de la langue entière."*

Horrela bideratuko dugu gure azterketa: hizkuntzaz kanpoko irizpide batzuez bereizitako testu-multzo baten ezaugarriak, baliabideak eta joerak, aztertzen saiatuko gara, lexiko berezia ikergunetzat harturik.

## 4.- *LSP*en BATASUNA ETA ANIZTASUNA. SAILKATZE-SAIOAK

### 4.1.- 'Espezialitate hizkerak' definizio bakarrean bil daitezke?

*LSP*en inguruko ikertzaileen artean eztabaidatutako puntu bat da ea bidezkoa den espezialitateko hizkeraz singularrean hitz egitea edo ez ote den zuhurrago plurala erabiliaz, *meteorologiako hizkera berezia, termodinamikakoa*

edo *zuzenbidekoa* izendatzea, guztion batasuna bilatzen saiatu gabe.

Oro har, azpi-sistemaz edo azpi-hizkuntzaz hitz egiten dutenen artean, *LSPez* multzo definigarri bezala hitz egiten da. Honela, Cabrék (1992:145) garrantzizko puntutzat ematen du ikuspegi teoriko eta metodologikotik espezialitateko hizkeraren adigaia singularrean finkatzea, eta ondorio horretara iristen da gaiaz espezializaturiko hainbat hizkera analizatu ondoren. Kocourek (1991:18) ez du onartzen galderak bere baitan daraman dikotomia hori: jakinik, edo jakintzat emanik, espezialitateko hizkerak askotarikoak eta desberdinak direla, uste du ez dagoela inolako eragozpenik kategoria horretaz singularrean hitz egiteko, beste edozeinetan egiten den bezalaxe. Ez dago arrazoirik, hortaz, Kocourek ustez, singular generikoa debekatzeko. Bere proposamena da singularra erabiltzea espezialitateko hizkeren batasuna, egiazkoa edo hipotetikoa, azpimarratzeko, eta plurala, haien aniztasuna azpimarratu nahi denean, edo hainbat adibide espezifikoz hitzegiteko. Edozein modutan, oharrarazi behar dugu Kocourek baieztatu nahi duena, *LSP* guztiena baino areago, zientzia eta teknikako hizkeren<sup>32</sup> batasuna dela. Beste autoreengan, oso maila desberdineko garrantzia ematen zaio arazo honi. Picht eta Draskau-k (1985) edo Beaugrandek (1987) argi eta garbi adierazten dute adigai bakartzat hartzen dutela; beste batzuek ez dute aipatu ere egiten, baina adigai singulartzat erabiltzen dute, batzuetan mugapen bat edo beste ezarriaz. Horrela, Sager et al.-entzat (1990) *hizkera berezi* izena merezi ahal izateko, ez bakarrik gaiaren aldetik, baizik eta erabiltzaileen aldetik, espezialistak izatea beharrezkoa da, eta Gutierrez Rodillak (1998:20) *zientziako hizkeraz* ari dela, adigai-batasuna espresuki onartu gabe, elementu bateratzaileak sakabanatzaileak baino gehiago direla dio. Beste batzuek, berriz, garbitu beharreko arazotzat berariaz tratatzen dute. Gogoratuko dugu Leratek fermuki finkatu nahi duela, terminologiatik hasita, ezin daitekeela azpi-hizkuntzaz hitz egin, eta, hortaz, arbuatu egiten duela gai horri buruz aritzerakoan<sup>33</sup>, singularraren erabilera, espezialitate-egoerari dagokion hizkuntzaren errealizazio desberdinak besterik ez direla gogoraraziaz.

Edozein modutan, inork ez du defendatzen, ez eta Wüsteren eskolako terminologoez ere, espezialitateko hizkera sistema autonomo, ongi mugatu eta bakarra denik. Alderantziz, autore guztiek azpimarratzen dute *LSPen* aniztasuna.

<sup>32</sup>Izan ere, zehazten duenez, bere liburuaren izenburuari doiturik (1991:36), Sailkapen Hamartar Unibertsaleko 500 (*zientzia hutsak*) eta 600 (*teknologia, zientzia aplikatuak*) klaseei dagokien hizkera da haren ikergaia.

<sup>33</sup>Gogora dezagun Leratek gai honi buruz idatzitako liburu nagusiaren izenburua *Les langues spécialisées* dela.

## 4.2.- Espezialitate hizkeren aniztasuna: gaien arabera ebaketa

Gaiaren edo testuaren eduki tematikoaren arabera sailkapenari, *horizontala* edo *tematika* deitu ohi zaio. Sailkapen honetan, ezinbestean teilakatzen dira hainbat faktore tematiko, sozial eta historiko, denetarik izaten baita arloak sailkatzerakoan.

Eugen Wüster-ek (1973: XI), bere terminologiaren sistema osoarekiko koherente izanik, proposatu zuen espezialitateko hizkeren kopurua espezialitateen hainbatekoa izango zela. Haren ikasleek proposatutako sailkapenean hirurehun bat espezialitate, beraz, hizkera berezi, agertzen ziren.

Hizkera berezien arteko mugak zientzia, diziplina edo arloen sailkapenaren baitan ipintzen dituen ikuspegi horrek, ordea, gogoeta batzuk merezi ditu, ezin askatuzko korapilo batean sartzen baikaitu.

Esate baterako, espezialitateak zein diren, zein irizpideren arabera finkatzen diren akaburik gabeko eztabaidagaia da, Kocourek<sup>34</sup>(1991:35) erakusten duen bezala. Aitortu beharrekoa da normalizaziorako mila saio dagoen arren, sailkapen-sistemak, dokumentazioaren edo bibliotekonomiaren edo hainbat interes, edo ideologia desberdinen behar pragmatikoen arabera, kontaezinak, aldakorrek eta iraunkortasun gutxikoak dira. Ez luke, hartaz, inolako funtsik hizkera espezializatuen kopuruak eta izenak testuen edukien sailkapenei egokitu nahi izatea.

Bide beretsua markatzen dute, baina arazo epistemologikoetan gehiago sakonduaz, Gaudinek (1995:231), eta Gambier-ek (1991:36). Horien arabera, zientziako, teknikako, irakaskuntzako eta bestelako giza jarduerak arlo (*domaine*) berezietan sailkatu nahi izatea, gaurko egunean hainbatek arbuiatzen duten ereduari jarraitzea izango litzateke, askoz egokiagoa baita diziplina artekotasuna, eta zientzien "sarea" onartzen duen eredia. Sare moduko kontzeptzio horretan, berezitasunen arteko mugak neurri handi batean artifizialak lirateke. Gainera, diote, zein kontzeptzio idealistaren arabera jarraitu beharko lieke hizkuntzak bere sistematik kanpo —instituzioen edo ideologiaren arabera— egiten diren sailkapenei?

---

<sup>34</sup>Haren argudioei jarraiki, *espezialitateen* izendapen sistematikorako har genezake, esate baterako, 1973an Alemanian egin zen *Hochschulverband* izeneko sailkapena zeinetan 2.268 espezialitate izendatzen baitziren, 88 diziplinatan multzokatuak, eta diziplina horiek 6 arlo handitan. Baina urrutirago joan gabe, eta herrialde berean eta urte berean kaleratutako beste izendapen-bilduma batean 6.800era iristen ziren espezialitateak, 39 talde tematikotan bilduta.

Autore gehienek, ordea, *LSP*en gaiaren araberako ebaketa onartzen dute praktikan, dituen zailtasunak eta mugapenak aitortuz. Honela, Hoffmannek (1984:35) dio ezinezkoa dela esatea zenbat azpihizkuntza dituen hizkuntza batek, ez dagoelako giza jardueren arloen kopurua zehazteko modurik, orokorki onartuta dagoenik, bederen. Eta gainera, zientzien eta jardueren espezializatzeko eta integratze-prozesu dialektikoak etengabeak direlako. Hala ere, beraren ustez *LSP*en bereizmenek eta sailkapenek badute funtzionalitatea zientzian, teknologian eta produkzioan. Izan ere, jarraitzen du, ez dago eragozpenik onartzeko badaudela arlo hauetako *LSP*ak: matematika, fisika, kimika, filosofia, historiografia, ekonomia, medikuntza, abere-hazkuntza, meatzaritza, metalurgia, ingeniari mekanikoa, ordenagailu-programazioa, petrolio-industria eta abar. Baina beste zenbait arlotan gauzak ez dira hain garbi Hoffmannentzat.

Antzeko jokera agertzen da Varantolaren ikuspegian zeinak baitio (1986:11) espezialitateko hizkerak '*continuum*' bat eratzen dutela, baina bertan bereiz daitezkeela arlo prototipikoak hala nola zientzia, teknologia, zuzenbidea, erlijioa eta abar.

Aurrerago ikusi dugu Kocourek kritikatzeko zuela irizpide estralinguistikoen araberako mila ebaketa proposatzen duen ikuspegia, baina, txekiarraren aburuz, arlokako sailkapenaren irizpidea ez da hutsala; analisi linguistikorako hasiera batean hartzen diren testuen aukeraketa oinarritu daiteke linguistikaz kanpokoa den arloen sailkapenaren irizpidean. Ondoren, hasierako sailkapen hori balioztatzeke, aldera daitezke ondorio linguistikoak eta beste irizpideetan oinarrituriko sailkapena.

#### 4.3.- Espezialitate hizkeren aniztasuna: ebaketa bertikalak

Gaiaren araberako ebaketari horizontala deitu ohi zaion bezala, tematikaz berezitako hizkera bakoitzaren barruan egiten den mailaketa ebaketa *bertikala* edo *estilistikoa* izendatzen da (Cabr , 1992:132), (Kocourek, 1991: 37).

Hoffmannen arabera (1987a: 299), *LSP* gehienetan geruzatze bertikala begizta daiteke, maila desberdinetan erabiltzen baitira. Honako hauek dira, besteak beste, banakako maila edo estratu horiek definitzeko parametroak: lehenengoa, abstrakzio- eta espezifikazio-maila; bigarrena, ahozotasuna eta idatzizotasuna, hirugarrena, komunikazioko parte-hartzaileak, eta laugarrena, bai elementuak bai sintaxia adierazteko moduaren naturaltasuna edo artifizialtasuna.

Lehen parametroaren, hots, abstrakzio mailaren, arabera hainbat gradazio

egin ohi dira: 5 mailakoa klasikoa da<sup>35</sup>. Jakina, ia ezinezkoa da puntu honetan adostasuna, baina bat datoz autore gehienek esateko zenbat eta abstrakzio- edo espezializazio-maila garaia, hainbat eta urrunago egongo dela testu bat hizkera arruntetik. Izan ere, abstrakzio-maila edo espezializazio-maila apaleko testuetan, zaila da espezialitate-hizkeraz hitz egin ahal izatea: hizkera orokorraren eta bereziaren arteko mugak lausotu egiten baitira.

Bigarrena, ahozotasuna eta idatzizkotasuna. Hainbat kasutan jotzen da espezialitateko hizkeraren ezinbesteko baldintza idatzizkoa izatea bailitzan (Weber, 1982:219), baina ahoz ere garatzen dira *LSP*ak, ez soilik idatzizko testuen oralizazioan, baizik eta komunikazio espezializatueta hainbat egokieratan (Sager et al., 1980:110). Espezialitateko hizkeretan ere, nagusitasun estatistikoa idatzizkoaren aldeko bada ere, ez da ahaztu behar hizkuntza lehenik eta behin ahoz sortzen dela, eta idatzia ondoko zerbait dela.

Hirugarren ebaketa bertikalak, komunikazioan parte hartzen dutenen arabera bereizten ditu espezialitateko hizkerak. Jakina da espezialitateko hizkeraren ekoizlea izateko, espezializazio edo ezaguera berezidun izatea ezinbestekoa dela. Mezuaren hartzailea ere espezialista izatea beharrezkotzat jotzen bada (Sager et al., 1980:88) ebaketa honek ez du zentzu handirik, baina oro har onartzen da ekoizlea espezialista izatea ezinbestekoa den bezala hartzailearen kasuan nahikoa izan ohi dela ezaguera orokorraren maila jasoaren jabe izatea. Zentzu horretan mintzo dira Weber (1982:230) kritikatzin duenean Sager-en baldintza hura, edo Kocourek (1991:39) espezialitateko hizkeren *maila didaktikoak* aipatzen dituenean, eta Cabrék (1992:128) dioenez, autore gehienek onartzen dute *LSP*etako parte-hartzea ezin dela espezialistetara mugatu.

Laugarren ebaketari, elementuak eta sintaxia adierazteko moduari, dagokionez, Hoffmannek bost maila proposatzen ditu testuan aurki daitezkeen hiru ezaugarri nagusi hauen arabera: ikur bereziak, sintaxi kontrolatua eta termino espezializatuak. Ezaugarri horien presentzia edo absentziaren arabera, bost mailok izango ditugu:

- A) ikur artifizialak bai elementuentzat eta bai erlazioentzat (sintaxiarentzat);
- B) ikur artifizialak elementuentzat, hizkuntza naturala erlazioentzat (sintaxiarentzat);
- C) hizkuntza naturala, termino berezien hein handi batekin eta hertsiki kontrolaturiko sintaxiarekin;

<sup>35</sup> Sager et al. (1980:183) liburuan, Hoffmann-ek proposatutako 5 mailak jasotzen dira: "a) *The theoretical basic sciences*, b) *the language of the experimental and technical sciences*, c) *the language of the applied sciences and technology*, d) *the language of material production* e) *the language of consumption*."

- D) hizkuntza naturala, termino berezien hein handiarekin, baina sintaxia nahiko askearekin;
- E) hizkuntza naturala, termino berezi gutxirekin eta sintaxi askearekin

Bost mailetako lehena (A), hizkuntza naturaletik at egongo litzateke, eta hortaz ez litzateke *LSP*en munduan sartuko, hizkuntza sinbolikoenean baino. E) maila, berriz, kontsumo-hizkerarena, nekez bereiz daiteke hizkuntza arruntetik. Beste hiru mailek, aldiz, nahiko ondo islatzen dituzte hizkera *zientifiko*a, *tekniko*a, eta *profesional*a deitu ohi diren mailak.

## 5.- ESPEZIALITATEKO HIZKERAK ETA HIZKUNTZAREN NORMALIZAZIOA

*LSP*en ebaketa bertikalaren haritik, kapitulu honen lehen zatiarekin lotzen den beste gai-multzo bat ukitzea interesgarri iruditu zaigu, zeren eta, jakina da hizkuntza guztietan ez direla modu berean garatzen espezialitate hizkerak. Gure gizarte elebidunean, nabarmena da euskararen eta erdaren arteko desberdintasuna alor horretan.

### 5.1.- Lanbide-hizkerak, zientzia-hizkerak eta *LSP*ak

Esan daiteke, antropologiak hori erakusten bide du, ez dela aurkitzen, aztertu diren gizarte teknologikoki atzeratuenetan ere, barnean espezializaziorik ez duen gizarterik, edo alderantziz formulatuta, non nahi aurkitzen direla gizartearen barruan eginkizun bereziak dauzkaten gizakiak edo gizaki-taldeak, hots, jakinduria bereziren bat konpartitzen duten giza taldeak. Jakinduria konpartitzeak esan nahi du hitz berezi batzuk eta hizkera berezi batzuk konpartitzea.

Hizkera horiek, antropologoek eta soziolinguisten ikergai izan ohi dira, eta alderdi askotatik ikertuak ere. Arazoa da, ordea, orain arte ikusi dugun *LSP*aren adigaiak sar ote daitekeen besterik gabe lanbide-hizkera horien artean, eta orduan esan beharko genuke *LSP*en fenomenoak unibertsala dela, hizkuntza guztietan eta garai guztitan agertzen denez, edo arrazoirik ba ote dagoen *lanbide-hizkera* eta *LSP* adigaiak bereizteko.

#### 5.1.1.- Lanbide-hizkerak, talde-hizkerak

Lanbide eta ofizioei lotutako hizkera bereziek ez ohi dute izan berariazko izen orokorrik, ez herri-mailan, ez hizkuntzalarien artean ere. Normalean, "lanbidez X dutenen hizkera" bezalako perifrasiak barruan bildu izan dituzte hizkuntzalariak, eta maiz, Lazaro Carreter-en hurrengo aipuak erakusten duenez,



konnotazio gutxiesgarriez zamaturiko 'jerga' hitzaz izendatu dira, banan bana zuten izen propioa zutelarik. Lázaro Carreter-ek (1974:250) 'jerga' sarreraren barruan lau talde bereizten ditu:

*“A) Lenguaje del hampa, B), Lenguaje profesional, C) Lenguaje de cualquier grupo social eta D) Conjunto de palabras procedentes de fuentes oscuras, (...) que por broma o ironía se introducen en la conversación familiar de todas las clases sociales)”*.

B) taldearen adibidetzat *"jerga de médicos, de filósofos, de tipógrafos"* ematen ditu.<sup>36</sup>

Gauza bera erakusten digu Calvo Ramosek (1993:26), hizkuntzaren barruko aldaerei ematen zaizkien izendapenak aztertzen dituen artikuluan.

### 5.1.2.- Jakintza-hizkeren garapena

Baina gure kulturari dagokionez<sup>37</sup> jadanik Greziatik jarrai dezakegu lanbide-hizkera soilek baino prestigio handiagoa izan duen beste hizkuntza-moduaren aztarna: jakintza-hitzez eta jakintza-hizkeraz ari gara. Gutierrez Rodillak (1998:44) gogorarazten duenez Teofrastok edo Hipokratesek hizkuntza arrunteko hitzez baliatu behar izan zuten beren behaketetako fenomenoak deskribatzeko, baina izendatzen zituztenean, teknikotasun marka bat eransten zieten. Grezia postklasikoan ordea, eginak zeuden hainbat jakintzatako hitz-zerrendak, hizkuntza arruntarekiko desberdintasunak nabarmenduaz; Erroman, grekoen eskutik eta grekoz garatu ziren hasierako zientziak eta filosofia, nahiz eta ekonomia eta zuzenbidea beti landu ziren latinez. Horrela, latinezko zientzia-hizkerak neurri handi batean grekoan oinarritu ziren, lexikoaren aldetik batez ere.

Esan daiteke, hortaz, antzinate greko-erromatarrean jadanik bereizten zirela lanbide-hizkerak eta jakintza-hizkerak.

Ezaguna da Europako Erdi Aroan latinak —ez berak bakarrik, neurri batean grekoak, arabierak, eta hebreerak ere jakintzaren transmisioan eginkizun handia izan baitzuten— izan zuen zeregina kulturaren eta jakintzaren iraupenean eta garapenean. Esan daiteke mila urte baino gehiagoan, ez dela jakintza-hizkerarik garatzen Europako herri-hizkuntzetan. Horrek ez du esan nahi goimailako lanbideei (zuzenbidea, medikuntza, etab.) zegozkien testu teknikoak agertzen ez direnik, baina beti ere, gai horiei buruzko zientzia izatekotan, latinera

<sup>36</sup> Ondoren, ordea, lanbide-hizkeren izen berezi batzuk ematen ditu, lanbide-hizkera, talde sozial aski bereziekin lotzen duela garbi utziaz. Honela baitio: *"Se designan en España con nombres especiales multitud de jergas gremiales: la tixileira de los conqueiros(...), la xiriga de tejeros, canteros y goxeros (...), el bron de los caldereros (...), el ballarate de los afiladores orensanos(...)"*.

<sup>37</sup> Europako mendebaldera mugatuko ditugu ondorengo zertzeladak).

jotzen zen. Unibertsitateetan, salbuespenez izan ezik, ez zuten onarpenik tokian tokiko hizkuntzek.

Errenazimentuan, latinaren eta grekoarenganako miresmen berrituarekin batera, Europako Mendebaldeko hizkuntza nagusiak hasten dira sarraldiak egiten zientziaren munduan. Esan daiteke XVI. mendean jadanik Espainian hizkuntza arruntek (gaztelaniak eta katalanak gehienbat; euskarak ez, noski) tokia kendua ziotela latinari teknika gehienen hizkuntza gisa, eta baita zenbait zientziaren kasuan ere; baina beste lurraldeetan aldaketa ez zen hain azkarra izan. Gorabehara askorekin, Eleizaren eta beste estamendu batzuen etsaigoa gaindituaz, Europako hizkuntza nagusietan sortuaz doaz hainbat jakintza-arlotako lexiko espezializatuak eta hizkera osoak. Berehala, XVI. eta XVII. mendeetan, hizkuntza horien artean ere halako hierarkia sortzen da zeinetan frantsesari egokitzen zaion goi maila, latinarekiko deman. XVII. mendearen hirugarren herenean koka daiteke latinaren gainbehera.

Hainbat arlotan latinak irauteko borrokan jarraitzen badu ere, esan daiteke XVIII. mendeaz geroz ugaritzen direla zientzia guztietako —filosofia eta teologiaren salbuespenekin— testuak frantsesez, alemanez, gaztelaniaz, italieraz, ingelesez, nederlanderaz, polonieraz eta beste hizkuntza nagusi batzuetan.

Beste aldetik, garai berean, tekniketako testuak ugaltu, eta mailaz igo egiten dira, neurri batean, lehen izandako dikotomia garbia (zientzia testuak vs. lanbide-testu praktikoak) lausotuaz. XIX. mendean esandako hizkuntzetan eta beste batzuetan ere, benetako zabaltze-etzanda gertatzen da. Industria-iraultzak dakarren teknologien garapenerarekin, zientziak eta teknika praktikoak hurbildu egiten dira prestigioari dagokionez, alfabetizazioa eta hezkuntza-maila hedatuaz eta igoaz doazen neurrian hizkera espezializatuak ugaltu egiten dira, eta latinaren papera, filosofia eta teologiara mugatuta geratzen da. XX. mendean eginkizun hori ere erabat bereganatzen dute Europako hizkuntza nagusiek.

Prozesu horren ondorioz, espezializazio-hizkerak ugaritu egiten dira hizkuntza gutxi batzuetan; beste hizkuntzak berriz, *LSP*en sortze-prozesu horretatik bazter geratzen dira..

Aurreko lerroetan azaldu diren arrazoiak direla-eta, egungo *LSP*ei buruzko lan teoriko zein praktikoetan ez da funtzionala garai bateko zientzia / lanbide oposizioa, esan bezala, zientzia eta teknika hurbildu egin direlako, edo agian zehatzago esanda, “zientzia eta tekniketako” hizkeren barruan lanbide-hizkerak ere sartutzat ematen direlako, alabaina, ez lanbideak eragindako giza-talde berezi baten hizkera bezala, baizik gaiak berezitako hizkera bezala.

Izan ere, espezialitateko hizkeren ebaketa bertikalak aztertzerakoan (supra 4.3.) ikusten genuen, hala espezializazioaren nola abstrakzio-mailaren arabera

mailaketa egiten zela gaiaz bereizitako hizkeretan. Gogora dezagun Sager et al.-ek Hoffmanni hartutako bost mailako sailkapena, beste autoreek proposatutakoekin bat datorrena. Bertan, goi maila oinarritzko zientzia teorikoei zegokien, eta behekoa kontsumoari. Mailakatze horretan, goiko tokiak espezializazio-mailarik garaienari dagokionez, goiko mailok, eta ez apalenek, justifikatzen dute espezialitate-hizkerez edo hizkera berezietz hitz egitea.

## 5.2.-Hizkuntzen garapena, hizkera berezien garapena

Hizkuntzalaritzak aspaldi honetan arbuiazen du hizkuntzen arteko hierarkizazio kualitatiboa, alegia, batzuk besteak baino hobeak, egokiagoak, direla gizarte garatuen behar guztietara egokitzeko, baina begibistakoa da gaurko munduan hizkuntza batzuek beste batzuek baino funtzio gehiago eta erabilera-mota gehiago dituztela; eta guri interesatzen zaigun ikuspegitik, *LSP* gehiago, gutxiago edo batere ez dutela.

Saussurek berak (1998:48) zioenez, hizkuntza berezi batzuk zibilizazio-mailari lotuta agertzen dira:

*"Zibilizazio maila aurreratua izateak beti bultzatzen du hizkuntza berezi batzuen garapena (Hizkuntza juridikoa, terminologia zientifikoa. eta abar)"*

Hizkuntzen garapenaz mintzatzerakoan, hainbat irizpide, maiz kontrajarriak, aipa daitezke, baina gu, labur beharrean batera mugatuko gara: jadanik soziolinguistikako aipu klasikotzat eman daiteke Fergusonen<sup>38</sup> (1968:28) hura, zeinetan proposatzen dituen hiru dimentsio hizkuntzen garapen-maila neurtzeko. Bata, idatzia izatea, gaurko egunean, ezinbesteko baldintza<sup>39</sup> (Lerat, 1995a:55); bigarrena estandarizazioa, hau da, gizarte-dialektoak eta lurralde-dialektoak gainditzten dituen arau bat onarturik edukitzea, eta hirugarrena, berak proposatzen duen terminoa erabiliaz '*modernization*', *modernizazio* itzuliko duguna.

<sup>38</sup> Hona Fergusonen hitzak: "*The view adopted here is that there are at least three dimensions relevant for measuring language development: graphization — reduction to writing; standardization — the development of a norm which overrides regional and social dialects; and, for want of a better term, modernization — the development of intertranslatability with other languages in a range of topics and forms of discourse characteristics of industrialized, secularized, structurally differentiated. "modern" societies.*"

<sup>39</sup> "*Un degré [de civilisation] moins avancé peut comporter des vocabulaires techniques très nuancés, mais dont la perpétuation est sujette aux aléas de la tradition orale*" (...) *Aussi bien, c'est seulement grâce à l'écrit, accompagné ou non de représentations iconiques, que nous pouvons nous faire une idée de la vie et de la civilisation dans des périodes très anciennes de l'histoire de l'humanité. Ici c'est à partir d'un tarif de marchandises, là au vu d'un contrat, ailleurs en examinant un édit, un traité ou une loi.*"

Hiru dimentsioetatik, hirugarrena: gizarte “modernoaren” ezaugarri diren diskurtso-erak, beste hizkuntzetakoekiko itzulgarriak izatea, zuzen-zuzenean lotzen da *LSPen* gaiarekin: esan daiteke hizkuntza baten *modernizazioaren* baldintza eta neurria dela bertan garaturik dauden *LSPen* aniztasuna eta maila.

### 5.2.1.- *LSPei* buruz idaztea, normalizazioa eta aberastasuna

*LSPei* buruzko liburu eta artikulu gehienetan, aipatu ere egin gabe, hizkuntza jakin bateko —testua idatzita dagoen hizkuntzako— *LSPez* hitz egiten da, nolabait jakintzat ematen delarik, edo suposatzen delarik, bertan deskribatutako fenomenoak guztiz unibertsalak direla edo gutxienez, nahiko orokorrak.

Gutxitan agertzen da presuposizio horren aurkako oharrik edo oroigarririk. Hala ere, autore batzuk gogoratzen dira deskribatzen ari diren gaia idazten ari den hizkuntzari, eta ez besteei dagokiela, eta egokitzeotan, bere hizkuntzaren normalizazio-maila beretsukoei egokitzen zaiela, ez, ordea, munduko hizkuntzetan gehiengo guztiz handienari, garatu gabeko hizkuntzei. Salbuespentzat har daitekeelako, aipagarria da monografia orokor batean Leratek (1995a:16) egiten duen oharra:

*"Plus exactement, avant de pouvoir étudier professionnellement le français médiéval ou juridique, il faut tirer parti de la capitalisation théorique en linguistique à l'échelle mondiale à un moment donné, disposer de descriptions adéquates du français contemporain et d'une expérience significative de la langue spéciale considérée. Ces prérequis peuvent sembler raisonnables dans les cas des langues des pays développés; ils mettent malheureusement la barre un peu haut pour les autres, au point que la notion même de "langue spécialisée" peut apparaître comme un luxe dans tel pays africain, alors que c'est le gagne-pain de milliers de traducteurs dans l'Europe du Nord."* Lerat (1995a:16)

Gure aldetik, ohartxo bat erantsiko genioke frantziar irakaslearen aipuari, esanaz arazoa ez dela beti herrialdea izatea garatua edo garatugabea, zeren eta Europako Mendebalde oparoan hainbat hizkuntzarentzat (Eskoziako gaelikoa, edo Frantziako oc-eko hizkuntzak, esate baterako) ere benetako luxua da espezialitateko hizkeraz hitz egitea. Izan ere, baldintza ez da soilik teknologikoki eta ekonomiko garatutako herrialdekoa izatea baizik eta erabilera normaldutakoa izatea.

Goragoko 2.3. puntuan aipatzen genuen zein diren *LSPei* buruzko bibliografietan azaltzen diren hizkuntzak<sup>40</sup>. Han esandakoa gogoratuaz, gure eskumenean dugun *LSPei* buruzko edozein bibliografia (Coffey, 1984, Flowerdew:1990, Kocourek:1991, Mikkelsen:1990, Robinson:1980, Sager et al.:1980, Schröder:1991b) begiratzen dugularik nabarmen azaltzen zaigu alemana, ingelesa, frantsesa, errusiera, eta txekiera direla *LSPei* buruzko bibliografia gehien hartzen duten hizkuntzak<sup>41</sup>. Urrutitik jarraitzen zaizkie poloniera, daniera, suomiera, italiara, espainiera, eta hizkuntza eskandinabiarrak.

Ugari dira, beste ama- hizkuntzakoak izanda, ingelesez, eta ingelesezko *LSPei* buruz, idazten duten egileak, eta joera hori azkartuz doala begibistakoa da: baina hala ere uste dugu ingelesaren monopoliorik gabe, Leratek zioen bezala, hizkuntza gutxi batzuen oligopolioaz hitz egin daitekeela.

### 5.2.2.- Hizkuntzen garapen maila beren *LSPen* arazoan arabera

Balio intuitiboa besterik ez badu ere, ezagutzen dugun *LSPei* buruzko bibliografian oinarriturik<sup>42</sup>, bertan erabiltzen diren hizkuntzak, hizkuntza horietan tratatzen diren gaiak, eta beste hizkuntzekin lotzen diren gaiak kontuan hartuta, munduko hizkuntzak hiru multzo handitan banatzera ausartuko gara. Alde batera utziko ditugu, noski, idazkerarik izatera iritsi ez direnak, Fergusonen (supra I. 5.2) aipuan esaten zen bezala, idatzia izateak zentzu honetako garapenaren 0 maila adierazten baitu.

Lehenik, eta inolako zalantzarik gabe bera bakarrik, ingelesa joango litzateke, jadanik atzeraturik (ez dira jasotzen, adibidez, azken urteotan interneten bereziki garatutako *LSPak*) dagoen ondorengo aipuan datozen ehunekoek adierazten duten bezala.

<sup>40</sup> Dena den bibliografia horien fidagarritasunak oharren bat merezi duela uste dugu. Hain zuzen, harrigarria eta guzti da zein mundu itxiak diren —hizkuntz gai hauei dagokienez bederen— Europako hizkuntza nagusiak: ingelesez idatzitako bibliografia batean nekez aurkitzen dira frantsesezko ikerlanak, eta are nekezago txekierazkoak edo errusierazkoak. Gauza beretsua frantsesez egindakoetan. Alemanezkoetan, seguruenik Eki Alemaniakoek Errusiarekin eta Europako Ekialdekoeklin urte luzeetan izan dituzten harremanengatik, hango erreferentzia ugari agertze da. Beste oharra, tesigile honen hizkuntz-mugapenari dagokio, izan ere mundu eslaboa erabat itxia suertatzen baitzaigu, eta zer esanik ez Asiako hizkuntzei dagokioenez.

<sup>41</sup> Zail egiten zaigu informazio positiboa ematea, ez baikara iristen jakitera zer egiten ote den guretzat ezezagunak diren hizkuntzetan eta kultur eremuetan, baina esan dezakegu susmo oinarrituak ditugula esateko oso gutxi dela beste hizkuntza horietan dagoena. (Ezin, noski, susmorik ere egin Japonia bezalako hizkuntz-lurralde batean gerta daitekeenaz).

<sup>42</sup> Horrez gainera, noski, kontuan hartu ditugu hizkuntzen egungo egoerari buruzko informazio nagusia ematen dituzten lanak, hala nola, Fodor eta Hagège-ren *Language Reform*, (1983), munduko hizkuntza mordo batean, modernizatzeko hots, *LSPez* hornitzeko egiten ari diren haleginen berri xehetua eskaintzen duena.

*English is spoken by some 360 million native speakers, accounts for some 65 percent of scientific literature in chemistry and 73 percent in medicine, controls 34 percent of world GNP, and 32 percent of world military budget.* (Berghe, 1993:3241)

Hizkuntza horrek, zientzia, teknologia eta negozioetako *lingua franca*-ren estatus-a lortua du mundu osoan, itxurazko salbuespen lokalen bat gora-behera, ahobatez onartzen den bezala. Ondorioz, bera ari da bilakatzen hainbat gai espezializatutako hizkuntza bost kontinenteetako herrialde askotan, zeinahi delarik bertako hizkuntza ofizial eta nagusia.

Bigarren multzoan, lehenik Europako zenbait estatutako hizkuntza ofizialak sartuko lirateke, hala nola alemana, frantsesa, errusiera, gaztelania, italiara, txekiera, daniera, hungariera, portugesa, eta beste hainbat. Ez litzateke, noski, sartuko, estatu bateko hizkuntza izan arren, Irlandako gaelikoa, jakina baita bere benetako egoerak ez duela zer ikusirik gainerako hizkuntza ofizialenekin. Horiekin batera, Asiako hainbat hizkuntza, japoniera, txinera, koreera, eta ihes egiten dituzten beste hainbat ere.

Dakigunez, adibide gisa aipatu ditugun hizkuntza horietako hizkera bereziei buruz idazten denean, ez dira nagusiki arazoak aipatzen, izan ere, denetan baitago, nahikoa garaturik, *LSP* mordo handia. Esan nahi baita, gai espezializatu askori buruzko testuak —liburuak, artikuluak eta abar— idazten dira hizkuntza horietan guztietan. Hogeigarren mendean "arazo berezirik" ez dutenen multzoa, edo minorizazio-prozesurik (Mari i Mayans, 1991:23) jasaten ez dutenena, Europan asko zabaldu bada, kasu gehienetan, estatu-hizkuntza izatera iristearekin lotuta dago<sup>43</sup>. Hizkuntza horien ezaugarri soziolinguistiko komunak dira garapen ekonomiko handi edo nahiko handiko estatuen hizkuntza ofizialak izatea, eta une honetan ez ezagutzea diglosiaren<sup>44</sup>, teorian *L (low) posizioa* deitzen den egoera nabarmenik.

Edozein modutan, guk proposatutako mailakatze hau ez da arazorik gabea. Esate baterako Felber-ek (1985:275) bereizten ditu alde batetik herrialde handi-garatuak, nolabait 'normaltzat' eman daitezkeenak, bestetik "*small developed countries such as Denmark, Norway, etc*", hainbat problemarekin topo egiten dutenak, eta zentzu berean mintzo da Papadaki (1994: 540-550) gaurko grekoak dauzkan arazoak azaltzen dituelarik. Hala ere, uste dugu hizkuntza

<sup>43</sup>Nahiz eta, Irlandak erakusten duen bezala gertakizun horrek ez duen ezer garantizatzen.

<sup>44</sup>Diglosia: Ferguson-ek asmatutako adigaia, Fishman-ek zabaldu zuen bi "hizkuntza desberdin" gizarte batean aurkitzen ziren kasuetarako, eta bereziki, egoera poskolonialetan hain usu gertatzen den metropoliaren hizkuntza 'H' (High) hizkuntza, gizarte horretako funtzio batzuetarako (goi mailako funtzietarako) erabiltzea, eta bertako beste bat(zuk) 'L' (Low) hizkuntza(k), behe edo behezagoko mailako eginkizunetarako (famili erlazioak, lagunartekoa...).

ofizial txiki (baina aberats) horiek dituzten arazoak ez direla konparagarriak hirugarren multzokoekin: beren *LSP*-testuen ugaritasuna lekuko.

Zentzu horretan, Afrikako edo Amerikako hizkuntza propio bat ere ez dago, talde honetan zalantzarik gabe sar daitekeenik.

Jakina da, gorago esan bezala, mundu osoan ari dela garatzen ingelesarekiko *diglosia* dei genezakeen egoera, Ó Murchu-k<sup>45</sup> (1993:38) gogoratzen duen bezala. Izan ere, alemana bera, zenbait arlotan ingelesaren morroi agertzen hasia zaigu eta, baina hori besterik da oraingoz.

Hirugarren multzo erraldoi batean sartuko genituzke munduko milaka hizkuntza gehien-gehienak. Horien ezaugarriak, inoiz aipatuak direnean *LSP*ei buruzko ikerlanetan, dira, besteak beste, beren errealitatea arazoz beteta azaltzen dutela, eta hainbat hizkera berezitako testuen urritasuna.

Multzo honetan agertzen dira bai Europako "hedadura urriko" hizkuntzak, euskara (Azkarate, 1997:250), galesera (Ball:1988) edo sorbiera (Schaarschmidt,1994: 571-576) kasu, bai egoera kolonialetik datozen, eta orain dela gutxi arte idatzizko garapen murrizta izan duten hizkuntzak (yoruba: (Iyalla-Amadi, 193-210); banbara: (Halaoui Nazam, 1993:704); shona: (Chimhundu, 1990: 345), bai hainbat lurraldetako *lingua franca* diren swahili (Abdulaziz M H, 1980:207)) bezalako hizkuntzak, eta baita nazioarteko funtzioarengatik edo hiztunen kopuruarengatik edo (arabiera, Indiako hainbat hizkuntza (Sridhar, 1988:352) munduko hizkuntza handien artean koka daitezkeenak ere.

Horien egoera soziolinguistikoaren deskribapenean beti agertzen da nolabaiteko diglosia esan nahi baita, hizkuntza horien ondoan badago beste hizkuntza bat, koloniala izandakoa (Rey, 1988:31)<sup>46</sup>, edo beste arrazoi historiko-politikoarengatik egoera gain-hartzailean kokaturik, hainbat *LSP*ren hizkuntza dena.

<sup>45</sup> "A recent publication of standardisation of computer terms in German was found to be overwhelmingly based on terms in English generated in the computer heartland of Silicon Valley in California, USA. The Arabic language with its 150 million speakers has constantly experienced major difficulties in efforts at standardisation and normalisation in dealing with a whole range of terminology, not just scientific and would appear to be quite far behind many of the languages of lesser diffusion in this respect." (Ó Murchu, 1993:38)

<sup>46</sup> Afrikako eta mundu arabiarreko herrialde gehienez ari dela hona Reyk (1988:31) dioena: "La pédagogie supérieure et parfois même élémentaire et moyenne est pratiquée en Afrique, ou dans les pays arabophones, en français ou en anglais, et non pas dans les langues maternelles. Il y a maintes raisons sociohistoriques à cet état de faits, dont l'histoire coloniale est en grande partie responsable, mais l'inadaptation des systèmes désignatifs dans les langues concernées, face à la représentation du monde imposée par la science et la technique modernes, lesquelles sont créées dans quelques rares langues dominantes, constitue un factor important, partiellement linguistique, de cette situation." (Rey,1988:31)

Azken multzo hau zein zabala den ohart gaitezen, eta zein aldakorrak diren egoera soziolinguistikoak, Québec-en kasua aipatuko dugu. Gure ustez, azken hogeita hamar urte honetan Québec-eko frantsesaren egoera hirugarren multzo honetatik bigarrenera igaro da. Horren denbora laburrean aldatu izanak badu zerikusia kasuaren atipikotasunarekin: izan ere, egoera diglosikoan "L" hizkuntza frantsesa zen, oro har munduko garatuenetakoa. Orain, ez dugu uste Quebec-eko egoera eta Frantziakoa hain desberdinak direnik, beraz, Québec-eko frantsesa 2. multzoan sartu beharko litzateke.

*LSPei* buruzko lanetan hirugarren multzo horretan paratu ditugun hizkuntzei buruzko erreferentziak agertzen direlarik oso maiz izaten dira<sup>47</sup>, egoera horretaz jabetu ondoren, arazoak gainditzeko *LSPak* sortu, ezarri eta garatzearen egiten diren eginahalak eta estrategiak deskribatzeko. Esan nahi baita, lehen bi multzoetako hizkuntzetako *LSPak* aztertzen direlarik, zientzia orokorra egiten den bezala, hirugarren multzokoei buruzko lanak ia beti izaten dira egoera larritik ateratzeko eta normalizazioara iristeko saioak.

Horrela gertatzen da, gure ustez, euskarari buruzko lanetan, eta tesi hau, ezinbestean eginkizun horretan kokatzen da.

## 6.- HIZKERA BEREZIAK EUSKARAZ

### 6.1.- Sarrera

Puntu honetan azertu nahi dugu zein izan den berezitasuneko hizkeren presentzia gure hizkuntzaren historian zehar, zein hizkera ditugun, eta nolako garapena izan duten. Horretarako, testuetan soilik oinarritu gara: alde batetik saiatu gara biltzen gai espezializatuko euskal testuen erreferentziak, eta bestetik, hizkera espezializatuen inguruko gaiak, gogoetak edo eztabaidak jasotzen dituzten testuenak.

Hortaz, ez gara luzatuko euskarak historian ezagutu dituen normaltasunik gabeko egoerak deskribatzen, beste askok egina baita. Horretaz jarduten bagara, gehiago izango da testu-bilketa horren ondorio gisa.

Ez zen noski, azterketa xume honen beharrik jakiteko oso urriak direla garai historikoetan idatzi diren espezialitate-testuak. Ez dugu ezer berririk esango gaurko egunean, aldiz, konparazioak konparazio, testu espezializatuen presentzia nabarmena dela badiogu. Dena den, uste dugu xehetasun apur batez egindako



biltze- eta sailkatze-lan honen ondoren hobeto finkatu ahal izan dugula zein diren gehiago eta gutxiago landurik agertzen diren espezialitate edo diziplinak. Halaber, ondoren azalduko dugunez, uste dugu zentzuzkoa dela 1976. urtea finkatzea produkzio ugariaren abiatze-urte bezala. Hori izan da bederen gure hautua, eta horren ondorioz ipini diogu urte horren muga hemen egindako bilketaren atal bati: espezialitateko testuak urte horretaraino bakarrik zerrendaratu ditugu, hortik aurrera oso ugari baitaude. Atal bati, diogu, zeren espezialitate-euskarari eta oro har hizkera bereziei buruzko lanen bilketari ez diogu horrelako mugarik ipini.

Esan behar da, metodologikoki egokiago iritzi diogula zuzenbideko testuen azterketa sakonagoa egiteari, izan ere, historia neurri batean berezia izan dutelakoan gaude, eta hortaz, hirugarren kapitulurako uzten dugula haien bilketa eta azterketa.

## 6.2.- Euskarazko *LSP*ko testuen bilketa

### 6.2.1.- Bilketaren zer-nolakoak eta mugak

Bilketaren helburuei egokituz, “landa-lanik” egin gabe, dauden bibliografieiei eta gaiaz arduratu diren artikuluei begiratu bat eman diegu, kasu batzuetan izenburuaz fidatuz, eta besteetan, gehienetan, beste norbaitek gure aurretik egindako sailkapena onartuz. Esan nahi baita, ez dugu banan-bana baieztatu ea testuaren izenburuak aditzera ematen duen gai espezializatua benetan den testuak jorratzen duena, eta espezializazio-maila ere nahikoa den.

Jakina da, euskaraz, beste hizkuntza askotan gertatu den bezala, une batetik aurrera progresio ia geometrikoan hazten denez gai berezietako testuen kopurua, eta gaiaren espezialitate-maila, oso neurbide desberdinak erabiliko ditugu garai bateko eta oraingo testuak espezializatutzat jotzeko.

Hortaz, XVI.mendetik XIX.aren amaiera arteko testu ezagunen katalogoa laburra denez, bilketa erabatekoa izateko nahikaririk gabe, osatu samarra lortu dugulakoan gaude, testuei espezializazio-maila apala eskatu diegularik bilketa-eremua zabaldu badugu ere. Eta XX. mendearen hasieratik 1970.eko hamarkadara arteko denboraldiari dagokionez ere, uste dugu hemen aurkezten dugun bilketaren uztarekin nahikoa dugula diagnostiko zehatz samarra egiteko. Esan bezala, 1976. urtetik aurrerako espezialitateko testuen erreferentzia-

---

<sup>47</sup> Salbuespen nabarmena eta aipagarria da Teresa Cabréren (1992) *La terminologia. La teoría, els mètodes, les aplicacions* liburu mardula, zeinetan ez baita aipatu ere egiten liburua idatzita dagoen hizkuntzaren, katalanaren, egoera soziolinguistikoa, normalizaziotik nahiko urrundua.

bilketarik ez dugu egin; data hartatik aurrerako produkzioaren berri ematen duten zenbaki batzuk hona aldatuz konformatu garelarik.

Ez dago bilketa honetan, beraz, ikerkuntza-lan berezirik, aitzitik, bizpahiru lanetan oinarritu dugu hemen datorren katalogazio ia guztia. Gidari nagusitzat, Torrealdairen lan bibliografikoak (1993, 1994, 1997a, 1997b, 1999) hartu ditugu, baina Torrealdairen lana 'liburuetara' mugatzen delarik beste bi testu izan dira honetarako argibide: Mikel Zalbidek (1974) euskarazko lehen aldizkari espezializatu modernoaren —*Elhuyar*-ez ari gara—, lehen alean argitara eman zuen "Zientzia eta Teknikarako hizkuntzaz" artikulua eta J.R. Etxebarriak aldizkari berean "Euskara teknikoari buruzko eritzi batzu" izenburuko hiru artikuluko saila eta garai hartako artikuluen bilduma.

Jakina da, jadanik Michelenak (1973) oharrarazten zuen bezala, euskal literaturaren historian badagoela arlo bat beste guztiak baino idazlan gehiagoren gaia izan dena: erlijioa; eta erlijioari buruzko gaien artean, kristau ikasbideak, sermoi-bildumak, mezan erabiltzeko liburuak eta jokabide kristaua erakusteko liburuak.

Torrealdairi (1997b:57) hartutako 1. taulako datuek erakusten dutenez 1935 arte, hark egiten dituen hiru urtealdietan, erlijioa da gehiengo bereganatzen duen gaia.

Aldia	Ehunekoa
1545-1699	% 78,5
1700-1875	% 89,1
1876-1935	% 51

**1. taula: Erlijioa euskal liburuen gai**

Gehiengo izugarritz nagusi da erlijioa lehen bi urtealdietan, eta gehiengo absolutu doiaz, erdia gehi bat, alegia, mende honetako lehen herena hartzen duen urtealdian:

Aztergai izan daitekeen arren, ez dugu hemen aztertuko erlijiozko liburuen artean daudekeen gai bereziak, eta zenbateraino hitz egin daitekeen erlijioaren hizkera bereziaz.

Zuzenbideko hizkera berezia denez ikerlan honen interesgunea, hari dagokion kapitulurako utzi dugu gai horrekin lotuta agertzen diren testuen sailkapena eta deskribapen xehetuagoa. Hemen, soil soilik, garai bakoitzeko testu paradigmaticoen artean zuzenbidearekin zerikusirik duenen bat agertzen bazaigu aipatuko dugu.

### 6.2.2.- Garaiak bereizteko irizpideak

Euskarazko *LSP*-testuen bilduma honetan garaiak bereizteko ere, Torrealdairen *Euskal Kultura Gaur. Liburuaren mundua* (1997b) liburu mardulean aurkitu dugu gidaririk fidagarriena, baina hain eskasa izanik gure interes-guneari dagokion testu-produkzioa XIX mendearen bukaera arte, Torrealdaik (op. cit) proposatzen dituen aurreko bi garaiekin: 1545-1699 eta 1700-1875, bakarra —berehala aztertzen dena, gainera— egin dugu. Are gehiago, gure ustez espezialitate-testuak direnen datak ikusiz, egokiagu iruditu zaigu lehen garai luze hori 1899 arte luzatzea.

1976ko datak bihurgune berezia markatzen du euskarazko testu espzializatuen historian. Torrealdaik (1977:124-129) dio 1976. urtean argitaratutako liburuen katalogazioa egiten duelarik, urte horretako liburugintzan, Unescoren 23 sailetatik, 14tan badagoela zerbait (batzuetan oso liburu gutxi), baina 1961. urtean, 4 sail bakarrik zirela. Bat datoz urte horietan, Torrealdaik liburugintza orokorrerako egiten duen diagnostikoa, eta guk, *LSP*-testuen produkzionarako egiten duguna.

Arrazoi gehigarri bat ediren dugu data horren alde, izan ere, 1976 izan baitzen Jakin-en *Natur Zientziak* hiztegia kaleratu zenekoa, gure ustez euskaraz argitaratutako lehen espezializazio-hiztegi modernoa. Ohartzen garenez adjektibo horrek bere baitan daraman anbiguotasunaz, geure baieztapena zurituko dugu esanez aro berri baten hasiera markatu zuela, eta harrezkero, gai espezializatuko hala testugintza nola hiztegi-gintza, eta bi horien inguruko hizkuntz ereduari buruzko eztabaida, maila berri batera igo eta eten gabe jarraitu dutela gure egunetara arte.

Beraz, 1545-1899, 1900-1937, 1938-1976 eta 1976tik aurrerakoa izango dira gure garaiak.

### 6.2.3.- Testuak hasieratik 1900 arte. Iruzkinak (Ik. I. 6.2.3. Eranskina)

Alde batera utzirik erlijioa gai dutenak, eta juridiko-administratiboaren artean sailka daitezkeenak, puntu honen zenbaki bera daraman eranskinean ikus daitezke bildutakoak.

Zerrenda ilabur horretan ematen ditugunez gainera, badira, izan, euskarazko ohiko hizkera berezien berri ematen diguten liburuak, interesgarriak beti ere, gure ondare lexikoa ezagutzeko. Gehientsuen entzuten denetako baten berri ematearren, J.A. Mogelen *Peru Abarka* klasikoa aipatu beharra dago, baserri lanetako eta burdinoletako hiztegiaren adibide ohargarriak dakartzana. Baina esan bezala, ezin izan dugu gure azterlana horietaraino eraman.

Badira zerrenda horretan jaso ez ditugun testuak, esate baterako lore-jokoetako hitz berrien lehiaketan berri ematen dutenak. Testu juridiko-administratiboen bilketan, IV. kapituluan, hartzen ditugu kontuan.

Zerrendaratutako izenburuetara goazelarik, ikusten dugu lehen laurak eta ondorengo hirurak nahiko desberdinak direla. Hala *Hau da Ixasoco nabigacioneco* izenekoa nola Dassançarena eta Duvoisinena herri-teknikazkoak dira: garaiko euskaldun askoren eguneroko bizimodua ziren itsasketa, eta nekazaritza. Nabigazioari buruzkoak, frantsesetik itzulia izaki, badu, antza denez, garai hartako edozein hizkuntza garatutan aurki daiteken teknikotasun maila. Egiategirena, aipagarria da, gutxienez izenburuan 'filosofo' hitza dakarrelako, baina gure ustez, Torrealdairen Matematika sailean agertzen denagatik, ezin esan daiteke matematikako hizkera asko erabiltzen duenik XVIII. mendeko liburu honek.

Ez dugu aurkitzen euskarazko testuen lehen hirurehun eta berrogeita hamabost urteetan oraingo irizpideekin *LSP*en adibidetzat eman daitekeen euskal idazkirik. Ziurrenik, *Hau da ixasoco nabigacioneco* dateke gehien hurbiltzen dena.

Zerrendako azken hirurak, beste belaunaldikoak dira: bulgarizazio-lanak izanik ere, euskara jakintzetan ere erabiltzeko garai berriek dakarten grinaren adierazle interesgarriak ditugu. Zientzia edo teknikazko testu izan gabe, gaurko *LSP*aren noziora gehien hurbiltzen diren idazlanak, nomenklatura modukoak diren Aranzadirena eta Lacoizquetarena ditugu.

Zerrenda horretan jasotzen ez diren zuzenbide-administrazioari dagokionak alda dezake neurri batean ondorio etsigarri hori. Izan ere, Iraultza Frantsesaren garaian (infra IV. 2.5.) eta ondoren Ipar Euskal Herrian itzultzen diren testu juridiko-politikoek, eta geroagoko hainbat herritako ordenantzek erakusten duten hizkera espezializatuak merezi du, gure ustez *LSP*aren tratamendua. Baina testu horiek, zuzenbideko hizkerari dagokion kapituluan aztertuko ditugu.

Beste hizkuntzetako kopuruak hona ekartzen ez baditugu ere, esan daiteke ondorio gisa euskarazko hizkera berezietako testu idatziak oso urriak direla inguruko hizkuntzekin (baita katalanarekin ere) alderatuz

#### 6.2.4.- 1900dik 1936ra arte. Iruzkinak (Ik. I. 6.2.4. Eranskina)

Aurreko mendeekin konparatuz, honetako lehen herenean gai espezializatuko argitalpenen kopurua, eta kalitatatea (espezializazio-maila esan nahi baitugu) haziz doaz, eta era berean, orri-kopuruari dagokienez, gero eta handiagoak dira. Euskarazko testu espezializatuen hasi-masi haietan, urrats

handiak egin ziren, estrainako liburuxka besterik ez ziren haietatik hasi eta 1935ean Gabriel Jauregik plazaratzen duen 301 orriko *Pisia* libururaino, Olabideren *Giza soña*-tik igaroz.

Garai honetan, ordura arteko ez bezalako gai-aniztasuna aurkitzen dugu hala liburuetan nola artikuluetan<sup>48</sup>. Honela, matematika, fisika, kimika, geografia, medikuntza, anatomia, albaitaritza, zuzenbidea, badira izenburuan bertan iragartzen diren testuen gai. Jadanik 1900 urtean, *botanikaren* izena azaltzen da, 1913an *aritmetikarena*, *matematikazko* lehen testuak ikusten ditugu garai honetan, lehena, *Zenbakiztiya edo Aritmetika*, 1913an Lopez Mendizabal'dar Ixakarena; 1916an Olabideren *Giza-soña*, *Anatomia* (Giza-soñaren jakintza) bezala itzul dezakeguna; 1922an, Zabala-Aranaren *Lutelesti edo Geografia*, 1935an *Pisia* eta 1936an *Kimia*.

Dena dela, jakintza-izena izenburuan aipatu ez arren, medikuntzan eta beste zientzietan sailka daitezkeen testuak idatzi edo argitaratzen dira mendearen lehen heren honetan.

Orrien kopuruarengatik, gehienak artikulua edo liburuxkak besterik ez direla esan behar dugu, salbuespen gutxi batzuk kenduta. Orrien kopurua, eta gaiaren tramendu sakonean Olabideren *Giza-soña* eta Gabirel Jauregiren *Pisia* eta *Kimia* nabarmendu behar dira.

Aurreko garaiekin konparatuta, aurrera pausu galanta izan bada ere, esan behar da bai tituluen kopuruaren aldetik, bai iritsitako espezializazio-mailaren aldetik oso ahul dagoela garai haietako euskara.

#### 6.2.5.- 1936tik 1975era arte. Iruzkinak (Ik. I 6.2.5. Eranskina)

Aldizkari (orokor zein espezializatueta) artikulua jasotzen ez direnez, berrogei urte horietako zerrenda aurreko 36etakoa baino argalagoa agertzen zaigu, baina aldizkarietan, bereziki *Elhuyar*-en eta *Jakin*-en, argitaraturiko artikuluek oso multzo ederra osatzen dute. Gerrak eta gerraondoak eragindako euskal testuen geldialdiak 60.etakoa hamarkadan bukaera ikusten du. Hamarraldi horretako hasierako urteetan, era guztietako testu-argitalpenen hazkundera badago ere, motela, da, baina denbora igaro ahala, azkartuz doa. 1965 urtetik aurrera, irakaskuntzako helburuarekin gehien bat, ugaritu egiten dira gai espezifikoak tratatzen dituzten euskal testuak; haien espezializazio-maila ere gorantz doa (neurri batean, euskarazko irakaskuntza jasotzen duten neskato-mutikoen adina gora doan bezala, hasierako ikastolak ziren haur-eskoletatik unibertsitateraino). Urte horietan, kopuruan ez da gehiegi nabaritzen baina jauzi kualitatiboa egiten da. Testu batzuk aurreko garaikoen tankerakoak dira, ez dute gainditzen haur-

<sup>48</sup> Aurreko garaietan ez da ia agertzen mota horretako idazlanik.

hezkuntzaren maila, baina urtez urte esan daiteke, 1970etik aurrera, handituz doa testuen jasotzaile-irakurleen adina.

Ikastolak, eta irakaskuntza oro har, dira garai honetako euskal testuen espezializazio-mailaren goratzearen eragile indartsuena. Irakaskuntza-testuak prestatzen dira han-hemen; gehienak ez dira ISBNaz hornituriko liburu-gisa argitaratzen, baina hizkera moldatuz doa; laster, irakasleen lagungarri, atzerrikako entziklopediak eta beste dibulgazio-lanak itzultzen dira, ia beti helburua euskarazko irakaskuntza delarik.

Jauzirik handiena, ordea, bereziki fisika-kimika arloan gertatzen da, unibertsitate-maila daukaten lanak argitaratzen baitira. Izan ere, unibertsitate batean inoiz euskaraz onartutako lehen tesina aurkezten da garai honetan: Jazinto Iturberen *Hartree-Fock-en methodoaren hurbilketa erdi enpirikoak*. Elhuyar Elkartearen biltzen diren kimikari eta fisikari euskaltzaleak dira gehien nabarmendu direnak garai honetan; 1974 urtean kaleratzen den *Elhuyar* aldizkariak unibertsitaterako izan nahi duten testuak argitaratzea hartzen du jomuga. Natur zientzietan ere, Aranzadi elkarteko hainbat ikertzailek jarraikitazunez ekiten diote euskaraz idazteari.

Esan bezala, jasotzen ez diren ehunka artikulua kontuan hartu beharko lirakeke berezitasuneko hizkeren garapenaren berri zehatza izateko.

Zuzenbidearen munduan esan behar da garai honetan beste gaiekin alderatuz, berebiziko atzera-pausoa gertatzen dela, ofizialtasun ezaren ondorioz, garatzen ari diren ikastoletan zuzenbidearen irakaskuntzarik ez izatearen ondorioz. Baina puntu hau IV. kapituluuan sakonduko dugu.

### 6.2.6.- Gai espezializatuetao liburuak 1976tik aurrera

Kapitulu honen helburua denez espezialitateko testuak euskaraz noiz sortu eta noiz ugaritzen diren aztertzea, ez gara luzatuko data horretatik aurrerako *LSPT*zat eman daitezkeen testu guztien berrien xerka. Gainera, euskal liburuen katalogazioan egina dagoenez gaikako sailkapena, Torrealdairen<sup>49</sup> arnas luzeko langintza bibliografikoaren emaitza nagusi diren liburuetao datu batzuk aldatuko ditut hona, zenbait iruzkinez horniturik. Uste dugu kopuru eta zenbateko horiek aski direla azken mende laurdena hizkera berezi asko sortu eta garatzen diren garaia dela frogatzeko.

*Euskal kultura gaur: Liburuaren mundua* liburuan (Torrealdai 1997b:56) ikus daitezke historia osoko euskal liburuen kopuruak urtealdika eta gaika

<sup>49</sup> Urte luzeetan zehar *Jakinen* orrietan argitaraturiko lanaren, ondorioz, XX. mendeko euskal liburuen katalogoetan eta bibliografian erreferentziatzen diren gainerako liburuetao.

antolaturik. Sail horietan ipinitakoetatik zein eman daitekeen liburu espezializatutzat oso modu orokorrean besterik ezin dugu igarri. Uste dugu, aitzitik, nahiko zuhur jokaturik 1, 4,6 eta 8 sailtakoak osorik bazter ditzakegula.1976-1994 urtealdian, katalogaturiko 10.248 izenburuetatik (lehen edizioaz soilik ari dela), gaika honako portzentaiak hartzen dituzte:

Sailak	Ehunekoak
1: Aisia liburuak	% 3,5
2: Erlijioa eta teologia	% 3,4
3: Giza eta gizarte zientziak	% 18,4
4: Haur eta gazte literatura	% 23,1
5: Hezkuntza eta irakaskuntza	% 27,6
6: Helduen literatura	% 17,1
7: Zientzia eta teknika;	% 5,1
8: Gainerakoak	% 1,8

**2. taula: 1976-1994 euskal liburuak gaika. (Torrealdai, 1997b: 56)**

Hezkuntza eta irakaskuntza sailekoak testu berezizat hartuz gero, 3 + 5+7 sailen artean % 51,1 hots 5.328 liburu, neurri batean edo bestean gai bereziko testutzat jo ahal izango lirake. Uste dugu, hala ere horietako asko ez lirakeela LSPko testutzat hartuko hizkuntza normalizatu batean.

Oso laburra da "7: Zientzia eta teknika" gisa sailkaturiko liburuen zerrenda: 525 guztira, eta "Natur Zientziak" (217) eta "Nekazaritza" (122) alde batera utziz gero, matematikako 19, ingeniariatzako 51 eta medikuntzako 75 besterik ez dugu aurkitzen.

Torrealdaiak berak, urtero bezala *Jakinen* 1997ko datuak aurkezten dituen artikulutik (*Jakin* 109, 1998, 77-151) honako zertzelada hauek jaso ditugu:

1994an egindako diagnostikoa bermatu egiten da; euskal liburuen produkzioan ez dago 1980 urteetako azelerazioa, eta espezialitate berriak argitaratzeari dagokionez, oso aleka gertatzen da.

Horrela, "5. Zientzia hutsak, Zientzia zehatzak eta Naturalak." atalean, hau da, matematika, astronomia, fisika, kimika, geologia, meteorologia, paleontologia, biologia, botanika, eta zoologia hartzen dituen atal osoan, denetara 7 titulu bakarrik argitaratzen dira. "6. Zientzia erabiliak. Medikuntza. Teknika" hau da, "medikuntza, ingeniariatza, teknika, nekazaritza, basogintza, zooteknia, etxeko ekonomia, industria, kimikagintza, zenbait industria eta lanbide, eraikuntza eta sukaldaritza" sailkaturiko liburuek 30 titulu besterik ez dute ordezkarri.

## 6.3.- *LSPei* buruzko lanak euskaraz, eta euskal *LSPei* buruzkoak

### 6.3.1.- Zer eta nola bildu nahi izan dugun

Hizkera bereziei buruzko gogoetak eta testu berezien produkzioarako laguntza-testuak, testu espezializatuen produkzioari zeharo lotuta agertzen dira. Ezinbestean, nekez egin baitaiteke metahizkuntza bat hizkuntza bera eskas delarik. Aipatuko ditugun salbuespen interesgarri apur batzuetatik at, mende honetara arte ezin da esan hizkera bereziak euskal idazleen buruhaustea izan direnik. Larramendik, gogoeta interesgarriak utzi zizkigun, erdaraz badira ere. Ondoren, 1936ko gerrate aurretik, Altuberen artikulua eta hitzaldi batzuk kenduz gero, ez dugu ediren zuzenean gure gaia ukitzen duenik. Euskara batua ekarriko zuen belaunaldira arte itxaron behar da euskal idazleen edo erakundeen artean hizkera bereziei buruzko kezka azalera dadin. Azkenik, ematen ditugun arrazoiak direla-eta, nahiko argi ikusten dugunez, 1976an koka daiteke euskal hizkera bereziei buruzko gogoeta-ekoizpenaren abiaburua.

Horiek horrela, uste dugu 1975era arte egingarria dela, eta lortu dugula, ez, inondik ere, hizkera bereziei buruzko gogoetaren bat dakartzaten testu guztien bilketa exhaustiboa, baina bai izenburuak horrelako zerbait adierazten dutenena.

Data horretatik aurrera, hain dira ugariak era guztietako euskal testuak, non gure ahalmenak eta helburuak erabat gainditzen baitutu haien bilketa-lanak. Data horietatik aurrera, gai horiek bereziki landu dituztenen lanetan, aldizkari edo agerkari nolabait espezializatuetan —ez, alegia, informazio orokorreko egunkari eta aldizkarietan, *Argia* astekarian edo *Euskaldunon Egunkarian* kasu— izenburuan halako erreferentzia dakartenak jasotzen eta sailkatzen saiatu gara. Bilketa, beraz, ez da erabatekoa, baina uste dugu izkribu garrantzitsuneak eta adierazgarrienak gure zerrendan daudela.

Euskal hizkera bereituei buruzko testuen artean sartzekoak dira, haien lexikoaren bildumak direnez, hiztegi espezializatuak; baina hurrengo kapituluan euskal terminografiaz arituko garenez, haien katalogoak eta azterketa pausatuagoa harako uzten dugu.

Bi multzotan sailkatuko ditugu (hirugarrena hiztegiarena litzateke), hortaz, euskal hizkera bereziei buruzko testuak: teoriko-metodologikoak alde batetik, eta laguntzazkoak, bestetik.

### 6.3.2.- Aurrekariak, Larramenditik Altubera

Ettxeparerengandik hasita hainbat idazle klasikotan suma daiteke euskara



gai guztiez idazteko moldatu beharraren kezka, baina dudarik gabe Larramendi da lehenbizikoa arazo horretaz artez eta sakon jardun dena. Ondoren ere, urte asko igaro beharko dira halako gogoetak idazten duenik aurkitzeko.

Andoaindarrak 1745ko *Diccionario Trilingüe*-ren sarrera luzean, bi hitz mota bereizten ditu:

*"Para la prueba hago una distincion de dos generos de vocablos; pues sin methodo y a destajo nada puede concluirse bien especialmente en estos puntos espinosos. Puede el comercio humano considerarse, como dependiente de las Facultades, Artes, y Ciencias. ò como independiente. De el primer modo contiene una Lengua multitud de voces facultativas, propias de las mismas Ciencias, Artes y Facultades: de el segundo modo contiene otra multitud de voces que son comunes, usuales y practicadas, aun del mismo vulgo" (1745:XI)*

Bereziki interesgarria da nola zehazten duen, hitz horietan ere euskara beste hizkuntzak baino aberatsagoa dela esan ondoren, ez dituela gai horiek tratatu:

*"El Bascuence aun no ha llegado a tratar dessas cosas, y los Sabios que quisieran tratarlas en Bascuence, tienen derecho a lo que dize Ciceron ò a tomar voces de otras lenguas, ò a formar nuevas con discreción;.."*

*"Ser una Lengua erudita, es ser capaz, y oportuna para todo esto; porque puede hablar facilisimamente en todas las artes, y Ciencias, sin que de su parte haya dificultad, ni embarazo; y el que muchos encuentran, està en la poca inteligencia que tienen del Bascuence, assi en quanto a su extensión, como en quanto a su perfeccion y primores. y desta poca inteligencia, aun de los mismos Naturales, me quejaré mas abaxo." (XXXIII)*

*"Ademàs del lenguaje vulgar, y de sus voces pongo en este Diccionario las voces que pertenecen a las Facultades, Artes, y Ciencias. En quanto a estas en un sentido puede decirse, que el Bascuence es pobre, y que no tiene voces ningunas suyas: y en otro sentido puede, y debe decirse, que tiene todas las necesarias propias de sus raices, y origen. En el primer sentido el Bascuence no ha necesitado de voces propias ni ajenas, porque ninguno ha escrito en Bascuence de las Facultades, y Ciencias, ni ha pensado, que sea lengua oportuna para hablar en ellas. Aora està en otra disposicion el Bascuence, y en punto para hablarle en qualquiera Ciencia y Facultad:.." (XLVIII )*

Gogoeta teoriko horiek badute isla, jakina den bezala, *Diccionario Trilingüe*-ren gorputzean. Beste ezein euskal hiztegitan baino berezitasunezko hitz gehiago agertzen dira bertan, hainbat ahozko edo idatzizko euskaratik jasoak, hainbat berak sortutakoak.

Larramendiren ondotik, seguruenik Altube da XX. mendearen hasieran zientzia eta tekniketarako euskararen berezitasunaz eta euskara-mota desberdinen artean bereizi beharraz, argien eta zabalena idatzi zuen idazlea.

Villasantek (1963-64:296) dioenez, ahanzi samarra zegoen lan batean —geroztik sarritan aipatu bada ere<sup>50</sup>— agertzen da Altuberen gogoeta luzeena. Lan hori, «"Euskel Itz Barrijak". Eurok eraltzeko erdaraak zetara lagundu egin bear dauskuen» Eusko Ikaskuntzaren batzarrean, Gernikan, 1922an egindako hitzaldia da; bertan, “*lau 'klasetako izkera berarizkoak*” bereizten ditu. Hona haren hitzak

“*Lenengo klaseko izkera berarizkoak. Euskalerrian aspalditik bertokotuta ditugun erlijio, langintza, jolasgintza, dendaritza, etxe-arazo-gintza ta abarrerri dagozkionak*”

“*Bigarren klasetako izkera berarizkoak. Atzerritik orain agertzen zaizkigun makiña, erreminta, jostailu, soiñeko ta komertziotako naiz artaz kanpoko beste tresna ta arazo guztiei dagozkionak.*”

“*Irugarren klasetako izkera berarizkoak. Erritar arazoez goitikoak; goi-jakintzari dagozkionak.*”

“*Laugarren klasetako izkera berarizkoa. Literatura izkera.*”

Horrelako hizkera-motak bereiztean Seber Altube euskarazko LSPen aitaponte bezala agertzen zaigu, ia berrehun urte lehenago aurrekari ospetsu izan zuen Larramendirekin batera. Hala ere, uste dugu berrogei urte luzetan Altuberen lan horren eragina ez zela handiegia izan, eta ia ezezagun jarraituko lukeela Villasantek haren berri eman izan ez baligu.

### 6.3.3.- Aitzindariak 1937-1975 ( Ikus 1.6.3.3. eranskina)

#### 6.3.4.1.- Gerra ondoko belaunaldi berriak.

Euskara batua ekarriko duen belaunaldiari guztiz lotuta dago euskara gai guztietarako erabiltzeko grina. Euskara batua, hiritartua, arlo guztietan erabiltzeko asmoarekin batera zetorren haren bultzatzaileen gogoan, eta alderantziz, euskara batuari oztopo handienak jarri zizkieten artean aurkitzen dira euskara arlo guztietara zabaltzearen aurreko beldurrik eta eragozpenik handienak.

Horixe erakusten digute Koldo Zuazoren *Euskararen Batasuna* liburutik hartu ditugun: Orixeren<sup>51</sup>, Justo Mocoaren<sup>52</sup> edo L.A. izenez Gernika

<sup>50</sup> Esate baterako, Azkarate (1997); guk ere, Villasanterengandik (1963-64, 305-309) hartu dugu aipua.

<sup>51</sup> *Ba-du euskerak bere edertasuna non agertu: ele-eder edo literaturan, izate-gaietan edo metapisikan, eder-legeetan edo estetikan, izkeran edo gramatikan. Utzi detzagun kimika ta olakoak, oriek ez baitira giza-izkuntza yatorra. Oriek ez dute batere edertu iñongo izkuntzarik. Itsusitu bai, gogotik. Zer esanen ote luteke Fray Luis biak eta Cervantes'ek, egungo gaztelan itsusia eta aldrebasa irakurriko ba lute? Ortara ezker, iakingai oriek erabili detzagun beste edozein izkuntzetan. (...) Guk gauetik goizera nai dugu egin guzia, eta lanik gabe, alegiñik gutxieneko legean zabartuz. ( Orixe "Mea Culpa eta Quos ego! 92.93 (Zuazo 88:364).*

aldizkarian idatzitako artikulu baten<sup>53</sup> edo 'Aspaldiko' izengoitidunaren<sup>54</sup>. aipuak Horien aburuz euskarari kalte egiten zion une hartan hizkera espezializatuak lantzea.

Euskararen batasunaren aldezeleen idatzietan, berriz, maiz agertzen da euskara arlo berrietara (“kalea”, “zientzia”, “goi-kultura”) zabaltzeko gogoia.

Garai haietan euskararen batasunaren eta modernizazioaren alde jardun zirenen izenik ezagunenak aipatzearen, Krutwig, Villasante, Txillardeggi, Oskillaso, Aresti, Mitxelena, Santamaria, Joxe Ramon Etxeberria, Zalbide, eta Jakin taldekoak gutxienez aipatu beharko lirateke.

Jarraikitasunez eta talde gisa langintza horretan aitzindari aritu ziren aldetik, aipagarriak dira *Jakin* aldizkariaren ingurukoak (Azurmendi, Agirrebaltzategi, Intxausti, Torrealdai...)

---

<sup>52</sup> 2 "Pretender rivalizar, en el terreno escolar o en cualquier otro dependiente de la administración pública, con dos idiomas oficiales, vehículos superiores de cultura moderna y sostenidos además por toda suerte de agentes económicos, sociales, demográficos..., y cuyo conocimiento tiene que ofrecer infinitamente más apreciables y ventajosos recursos que el uso exclusivo de una lengua como la nuestra, es renunciar a vivir. Pienso que en el campo de la escuela, sobre todo, corremos el peligro de comprometer toda la obra de salvación del euskera empeñándonos en cosas imposibles, con olvidar que "quien todo lo quiere todo lo pierde". Un ejemplo extremo valdrá para esquematizar mi pensamiento. Tengo delante el prospecto de un específico de farmacia, equis, descrito con esta formulación esotérica: "Terapéutica bipolar, de mutuo techo, integradora, basada en una concepción sintética, que permite en la práctica su adaptabilidad a la conclusión diagnóstica". Todo el mundo admitirá que más de ochenta millones de gentes de habla castellana no entienden nada de ese lenguaje; lo cual no impide que todas ellas sigan hablando castellano... El euskera no está en condiciones de expresarse así, ni lo estará en muchísimo tiempo. Tampoco lo estará para decir otras cosas... ni hará falta que lo esté para sobrevivir. Hay necesidad de ser más explícito?. Justo Mocoeroa "La lingüística aplicada a la enseñanza del euskera y la enseñanza en euskera" *II Semana de Antropología Vasca*. 228-229 . (Zuazo, 1988:366)

<sup>53</sup> "Edozeñak daki eritasun bat sendatzeko lenengo gaitza ezagutu bear dala. Aurren aurrena esan zagon euskeraren gaitza zarra dala ta sendatzeko zalla. Eri bati ezin zaio geiegi eskatu. Ezin jarri dezakegu español, prantzes, ingles eta beste erdera indartsuen mallan. Etxe lanetarako gai da ordea ta laguntza eta itzal aundia eman dezake oraindik urtetan eta urtetan euskal-erriari..."

Aiton batek illobak bezala, gure semeak euskaltasunean azi lezazke; ta gure sinismen, oitura, jolas, dantza ta euskal gogoaren zaindari bikaina izan diteke. Onek euskeraz Fisika, Kimika ta Matematikak irakastea baño geiago balio du. Gai oiek eta beste goi jakituria erderari utzita ere euskerari gelditzen zaio bazter polita: etxe-barrengoa erri artekoa, erreljioaren magal gozoa". L.A. "Euskeraren gaitz eta eritasunak" *Gernika* Décembre 1949 (26-27)

Garaiaren azken zatikoak (1972tik aurrerakoak) dira *Anaitasuna* aldizkarian, bereziki Joxe Ramon Etxeberriaren lumatik egindako lanak, eta 1974tik aurrera *Elhuyar* aldizkarian, fisika, kimika eta matematikari buruzko lanez gain, gai zientifikoetarako euskarari buruz argitaratutakoak.

#### 6.3.4.2.- Euskaltzaindiaren lanak: (Ik. I. 6.4.3.2. Eranskina)

Euskaltzaindian, hainbat bider<sup>55</sup> aztertu eta agertu den bezala, nahiko goiz suspertzen dira euskara batu-modernoaren aldeko indarrak. Horren adierazgarri nabarmena da 1959an, Mitxelenak idatzi eta Euskaltzaindiak onartutako agiria «Euskal itzak zein diren» izenekoa, guztiz kontuan hartzekoa, gure ustez, etorkizunean hizkera bereziek izan zuten garaldian.

Azkaratek (1997:256) gogorarazten duen bezala, 1963an, Euskaltzaleen Biltzarra egin zen “*Euskal hiztegia eta gaur eguneko beharrak*” eta horren barruan, (“*Kultura hitzak euskaraz*” gaia aztertzeko. Bertan aurkeztutako azterketa eta gogoeta batzuk<sup>56</sup> oso garrantzitsuak izan ziren euskarazko hizkera bereziak garatzearen aldekoentzat.

Zazpi urte beranduago, 1970ean, argitaratu zen zuzenean hizkera bereziei dagokion hurrengo lana: Euskaltzaindiaren bilkura-agiria, 1970eko azaroaren 27koa, (*Eusker* XVII, 1972, 243-248): etxegintza hiztegirako lan-taldea eta metodologia erabakitzen ditu. Garrantzizkoa izan zen, halaber Euskaltzaindiak 1972an hiztegegintzaz egindako bilera, zeinaren berri *Eusker* XVII, 1972, 247 eta hurrengo orrialdeetan irakur daitekeen.

Hiztegegintza espezializatuan egindako ekarpenen datu zehatzagoak aurki daitezke hurrengo kapituluan, terminologiaz aritzen garenean.

#### 6.3.4.3. Iruzkinak

Esan bezala, 1950ko hamarraldiaren bigarren aldian jadanik aire berriak sumatzen dira euskal letren munduan. “Hizkuntza larrekia noranahiko” bihurtu nahia, alegia,—Mitxelenak *Hauta Lanerako Euskal Hiztegiaren* “Atarikoan”,

<sup>54</sup> *Landuzale berri batzuek ba-ditugu aurrerantzean euskera areago eraman nai dutenak: Philosophia Naturalis, Bacon, Newton eta Einstein'en eremuetara. Ez dago gaizki ametsa. Nik uste ordea, ez ote dan oraingoz urrutitxo joatea. Teoloji goitar, kimika ta antzekoak ikasteko beti jo beariko dugu erderara. Gure indar eta almenak neurtu gabe geiegi eskatzea kaltegarri litzaiguke agian. Apaltxo iraungo ba'genu ere pozik. Gure literatura "quadrivium" otan sartuko nuke: 1º) Kristau-ikasbide ta erlisioa. 2º) Erri-Jakintza (ipui, kanta, komeri, bertso ta ele-beni). 3º) Gauzen ikaskizunak. 4º) Szientzi Matematikaren apur eta oñarriak, astapenak alegia. Aspaldiko, Euskeraren Batasuna, op. cit., 155. or. (Zuazo 1988:364)*

<sup>55</sup> Ikus bereziki Zuazo (1988)

<sup>56</sup> *Eusker* VIII-IX, 1963-64, 1963ko 09.30-10.02

Lizardiren hitzak bere eginez— aipatzen duen asmoa, kemen berriz agertzen da, fruitu oparoak ematen oraindik beste hogeitun urte berandutuko bada ere.

Bi arlo dira, nagusiki, horretan bat egiten dutenak: alde batetik haurren irakaskuntza-mundua, ikastoletakoa bereziki, eta bestetik gai teologiko-filosofikoetan hasieran, eta soziologia, fisika-kimika eta natur zientzietan geroago, halako goi-maila batean euskaraz aritzeko egiten diren saioak.

Bildutako lan gehienetan nabarmena da egileen gogoan eta asmoetan dagoela euskararentzat aro berri bat zabaltzea, zeinetan gure hizkuntza tresna baliagarria izango den gai espezializatu guztiez aritzeko. Zentzu horretan, hiru artikulu bereziko genituzke asmo horren eta egoeraren deskribapen zehatzena eta zabalena dakartelakoan:

Garaiaren hasieran Azurmendiren artikulua (1963-64), aipatuko genuke. *Jakinen* lanen apologia bada ere, orduko egoeraren berri izateko, eta euskaltzaleen sektore baten asmoak eta egitasmoak nondik nora zihoazen ezagutzeko oso lan baliotsua.

Eta garaiaren bukaeran, Mikel Zalbidetik (1974) *Elhuyar* aldizkariaren lehen alean idazten duen «Zientzi eta teknikarako hizkuntzaz» artikuluekin batera, Joxe Ramon Etxebarriak (1975-76) aldizkari beraren hurrengo aleetan argitaratutako «Euskara teknikoari buruz iritzi batzu» artikulua ezinbestekoak dira orduko arazoak, gorabeherak iritziak eta egitasmoak ulertzeko.

Horiez gainera, horrelako asmo orokor deskribatzaile gabe, zein bere arloan, oso mamitsuak dira Michelena (1973), Villasante (1963-64, 1973), Amuritza (1974), Berriatua (1963-64), eta ekintzaren bat aipatzekotan, 1963an egindako Euskaltzaleen Biltzarra (*Euskera. Euskaltzaindiaren lan eta agiriak VIII-IX*, 1963-64).

Aurrekari horien, eta besteen lan teorikoek, garrantzi handia izan zuten hurrengo urteetako garapenean.

### 6.3.5.- 1976tik aurrera. (Ikus I. 6.3.4. eranskina)

#### 6.3.5.1.- Testu eta hiztegi espezializatuen garaia.

Garai honetan erabiltzen dugun irizpidea askoz hertsia da. Ezinezkoa izango litzaiguke honainoko zabaltasunez jokatzeko, hizkuntza modernizatzeari edo erabilera berezietan buruzko gogoetak egiten dituzten lanak oro biltzen saiatzea: euskara normalizazio-bidea abiatuta zegoen seinale, ugariegiak liriateke horrela bildutako testuak.

Euskalgintzan dihardutenen artean maiz izan da hizpide eta gogoetagai euskararen munduak azken mende-laurdenean ezagutu duen zabaltze-aroaren

ezaugarri nagusietako bat hizkera berezietako testuak kalitatez, espezializatuagotuz, eta kantitatez, espezialitate gehiagoetara helduz, handitzea izan dela.

Askotan, eta era askotan agertzen den gaia da, hizkera bereziena. Ezinezkoa izango litzateke hizkera bereziei buruzko gaia ukitu duten idazlan guztien berri ematea. Hortaz, gure azterketa hizkuntz gaiez neurri bateko sakontasunez edo hedaduraz diharduten autoreetara eta liburu-aldizkarietara mugatu da gehien bat; halaber, saiatu gara terminologia edo hizkera bereziren bat izenburuan izendatzen duten lanak biltzen.

Hitz gutxitan esateko, azken 25 urtean euskal *LSP*en munduari zuzeneko ekarpen teorikoa nahiz praktikoa egiten dioten lanen katalogo-bilketa izan nahi du gureak.

#### 6.3.5.2.- *Natur Zientziak Hiztegia* eta haren «Atarian» hitzaurrea

Idatzi dugun bezala, 1970ko hamarkadaren lehen erdian jadanik argitaratzen dira benetako (modu modernoko) *LSP*ak erabiltzen dituzten testuak, eta hizkera horiek beren berezitasunean aztertzeke idatzitako lanak, baina uste dugu, eta horretan bat gatoz Jose Ramon Etxebarriak (1992:101) dioenarekin, *Natur Zientziak* Hiztegiak markatzen duela zientziaren arloko euskararen zedarr handi bat. Estrainako aldiz argitaratzen da euskal hiztegi espezializatu euskarazko definizioz hornitua, eta espezialitate horretako hainbat adituren lankidetzarekin. Esan genezake hura dela euskarazko lehen espezialitate-hiztegi modernoa, eta gainera, "Atarian" izeneko sarrera-artikulu luzean, Paulo Agirrebaltzategik egiten dituen gogoetak lexikografia espezializatuari buruz, han bertan martxan jarri zen lan lexikografiko handi eta eztabaidatua, UZEIkoa, abiarazi zuen.

Baina hiztegiaren eduki lexikografiaz at, haren sarreran, ere, euskal hiztegi gintza espezializatuan eragina izango duten zenbait gauza esaten da. Honako puntu hauek azpimarratuko genituzke:

*LSP*ei buruzko teorizazio edo gogoetak datoz, zientzia bat ikasteen hizkuntza berezi bat, haren gramatika, hiztegi eta guzti ikasten dela esanez (XIX), eta hizkera espezializatuak ez direla hitz berezien mordo huts bat, hizkuntzaren osagai guztiez osatutako hizkerak baizik. (XXI)

Herri-hiztegi arrunta eta zientzietako hiztegi landuak bereizten dira. Herri-hiztegi arruntaren barruan sartzen dira, "(...) *nahiz eta espezialdua izan "arrantzaleena, edo jostunena, edo nekazariena edo Eibarko langileena"* (XXII).

Sailkapeneko beste aldean kokatzen duen "zientzien" hizkerari buruz,

honela diagnostikoa egiten dio euskarari: "...*euskara herri kulturaren maila arruntean landua dago, baina ez gaurko zientzien mailan*" (XIII) eta aurrerago: "*Euskarak eta euskarazko kulturak urrats handiak eman ditu zientzi bidetan eta hizkera tekniko berezituaren bidetan: horixe agertzen ari da liburu eta argitalpenetan ezezik, ikastoletatik hasi eta lizeoetatik igaroz Unibertsitateraino lantzen ari den euskal hizkeran*" (XIII).

Hiztegi-moten sailkapena egin ondoren, Natur Zientziak hiztegiaren nolakotasunak azaltzen ditu: tradiziozko hiztegi espezializatua —jadanik hiztegitratua eta gainerakoa— biltzearen eta integratzearen aldekoa. Bere espezializazio-mailaz dio orokorra dela, ez dela espezialistentzat egindako hiztegi bat.

Zalantzak ere, plazaratzen ditu, ea garaia ote den horrelako hiztegi espezializatuak eta teknikoak egiteko.

*Natur Zientziak* hiztegiak, argitaratu zen garaian, ez zuen aparteko zaratarik eragin, baina haren ondotik etorri zen hiztegi-gintza, UZEI-ren produkzioa, alegia, ez zen ahobatez onartu. Baina gai hori bete-betean terminografiari dagokionez, hurrengo kapituluan aztertuko ditugu hiztegi honen ondorioak.

#### 6.3.5.3.- Eranskinen zerrendaren iruzkinak (Ik. I 6.3.5.3. eranskina)

##### 6.3.5.3.1.- Ez daudenak.

Lehenik eta behin argitu dezagun ez dugula eranskin honetara ekarri hiztegi-gintza espezializatua, nahiz eta guztiz sartu gure ikerkuntza-alorrean. Arrazoi bakarra da ez dugula errepikatu nahi izan, eta bere tokirik egokiena terminologian zegoela iritzi diogunez, bigarren kapitulura eraman dugula.

Hala ere, gure ikuspegi orokorrerako zenbaki batzuk kontuan hartuko ditugu: 75etik gora hiztegi espezializatu argitaratu dira 1976tik aurrera liburu edo liburuxka formatoan. Horiez gainera, ehundaka dira beste argitalpenen barruan eta glosario edo hiztegi osagarri moduan kaleratutakoak, eta ugari, baina guretzat zenbatu ezinak argitaragabeak. Gaineratzen badugu, euskarri informatikoan dagoen Euskalterm hiztegi terminologikoa, uste dugu nahiko datu badela esan ahal izateko hiztegi-gintza espezializatuak izan duela, behetik jota ere, testu espezializatuaren produkzioak izandako garapena.

Zuzenbidezko testuekin bezala jokatu dugu, hirugarren kapitulurako utziaz haien bilketa-lan xehetuagoa. Aurrera dezagun, zenbakietan ere, ugarixko direla hizkera berezi horri buruzko testuak. Gure ustez, beste hizkerei buruzkoak baino ugariagoak.

Errepikatutako arrazoiak direla-eta, ez ditugu bildu espezializaziorik gabeko aldizkarietan, hala nola *Argian* edo *Egunkarian* argitaratutako artikuluak.

#### 6.3.5.3.2.- Lan teoriko-metodologikoak

Multzo honetan sartu ditugu hizkera bereziak orokorki, hizkera berezi zehatz bat, edo horiei buruzko arazo teoriko edo gai metodologikoren bat tratatzen duten idazlanak.

Aipatutako absentzia eta baldintzapen guztiak kontuan harturik, 66 idazlan sartu ditugu gure zerrendan. Dударik gabe, aurreko garaiekiko alde nabarmena adierazteko nahikoa.

Lan horiek non eta nola argitaratu diren begiratzen badugu, ikusiko dugu badagoela hainbat artikulu nazioarteko aldizkarietan argitaraturik euskarazko hiztegi espezializatuei buruz. Horiek ere jakingarriak zirenez zerrendaratu ditugu.

Euskarazkoetan, multzo bat hiztegien hitzaurrez osaturik dago. Guztiz argigarriak iruditu zaizkigu hiztegi gilean oinarriak, metodoak eta asmoak ezagutzeko.

Jadanik aipatu dugun *Elhuyar* aldizkarian argitaratu dira beste hainbat. Baita euskal aldizkari zientifiko den *Ekaian*, eta aurrerago aztertuko dugun *Eleria* euskal aldizkari juridikoan. Euskarazko gai nahiko espezializatuko aldizkariak egoteak berak adierazten du berebiziko aurrerabidea egin dela aldi honetan.

Arakatutako beste aldizkariak: *Euskera*, *ASJU*, *Egan*, *FLV*, *Berba*, *RVAP*, *Senez*, *Entseiukarrean*.

Ez dugu liburu asko eriden euskara berezia gaitzat daukanik, baina bai batzuk. Osoena, edo orokorrena agian, aurrerago aztertuko dugun *Euskara*, *Zuzenbidearen hizkera*.

Beste bi liburu: 1989ko administrazioko terminologia eta hizkerari buruzko IVAPeko Jardunaldien eta Nazioarteko Terminologia Biltzarraren emaitzak jasotzen dituztenak dira artikulu askoren kokalekua.

#### 6.3.5.3.3.- Gramatika-lanak eta beste lan praktikoak

Atal horretan bildu ditugu artez edo zeharka hizkera berezien edo hizkera berezi baten alderdi lexikologiko edo gramatikoren bat lantzen duten artikuluak.

Izan ere, garai honetan, aurrekoetan ez bezala, hainbat lan egiten da esplizituki, izenburuan hori adieraziaz, alegia, hizkera berezien ekoizpenean sortzen diren hizkuntz-arazoei aurre egiteko.



33 izenburu zenbatu ditugu guztira, artikulua gehienak, nahiz eta gutxienez bi liburutan: Odriozola, (1984, 1999) eta Zabala (1996<sup>a</sup>) *tekniko* izenondoa agertzen den izenburuan

Hainbat aldizkari desberdinetan argitaratu izan dira horrelako artikulua, bereziki, *Elhuyar*, *Euskera*, *Ekaia* eta *ASJU*n. 1997an egindako Nazioarteko Terminologia Biltzarraren akten liburuan jasotzen dira artikulua mamitsu mordo bat.

#### 6.4.- Iruzkinak: *LSP*en garatze-garaia

Hizkera bereziak, alegia, diziplinaren barruan *LSP* izenez ezagutzen direnak, XX. mendean agertu direla esan dezakegu. Aurreko mendean badaude, gutxi badira ere, ohiko lanbideei dagozkien hizkera bereziak jasotzen dituzten testuak, ez ordea, orduko hizkuntza normalizatu batean jakintza-testutzat emango zenik.

Testu espezializatuen ugaltze hori hizkuntzaren estandarizazioarekin batera gertatzen da. XX. mendearen azken laurdena da euskararen estandarizazioaren garaia.

Mende honetako hizkera berezien ibilbidea euskararenaren paraleloa izan da: Hasi-masiak 1900dik 1937ra, gerra ondoko etenaldia, eta 1955etik aurrera apurka eta herabeki agertzen den asmo eta gogo berria 1976tik hona gauzatzen da, ez hizkuntza "normalek" iritsi duten mailan, baina bai, ziurrenik, hizkera berezien garapenari dagokionez, euskara munduko hizkuntzen *ranking*-ean toki aski erosoan ipintzeko moduan.

Euskal Herriko zatiketa nagusia nabarmentzen da garai honetan: esan daiteke lerrootan deskribatzen diren hizkuntz produkzioaren aldaketak Hegoaldeari soilik dagozkiola. Ezer gutxi aurki daiteke Iparraldean.

Itzulpenak pisu handia dauka. Testu espezializatueta, orokorretan eta literaturan baino ehuneko handiagoa da itzulpena.

Irakaskuntzaren inguruan gertatu da arlo askotako testu espezializatuen ugaltzea eta mailaz igotzea. Garai horretan, 1976tik aurrera, ugalduz doaz hainbat irakasgaitako eskola-testuak<sup>57</sup>. Liburu-formakoak gutxi dira hasieran, mekanografiaturiko apunteak apurka liburuxka bihurtuz baitoaz gehienetan. 1980ko hamarkadan eskola-institutu mailetako ikasliburuen edizioa normalizatu egiten da. 1990ko hamarraldiak unibertsitate-mailako eskuliburuen ugaltzea dakar.

<sup>57</sup>Torrealdak (1997b:193) dioenez, hezkuntzarako eta irakaskuntzarako tituluak 2.827 (%19,5) dira, eta aurreko garaian (1936-1975), 145 besterik ez ziren izan.

Testu espezializatuen ugaltze hori ez da modu orekatuan gertatu: arlo batzuetan askoz ere presentzia handiagoa lortzen dute besteetan baino. Oso urri agertzen dira<sup>58</sup> preseski *LSP*en literaturan prototipikotzat ematen diren arloak, esan nahi baita, ingenieritzak, teknologiak, medikuntza, zientzia gogorrak...

Testu espezializatuen benetako funtzioari edo erabilerari buruzko azterketarik ez dugu ezagutzen. Baina Torrealdaik ematen dituen berralgitapenei buruzko datu batzuek, eta beste hainbatek, (zuzenbideko testuez ari garela zehazkiago landuko baititugu) susmarazten dute irakaskuntzaz kanpoko testu espezializatu askoren funtzioa ez ote den sinboliko hutsa. Izan ere, testu elebidunak, eta bi zutabetan argitaratuak, izateak horretarako bidea ematen baitu.

Denboraldi hori, beste inongo hizkuntzarenekin alderatzeko bide zehatzik ez badugu ere, uste dugu labur samartzat jo behar dela, beraz, lan azkarra izan dela azken mende laurden honetan egindakoa. Euskal *LSP*-testuetan aurki daitekeen lexikoak, hala nola hiztegi espezializatuetan jasota datzanak, euskarak dituen baliabide lexikogenetiko guztien erabilera eta eraginkortasun handi baten lekuko dira.

---

<sup>58</sup>Ez da batere harrigarria, gurea baino askoz normalizazio maila altuagoa lortu duten hizkuntzek ere (Mari i Mayans 1988:IV) hutsune berbera baitute.

## II. KAPITULUA

### TERMINOLOGIA

Aurreko kapituluuan (3.5. puntuan bereziki) ikusten genuen autore guztiak ados zetozela puntu batean: hizkera berezietan lexikoa da ezaugarri markatuenak dituen hizkuntz atala. Kapitulu honetan lexiko berezi horretaz arduratu den diziplinaren lerro nagusiak marrazten saiatuko gara, nagusizat eman den teoriaren ekarpenak eta alde kritigarriak bereziaz; ondoren, terminologiak lexikologiari zor diona azpimarratuaz, terminoen forma linguistikoaz arduratuko gara, sintagma terminologokoari arreta berezia eskainiaz. Termino-sorkuntzaren hainbat alderdi, hala soziolinguistiko nola linguistiko, aztertuko ditugu ondoren. Terminologiari oro har dagozkion puntu horien ondotik, aurreko kapituluuan egin dugun bezala, euskarazko terminologia eta terminogintza landuko ditugu. Euskaraz terminologiari buruz eta hizkera bereziei buruz idatzi direnak berezi nahi izatea aski zaila bada ere, saiatu gara eranskinean biltzen, eta kapituluaren barnean iruzkintzen bereziki terminologiaz aritu diren artikulua eta lanak. Badago, noski, terminologiari zuzen-zuzenean dagokion testu-mota bat: hiztegi berezia edo terminologikoa. Horien berri zehatza ematen ere saiatuko gara.

#### 1.- TERMINOLOGIARI BURUZKO OROKORTASUNAK

##### 1.1.- Terminologia. Terminologiaren Teoria Orokorra

###### 1.1.1.- Bi hitz terminologiaren sorreraz eta oinarriez

Inguruko hizkuntzetako, *terminologie* / *terminology* / *terminologia* / *Terminologie* hitzari dagokionez, badirudi lehen aldiz alemanezkoa agertzen dela Christian Gottfried Schütz, Halle eta Ienako irakasle alemanaren (1747-1832) lumatik (Rey (1992:6); baina *terminologische* adjektiboaren lehen agerpena hobeto dataturik dago, 1788 urtean. Handik laster, ingelesez *terminology* eta *nomenclature* ia sinonimotzat erabiltzen dira; frantsesez, berriz, 1801 arte ez da '*terminologie*' hitza idatzirik agertzen. Baina *terminology* hitzari benetako balio zientifikoa emateko XIX. mendea arte itxaron behar da; William Whewell da 1837 urtean honela definitzen duena: "*Natur historiaren gaiak deskribatzerakoan erabilitako terminoen sistema*". Natur zientzietara mugatzen bazuen ere, definizio horrek, '*terminoaren*' adigaiari '*sistema*', '*gaia*', eta '*zientzia*' sartzean, Whewellek gaurkotasun handiko definizioa eman zuen.

Harrezkero *termino* hitzaren bi esanahi nagusiak ('terminoen multzoa' eta 'terminoen azterketa') ongi finkatu dira, eta hitz hura erabiltzen duten hizkuntza guztietara igaro dira. Dena den, denbora luze samarra joaten utzi beharko da 'terminologiaren' kontzeptua finkatzeko eta hitzaren erabilera normalizatzeko, zeren eta, *nomenklatura* hitza da, eta ez *terminologia*, zientzietan (bereziki botanikan, zoologian, kimikan eta anatomian), gehien erabiltzen dena oro har, mende honetan ondo sartu arte (Rey 1992:6).

Euskarari dagokionez, inguruko hizkuntzetan *terminologie* / *terminology* / *terminologia* hitza, bere esanahi bikoitzez hornitu eta gero, jasotzen du maileguz. Esan daiteke euskarazko *terminologia* hitza haien baliokide betea dela.

Terminologiari buruzko estudioak lehendik bazetozen, oro har onartzen da 1931 urtea dela terminologia zientziaren jaioturtea, urte horretan plazaratu baitziren bi lan nagusi, bata Wüster-en *Internationale Sprachnormung in der Technik* ospetsua, eta bestea, Lotte sobietarrarena.

Harrezkero, hiru eskola nagusi (Bouchard et Globensky, 1993:6) alegia, Vienakoa, Wüster-ek berak sortua, Pragakoa, terminologiaren izaera sistematikoa bereziki landu zuena, hizkera berezien deskribapen funtzionalari ekinez, eta 1935 ondoren, sobietarra, Wüster-en eta Lotteren eraginez sortua. Hiru eskola nagusiak, oinarri komun gainean eratu dira, neurri batean. Haietako kideei zor zaie ondorengo doktrina terminologikoa, zeina, inplikazio akademikoez at, nazioartean erabat hedatu baita, gerra aurreko ISA, eta gerra ondoko ISO arauen bidez. Haien ondotik, beste eskolek terminologiaren beste ikuspegiak landu dituzte; gure hizkuntzari dagokionez, Quebec-eko terminologia-eskolaren eragina aipatuko genuke, hizkuntzen normalizazio-saioetan terminologiak duen garrantzia azpimarratu zuelako.

Wüster-ek fundatutako '*Allgemeine Terminologielehre*', *General Theory of Terminology*, edo '*Terminologiaren Teoria Orokorra*'<sup>1</sup>, hasieratik agertzen da hizkuntzalaritzari buruzko independentzia oinarritu nahian. Esan behar da, Wüster-en aburuz ez dagoela zalantzarik terminologiaren ikerkuntzaren izaera zientifikoa, ez eta bere kokapenaz: hizkuntzalaritza aplikatuaren atal bat da. Horren arabera hizkuntzaren egoerari buruz, terminologiaren teoriaren jarreran hiru alderdi nabarmendu behar dira.

Lehena da adigaien zehaztasuna eta lehentasuna (Wüster, 1981:63). Hastapen horretatik bi puntu ondorioztatzen dira: alde batetik langintza terminologikoaren izaera onomasiologikoa, hau da, adigaitik abiatuta teminoaren bila joatea, eta bestetik, terminologiaren eta lexikologiaren artean, bakoitzaren ikergaia espezifikatuaz, ezartzen den desberdintasun nagusia. Saussureren

---

<sup>1</sup> Sagarnaren (1985:13) itzulpenean

hizkuntzalaritzaren oinarrian dagoen zeinuaren bi alderdien, hau da, adieraziaren eta adierazlearen, banaezintasuna ez da ezkontzen kontzeptuaren eta zeinu linguistikoaren independentziarekin. Izan ere, kontzeptu zientifiko edo teknikoa ez da adierazi huts bat, aurrerago azalduko dugun bezala.

Wüster-en bigarren printzipioa da lexikoa lehenesten dela gramatikaren, edo hizkuntzaren beste alderdi guztien aurretik (Wüster 1981:64). Terminologiarentzat, hitzak eta hitz-multzoak dira garrantzitsuak; hizkuntzaren gainerako alderdiek ez baitute errelebantziarik diziplina honentzat. Horrek esan nahi du hitz bat edo hitz multzo bat unitate terminologikoa dela, ez hizkuntzaren sisteman hala delako, baizik eta ezagutza-eremu bateko kontzeptu baten izendapena delako. Terminologiak, ezagutza-unitateen irudikapen linguistikoak dira. Terminoen eta adigaiaren arteko erlazioa da terminologiaren abiapuntua.

Hirugarren printzipioa da terminologia-zientziak ikuspegi sinkroniko batez hartzen duela hizkuntza. Diakronia ez da terminologiaren aztergaia, bai ordea, hizkuntzaren ikuspegi internazioanala: izan ere, ezagutza zientifiko edo teknikoaren alor bateko adigaiak dira terminologiaren gai, eta haiek, bokazioz, unibertsalak dira. Terminologiak, unean uneko ezagutzak onartzen dituen kontzeptuak hartzen ditu kontuan.

### 1.1.2.- Terminoa, terminologiaren objektua

Ikusten ari garenez, terminologiaren izateko arrazoia, oraino definitu ez dugun 'termino' izeneko zerbait da. Puntu honetan, terminologiaren eskola nagusiak terminoen izaeraz esan duena aztertuko dugu, baina horretan sartu aurretik, euskaraz gertatzen den arazo lexikologiko bati aurre egingo diogu.

#### 1.1.2.1.- Euskarazko 'termino' hitza

Ezer baino lehen begira ditzagun *termino* hitzaren zertzelada filologiko xume batzuk.

Aurreko puntuan esan badugu *terminologia* hitza mailegu berria dugula euskaraz, ez da gauza bera gertatzen *termino*<sup>2</sup> hitzarekin. zan ere, hitz horrek, OEHko 10 agerpenek eta Sarasolaren (1996) hiztegiak erakusten dutenez, izan du erabilerarik euskal tradizioan. Eta erabilerak polisemikoa, bai EPE, bai BARRUTI, bai HITZ adierak baitzituen, inguruko hizkuntzetako FR terme, ES término, EN term CA terme hitz arrunten antzera, nahiz eta erabileraren eraginez, polisemia are ugariagoa izan beste hizkuntzetan.

---

<sup>2</sup>Alde batera utziko dugu etimologia bereko 'dermio', nahiko zabaldua eta erabilia OEHren arabera, baina esnahaiaren aldetik inolako nahasbiderik sortzen ez duena, eta baita hitz adierarako egon zitezkeen beste aukerak, hala nola mintza hitza, OEHren arabera Larramendik eta Añibarrok adiera horretarako erabili baitzuten, baina iduriz, jarraitzailek gabeko proposamen hutsean geratu baitzen.

Aspaldi honetan, idatziz bederen ahaztuxe zegoen hitza<sup>3</sup>, azken garaian (EEBSko 1968-1990 eta ondorengo denboraldietan) birmailegatu egin dela esan daiteke. Mailegu berrian, ohiko esanahietako batzuk galdurik<sup>4</sup> ikusten ditugu, eta guri interesatzen zaigun esanahi tekniko gehiturik. Horrela bada, ezin esan gaurko euskaraz *termino* hitza oso polisemikoa denik, aipatutako beste hizkuntzetan bezala. Izan ere, euskarazko egungo erabilera gehien-gehienetan, *terminoa* da *terminologia* jakintza edo diziplinaren gaia, eta ez besterik.

### 1.1.2.2.- Terminoa zer den TTOarentzat

Terminologiaren Teoria Orokorra *termino* adigaitik abiatzen denez, ikus dezagun Wüster-en araberrako terminologia-teorietan oinarritzen diren hainbat definizio.

Lehena, Deutsche Institut für Normalisierung (DIN) normalizaziorako erakundeak egiten duen *terminoaren* definizioa 1986ko DIN 2432 arauan:

*"Ein Terminus ist als Element einer Terminologie die Einheit aus einem Begriff und seiner Benennung."*<sup>5</sup>

Bigarrena, nazioarteko normalizaziorako ISO erakundearena da: ISO/DIS 1087 (1988) ingelesez:

*"Term: designation of a defined concept in a special language by a linguistic expression".*

Eta hona ekarriko dugun hirugarrena *Vocabulaire systematique de la terminologie*, (Boutin-Quesnel et al,1985), hau ere helburu normalizatzailez egina:

*"Terme: Unité signifiante constituée d'un mot (terme simple) ou de plusieurs mots (terme complexe) et qui désigne une notion de façon univoque à l'intérieur d'un domaine."*

---

3OEh'n *'termino'*-ren agerraldi bakarra dago mende honetan, (HITZ esanahia); Sarasolaren *Maiztasun Hiztegia*n, berriz, ez da agertzen.

<sup>4</sup>"EEBSn *termino* sarrerak dauzkan agerraldi ugarietan (178), bi edo hirutan –eta ez oso garbi—aurkitu dugu EPE edo BARRUTI esanahia; aldiz, badira, erdararen kalko nabarmen diren esanahi-erabilerak 1984ko ondoko adibidean bezala : "*Atalase-maila osatzen duten helburu minimo horiek ez dira ezaguera-terminotan formulatzen, gaitasun edo trebetasun-terminotan baizik*" eta baita, logika, matematika, gramatika eta beste eremu batzuetako adieraz zehatz eta jasoak, baina gehien-gehienetan, HITZ-aren inguruko zerbait adierazten du. *Elhuyar* hiztegiak "*Término, palabra vocablo*" baliokideak soilik egozten dizkio; oso bestela jokatzen du *3000 Hiztegiak*, ondoko adiera guzti hauek, adibidez eta azpiadieraz horniturik, baitakartza: "*1 iz. término, estado o situación en que se encuentra alguien o algo .2 término, tiempo o plazo determinado. 3 término, expresiones, voces... especiales . 4 término, elemento. 5 Mat. término (cantidad). 6 palabra, vocablo .*"

<sup>5</sup>"*Terminoa, terminologia bateko elementua baita, adigai batek eta haren izendapenak osatutako batasuna da.*" [Gure itzulpena]

Definizio horietan argi eta garbi ageri dira terminologiaren oinarriko osagarriak: terminoa terminologia baten barruan kontsideratzea, alde batetik, eta adigaiaren eta bere izendapenaren lotura bestetik<sup>6</sup>.

### 1.1.3.- Adigaia, adigai-sistema, definizioa

#### 1.1.3.1.- 'Kontzeptua', 'nozioa', edo 'adigaia': terminologia-arazoak.

Inguruko hainbat hizkuntzatan, NOTIO eta CONCEPTUM<sup>7</sup>, latin-erroetatikako bi hitz daude. Bi hitzok, zehaztasunez bereizi nahi izaten dira, baina, maiz nahiko modu nahasian erabiltzen dira terminologiaren arloan.

Esate baterako Rondeauk (1984:22) terminologia normalizatzailearen jarraitzaile bezala dio: "*La notion de 'notion' en terminologie est similaire à celle de 'concept' en philosophie*", baina Reyk (1979: 29 eta hurr.) gogor kritikatzeko du frantsesarentzat ezarritako jokabide hori, *notion* eta *concepte* bereizi beharra azpimarratuaz.

Bere aldetik Cabrék (1993) ia beti erabiltzen du *concepte* hitza, eta Arntz eta Picht-en (1995) liburuaren itzultzaile espainolek, *concepto* aukeratu dute. Leratek, berriz, ingelesezko '*concept*' frantsesez '*notion*' itzuli ondoren, (1995:16) bi termino horiek nahastearen aurka idazten du. Gauzak are nahasiago agertzen dira ohartzen garenean alemanezko '*Begriff*' frantsesera itzultzerakoan batzuek '*concept*' eta beste batzuek '*notion*' erabiltzen dutela.

Eztabaida filosofiko-linguistiko hori argitzeko inolako asmorik gabe, hitza aukeratzera behartuta gaudelarik, hautaketa errazagoa egiten zaigu euskaraz badugulako hirugarren hitz bat, nahiko generikoa, bai NOTIO bai CONCEPTUM adierazteko balio dezakeena: *adigai* hitza, hain zuzen ere.

Erreferentziak eta aipua gehienak beste hizkuntzetatik egiten ditugunez, gure jokabidea izango da NOTIO-ren eta CONCEPTUM-en arteko bereizkuntzari garrantzi berezia ematen ez zaionean, euskarazko *adigai* hitz generikoa

---

<sup>6</sup>Besterik da alemanezko definizioa eta beste biak nahiko desberdinak izatea: alemanezkoan *Terminus*-en barruan baitaude ala adigaia (*Begriff*) nola denominazioa (*Benennung*), ingelesezkoan eta frantsesezkoan, aldiz, bi gauzok desberdintzat (nahiz eta hertsiki lotuak) ematen diren bitartean. Hala ere, hizkuntza desberdinen lexikoen funtzionamendu desberdina hain ondo irudikatzen duen arazo horren atzean egon daitekeen arazo filosofikoak ez dirudi praktikan aparteko zailtasunik edo diferentziazirik markatzen duenik. DIN-en arabera definizioa da, esate baterako Rondeaurena (1984:19), eta ISO-renaren bidetik doa Sagerrena (1990:57) baina guk ez dugu alde nabarmenik ikusten bien lanen artean. Adibide horrek erakusten digu antzinatek datorren adigaiaren eta izendapenaren arteko loturaren auzi filosofikoa erabakita izatetik oso urun dagoela.

<sup>7</sup>Erdi Aroko latinean hasi zen hitz hau gaurko adieran erabiltzen; latin klasikoan ez baitzuen horrelako esanahirik. Hemen latinezko forma hori erabili, hizkuntza erromanikoetan eta ingelesez dauden erro hortako hitzak ordezkatu nahi ditugu.

erabiltzea, eta *nozio* edo *kontzeptu* hitzak gordetzea, aipatutako autoreak horrela bereizi nahi duenerako.

### 1.1.3.2.- 'Adigai' adigaia

*Terminoaren* definizio klasikoan ikusi dugunez, *adigaia* du bere ezinbesteko pare. Ez dago bata bestea gabe ulertzerik. Ikus dezagun nola definitzen den *adigaia* normalizazio-erakundearen arauetan:

DIN erakundeak, *terminoa* definitzen duen arau berean (2432), honela dio:

*“Ein Begriff ist eine Denkeinheit, die diejenigen gemeinsamen Merkmale zusammenfasst, welche Gegenständen zugeordnet werden<sup>8</sup>”*

ISO/DIS erakundeak, bere aldetik 1988ko 1087. arauan, honela definitzen du adigaia:

*"Concept: unit of thought constituted by those characteristics which are attributed to an object or to a class of objects."*

Hala aipaturiko DIN arauak nola ISO erakundearenak honelako oharrez osatzen dituzte definizioak:

*"Adigaiak ez daude hizkuntza jakinei lotuak, hala ere, une bakoitzeko Hintergrund (trasfondo) sozial eta kulturalaren eragina jasotzen dute."*  
(DIN)

*"Note: Concepts are not bound to particular languages. They are, however, influenced by the social or cultural background."*(ISO)

Ikus daitekeenez, antz handiko definizio eta oharrak egiten dituzte bi erakundeok. Bi definizio horiek, komunean dute abstrakzioaren bidez sortutako pentsamentu-unitateaz hitz egiten dutela. Gainera, bietan irakur dezakegu bereizketa argia egiten dela kanpo-munduko objektuen, eta horien ezaugarri errebantzen aukeraketaz sortzen diren adigaien artean. Adigaiak, objektuen erreferentziario mentalak dira, beraz. Baina ez gara luzatuko kognizio-jakintzari dagokion gai horretan, kontzeptuen eta hizkuntza partikularren arteko lotura ukatzen duen asertzioan baizik, hurrengo puntuan aztertuko dugun bezala.

### 1.1.3.3.- Adigaiaren izaera sistematikoa: adigai-sistema

TTOren beste oinarrietako bat da adigaiak sistemak osatzen dituztela. Izan ere, adigai bat, adigaien multzo egituratu bateko osagarria da, eta haiekiko erreferentziarioaren bidezko balioa hartzen du. Edozein diziplinak antolatu behar izaten ditu bere adigaiak eta izendapenak modu sistematikoan; horrela soilik lor

---

<sup>8</sup>*“Adigaia da objektuei egozten zaizkien ezaugarriak hartzen dituen pentsamenduaren unitatea.”*[Gure itzulpena]



baitaiteke adigai bat inguruko adigaiekiko modu egiaztagarrian mugarritzea. Terminologiak, beraz, oinarrizkotzat dauka adigaien sistematikotasuna.

ISO/DISen 1087. arauak honela definitzen du adiga-sistema:

*"System of concepts: structured set of concepts established according to the relations between them, each concept being determined by its position in the system of concepts"*

Horren arabera, adigaia adigai-sistema baten barruan ulertzen da: sistemak deteminatzen du adigaia eta adigaien arteko erlazioa. Rondeauk (1984:19) dioenez, arlo bereko adierazi-multzo bati buruz definitzen den adierazia edukitzea da terminoaren ezaugarria; eta Cabrék (1992:192) are argiago dio zerbait adigaitzat ezagutzeko, adigai-eremu bati buruzko erreferentzia beharrezkoa dela.

Adigai-sistema, adigai-eremua edo adierazi-multzoa (autore desberdinen arabera), arlo espezializatu, jakintza edo diziplina bakoitzari dagokio. Ezinezkoa da diziplina bat lantzea terminologiaren ikuspegi ortodoxotik, haren adigai-sistema goitik behera egituratu ez den bitartean.

Terminologiaren kontzepzio horren ordezkari ezaguna den Arntz eta Picht-en (1995:102-135) liburuan urratsez urrats deskribatzen da zein diren adigai-sistema osatzea baimentzen duten adigaien arteko erlazioak. Honako erlazio-motak bereizten ditu:

- Adigai-erlazio hierarkikoak. Hierarkia ezartzeko abstrakzio logikoa erabiltzen badugu, abstrakzio-erlazioak izango ditugu (hiperonimia, hiponimia, ko-hiponimia edo koordinazioa logikoa...) eta gauzen izateari begiratzen badiogu, erlazio ontologikoak (osoa/zatia bezalakoak).
- Adigai-erlazio ez hierarkikoak, zeinak bi motatakoak izan daitezkeen: sekuentzialak eta pragmatikoak.

Adigai-erlazio hierarkikoak dira adigai-sistema gardenenak eta errazena eraikitzen dituztenak. Hortaz, lehenik abstrakzio-erlazio hierarkikoak, ondoren ontologi-erlazio hierarkikoak, eta azkenik erlazio ez-hierarkikoak aztertzen dira.

Ondo ulertzen da terminologia klasikoarentzat jakintza eta diziplina formalak eta formalizagarriak hobetsiak izatea, eta adibideetan erabilienak. Terminologiaren aniztasuna aztertzen dugunean azalduko dugu nolako zailtasunak<sup>9</sup> aurkitzen dituen teoria zurrun horrek giza eta gizarte-diziplina gehienetan aplikatua izateko.


---

<sup>9</sup> Arntz eta Picht-ek (1995:107) berek, aitortzen dute zailtasun hori.

### 1.1.3.4.- Definizioaz

Ikusi dugun bezala, adigaia prozesu terminologikoaren oinarrian dago, haren izendapena *termino* deitzen dugu, eta bi modutako azalpenak ditu: bata erlazio-sistema antolatuta batean betetzen duen tokia, eta bestea, definizioa.

Honelako eskemaren bidez irudika daiteke elementu horien guztien arteko erlazioa (Larivière, 1996:410):



Izen bat *terminotzat* hartua izan dadin, beharrezkoa da (Rey, 1992:40) multzo edo *terminologia* bateko elementu den bezainbatean, beste izen guztietatik berezia izateko gaitasuna izatea. Elkarren arteko bereizkuntza-sistema hori hizkuntzaren bidez adierazteko modu bakarra *definizioa* deitzen den eragiketa da. Aurretik egin dugun bezala, ikus dezagun nolako definizioak ematen dituzten normalizazio-erakundeek *definizioaz*.

*"Definizioa da adigai baten determinazioa (Begriffsbestimmung) hizkuntz baliabideen bidez."* (DIN 1986, 2342. araua)

*"definizioek adigaien eta izendapenen arteko erlazio ahalik eta unibokoena, nahastezinezkoena, ('eindeutigen') ezartzeko balio dute"*. (DIN, 1979, 2330 araua)

ISO erakundeak, bere aldetik, bi arautan gutxienez definitzen du definizioa. Alde batetik 704 (1987) arauak dio definizioa dela

*"nozio baten deskribapen osoa, normalean hizkuntza erabiliaz, ezagunak diren beste nozioak erabiliaz eginga"*

eta bestetik ISO 1087 (1990) arauak, goragoko eskemari gehiago lotzen zaion beste hau dakar<sup>10</sup>:

*«definió: enunciat que descriu una noció i que, dins d'un sistema nocional, permet diferenciar-la d'altres nocions»*

<sup>10</sup> Cabréri (1992:193) hartua

Normalizazio-erakundeok ematen dituzten definizioak ezin erabatekoagoak eta soilagoak dira, baina horrek ez du esan nahi eztabaida-gairik ez dagoenik. Izan ere, definizioaren zer-nolakoak Aristotelesengandik datorkigun arazo filosofiko topikoetarikoa dugu; baina terminologiak beharko lukeen definizioa zedarriztatzearen, definizio-moten sailkapen desberdin asko proposatu ohi dira. Honela, Reyk (1992:40-42) definizio lexikografikoa, definizio ontologikoa, eta definizio funtzional-formala idealki bereiz daitezkeela dio, terminologikoa azken multzo horretan sartuaz.

Antzeko sailkapena proposatzen du Larivièrek <sup>11</sup>(1996:409), eta Cabrék bere aldetik ere (1992:194) antzekoak bai baina berdinak ez diren hiru multzotan banatzen ditu: mota linguistikoko definizioa, mota ontologikoko definizioa, mota terminologikoko definizioa

Baina errealitatean gauzak ez dira izaten multzo-banaketa horiek aditzera ematen duten bezain garbiak, Reyk (1992:42) gogoratzen digun bezala. Autore frantsesarentzat, teorian, definizio batek termino bakoitzaren ezaugarri pertinenteak adierazi beharko lituzke, horretarako, termino 'aratzak', hizkuntza guztietara itzulgarriak, beharko lirake, gainera, sistema terminologiko erabat koherenteke elementuak izango lirake, bertan nozio bakoitza era uniboko eta esplizitagarrian eraikita agertuko bailitzateke. Eta argi dago, horrelako adigai-sistemak aurkitzekotan, agian teoria matematiko eta logikoetan, beharbada nomenklatura zientifiko zurrunenetan, bilatu beharko lirakeela, baina ez beste inon.

Izan ere, definizio terminologikoak, normalizazio-erakundeek nahiko luketenaren gainera, praktikan oso bestelakoak izaten dira. Reyk (92:43) dioenez gehienetan definizio lexikografikoaren eta deskripzio entziklopedikoaren erdibideko zerbait aurkitzen da hiztegi terminologikoetan. Ezin da, beraz, esan definizio horien helburua terminoa zehatz-mehatz ordezkatzeari denik, baizik eta, izenek termino gisa funtziona ahal izan dezaten haien erabilera hobetzea, eta objektuen klaseak nola osatzen diren eta adigai-eskemek nola funtzionatzen duten aditzera ematea.

---

<sup>11</sup>Definizio lexikografikoa: hizkuntzaren hiztegietan eta hiztegi entziklopedikoetan erabiltzen da, hizkuntza bateko zeinuen (edo hitzen) zentzuak eta erabilerak bereiziaz, adieraziak argitzea du helburu.; definizio entziklopedikoa: gauza bati buruzko hainbat informazio eskaintzea du helburu; entziklopedietan eta hiztegi entziklopedikoetan erabiltzen da; eta azkenik, definizio terminologikoa: helburua da karakterizatzea (hau da zedarriztatzea eta bereiztea beste nozioetatik) termino batek izendatzen duen, eta sistema antolatu baten barnean gauza bat errepresentatzen duen adigaia.

## 1.1.4.- Izendapenaz

### 1.1.4.1. -Definizio batzuk

Kapitulu honetako 1.1.2.1. atalean emandako *terminoaren* definizioetan bi alderdi edo osagai nabarmentzen dira: adigai eta izendapena. Definizio haiek iruzkintzerakoan nabarmendu genuenez, hizkuntza batzuetan *termino* adigaiaren eta izendapenaren batura da, eta beste batzuetan, berriz, *denominazio*, *izendapen* edo *termino* sinonimoak dira, eta adigaiari oposatzen zaizkio. Gogoratzin dugunez, ingelesezko ISO arauan ez bezala, DIN erakunde alemanaren 2342 arauan, *terminoa* (*Terminus*) eta *izendapena* (*Benennung*) ongi bereizten ziren. Garrantzitsua iruditzen zaigu ohar hori kontuan hartzea zeren maiz topatuko dugu *terme/termino/term* hitza ‘*izendapen*’ esanahi soilean erabilia.

Hortaz, horrelako nahasketarik eragiten ez duen DIN erakundearen definizioa joko dugu hasteko. Honela definitzen da *izendapena*:

*“Ein Benennung ist die aus mindestens einem Wort bestehende Bezeichnung eines Begriffs in der Sprache<sup>12</sup>”*

Ondoko formulazio honetan, aldiz, begibistakoa da ‘*terme*’ hitzaren erabilera zabala:

*“Le terme est la forme linguistique tangible utilisée pour dénommer une unité conceptuelle ‘alinguistique’ résultant d’un découpage de la réalité. L’absence de forme linguistique lexicalisée (terminologisée) ne préjuge en rien de l’existence ou de la non-existence du concept sous-jacent.”*  
(Desmet & Boutayeb, 1993:24)

Definizio horietan bertan agertzen denez, terminologiaren ikuspegitik egindako lanetan denominazioari buruzko bi alderdi aztertu ohi dira: forma linguistikoa alde batetik, eta hizkuntza baten barruan denominazio baten eta nozio baten artean dagoen erlazioa, bestetik.

Formarena izango denez gure ondorengo azterketa gehienen gaia, ikus dezagun, gaingiroki bada ere terminologia klasikoan esan ohi dena denominazioaren eta adigaiaren arteko erlazioez.

### 1.1.4.2.- Izendapenaren eta adigaiaren arteko erlazioa

Emandako definizioetatik ondorioztatzen denez, terminologian berebiziko garrantzia ematen zaio gai honi. Izan ere, terminologia klasikoaren arabera, eremu baten barruan, termino batek adigai bat eta bakarra izendatuko du, eta alderantziz, adigai bakoitza izendatzeko termino bat besterik ez da izango.

<sup>12</sup>“Izendapena da hizkera espezializatu baten baitan egiten den adigai baten designazioa, gutxienez hitz batez osatua.”[Gure itzulpena]

Terminologiaren formulazioan adigaiaren eta izendapenaren arteko erlazioa da terminoaren ezaugarri nagusia hitz arruntetik bereizteko orduan. Guilbertek (1981:192) esaten duen bezala: “(...) *l’unité terminologique est, par essence, monosémique, alors que le mot en tant qu’unité linguistique est voué à la polysémie, parce qu’il est appelé à se charger de diverses valeurs significatives*”, eta Rondeaturen (1984:19) hitzetan: “(...) *pour une notion donnée, il y a théoriquement, une dénomination et une seule*”

Erlazio horren izaeran datza terminologiaren oinarrietako bat. Erlazio hori erreferentzia bakarrekoa da, esan nahi baita, termino jakin bateko, izendapen bati adigai bat, eta bakarra, dagokio. Horrek dakar, forma linguistiko bat berriro erabiltzen denean, adigai desberdin bati loturik izango denez, termino berri baten aurrean egongo garela. Baina, gainera, erlazioa, monorreferentziala izateaz gainera, unibokoa izango da, esan nahi baita, termino jakin bateko, adigai bati izendapen bat eta bakarra dagokio.

Esan bezala, denominazio edo izendapenaren definizio terminologikotik beretik eratortzen den ideia bat da izendapenaren eta adigaiaren arteko banan banako erlazioa (ik. lerro batzuk gorago Rondeauk esandakoa). Baina terminologian printzipiozko puntua izaki, maiz erlazio biuniboko hori aipatzen delarik, ez da zehazten egiatan zer gertatzen den. Hala ere, autore asko dira ohartarazten dutenak teoria eta errealitatea ez doazela beti bat (Cabré 1992:198), edo praktikan oso zaila dela banan-banakotasun perfektua gertartzea (Arntz, Picht 1995: 145).

Zehatzagoa da, Kocourek (1991:179-180) esaten duena, hau da, erlazio hori ez dagoela oinarrituta terminoaren benetako ezaugarrietan baizik eta haren ezaugarri "idealetan" eta ondorioz, banan-banakotasunaren ideia azpimarragarria bada ere, definiziotik at kontsideratu beharko litzatekeela, hain baita nabarmena terminoen polisemia eta sinonimia.

Izan ere, hizkuntza naturaletako erabilera komunetan guztiz normalak eta ezinbestekoak diren fenomeno horiek, terminologiaren teoria batzuentzat, arazoak dira (Arntz, Picht, 1995: 159) eta arazo bezala aztertu izan ohi dira lan terminologikoetan, gehienbat haiek baztertzeko asmoarekin.

*Sinonimia* gertatzen da adigai berari bi izendapen edo gehiago dagozkionean, eta hortaz, euren artean trukagarri direnean. Sinonimoek, traba handia ekartzen diotenez komunikazio espezializatuari, terminologiaren egitekoa da, ahal den neurri handienean, oztopo horiek saihestea. Sinonimoak baztertzeko terminologiak proposatzen duen bidea da adigaiak xehetasunez aztertzeta ea benetan berdinak, hau da, bakarra, diren erabakitzea; eta, ondoren, terminoetako bat aukeratu eta besteak baztertzeko eragiketa preskriptiboak abiaraztea.

*Polisemia*, hau da, termino bakar baten balio-aniztasuna, edo termino bera erabiltzea hainbat adigai desberdin izendatzeko, baztergarria da ongi eratutako terminologia batean. Jakina denez, hizkuntza guztiek polisemian daukate lexikoaren ahalmenak zabaltzeko baliabide emankorrenetako bat. Baina polisemiak apurtzen duenez terminologiak ezarri nahiko lukeen *adigai bat / termino bat* erlazio biunibokoa, fenomeno hori desagerrarazteko edo gutxitzeko mekanismoak beharko ditu. Terminologiaren teoria orokorrean ez dago arazo teoriko handirik hori erdiesteko. Izan ere, terminoak ez dira termino arlo espezializatu baten barruan baizik; hortaz, formaz bat bedera den zeinu batek beste arlo espezializatu batean beste adigai bat irudikatzen badu, terminologiarentzat ez gara egongo termino beraren bi esanahiren aurrean (ez gara izango polisemia kasu baten aurrean) baizik bi termino desberdinen aurrean. Horrela, eta suposatuz beti guztiz argi dagoela zein alorri dagokion zeinu bakoitzaren erabilera jakin bat, polisemia desagertu egingo litzateke terminologiaren mundutik, eta homonimia biderkatu.

*Homonimia*. Homonimoak izango dira formaz berdinak diren baina adigai guztiz desberdinak irudikatzen dituzten terminoak. Esan bezala, terminologiaren mundua ez da hizkuntzaren sistema osoa, gaikako azpikode bakoitza baizik. Lan terminografikoek, espezialitate jakin bakar bateko terminoak besterik jasotzen ez dituztenez ez dute, teoriarik, homonimiarik aurkituko. Homonimia, hortaz, terminologia desberdinak elkarren ondoan behatzetik ondorioztatzen den gertaera izango litzateke, ez terminologia bakoitzaren barruko zerbait. Homonimiak, beraz, ez dio inolako trabarik jartzen terminologia teorikoari. Alderantziz, aurrerago esan dugun bezala, kaltegarritzat jotzen diren polisemia kasu gehienak homonimia kasu bihurturik konpontzen dira.

#### 1.1.4.3.- Denominazioaren forma linguistikoa arautzerik badago?

Terminologiak ezingo luke bere helburu sistematizatzailea bete terminoen izendapenak, edo terminoak, hizkuntza orokorraren lexikoaren arbitrariotasun bera baleukate (Sager, 1990: 57)<sup>13</sup>.

Terminologiaren izaera preskriptibotik eratortzen da araututa egotea nolakoak izan behar duten terminoek (edo terminoen izendapenek). Aurretik aipatutako normalizazio-erakundearen arauetan oro har onartutako oinarriak ezartzen dituztenez, hona ekarriko ditugu:

---

<sup>13</sup>“*Terms are the linguistic representation of concepts. Unlike in general language, where the arbitrariness of the sign is accepted, special languages strive to systematise principles of designation and to name concepts according to pre-specified rules or general principles.*” (Sager, 1990:57)

Honela DIN 2330 arauak dio izendapenak hizkuntzaren sisteman modu naturalean integratzeko modukoa izateaz gain, honako ezaugarriak eduki behar dituela:

- *laburra, arrazoizko moduan*
- *gogoratzeko erraza*
- *ahoskatzeko erraza*
- *eratorriak sortzeko egokia;*

ISO/DIS eakundearen 704 arauak, oso antzera, honelako baldintzok ezartzen dizkio terminoari:

- “Requirements for the selection and formation of terms. A term should be*
- *linguistically correct*
  - *be accurate*
  - *be concise*
  - *easily permit the formation of derivative.*

Azpimarragarria da bi arau horietan, terminoaren lehen baldintza izatea hizkuntza naturalarekiko egokitasuna. Garrantzitsua da puntu hori, hasieratik erabakitzen duelako —izan beharko lukeenaren mailan bada ere— terminoak hizkuntza natural bakoitzeko elementuak direla, eta garbiro baztertuta uzten duelako terminoek “gramatika berezi” baten mende funtziona ote dezaketen auzia.

Esan daiteke autore gehienetan aurkitzen diren “arauak” aurrekoen zabalpena eta zehaztapena direla. Honela Felber eta Picht-ek (1984:224-226) ematen dituztenak: motibazioa, sistematikotasuna, hizkuntzaren arau sintaktikoen araberakotasuna, eratorbiderako gai izatea, pleonastikoa ez izatea, alferreko elementurik ez izatea, ahalik eta laburrena, argitasunaren kaltetan izan gabe, ahal dela sinonimorik, homonimorik eta polisemiari gabekoa izatea, eta ahal dela, aldaera morfologiko ez ortografikorik gabekoa izatea.

Osoagoa iruditu zaigu Rondeauk (1984: 113-139) proposatzen duen termino berriak sortzerakoan kontuan izateko irizpide-moten sailkapena<sup>14</sup>: irizpide linguistikoak, soziolinguistikoak eta metodologikoak. Irizpide linguistikoak, gutxi gora behera beste autoreenak bezalakoak direnez, ez ditugu errepikatuko. Irizpide soziolinguistikoetan sartzen ditu behar zehatz bati erantzutea, balio estetikoa, hizkuntz erregistroa eta erraztasuna, eta azkenik,

---

<sup>14</sup> Irizpideen sailkapen horretan islatzen da Rondeauren eta oro har Québeceko eskola terminologikoaren ekarpen garrantzitsua: terminologiaren baldintza eta ondorio soziolinguistikoari arreta berezia ematea.

politika linguistiko batekiko egokitasuna. Metodologiazko irizpideetan aipagarria iruditzen zaigu hizkuntzaren ondare lexikoaz baliatzearena.

## 1.2.- TTOari egindako kritikak

Terminologia diziplinak ez du izen onik hizkuntzalari batzuen, edo gehienen, artean; izan ere, aspaldikoak dira terminologiaren zientifikotasuna erabat arbuiazen duten hizkuntzalari ospetsuen aipuak<sup>15</sup>, eta betidanik azpimarratu izan dira haren apriorismoa, izaera preskriptiboa, hizkuntzalaritzak bere buruari ukatzen diona, eta deskripziorako ahalmen eskasa<sup>16</sup>. Bestalde, terminologiaren metodologiaz eta praktika hutsaz baino areago arduratzen diren terminologoengan ere aurkitzen dira *Terminologiaren Teoria Orokorren* ahultasun teorikoei buruzko gogoetak, edota hainbat puntu landu beharri buruzko aipuak. Azken horiei buruz dira ondorengo lerrook.

### 1.2.1.- Teoriaren ezintasunak

Horrela, adibide gisa, alderdi askotan Wüster-en jarraitzaile den Rondeauk (1984: 12-13) seinalatzen du arrazionalismo logikoaren gainean eraiki dela teoria terminologikoa, baina errealitatea konplikatuagoa dela. Gaudinek (1996), bere aldetik terminologiaren balioa zeharo ukatu gabe, Wüster-en filosofia idealismo arrazionalistatzat kalifikatuaz, *kontzeptu* adigaia kritikatzeko du, metafisikaren osinean amiltzeko arriskua dakarrelako. Dubucek (1992) uste du terminologiaren izaera espezifikoa eztabaidagarria dela, bere aurreko diziplinei (semantika, lexikologia, lexikografia) loturik baitago. Cabréren aurreko lanetan (berezi 1992koan) jarrera eklektikoa soma daiteke terminologiaren autonomia zientifikoari buruz eta TTOaren teorizazioari buruz, geroago, ordea (Cabré: 1990), ikuspegi kritikoa asko sakondu eta teoria berria proposatu badu ere. Reyk, lexikologo eta terminologo ospetsuak, 1988ko lan batean (1995a7:116-118) argi eta garbi adierazten du terminologia zientzia aplikatu bat dela, baina 1992an berrargitaratutako eta zuzendutako *La terminologie, noms et notions* eskuliburu ezinbestekoan, garrantzi handia ematen dio, terminologiaren hutsune teorikoak betetzeari. Aurrerago berriz, (1999:121-134) dio printzipio orokorretan oinarrituriko teoria terminologikoei berebiziko zailtasunak dituztela terminoak eta banako lexikoak, izen propioak eta terminoak bereizteko, terminologia-motak sailkatzeko, edota printzipio semantikoak aplikatzeko izendaturiko edo etiketaturiko kontzeptu-multzoei. Hortaz, terminologiaren benetako teoria orokor bat eraiki baino lehen, semantika desberdinak eta diskurtsoaren unibertso

<sup>15</sup> Gambier-ek (1991:31) dioenez, Hjelmslev-ek honela deskribapen ironikoa egiten zuen terminologiaz: “*une question de goût [qui] ne touche pas aux réalités*”.

<sup>16</sup> Euskaraz ere ez dira horrelako kritikak falta. Adierazgarri da Ibon Sarasolaren (1997) hitzaldia Nazioarteko Terminologia Biltzarrean.



desberdinak bereizi, eta bakoitzari dagokion terminologia-teoria propioa ezarri behar dela dio.

Neurri batean antzekoa den jarrera agertzen du Leratek (1995:17) dioenean ez dagoela terminologia eta hizkuntzalaritza ongi ezkontzen dituen teorizaziorik, eta beharrezkoa izango litzatekeela.

Sager-ek ere, beti erlatibizatu izan badu alderdi teorikoen garrantzia terminologiaren beharretarako<sup>17</sup>, 1999ko lan batean TTOaren kritika orokorra egiten du, esanaz hala formaren aldetik nola sintaxi jokabidetik terminoek ez dutela ezer linguistikatik kanpoko teoria baten beharra justifikatuko lukeenik, baina, erreferentziaren aldetik diferentziak nahiko pisudunak izanik, terminoen teoria espezifiko bat justifikatuko litzatekeela.

### 1.2.2.- Sozioterminologiaren ikuspegia

Hainbat ikuspegi desberdinetatik egiten zaizkio azken urte hauetan kritikak TTOari. Esate baterako, autore frantses eta quebecarren artean nahikoa garatu da sozioterminologiaren ikuspegitik egindakoa. Autore horien aburuz, Wüster-en jarraitzaileen kontzeptualismo zurrunik bideak ixten dizkio errealitateari, gero eta ugariagoak diren testuinguru pluridiziplinarretan ezinbestean terminologiaren postulatu nagusiak hautsi beharra gertatzen baita.

Bide horretatik jotzen dute Gaudin eta Assal-en (1991), eta Gaudinen (1995 a), liburuek, edo Bouveret eta Gaudin-en 1997ko artikulua<sup>18</sup>. Horiek oharrarazten dutenez, diziplina arteko edozein jarduera (ikerkuntza, produktioa...) abiarazten delarik, ustez berdinak izan beharko luketen terminoen artean desberdintasun nabarmenak agertzen dira, agerian jarriaz terminoak ezin direla hizkuntzatik, diskurtsotik kanporatu, orain arteko terminologo askok nahi izan duten bezala.

### 1.2.3.- Terminoak hizkuntza naturalekoak dira

Beste ikuspegi linguistikoagotik oroitarazten da terminoak hizkuntza natural bakoitzeko izakiak direla, hizkuntza horren funtzionamendu eta arauen mendekoak; hortaz, normalizazio-erakundeen formulazioetan agertzen den izaera interlinguistikoa errealitatearekin ezkontzen ez den idealizazioa dela.

---

<sup>17</sup> Ikus, esate baterako Sager (1990:21): *“A theory of concepts for terminology in essence only has to provide an adequate explanation for cognitive motivation in term formation an to provide the basis of structuring vocabularies in a more effective way than is offered by alphabetical ordering.”*

<sup>18</sup> Artikulu horretan deskribatzen den bezala, egoera pluridiziplinarrean (biometria, bioinformatika) terminologiaren kontzeptzio klasikoak zalantzan, edo mugapen baten aurrean bederen, jartzen dituzten egitateak agertzen dira. Izan ere, kasu horretan bezala, normalizazioak, kontzeptuen taxutzeak eta kontzeptu-sistemak diziplina bakoitzaren barruan egin ohi dira, beste diziplinetako beharrak kontuan hartu gabe.

*Izendapena / adigaia / definizioa* elementuen arteko erlazio bakunak kritika asko jasotzen ditu. Terminoen izaera linguistikoa finkatuz gero, onartezina da modu egonkorrean adigai zehatz bati eta definizio jakin bati lotzen zaiola dioen postulatua. Izan ere, Gambier-ek(1991:47) gogoratzen duenez, terminoak, lan lexikografikoetan eta nomenklaturetan izan ezik, diskurtsoan txertatzen dira, eta egoera horretan, nahitaez, hitz “bihurtzen” dira, testuinguruaren baldintzapean geratuaz. Definizio batez hornituak egoteak, alde batetik ez du agortzen hitz baten izendapen ahalmena (Kayser, 1995:32) ondorengo erabilera batean beste adiera batean erabili baitaiteke, eta ez du behin betiko egonkortasunez hornitzen.

Bestalde, adigai bati eta definizio bati atxikitako terminoa izateak ez du zerikusirik terminoen izaera berezi batekin: komunitate zientifiko baten barruan hitzartu daitekeen konbentzio baten ondorio izatearekin baizik. Hain zuzen, terminologiaren egonkortasuna jagoten duten nazioarteko arauk eragiten dute hizkuntzatik hizkuntzarako baliokidetasun egonkorra, komunitate zientifikoek eta teknikoek onartzen dutena (Bouveret, 1998:395), (Rastier, 1995:40)

#### 1.2.4.- Cabréren kritika orokorra

Orri asko bete litezke aipatutako autoreek eta beste batzuek egindako gogoeta kritikoak hona ekarriaz, baina uste dugu merezi duela autore bat hautatzea haren ekarpenaren osotasunaren eta zorrotasunarengatik.

Berriki argitaratutako artikulu batean (1999) Cabrék modu sistematikoan azaltzen ditu Wüster-ekin jaio, eta hainbat terminologia-eskoletako terminologoez —maiz kritika partzialak eginez— garatutako kontzepzio terminologikoen kritika. Izan ere, terminologiaz aritu diren ikertzaile asko, ikusten genuenez, ohartuta zeuden errealitateko terminologiaren eta teoriaren artean zegoen jauziaz, baina ez dira asko sustraietara joan direnak teorizazio guztiz berria proposatzeko.

Ondorengo lerrootan, Cabré-ren kritiken puntu nagusien laburpena egiten saiatuko gara. Irakasle kataluniarraren abiapuntua Wüster-en diziplina zientifikoen adigaiaren kritika da, hau da, termino bakoitza, guztiz definiturik eta besteengandik bereizitako alor kontzeptual batean kokatzea zilegiztatzen duen kontzepzioa. Cabrék, aipatu sozioterminologoez bezala, diziplinen arteko bereizkuntza zurruna ukatu egiten du, ezagutzaren jarraiketasunaren eta zirkularitatearen izenean, eta horregatik nahiago du diziplina-arteke ezagutza-alorrez hitz egitea, diziplina iragazkaitzez baino areago.

Bigarren urrats batean, eta hainbat egoera profesionaletako diskurtso espezializatuaren analisisan oinarrituaz, egiaztatzen du terminoek ezaugarri asko konpartitzen dituztela hitz arruntekin. Hortik abiatuta, planteatzen du posible

izango dela hala hitz orokorren nola terminoen deskribapenari ekitea orientazio linguistikoko teoria baten bidez. Hortaz, terminologia diziplina berezi bezala justifikatzen, eta terminoen eta hitzen arteko diferentzia azaltzen saiatu ordez, proposatzen du biak tratatzea unitate lexikotzat, kontuan hartuaz haien izaera erreferentziala eta funtzioa diskurtsoaren baitan.

Ondorioz, dio, terminologia azal daiteke hizkuntzaren teoria baten ikuspegitik, eta hizkuntzaren atal bat bezala.

Oinarri horiek ezarri ondoren, TTOaren kritikari ekiten dio<sup>19</sup>, beste autore batzuek, aldez aurretik —kasuren batean hogeit hamar urte lehenago, Reyk bezala— formulatutako elementu asko jasoaz.

TTOak, terminologia diziplina zientifiko burujabe bezala finkatu nahiaz, terminoaren eta hitzaren arteko diferentzia nabarmentzen duen bitartean, Cabré (1999:14-15) bien elementu komunak azpimarratzen ditu, teoria orokor komuna oinarritu nahian. Horregatik dio, pertsona baten baitan gertatzen diren gaitasun orokor eta espezializatuak halako unitate lexiko batzuk hartzen dituela, zeinak, testuinguru jakin batzuetatik kanpo, ez diren ez hitz ez termino. Horrek esan nahi du, ez daudela bi izaera espezifiko desberdineko izakiak, baizik eta egoerazko eta erreferentziatzko testuinguru espezifiko baten funtziotan bereganatzen dela izaera bata zein bestea.

### 1.3.- Terminologiaren arteko diferentziak; terminoak eta ia terminoak; terminologia “gogorak” eta besteak

#### 1.3.1.- Terminologiaren aniztasuna

Aski argigarria denez, has gaitzen Rastier-en aipu luze bat emanaz.

*“Le cercle de Vienne postulait l’unité de la science. Empiriquement, ce postulat normatif reste invalide, et une linguistique des textes doit pouvoir différencier les modes discursifs qui caractérisent les disciplines dans leur diversité. Comme le rapport des disciplines à leur terminologie reste variable, une étude comparée des régimes terminologiques des disciplines et de leur travail “métalinguistique”*

---

<sup>19</sup> Honela dio: “Wuster-en teoriak ez ditu behar bezala deskribatzen terminoak, ez duelako kontuan hartzen: • Diziplina anitzeko hurbilpena (denominatiboa, kognitiboa, funtzionala) beharrezko dela. • Terminologia banako guztien eta bakoitzaren aurpegi askotarikoak. • Terminoen funtzio bikoitza diskurtso espezializatuan, irudikapen-banako alde batetik, eta komunikazio-banako, bestetik, diren bezainbatean. • Terminoen betekizun deskriptiboaren eta preskriptiboaren arteko bereizkuntza. • Ezagutza-banako bakoitzak berez duen aldakuntza kontzeptuala, munduaren ikuspegi determinatzen duen kultura, zientifiko nahiz orokor, espezifiko bakoitzari loturik baitago modu guztiz askagaitzean. • Terminoen hizkuntza bakoitzarekiko duten mendetasun linguistikoa. • Hala diskurtso orokorrean nola espezializatuan ezinbestean dagoen designazioen aldaketa, pragmatikoki baldintzatua”. (Cabré, 1999, 8-9)

*serait utile: elle commande en effet la terminologie qui en récueille les résultats.*” (Rastier 1995:61)

Izan ere, Wuster-en eskolako terminologia klasikoaren zurruntasunak eremu eta alor guztietako terminologiak baldintza berberak bete eta funtzionamendu berbera izan beharko luketeela ondorioztatzera bultzatu beharko balu ere, hala eskola haren jarraitzaileen artean nola kritikatzaileen artean zabalki onartzen da terminologia-mota desberdinak daudela, eta ezinbestekoa dela desberdintasun horiek kontuan hartzea.

Horren adibide argi bat dugu Arntz eta Picht-en (1995:205) eskuliburuan, zeinetan ez baitute esplizituki planteatzen diferentzia teorikorik behar denik, baina terminologia juridikoak konparatzeko metodologiaz ari direla honela diote:

*“Debido a la complejidad de la materia, en este caso se eligió para la organización de los conceptos, en lugar de la rígida estructura jerárquica de un sistema de conceptos, la estructura más flexible de un campo de conceptos, que permite criterios de clasificación bastante heterogéneos que no implican relaciones lógicas en el sentido estricto”*

Leratek bere aldetik (1995:47) oharrarazten du, terminologiaren hurbilpen kontzeptualaz ari dela, adigaien izenak gardenak izango lirakeela terminoak monosemikoak eta sinonimiarik gabekoak balira hizkuntza bakoitzaren barruan, eta hertsiki baliokideak hizkuntza batetik bestera adigai berarekiko. Eta horren adibide-azalpen gisa dio Wüster-en *The Machine Tool* ospetsuko adigaiak espezialista guztiek onartzen dituztela, eta erraz itzultzen direla hizkuntza garatu guztietara, baina ez dela gauza bera gertatzen eremu guztietan<sup>20</sup>.

Hortaz, terminologiaren mutur batean egongo lirakeke ingeniari- zientziak, eta aurkakoan gizarte-zientziak, zeinetan erlatibotasuna kontuan hartzea ezinbestekoa izango baita.

Gogoeta beretsuak egiten ditu Clasek (1989:338-339) baina ez dira asko terminologia desberdinak behar direla esplizituki adierazten dutenak. Puntu honi buruzko teorizaziorik eskaintzen ez badu ere, argi dago ildo bera jorratzen duela Kocourek: Bere liburu nagusiaren gaia izenburuan bertan: ongi mugatzen baitu<sup>21</sup>, berariaz hortik kanpora uzten dituelarik giza zientziak eta gizarte-zientziak (1991:37-39).

<sup>20</sup>Beste muturrean jazotzen denaren adibide —eransten dute Arntz eta Picht-ek— badira nazio, hizkuntza edo kultura bakoitzari lotutako errealitateak, esate baterako Alemaniako sistema politikoko *Land*-a edo Espainiako *comunidad* delakoa, nekez aurkitzen dituztenak baliokideak zein bere hizkuntzatik eta sistema juridiko-politikotik kanpo, eta beste hizkuntzetan eta kulturetan, frantsesez esate baterako *region* hitzaz ordezkatzekoak direnak.

<sup>21</sup>*La langue française de la technique et de la science*

### 1.3.2.- Ardatz horizontala: espezializazio-mailak

Tesi honetako I. kapituluko 4. atalean genioenez, hizkera berezietan hainbat mailaketa eta banaketa egin daiteke Hoffmann-ek ardatz bertikala eta ardatz horizontala deitzen zituenen arabera.

Testu baten espezializazio-maila bertan erabiltzen den terminologiaren espezializazioaren baitan dago. Terminologia klasikoaren arabera, terminoak termino badira eremu zehatzetara adskribiturik egon behar dutenez, ez da tokirik geratzen terminoaren ezaugarri guztiak betetzen ez dituzten unitateentzat. Baina, esperientziak erakusten duenez, badira espezializazio-arlo zehatzetara ezin adskriba daitezkeen terminoak edo ia-terminoak; hau da, errealitatea hobeto uler daitekeela *termino/ez termino* dikotomia erlatibizatuz gero, eta terminoaren ezaugarriak aski modu lasaian erabiltzen badira.

Aipagarriak dira zentzu horretan Phalen (1969:73-81) eta Darbelneten (1979:28) lanak. Lehenengoan, Phalek aztertzen du hizkuntza arruntekotzat jotzen diren hitzak, baina testuinguru espezializatu batean esanahi espezializatu hartzen dutenak; eta hori, dio, diskurtso zientifikoan oso maiz aurkitzen den zerbait delarik, bi modutara gertatzen da, nagusiki:

Hiztegi arrunteko hitz sinpleak testuinguru espezializatu batean zentzu tekniko bat hartzen dutelarik, adibidez, *accident* (geografian), *caractère* (biologian), *cas* (patologian), *ensemble*, *fonction* (matematikan), *réaction* (kimikan) eta abar.

Esanahi orokorreko hitz sinpleak beste hitzekin konbinatuaz, esanahi espezifikoa hartzen dutelarik : *eau lourde*, *réaction en chaine*.

Ondorioetan dioenez, badira (testu espezializatuetan ) alor bakoitzeko terminologia espezifikoz gainera *Vocabulaire general à orientation scientifique* (VGOS) dei daitezkeen hitz-multzo handia osatzen duten unitateak. Hitz horiek ez diete erantzuten inongo zientzia edo teknika partikularren beharrei, baina beharrezko zaie denek komunean duten zerbaitetarako: pentsamenduaren eta adierabideen teknika baterako. Bokabulario horrek bideratzen du datu zehazki teknikoak, termino espezializatu bidez, diskurtsoan txertatzea.

Diskurtso juridikoaz ari dela, baina beste alorretan ere (militarra edo ingeniariaritzan aipatzen ditu esplizituki) gogoetak balio duela argituaz, zentzu berean idazten du Darbelnetek (1979:28). Egiaztatzen duenez, hiztegegintza teknikoan maiz termino tekniko espezializatuak soilik jasotzen dira horrenbesteko berezitasunik ez, baina diskurtso teknikoan ezinbesteko betekizuna dutenen kaltetan. Darbelnetek nahiago du *vocabulaire de soutien* deitzea Phal-ek VGOS deitzen zuena.

Ebaketa edo geruzatze bertikalarekin jarraituaz, aipatu beharrekoa da, teknikotasuna edo berezitasuna oso adigai erlatiboak direla: bilakaera eta prozesu bezala ulertzekoak, egoera finkoak baino areago. Izan ere, terminologizazioa prozesu bat da ikusiko dugun bezala, hitz arrunt bat termino bihurtzeko bidea. Gainera, eta I. kapituluaren ikusten genuenez, ezin daitezke hizkuntza guztiak maila berekoak bailiran har: hizkuntza baten garapenaren arabera teknikotzat edo espezializatutzat eman daiteke beste hizkuntza batean orokortzat ematen dena. Izan ere, gero eta maizago eta lasterrago gertatzen da hizkuntza garatuenetan une batean oso erabilera teknikokotzat jotzen den terminoa hizkuntza arruntera lerratzea. Horrelakoetan terminoa hitz arrunta bilakatu dela esatea, baieztapen erabatekoegia izan daiteke. Beste adibide bat izan daiteke nola garatze-bidean dauden hizkuntzetako terminologiei buruzko deskribapenetan (Afrikako hainbat hizkuntzari buruzko lanetan irakur daitekeenez) termino-adibidetzat ematen diren asko ez diren agertu ere egiten Europako hizkuntza garatuetao terminologia espezializatuko bildumetan.

### 1.3.3.- Ebaketa bertikala: gaien arabeko terminologiak

Geruzatze bertikalarekin gertatzen den bezalaxe, alor desberdinetako terminologiaren esperientziak berak eramaten ditu zenbait autore eskola teoriko batzuen planteamenduen zurruntasuna leuntzera, eta harago joanez, arlo batzuetarako oinarri berrien beharraz gogoeta egitera.

Lehen kapitulutik ikusi dugun bezala, zalantza, handiak daude zientzia “gogor”-etatik (matematika, natur zientziak...) at benetako terminologiaz hitz egin ote daitekeen. Nahikoa zabaldu dago aurkako ideia, hau da, giza eta gizarte-zientzietarako terminologiak bestelako metodologia, eta bestelako oinarriak beharko lituztekeela uste dutenena. Horrela, Hermansen (1997:273) iritzia da hizkuntzaren eginkizuna ez dela bera natur zientzietan eta soziologiaren diskurtsoan.

Hurrengo kapituluaren zuzenbideko diskurtsoarentzat eta terminologiarentzat xehetasun handiagoz azaltzen saiatuko garen puntu honetarako sarrera orokor gisa bereziki argigarria iruditu zaigunez, ondoren Desmeten (1994: 1-5)<sup>22</sup> artikuluaen puntu nagusien laburpentxo bat dakargu.

Desmet-en ikerlana giza eta gizarte-zientzietako terminologiak dauzkan arazoak, eta irtenbideak nondik nora joan daitezkeen argitzen saiatzen da. Haren aburuz, Wüster-en teorizazioak itxuraz fruitu oparoak eman ditu teknologiari eta “zientzia gogorre” dagokielarik, baina ezin horrenbeste esan gizakiari dagozkion zientziei denaz bezanbatean. Terminologia benetan egokitu ahal izateko zientzia-

multzo horri, lehen egitekoa izango litzateke zientzia horietako adigaien egitura ikertzea. Autorearen ustez, honakook izango lirateke ezaugarri bereizgarrienak:

- adigaiak konnotazio historikoak daramatzate
- adigaiak autore, korronte edo pentsamendu-eskola baten marka daramate
- adigaiak, sortu diren espazioaren etiketa daramate
- adigaiak era berean izan daitezke arlo berezi batekoak eta hizkuntza orokorrekoak
- adigaiak pluridiziplinarrak dira ezinbestean

Ezaugarri horiek terminologiaren oinarriak berritzera bultzatzen dute, bi alderdi nagusitan gehienbat: diakronia alde batetik, eta eremu-aniztasuna edo pluridiziplinartasuna bestetik, kontuan hartuz.

Ondorio bezala, dio, unitate terminologikoen semantismoa hobeto deskribatzeko logika aristotelikoa gainditu egin behar da, zientzia edo teknikako arlo bakoitzaren behar espezifikoari hobeto atxikitzearen; eta unitate terminologikoen funtzionamendua hobeto ulertzeko datu linguistiko, eta estralinguistikoen analisiari garrantzi handiagoa eman.

### 1.3.3.1.- Reyren arabera bereizi beharreko terminologia-sistemak

Alain Reyk, jadanik 1979ko *La terminologie, noms et notions* (1992: 45-46) delakoan seinalatzen zuen terminologiaren efizientziarako ez zela onuragarria terminologiaren oinarri-oinarrian dauden adigai<sup>23</sup>-sistemak denak era berekoak balira bezala jokatu nahi izatea, eta lau adigai-sistema-mota bereiztea proposatzen zuen. Bere pentsamendua sakonduaz, 1999an (1999:130-132) lau unibertso, logiko-semantiko eta diskurtsibo bereiztea ezinbestekotzat jotzen du inoiz teoria terminologiko orokor bat eraiki ahal izateko. Honela deskribatzen ditu unibertso horiek:

Lehen unibertso batean terminoak dedukzioz osatutako unitate funtzionalei esleitzen zaizkie. Horrelakoak izango lirateko logika formaleko, matematika huts eta aplikatuetako terminologiak, eta oro har kontzeptu-sistema hipotetiko-deduktiboak dituzten diziplina guztietakoak.

Bigarren batean, hau da, zentzuen bidez atzeman daitekeen errealitateari, edo errealitatearen interpretazioari loturiko ezagutzaren eremu handietan, terminoen eta kontzeptuen arteko erlazioak oso bestelakoak dira: termino bakoitzak ematen du objektu bihurtutako errealitatearen interpretazio mugatu bat. Objektu teoriko hori objektu-klase bakar bati eta definizio bati dagokie, definizioa izanik klase hori eta klasearen mugak ezartzen dituena. “Behaketa-

<sup>22</sup> «Suggestions pour une approche terminologique des sciences sociales et humaines»

<sup>23</sup> *Systèmes notionnels* dio berak

zientzien” terminologia, hala ere, bi eredu desberdinen arabera sortzen da. Gizatiarra ez denaren behaketa-zientziak (fisika, kimika, astronomia, biologia, ...eta gizarte-zientzien sistemak, epistemologikoki desberdinak dira, eta praktikak erakusten duenez, haietan terminologia-bakartasunera jotzen bada, giza eta gizarte-zientzietan, terminologiak teoria bakoitzari lotuta daudela onartzen da.

Hirugarren unibertso terminologiak berriz, funtzio baten (tresnak, makinak, instrumentuak) edo helburu jakin batzuk lortzeko bideratutako eragiketa-segida baten arabera egituratuta daude: terminologia teknologikoak dira. Unibertso horretako terminoek, gizakiak eraikitako zerak, (artefaktuak, eragiketak edo prozesuak) izendatzen dituzte. Eduki semantikoak helburu baten inguruan artikulatzen dira. Jakina, teknika eta teknologietako diskurtsoak maiz diskurtso zientifikoarekin guztiz korapilatuta egoten dira.

Laugarren terminologia-sistemak munduaren kontzepzio kolektiboaren edo giza erlazioen interpretazioko antolakuntzako eta normalizazioko diskurtsoa produzitzea, bideratzen du. Semantika bereko, baina pragmatikoki oso desberdinak diren terminologiak sartzen dira talde honetan: a) Jende-multzo bati zuzendutako munduaren azalpena, hala preskriptiboa (erlijioa) nola pertsuasiboa (filosofia) bideratzen duten terminologiak, b) Gizartean ezarritako eta ofizialki santzionatutako arau moral eta sozialetako terminologiak, eta c) Kilikatze-diskurtsoaren terminologiak; nahiz eta horien ezaugarri ohikoena izan beste terminologiekin egiten dituen jokoak eta zentzu-aldaketak.

Reyren eta Desmet-en hurbilpenak desberdinak diren arren, eta beste autore batzuenak beste abiapuntuetatik hasi, gehienek jotzen duten helburua antzekoa da: badira hizkuntza bakoitzari, kultura bakoitzari, komunikazio egoera bakoitzari, lotuagoak dauden diziplinak eta eremuak. Horientzako bereziki arbuigarri izango litzateke terminologia klasikoaren aplikazio zurruna. Giza eta gizarte-zientziak oro har, zuzenbidearen zientzia ere barne, terminologiaren oinarrien berrikuspen horren beharrean daude.

#### 1.4.- Nola ezagutu terminoa eta termino ez dena?

Terminoak, hizkuntza baten barruko formazko eta edukizko unitateak direnez (Lerat 1990), (Cabré 1992:156), beste edozein unitate esanahidun bezala, sistema egituratu bateko atal dira; bertan maila jakin bat (unitate lexikoen maila) okupatzen dute, eta maila bereko beste unitateekin erlazionatzen dira, alde batetik, eta diskurtsoa osatzen duten beste mailetako unitateekin, bestetik.

Terminoek, hala lexikoko beste elementuekin, nola beste gramatika-osagaiekin dauzkaten erlazioak ez dira linguistikoki bereziak: terminologiak, esaldiak eta diskurtsoa eraikitzeko, beste unitate lexikoek bezalako arauak bete behar ditu.



Hori da Cabrék (1992: 76) hitzaren eta terminoaren arteko bereizkuntzaz hitz egiterakoan dioena. *Hitza (paraula)* zer den<sup>24</sup> definitu ondoren dio terminoa, ezaugarri linguistiko berditsuak dituen eta espezialitateko eremu batean erabiltzen den unitatea dela:

*“Una paraula es desde el punt de vista lingüístic, una unitat que es caracteritza per tenir una forma fònica (i gràfica), una estructura morfològica simple o complexa, una caracterització gramatical, i un significat que descriu la classe a què pertany un objecte particular. Un terme és també una unitat que presenta les mateixes característiques.”*

Hitza eta terminoa (denominazioa, zientzia bazuetako formulak eta sinboloak alde batera utzita) hitzez, hizkuntzako elementuez osatzen dela finkaturik, azter dezagun nola jakin daitekeen diskurtsoko unitate baten aurrean terminoa edo hitz arrunta den, irizpide bereizgarriak zein diren, eta nolako ondorio praktikoak ateratzen diren.

#### 1.4.1.- TTOren arabera, diferentzia axiomatikoa da

Ikusi dugunez, TTOaren jarraitzaileen arabera, terminoak eta hizkuntza arrunteko hitzak erabat desberdinak dira, baina horren formulazioa, errealitatearen behaketan oinarrituta baino gehiago, teoria baten adierazpena izan ohi da.

Honela Felber-ek (1987:90,141) *terminoa*, *hitza*, eta *thesaurus-hitza* edo *indexazio-terminoa* bereizten ditu. Harentzat, hitza eta terminoa biak dira sinbolo linguistikoak, baina hitzak esanahi asko, eta testuinguruaren mendekoak baditu, terminoa, adigai bati edo batzuei lotua izan da, eta adigai horiek inguruko adigaiekiko erlazioan definitzen dira.

Eta Rondeauk (1984:19-20) bide beretsua eginez, bereizteko bost irizpide eskaintzen ditu, horietako lau semantikoak, teoria terminologikotik zuzenean eratorriak, eta bosgarrena, terminoen osatze-moduari dagokiona. Hurrengo atalean terminoen sorkuntza landuko dugunez, han aztertzeke utziko dugu.

#### 1.4.2.- Leraten araberako ezaugarri linguistikoak

Semantikan oinarritutako termino ideal batzuen aldarrikapena alde batera utzita, oso bestelako bidea jorratzen du Leratek (1995:45-54) zeinak sustengatzen baitu linguistikoki bereizgarriak direla terminoak eta termino ez direnak

Horretarako, Lerat, termino zeri esaten dion zorrozki mugatuz hasten da. Alde batetik, ez ditu terminotzat onartzen ez formulak (H<sub>2</sub>O bezalakoak) ez baitute hizkuntza naturalaren ez morfologiarik, es sintagmatikarik, ez funtzio

<sup>24</sup>“*Una paraula és una unitat descrita per un conjunt de característiques lingüístiques sistemàtiques i dotada de la propietat de «refererir-se a» un element de la realitat.*”

sintatikorik, eta semiotika ere berezia dutelako. Beste aldetik "hiztegi sustengatzailea"<sup>25</sup> eta terminologia bereizi beharra dagoela dio, testu espezializatuak diren arren, terminoen ezaugarriak betetzen ez dituztelako.

Terminoaren mugak ezarri ondoren, eta itzulpen-unitatearekin edota hiztegi terminologikoen sarrerekin nahastetik ihes egin behar dela argitu ondoren, honela azaltzen du Leratek bere ikuspegia:

Terminologiaren munduan sarritan unitate terminologikoak (*Unité terminologique*-ak) atzemateko eman ohi diren irizpideak<sup>26</sup> kritikatuaz hasten da. Izan ere, dio, irizpide horiek neurri batean balio dezakete, baina hurbiltzapen moduan soilik, ez baitute zehazki bereizten terminoa eta ez-terminoa.

Irizpide linguistikoak hiru dira, zeinahi izanda ere terminoaren izaera morfologikoa (izen soila, laburtzapena, eratorria, konposatua edo lokuzioa). Ikus ditzagun ondoren Leratek proposatutako irizpideak, zuzenbideko termino baten adibideaz hornituta:

- Hizkuntza baten barruan, terminoa esanahi espezializatuko hitzen serie morfologiko batekoa da:

Esate baterako, *'action'* hitza, zentzu zabalean hartuta (ez-terminoa), lotzen da *'agir, acte, actionner, actionnement, agissement'*, eta beste askorekin, baina *'action'* zuzenbide prozesaleko terminoa behatzen badugu, ohartuko gara serie morfologiko mugatua duela: *'action-agir-actionner'* : Serie hori onargarria da baldin eta bakarrik baldin zentzu prozesalean hartzen badira hitz horiek. Aldiz, beste *'action'* terminoak, *'balio higigarri'* esan nahi duenak, *'actionnaire'* bakarrik du serie morfologikoan.

- Terminoaren sintagmatika mugatua da

Hau da, terminoaren kookurrentziak eta konmutazioak eremu espezializatu baten barruan soilik gertatzen dira). e.b. *'action'* zentzu prozesalean, *'exercer, intenter'* bezalako aditzekin bakarrik joan daiteke, eta *'paulienne, ressource'* bezalako adjektiboak bakarrik onartzen ditu.

Terminoak mendetasun-erlazioak ditu 1. eta 2. puntuetako ezaugarriak dituzten unitateekiko.

Esate baterako, *'action en justice'* zuzenbide zibilak definitutako *'partie'* (*auzi-alderdi*)-aren ekintza da, aldiz, *'balio higigarri'* esan nahi duen *'action'* terminoak, *'société, 'bourse, 'portefeuille, 'negocié'*, hau da, balio higigarrien adigaien munduko hitzekin izango ditu dependentziazko erlazioak.

<sup>25</sup> 'Vocabulaire de soutien' (gogora supra II.1.3.2.)

<sup>26</sup> Esate baterako, osagarri "zientifiko" edo grekoa izatea, sintaxi-finkotasunaren (lexikalizazioaren) gradua, maileguzkotasuna, edo inguruan "deritzona" "izendapena duena" edo antzeko glosa eramatea.

### 1.4.3.- Bestalako irizpideak.

Aurrerago esaten genuenez, Cabrék hitza eta terminoa formalki berdinak direla dio, baina ezaugarri berak izate hori ñabardura handiagoz tratatzen du ondoren, esanaz semantikaren aldetik ez direla berdinak hitza eta terminoa. Gainera, dio, terminologia-zerrenda bateko hitzen multzoan, eta hiztegi orokorrekoak alderatzen baditugu, azaltzen dira zertzelada bereizgarri batzuk. Esate baterako, osagarri jasoz osatutako unitateak, eta finkaturiko eraikuntza sintagmatikoak ugariagoak dira terminologian hiztegi orokorrean baino. Halaber, terminologia-bilduma batean ia izenak bakarrik aurkitzen ditugu, adjektibo, aditz, eta esapide gutxi batzuekin batera; hizkuntza orokorreko hiztegian, aldiz, kategoria gramatikal guztiak aurkitzen dira: izenak, aditzak, adjektiboak, adberbioak, determinatzaileak, izenordeak, preposizioak, juntagailuak, eta interjekzioak ere. Horrek esan nahi du gramatika-kategoriei dagokienez aski desberdinak direla lexikologia eta terminologiaren oinarrizko objektuak. Gainera, dio Cabrék, hitzak eta terminoak, hizkuntzaren sistemaren ikuspegiaz gainera, komunikazio-unitatetzat ere har daitezkeenez, ikuspegi pragmatikotik ere azter daitezke, eta hor dago terminoen eta hitz arrunten arteko bereizkuntzarik gardenena, izan ere, pragmatikoki desberdinak dira hitzak eta terminoak beren erabiltzaileen aldetik, bideratzen dituzten gaien aldetik, eta aurkitzen diren diskurtso-moten aldetik<sup>27</sup>.

Beste autore batzuek ere, hala nola Kocourek (1991:97) hurbilpen semantiko-pragmatikoa egiten dute. Horretarako, ondoko hiru galdera hauek planteatzen ditu ikertzaile txekiarrak: a) “unitate lexikoa espezialitate jakin batekoa da?”, b) “espezialista direnek soilik ezagutzen dute?”, eta c) “adigai zehatz baten izendapena da?”. Hirurei baiezkua erantzunez gero, dio, termino baten aurrean gaudela pentsa dezakegu.

Aurrerago (1991:180), ordea, terminoaren definizio guztiz enpirikoa ematen du, honela dioelarik:

*"Le terme est une unité définie dans les textes de spécialité. (...) Les termes sont donc, en premier lieu, des unités lexicales, c'est-à-dire des*

<sup>27</sup> Puntu hau gehiago zabaltzen du: Cabrék (1992:206-208): “Terminologia ez denez garbi bereizten lexikologiatik gramatika-arloko ezaugarriengatik, eta bai gehiago haren ixuri sozialari eta komunikazio-erlazio batean parte hartzen duten faktoreei dagozkien ezaugarri pragmatikoengatik, elementu pragmatikoek berebiziko garrantzia hartzen dute terminologia bereizgarritzeko orduan. Hortaz, bost faktore hauek hartuko ditugu kontuan terminologia eta lexiko arrunta bereizterakoan: •1 bataren eta besteren oinarritzko funtzioa Konatiboa, emotiboa, fatikoa eta besteak vs erreferentziala •2 bata eta besteak tratatzen duen tematika •3 generikoa vs espezifikoa • bakoitzaren erabiltzaileak: edozein vs. espezialistak •4 bakoitza gauzatzen den komunikazio-egoera: formalizaziorik gabea vs formalizaturia •5 terminoak eta hitz arruntak agertzen diren diskurtso-motak: orokorra vs profesionala eta zientifikoa”.

*mots ou des syntagmes lexicaux (...) Les termes sont, ensuite, des unités lexicales dont le sens est défini par les spécialistes dans les textes de spécialité. Si c'est le cas, ce sens est en même temps une notion (un concept) de la spécialité."*

Beraz, Kocourek proposatzen duen bereizmena guztiz kanpoko da: definizioz hornitua egotea. Baina, (1991:180) zehazten du, definizio horrek eragin sakona du unitate lexikoaren ahalmen semantikoaren gainean<sup>28</sup>.

Definizioaren irizpidea aurki daiteke halaber Reyrengan, zeinak unitate terminologiko sintagmatikoei dagokiela (1992:94): erabiltzaile espezialisten onarpena, eta definizioa jartzen baititu halako unitate bat terminotzat hartzeko baldintza gisa<sup>29</sup>.

#### 1.4.4.- Laburbilduz

Jadanik 1.2. puntuan terminologia klasikoaren kontzepzioak kritikagarriak iruditzen zaizkigula azaldu dugunez, printzipio haietan oinarrituriko azterketak ez zaizkigu onargarriak iruditzen.

Leratek proposatzen dituen irizpide linguistikoak gure ustez, interesgarriak dira, zorrotasuna eskatzen dutelako, (ikusiko dugun bezala (infra III. 6.4.), hiztegi terminologikoetan —juridikoetan bederen— falta ohi dena) eta hainbat kasutan ukaezinezko erabakimena dutelako, baina gehiegi mugatzen dute *termino* adigaia, praktika terminografikotik sobera urrun joanez. Izan ere, irizpide horiek zorrozki aplikatuz gero, bilduma terminografiko gehienak hutsik suertatuko lirateke.

Cabrek egiten dituen zehaztasunak eta eskaintzen dituen ikuspegi desberdinak oso kontuan hartzekoak iruditzen zaizkigu: termino-multzoak eta hitz arrunten multzoak hainbat ezaugarri desberdinez horniturik agertzen zaizkigu.

Aurrekoa ezer gutxietsi gabe, aitortu behar da Reyk eta Kocourek proposatzen dituzten bereizgarriak, espezialisten onarpena eta definizioa, guztiz praktikoak direla azken finean ezinezkoa baita linguistikoki terminoak eta hitzak bereiztea.

---

<sup>28</sup> (...) *les termes étant des unités lexicales définies, ils ne représentent, potentiellement, que certaines acceptions de l'aire sémantique de l'unité lexicale, à savoir, celles qui sont définies par les spécialistes dans les textes de spécialités, et non par les lexicographes dans les dictionnaires généraux.* (Kocourek, 1991:180)"

<sup>29</sup>*Ce qui compte, c'est que l'unité corresponde dans l'usage des spécialistes à une forme généralement acceptée et comprise –ou proposée par l'être–, et surtout à une définition qui la fasse correspondre à une notion dans un domaine"* (Kocourek, 1991:180)

## 2.- Terminoen forma linguistikoa

### 2.1.- Terminoak unitate linguistiko izendatzaileak dira

Cabrék hainbat bider<sup>30</sup> gogoratzen digun bezala, ikuspegi formaletik teminoak, besteak bezalako unitate linguistikoak dira; eta haien eginkizuna denez, izendapen deitzen den prozesuaren bidez, adigai batekiko erlazioa izatea, haien izaera logikoa, izenarena izango da.

Beste modu batera, baina harekin bat etorriz, Reyk (1992:24) ohartarazten du terminologia zeinu linguistikoek (hitzez eta hitza baino unitate handiagoez) arduratzen bada, haiek —objektuak denotatuz, eta adigaiak seinalatuz— izen bezala funtzionatzen duten heinean dela. Hortaz, sistema terminologikoek baztertu egiten dituzte denotazio sailkatzaile edo adigaiaren sinbolo-funtziorik ez duten zeinu linguistikoak: izenordainak, izen propioak, hitz gramatikalak eta abar<sup>31</sup>.

Baina Reyri (1992:78) eta Cabréri (1992:173) jarraituaz zehaztu behar da izena aipatzen delarik, izaera logikoaz ari garela, ez, halabeharrez, kategoria gramatikalaz; beraz, kualitateen izenak (adjektiboak), ekintzenak (aditzak), eta erlazioenak<sup>32</sup> ikus daitezke termino bezala.

Terminoen izaera linguistikoa finkatutzat eman ondoren, ondoko lerroetan aztertuko dugu nolako forma linguistikoa izaten duten terminoek, eta bereziki zein erlazio dagoen unitate lexikoen eta terminoen artean.

### 2.2.- Zein izaten dira terminoen forma linguistiko usuenak?

Badakigu jadanik hitz guztiak ez direla termino, eta termino guztiek ez dutela hitzaren forma linguistikoa<sup>33</sup>; azter dezagun ondoren zein diren, autore

<sup>30</sup> Ikus esate baterako Cabré (1992: 173): “*Els termes estan construïts, com s’ha dit, sobre la base dels formats que poseeix el sistema lèxic general d’una llengua. D’aquesta manera, segueixen els tipus d’estructura que aquest sistema permet, empran els mateixos recursos de formació de paraules i se sotmeten a les mateixes regles de combinació i a les seves restriccions. En aquest sentit es pot dir que per formar una nova denominació la terminologia disposa en línies generals dels mateixos recursos i mecanismes que té el lèxic general per formar una nova paraula.*”

<sup>31</sup>Zentzu berean, ikus Auger eta Rousseau (1984:27): “*En conseqüència, la terminologia es limita a l’estudi de les categories lèxiques següents: 1) substantius i sintagmes nominals; 2) adjectius i sintagmes adjectivals; 3) verbs i sintagmes verbals. Quedan exclosos, doncs, els mots gramaticals i els elements de relació.*”

<sup>32</sup>Esate baterako, logikako termino-zerrendetan ‘eta’, ‘edo’, ‘baldin’ bezalakoak ere jaso daitezke).

<sup>33</sup>‘Hitz’ adigaiaren ahuldade teorikoez, definieztasunez, eta bazterrezintasunez etab. ikus Cabré eta Rigau (1985:8-9)

ezagunenetako batzuen arabera, bai testu espezializatuetan bai lexikografia espezializatuetan aurkitzen diren terminoen kategoria lexiko eta sintaktiko ugariak.

Unitate terminologikoen izaera linguistikoa askotarikoa izan daitekeela gogoratuaz hasten da Rey (1992:79), zeinak hiruko sailkapena proposatzen baitu: horrela termino batek har dezake morfema libre baten forma (hitz soilarena, alegia), hizkuntzaren lege morfosemantikoen arabera osa daitekeen hitz eratorri edo elkartuarena, eta baita sintagma baten forma, gehienetan izen-sintagmarena, eta inoiz, aditz-sintagmarena.

Hiru multzoz mintzo da Dubuc (1992:25) ere, dioenean terminoa izan daitekeela hitz bakarra<sup>34</sup>, edo hitz-terminoa (*terme-mot*), hitz elkartea —horien ezaugarria hitzen arteko marratxoa dela esanez—, eta sintagma, alegia, erlazio sintaktiko identifikagarri batez loturiko hitz multzoa.

- *nom + adjectif*,
- *adjectif + nom*,
- *nom + complement déterminatif*,
- *nom + apposition*,
- *verbe + complement d'object*

Kocourek-ek (1991:106) bitariko sailkapena proposatzen du lehenik, zein mailatako unitatea den, soilik, kontuan hartuaz: lexiko mailako unitatea den edo sintaxi bidez osaturikoa den; haren hitzetan, hitz-terminoa (*terme-mot*) eta sintagma-terminoa (*terme-syntagme*). Badira, noski, trantsizio-kasuak zeinetan ezinezkoa baita bata ala bestea den erabakitzea. Irakasle txekiarrak *terme-mot* deitzen dituenen artean, hitz bakunak (*mots simples*) eta konplexuak (*mots complexes*) bereizten ditu. Konplexuen artean, hau da morfema bat baino gehiago dutenen artean honako sailkapenak egiten ditu:

- benetako hitz eratorriak, hau da, hitzari aurrizkiak edota atzizkiak erantsiaz osatutakoak
- konfixazioa (*confixation*) Martineten terminologia erabiliaz, osagarri greko-latinoz osatutako hitzak, adib.: *hipoteka, telefono*.
- elkarketa (hitza + hitza)

Cabré-k (1992:162-164) proposatzen duen sailkapena nahiko antzekoa da funtsean

- Osagai dituzten morfema kopuruaren arabera: sinpleak eta konplexuak: *àcid / acidificació, gel / gèlid, llum / luminiscència*. Hala sinpleek nola konplexuek, beren aldetik oinarri lexiko gisa joka dezakete unitate terminologiko berriak osatzeko
- Termino konplexu baten osaeran parte hartzen duten morfema tipoen arabera, terminoak izan daitezke eratorriak (eratorpen-morfemak oinarri lexiko bati

<sup>34</sup>“Hitz’ adigaiaren nolabaiteko definizioa ere ematen du esanez. “(...) *c’est-à-dire, un assemblage de lettres procédé et suivi d’un espace*”.

eransten zaizkionean) edo konposatuak (oinarri lexikoen konbinazioz osatuak).

- Termino konplexuak egitura sintaktikoa jarraitzen duen hitz-konbinaketak izan daitezke. Kasu honetan sintagma terminologikoak izango genituzke.
- Azkenik, terminologian daukaten maiztasunagatik kontuan hartu behar dira, itxuraz sinpleak baina, bere osatze prozesua aztertuz gero jatorri konplexua agerian erakusten duten termino-mota batzuk: siglak, akronimoak, laburpenak eta forma laburtuak.

Honaino ikusi dugu zer dioten ikertzaile horiek terminoaren forma linguistikoaz. Egiaztatu dugun bezala, irizpide batzuen azalpena izan da, ez *corpus-en* azterketatik ateratako datuak. Hurrengo kapituluan zuzenbideko terminografian aurkitzen duguna astiroago aztertuko badugu ere, interesgarri deritzogu gainera izan arren, hiztegi espezializatuetatik ateratako zenbait daturen bidez egiaztatzea edo gezurtatzea printzipioen mailan esan izan dena.

Ez dugu, ordea, horretarako datu askorik aurkitu, bai ordea, Sager-en (1990:58) baieztapen hau bezalakoak:

*“Concepts represented in terminological dictionaries are predominantly expressed by the linguistic form of nouns; concepts which are linguistically expressed as adjectives and verbs in technical languages are frequently found only in the corresponding noun form and some theorists deny the existence of adjective and verb concepts.”*

Zerbait zehatzagoa da, oso partziala izanik ere, Reyk (1976-V-32 eta 1992:79-80) dioena, alegia, Elsevier-en *Dictionary of Gaz Industry, 1961*, delakoan 500 sarrerako aditz bakar bat, dagoela, gainerako guztiak izenak diren bitartean, eta Wüster-en *Dictionnaire de la machine-outil*, ospetsuan, 200 sarrera aztertu ondoren 5 aditz bakarrik aurkitu zituela, gainerako guztiak izenak edo izen sintagmak izanik.

Otman-ek (1991: 61) Clasen ikerlan bat aipatzen duelarik, honako datu hauek ematen ditu corpus frantses batentzat:

- “8% monominaux,
- 34% NOM +ADJ,
- 35% binominaux du type NOM + NOM ou NOM + prep+ NOM qui peuvent tous prendre une expansion adjectivale,
- 7% des trinominaux NOM + NOM +NOM ou NOM +Prep + NOM + Prep + NOM et
- environ 2% sont des “composés lourds” (formations périphrastiques)”

Azpitarratzekoa da, kopuru horien arabera, %84 izen-sintagmak direla, eta %2 bakarrik sailkatzen direla perifrasi moduan. Falta den % 14aren berririk ematen ez badu ere, kontuan hartzeko ehunekoak dira, oro har, gure inguruko hizkuntzetan terminoen formak zein diren ezagutzeko.

## 2.3.- Termino-sintagmen azterketa berezia.

Ikusten ari garenez, hainbat autorek azpimarratzen dute terminoen forma linguistikoari dagokionez, bi mota nagusitakoak izan daitezkeela (Kocouren *terme-mot / terme-syntagme*). Izan ere, bereizketa horrek garrantzia berezia dauka terminologian (Auger eta Rousseau 1984:27)<sup>35</sup>. Ondoko lerroetan, termino-sintagmak zer diren, hizkuntza orokorreko unitate lexikoekin dauzkaten erlazioak, eta horien inguruko hainbat alderdi jorratuko ditugu.

### 2.3.1.- Unitate lexiko sintagmatikoa

#### 2.3.1.1.- Abiapuntuko karakterizazioa.

Lexikologian unitate lexiko-sintagmatikoaren adiagaia, ezezaguna ez bada ere, neurri batean berri samarra da, eta haren kokapena oraindik eztabaidagai da. Mende laurdena pasa ondoren, ez dute erabateko gaurkotasuna galdu Benvenistek (1974:172 hitz hauek:

*“Nous voudrions insister tout particulièrement sur un type de composition, qui n’étant pas encore reconnu dans sa nature propre, n’a pas de statut défini. Il consiste en un groupe entier de lexèmes, reliés par divers procédés et formant une désignation constante et spécifique”.*

Baina, interesgarria iruditu zaigu, sintagma-lexikotik sintagma terminologikorako bidea egiten duenez, abiapuntu bezala hona ekartzea Kocourek (1991:137) ematen duen karakterizazioa —dioenez, hainbat ikertzailearen puntu komunak bildurik osatua—. Txekiarrak dio unitate sintagmatikoan honako ezaugarri hauek biltzen direla:

- hainbat elementu konbinatuz goragoko unitate bat osatzea,
- unitate lexikoen sistema paradigmaticokoa izatea,
- bere zentzua edo izendapen-gaitasuna dela eta, baturik egotea.

Esandakoaren arabera, unitate sintagmatikoak berarekin nahas daitezkeen beste zeretatik bereizi beharko ditugu.

Lehenik, hitz elkarketatik bereiziz hasi gara. Oro har, esan daiteke unitate sintagmatikoan lotura sintaktikoak formalak eta agerikoak direla, baina zalantzazko kasu ugari aurki daiteke.

<sup>35</sup>*“Dins d’aquestes categories, cal considerar dos tipus d’unitats. D’una banda, les unitats simples, que no plantegen problemes particulars pel que fa a la seva delimitació (es el cas, per exemple, de termes com paramagnètic, device, fulminate, etc. D’altra banda, les unitats complexes -els sintagmes de denominació-, que podem descriure normalment com conjunts formats per dos o més mots que no poder dissociars-se sense canviar el sentit del conjunt. Expressen una noció única com a resultat d’una activitat de denominació.” Auger, Rousseau (1984:27*



Beste aldean, bereizi beharra dago unitate sintagmatikoa diskurtsoko sintagma libretik hau da, batere egonkortasunik ez, edo oso txikia baizik ez duen sintagmatik.

### 2.3.1.2.- Terminologia- arazoak

Hemen ere, terminologia arazoak aipatuaz hasi behar dugu, zeren Kocourek<sup>36</sup> (1991:136) nabarmentzen duenez hala lexikologoen nola terminologoen artean, ugaritasun terminologikoa oihan modukoa da puntu honi dagokionez.

Arazoak, inguruko hizkuntzetan ugaritasunetik datoz; euskaraz ez baitugu bibliografia askorik aurkitu gai honi buruz, are gutxiago izendapen-uholderik. Erabilitako izendapenen artean aipa ditzagun Ensunza-ren (1987:87) *unitate lexikal konplexu*, Azkarateren (1990: 23) *sintaxi-multzo*, Perez Gazteluren (1995:917), *hitzez gorako unitate*, eta Diaz de Lezanak(1993:1) erabiltzen dituen *unitate konplexu* edo *izendapen-unitate*. Denak izan daitezke baliagarriak, baina ez dira zehatzak gure ustez.

Euskalermen egindako kontsultetatik, *lexiko-unitate* eta *unitate konplexu* —guztiz lausoak, baina testuinguru jakinetan erabilgarriak— besterik ezin izan dugu atzeman.

Guk, *unitate lexiko sintagmatiko* izendapen deskriptiboa aukeratu dugu, aurretik dagoen batasun-eza handiagotzen dugula jakin arren, eta izenondoetariko bakarrarekin, bai *unitate lexiko*, bai *unitate sintagmatiko* ere erabiliko dugu.

### 2.3.1.3.- Unitate sintagmatikoen lehen deskribapenak.

Hizkuntzalaritzaren historian ez da beti oso garbi eduki den kontua unitate lexiko sintagmatikoena. Historikoki, Guilbert-ek dakarrenez (1975:249), A. Darmesteter-en lan ospetsuan (1888. *La Vie des mot étudiée dans sa signification*), aurkitzen da unitate sintagmatikoaren adigaia, '*juxtaposition*' izenarekin. Lexikologiaren aitzindari harentzat, hitzak, enuntziatuaren sintaxiaren arauen arabera elkartzen dira, eta haien arteko lotura, denboraren, eta erabileraren ondorio dira, horien eraginez sortzen baita irudiaren batasuna.

---

<sup>36</sup> Kocourek-ek (1991:136) frantsesezko 25 'onargarri' aipatzen ditu (*lexie, synapsie, paralexème, mot complexe, groupe lexicalisé, syntagme lexicalisée, syntagme dénominatif, unité de signification, unité lexicale complexe., groupe de mots...*, berak erabiltzen duen *syntagme lexical*, eta beste hainbat) eta beste bi 'baztergarri' – izendapen baino areago definizio edo deskribapenak direlako. Ingelesez ere oso ugariak dira (*lexical cluster, composite lexeme, compound lexical units, phrasal compound, lexeme...*) eta Kocourek-ek berak erabiltzen duen *lexical phrase*, besteak beste, erabili ohi diren izendapenak.

Martinetek (1967:5) lantzen du, ondoren, unitate sintagmatiko lexikoen gaia, oso garbi bereziaz zer den '*syntagme*' eta zer '*synthème*', gure ikergaiarentzat asmatzen duen izendapena. Honela definitzen du '*synthème*':

*"(...) les unités linguistiques dont le comportement syntaxique est strictement identique à celui des monèmes avec lesquels ils commutent, mais qui peuvent être conçus comme étant formés d'éléments sémantiquement identifiables."*

Argi dago, horrelako definiziotik abiatuta, sintagmatika lexikalari bidea eragozten ziola, eta erabateko zurruntasuna eskatzen ziola unitateari, hau da, osagaiak erabat galtzea edozein jokabide sintaktiko autonomorako gaitasuna.

Guilbertek dioenez (1975:250) Beste estrukturalisten lanetan horrelako unitateen azalpenak emateko, saioen batzuk badaude ere, (Bally, Greimas, Dubois, esate baterako), Benveniste da lehenik oinarri teorikoa ematen diona lexemaz gaineko sintagma lexikoaren batasunari.

'*Synapsie*' izenarekin Benvenistek tratatzen duen unitatea, alde batetik diskurtsoko sekuentzia arruntetik. eta bestetik hitz-elkarketatik bereizi beharra ikusten du. Zazpi dira bereizketa horretarako eskaintzen dituen irizpideak:(1974:172):

1. "Unitatearen osagaien arteko lotura sintaktikoa eta ez morfologikoa izatea;
2. Hitzen arteko '*joncteur*'-ak, bereziki '*de*' eta '*a*' erabiltzea;
3. Barne-hurrenkerari dagokionez, mugakizun + mugatzaile izatea;
4. Forma lexiko osoak izatea, eta libreki aukeratzea izenak zein adjektiboak;
5. Artikulurik ez izatea mugatzailearen aurrean;
6. Mugakizunaren zein mugatzailearen aldetik hedatzeko gaitasuna izatea;
7. Adierazia izaera bakarrekia eta egonkorra izatea.

Ikus daitekeenez, Benvenisteren kontzeptzioan, garrantzi itzela hartzen dute unitatearen osagaien arteko erlazio sintaktikoak, zazpi irizpideetatik, bost sintaxiarekin lotuta baitaude. Bestalde, bidea zabalik geratzen da sorkuntza-printzipio bezala hartzeko erabilera, maiztasuna, eta hortik eratortzen den erabiltzaileen aldetiko memorizazioa.

#### 2.3.1.4.- Guilbert-en ekarpena

Guilbert lexikologo frantsesak egin du unitate lexiko sintagmatikoen deskribapenerako, eta batez ere, haien erakuntza-prozesuaren azalpenarako ekarpenik garrantzitsuenetako bat.

Benevenisteren ekarpenetan oinarrituaz, Guilbertek (1975:253) hizketa-sintagmetatik abiatuz unitate sintagmatikoetara heltzeko bi eratze-printzipio bereizten ditu: bata, maila sozialekoa, hiztunek hizketaz egiten duten erabileran datzana, eta hortik datorren memorizazioan oinarritzen dena, eta bestea, sintagmaren atalen artean dagoen erlazio sintaktikoaren izaeran datzana.

Gramatika sortzailean oinarria hartuaz, Guilberten aburuz unitate lexiko sintagmatikoaren osatze-printzipioa azaltzen da esaldi predikatibo batean zeinaren atalak baitira oinarria edo mugakizuna ematen duen izen-sintagma bat eta determinatzailea edo mugatzailea ematen duen aditz-sintagma bat<sup>37</sup>. Transformazioaren adibide bezala honako hau proposatzen du (1975:253)

*IS*                      *AS*

*avion à réaction < [l'avion] [est à réaction]*

Honela gertatzen da transformazioa: lehenik, aditz-sintagma erlatibizatu egiten da:

*L'avion [qui est ] à réaction,*

eta ondoren, erlatiboaren marka eta kopula desagertu egiten dira.

Oinarrizko erredu horren arabera Guilberten ustez, osa daitezke funtzio lexikodun sintagmak, funtsean erlazio sintaktiko batean oinarritzen direnez: determinatzaile / determinatu erlazioan dagoen egitura sintaktikoan, alegia. Erlazio hori aurki daiteke berdin lexema sinple batean, konposatu ihartu batean edo unitate sintagmatiko batean; izan ere, erlazio hori dagoen bitartean, ez da behar Martinetek eskatzen zuen zurruntasuna: izan ere, '*voiture de sport*' funtzio lexikoa duen sintagma bada ere, esan daiteke '*voiture anglaise de sport*' haren barnean elementu berriak sartuaz, alegia. (Guilbert, 1975:255)

Guilbertek oharrarazten duenez, erredu hori heda daiteke, baina ez mugarik gabe; funtzio lexikala bete ahal izateko sintagmak ezingo ditu hiru edo lau determinatzaile baino gehiago izan, haren batasun-irudia galdu egiten baita hiztunaren buruan.

Guilberten teoriaren beste alderdi nagusia da, unitate sintagmatikoaren funtzio lexikoa eta soziala azpimarratzea. Horrela, dio, lexikalizazio-prozesua, hau da, unitate sintagmatikoa hizkuntzan ezartzeko prozesua, testuinguru sozio-linguistikorekin hertsiki lotuta dago. Sintagma bat unitate bezala erabiltzen bada, hizkuntz komunitateak edo talde batek izendatze-behar batzuk dauzkalako da. Banako sintagmatikoak, definitze-, sailkatze- eta izendatze-behar batzuei

---

<sup>37</sup> Guilbert (1975:257): "*L'unité syntagmatique nominale est le produit de la relation entre un nom, sujet de phrase implicite transformé en base de l'unité, et une détermination de forme varié fournissant le second élément de l'unité.*"

erantzuten die. Alor jakin batean ezinbestekoak bihurtzen dira. Esan beharrik ez dago horrek guztiak terminologiara eramaten gaituela.

### 2.3.2.- Zer da lexikalizazioa? Lexikalizazio-prozesuaren urratsak

Lexikalizazioa (EN *lexicalization*, DE *Lexikalisierung*, FR *lexicalisation*,) bereziki hitz-eraketarekin erlazionaturik<sup>38</sup> erabilitako hitza da (Bauer 1983), baina, modu zabalagoan ere har daiteke. Ikusi dugun bezala, Guilbertek '*procés de lexicalisation*' deitzen zion multzo sintaktikoak unitate lexiko bilakatzeko prozesuari, eta Lipkak (1993:2164) dioenez, Marchanden *The Categories and Types of Present-Day English Word-Formation –en* 1969ko argitalpenaz geroztik orokortu da hitzaren erabilera.

Lipkari jarraituaz, Kastovsky-k<sup>39</sup>, eman zuen lexikalizazioaren definizio zabala esanaz hala lexema konplexuak nola multzo sintaktikoak hiztegiko atal finkoak bilaka daitezkeela halako moduan non beren ezaugarri formalak edota sintaktikoak ez baitira zuzenean beren osagarrietatik edo osatze-patritatik eratorriak edo "igargarriak" (*predictable*).

Lexikalizazioaren prozesu-izaera askoz markatuagoa agertzen da Lipkak ematen dituen definizioetan:

*"...the phenomenon that complex lexical items, through frequent usage, may lose their syntagmatic nature and tend to become formal units with specific content"*.(Lipka, 1992:97)

Bauer-ek (1983: 43-61) bere aldetik, prozesua dela azpimarratuaz, hiru urratseko prozesuaren burutzapen bezala deskribatzen du lexikalizazioa.

- Hitz konplexu baten garapeneko lehen urratsa da hitz (multzo) hori behin erabiltzea (*nonce formation*, Bauer-en terminologian, Marchandenean bezala); hori gertatzen da hiztun edo idazle batek horrelako hitz konplexua moldatzen duenean unean uneko beharrari erantzuteko. Oraingoan, hizkuntzaren arau morfo-sintaktikoak aplikatuaz hizketan sortzen den multzoa besterik ez genuke.
- Bauer-ek 'institutionalization' [guk 'instituzionalizazio' itzuliko dugu] deritzona da bigarren urratsa. Urrats honetan, hitzaren ahalezko anbiguotasuna baztertu, eta eduki ditzakeen adieretatik gutxi batzuk, edo bat bakarrik ematen zaio. Beste ikuspegi batetik, Lipkak (1992:96) dio lexema konplexu bat (jatorrizko '*nonce formation*') instituzionalizaturik dagoela beste hiztun batzuek unitate lexikal jakintzat onartzen dutenean. Instituzionalizatutako lexemak nahiko gardenak dira, kontuan izanda bertan arazorik gabe sartzen direla metafora-bidezko esanahiak.

<sup>38</sup> Dena den, gogoratu behar da, '*lexikalizazio*' hitzaren erabilera askotarikoa dela, eta ez dugula nahastu behar hemen ematen diogun esanahia, eta hasierako eredu sortzaileetan ematen zitzaion '*lexical insertion*' esanahia.

<sup>39</sup> *Wortbildung und Semantik*, 1982

- Hirugarren urratsean izango genuke lexikalizazioa. Lexikalizazioaz hitz egin ahal izateko, beharrezko da, edozein aldaketa jazorik hizkuntzaren sisteman, lexemak, produkzio-arau orokorrak aplikatuz hartuko ez lukeen ezaugarriren bat hartzea. Lexikalizazioan, hirugarren urratsean gertatzen den aldaketa hori hainbat mota edo modu ezberdinetan gerta daiteke. Bost mota posible bereizten ditu Bauer-ek (1983:50): fonologikoa, morfologikoa, semantikoa, sintaktikoa eta mistoa. Mota horiek guztiek komunean daukatena da irregulartasuna edo aurretik jakin ezina edo igarriezintasuna.

Autore guztiak ados datoz esaterakoan, lexikalizazioaz edo instituzionalizazioaz den bezanbatean, ez kategoriatu absolutuez baizik, graduaz hitz egin behar dela, eta lexikalizazioaren maila hori neurtzeko irizpideak, hala sintaktikoak nola semantikoak proposatzen dituzte.

Bi irizpide sintaktiko nagusi proposatzen ditu Picoche-k (1992:15): banaezintasuna eta konmutazioa. Banaezintasunak adierazten du sintagma lexikalizatuko osagarriak ezin direla banatu, ezin dela ezer sartu tartean. Adibide gisa, dio, ezinezkoa da *pomme de terre* edo *assistante sociale* bezelako unitateen barruan ezer sartzea. Konmutazio edo ordezkatzeko irizpideak esan nahi du lexikalizaturiko unitateetan ezinezkoa dela hitz osagaiak banan bana ordezkatzeko, unitate osoa, ordezkatu daitezkeen bitartean<sup>40</sup>.

Bi irizpide nagusi horiez gainera, beste batzuk ere erabil daitezke, esate baterako, kateko elementu bakar bat koordinatzeko edo erabiltzeko debekua, eta beste batzuk; baina irizpide horiek, hitz kate baten lexikalizazioaren froga baino areago indikazio hustzat hartu behar dira: azken finean unitate lexiko konplexuak ez du ezer bere itxura formalean sintagma aske batetik zalantzarik gabe bereiziko duena. Beharrezkoa da, hortaz irizpide semantikoetara jotzea. Picochek (1992:17), Benvenisteren<sup>41</sup> haritik, dioenez, hitz konposatuaren batasunaren irizpiderik garbiena semantikoa da: adigai bakar baten adierazletzat hartzen dena unitate lexikoa izango da. Horrez gainera, maiz gertatzen den bezala, banako konplexuaren atalek beren balio semantikoa galdu-aldatu badute osotasunaren balio semantikoaren mesedetan, irizpide garbiagoa izango dugu.

### 2.3.3.- Sintagma terminologikoa: baldintzak eta mugak

#### 2.3.3.1.- Erabateko lexikalizazioa ez da nahitaezkoa

Bauer-en eta Lipkaren bidetik onartzen badugu *instituzionalizazio* deituriko urratsa bereiz daitezkeela unean uneko izendapen-beharretarako hitzunak osatzen dituen unitateen eta lexikalizazio-prozesuaren burutzapenetik sortutako

<sup>40</sup> Adibidez, dio Picochek, *pomme de terre*-ren ordezkari erabili daitezke *carotte* edo *navet*, ezin, ordea, *poire de terre* bezalakorik egin.

<sup>41</sup> Benveniste (1974:173) : "C'est toujours et uniquement la nature du désigné qui permet de décider si la désignation syntagmatique est ou n'est pas une synapsiel'unité."

lexikalizaziotik, hobeto azaldu ahal izango ditugu terminologiagintzaren alorrean agertzen zaizkigun unitateak, lexikologiaren ikuspegitik urrundu gabe.

Izan ere, espezialitateko testu bateko horrelako sintagma bati dagokion definizio espezializatu bat dagoenean betetzen dira instituzionalizaziorako gutxienezko baldintzak, hau da, sintagmaren anbiguotasun potentziala baztertzea, eta eduki ditzakeen adieretatik bat bakarra, definizioak formalizatzen duena, ematea. Gerta daiteke, noski, terminoa guztiz lexikalizatutako multzoa izatea, baina ez da ezinbestekoa.

Formulazioan edo erabiltzen diren hitzetan ugaritasuna badago ere, esan daiteke terminologiaz arduratzen direnen artean aho batez onartzen dela unitate terminologikotzat hartzeko ezin zaiola hitz multzo bati erabateko lexikalizazio maila eskatu. Honela Kocourek (1991:151) sintagma bati dagokion definizio bat badagoela ziurtaturik, sintagma-terminoaren aurrean gaudela esan daitekeela uste du, eta sintagma-termino horren '*lexikalizazioaren gradua*' zehazteko erabiltzen ditu aurrerago azalduko diren ezaugarriak. Bide beretsutik jotzen du Reyk<sup>42</sup> (1992:94) esaten duenean terminologian, sintagma-terminoak ez duela lexikalizatuta egon beharrik termino izateko<sup>43</sup>.

### 2.3.3.2.- Sintagma terminologikoaren definizioa

Edozein unitate lexikalizatu izan daiteke termino, diskurtso espezializatu baten barruan alor jakin bateko adigai zehatz bati badagokio, baina gainera, lexikalizatu gabeko sintagma konplexu askori dagokie adigai ongi identifikatu bat. Nola jakin, ordea, sintagma terminologiko baten aurrean gaudela? Hainbat bide desberdin har daitezke horrelako terminoak zehazteko.

Horietako bat da sintagma terminologikoa definitzea, betebeharr zehatzez hornituaz.

Horrela jokatu du esate baterako Collet-ek (1997:195), esplizituki argituz frantses hizkuntzarentzat soilik ari dela, proposatzen duen sintagma terminologikoaren deskribapen honetan:

*“Un syntagme terminologique est une unité complexe qui:*

*(i) est formée selon les règles de la syntaxe;*

*(ii) est composée d'au moins deux unités graphiquement simples;*

*(iii) a une structure interne binaire, constituée d'un déterminé et d'un déterminant;*

<sup>42</sup>Rey (1992:94): *“Ce qui compte, c'est que l'unité corresponde dans l'usage des spécialistes à une forme généralement acceptée et comprise -- ou proposée pour l'être--, et surtout à une définition qui la fasse correspondre à une notion dans un domaine”.*

<sup>43</sup> Eta oso antzeko formulazioak aurki daitezke honako hauetan: Dubuc (1992:25,44), Marquet (1995:123), Sager et al (1980:233), Sager (1990:60), Cabré (1992:286) edo Chukwu Uzoma (1993:28), besteak beste.

(iv) *se caractérise par un degré de figement relatif;*

(v) *a le statut de terme, c'est-à-dire de dénomination d'un notion comprise dans le système notionnel d'un domaine."*

Lehen bi ezaugarriak, sintaxiaren arauen arabera moldaturik egotea eta bi unitate grafiko bakun gutxienez edukitzea osagai, alboraezinak dira unitate sintagmatiko konplexuez ari bagara eta autore guztiak datoz bat puntu horietan.

Hirugarren ezaugarria, barne egitura bitarra, mugakizun/ mugatzaile izatea, Guilbertek (1975:257) unitate sintagmatikoentzat postulaturakoarekin bat dator, eta hala Kocourek (*régissant/ modificateur*) nola Dubucek (1992:43) nola Colletek (*determinant/ déterminé*) onartzen dute. Cabrék (1992:286), dioenean multzoa oinarri bakar baten inguruan antolaturik egotea unitate terminologikoaren baldintza dela, modu desberdinean hitzetaraturik bada ere, funtsean gauza bera adierazten du.

Colleten laugarren ezaugarrian formulatzen da erabat lexikalizatuta egon gabe ere sintagma terminologikoa izateko finkapen maila bat behar dela. Finkapen maila hori zein den, eta nola neurtzen den, ordea, oso korapilatsua da Kocourek gogoratzen duen bezala. Izan ere, finkapena neurtzeko erabileraren maiztasunera jo ohi da; baina maiztasunaren neurketa hutsak kanpoan utz ditzake guztiz lexikalizatuak baina erabilera urrikoak diren multzoak, eta barnera ditzake lexikalizazioaren ikuspegitik pertinenteak ez diren multzoak.

Maiztasunaren irizpidearen zuzengarri gisa errekurrentziarena proposatu izan da: sintagma bat errekurrentetzat joko da baldin eta gai jakin bati buruzko testu guztietan gutxienez haren agerpen bat aurkitzen bada. Beste irizpideak ere proposatu izan dira, baina edozein modutan, nahiko zehaztugabe geratzen da irizpide hau.

Collet-ek azken tokian ipintzen du "*terminoaren estatusa dauka*", zehaztu gabe, ordea, zein diren *estatus* horren agerkariak.

### 2.3.3.3.- Terminoa ezagutzeko eta mugatzeko irizpide praktiko batzuk

Definizio zehatza ematen saiatuta ere, nekez lor daiteke lan terminologiko praktikorako lanabes erabilgarriak. Baina hainbat lan terminologiko, eta bereziki terminografikotarako, beharrezkoa da sintagma-terminoak zein diren, eta non bukatzen diren jakin ahal izateko irizpideak lantzea. Gai honi heldu izan diote terminologiaz arduratu diren autore gehienek.

Rondeauk (1984:79-80) bi irizpide nagusi ematen ditu: bata semantikoa, igarriezintasunean oinarritua, bestea, dokumentarioa, alegia, autore ezagunek termino hori erabili izana; horiez gain, beste irizpide osagarriak proposatzen ditu sintagma terminologikoa zein den eta zer mugak dituen zehazteko.

Dubucentzat (1992:42-45) eta Reyrentzat (1992:95) berriz, mugakizun-mugatzaile oposizioaren nolakotasunean dago irizpide nagusia. Dubucen aburuz mugakizun baten mugatzaile funtsezkoak terminoaren osagai izango dira, baina ez akzidentalak. Mugakizunaren eta mugatzailearen arteko kohesioaren neurgarri bezala proposatzen ditu gainerako irizpideak.

Cabrék (1992:284-287) egiaztabide multzo bat<sup>44</sup> proposatzen du sintagma terminologiko izan daitekeen zerbaiten aurrean, termino bakarra edo terminoen konbinazioa den bereizteko. Dioenez, irizpide horietako batzuek, termino izan daitekeen konbinazio lexiko bati aplikaturik, lagun baitezaiokete terminologoari erabakitzen baden edo ez den unitate terminologikoa. Cabrék ere zuhur jokutzen du linguistikoak ez diren irizpideekin: erabateko lexikalizazioa aditzera ematen duten egiaztabideak erabateko frogaren bitartean, gainerakoei zantzu balioa besterik ez baitie ematen.

Kocourek (1992:150-151) bestelako abiapuntua hartzen du: txekiarrarentzat, terminologian, lexikalizazio-irizpide nagusia da analizatzen den sintagma definizio espezializatu bat edukitzea. Hortik abiatuta, hots, espezialitateko testuetan definizioa aurkitu ondoren, lexikalizazio maila zenbatekoa den zehazteko honako ezaugarri hauek aztertuko dira:

- *sintagmaren posizioa serie sinonimikoan, eta sistema terminologikoan*
- *haren egitura sintaktiko lineal eta hierarkikoa*
- *haren erabiltze-erosotasuna ('maniabilité syntagmatique')*
- *haren igarriezintasun semantikoa*
- *haren errekurrentzia, testuetan frogatua, eta azkenik*
- *sintagmaren kohesio sintaktikoa.*

Gure ustez, Kocouren formulazioa da interesgarriena eta praktikoa, bereziki terminologiaz ari garenez, terminologiaren ikuspegitik definizioa dela oinarritzko abiapuntua ezartzen duelako.

---

<sup>44</sup> --el fet que un conjunt s'organitzi lèxicament a l'entorn d'una base única  
 --la impossibilitat d'inserir altres elemnts lingüístics a l'interior del sintagma terminològic  
 --el fet de no poder complementar separadament cap de les parts del conjunt  
 --el fet de poder substituir el conjunt per un sinònim  
 --el fet de posseir un antònim en la mateixa especialitat  
 --la freqüència d'aparició del mateix sintagma terminològic en els textos d'una determinada especialitat  
 --el fet que en altres llengües el sintagma en qüestió sigui una sola unitat lexemàtica  
 --el fet que el significat del conjunt no es dedueixi del significat dels elements que el componen  
 --complementariament, la presència de determinades unitats lingüístiques a l'interior del sintagma revela ja d'entrada qu'es molt possible que aquest sintagma sigui una combinació lliure" Cabré (1992:286-287)



### 2.3.3.4.- Aurkitzen ez diren klase gramatikalak

Aurreko puntuan ikusi dugun bezala, aztergai dugun sintagma bat terminotzat eman ote daitekeen erabakitzeko hainbat eratako irizpideak aplikatu behar dira. Horietako bat, denek onartua, maiz beste baten barruko azpi-irizpide bezala bada ere, formulazio negatibokoa da. Honela dio: sintagma askeetan kategoria lexiko guztiek beren tokia duten bitartean, lexikalizazioaren gai izan daitezkeen sintagma terminologikoetan ez dira agertzen hainbat klase lexiko eta hainbat forma gramatikal.

*Termino*a kategoria linguistiko bat ez denez, ezin esango dugu erabateko debekurik dagoenik, baina bai, Cabrék (1992:287) dioen bezala, sintagma baten barruan klase jakin batzuk aurkituz gero, sintagma ez-terminologiko baten aurrean egoteko aukera asko dugu.

Kategoria lexiko horiek zein diren galderari erantzunez Cabrék dio (1992:287) izenordainak eta juntagailuak, bereziki aurkaritzakoak, direla eta Kocourek (1992:139), hizkuntza frantsesaz ari delarik, honako hau idazten du:

*“On ne trouve que rarement des conjonctions ou des articles médiaux (intérieurs), on ne trouve pas de déterminants médiaux que les articles définis, peu fréquents. Il n'y a pas de pronoms, pas de verbes auxiliaires, pas de propositions enchassés (avec des formes verbales à mode personnel)”.*

Beste hurbilpen mota da Drouinek (1997:51) egiten duena termino ez direnak, edo ezin izan direnak, deskribatzen ditu, eta hortik ateratako erregela multzo baten bidez<sup>45</sup> iragazten ditu termino-gaiak.

Jakina, aztertu ditugun formulazio guztiak hizkuntza erromantzeetan oinarrituak izanik, oso tentuz ibili beharko dugu debeku horiek euskarara aplikatzerakoan, baina edozein modutan, beharrezko zuzenketak eginik, kontuan hartzekoak dira balio terminologikoko euskal segmentuak aztertzerakoan.

### 2.3.3.5.- Sintagma terminologikoen egitura usuenak

Zalantzazko hitz-segida baten aurrean, zein den termino eta zein ez erabakitzen lagun diezaguketenak gaingiroki erreparatu ondoren, ikus dezagun, gai hau berariaz lantzen duten autore gutxi batzuen artean zer esaten den sintagma terminologikoen egitura ohikoenez. Hizkuntza bakoitzaren sintaxi egiturei loturiko gaia izaki —argitu behar da hemen dioguna hizkuntza

<sup>45</sup>Horretarako, eta oharraziaz murriztapen orokorrak direla, eta salbuespenak posible direla, honako debeku hauek formulatzen ditu frantsesarentzat: 1. *Un pronom ne peut faire partie d'un terme complexe (t.c.)*.2. *Une préposition ne peut débiter ou terminer un t.c.*3. *un article ne peut débiter ou terminer un t.c.*4. *une conjonction ne peut débiter ou terminer un t.c.*5. *un adverbe ne peut débiter ou terminer un t.c.*6. *un verbe conjugué ne peut faire partie d'un t.c.*

erromantze batzuetara eta ingelesera mugatzen dela—, azkenean euskarari buruzko ohar batzuk ere sartu baditugu ere. Bestalde, terminologiaz oro har aritzen direnak soilik ikusiko ditugu hemen; zuzenbideko terminologian, bereziki lan terminografikoetan, gertatzen dena III. kapituluan landuko baitugu.

Kocourek (1991: 138-139) frantsesari buruz ari dela, lerro gutxi batzuk eskaintzen dizkio puntu honi, sintagma lexikalak (terminologikoak) ekoizteko formula emankorrenak eta posibleak ondokoak direla esanez:

<b>Egitura emankorrenak</b>	<b>Beste egitura posibleak</b>
iz + adj,	adj + iz
iz + prep + iz	iz + iz
iz + adj + adj,	num + iz
iz + adj+ prep+ iz	iz + prep + iz + adj

**1. taula: Egitura terminologiko konplexuak Kocourek arabera**

Drouinek (1997:49-50), frantsesezko terminoen hustuketa automatikorako metodologia bat aurkezten duen artikulu batean, honela zerrendatzen ditu hizkuntza horretako termino konplexuak osatzeko behar diren matrizeak:

<b>Egiturak</b>	<b>Adibideak</b>
iz + adj:	carte topographique
.iz + iz	arpenteur géomètre
iz + prep + iz	centre de recherche en géomatique
iz + prep +det + iz	système d'information sur le territoire
iz + de + iz	base de données à référence spatiale
iz + prep+ Ad inf	table à numériser

**2. taula: Egitura terminologiko konplexuak Drouinen arabera**

Kocourek proposatutakoaren antz izugarri handia duten egitura horiek Drouinen lanean terminoaren matrize orokorrak dira, eta modu errekurtsiboan aplikatu behar izaten dira terminoaren osagarri guztien berri emateko.

Euskaraz ere, badagu lan deskribatzailearen bat egin puntu honi buruz. Perez Gazteluk (1995:1165-1181) Mitxelenaren testuak aztertzen dituelarik haren lexikogintza espezializatuaren nondik norakoak ikertzerakoan sintaxi baliabideei eskaintzen die kapitulu bat. Egileak *hedadurazko egiturak* deitzen dituen horiek, sintagma terminologikoak dira, eta hau da, guk dakigularik, berezitasunezko izendapen sintagmatikoetan agertzen diren egituren berri ematen duen lehenengo lana. Hona Perez Gazteluren sailkapena.

A. Eskuinerazko hedapena

A.1. izena + adjektiboa

A.2. izena + izenondoa(k) *adiera berezi*

A.3. izena + izenlaguna *bokale gorako*

B. Ezkerreranzako hedapena

## B.1. izenlaguna + izena

Izlg(ko) + iz+ iznd (ak) *ageriko adierazle*Izlg(ren) + (Izlg) + iz + (iznd) *aditz esaldiaren osagarri*izen-multzoa + -ren + iz *perpau bakunaren transformazio*izenordaina + -ren + izena *elkarren kide*

## C. Izen bereziak

D. Nominalizazioak *ezker aldera destokitze*

## E. Perpauak. Erlatibozko perpauak

## F. Aditzaren inguruko egiturak

Interes berezia dauka gure lanerako sailkapen honek, euskararen tipologia dela eta, inguruko hizkuntzetan ez bezalako egiturak agertzen direla erakusten digulako.

## 2.3.3.6.- Luzera eta erabiltzeko erosotasuna

Terminoen forma linguistikoa sintagmarena izan daitekeela guztiz onartuta egoteak ez du esan nahi edozein egitura eta luzeratako izen-sintagmak termino izan daitezkeenik.

Termino sintagmatikoen egitura sintaktikoez ari dela, Drouinek oharrarazten du egitura horiek errekurtsiboak izaten direla. Horrela 1. eta 3. matrizek konbinatuz, *iz+adj + prep + iz* ‘*modèle numerique de terrain*’ bezalakoak lortzen dira, eta eduki dezakegu matrize baliagarri bezala ondokoa: *iz + de + iz + de + iz + de + iz + de + iz + prep + iz + adj*. Baina hiztegi terminologikoetan sarrera moduan onartzen direnak sintagma lexikalizatuak baino luzeagoak izaten badira ere, luzera ez da mugagabea.

Mugak ez dira linguistikoak, pragmatikoak baizik. Termino “idealaren” ezaugarrietako bat beti izan da laburtasuna, eta baita Kocourek (1991:140) ‘erabiltze-erosotasuna’ (*‘maniabilité syntagmatique’, ‘text worthiness’*) irizpidea deitzen duena ere. Gainera, autore beraren behaketen arabera hainbat hizkuntzatako terminoetan hitzen ehunekoak eta produktibitatea antzekoak dira. Horren aldera aipatzen du Ischreyt Heinz-ek 1965an egindako inkesta estatistiko<sup>46</sup> baten emaitza non alemanarentzat, berak, Kocourek, frantsesarentzat ateratako hitz kopuruaren antzekoa ematen baitu: %12/15 termino elementu bakarrekoak; %65/52 bi hitzekoak, %24/28 hirukoak eta %8/6 lau eta gehiagokoak.

<sup>46</sup> *Studien zum Verhältnis von Sprache und Technik*, Düsseldorf: Schwamm

### 3.- TERMINO-SORKUNTZA

#### 3.1.- Termino-sorkuntzaren hainbat alderdi

Terminoen sorkuntza hainbat alderdi desberdinetatik begiets daiteke. Terminologia klasikoak —izendapenari buruz dioena aztertzerakoan ikusten genuenez— esaten digu adigaitik abiatu behar dela, adigai-sistema eraiki behar dela, eta nolako baldintzak eta ezugarriak behar dituen izendapen terminologikoak edo terminoak.

Horri buruz, Sager-ekin (1990:6) gogoratuko dugu terminoek, hitz arruntek ez bezala, jatorria, jaioteguna eta beste hainbat datu ezagun izaten dutela, izan ere, terminoak maiz sortze-prozesu gutxiago edo gehiago oharuaren fruitu izan ohi dira. Hori ez da, hain segur, kasu guztietan gertatzen, ez eta neurri berean arlo guztietan. Oso ezagunak dira, esate baterako botanikaren edo kimikaren kasuak, zeinen taxonomiak eta nomenklaturak aldeztetik planifikatutako printzipio eta arau batzuen bidez osatzen baitira. Baina diziplina gehienetan horrelakorik ez da gertatzen; are gutxiago arlo sozial edo juridikoan.

Beste ikuspegi bat izan daiteke pragmatikarena, eta zehazkiago, soziolinguistikarena. Ondorengo puntu batean ukituko dugu hizkuntzaren egoeraren arabera gertatzen diren terminologia-sorkuntzaren aurreko egoera desberdinak, egoera horien aurreko jarrerak eta politikak.

Ondoko lerroetan, termino-sorkuntzaren beste alderdi bat, linguistikoagoa, jorratuko dugu. Hurrengo puntuaren gaia izango da aztertzea terminoak edo unitate terminologikoak sortzeko erabiltzen diren tresna edo baliabide linguistikoak, hau da morfologikoak, sintaktikoak edo semantikoak.

#### 3.2.- Termino-sorkuntzaren alderdi linguistikoak

Termino-sorkuntza, hizkuntza natural bakoitzeko kontua izanik, hizkuntza horrek eskaintzen dituen bidez baliatzen da, hau da, hizkuntza bakoitzean lexikoaren berrikuntzarako dauden baliabide berak erabiltzen ditu. Horrek esan nahi du baliabide bakoitzaren emankortasuna eta mugak hizkuntza batetik bestera aldatu, eta erabat aldatu ere, egiten direla.

Aztertu ditugun autore gehienek azpimarratzen dute termino sorkuntzak hizkuntza naturalaren baliabideekiko duen mendetasuna, baina ia salbuespenik gabe bakoitzak bere hizkuntzako baliabideak azaltzen ditu unibertsalak balira bezala.

Esate baterako, terminologia klasikoaren ordezkari fidagarritzat eman daitezkeen Arntz eta Picht-en (1995:147) edo Felber eta Picht-en (1984:218) liburuetan, seitan banatzen dira terminoak osatzeko moduak:

- *Terminologizazioa (formaren aldaketarik gabe)*
- *Era askotako konposizioak*
- *Eratorkpena*
- *Hitzaren kategoria gramatikaren aldaketa: konbertsioa*
- *Mailegutza*
- *Laburtzapena*

Rondeauk (1984:19-20), bere aldetik, terminoak hitz arruntetatik bereizten dituen ezaugarrietako bat osatze-modua dela esanik, hiru hauek aipatzen ditu: hizkuntza orokorreko hitz baten espezializazioa, sorkuntza neologikoa (neonimikoa) eta forma perifrastiko edo sintagmatikoetara jotzea. Egia esan, ez dugu ikusten zertan datzan osatze-modu horien berezitasuna, ez bada hor aipatzen ez diren alderdi preskriptiboetan.

Kontuan hartzekoak dira Kocourek (1991-16)<sup>47</sup> edo Halaoui (1993)<sup>48</sup> edo Pozzi (1992:77-81)<sup>49</sup> proposatutako terminoak osatzeko bideen sailkapenak, baina sistematikoagoa iruditzen zaigu Sager et al.-ek (1980: 251-290<sup>50</sup> eta Sager-ek (1990:71) proposatzen duten sailkapena, zeinetan lehen irizpidetzat hartzen baita baliabideak hizkuntzan lehendik egotea edo ez egotea.

Baina hizkuntz baliabideei dagokiari, osoagoa eta esplikatioagoa iruditzen zaigu Cabrék (1992:174-177) dakarrena. Eratze-moduari dagokionez, eta alde batera utzita hizkuntza batetik kanpoko elementuak etxeratzen diren kasuak (mailegutza eta kalkoan bezala), terminoak osatzeko erabiltzen diren baliabideen arabera honelako sailkapena proposatzen du irakasle katalanak:

- Baliabide formalak jokoan jartzen direnean: eratorpena, elkarketa, sintagmazioa, trunkatzea (*truncació*).
- Forma ukitu gabe, hizkuntz baliabide funtzional hutsak direnean, esate baterako, hitz baten kategoria gramatikala aldatzea edo lexema baten flexio-forma bat finkatu-lexikalitzen denean (adib. *el saber*)

<sup>47</sup>Terminoak frantsesez osatzeko moduak dira: "(...) *dénomination simple, dérivation, comfixation (formation savante), composition, lexicalisation (formation syntagmatique), emprunt, abréviation et emploi figuré des termes*". (Kocourek, 1991:106)

<sup>48</sup>"(...) *composition, derivation, mixation, conglomeration, syntagmation*." Halaoui (1993):

<sup>49</sup>"1: *extension of meaning of an existing term or word to include a new concept, 2: various forms of modification of existing terms: compounding or derivation 3: creation of neologisms*" Pozzi (1992:77-81)

<sup>50</sup>"1. *Lehendik zeuden izendapenak erabiliaz: 1.1. Polisemia; 1.2. Redefinizioa. 2. Lehendik zeuden izendapenak aldaraziaz: 2.1. Hizki bidea edo afixazioa. 2.2. "Backformation". 2.3. Konposizioa. 2.4. Konbertsioa. 2.5. Konpresioa. 3. Baliabide berriak erabiliaz: 3.1. Neologismoak. 3.2. Mailegutza". Sager et al. (1980:251-290)*

- Baliabide semantiko hutsak direnean, hau da, aldaketa, ez formari ez funtzioari eragin gabe, esanahiari dagokionean. Sail honen barruan beste bi irizpide erabil daitezke: a) nondik hartzen den semantikoki aldatzen den unitatea: hizkuntza orokorretik, edo beste LSP batetik eta b) nolakoa den eragiten den esanahiaren aldaketa: zabalkuntza, murrizketa, adierazi-aldaketa...

Baina termino-sorkuntzako baliabideak eta lexiko orokorraren sorkuntzakoak berak izateak ez du esan nahi berdin eta neurri berebean erabiltzen direnik. Salbuespentzat jo daitezkeen baliabideak aurkitzen ditugu, arlo batzuetan bereziki; esate baterako kimikako nomenklatura oso formalizatueta agertzen diren eratorpen-hizki bereziak. Eta beste aldetik, baliabide batzuen eta besteen erabilera-maiztasunak estatistikoki oso markatuak izaten dira terminologiaren arlo batzuetan. Horietan aipatuena da grekotikako eta latinetikako osagaien erabilera medikuntzako, biologiako eta beste arlo batzuetako hizkera berezietako terminologian<sup>51</sup>. Jakina denez, horrelakoak ez dira ugariak giza eta gizarte-zientzietan oro har.

### 3.3.- Neologia eta neonimia

‘Neologia’ hitza hainbat adieratan erabili izan da hizkuntzaren diziplinetan. Etimologiatik abiatuaz, *neologia*, hizkuntzako edozein elementu berri izan daiteke, eta ondorioz, elementu berri horietaz arduratzen den gaia. Baina gehiagotan, eta batez ere gaurko egunean, neologia lexikoaz aritzeko erabiltzen da *neologia* hitz hutsa. Zentzu honetan, *neologia* lexikoa mota guztietako unitate lexikoei buruz predikatzen den zera da, hala forma bakunei, nola konplexuei, nola sintagmatikoei.

Lexikologoen azpimarratu izan duten bezala (Cabré 1992:427) neologia, prozesu den heinean argia eta eztaba daezina bada ere, ez da batere erraza unitate bat neologikotzat eman daitekeen ziurtatzea. Irakasle kataluniarrak dioenez, hainbat parametro proposatu izan dira unitate lexikoen neologikotasuna zehazteko. Horien artean erabilienak, diakronia, alegia elementu hori noiz sortu den zehaztea; lexikografia, hau da, hiztegietan ez azaltzeak neologia dela adieraziko luke; ezegonkortasun sistematikoa, hizkuntzan bere “tokia” egin ez izanaren seinale izango litzateke, eta azkenik, psikolinguistikak erakutsiko luke hitzunik berriztat ematen duten unitatea neologikoa dela.

Parametro horiek, batera erabili badaitezke ere, ezin dute erabateko garantiarik eskaini, eta ez dira modu berean erabilgarriak hizkuntza guztietan, ez neologia mota guztietan. Argi dago, esate baterako lexikografiaren parametroak zerikusi handia duela hizkuntzaren estatus soziologikoarekin eta hizkuntzari

---

<sup>51</sup>Ikus bereziki Guilbert (1975: 224-240)

buruzko deskribapen-lanen mailarekin. Euskararen kasuan, esate baterako oraintsu arte guztiz bideraezina zen irizpide hori lan lexikografikoen eskasia zela-eta. Egun ere, hainbat kasutan oso murrizta izan daiteke bide horren emaitza.

Sorkuntza terminologikoaren alderdi linguistikoak aztertzen genituelarik, (supra II.3.2.) ikusten genuen sortze-modu gehienak azken finean neologia prozesuen deskribapenak besterik ez direla. Hortaz, neonimia, hizkuntzaren ikuspegitik, neologiaren kasu partikular bat besterik ez da, zeinetan, Cabrék (1992:429) dioen bezala, neonimoek, terminoen ezaugarriak bete beharko baitituzte.

Desberdintasuna, beraz, pragmatikoa da beste ezer baino gehiago: hizkuntzetako neologia ‘berez’ gertatzen den fenomeno den bitartean, neonimia, jarduera kontzientea, planifikatua eta sistematikoa izatea nahi du terminologiak, teoriarik bederen. Baina horrek, Cabrék ohartarazten duenez, ez du neologia lexiko orokorraren eta neonimiaren arteko bereizkuntzarik ziurtatzen errealitatean, terminoaren eta hitz arruntaren arteko bereizkuntza maiz lausoa den modu berean.

### 3.4.-Termino-sorkuntzaren alderdi soziolinguistiko batzuk

#### 3.4.1.- Termino-sorkuntza jatorrizkoa eta deribatua

Terminologiaren sorkuntzari eta ezarkuntzari dagokionez, garrantzizkoa da bereiztea jatorrizko sorkuntza eta sorkuntza deribatuaren artean, ‘*néonymie d’origine*’ eta ‘*néonymie d’appoint*’, Rondeaturen (1984:124) hitzetan, edo ‘*primary and secondary term formation*’ Sager-enetan (1990:80).

Terminoaren sorkuntza primarioa edo jatorrizkoa izango da izendatu behar den adigai sortzen den hizkuntzan egiten dena, alegia, adigai berri bat dagoela somatzen deneantxe egiten dena, edo ondoren, hizkuntza beretik atera gabe modu arautuagoan egiten dena.

Gaurko egunean ezagutzak herrialde batetik bestera, hizkuntza batetik bestera nola isurtzen diren kontuan hartuta, berehala izaten da adigai berriaren berri, eta bigarren hizkuntzan adigai hori izendatzeko beharra. Bigarren hizkuntzan gertatutako sortze-prozesua deribatua edo sekundarioa dela esango dugu.

Begibistakoa da deskribatutako prozesu horrek ez duela azaltzen kasu konkretuen aberastasun eta konplexutasun itzela, eta ez duela ukatzen gerta daitekeela bi hizkuntza desberdinetan gutxi gora behera une berean adigai bera sortzea. Dena den, biko sailkapen sinplea ere hainbat alderdi argitzeko baliagarri izango zaigulakoan, begira dezagun nola deskribatzen dituzten autore batzuek termino-sorkuntzako bi mota horiek.

Sager-en (1990:80) ustez hala motibazioak nola eraginak desberdinak dira bietan. Oinarrizko diferentzia da primarioan aurrekari linguistikorik ez dagoela, —nahiz eta egon daitezkeen terminogintzarako arau zehatzak— eta sekundarioan, berriz, beste hizkuntza batean izendatutakoari izena eman behar zaiola. Honela, sekundarioan, beti dago aurretik sortutako terminoa, bere motibazio propioarekin eta ondorioz, sortu beharreko terminoak, nolabait zuritu, justifikatu beharra. Ia ezinbestean, dio Sager-ek, justifikazio horretan sartu ohi da jadanik beste hizkuntzan existitzen diren terminoen formarekiko erreferentzia.

Hari beretik Diki Kidiri et al.-ek (1981:11-12) diotenez, atzerrian sortutako terminoak nolabait harrapatuta dauka bigarren datorren termino-sortzailea halako ‘espetxe psikologikoan’ zeinetatik oso zaila den itzuri egitea. Izan ere, aurretik sortutako terminoaren baliokidea bilatzeko saioek gehienetan, itzulpen hutsa, kalkoa, gehienetan kaskarra, lortzen dute-eta.

Oso adierazgarri iruditu zaigu Lelubre-k (1997:221,222) arabierazko fisikako terminologiari buruzko ikerketa baten ondorioz dioena. Egiaztatu ahal izan duenez, teorian bi bide zabalik baldin badaude ere —B hizkuntzan izendapen zuzenak bilatzea, edo A hizkuntzatiko izendapenak nolabait egokitzea (kalkoaren edo maileguen bidez, esate baterako)— kasu gehienetan, arabierak bigarrena aukeratzen du, hizkuntza horren ahalbideak frantsesaren edo ingelesaren mende jarriaz.

### 3.4.2.- Munduko hizkuntzen estatus erlatiboa termino-sorkuntzaren aurrean

Terminoak, jatorrizko sorkuntzaren kasuan bederen, banan bana sortzen direnez, termino bakoitzaren sortze-modu jatorrizko edo deribatuz hitz egin beharko balitzateke ere, askoz interesgarriagoa da aztertzea zein den hizkuntza bakoitzaren estatusa terminogintzan, edo bederen arlo bateko edo besteko terminogintzan. Zentzu horretan, ukaezina iruditzen zaigu ondoko aipuan Rey irakasleak egiten duen bereizkuntza:

*"C'est un fait évident que les procédés d'établissement des terminologies sont très variables selon le statut des langues, ce statut étant fonction des activités qui s'exercent par chacune d'elles. Il y a des langues qui ont un statut qu'on pourrait appeler de 'createur', comme c'est le cas notamment de l'anglais, l'allemand, le français, le russe ou l'espagnol, qui ont assumé historiquement une activité constitutive de terminologie."*  
Rey (1992:65)

Soziolinguistikaren eta terminologiaren arteko harremanak ez dute interes handirik piztu terminologia-korronte batzuen artean, bereziki kontzeptuaren eta terminoaren arteko erlazioa modu arrazionalista-idealista batean ulertzen zuten Wüster-zaleen artean, baina hala teoriaren garapenak nola, batez ere, praktika terminologikoak, erakutsi dute guztizko eragina dutela estatus-arazo horiek,



terminologiak zeharo baldintzatu arte. Izan ere, terminologiako bigarren eskola nagusia (Rey: 1995a5:87), Québec-en izan duena gunea nagusia, oso gertutik aritu da jarraitzen eta jasotzen soziolinguistikaren ekarpenak.

Hizkuntzak ikuspegi horretatik sailkatzerakoan Sager-ek (1990:82) bi irizpideren arabera sailkatzen ditu: garapen industrial handiko hizkuntz komunitateak, eta garapen txikiagokoak alde batetik, eta indoeuroparrak eta gainerakoak bestetik. Dena den, badirudi zaku berean sartzen dituela garatuak eta indoeuroparrak.<sup>52</sup>

Cabré-k (1992: 438 eta hurr.) ere, oso antzera banatzen ditu munduko hizkuntzak, baina zehaztasun interesgarriak ematen ditu. Alde batetik biziki industrializatutako gizarteak, eta industrializazio-fasean daudenak bereizten ditu. Lehenengoetan, Cabréren hitzetan, berez duten bitalitate sortzaileak ziurtatzen du jarraitasun linguistikoa; baina, etengabe teknika, zientzia eta teknologia inportatu behar duen gizarteak, besteak sortutako jakintzak jasotzen dituenak, halabeharrez kontrolatu beharko du maileguen uholdea. Eta, gizartearen teknologi garapenari dagokion parametro horrez gainera, praktikan bereizi behar dira indoeuropar familiako hizkuntzak, erreferentzia zehatzak aurkitzen baitituzte familia horretako hizkuntza garatuenetan: frantsesa, ingelesa, alemana, bertan eredu har dezaketelarik, eta beste hizkuntz familietakoak, —adibide gisa euskara, hebreera eta japoniera ematen ditu—, eredu horietatik oso urrun daudenak eta beste jokabideak asmatu behar dituztenak.

Gure ustez, Cabré bera ados izango litzateke berak aipatzen dituen indoeuropar familia bezalako kategoriak zabalegiak direla onartzerakoan, izan ere, ematen dituen adibideek erakusten baitute indoeuroparren artean oso azpimultzo zehatzez ari dela: hizkuntza erromantze nagusiak, germanikoak eta ingelesa, arazorik gabe, gure ustez hizkuntza eslabo nagusietara ere zabal zitekeena, baina, balio askorik izango ez duena Asiako hizkuntza indoeuroparrentzat edota herrialde teknologikoki oso garatukoa eta hizkuntza indoeuroparra den galeserarentzat, esate baterako.

Beste batzuek, hala nola Reyk (92:65), goragoko aipuan esan dugun bezala, asko murrizten dute terminologiaren sortzaileen multzoa: inglesesa, frantsesa, errusiera eta espainiera dira, haren ustez, historian zehar, '*terminologia-sortzaileak*'.

---

<sup>52</sup>Europako hizkuntz komunitate nagusiak deskribatzen ditu esanaz badutela gaitasun nahikoa hizkera eta adierazpide-teknika guztiak garatzeko, eta nahiz eta aldi baterako maileguz hartu beste hizkuntzetan sortutako terminoak, gehiegi luzatu gabe moldatzen direla termino horiek bere hizkuntzako materialez ordezkatzeko, eta terminologia autonomoak eraikitzeke; hizkuntza horietan, edozein arlotako terminologia duten testuak, teknikoak zein irakaskuntzakoak ekoizten dira.

Hala ere, zenbait arlotan esan genezake gauzak zeharo aldatzen ari direla, eta dakigunez, norabide bakar batean: hizkuntza sortzaileen kopurua murriztea, bakarra, ingelesa, utzi arte, eta beste guztiak, ondorioz, terminologia-sorkuntza deribatura behartzea.

Sager-enera (1990:82) itzuliaz, haren iritziz, Europako hizkuntz komunitate nagusiek ez dute arriskurik beste hizkuntzetako terminologiaren mende geratzeko. Hizkuntza horiek mundu mailan egoera pribilegiatuan daudela aitorturik, uste dugu badirela hainbat datu hizkuntza horien ahalmena, praktikan, zalantzan hasten jartzeko. Esate baterako, aztertzen bada zer ari den gertatzen azken urte hauetan nederladera bezalako hizkuntza itxuraz garatu eta ahaltsuekin. Izan ere, Wijnandsek (1994:370) edo Methorstek (1992-1993) kontatzen dutenez, teknologiaren arlo handietan ez da inolako ahaleginik egiten ingelesaren menpekotasunetik ateratzeko, eta gauzak hain urruti joan dira non hala Herbeheretako nola Flandriako teknologiek ingelesez funtzionatzen duten. Datu horiek egiaztatze modurik ez badugu ere, badirudi nahiko sinesgarriak direla, eta ez dela hizkuntza horretako gertakari berezia, baizik eta oso zabaldua, bereziki Ipar Europako herrialde aberatsetan. Felber-ek (1985:275) dioenez Danimarka, Norvegia<sup>53</sup> eta beste herrialdeetan eztabaidak daude ea ez ote den komeni ingelesezko terminologia, ingelesa esan nahi baita, onartzea hainbat arlotan.

Fenomeno hori hizkuntza handienetara iristen dela ohartzeko, ikusi besterik ez dago zenbat ahalegin egin behar izaten diren frantsesa ingelesaren “kutsaduratik” babesteko, edota nola informatikaren munduan hizkuntza alemana<sup>54</sup> ia erabat egoera sekundarioan dagoen. Frantsesari buruz, hainbat hizkuntzako neologiaz eta terminologia-sorkuntzaz idatzi duen Diki-Kidiriri

---

<sup>53</sup> Norabide orokorra bakarra dela dirudien arren, bestelakoak ere ugari dira. Norvegian, hain zuzen, Rangnes-ek (1995:891) dioenez, terminologiaren arlo batzuetan ingelesetik norvegierarako bidea egiten ari da azken urteotan. Zentzu berean, ikus Nazioarteko Terminologia Biltzarrean Johan Myking-ek (1997:227-248) emandako hitzaldia Norvegiako eta Ipar Herrialdeetako terminologiaren estandarizazioaz eta plangintzaz. Bereziki interesgarria da Islandia bezalako herrialde eta hizkuntza txiki batean egiten den ahalegina, eta lortzen ari diren arrakasta bertako terminologia sortzeko eta benetan erabilia izan dadin.

<sup>54</sup> Ikus, esate baterako informatikako terminologia dela eta aleman hizkuntzari buruz O'Murchu-k (1993:38) zioena: *"A recent publication of standardisation of computer terms in German was found to be overwhelmingly based on terms in English generated in the computer heartland of Silicon Valley in California, USA.."*, edo eta zehazkiago, internet inguruan sortu berri den terminologia ia osoarekin mendebaleko munduko hizkuntzetan gertatzen dena Mas i Fossas-en (1997:604) artikuluan.

(Diki-Kidiri et al.<sup>55</sup> (1981:11-12) sinesten badiogu, frantsesezko terminogintza, gehienetan, beste hizkuntzetan sortatutako terminoaren baliokidea bilatzeko jarduna da. Puntu horretan zehazten ez badu ere, dudarik ez dago ingelesa dela jatorrizko hizkuntza. Orain dela 20 urte horrela bazen, joera hori areagotu eta azkartu egin da, zalantzarik gabe (Rey, 1992:65).

### 3.4.3.- Arazoak, aukerak eta jarrerak

Sinplekeriatan erortzeko arriskua hartzen badugu ere, uste dugu I. kapituluko 5.2.2. atalaren haritik, marra daitezkeela munduko hizkuntzetan<sup>56</sup> gertatzen diren egoera nagusiak, eta egoera horien aurrean hartutako jarrerak terminogintzari dagozkionez.

Mundu anglo-amerikarraren nagusitasunaren ondorio zientifiko, teknologiko eta kulturalaren eraginez, terminologiaren sortzaile izan daitezkeen giza taldeetan aski modu orokorrean onartzen da goi mailako ikerkuntzari buruzko testuak ingelesez argitaratzen eta zabaltzen direla, eta norberaren hizkuntzak ez duela tokirik maila horretan.

Horrek esan nahiko luke, onartuta dagoela, erabilera horretarako *‘lingua franca’*ren estatusa ingelesarentzako, edo beste modura esanda, beste hizkuntza guztiak egoera “diglosikoan” daudela, “L” (“Low”) hizkuntzak direla “H” “High” bakarra den ingelesaren aurrean.

Horrek ez dakar, nahitaez, maila horretako terminologiarik ez sortzea beste hizkuntzetan, bai, ordea, sorkuntza, dagoenean, jatorrizkoa ez izatea, eta deribatua izatearen baldintzapen guztiak jasatea. Esate baterako *‘banalizazioa’* gertatzen denean, hau da, zientziaren goi-mailan erabiltzeko sortutako terminoa espezializazio gutxiagoko hizkeran edo hizkera arruntean erabiltzen denean, maiz jatorrizko hizkuntzako terminoaren forma linguistikoak eragin handia izaten du sortutako berrian.

---

<sup>55</sup> “*La plupart du temps, la personne qui s’efforce de créer un terme français part d’une expression en langue étrangère et tente de lui trouver un équivalent, Ce procédé aboutit le plus souvent à une pure et simple traduction, à un calque et est presque toujours médiocre. L’explication de ce phénomène est simple; le terme d’origine étrangère enferme en quelque sorte le «néologue» dans une sorte de prison psychologique dont il a la plus grande peine à sortir.*” Diki-Kidiri et al (1981:11-12).

<sup>56</sup> Aitortu behar dugu oso gutxi dakigula Ekialde Urrunean gertatzen denari buruz, bereziki, mende luzeetan zehar kultur eta hizkuntz esportatzaile izan den Txinan, eta txineran. Izan ere hizkuntza horrek, inguruko beste hizkuntza handien (japoniera edo koreera bereziki) alderantziz, ez du ia batere garatu beste hizkuntzetatik hizkuntz elementuak (lexikoak edo bestelakoak) hartzeko gaitasuna, eta ingelesarekiko distantzia linguistikoak ez du batere errazten hizkuntz eragina.

Maila apalagoko zientzia eta teknologietan, egoerak are konplexuagoak dira: Europako hizkuntza ofizial, nagusi, garatu eta aberatsen artean badira hizkera berezien espazio handiak okupatzen dituztenak, frantsesa edo alemana bezala, eta praktikan ingelesaren erabilerrari toki zabala uzten diotenak, nederlandera bezala. Europako beste hizkuntzetara jotzen badugu, ofizialtasun osorik ez edo garapen-maila urria dutenak esate baterako, egoerak are ugariagoak dira: hainbat kasutan hizkuntza horiek lehendik zeukaten “L” estatusari, esan nahi baita, gizarte horietako hainbat erabilera beste hizkuntza “H” bati erreserbatuta egoteari, gehitu zaio azken hamarkada hauetan ingelesak hartu duen mundu mailako nagusitasuna eta eragina.

Gizarte berean ez bakarrik “H” eta “L” mailetako hizkuntzak, hiru maila baizik, egotea da oraingo egoera berria. Uste dugu horretara goazela euskararen kasuan, non terminologia zientifikoaren sortzaile izan daitezkeenek aho batez onartzen duten ingelesa erabiltzea goi mailako ikerkuntzaren hizkuntza gisa. Beste aldetik, ukaezina da gaztelania dela zientzia eta teknologien maila ertainetako hizkuntza.

Zer esanik ez, hizkuntza europarretatik irtenez gero, oso kasu gutxitan<sup>57</sup> aurki daiteke termino-sorkuntza jatorrizkoa puntako zientzia eta teknologietan. Baina, gainera, historiako mendetasun politikoa edota kulturala, hizkuntz egoera korapilatuak, eta beste hainbat faktore direla-eta, esan daiteke terminologia-sorkuntzarako munduko hizkuntza gehien-gehienak hamaika motatako baldintzapenak gainditu behar dituztela.

Ezer berririk ez dugu esango badiogu soziolinguistikak erabili dituen adigaiak eta sailkapenak, hala nola diglosia, “H” eta “L” hizkuntza, gehiengo-hizkuntza, gutxiengo-hizkuntza, hizkuntza minorizatu, hedapen urriko hizkuntza eta abar, une honetan baliogabeturik ez baina bai berrikusi beharrean aurkitzen direla. Eta terminologiaren globalizazioak, esan nahi baita terminologia anglo-amerikarraren hedapen eta nagusitasun mundialak beste hizkuntza guztiak mailaz jaitsiarazten dituela, haien estatusa apalduaz eta konplikatuz.

Azken garaietako bilakabidea horrela izanik ere, baliagarriak iruditzen zaigu Sager-en edo Cabréren bidetik, bi egoera nagusi hauek bereiztea. Alde batetik badaude hizkuntza batzuk historia aski luzean “egoera normala” bizi izan dutelarik, badituztenak terminologiaren sorkuntzarako mekanismo batzuk, hizkuntzaren gaineko eragin bortizik gabeak. Eta beste aldetik, badaude

---

<sup>57</sup> Gogora dezagun, salbuespen-espazio bakarra txinerarena izan daitekeela, dirudienez.

“normaltasunik gabeko hizkuntzak” zeinetan termino-sorkuntzan gertatzen denak biziki baldintzatu baitezakeen hizkuntza horren etorkizuna. Esate baterako, euskararen kasua, non, estatus sozio-juridiko berrira iritsitakoan, hainbat aukeraren artean erabakitzea tokatu zaion hizkuntz komunitateari. Terminosorkuntzak, horrelako kasuetan esan nahi du terminologia-arlo osoak ia hutsetik osatu behar direla, hots, lexikoaren atal handietan aldakuntza sakonak eragiten direla.

Hizkuntza bakoitzaren kasua, bere historiaren, tipologiaren, hiztun kopuruaren, egoera soziolinguistikoaren, erabileraren eta beste hainbat parametroren arabera desberdina izanik, hizkuntz komunitateek (edo hizkuntz agintariek) horrelako egoeren aurrean hartzen dituzten jarrerak, jarrera horien ondoriozko politikak eta politiken emaitzak, ugariak bezain konplexuak dira; baita ikerlan eta liburu asko eta mamitsuen gai ere, baina bizpahiru zertzelada besterik ez ditugu hona ekarri nahi.

Lehenengo konstatazioa da era guztietako jarrerak posible direla, eta praktikan gertatu ere, gertatzen direla. Normalean, agintari administratibo edo akademikoen aldetik ez badago esku-hartzearen aldeko jarrerarik, hizkuntza propioak espezialitateko erabileretako espazio asko bete gabe utziko ditu, beste hizkuntzen mesedetan.

Hizkuntz politika badagoenean, hizkuntzari esleitzen zaizkion helburu politiko-kulturalek aginduko dute politika terminologikoa.

Hainbat kasutan, gizartearen modernizazioaren bidea erraztearren, beste hizkuntzetan osatutako terminologiak inportatu eta egokitzeari eman izan zaio lehentasuna (Antia, 1995:934). Beste batzuetan bertako hizkuntzaren baliabideez ahalik eta neurri handienean osatutako terminologiak sortzea izan da helburu. Kasu askotan arlo batzuetan bide bat jarraitu da eta besteetan desberdina.

Ikusirik hizkuntza bakoitzaren historia eta egoera bereziaren arabera gai horietan jarrerak eta jokabideak askotarikoak izan daitezkeela, eta terminogintzari dagozkion erabakiak baldintza sozio-politiko-kulturalei erabat loturik agertzen direla, egin diezaiozun begiraldi bat euskararen kasuari.

## 4.- TERMINOLOGIA EUSKARAZ. ZERTZELADA BATZUK

### 4.1.- Euskararen karakterizazioa eta egoera terminogintzari begira

Lehen kapituluan egiten dugun euskarazko testu espezializatuen katalogazio xumearen arabera, esan daiteke 1976tik aurrera hasten direla testu espezializatuak eta hiztegiak ugaltzen. Urtearen doitasuna gora behera, esan daiteke garaitsu hartan nabarmentzen direla euskararen munduan terminologia beharrak eta terminogintza.

Horrela, bada, euskarazko terminologia gehiena azken 25 urte honetan sortu da; eta sortze-modua birritan deribatua dela esan daiteke. Izan ere, gorago ikusten genituen parametroen arabera, gure gizartea ez denez sortzailea zientziako eta teknologiako arlo gehienetan, terminogintzari dagokionez, izendapenak paratu behar izaten ditugu beste beste hizkuntzetan sortutako adigaiantzat (Azkarate 1997:252). Baina, gainera, bizi dugun elebitasun bikoitzaren egoeran, gertatzen da ezaguera eta adigai berriak gure artean erruz dabiltzala espainieraz edo frantsesez, euskaraz haiek izendatzeko beharra nabaritu baino lehen. Hegoaldera mugaturik, esan daiteke euskarazko terminologia-sorkuntza espainierazkoaren ondotik, eta hartan oinarriturik egiten dela. Are gehiago euskal terminogintza, gure gizartean nahiko finkaturik dagoen erdal terminologiak okupatutako erabileremu bat kentzeko asmotan egin ohi da: euskarari erabileremu berri bat zabaltzeko, alegia.

Horren salbuespenak izan daitezke informatika arloan, eta besteren batean agian, ingelesetik zuzenean, landutako euskal terminologiak<sup>58</sup>. Baina, egoera orokorra ez da aldatzen ingelesaren nagusitasuna dela, edo hizkuntza bakarreko ereduez baliatzeak (Sarasola 1989) dakartzan arazoak direla, zenbait kasutan testu espezializatuen itzultzaileek, eta terminografian aritzen direnek, beste hizkuntzetako terminologiak ere kontuan hartzeagatik.

Eta erduei dagokiela, kontuan hartzekoa da Cabrek (1992:439) dioena, indoeuropar familiako hizkuntzei buruz. Jakina da euskarak ez duenez harreman tipologikorik familia horrekin, zailtasunak dituela haien eredu terminologikoak hurbiletik jarraitzeko. Hala ere, jakina denez, mende luzeetako auzotasunak haiengana hurbildu du euskara, hainbat alderditan, eta batez ere mailegu lexikoetarako eta kalkoetarako erraztasuna eskuratu du (Urrutia:1989). Autore batzuek, ordea, hizkuntz tipologiari buruzko datu hori, beste modu batera

---

<sup>58</sup>Langintza horretan dabiltzanek diotenez, maiz gaztelania kontuan izan gabe, eta inoiz gaztelaniaz baino lehenago, landu izan dira informatika munduko terminoak.

interpretatzen dute. Honela, Duarte (1982:120) dio euskarak, bere tipologia desberdina dela-eta, errazago itzuri egin ahal izango diola gaztelaniarekiko morrontzari terminogintzan. Ikuspegi hori ukatu gabe, orekatuagoa iruditzen zaigu azpimarratzea, Cabréren gogoetaren bidetik, euskarak ezin duela, latinaren iturritik nahi bezala edan terminologia berria sortzerakoan.

Terminologia modu arrakastatsuan garatu ahal izateko ezinbestekoa denez hizkuntzak estandarra ezarrita eta finkatua edukitzea, begira dezagun gaingiroki bada ere, nolako estandarizazio-maila duen euskarak.

Aurreko kapituluuan ondorioztatzen genuenez, 1976 urtean para daiteke euskeraren abiapuntua terminogintza modernoari dagokionez, bertan kokatu baitaiteke testu espezializatuak eta hiztegi espezializatuak ugaritzen hasten diren unea. Garaitsu hartan, euskararen estandarizazioaren lehen urrats instituzionala 1968koa izaki, estandarren oinarriak, sendoak eta atzeraezinak, 1978ko Euskaltzaindiaren Biltzarrean Mitxelenak (1978b) esaten duen bezala, baina hasierakoak bakarrik, zeuden.

Hizkuntzaren deskribapen linguistikoa oraindik nahiko atzeratuta zegoen; eta urte horietanxe egin dira urrats sendoenak. Beste arlo batzuez aparte, hizkuntzaren bide lexikogenetikoak, eratorpena, elkarketa etab. ez zeuden oraino sistematikoki aztertuak, 80 eta 90eko hamarraldietako lorpenak ezagutuak baiezta dezakegun bezala.

Lexikoari dagokionez, lexiko orokorra oraindik deskribatu gabe zegoen. Askoz geroagokoak dira, 1992tik aurrerakoak, OEH eta EESB, eta 2000. arte ez da burutzen euskara batuko hitz-zerrendaren argitarapena. Horrek esan nahi du terminologiaren garapenaren lehen urteetan lan egin dela oinarrizko lexikoa finkatu gabe zegoelarik (Zalbide 1979: 291-327).

Lexikoaz den bezanbatean, eztabaidagai nagusia maileguzko hitzen onarpenaren zer-nolakoa da, eta gai horretan ez da falta eztabaidarik. Bestalde, maileguzko hitzen egokitzapenari buruzko arauak, beste arauak bezala, urte horietan doaz moldatzen.

Lerro hauek idazten diren unean estandarizazioak aurrerabide sendoa egin duen arren, gure tesirako aukeratu dugun corpus nagusiaren abiapuntuko egoera da gehien interesatzen zaiguna.

## 4.2.- Terminogintza eta terminografia euskaraz 1976tik aurrera

### 4.2.1.- Terminologiaren produkzioa: testuak eta hiztegiak

Aurreko kapituluuan esan bezala, 1975-76 urteetatik aurrera ugaritu egiten dira euskaraz gai espezializatuak (gero eta espezializatuago) bai testuak eta bai hiztegiak. (Rotaetxe 1997:717). Aurreko kapituluuan, testugintza espezializatuari

buruz genioenarekin, eta hurrengoan, zuzenbideko testugintzari buruz, esango dugunarekin ematen dugu terminologia duten testuen berri. Hortaz, atal honetan, testuetako terminogintzaz baino areago termino-bilketaren edo jarduera terminografikoaren ingurukoak jorratuko ditugu.

Kasu askotan, 1975-76 urteetatik aurrera argitaratzen diren hainbat ikasliburu eta liburuxketan, dibulgazio-lanetan, eta oro har gai espezializatueto testuetan, maiz aurkitzen da halako glosario —gehienetan elebidun— moduko bat, termino berrien esanahia azaltzeko<sup>59</sup>. Beste kasu batzuetan, hiztegiak liburu edo liburuxka formatokoak dira, bakarren batzuk lan indibidualak, baina gehienak, erakunde gutxi batzuetan ondutako talde-lanak, hainbat baliabide eta tresneria informatiko erabiliaz burututakoak.

Beste testuen osagarri edo eranskin gisa argitaratutakoak alde batera utziko ditugu<sup>60</sup>, modu autonomoan (liburu zein artikulu) argitaratutakoei kasu egiteko.

Hiztegi-lan horietan ia beti esplizituki agertzen da halako helburu normalizatzailea, nahiz eta behin-behinekotasunari buruzko oharrez horniturik, gehienetan. Maiz, irakur daiteke proposatzen den terminologia ez dagoela gehienez aurretiazko testuetan bilduta baizik eta hiztegi-lanketarako egindako testuetan<sup>61</sup> Hiztegi terminologikoak, beraz, sarritan, dagoen terminologiaren deskribatzaile baino gehiago edo horrez gainera, terminologiaren ekoizle dira.

#### 4.2.2.- Hiztegi-gintza espezializatuaren inguruko lanak eta eztabaidak (Ikus eranskina)

##### 4.2.2.1.- Michelena vs Jakin-UZEI eztabaida

Euskarazko terminologiari buruz idatzitakoa ezingo genuke ulertu ia hasieratik bukaeraraino iraun duen eztabaida baten berri izan gabe. Diogun eztabaida, 1981ean inprentaratzen da, eta urte gehientsuenetan orri gehiegi bete ez baditu ere, gure ustez etengabe baldintzatu du hiztegi-gintza espezializatua.

Eztabaidaren plazaratzea, 1981eko abenduan, informazio orokorreko *Muga* izeneko aldizkari batean Luis Michelenak (1982) argitaraturiko "Nuestra irresistible ascensión de la poesía a la ciencia" artikulu ezagunarekin hasten da. Artikulu polemiko horretan Mitxelenak, beste gai batzuen artean, ordu arteko

<sup>59</sup> Sarritan, idazleek edo itzultzaileek egindakoak izatean dira, ohartzten baitira hitz horiek berriak direla euskarazko testuetan eta erdaraz irakurtzen ohitutako irakurleek erdal baliokideen bidez ulertuko dituztela.

<sup>60</sup> UZEIk egindako bilketa baten arabera, zeinetan hala guk jasotako hiztegi autonomoak edo erdiautonomoak nola, aipatu ditugun beste liburuen osagarri gisa argitaratutakoak jasotzen baitira, 321 lan lexikografiko espezializatu biltzen dira.

<sup>61</sup> *Zuzenbide Hiztegiaren* Hitzaurre Orokorrean, esate baterako, horrela landu dela azaltzen da.



UZEIren lexikografia espezializatua kritikatzan du. Gainerakoak gainerako, esan daiteke hiztegi eta hizkera bereziei buruz esaten duenaren muina honako puntu hauetan bil daitekeela:

- Hiztegia baino lehenago beharrezkoak dira testuak ("orga idien aitzinean").
- Hiztegi gintzan (orokor zein espezializatuan) lehen lana hitzak biltzea da.
- Lexiko espezializatuak elkarren artean guztiz loturik daude, baina baita bakoitza lexiko orokorrarekin ere.
- Hiztegi espezializatuari lehentasuna emanez, gerta daiteke gutxien landuta dauden hizkerak —matematika edo fisikarena kasu— hizkuntzaren arlo landuenengan gehiegizko eragina izatea.
- UZEIko hiztegi gintzan hain da nabarmena gaztelaniaren eragina non euskara hizkuntza exonormatiboa bilakatzeko arriskuan paratzen baita.
- Arlo horretan egiten den lan guztietan ezinbestekoa da behin-betikotasuna benetakoa izatea eta praktikan gauzatzea, sendaezineko zauria eragin nahi ez bazaio euskarari.

Artikulu haren oihartzuna oso handia izan zen, ziurrenik gai linguistiko batek inoiz sorrarazi duen eztabaidarik gogorrena eta, gurutzatutako artikuluen kopuruari begira, emankorrena. Izan ere, 1982ko *Jakin* aldizkariaren apiril-ekaineko aleak dakarren auziari buruzko bibliografian (Jakin Idazkaritza:1982) 116 prentsa artikulu eta ohar zenbatzen dira. Eztabaidan, ohi denez, euskal lexikografiari eta terminologiari ez dagozkien hamaika gai nahasten dira, baina laburbilduaz esan dezakegu Mitxelenaren tesien aldekoek UZEIren lana eta bideak arbuiatzen dituzten bitartean, UZEIren aldekoek abiatutako bidea ezinbestekoa eta onargarria dela diotela. *Jakinen* ale hartan bertan Azurmendik (1982) argitaraturiko «UZEI auzitan edo normalizazio bideak auzitan» artikulua eman daiteke UZEIren alde eta Mitxelenaren aurkako iritzien ordezkari nagusitzat.

#### 4.2.2.2.- Ondorengo eztabaidak

Eztabaida hark markatu zuen neurri handi batean euskal terminografiaren etorkizuna, eta hori, bi aldetatik, gutxienez. Alde batetik, estandarizazioaren lehen garaietan euskara batuaren aldekoak eta kontrakoak banatzen zituen lerro ia desagertuaren orde, berri bat azaltzen delako, UZEIren hiztegi gintza eta euskararen ereduaren aldekoak eta kontrakoak banatzen zituena, eta bestetik, polemika haren ondoren, ez Euskaltzaindiak eta ez beste ezein erakunde publikok ez dutelako ardurarik hartzen hiztegi gintza espezializatuari buruz.

Hilabete batzuen buruan Mitxelenaren artikulua piztutako polemika zerbait baretu bazen, esan daiteke modu batean edo bestean agerpenak badauzkala 1980ko eta 1990ko hamarraldietan zehar.

Esan daiteke terminologia gaitzat hartzen duten idazlanak oro har, egiten zen terminografiaren aldekoak direla, eta oso gutxitan aipatzen dela terminologia hitza ere, hari buruzko iritzi kritikoa dutenen lanetan. Hain zuzen, zuzenean ezer

kritikatu gabe, maiz euskara jatorragoa, erdararen morrontzarik gabekoa eta mailegutzaren gehiegikeria dira azaltzen diren gaiak.

Terminografiak edo lexikografia espezializatuak, hala ere, ez dute etenik jasaten<sup>62</sup>: UZEIk bakarrik 1979-1981 bitartean 6 hiztegi argitaratzen ditu eta 1983-1990 epean, 23. Gainera, erakunde horren inguruan biltzen da urte haietako terminologiazaleen ekintza, terminologia-ikastaroak barne.

Esan bezala, gutxi dira urte haietan aldizkari espezializatueta<sup>63</sup> agertzen diren eztabaidari buruzko erreferentziak, eta ageri direnean, ere aski zeharkakoak izan dira, aipatuko dugun Oñatiko Jardunaldiak (HAEE /IVAP: 1989) eta azken urteotako banaka batzuk alde batera utziz gero.

Ziurrenik Andoni Sagarna izan da urte horietan (1982-1989) terminologiaz, hala teoriaz nola praktikaz, eta zehazki UZEIren eta Elhuyarren lanak bultzatu beharraz gehien idatzi zuena<sup>64</sup>, baina ez da bakarra, ildo beretik idatzi baitzuten Agirrebaltzategik (1985) eta Barrenetxeak (1985).

Eztabaida horretako beste aldearen ordezkariarik nabarmenena, eta egiten den lan terminografikoaren kritikorik zorrotzena, seguruenik Ibon Sarasola da.

Esan bezala, eztabaida ez zen gehienbat bide akademikoetatik bideratu, eta ez ditugu hona ekarriko egunkarietako artikulu eta oharrak, nahiz eta oso lagungarri izango liritekeen. Hain zuzen ere, Euskaltzaindian, sartu zenean egindako (Sarasola 1989) «Euskal Hitzez» hitzaldi ospetsuan esandako esaldi labur bat aukeratu dugu, polemikaren zernolakoak ondoen islatzen dituelakoan.

*“Eta hizkera tekniko eta jasoaren izenean gureganatzen ari garena espainolaren eta frantsesaren pedanteria dela”*

Ondorengo urteetan, hala Oñatiko Jardunaldietan nola beste paradetan, Sarasolak idatzi izan ditu euskal terminografiari buruzko hainbat balorazio<sup>65</sup>, baina 1997ko Nazioarteko Terminologia Biltzarrean egindako hitzaldian egin zituen adierazpen zorrotzenak<sup>66</sup>.

<sup>62</sup> Eranskinean ikus daitekeen bezala.

<sup>63</sup> Bat ere ez ASJUn, esate baterako.

<sup>64</sup> Ikus, esate baterako, Sagarna (1984) eta Sagarna (1985), *Senez : Itzulpen eta terminologiazko aldizkarian* argitaratuak, Picht-en *Terminologi Ikerketaren Printzipioak*, eta Celestin, Godbout eta Vachon l'Heureux-en *Terminologi Ikerketa Puntualaren metodologia* liburuen itzulpenak, argitaratu gabeko baina zabalduko *Lexiko-sorkuntza*, eta *Fisika eta Kimika jakintzagaietako ikasliburuetatik jasotako terminologiaren ikerketa*, Bartzelonako Unibertsitatean irakurritako *Algunos aspectos de la modernización del léxico en varias lenguas* tesi doktoral argitaragabea(1988a), eta «Lexikologia, lexikografia, terminologia, terminografia: euskal lexikoaren berrikuntzari egin beharreko ekarpenak» (1988b).

<sup>65</sup> Laugarren kapituluan, zuzenbideko hizkerari dagozkionez, aztertzeo utziko ditugu.

<sup>66</sup> Honela laburtuko genuke gaiari buruzko Sarasolak (1997: 70-78) esandakoak:

#### 4.2.2.3.- Oñatiko jardunaldiak

HAEE / IVAP-ek 1989an antolaturiko Oñatiko jardunaldietako hitzaldi eta eztabaidak argitaratzen dituen *Administrazioko hizkera eta terminologiaz jardunaldiak* (HAEE / IVAP, 1989) liburuan jasotzen dira terminologiari buruz urte luzeetan izandako aburu eta eztabaidarik osatuenak. Zuzenbideko terminologiari zuzenean dagokiona laugarren kapituluuan astiroago aztertuko dugun liburu horretan, Diaz de Lezanaren (1989) eta Oregiren (1989) artikuluetan agertzen da erakunde ofizial batean, HAEE / IVAP-en, terminologiaren lanketaz eta normalizazioaz dagoen kezka. Administrazioko ordezkari horien proposamenak zuzenean administrazioarentzat badira ere, hedadura handiagoko asmoak ageri dira, bereziki Diaz de Lezanaren gogoetetan. Terminologiaren koordinaziorako ahalegin ofizial bat eskatzen da, terminologiaren eragile eta erabiltzaile nagusi guztien koordinazioa bultzatuko duena.

Beste hainbat artikulua interesgarri irakur daiteke liburu berean, baina terminologiari buruzko eztabaida orokorrari dagokionez, Sagarnaren (1989) «Administrazioko terminologiaren sorkuntzarako bideak» eta Sarasolaren (1989) «Hizkuntza bakarretikako itzulpenez eta bestez » izenburudunak dira ziurrenik adierazgarrienak.

Jardunaldi horien merezimendua izan zen, gure ustez, eztabaida erdi ixildu bati bozgorailua eskaintzea, eta ordura arteko zenbait ezinikusi eta gaizki ulertu konponbidean jartzea, bertan egindako adierazpenei<sup>67</sup> sinetsi behar bazaie.

#### 4.2.2.4.- 1990tik aurrera. 1997ko Terminologia Biltzarra

Hurrengo urteetan eztabaidak ez du ika-mika itxurarik kasu gehienetan. Praktika terminografikoan, gainera, ordura arte zein bere bidetik ibilitakoak, HAEE/IVAP eta UZEI bereziki, lankidetzan hasten dira, eta Euskalterm datu-base terminologikoan IVAPen hainbat emaitza jasotzen dira.

---

a) terminologia ez da zientzia, teknika soila baizik (78); b) terminologiari buruzko literaturan ez dut ezer ikasi terminologiaz; c) norberak Europako hizkuntzen hiztegi elebidunak aztertuz askoz gehiago ikas dezake euskal terminologoak; d) terminologo batzuek, espainolezko hitz "kulto" bakoitzaren euskal ordaina eman nahi dute: erdal "terminoen" dizdiraz lilluraturik; e) terminologia egiterakoan gaztelaniari bakarrik begiratzen diote batzuek; f) euskal testu "zientifikoak" idazten direnean, komunikatze-beharraren gainetik. "euskara lantzeko, hizkuntza normaltzeko, aberria eraikitzeko" nahiak egoten dira.

<sup>67</sup> Mikel Zalbideren erantzun batean (HAEE/IVAP 1989:207) uste dugu laburtzen dela jardunaldi haien emaitza. Bertan adierazten du aurreko garaietan terminologia-irizpideak guztiz kontrakoak izan direla, baina ordurako paraktikak hurbildu egin dituela.

Ez dago lan teoriko-metodologiko askorik urte hauetan: horrela sailka daitezkeen artean Azkarate (1996b), Diaz de Lezana (1992, 1993, 1996a eta 1996b), Elozegi (1997a), Mendiguren Bereziartu (1996), Sagarna (1991) eta Zabaleta (1996) sartuko genituzke.

Eztabaidak, genioen bezala, badirau, baina lerro artean irakurri behar da hura jarraitu ahal izateko, edo, bederen, ez dago terminologian fokatuta, Ibon Sarasolaren euskal lexikologiari buruzko euskarazko artikuluetan gertatzen den bezala.

Berariaz terminologia aipatzen duten artikuluen artean gure ustez Zabaleta (1996) da eztabaida-gaietan murgiltzen den bakarretakoa. Zabaletaren hitzetan ordura arte ez zen egin terminologia deskribatzailerik, ez zegoelako benetako terminologia zeukan testurik, eta gainera, egiten ziren testuak ez ziren benetako testu espezializatuak, ez zegoelako berezilarien arteko komunikaziorik, hizkuntzalaritzan zegoen apurra salbuetsiz.

Bitartean, eranskinean ikus daitekeenez, lexikografia espezializatua edo terminografia hedatuz doa, baina metodologiari edo teoriari buruzko gogoeta handirik gabe, gure ustez.

Euskal terminologiaz hitz egiterakoan, data nagusitzat jo behar da 1997ko azaroaren 12, 13 eta 14 ean Donostian egindako Nazioarteko Terminologia Biltzarra, HAEE / IVAPek eta UZEIk antolatutik.

Biltzar hau, formalki bederen, euskara eta terminologia lotzen dituen gertakaririk garrantzitsuena izan da, eta bertan aurkeztutako hitzaldi eta komunikazioen bilduma, euskal terminologiaren gora-behera gehienak ezagutzeko ezinbesteko erreferentzia.

Honako zertzelada hauek azpimarratuko genituzke:

- Antolakuntza aipatutako bi erakundeen lankidetzan egiteak adierazten du korrante desberdinen arteko etsaigoaren une zorrotzenak gainditu direla, eta neurri batean bederen elkarlana posible dela.
- Nazioarteko mailako biltzarra izateak, aurkeztutako lanen kalitateari buruzko garantia; atzerriko adituen presentzia eta ezagumendu internazioanala, beste edozein nazioarteko biltzarren parekoa
- Edukiari buruz, euskal terminologiarekin zerikusia dutenak bakarrik harturik, 20 lan aurkeztu ziren<sup>68</sup>: hiru, metodologiaz; zazpi, arazo gramatikal edo lexikologikoez; lau akronimo eta laburdurez, bi itzulpengintzaz, bat normalizazioaz, eta hiru, (Sarasola, Azkarate eta Rotaetxe) euskal terminologia-terminografiaren hainbat alderdi orokorrez.

Euskal terminologiaren egoeraren eta hutsuneen ezagutzarako Biltzarreko euskal lan guztiak kontuan hartzeko badira ere, Sarasolarena eta Azkaraterena

---

68 Horietatik lau hitzaldi nagusiak ziren, eta beste hamaseiak, "komunikazioak".

dira ekarpen nagusiak. Sarasolak terminologiaren metodologiak eta teoriak bazertuz lexikogintza orokorraren lehentasuna azpimarratzen duen bitartean, Azkaratek terminologiaren egoera eta arazo batzuk deskribatzen ditu, hainbat irtenbide proposatuaz. Euskaltzaindiaren barruan dauden bi hurbilpen desberdinen isla, gure ustez, aurrerago azaltzen saiatuko garen bezala.

Gainerako hitzaldiak, eta komunikazioak, esan bezala, alderdi lexikogramatikaetik zein metodologikotik egindako lan zehatzak dira, egoera oraindik ahul baina normaltze-bidean doan baten adierazgarri, batez ere, hogeit hamar urte lehenagokoarekin alderatzen badira. Gure ustez ez dago Biltzar horretan ordura arteko terminografia-lanaren deskribapen kritikorik.

#### 4.2.3.-Euskaltzaindiaren ekarpenak eta jarrerak

Eztabaida-garai honetan, gure ustez Euskaltzaindiaren jarrera aski baldintzatua agertzen da. 1980ko hamarraldiaren hasiera arte zalantzazko jarrera izan bazuen ere —lan terminologiko batzuk egiten, eta UZEIren langintza sustengatzen— handik aurrera terminologiatik urruntzen da.

Izan ere, oso gutxitan agertzen da Euskaltzaindiak berak edo euskaltzain den norbaitek hiztegi espezializatuei, edo terminologiari buruz adierazitako ezer. Gure ustez, bi adierazpen ofizialetan bakarrik aipatzen da gaia. Bata, (Euskaltzaindia, 1991b:1107) *Mugako* artikulua kaleratze garai berean, 1981ko abenduaren 29an, «Hiztegi gintza»<sup>69</sup> izenburuarekin, eta bigarrena 1987an, (Euskaltzaindia, 1991c:1109-1110) «Lexiko-berrikuntza eta bilketa-lan nola bidera»<sup>70</sup> izenekoak. Argi geratzen da, horrenbestez Euskaltzaindiak ez duela asmorik hiztegi gintza espezializatuari jarduteko, beste lehentasunak baitaude.

Ondorengo urteetan, Euskaltzaindiak, *Merkatalgo izendegiaren* berrargitalpenaz at ez du beste hiztegi espezializaturik argitara eman ez landu; egiazki, sarraldi txiki batzuk (hitz-zerrrenda laburrak) besterik ez du egiten<sup>71</sup> lexikografia espezializatuaren munduan.

Baina Mendiguren Bereziartuk (1977: 98) aspaldi, eta geroago Diaz de Lezanak (198): planteatzen zuten koordinazio-beharra sentitzen dute batzuek. Euskaltzaindiaren eta terminologiaren arteko harremana beste modu batekoa izan zitekeela uste zuenik ere bazegoen: izan ere, hala administrazioan nola testu-

<sup>69</sup> Honela zioen: "Zuzenean ez da Euskaltzaindiaren lana, beste edozein hizkuntzatan ere ez den bezala, hiztegi espezializatuaren sortzea eta banan banako azterketa egitea, hizkuntzari eta euskararen egiturari dagozkion funtsezko puntuak zaintzea izan ezik"

<sup>70</sup> Ondoko hitzez zehazten zuen aurretik esandakoa: "Gaurko egoeran ez da komeni, beraz, jakintzagai eta bizigune desberdinetako hizperrietan banan banako arau sendo eta onespenik ematea. Badago hori baino aurreragoko lanik; eta, aurrean horiek bideratu artean, hobe da arau-emankizuna alde batera uztea".

<sup>71</sup> Zalbidek (1991:1110) hain zuzen ere, Euskaltzaindiaren bilera batean aurkeztutako txostenean kritikatzeko sarraldi horiek.

itzulpenean zihardutenen artean, larritasunez bizitzen zen hiztegi batu ofizialaren falta, eta oso maiz entzuten eta irakurtzen zen Euskaltzaindiak terminologiaren ardura, zuzenean edo zeharka hartu behar zuelako desioa. Horrelako gogoetak hainbat aldiz agertzen dira aipaturiko Sagarna, Agirrebaltzategi edo Barrenetxearen bezalako lanetan. Azken honek, 1985an proposatu zuen, Finlandian eta Katalunian egiten zen bezala, Hizkuntz Akademiak, Euskaltzaindiak, bere ardurapean har zezan terminologia.

Baina aipatutako erabaki haien ildotik, Euskaltzaindiak lexikogintza orokorrari ekiten dio, eta terminologiaren munduan noizbehinkako agerpenak besterik ez ditu egiten. Aipatzekoak dira HAEE / IVAP-ek sustatutako *Euskal Herriko erakundeen barne errotulazioa* emaitzatzat izan zuen erakunde askotariko ordezkartza izan zuen taldeko partaidetza, eta haren ondotik *Nekazaritza Hiztegia* eta *Bide-seinaleak* lantzen izandakoa.

Euskaltzaindiaren izenean mintzatu gabe, baina bai euskaltzain gisa, Miren Azkaratek agertu izan du terminologia espezializatuei buruzko kezka. Honela (1996b:76) dio kontsentsua behar dela, eta ez dagokiola Euskaltzaindiari horren koordinazioa-lanetan ibiltzea, gainbegiratze linguistikoa baizik. Hurrengo urtean, berriz 1997ko Nazioarteko Terminologia Bilotzarrean parte-hartze nabarmena izan zuen (Azkarate 1997:264) eta bertan terminologia batzordearen edo kontseiluaren beharra planteatu zuen. Biltzar berean, esan bezala, terminologiari buruzko gogoetak eta jarrerak azaldu zituen Ibon Sarasolak, bertan parte hartu zuen beste euskaltzainak.

#### 4.2.4.- Terminografiaren deskribapena (Ikus II. 4.2.4. eranskina)

##### 4.2.4.1.- 1975 arteko hiztegi espezializatuak

Oso neurri eta mota desberdinetako lanak, liburuak, liburuxkak eta artikuluak bildurik, hamaika izenburu jaso ditugu, guztira 10 aleko zerrenda besterik osatu ez badugu ere. Hiru izenburu bakarrik dira 1970 baino lehenagokoak: Lacoizquetarena, Olabiderena eta Bahr-ena eta. Esan daiteke, beraz, 1970ko hamarraldira arte ez dela ia batere lantzen hiztegi gintza espezializatua. Bestalde, bertan sartu ditugun batzuk, 1975ko *Ikastola Hiztegia* bezala, inolako berezitasun-asmorik agertzen ez duten arren, badute tokirik hor, garai hartan gai espezializatuen hiztegitzat hartu baitzen.

Zerrenda laburrak badira ere, Euskaltzaindia agertzen da 1970tik aurrera hiztegi espezializatuen erdia baino gehiagoren egile.

1970ko hamarraldian jadanik, aurreko historia osoan baino izenburu gehiago agertzeak, euskara batuaren eragileen asmoa, euskara zientzia eta gai

guztietarako erabiltzeko gai bihurtzea, alegia, gauzatzen hasia zela adierazten du, neurri txikian gauzatzen bada ere.

#### 4.2.4.2.- 1976tik aurrerakoak

Berezitasuneko testuekin gertatzen den bezala, nabarmena da hiztegien garapena urte horretatik aurrera.

Hiztegien azterketa xehetuan sartu gabe, kopuruak berak adierazten digu garapen hori: 76 izenburu bildu baititugu, irizpide nahiko estuaz jokatu.

Bestalde, izenburuek, eta sarrera-kopuruek argi erakusten dute berezitasunaren edo teknikotasunaren mailan berebiziko aurrerapena egin dela aurreko garaien aldean. Ez dugu esango hizkuntza normalizatueta hiztegien mailakoak direnik, baina bai hurbiltzen hasiak direla.

Zuzenbideari dagozkionak, ugarienak, hurrengo kapituluan xehetasun gehiagoz aztertuko ditugu.

Termino-bildumak eta era askotako hiztegiak argitaratu dituzten erakundeak edo egileak hainbat izan badira ere, hiru besterik ez dira jarraikitasunez urte hauetan jardun horretan aritu direnak: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea /IVAP, Elhuyar, eta UZEI-Euskalterm.

HAEE/ IVAP, bere izenak adierazten duenez, erakunde ofiziala eta administrazioarentzat lan egiteko sortua da. Erakunde horren lanak, hortaz, artez edo zeharka, administrazio publikoarekin eta zuzenbidearekin zerikusia izan dutenez, hurrengo kapituluan aztertuko ditugu xehetasunez, zuzenbideko hizkeraz eta terminologiaz aritzen garenean.

Elhuyar, kimikari eta ingeniari euskaltzaleen taldea hasieran, beti izan da euskara modernizatzeko asmoz jardun duen taldea, bereziki zientzia eta teknika gaiak euskaraz landuaz, baina gizarte-arloetan ere inoiz sartuaz (*Udaletxea, Gizarte-Laneko Hiztegia...*). Testugintzan aritu bada gehienbat, hainbat alorretako terminologia berria sortzen, terminografi lan batzuk ere burutu ditu.

Aipatu hiru erakundeetatik UZEI (Sagarna 1991:20) izan da 1979ko *Fisika Hiztegiarekin* hasita, eten gabe azken 20 urte hauetan lan terminografikoaren parte handiena gauzatu duena<sup>72</sup>. UZEIren baitan, 1988an, Euskalterm sortzen da, garai hartan UZEIek eginak zituen 30 hiztegi independente bertan integratuaz (Loinaz 1997:181). Gaurko egunean, internet bidez *on-line* kontsulta daitekeen datu-base terminologikoa da Euskalterm. Bertan, UZEIko

---

<sup>72</sup>Aipatzekoa da UZEIko hiztegitintzan erakunde horretatik kanpoko adituek, askotan unibertsitateko irakasleek izan duten partaidetza. Izan ere, hainbat kasutan, aditu horien lanak izan dira hiztegian bildutako terminoen iturri garrantzitsuenak, hasieran batez ere ez baitzeuden gai horietako benetako testuak.

hiztegi guztiez gainera, hainbat kanpo-ekarpen ere, artean zuzenbide- eta administrazio-arloetako HAEE / IVAPenak ikus daitezke. Euskarri informatikoan egoteak ahalbideratzen du etengabe gehituz, zuzenduz eta aldatuz joatea, bertako eta kanpo lanen emaitzen arabera.

Era askotako hiztegi-lanak daude zerrendan. Hainbatetan, sarrerez eta azalpenez gainera badaude definizioak eta gainerako informazioa euskaraz ematen dutenak, baina bat ere ez dago osorik elebakarra. Batzuetan, liburuki osoak dira elebakarrak<sup>73</sup>, baina hiztegi guztiek dakarte gutxienez zerrenda elebidun edo hirueledun bat, zalantzarik gabe, atalik erabilien.

Gure zerrendan bereizten ez baditugu ere, izenburuaren arabera sailka daitezke helburu praktikoa duten liburuxkak (*Aurrezki Kutxan edo Azokan, Bide Seinaleak, Administrazio mila hitz*), jakintza oso bateko hiztegiak izan nahi dutenak (*Fisika, Kimika, Zuzenbidea*, etab.), liburu bateko edo multzo bateko hustuketaren emaitza hutsa direnak (*Europako Ituneen Hiztegia, Agintaritza-aldizkarietatikako hitz-bilduma*)

Lexikografia terminologikoaren ikuspegitik ere, badira hiztegi entziklopedikoak (*Ingurugiro hiztegi entziklopedikoa*), bokabularioak (*Meteorologia. Hiztegia, Hizkuntzalaritza*), lexikoak (*Termino estatistikoaren hiztegia*), nomenklaturak, eta abar.

Gaiari dagiokionez, badira zientzia edo diziplina osoa hartzen dutenak (aurreko paragrafoko izenburuak, esate baterako) eta badira askoz mugatuagoak edo espezializatuagoak (*Medikuntza: Pediatria Hiztegia*, edo *Futbola Hiztegia*). Oro har, gai-sailkapeneko atal nagusiek euskal hiztegi espezializatua badutela esan daiteke.

#### 4.2.5.- Euskal terminogintzaren ezaugarriak

Aurreko puntuan esandakoa kontuan hartuaz, esan daiteke azken mende laurdeneko lexikografia espezializatuak argi eta garbi adierazten duela hizkera bereziek garai honetan hartu duten garrantzia. Eta, gure aburuz, euskal hiztegi elebakarrik ez egotea ere, gure terminogintzaren izaera eratorriaren seinale ukalezina da.

Hizkuntzaren estatusetik eratorritzen diren eragin eta baldintzapenak alde batera utzita, eta corpusari buruz gorago esandakoa kontuan harturik 1976 urtetik aurrerako euskal terminologiaren ezaugarri orokor batzuk azaltzen saiatuko gara:

- Terminologiaren inguruan izan diren arazoak eta eztabaidak oso tipikoak dira munduko beste kasuei begiratzen badiegu: modernizazio azkarra, plangintzarik eza, maileguz egin beharreko bidea, eta

<sup>73</sup> Esate baterako Uzeiko *Politika, Zuzenbidea, Erligioa, Filosofia* eta beste hainbateko lehen liburukiak.



gainerako arazoak komunak dira normalizatu gabeko beste hizkuntzetan ere.

- Euskarazko termino-sorkuntzak, deribatua izatearen ondorioak maila gorenean pairatzen ditu.
- Ez da terminologiaren plangintza adosturik izan. Terminologia-ekoizpena hainbat faktoreren baitan egon da.
- Autoritate bakarraren ondoriozko batasun-eza dela eta, hainbat eremutan arlo bereko terminologia aski desberdinak agertu dira<sup>74</sup>.
- Nahiko arazotsua izan da estandarizazio-autoritatearekiko harremana. Ez da izan praktikan komunikazio onik terminologoen eta Euskaltzaindiaren artean<sup>75</sup>.
- Zenbait kasutan (bereziki zuzenbideari dagokionez, hurrengo kapituluan aztertuko dugun bezala) erabilera sinbolikoak lehenetsi dira neurri batean fikziozkoak diren hizkerak eta terminologiak garatuaz (Zabaleta: 1996).
- Hainbat alorretan, hasieran batez ere, lan terminografikoak ez dira oinarritu zeuden testuen hustuketa orokorrean, ia batere testurik ez zegoelako edo beste arazoirenen batengatik (Zabaleta: 1996, Uzei: 1985)
- Hasieran terminologiaren metodologia ere ez zen behar bezala ezagutzen, terminologiagileek berek<sup>76</sup> eta kritikoez aitortu duten bezala.
- Une honetan badirudi aho batez onartzen dela “bigarren belaunaldiko” hiztegiak egiteko garaia dela, esan nahi baita, benetan dauden espezialitateko testuen hustuketan oinarritutako hiztegiak.
- Halaber, badirudi denek onartzen dutela arazo nagusiak ez daudela berezitasuneko terminologia espezializatuarenaren gune “gogorrean”, baizik eta maila jasoko hiztegi orokorrean (Sagarna: 1988b, Zabaleta: 1996, Sarasola: 1997).

---

<sup>74</sup>Gehienetan testuetan soilik gertatu da, baina badira hiztegietan jasotakoak, esate baterako 1985 urtean bertan plazaratzen diren UZEIko *Zuzenbidea Hiztegia* eta Arabako Diputazioak argitaraturiko *Agintaritza-aldizkarietatikako hitz-bilduma/ Vocabulario de los Boletines Oficiales*.

<sup>75</sup>Hizkuntzak eta egoerak konparaezinak badira ere, esan daiteke Katalunian (Mari i Mayans, 1992:22) katalanaren akademia den Institut d'Estudis Catalans delakoak TERMCAT-en gainean duen gainbegiratze-funtzioa ez du bere gain hartu Euskaltzaindiak. Baina Euskaltzaindiak egindakoak eta egingabekoak neurri handian baldintzatu dute terminologiaren garapena.

<sup>76</sup>Esate baterako Sagarnak (1991:21) dio egia dela 1977an, hiztegi gintzan hasten direnean ez zutela ezagutu ere egiten nazioarteko mailako jarduera terminologikoa eta “Terminologiaren “teoria” ez zen apenas ezagutzen”. Beste artikulua batean Sagarnak (1988b:130) berak azpimarratzen du, ordura arteko lanaren ahulezia onartuaz, homologazio-bidetik abiatu behar dela.

### III. KAPITULUA

## ZUZENBIDEKO HIZKERA ETA TERMINOLOGIA

### 1.- ZUZENBIDEA: ADIGAIA ETA IZENA

Kapitulu honetan lehenik eta behin egiaztatu nahi dugu ea zehaztasunez esan daitekeen badagoela hizkera juridikoaren izena merezi duen zerbait, eta hizkera horren mugak marrazten saiatzea, testu bati berezitasun juridikoaren ezaugarria esleitu ahal izateko zein irizpide erabiltzen dugun zehaztuaz.

Zuzenbidea hizkuntzan oinarritutako diziplina izateak gogoeta ugari sortu ditu garai eta toki guztietan. Diziplina honen eta hizkuntzaren arteko lotura berezia ote den ere azterkizun izango dugu.

Ondoren, hizkuntzaren aldaera honen batasun edo aniztasunaren auziari helduko diogu, zuzenbidearen azpihizkerez hitz egiten denean alderdi linguistikoei so egiten ote zaien argitu nahirik.

Hizkera berezi honek, besteek bezala, lexiko edo terminologia espezializatuan dituen ezugarri nagusiak, zuzenbideko terminologiaren ezaugarriak deskribatzeari ekingo diogu. Horretarako, gaiak arduratu diren autore batzuek diotena jaso ondoren, zuzenbideko hainbat hiztegitan sarreratzat ematen direnak zer eta nolakoak diren aztertzetik zein ondorio atera daitekeen ikusiko dugu.

#### 1.1.- Terminologia-arazoak behin-behingoaz baztertzea

Erosotasun-arrazoiak direla-eta, kapitulu honen hasieran 'IUS' latinetiko hitza erabiltzea erabaki dugu. Izan ere ikerlan honetan zehar kontaezineko aldiz erabiliko dugu tesiaren izenburuan bertan azaltzen den '*zuzenbide*' hitza, baina badakigu euskarazko '*zuzenbide*' nahiz '*lege*' hitzak arazoak dituztela, eta ez direla abiapuntu erraza adigaiak zehazten hasteko.

Gainera, euskarazko hitzok arazotsuak badira, buruhausteak, konpondu beharrean, gehitu egiten zaizkigu gaztelaniazko '*derecho*' eta beste hizkuntzetako antzeko hitzetara jotzen badugu, haien tratamendu lexikografikoak erakusten duenez. Izan ere, beste hamaika adieraz gainera, gure gaiari gertuenetik atxikitzen zaizkion adieretan ere hitz horiek polisemia handia erakusten baitute.

Polisemia horren erakusgarri gisa gogora dezagun espainolezko '*derecho*' hitzak badituela ingelesez hiru baliokide desberdin: 'law' —gehienetan '*derecho*' eta ez '*ley*' esan nahi duena—, 'right', —'human rights'-en bezala—, eta gai horien ikasketei edo ikerkuntzari ematen zaion 'jurisprudence' izena.

IUS hitza bera ez da arazo gabea, noski, latineko hiztegiak erakusten digun bezala, baina erabilgarri da guretzat. Hortaz, eta kapitulu honen hasierako puntu hauetan latinezko IUS hitza erabiliko dugu, bere arrotasunean, edukiz betetzen joateko asmoz, eta behar bezala arrazoitu ondoren, *zuzenbide* hitzaz ordezkatzeko asmoz.

IUS hitza, beraz, ES *derecho*, FR *droit*, CA *dret*, IT *diritto*, EN *law* hitzen adieretako baten ordezkari erabiliko dugu.

## 1.2.-IUS-en kontzeptua hainbat hiztegitan

Ez da lan honen egitekoa IUS adigaiaren zehaztapenaren inguruko eztabaidetan sartzea. Izan ere, betidanik jo izan da gizakiaren arazo askagaitzetakotzat. Legelarien artean oso ezaguna da Kantek *Kritik der reinen Vernunft*-en ironiaz kontatzen duela juristak oraindik IUSen kontzeptuaren definizioaren bila zebiltzala. Eta egia esan, dabiltzan eztabaidak azaletik ezagutzea nahikoa da egiaztatzeko, gaurko egunean, bi mende geroago, ez dela aurkitu. Horrela uste du H.L.A. Hart-ek (1961), mende honetako IUS-aren teorikorik ezagunenetariko batek, liburu osoa kontzeptu hori argitzera eman ondoren.

Ez du, hortaz, merezi kontzeptuaren "benetako" definizioa zehazten hastea, eta hori bi arrazoiengatik. Bat, Ninok (83:12-17) esaten duen bezala, pretentsio horrek, hizkuntzaren eta errealitatearen artean halako erlazio trinkoa dagoela suposatzen duelako, antzinako platonismoak edo errealismo eskolastikoak nahi zuten bezala, eta oraingo pentsamolde gehienetan baztertu delako ideia hori, haren ordezkari kontzeptzio "konbentzionalistak" nagusiturik; eta bigarrenik, lan honen helburuetarako guztiz desbideragarria izango litzateelako horrelako disgresioa. Hitzaren "erabilera arruntari" begiratzea, askoz baliagarri izango zaigu, eta oraingo pentsamoldearekin, adosago.

Adiera hori, beraz, IUSen esanahia, mugatzeko, hainbat hizkuntzatako hiztegiez baliatuko gara, *derecho*, *droit*, *diritto*, *dret*, *law* hitzek dauzkaten adiera multzoaren artean guri interesatzen zaiguna aukeratuaz.

### 'IUS' hiztegi orokorretan

Honela, **espainierazkoetan**, *derecho* sarreran irakur dezakegu:

—“*Conjunto de principios, preceptos y reglas a que están sometidas las relaciones humanas en toda sociedad civil, y a cuya observancia pueden ser compelidos los individuos por la fuerza*” (18. adiera); “*Ciencia que estudia estos preceptos*” (19. adiera). (DRAE, 1992).

—“*Conjunto de leyes, preceptos y reglas a que están sometidos los hombres en toda sociedad civil(...)*” (12. adiera) eta “*Ciencia que estudia las leyes y su aplicación*” (13. adiera) (VOX, 1991).

—“*Conjunto de principios y preceptos a que están sometidas las relaciones humanas . b) Ciencia que estudia el derecho. (6. adiera)*”(Seco, 1999).

**Frantsesez**, *droit* sarreran ondokoak datoz:

—“*III (droits objectifs), Ensemble des règles qui régissent les rapports des hommes entre eux. > juridique. IV Connaissance, description, analyse du droit positif > Juridique (science)*”. (Le Grand Robert, 1986).

Eta **katalanez**, *dret* sarreran:

— “*Conjunt de lleis, preceptes, regles a que estan sotmessos els homes en tota societat civil; la ciència que concerneix les lleis i llur publicació.*” (Pompeu Fabra, 1985).

Bukatzeko, **italianoz**, *diritto* sarreran:

— “*Diritto. 1 il complesso delle leggi che regolano i rapporti sociali e il cui rispetto ha carattere di obbligatorietà per tutti i cittadini. 2 la scienza che ha per oggetto lo studio delle leggi che regolano i rapporti sociali*” (Il grande Dizionario Garzanti della lingua italiana).

Erroz aldatu behar dugu ingelesera igarotzen garelarik, eta *law* sarreraren adieretan begiratu dugu, bi hiztegitan honako emaitzekin:

— “*1. The body of rules, whether proceeding for formal enactment or from customs, which a particular state or community recognizes as binding on its member subjects.*”(Oxford, 1978).

— “*(1) : a binding custom or practice of a community: a rule of conduct or action prescribed or formally recognized as binding or enforced by a controlling authority (2) : the whole body of such customs, practices, or rules*” (Webster on line).

Guk aukeratutako definizio lexikografiko horietatik atera dezakegu IUS adigaiaren mugaketa, inolako teoria-pretentsiorik gabea, baina gure eginkizunetarako, nahikoa. Adiera horietan jasotakoa batera bilduaz esan dezkegu, IUS-ez aritzen garelarik, honako hau esan nahi dugula:

“Gizarteko erlazioak gobernatzeko dituen arau-multzo sistematikoa, halaber ezartzen dena.”

### 1.2.1.- ‘IUS’ : Zientzia edo zientziaren objektua?

IUS adigaiari ari garela, badago zerbait deigarri dena. Gai bereizitako hizkerez ari garela, edo gai horiez ari garela, normalean, gaiaren izendapenak jakintza bat izendatzen du lehenik, eta gehienetan, gainera, jakintza horren objektuak beste izen bat dauka, izena duenean.

Esate baterako, hartzen badugu PHYSICA bezalako adigai bat eta hiztegiatar<sup>1</sup> jotzen badugu, zientzia edo jakintza bati dagokiola irakurriko dugu. Berdin gizarte arlokoa den 'soziologia'-ren esanahia<sup>2</sup> egiaztatzen badugu.

Definizio horietan guztietan agertzen da bai *soziologia* bai *fisika* jakintza-izenak direla; zientzia horiek aztertzen dituzten gaiak beste hitz batzuek izendatzen dira.

IUS adigaiarekin, aldiz, hizkuntza erromantzeetan, aztertutako hiztegi gehienetan egiaztatu dugunez, hitz beraren adiera-bikote bat agertzen da: lehenik *arau-multzotzat* ematen duena, eta ondoren, bestea, *arau-multzo horren azterketaz arduratzen den jakintza edo zientzia* dela esaten diguna. Hau da, hitz berak adierazten ditu bai zientzia bai zientziaren gaia.

Kasu guztietan, lehenik, guk hartu dugun IUSen esanahia dator, eta ondoren, IUS jakintzarena, Gure ustez, hiztegiek erakusten duten bezala, metodologikoki hobe da IUS arau multzo gisa hartetik abiatzea, eta ez IUS jakintzatik. Beste aldetik, gehitu behar da IUS-jakintzaren izena, batzuetan ‘*Jurisprudencia*’-tik eratorritako hitzen batekin adierazten bada ere, beti dagoela aukeran IUS adierazten duen hitza bera bakarrik erabiltzea, edo jakintza adierazten duenarekin elkarrekin (estudios de derecho, ciencia del derecho, Law Studies). Izan ere, hizkuntza hauetan hitz bera (beste batzuk ere bai) erabiltzen da IUS eta IUSen zientzia adierazteko.

<sup>1</sup> Hau irakurriko dugu DRAE-ko ‘Física’ sarreran: “*Ciencia que estudia las propiedades de la materia y de la energía, considerando tan sólo los atributos capaces de medida*”, eta Euskal Hiztegi (Sarasola:1996) ‘fisika’-n honako hau: “(...) gorputzen nolakotasuna eta haien egoera edo higadura, izatasuna bestelakatu gabe aldatzen duten legeak aztertzen dituen jakintza”.

<sup>2</sup> Honela dio DRAE-k 'sociologia' sarreran: “*ciencia que trata de las condiciones de existencia y desenvolvimiento de la sociedad humana*”. eta Sarasolak, “Gizarteen sortze eta garapena, eta gizarte egitura, joera edo jokabideak oro har aztertzen dituen jakintza”

### 1.2.2.- 'IUS'-en adjektibo erreferentzialaz

Gure inguruko hizkuntza erromantzeetan, *ley / loi / llei / lege* izenei dagozkien adjektibo erreferentzialak, *legal / legal, legal / legale* guztiz ezagunak eta hizkuntzetan erabilera orokorrekoak badira, ez da gauza bera gertatzen IUS adigaiarentzako dauden *derecho / droit / dret / diritto* hitzan kasuan: horien adjektibo erreferentzialak beste erro batetikoak baitira, hain zuzen ere, *ius-* etik (*juridico, juridic, juridique, giuridico*).

Kontsultaturiko hiztegiek ia azalpen berdinak ematen dituzte adjektibo ia monosemiko horren esanahiaz. Laburrenak, Seco-renak (1999) dioena bakarrik aldatuko dugu hona besteen ordezkari gisa: “*jurídico = de(l) derecho*”.

Ingeleseaz, berriz, *Webster*-ek bide berberetik ematen duenak: “*legal: of or relating to law*”, arazo baten aurrean kokatzen du arreta handirik gabe hurbiltzen dena. Arazo hori, itzulpengintzari buruzko lanetan, “*faux amis*” edo “*adiskide izunak*” bezala ezagutu ohi da. Izan ere, ingelesezko *legal* eta erromantzeetako *legal* ez dira baliokideak hitzaren adiera teknikoenean. Hau da erromantzeetan *legal* adjektiboak LEX-i, eta ez IUS-i erreferentzia egiten dionean.

## 2.- NOLA IZENDATU ADIGAI HORI EUSKARAZ

IUS adigaia nahiko mugaturik, aurre egin diezaiokegu euskaraz aurkitzen dugun arazo lexiko-terminologikoari. Horretarako, aurreko puntuan IUS adigaia definitu dugunez, beste latinezko hitz bat, LEX, erabiliko dugu esan nahi duguna argitzeko. LEX izango da idatzizko arau jakin baten izena. Horrela, Eusko Legebiltzarrak, edo Espainiako Gorteeak, edo Gobernuak emandako lege, dekretu, edo edozein mailatako arau partikularra LEX izango da; IUS, berriz, LEX guztiek, eta beste osagai batzuek (ohitura, esaterako), osatzen duten sistema, edo sistemaren atala.

Hain zuzen ere, inguruko hizkuntzetan, normala den polisemiaren eta sinonimiaren gainetik *derecho/ley; droit/loi, law/estatute* pareak nahikoak dira bereizkuntza egin behar denean anbiguotasuna ekiditeko. Hizkuntza horietako zuzenbideko hizkeraren erabilera tradizionalak ongi finkatua dauka IUS adigaia eta LEX adigaia bereiztea komeni denean aukeratzen den hitza; hizkera arruntan, gutxitan sumatzen den bereizi beharra, izan ere. Beraz, beste hizkuntzetan, erregistro-maila batetik gora, testuinguruak agindurik, ez bada dudarik egiten erabili beharreko hitzari buruz, euskaraz gauzak ez daude inondik

ere argi. Tradizio juridikoa oso eskasa izanik, beste hizkuntzetan garatu den erregistro tekniko-abstraktua oso urri da gure letretan, eta hainbat hitz daudeke lehian kontzeptu hori izendatzerakoan.

Arazo honetan argitasun apur bat egin nahian, gure tradizioan zer agertzen den arakatu nahi izan dugu lehenik. Horretarako, OHEn aztertu ditugu IUS eta LEX esanahia izan duten hitzak (bereziki *lege*, *deretxo*, *zuzen*, *zuzenbide*). Beste aldetik, begiratu dugu hainbat hiztegi orokorretan, elebidunak ia denak, ea zer proposatzen duten beste hizkuntzek LEX/ IUS bikoteak desanbiguotzeko ematen duten aukeren ordainetan, eta azken garaietan euskararen erabilera aldaketarik izan ote den aztertzeko, EEBSko datu basean eta hiztegi berrietan miatu dugu, eta azken urteotako erabilera espezializatuaren ispilu izan daitezkeen zenbait hiztegi eta testu-mota ere aztertu dugu.

Horren ondorioz, daudekeen aukera zuzenen artean ikuspegi terminologikotik zer komeni den aztertu eta gure iritzia ematen dugu, lan honen ondorengo garapenean egingo dugun erabilpena arrazoibidetzarren.

## 2.1.- ‘deretxo’, ‘eskubide’, ‘lege’ eta ‘zuzenbide’ hitzak euskal tradizioan (OEH, EEBS, hiztegi orokorrak)

### 2.1.1.- Orotariko Euskal Hiztegian, eta EEBSn (1967 arte)

- **deretxo/dretxo/dretxu**

Agerpen gehienetan '*eskubide*' esanahiarekin azaltzen da; batzuetan (gehiago *dretxo/dretxu* forman) 'ahalmen bat eskuratzeko ordaintzen den zerga' esanahiarekin.

IUS-jakintza adiera suma daiteke, agerpen gutxi batzuetan, ("*Dretxo*"ko *eskola*) IUSen ikasketarekin lotuta; baita Frantziako Iraultza-garaiko testuetan, eta hitz-elkarte baten lehen osagai gisa, '*dretxo-zale*' bezala, "fiskal" edo "prokuradore" esanahiarekin.

- **eskubide, eskubidezko**

Agerpen asko daude, gehien-gehienak '*eskubide*' esanahiarekin; baita 'zuzentasun' adieran ("*ez dago eskubiderik*"). Kasu bakan batzuetan, Zaitetik, Orixek eta Mitxelenak IUS adieran erabiltzen dute, 'jakintza' edo 'ikasketa'-rekin loturik.

- **arau, araubide, araupide, araude,**

Hitz horien esanahiak, kasu batzuetan LEX ingurukoak dira, hainbatetan esan daiteke IUS bezala uler daitezkeela, baina inoiz ez argi. Esango genuke, *arau-jakin*, *arau-jakintza*, elkarteak, eta Larramendiren *araujarraia*, *araujakiña*,

*araujarraidea*, *araujakintza*, *araujakidea* direla elkartearen lehen zatiarentzat IUS esanahitik hurbilen daudenak

- **lege, lege-**

3425 agerpen jaso dira OEHn. Testuinguruen arabera, hitz honen era guztietako adierak aurkitu ditugu. Beste esanahiak alde batera utzirik, mundu erlijioso-moralekoak dira LEX eta IUS, modu bereiz ezinean, adierazten dutenak. Giza-erlazioei dagokienetan ere, gehienetan hala LEX nola IUS moduan uler daiteke. Kasu gutxi batzuetan, erabiltzen den erregistroak behartzen du IUS bezala ulertzera.

EEBSen, 1900-1939 garaian, 283 agerpen; 1940-1967koan, 209 agerpen. Horietako hainbatetan suma daiteke IUS esanahia.

- **zuzenbide**

OEHn 372 agerpen aurkitu ditugu, aski berriak. Garaikako banaketari so eginda hau dakusgu: 6.era arte ez da hitz horren agerpenik; 6. garaian, 18 sarrera, 7. ean 28 eta 8.ean 73, baina inoiz ez du IUS esanahia garbiro. Bila gabiltzan IUS esanahiari dagokionez, Eguzkitzaren *Gizarte Auzian* bizpahiru kasutan dudagarria da IUS hala *justizia* esan nahi duen, eta azken garaiko bi sarreretan, biak Orixe-renak, *zuzenbide-ikasía* eta *zuzenbidea ikastea*, IUS-aren jakintzaz ari da, dudarik gabe. Gainerakoetan, ez dirudi IUS esanahia agertzen denik. Bestalde, *zuzenbide* hitzak, jakina den bezala, polisemia itzela ageri du, hitz hauen sinonimo gisa erabiltzen baita: *helbide*, *norabide*, *aholku*, *agindu*, *bide zuzen*, *zuzentasuna*, *justizia*, besteak beste.

EEBSn, 1940-1967 garaian 13 agerpen eta 1990-1939koan, 16 agerpenn daude. Bat ere ez IUS esanahiarekin.

Kontuan hartuta benetako testu juridikoak urriak direla, bai kopuruz, eta bai teknikotasun juridikoz, espero zitekeena agertzen zaigu OEHeK erakusten duen tradizioan: IUS nozioa garraia dezaketen (*lege*, *deretxo*, *zuzen*, *esku*, *arau*...) erroen erabileretan zail da zehaztea zein diren esanahi hori daukatenak; izan ere, nahiko abstraktua (edo teknikoa) baita.

### 2.1.2.- IUS adigaia hiztegi “zaharretan”

Jakinik ere, hiztegiak, bereziki elebidunak, ez direla beti erabileraren islarik zintzoena, garrantzitsu iritzi diogu hiztegi elebidunei begiratzea, erdarazko baliokideen bidez, edo definizioen bidez, IUS esanahidunak mugatzearen. Bi aldetatik begiratzen saiatu gara, euskarazko erro-sarrera haietatik abiatuta, eta erdaretako (*derecho/ droit*, *ley/ loi*, *juridico/ juridique*, *jurisprudencia/ jurisprudence*) sarreretan abiapuntu harturik.



### 2.1.2.1.- Arakatutako hiztegiak (Ikus 2.1.2.1. Eranskina)

Lehenik, batasunaren aurreko euskararen berri ematen diguten hiztegiak begiratu ditugu. Bilaketa honek ez du erabatekotasun-asmorik. Arakatutako hiztegien aukeraketa neurri batean ausazkoa izan da, eskumenera iritsi zazikigunak miatu baititugu. Hainbat kasutan, aldizkari espezializatuetan aurkitu ditugun haien erreferentziez fidatu gara.

Hala ere, uste dugu hiztegi garrantzitsuenetako datuak jaso ditugunez, nahikoa adierazgarri dela, eta nekez azalduko direla kontrako ondorioetara eraman gaitzakeen daturik.

### 2.1.2.2. Hiztegi “zaharren” emaitzak (Ikus 2.1.2.2. Eranskina)

Espero zitekeen bezala, garai horietan ez idatzizko praktika juridikorik, ez IUSen irakaskuntzarik ez dagoenez euskaraz, IUS adigai aski abstraktuak ez du gehiegizko presentziarik euskal tradizio idatzian. Errealitate hori ez da nabarmenki aldatzen 1936-37ko 9 hilabeteetan, nahiz eta, Autonomi Estatutua indarrean egonik, Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa argitaratzen den, arau juridiko guztien euskal itzulpenarekin.

Oso testu gutxitan agertzen da argi eta garbi IUS adigaia. Gutxi gorabehera esanahi hori adierazi nahi delarik, hainbat hitz erabili dira OEhk, EEBSk eta hiztegiek<sup>3</sup> erakusten dutenez: *deretxo*, *eskubide*, *zuzen*, *lege*, *zuzenbide*, baina *lege* hitza da dudarik gabe tradizioz indartsuena duena.

Hiztegietan, bitxitasuntzat eman behar da, zaharrenean, Landuchiusenean, hain garbiro agertzea IUS adigaia, zeren sarrerak erdaratik izanik, mailegu gordin-gordinak diren euskal ordainak ez dira fidagarriegiak.

Larramendiren kasuan, Lakarrak (1996:28-29) dioen bezala, *voces facultativas-en* artean sartu behar dira *derecho* eta honen ordainak. Gainera, ez dira Larramendirenen artean arrakasta izan dutenetakoak.

## 2.2.- Euskara batuan

### 2.2.1.- EEBSn eta euskara batuko hiztegi orokorretan

#### 2.2.1.1.- Arakatutako hiztegiak (Ikus III. 2.2.1.1. Eranskina)

Aurreko multzoan bezala, esan behar dugu ez ditugula dauden hiztegi guztiak begiratu, bai, ordea, gure ustez azken urteotako ezagunenak eta

---

<sup>3</sup>Bestelako hitzak erabiltzeko saioak ere izan dira. Honela, Azurtza'tar K. Y.'k (1936) *eskutza* erabiltzen du bere artikulua ( «Bitoria Aba, Erriarte-eskutza irasle» izenburuan, eta azken ohartxo batean dio ez dela "guk asmatua, beste norbaitek erakutsi" a baizik.

erabilienak. Hainbat kasutan, urteetan zehar erabili den baten ordeaz, eta egile berak, aurrekoaren edizio berriztat argitaratu duenean, azken ordukoa bakarrik jaso dugu.<sup>4</sup>

### 2.2.1.2.- Azterketaren emaitzak. (Ikus III. 2.2.1.1. Eranskina)

Azterketa honek nahiko garbi adierazten digu hala *deretxo* (bere aldaerekin) nola *eskubide* hitzak, inoiz erabili badira ere, ez direla benetako lehiakide IUS adigaia izendatzerakoan.

*Lege*-ri eta *zuzenbide*-ri dagokienez, esan daiteke azken garaietako hiztegietan oso banatuta daudela erantzunak, eta banaketa hori, itxuraz, ez dela erabat aldatzen denboraren iraganarekin. Sarasola (1996) edo Morris (1998) bezalako azken uneko hiztegietan ematen den informazioaren arabera *lege* izango litzateke euskarak duen elementu lexikorik erabiliena IUS adigaiaren inguruko esanahiak adierazteko. Beste hiztegi batzuen arabera, *zuzenbide* izango litzateke hitza, *lege*-ren esanahia, LEX izango litzatekeen bitartean.

Edozein modutan, hiztegi-multzoa kontuan hartuta, nabarmena da *zuzenbide* (=IUS) hitzak presentzia handiagoa duela aurreko garaietan baino. Halaber, IUSen adjektibo erreferentziala den *juridico* /*juridique*-ren ordain gisa lehen ia bakarrik zegoen *lege*-ren parean agertzen dira *zuzenbide*-, *zuzenbidezko* eta *juridiko*.

## 2.3. 'lege' eta 'zuzenbide' azken garaietako erabilera espezializatuan: testuak eta hiztegi juridikoak.

### 2.3.1. Hiztegi eta hitz-zerrenda juridiko-administratiboetan (Ikus III. 2.3.1. Eranskina)

Hiztegi edo hitz-bilduma horietan agertzen denez, batzuek IUSen euskal ordainak, izen zein adjektibo, *lege*-ren gainean egiten dituzte; beste batzuek, aldiz, *zuzenbide* eta *juridiko* erabiltzen dituzte kasu guztietan. Badira, 1992ko *Herri Erakundeen Errotulazioa* bezalakoak, bi aukerak nahas-mahas erabiltzen dituztenak. Izan ere, askoren arteko adostasunez landutako errotulo-bilduma baita. Bestalde, badirudi azken urteotako argitalpen gehien gehinetan ematen zaiola lehentasunezko tokia *zuzenbide* hitzari oro har, eta *juridiko* izenondoari, IUS adierazteko.

<sup>4</sup> Esate baterako, Sarasolaren *Euskal Hiztegia* jasotzen dugu, baina ez Hauta Lanerako Euskal Hiztegia.

### 2.3.2. Testuetan, erakundeetan

Ezinezkoa zaigu benetako azterketa, erabileraren datuak kuantifikatzeko modukoa, egitea. Ez dugu uste, hala ere, oso oker ibiliko garenik, gure esperientzian<sup>5</sup> oinarriturik, ondoko datu orokorrak ematen baditugu.

Lege-testuei (LEX, noski) dagokienez, *EHA*An 1992 urtea arte, *lege*- izan da errorik erabiliena IUS adierazteko. Gutxitan erabiltzen ziren *zuzenbide* eta *juridiko*. Urte hartatik aurrera, gero eta maizago, gaur egunean ia sistematikoki, agertzen da *zuzenbide* erdarazko testuan IUS adierazten denean. *Nafarroako Aldizkari Ofizialean*, aldiz, hasieratik erabili izan da *zuzenbide*.

Administrazioetan, EAEkoan, HAEE/IVAPen argitalpenetan agertzen denez, *Aldizkarian* bezalatsuko eboluzioa izan da, eta gaurko egunean badirudi normaldu dela *zuzenbide*-ren erabilera. Foru aldundi eta udaletan, salbuespen batzuk kenduz gero, aspaldi dago orokortua *zuzenbide*-ren erabilera.

Gauza bera justizi administrazioan, zeinetan oso denbora gutxi arte euskarak oso tarte txikia izan duen, hasieratik *zuzenbide* eta *juridiko* hitzez adierazi da IUS adigaia. Justizia-administrazioan aritzekoan abokatuen euskal lana errazteko argitaratu diren eredu, formulario eta gainerakoetan, hala *zuzenbide* nola *juridiko* hitzak irakur daitezke.

Erabilera bereziatuaren beste arlo handia da IUS-jakintzari dagokiona. Esan nahi baita, IUS irakasteko testuena, eta IUSi buruzko ikerkuntza-testuena. Unibertsitate-irakaskuntzari dagokionez, UPV/EHUen zein Deustukoan, hala programetan eta beste argitalpen xeheetan nola liburuetan *zuzenbide* hitza sistematikoki erabiltzen da anbiguotasuna sortzeko arriskua egon daitekeen kasu guztietan.

Ikerkuntzari dagokionez, hurrengo kapituluan landuko dugunez, bi aldizkari dira nagusi IUSi dagokionez: euskara hutsezko *Eleria* eta HAEEk argitaratzen duen *Herri Ardularitzaren Euskal Aldizkaria (RAVP)*. Bietan, inolako zalantzarik gabe, azken hamarkadako lan guztietan irakur daitezke *zuzenbide* etak *juridiko* hitzak.

---

<sup>5</sup> Eta tesi honen emaitzetan. Ikus supra VI 5.2.5.

## 2.4. Ondorioak. Gure aukera

### 2.4.1. Hitzen erabileraren bilakera laburbilduz

- **‘deretxo’ hitza,**

Erdaratik hartutako hitz honek, bere alografoekin, erdaretan dituen adieren antzera izan ditu euskaraz ere: ‘zerga’ eta ‘eskubide’ adieretan agertzen da gehien bat.

IUS adieran ere agertzen da, gutxitan bada ere, Landucchio-ren hiztegian, Iraultza Frantseseko garaian, eta EEBSek erakusten duenez, bereziki 1940-1967 eta 1968-1999 tartean, hainbat bider. Gaurko egunean, ez dirudi inork erabiltzen duenik.

- **‘eskubide’ hitza**

Oso bakanka, OEHn ikusi dugun bezala, agertzen da hitz hau IUS esanahiarekin. Azken urte hauetan, badirudi haren esanahia, zuzenbideko testuetan ere, ongi finkatua dagoela, ‘ahalmen’ adieran.

- **‘lege’ hitza eta erroa**

Hala tradizio historikoan nola euskara batuko testu orokorretan IUS adierazteko gehien erabiltzen den hitza da. Bai *lege* hitza, bai *lege-*, elkarteen mugatzaile bezala, bai mugakizun bezala, bai *lege-tik* eratorritako *legedi*, *legeria*, *legebide* oso erabilia izan da, eta da, IUSen esanahi "osoarekin", bereziki hitz elkartuetako lehen osagai gisa.

Esan beharra dago, hala ere, 1978tik hona testu juridiko ofizialak agertzen direnetik, *zuzenbide* hitza lehian agertzen zaiola, eta testu juridikoetan gero eta nabarmenago ikus daitezkeela bi hitz horiek LEX eta IUS-en banakeran.

- **‘zuzen’ hitza eta erroa**

Testu klasikoetatik jadanik *lege*-rekin batera euskarak IUS adierazteko erabili duen hitzak azken urteetan ez dirudi agerpen asko duenik.

- **‘zuzenbide’ hitza**

Jadanik euskarazko lehen liburuan (Sarasola, 1996) agertzen den hitz polisemiko hau ez dirudi IUS modura uler daitekeenik kasu gehienetan. Azkue da estrainako aldiz erdarako *derecho*-rekin berdintzen duena. Harrezkero, aurreko hamarkadetan, oso bakanka agertzen da, harik eta euskara ofizial bilakaturik, benetako xede juridikoa duten testuak ugaritzen diren arte.

Orduz geroztik gero eta usuago azaltzen da, baina hitz horren erabilerak ez du finkotasunik. Horrela interpretatzen dugu hainbat hiztegitan ematen zaion

tratamendua: adiera hori ez jasotzean, eta IUS adigaiaren ordainak *lege* hitzarekin moldatzean. 2000 *Hiztegiak*, *Aulestiak*, *Morris-ek*, *Europako Ituneen Hiztegiak* edo *Euskal Hiztegiak* erakusten duten bezala.

Hortaz, esan daiteke gaurko egunean *zuzenbide* hitza aurreko garaietan baino erabiliago dela, bereziki testu teknikoetan, baina *lege-ren* erabilera eskusiboa nahiko indartsua da, hiztegi batzuen arabera behinik behin. *Eskubide* hitza, oso erabilia da, baina adiera ondo zehaztuan; *deretxo-ri* dagokionez, azken garaian baztertu dela esan daiteke.

#### 2.4.2. Gure aukera: IUS = *zuzenbide*

Ikusten genuenez, tradizioan pisu gehiago dauka *lege* hitzak, baina azken urte hauetan, berezitasuneko testuetan *zuzenbide* erabiltzen da nagusiki adiera horretan. Gure ustez, bi motatako arrazoiak daude horrela izan dadin: gaiari dagozkionak, nolabait esateko, hertsiki terminologikoak, alde batetik eta erabilerari dagozkionak bestetik.

Terminologia-arrazoiak: jakina da inguruko hizkuntzetan erabilera ez teknikoetan hitz berarekin adierazten direla maiz IUS eta LEX. Euskararen jokabide historiko bera. Baina, azaldu dugun bezala, bi adigaiok berezi behar izaten dira erabilera teknikoan. Hainbat mailatan gertatzen da beharrezkoa bereizkuntza. Maila kontzeptual nagusian, azaldu behar delarik IUS adigaiaren barruan, haren osagarri bezala badirela LEX ez direnak (ohitura esate baterako; izan ere, gerta daiteke ohiturak legeen aurka egotea, baina denak IUSen barruan). Beste maila teknikoago batean, badagoelako LEX arloan, erdaretan *ley/ loi/ llei* izen zehatza daraman arau mota, parlamentuak, ez beste inork, ematen duena, eta zehaztasunez bereizi behar dena. Horrelako zehaztasunak adierazteko unean begibistakoa da askoz erosoago ibil gaitzkeela IUS eta LEX bereizteko bi hitz desberdin baditugu.

Erabilerari dagokionez, zuzenbideko testuak, 1978az geroztik ugaltzen hasten direnean, zatiketa nabarmena da. Badira sistematikoki *zuzenbide* hitza erabiltzen dutenak, eta badira inoiz erabiltzen ez dutenak<sup>6</sup>. Gure azterketak erakutsi digunez, 1990ko hamarraldian gero eta arlo eta erakunde gehiagotan erabiltzen da *zuzenbide*. Egun, ez dugu ezagutzen inongo erakunderik edo eragile juridiko pisudunik *zuzenbide* hitzari muzin egiten dionik.

Gure aukera, beraz, egina dago, hala *lege* nola *zuzenbide*, eta honen adjektibo erreferetzialaren balioa duen *juridiko* hitzak baliatzea, zehaztasunak horrela eskatzen duenean, eta inolako arazorik gabe erabiltzea *lege*, eta *lege-nahasbiderik* ez denean.

<sup>6</sup> Esan bezala, bereziki Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian

### 3.- ZUZENBIDEKO HIZKERAREN EZAUGARRIAK

#### 3.1.- Zuzenbideko hizkera, espezialitateko hizkera?

Egia da lehen kapituluuan aztertutako LSPei buruzko ikerlanetan zuzenbidea ez dela izaten gaien artean prototipikoena. Aitzitik, han ikusten genuen bezala, maiz erabiltzen dira *hizkera tekniko*, *zientziako hizkera*, *teknikako hizkera* ‘*hizkera espezializatuaren*’ sinonimotzat. Gogoratu besterik ez dugu mundu horretako bibliografian “klasikotzat” jotzen diren Sager et al-en (1980) edo Kocouren (1991) liburuen izenburuak<sup>7</sup>. Bestalde, xede berezietako hizkerekin hain lotuta dagoen terminologiaren munduan ere, bigarren kapituluaren ikusten genuenez, “zentralitatea”, Linneus eta Lavoissier-engandik hasi eta Wüster-eraino beti natur zientzietan eta teknologien munduan egon da, teoria horiek giza-zientzietara zein neurritan diren aplikagarri, eztabaidagai izan delarik.

Era berean, ikusten genuen, hizkera bereziei eta terminologiei buruzko geroztiko lan sakonagoetan (supra I.1.3), Wüsterzaleen idealismoa eta zurruntasuna kritikatu ondoren, mota desberdinetako LSPak eta terminologiak onartzen zirela, eta horien artean, zuzenbidekoa.

Hizkera bereziei eta terminologiari buruzko lan orokorretan zuzenbideko hizkera aipatu gabe edo oso modu marginalean trataturik badago ere, zuzenbideko hizkera izugarritzko liburu eta artikuluko mordoaren gai da, zuzenean eta eskusiboki nahiz zeharka eta beste batuzekin batera.

Baina esan behar da, *LSP* “*prototipikoekin*” gertatzen ez den bezala, zuzenbidekoaz jarduten duten idazlan askotan irakurtzen direla hizkera horren kokapenari eta zernolakoari buruzko gogoetak, eta eztabaiden oihartzunak. Ez da, beraz, gai baketsua eta ikertzaileen ahobatekotasuna bereganatzen duena.

Begira dezagun, gaingiroki bada ere, nolako iritziak eta gogoetak agertu izan diren autore ezagunen lanetan puntu horiei buruz.

Autore batzuek, hizkuntza arrunta edo orokorra besterik ez dela azpimarratzen dute, ñabarduraren bat edo bestearekin; honela Cassese-k (1992:322) galdera egin ondoren, bere buruari erantzuten dio auzi horretan beti dagoela zalantza, hizkera juridikoa hizkera komunaren planoaren eta berariazko

teknizitatearen planoaren artean mugitzen delako. Sainz Morenok (1976:101) bere aldetik uste du zuzenbideko hizkerak ez duela oinarrizko ezer hizkera komunetik bereizten duenik. Visser't Hoof-ek (1974:22) aldiz, hizkuntza komunaren erabilera espezializatutzat ematen du; dioenez, zuzenbidekoa ez da "aparteko hizkera" matematikakoa bezala; hizkera komuna baita ia osotasunean.

Bide beretsutik dabilta Badenes Gasset (1973:70) dioenean hizkera juridikoa, funtsean, hizkera komunaren atal bat besterik ez dela edo Pesant eta Thibault (1993:9) diotenean nolabaiteko berezitasuna bai, baina hizkuntza naturalaren altzoan edo baitan, hizkera juridikoaren eta naturalaren arteko aurkaritasunik onartu gabe.

Dessemontet (1981:53-62) aipa daiteke formulazio eklektikoen adibide gisa. Autore horrek dio zuzenbidea komunitate bakoitzeko hizkuntza naturalean adierazten dela, baina juristek badutela halako joera bat hizkera tekniko erabiltzeko, zehatzagoa eta hermetikoagoa era berean. Ez dago, Dessemonteten iritziz, inolako muga garbirik hizkera komunaren eta hizkera juridikoaren artean, baina hala ere, dio, oso nabarmena da juristen hizkera.

Multzo honetan sartzekoak dira hainbat autore, zuzenbideko hizkerarekin oso kritiko agertzen direnak. Horien aburuz, hizkera juridikoaren berezitasunak, lanbide juridikoetako kideek berariaz areagotutako zerak dira, gehienbat talde-izaera eta hizkera izkutua gauzatzea xede dutenak. Hizkera juridikoaren deskribapen interesgarria, eta neurri batean "klasikoa" egin zuen Mellinkoff-ek (1963) horrelako ezaugarriak egozten zizkion legelarien jardunari.

Zenbait kasutan<sup>8</sup>, badira hizkera juridikoaren berezitasuna gehiago azpimarratzen edo nabarmentzen dutenak. Horien artean sailka daiteke Cornu (1990b:22), zeinak, esan ondoren hizkera juridikoa hizkuntza nazionalaren erabilera bat besterik ez dela, berezitasuneko hizkera bat dela baieztatzen baitu. Tiersmak (1999:142)<sup>9</sup> bere galderari erantzuten dio hizkera juridikoa ez dela

---

<sup>7</sup> I. kapituluaren ikusi genituen: *English Special Languages. Principles and practice in science and Technology* lehenarena, eta *La langue française de la science et de la technique*, bigarrenarena. Barne-orrietan (182 or.) honela zehazten dute Sager et al.-ek liburuaren gaia: "*English used in sciences (mathematics and the physical sciences) and technology (engineering and other applied sciences)*".

<sup>8</sup>Nahiz eta askotan, sakoneko analisiaren ondorio baino areago, formulazio aprioristikoak direla susmatzekoa den.

<sup>9</sup> "(...) *what is legal language exactly? A separate language, A dialect?, Jargon?, Argot? A style?. Not a dialect, not merely a jargon. Some other characteristics that have been attributed to sublanguages include 1) they have a limited subject matter; 2) they contain lexical, syntactic and semantic restrictions; 3) they allow "deviant" rules of grammar that are not acceptable in the standard language; and 4) certain constructions are unusually frequent. Most of these features seen to apply to legal language, and some scholars have indeed suggested that the language of the law is a sublanguage of English.*" (Tiersma 1999:142)

dialekto bat, ez eta *jargon* huts bat, eta ingelesezko ‘*azpihizkeren*’ ezaugarritzat ematen direnak aztertu ondoren deduzitzen du zuzenbideko hizkerak badituenez ezaugarri horiek, azpihizkeratzat (*sublanguage*) eman daitekeela. Danetek, (1985:275) aldiz, galdera beretik abiatuta, nahiago du *erregistro* (*register*) kategorian sartzea zuzenbideko hizkera.

Bhatiak (1987: 231) zalantzak agertzen ditu, bereziki zuzenbideko hizkerak eskas dituelako beste hizkera berezien ezaugarri batzuk, hala nola adigaien unibertsaltasuna, baina aitortzen du hizkera juridikoaren tratamendu akademikoa, *English for Special Purposes* bezalakoa dela.

Berezia badela onarturik, badira berezitasunaren alderdi bata edo bestea nabarmentzen dutenak. Honela, Duarte (1995b:12) lau mota desberdintzen ditu berezitasuneko hizkeren artean egiten duen sailkapenean —lanbide-hizkerak, hizkera teknikoak, hizkera zientifikoak, eta hizkera sinbolikoak— teknikoen artean kokatzen du zuzenbidekoa; aburukide ditu horretan Bizcarrondo (1995:60) zeinak hizkera komunikatiboa eratorria dela esanez, onartzen baitu hizkera juridikoa hizkera teknikoa dela, Bayo Delgado (1996:53), Arbós (1992:8) eta Etxebarria (1997:342).

Teknikotasun hori are gehiago azpimarratzen dutenen artean aipatzekoa da Frankenthaler (1984:77) zeinak hizkera juridikoaren definizio murrizgarria egin ondoren, esanez antzeko prestakuntza maila lortu duten espezialisten arteko komunikazio-bidea dela, ondorioztatzen baitu haren teknikotasuna handia dela.

## 3.2.- Zuzenbideko hizkeraren ezaugarriak

### 3.2.1. Hizkera berezien ezaugarri komunak

Gogora dezagun, LSPez modu orokorrean jardun garelarik (supra I.,3.5.), aipatzen genuela Cabrék (1992:140,151) zioena hizkera berezien ezaugarri linguistikoei buruz. Lau motakoak ziren, irakasle kataluniarraren iritziz: a) lexiko berezia, b) egitura jakin batzuen erabilera estatistikoki berezia, c) sistema linguistikoa orokorreko unitate eta egitura batzuen absentzia/ presentzia, eta d) linguistikoa ez diren kode batzuen erabilera. Berak zioenez, ez dira denak ezinbestekoak; izan ere, gizazientzietako hizkeretan salbuespenekoa da kode (formulak etab.) ez linguistikoen erabilera.

Beste hirurei dagokienez, zuzenbideko hizkeraren ezaugarriak deskribatzen dituztenak oro har, bat datoz esateko agertzen direla. Hala ere, kontuan eduki behar da, autore horiek, hizkuntza bateko testuak aztertzen dituztenez, hizkuntza jakin bateko hizkera juridikoaren ezaugarriak deskribatzen dituztela. Eta, aurrerago ikusiko dugun bezala, tradizioak eta kulturak pisu nabarmena



daukatenez hizkera juridikoen osatze-prozesuan, ondorio okerrak ateratzeko arriskua egongo litzateke hizkuntza bakarraren behaketatik ateratakoa guztietara zabaldu nahiko bagenu.

Hala ere, esan dezakegu, han-hemen, frantsesezko, espainierazko, italierazko, katalanezko, ingelesezko eta alemanezko hizkera juridikoei buruzko iruzkinetan irakur daitekeenak nahiko argi erakusten duela Europako mendebaleko (eta Ameriketako) mundu juridiko-kulturalean, gutxienez, zuzenbideko hizkerek oso antzeko ezaugarriak dituztela.

Baieztape horren frogabide bezala aipa ditzakegu Mellinkoff (1963) klasikoa, zeinak legelarien talde-hizkera kritikatu, ezaugarri lexikoak, morfologikoak eta estilistikoak aitortzen baitizkio, edo Tiersmaren (1999:142) deskribapen berria<sup>10</sup>, edo Kurzonena (1989:287). Azken honek, esapide eta sintaxi-egitura bereziak badiren arren, ez direla garrantzitsuak dio, ezaugarri nabarmena lexikoa dela gaineratuaz.

Frantsesezko hizkeraz Dessemontetek (1981:53-62) dio diskurtso juridikoa nabarmena dela, eta nabarmentasun hori morfologian, sintaxian eta semantika juridikoan datzala. Baina egiten duen deskribapenean azken finean ez da agertzen Cabrék ezarritako ezaugarriez gaindi doan ezer. Gauza bera gertatzen da, gure ustez Cornuren (1990) *La linguistique juridique* liburuan egiten den karakterizazioan: funtsean, lexiko bereziaz at, joera batzuk, aurrizki, atzizki eta egitura batzuen maiztasun desberdinak (1990:36).

Gauza bera diote espainiera juridikoaz arduratu direnak, besteak beste, Duartek (1995b:12) Bizcarrondok (1995:60) eta Etxebarriak (1997:361-365).

### 3.2.2.- Ezaugarri berezi-bereziak

#### 3.2.2.1.- Unibertsaltasun eza: sistema juridiko bakoitzari lotutako hizkera

Hizkera bereziak eta terminologiak karakterizatzen direlarik, sarritan irakur daiteke unibertsaltasunaren edo nazioartekotasunaren aipamena. Ikusten genuen bezala, terminologiaren aurre-suposamendu bat da hizkera berezien gai diren zientzietan adigaiak balio unibertsalekoak direnez, hizkuntza desberdinek, adigai unibertsal horientzako terminoak eratu behar dituztela, baina funtsean gauza berberak adierazten direla hizkuntza desberdinetako gai bereko hizkera berezietan. Hemen modu guztiz laburtuan ematen ari garen ideia horiek bere erabatekotasunean guztiz kritigarriak direla jakin arren, nahiago dugu horrela formulatzea.

<sup>10</sup> Gogora aurreko puntuko oin-oharra.

Zuzenbideari dagokionez, aldiz, gauza jakina da ez dagoela unibertsaltasun-pretentsiorik ere, abiapuntua bestea dela, alegia: zuzenbidea gizarte bakoitzari, eta zehazkiago esanda, komunitate politiko-juridiko bakoitzari dagokion errealitate partikularra da. Gerta daiteke instituzio juridikoak antzekoak izatea, eta horrela gertatzen da, bereziki, erlazio historiko-kulturalak daudenean gizartearen artean. Baina zientzien munduan partikularitasuna salbuespen modura ulertzen den bitartean zuzenbidearen munduari buruz lehen hurbilpenean hartzen dugun abiapuntua partikularitasuna da.

Ez dago hizkuntza desberdinen arabera agerpen desberdina duen errealitate bat, baizik eta, sistema juridiko-politiko batetik bestera, gutxiago edo gehiago, aldatzen diren errealitateak. Horrek adierazten du, zuzenbideko adigaiak desberdinak direla, edo izan daitezkeela, ez soilik hizkuntzatik hizkuntzara, baizik hizkuntza bakoitzaren barruan ere; edo hitz batek adierazten duen instituzio juridikoa guztiz ezezaguna dela beste zuzenbide batean, eta, noski, beste zuzenbide-hizkeran. Horrek dakar, latin-erroko hainbat hitz, hizkuntza desberdinetan homografoak, edo ia homografoak izanda ere (esate baterako: *FR procureur* # *ES procurador*; *FR prefet* # *ES prefecto*), instituzio juridiko desberdinen izendapenak izatea (Knapp 1991:13).

Gure ustez, hor datza zuzenbideko hizkeraren berezitasun apartekoenetako bat: hitzek, terminoek, sistema juridiko baten barruan, eta harengandik hartuta, daukate esanahia (Cornu 1990b:59).

Knapp (1991:3) berak edo Tiersmak (1999:133) seinalatzen duten bezala, hizkuntza beraren barruan era daitezke hizkera juridiko desberdinak (*legal dialects*, Tiersma-ren hitzetan), zuzenbideak hizkuntza bereko estatuetan jasaten duen eboluzio eta aldakuntza desberdinen arabera.

### 3.2.2.2.- Historia eta tradizio jakin bati lotutako hizkera

Terminologo batzuen ikuspegiari jarraiki, dikotomia garbi bat egingo litzateke hizkera komunaren eta *LSP*en artean. *LSP*etan, arrazionalismoa eta logika nagusituko lirateke, adigai bat termino bat korrespondentzia egongo litzateke, eta horren arabera, adaigaiaren aldaketak terminoaren aldaketa ekarriko luke, tradizioaren inertziareik gabe, alegia. Hau da, terminologiak lotura historiko eta kulturalik gabekoak izango lirateke, hizkuntza orokorrak, berriz, kultura partikular bakoitzarekiko erabateko mendetasuna edukiko luketen bitartean.

Hori inongo kasutan zeharo betetzen ez bada ere, autore gehienek azpimarratzen dutenez, zuzenbideko hizkerak eta terminologiak, hain zuzen ere, kontrako ezaugarriak dituztela, sistema juridiko bakoitzaren historiaren mendeko direlako. (Cornu 1990b:25).

Historikotasun horren zer-nolakoak azaltzen dituzte gaiaz arduratu diren autore batzuek, hala nola Goodrichek (1993:2085) zeinak azpimarratzen baitu tasun hori areagotu egiten dela *common law*-eko sistema juridikoetan. Horren zergatia esplikatzen du Frankenthaler-ek (1984:78), azaltzen duenean nola zuzenbideko hainbat hitzen definizioetan kontuan hartzen diren mendeetako lege idatziek, eta epaileen interpretazioek sortu dituzten ñabardurak, eta esanahi komunarekiko desbideraketak.

Antzeko azalpenak ematen dituzte beste autore batzuek (Bayo Delgado, 1996:53), Cornu (1990b:26), zuzenbideko hizkerak —dirudienez, hizkuntza "normal" guztietan— daukan beste ezaugarri baten berri ematerakoan. Arkaismoen erabileraz ari gara. Izan ere, estiloari dagozkionak alde batera utzirik, arkaismo lexikoen erabilerak badu arrazoi bat zuzenbidearen izaeran. Latinezko hitzak, sintagmak eta esapideak ere ugaritasunez erabiltzeak badu zerikusia zuzenbidearen funtzionamenduarekin.

### 3.2.2.3.- Legegilearen eginkizun berezia lexikoan

Aurreko ezaugarriekin loturik dago zuzenbideko hizkeraren berezitasun bitxi bat: nolako eginkizun berezia daukan kasu batzuetan legegileak zuzenbideko lexikoaren erakuntzan.

Izan ere, lege batzuetan legegileak hitz edo termino baten definizioa ezartzen du (Sainz Moreno, 1976: 102).; gehienetan, definizio hori, hitzak hiztegi orokorrean duen adieretako bat aukeratzea eta zehazki mugatzea besterik ez denez izaten, legegileak ez du "bortxatzen" hizkuntza naturala, ez aldaketa lexikorik eragiten.

Gerta daiteke, ordea, legegileak emandako definizioan hitzaren esanahi berria izatea (Didier, 1990:45)<sup>11</sup>. Hizkuntzaren erabileran guztiz arrunta den eragiketa horrek ondorio bereziak dauka zuzenbidean: izan ere, legegileak asmatutako esanahi hori legez ezarri egiten baita. Testu hura, eta haren ondorioz egiten diren maila apalagoko arau-testu guztiak interpretatzerakoan, ezinbestekoa izango da legegileak emandako definizioa atxikitzea (Iturralde, 1989:43).

Edozelan ere, argitu behar da *common law*-eko sistemetan askoz maizago jotzen duela legegileak definizioetara, eta gainera, hala zuzenbide espainiarrean nola frantsesean, interpretazio-arau nagusia dela testu juridikoak hitzen esanahi komunaren arabera ulertu behar direla.

<sup>11</sup> Kanadari buruz ari dela dio "*Le parlement fédéral dispose du pouvoir de créer des mots nouveaux, de donner à des mots existants des significations nouvelles (...) Dans ses domaines de compétences exclusives, le Parlement fédéral invente des mots nouveaux ou donne à des mots existants des nouvelles significations ou des significations étendues (...)*" Didier, 1990:45)

### 3.2.2.4.- Hizkera arruntetik hurbil

Kapitulu honetan gorago (3.1.) aipatzen genituen zalantzek eta eztabaidek, nabarmen uzten dute hizkera juridkoa hizkuntza komunetik hurbil dagoela. Hori horrela izateko arrazoiak begi-bistakoak dira: izan ere, alde batetik hizkera teknikoa bada, bestetik erabilera orokorreko hizkera ere bada. Esan daiteke, bere izaeragatik, zuzenbideak gizarteko sektore zabalengan duela eragina, eta gizarteko ehuneko handiak erabiltzen duela neurri batean edo bestean zuzenbideko hizkera, beste hizkera bereziak baino gehiago, zalantzarik gabe.

Ikusi dugu, bestalde, hainbat kasutan zuzenbideko diskurtsoetan agertzen diren iluntasunak, eta hizkera arruntarekiko desbideraketak, gehiago zor zaizkiela "tradizio" batzuei eta legelariak berariaz areagotutako ezaugarri soziolektalei, esan nahi baita, taldekoek bakarrik ulertzeko hizkerari, zuzenbideko adigaien teknikotasunari baino.

Bat datoz, autore gehienek adierazteko hizkuntza orokorrarekiko hurbiltasunean datzala zuzenbideko hizkeraren alderdi bihurrietakoa bat: zail dela jakitea noiz ulertu behar den testu bat hizkuntza arruntekoa balitz bezala, eta noiz zuzenbideko teknikaren arabera (Groffier & Reed, 1990:1-8)

Aurrerago, zuzenbideko terminoen ezaugarriak aztertzen ditugularik, itzuliko gara gai hauetara.

### 3.3. Zuzenbideko hizkeraren ezaugarri idealak eta *Plain English* delakoa.

Beste edozein hizkera berezi baino zaharragoa, eta gizarteko kide gehienengan eragina duena izanik, aspaldidanik egin izan dira hizkera horren, bere ezaugarri eta tasunen, deskribapenak. Jakina da, bestalde nola legeetako hizkerak eta estiloak eredutzat hartu izan diren hainbat hizkuntzako prosa garatzerakoan (Duarte 1984), (Duarte, 1985), (Etxebarria 1997:342). Autore horiek agertzen dutenez, hainbatetan, gizartean zuzenbideko hizkerak izan du halako ospe eta itzal handia: argitasunaren eta zehaztasunaren eredutzat hartu izan baita.

Ez da, ordea, beti horrela izan, eta Montaigne<sup>12</sup> edo Jonathan Swift<sup>13</sup> bezalako idazle ospetsuek ironia garratzez beteriko kritika zorrotzak egin zizkieten lege-hizkerari. Dakigunez, kritikagai hori ez da inoiz agortu.

Zuzenbideko hizkeraren ezaugarriak eta nolakotasunak deskribatzerakoan, bereziki idazlea jurista delarik, maiz egiten da ez benetako testuen azterketa

---

<sup>12</sup> *Essays*, II Liburukia, XIII. kapituluua

baizik legelarien tradizioan beren hizkerari egotzi izan zaizkion tasunen (zehaztasuna, logikotasuna, unibokotasuna...) kontaketa. Halaz eta guztiz ere, esan beharra dago sarritan, juristen lanetan aurkitzen direla hizkera haren kritikarik zorrotzenak.

Horrela, Jestaz-en (1991:72-75) irakur daiteke hizkera juridikoak autonomia, teknikotasuna, zehaztasuna, eta koherentzia dituela ezaugarri. Knappek (1991:4-5) bere aldetik, ondoko tasunak egozten dizkio: “*Accuracy, Consistency, Discernibility, Unemotionality, Intelligibility* “ baina ez dago oso garbi horiek badiren, edo izan beharko luketeen, zeren ikertzaileak berak aitortzen duenez ez dira erabat betetzen egiazko testuetan.

Duartek eta Brotok<sup>14</sup> (1990:11-12) egiten duten zuzenbideko hizkeraren karakterizazioan ere, hizkuntz baliabideen erabilera bereziaz gainera, zehaztasuna, antolamendu semantikoa, erregistro formala eta inpersonala, eta komunikazioaren eragingarritasunera bideratua dela dio. Egia da, aipuan berean ageri dela Duartek ez duela sinesten horiek direnik zuzenbideko testuen ezaugarriak edo tasunak, izan beharko lituzkeenak, baizik. Hain zuzen, bere liburu guztian, nola beste artikulua eta lanetan agertzen direla tasun horiek edukiko dituzten testu juridikoak ekoizteko beharra, eta horretarako aholkuak eta metodoak.

### 3.3.1.- Hizkera juridikoa errazteko eta argiagotzeko ahaleginak.

Ezaugarri ideal horien, eta testuetan benetan agertzen direnen arteko aldea oso handia izaten dela ohartzetik datoz, aspalditik egin izan diren saioak zuzenbideko hizkera hobetzeko eta argiagotzeko.

Gorago esan dugun bezala, hizkera horren kritikak eta alderdi kritikagarriak zuzentzeko proposamenak aspaldikoak dira, baina proposamen horiek metodikoki landu eta praktikara eramatea, XX. mendeko azken laurdeneko kontua izan da.

---

<sup>13</sup> *Gulliver's Travels*

<sup>14</sup>“*L'ús de recursos lingüístics específics (ara com a forma específica – mot, prefix, etc.–, adés com a aplicació semàntica o freqüència d'aparició específiques d'una forma comuna). La tendència a la precisió, a la matisació i a l'estructuració semàntica dels termes, a fi d'establir una organització conceptual coherent i completa, que abracci totes les realitats designables i que les designi de manera inequívoca. Aquest tret comporta també el defugiment de la sinonímia. El tó formal i impersonal (..) amb què s'ha d'expressar, que s'ajusti a l'objectiu de l'aplicació de la llei i de respecte a la veritat. El caràcter predominantment funcional: el text jurídic no ha de pretendre la bellesa estètica o la demostració d'un vocabulari extens que inclogui formes arcaiques que tenen un equivalent usual, sinó l'eficàcia comunicativa. Aquest tret comporta l'ordenació interna del text i la seva esquematització, però també fa referència a la conveniència d'utilitzar un llenguatge clar, explícit, i, en la mesura que sigui possible, planer.*” (Duarte & Broto, 1990:11-12)

Jadanik topikoa den aipu batek dio 1975an, Estatu Batuetako Citibank bankuak eman ziola hasiera hizkera-juridiko administratiboa eraberritzeko lehen kanpainari. Urte gutxiren buruan, 1978an, Carter presidenteak hainbat arau eta aholku argitarazi zituen administrazio-publikoetako testuak ulergarriak izan zitezten (Danet, 1980: 480 eta hurr.), (Erkoreka, Lozano (koord), 1994:14). Ia garai berean Erresuma Batuan eta gainerako estatu anglofonoetan (Cutts & Maher, 1986:10), (Maher, 1996), (Kimble, 1996) “*Plain English*” delakoak nolakoa izan beharko zuen ikertzeko (Danet, 1985:286 eta hurr.) eta erabilera bultzatzeko eginahalak hedatu ziren. Laister, Kanadan eta Europako herrialdeetan, aurreratuenetatik hasita, biziki indar handiz zabaldu zen hizkera juridiko-administratiboa errazteko grina.

Gure hurbileko mundu juridikoan, katalanak izan dira erakunde autonomoetatik gai hori gehien landu dutenak, eta espainieraz, Luciana Calvo Ramosek 1980an argitaratutako *Introducción al estudio del lenguaje administrativo* liburua aintzindari izan zelarik, hizkera juridikoa hobeto ezagutzeko eta deskribatzeko lanak egin dira<sup>15</sup> eta agintari publikoek ere hartu dituzte neurri batzuk<sup>16</sup>, oso eskasak, gure ustez, bide horretan.

Euskarari dagokionez, 1990etako hamarraldian gauzatzen dira hizkera juridiko-administratiboa errazteko saioak, horietako gehienak, sistematikoenak, HAEE/IVAPen inguruan.

Lan horren fruituak, *Administrazioa Euskaraz* aldizkarian eta liburu gutxi batzuetan bildurik aurkitzen ditugu<sup>17</sup>. Hona gure ustez liburu garrantzitsuenak: alde batetik, *Hizkera argiaren bidetik* (Erkoreka, Lozano (koord), 1994), eta *Argiro idazteko proposamenak eta ariketak* (Lozano (koord), 1997) ditugu; bien izenburuek salatzen dutenez, helburu praktikoko liburuak dira baina badago bietan bai hizkera juridiko-administratiboa errazteari buruzko teorizazioa eta informazioa, bai eraberritu nahi den hizkeraren deskribapena. Beste aldetik Zubimendiren (1999) *Udal-agiriak* liburua dugu, guztiz praktikoa, eredu hutsak baitira.

Horiez gainera, badago 1996ean HAEE/IVAPek antolaturiko *Hizkera errazteari buruzko jardunaldietako ponentziak* jasotzen dituen liburua (HAEE/

<sup>15</sup> Interes berezia dute Calvo Ramos-en 1983, 1995 artikulua, ikus halaber Duarte, Alamany, 1983; Duarte, Alsina, Sibina, 1993,; Marti i Mainar 1992; Comet i Codina 1986, 1988; Prieto de Pedro, Abril Curto 1987; Prieto de Pedro, 1990, 1991, 1996; Etxebarria 1997

<sup>16</sup> Orokorrena, eta garrantzitsuena: *Manual de Estilo del Lenguaje Administrativo*, Ministerio para las Administraciones Públicas delakoak 1990an argitaratua Madrilen

<sup>17</sup> Hori, metahizkuntzari buruz ari garela, zeren nabarmena da azken urte hauetako testu juridikoak, oro har, aurrekoak baino askozaz ulergarriagoak direla. Zalantzarik gabe, ahalegin teoriko-didaktikoen ondorio, neurri batean bederen.

IVAP:1996), *Administrazioaren eta herritarren arteko komunikazioa hobetu nahian* izenburukoa, garrantzi berezia duena haren izaera teorikoagatik, eta bereziki, bertan planteatzen direlako hizkera juridiko-administratiboa erraztu nahiarri, edo errazteko moduari kritika batzuk.

Badira hiru egile argiagotze edo errazteko saio horien zenbait arazo planteatzen dituztenak: Cunqueiro (1996), eta Urrutia (1996) eta Prieto de Pedro (1996). Hirurak bat datoz kritikatzekoan hizkera juridikoarekin eta administratiboarekin egiten den nahasketa, eta zuzenbideko hizkera administrazioak herritarrekin erabili behar duen diskurtsoa baino gehiago dela salatzerakoan. Baina hiruretan, Urrutiarena da interesgarriena, batez ere euskarari zuzenean dagokiolako. Urrutiak, bere kezka agertzen ditu ea ez ote garen ari beste kultura juridikoetan eta beste egoera linguistikoetan egin dena mimetismo hutsez gurera ekarri nahian. Bere aipu batean adierazten duenez, kezka horiek jadanik Bizcarrondok (1995) agerian ipiniak zituen.

## 4. ZUZENBIDEKO HIZKERAREN AZPIHIZKERAK

### 4.1. Zuzenbide-hizkera eta ingurukoak

Gorago idatzi dugu ezen zuzenbideko hizkera bereziaz ari garenean, beste hizkeretan ez bezala, lehenik IUSEz ari garela, hots, gizarte-erlazioak arautzen dituen arau-multzo edo sistemaz, eta nolabait esateko, modu sekundarioan, zuzenbideari buruzko zientziaren hizkeraz. Uste dugu inork ez duela bi mundu horietako ezein erabat baztertzen zuzenbideko hizkeraz ari delarik, nahiz eta sarritan oso formulazio anbiguoak egiten diren, bereziki zuzenbideko hizkera “talde-hizkera nahita berezi bihurtua” bezala kritikatzan dutenen artean.

Jadanik aipatua dugun Mellinkoffen (1963:3) *The Language of the Law* liburu ezagunean honela zehazten da *zuzenbideko hizkeraren* esanahia:

*“The language of the law, as described in this book, is the customary language used by lawyers in those common law jurisdictions where English is the official language. It includes distinctive words, meanings, phrases, and modes of expression. It also includes certain mannerism of composition non exclusive with the profession but prevalent enough to have formed a fixed association.”*

Argi dago, hitzez hitz sinetsiz gero, hor dioena lanbide-talde jakin batzuetako hizkeraz ariko litzatekeela, soziolekto-izaeratik hurbilago dagoen zerbaitez, alegia, eta hizkera horretatik kanpo geratuko liratekeela, bai zuzenbidearen irakaskuntzaz eta zientziaz idatzitako testu guztiak, eta baita,

zorrotz jokatuta, legeetako hizkera, ez baitago esaterik ez legegileak ‘*lawyer*’ direnik, ez lanbide-talde baten hizkera denik. Eta izan ere, Mellinkoffen liburuan zuzenbide hizkera, osotasunean dago aztergai, abokatuen hizkeran gehiago luzatzen bada ere.

Beste aldetik, idazle batzuen eta besteen aztergaiak eta terminologia aztertuaz, ikus dezakegu oso maiz modu nahasian erabiltzen diren izendapenak eta adierazpenak direla *hizkera juridikoa* eta *administrazio-hizkera*. Hemen ere, zail izaten da zer den terminologia-kontua eta zer den alorren nahastea bereiztea.

Hainbat aldiz, administrazio-hizkera aipatzen delarik, bete-betean juridikoak diren testuak —lege-testuak, esate baterako— aztertzen dira. Honela, Calvo Ramosen (1980) *Introducción al estudio del lenguaje administrativo* liburuan, teoria mailan hizkera juridikoa eta administratiboa (1980:16) bereizten badira, arau-testuak (“*Leyes, Decretos, Órdenes, Resoluciones*”) aztertzen dira. Izan ere, ezinezkoa izango bailitzateke administrazio-hizkeratik arau-testuak baztertzea.

Gure aldetik, uste dugu praktikoagoa dela gorago aipatutako Cunqueirok<sup>18</sup> (1996:155) eta Urrutiak (1996:144) proposatzen duten bezala bi adigai bereiztea, ezin baita “administrazioaren” barruan sartu mundu juridiko osoa, eta ondorioz, bakoitzari bere izena ematea. Hori izango da gure jokabidea.

## 4.2. Sailkatzeko irizpideak. Zuzenbideko azpihizkerak, estiloak edo generoak.

### 4.2.1. Lege-hizkera, legelarien hizkera.

Juristen munduko autoreen eskutik maiz aurkitzen dugu zuzenbide hizkeraren barruan bi hizkera-mota banatzen dituen lerro bat: legearen hizkera eta legelarien hizkera bereizten dituenena. Hemen ere, zail egiten da, dagoen aniztasun (edo anabasa) terminologikoan zehatz jakitea zertaz ari diren. Sailkapen-irizpide hau proposatzen dutenen oinarria ez da izaten testuen azterketa bat, baizik kontsiderazio metodologikoak. Funtsean, bi hizkera edo testu-mota bereizten dira: alde batetik zuzenbidearen “iturriak” hau da, erlazio juridikoak sorraraztea helburu duten testuak, eta bestetik, testu horien gainean, eta horiei buruz, zuzenbidearen eragileek, irakasleek eta ikertzaileek moldatzen dituzten testuak.

---

<sup>18</sup> “*Otra cosa diferente al lenguaje administrativo es el lenguaje jurídico, lenguaje que conforma los textos de los operadores jurídicos: textos legislativos, sentencias judiciales, documentación pública, informes y defensas de letrados, obras de investigación jurídica...*” Cunqueiro (1996:156)



Ez denez gure helburua sailkapen horren sustrai historikoak aztertzea, azken hamarraldietako autore batzuek esaten dutena aztertzeraz mugatuko gara.

Jadanik, Nuñez Encabok (1973:568) bi hizkera horiek, zuzenbidearen hizkera eta juristen hizkera bereizten zituen, garai beretsuko Ziembinskik (1974:25) egiten zuen modu beretsuan.

Wroblewski (1988) da segurki irizpide hau modu sistematikoenean aurkeztu duena. Bere planteamenduan *legearen* hizkera eta *legelarien* hizkera dira lehen berezi beharrekoak. *Legearen* hizkera, izenak berak adierazten duenez, legeko, eta zuzenbideko gainerako iturriak idatzita dauden hizkera dugu, eta *legelarien* hizkera, berriz, zuzenbidearen eragileek, hau da, epaileek, abokatuek, juristek, zuzenbideari buruz dihardutenean erabiltzen duten hizkera. Planteamendu horretan lehentasuna, *legearen* hizkerarena da, *legelariena*, haren gaineko metahizkuntza bat baita, *legearen* hizkera objektutzat duena.

Dikotomia horrekin bat datoz autore asko, esate baterako Hernandez Gil (1989:375), ("*lenguaje de las normas*" vs "*lenguaje de los juristas*"), Iturralde Sesma (1989:30-31) ("*lenguaje de la ley*" vs "*lenguaje de los juristas*") edo Kurzon (1997:120)<sup>19</sup>. ("*Language of the Law*" vs "*Legal language*") diotelarik. Bai batzuek eta bai besteek zehazten dutenez, dikotomiaren lehen terminoa ez dagokio soilik arauetako hizkerari, baizik eta zuzenbidearen iturri izan daitekeen guztiari, beraz, legegintzakoari, kontratuetaoari, testamentuetaoari, eta abar.

Oro har, oinarriko sailkapen-irizpide bera onartzen du Knappek (1991:2) esaten duenean "*language of legal rules*" eta "*professional legal language*" bereizi behar direla, baina hirugarren elementu bat sartzen du, "*legal slang*", haren aburuz hizkera-mota desberdina osatzen duena, eta izendapenak salatzen duenez, zuzenbide-lanbideetako jendeak "talde-hizkera" eratzeko asmoz egiten duena.

#### 4.2.2. Irizpide pragmatikoen arabeko sailkapenak

Hainbat autorek aurreko irizpideei beste irizpide pragmatikoak eranstean dizkiete, hizkera edo testu juridikoen sailkapen xehetuagoak proposatuaz.

Irizpide horiek oso lotuak egoten dira aurrekoekin. Wroblewskik (1988:21) berak dio<sup>20</sup> irizpide pragmatikoen arabera egiten duela aurreko banaketa. Irakasle poloniarren aburuz, pragmatikak, diskurtsoaren helburu

<sup>19</sup> "My conclusion was that legal language is in fact a metalanguage used to talk about the law in a broad sense, and the language of the law is literally just that —the language in which the law is written." Kurzon (1997: 121)

<sup>20</sup> "Notre typologie des langages du discours juridique est en conséquence fondée sur la pragmatique. Les types de discours y sont identifiés par les personnes qui emploient le langage (...). Les buts communicatifs du discours déterminent les caractéristiques du langage (...)." (Wroblewski, 1988:21)

komunikatiboak, determinatzen du nolako hizkera izango den; bereziki determinatzen ditu hizkera horren semantika eta adierazpen linguistikoen nolakotasunak.

Irizpide horien arabera bereizten dituen azpiahizkerak honako eskema honetan ikus daitezke.

## Zuzenbide- hizkera

### A. Legearen hizkera

### B. Juristen hizkera

B.1. Jurisprudentiaren hizkera

B.2. Hizkera juridiko zientifikoa

B.3. Hizkera juridiko arrunta

B.3.1. Abokatuen hizkera juridikoa

B.3.2. Jendearen hizkera juridikoa

Irizpide sozio-pragmatikoetan oinarriturik egiten du Trosborgek<sup>21</sup>(1995:2) oso antzeko sailkapena. Autore honen aburuz, hizkera aldatu egiten da komunikazio-funtzioaren arabera eta mezuaren jaulkitzaile/ hartzaile errol-erlazioen arabera. *'Legal language'* izenekoaren barruan sartzten ditu zuzenbide-munduko hizkera guztiak; bost sailetan banaturik: *'language of the law'*, zeinetan sartzten baititu hala legeria nola beste zuzenbide-iturriak (kontratuak, eta abar), *auzitegietak*o hizkera, *irakasliburuetako hizkera*, *abokatuen hizkera*, eta *jende (arrunt)ak*, zuzenbidea duelarik gai, egiten duen hizkera. Horietako azpiahizkera bakoitza, beste azpi-azpiahizkeretan banatzen du.

Beste askoren maisu den Cornu (90:17 eta 216 eta hurr.) frantsesak, bestelako irizpideak erabiltzen ditu diskurtso juridikoaren motak sailkatzeko. Frantziako hiztegi juridiko ospetsuenaren egileak kontuan hartzen ditu zein diren komunikazioaren eskemako elementuak, zein diskurtsoaren subjektuak, zein mezuen motak eta zein diren erabiltzen diren adierazpide-motak. Horrela

<sup>21</sup>“ Here legal language is considered a specific domain of Language for Specific Purposes (LSP), which domain, in turn, can be divided into a number of subdomains presumed to involve linguistic diversification.

The language of the law is viewed as one among several sublanguages of legal language. As such my definition is seen within a conception of LSP which views LSP as a range of domains which branch into subdomains each encompassing a number of sublanguages.”(Trosborg, 1995:2)

analizaturik<sup>22</sup> zuzenbide-hizkera, lau azpihizkera nagusi nabarmentzen ditu: *lege-hizkera*, *jurisdikzio-hizkera*, *hitzarmen-hizkera*, eta *ohiturazko hizkera*, eta bosgarren bat, dio, gehi dakieke aurreko lauei: *administrazio-hizkera*.

Pragmatikazko elementuak irizpidetzat hartuaz egindako beste sailkapena da Knappek (1991:2) proposatzen duen hirukoa: a) zuzenbide-arauetako hizkuntza, b) zuzenbidearen zientziaren hizkuntza, eta c) epaileen zuzenbide-hizkuntza.

Espainiako zuzenbide-munduaz ari direla, hainbat juristak hartzen du oinarritzat Sainz Morenok (1976:102) egindako formulazioa. Haren aburuz, lau hizkera-mota bereiz daiteke: arauetakoa, epaietakoa, judizio-hitzaldietakoa eta zuzenbideko literaturakoa. Baina ezagunagoa, onartuagoa, esango genuke, dela Hernández Gilek (1986) proposatzen duen beste lauko sailkapena, bertan toki berezia eginez hizkera administratiboari.

Gure artean, Urrutiak (1989:18) esplizituki adierazten du puntu horretan Hernandez Gilen aburukide dela, eta hain zuzen ere, administrazio-hizkera adigaia eta zuzenbide hizkera ez nahasteko komenigarritasunaz ari dela (1996b:143-144) modu zabalagoan agertzen du bere pentsaera gai honetaz honako lau hizkera hauek proposatuaz: *lenguaje legal*, *lenguaje administrativo*, *lenguaje judicial*, eta *lenguaje doctrinal*.

Gure ustez, legearen hizkera eta gainerako zuzenbide-hizkerak desberdintzeko arrazoiak, denek onartuak, zentzuzkoak dira; hurrengo sailkapenari buruz, uste dugu, Urrutiarekin, administraziokoa eta doktrinakoa edo zuzenbide-zientziakoa bereiztea egokia dela; azkenik, *lenguaje judicial* delakoan, zuzenbidearen praktikako hainbat testu mota sar daitekela.

#### 4.2.3. Testu juridikoen tipologia, ahozkotasuna / idatzizkotasuna irizpide.

Badira hizkera juridikoen sailkapenerako beste irizpideak proposatzen dituztenak. Horrela, Tiersmak (1999:139-141) testu juridikoak aztertuz, ‘*genre*’ desberdinak bereizten ditu: ‘*operative legal documents*’ dira, haren hitzetan, oro har, zuzenbidea ezartzen dutenak, publikoak (‘*pleadings*, *petitions*, *orders* eta *statutes*’) zein pribatuak. (‘*contracts and bills*’). Horietan aurkitzen dira, Tiersma- ren ustez, zuzenbideko hizkeraren (‘*legalese*’) ezaugarriak nabarmenenak eta zurrunenak. Beste mota da ‘*expository documents*’ deitzen duena. Horien adibideak izan daitezke, txosten juridikoak, edo abokatuak bezeroari zuzendutako

<sup>22</sup> “L’analyse met en relief les quatre grandes langages qui sont au sein du langage du droit: langage législatif, langage juridictionnel, langage conventionnel, langage coutumier (quatre ou cinq si l’on y ajoute le langage administratif) Dans cette diversité,

gutunak, baita epaileen irizpenak ere. Hirugarren motakoak dira ‘*persuasive documents*’. Azken “*genero*” honetan sartzen ditu Tiersmak auzitegiei zuzendutako informeak eta memorandumak. Egile horren ustez, gradazio batez hitz egin daiteke, mota batekoak askoz ezaugarri markatuagoak dauzkatelarik beste batzuetakoak baino.

Interes berezia dauka, gure ustez, Bhatiak (1987) proposatutako sailkapenak. Berak ere, azpihizkera adigaia ukatuaz, ‘*genre*’(genero)-z ari dela dio. Bere sailkapenerako, bi hizkera-mundu bereiziko ditu: lehenik: ahozko hizkerarena, non bereiziko diren ingurune akademikoa alde batetik, eta ingurune profesionala bestetik, bertan bereiziaz abokatu-bezero harremanak, lekukoen eta haien galdetzaileen arteko harremanak. Eta bigarrenik, idatziarena, zeinetan bereiz daitekeen arlo akademikoa (testu-liburuak, aldizkariak), arlo judiziala ‘*cases and judgements*’ eta ‘*legislative*’ (kontratuak, arauak) deritzon arloa azkenik.

Gai honetaz ari delarik, Bizcarrondo (1995: 67), Sainz Morenoren (1967) ildotik, *estilo* desberdinez mintzo da: arauetakoa, judizio-ebazpenetakoa, abokatuena eta literatura juridikokoa bereiziaz.

Gémar-ek (1987) itzulpengintza juridikorako zuzenbide-testuen tipologia kontuan hartzea proposatzen du. Haren ustez, honako testu-motak bereiz daitezke: legea, erregelamendua; epaiak eta prozedura-aktak; egintza juridikoak eta doktrina-testuak.

Aurrerago, ordea, estiloez ari dela, dio legeetako eta negozio juridikoetako estiloak beretsuak direla, eta horiez gainera, beste bi bereizten ditu: judizioetako epaietakoa alde batetik, eta judizioetako hitzaldietakoa, bestetik.

Bi puntu azpimarratuko genuke autore horien aipua ikusi ondoren: alde batetik iritzi-aniztasuna: denetarik aurki daiteke: hirutan, lautan, bostetan banatzen dutenak, eta bestetik, nola hutsik gabe, denek aipatzen duten azpihizkera, estilo edo genero berezi gisa *lege-hizkera* edo zuzenbidea sortzen duten testuetako hizkera. Azken puntu honi eutsiko diogu aurrerago, ikertu beharreko zuzenbide-testuak aukeratzerakoan.

#### 4.2.4. Irizpide terminologikoa: Zuzenbideko adarrak azpihizkeren funtsa.

Aurreko sailkapen guztiek baino ondorio praktiko gehiago dauka irizpide terminologikoetan oinarrituriko hizkeren sailkapenak. Sailkapen honek,

---

*la typologie des discours fait voir tous les recoupements que l'on peut faire pour mettre*

zuzenbideko azpigaien arabera, alegia, mundu akademikoan ditu sustraiak. Izan ere, juristen formazioan, aspaldidanik egiten dira zuzenbideko adarren edo gaien arteko halako sailkapena, Zuzenbide jakintzaren barruan Zuzenbide Zibila, Zuzenbide Penala, Administrazioa, Merkataritza, Nazioartekoa, eta abar bereizten dituenak.

Jakina da bereizkuntza horiek ez direla soilik akademikoak, horietako adar edo esparru bakoitza zuzenbide-alar berezi bat baita, normalak diren teilkatze eta multzokatzeekin, eta zuzenbide-eskola teoriko bakoitzak proposatzen dituen ñabardurekin. Ezaguna eta kontuan hartzekoa da, halaber, zuzenbideak hain desberdinak izanik estatutik estatuta, ez dagoela, puntu batzuetatik aurrera balio orokorreko sailkapenik. Nabarmena da, Mendebaleko kultura juridikoari dagokionez, *Common Law*-eko eta Zuzenbide Erromatarren ondorengo zuzenbide-sistemen artean dagoen jauzi kontzeptuala, sailkapenetan ere islatzen baita.

Irizpide hau, gorago esan dugun bezala, eragin praktikoa da. Izan ere, zuzenbide munduko hiztegi terminologikoei begiratu bat emanez gero, nabarmena da bi mota nagusi daudela: zuzenbidea osotasunean hartzen dutenak, eta zuzenbideko diziplina bakoitzekoak, alegia, zuzenbide zibileko, zuzenbide penaleko, lan-zuzenbideko, administrazio-zuzenbideko, zerga-zuzenbideko eta horrelako hiztegi espezializatuak.

Irizpide hau bat dator I. kapituluko 4.2. eta II.kapituluko 1.3.3. puntuetan aipatzen genituen gaien arabera hizkeren nahiz terminologiaren sailkapen irizpide orokorrenarekin, baina, zuzenbidearen kasuan ohartarazpen berezi bat gehitu behar da. Izan ere, I. kapituluaren sailkapen-mota horri egiten genizkion kritikez<sup>23</sup> gainera, esan behar da zuzenbideko gaikako azpizkeren kontua sistema juridiko bakoitzean historikoki egin izan diren sailkapen akademiko eta doktrinalen arabera izaten dela.

Ohar horiek guztiak kontuan hartuta, uste dugu baliagarri izan daitekeela zuzenbide hizkeraren barruan zein adar edo atalez ari garen jakitea, izan ere, begi bistakoa delako euskararen kasuan<sup>24</sup>, zuzenbidearen adar batzuek izan dutela erabilera eta garapena maila bateraino, beste zenbait, aldiz, ia erabilerarik gabekoak izaten jarraitzen duten bitartean.

---

*en valeur les similitudes et les oppositions.*" (Cornu 1990 :17)

<sup>23</sup> Kocouren (1991:34-36) oinarritzen ginen sailkapen horren kritikarako.

<sup>24</sup> Hurrengo kapituluaren, IV.ean aztertuko dugu gai hau.

## 5.- Zuzenbideko terminoak

### 5.1. Zer dira termino juridikoak

Orain arte ikusia dugu zer den terminoa, eta saiatu gara zedarritzen zeri deitzen diogun zuzenbideko hizkera berezia; ondoko lerroetan ahaleginduko gara apur bat gehiago zehazten zein diren zuzenbide hizkera berezi hori osatzen duten terminoak, zein diren beren ezaugarri semantikoak eta lexiko-sintaktikoak.

Lehenik gai horretaz aritu diren ikertzaile batzuek diotena aztertuko dugu, eta ondoren, zuzenbideko hiztegi espezializatu batzuetan termino juridikoak nola jasotzen diren aztertuko dugu.

Orokorki onartutako ideia da testu juridikoan dauden hitz guztiak ez direla termino juridikoak; izan ere, denok baitakigu hizketa gauzatzeko orduan ezinbestekoak diren funtzio-hitzak edo gramatika-hitzak, berez direla orokorrak, hots, hizkuntzaren baliabide orokorrak, eta haien funtzioa zein esanahia ez dela aldatzen testua orokorra edo espezializatu izan. Baina edozein testu juridikotan, hitz horiez gainera, beste hitz esanahidun asko (izenak, izenondoak, aditzak edo aditzondoak) juridikotzat kalifikatu behar ote diren azterkizun legoke.

Ondoko lerroetan egingo dugun hainbat hiztegi juridikoren errebasoan egiaztatuko dugu oso mota ezberdineko sarrerak aurki ditzakegula legelarien erabilerarako tresna lexikografiko horietan. Aurrera dezakegu hiztegi horietan, irizpide terminografikoak, lexikografikoak, entziklopedikoak, enpirikoak, nahas-mahas aurkitzen ditugunez, laguntza eskasekoak zaizkigula zuzenbideko terminoa zer den definitzerakoan. Hortaz, hainbat autoreren gogoetak ekarriko ditugu honetan argibide gisa.

Abiapuntutzat har dezakegu Cornuk (1990b:59) dioena:

*“(...) Les termes sont retenus en raison de la signification que leur donne le droit, plus précisément, le système juridique français.”*

Esaldi horretan frantziar hiztegiak hertsiki lotzen ditu *termino juridikoa* eta *sistema juridikoa*, ez gainera sistema juridiko orokor unibertsal bat, baizik eta zehazki Frantziakoa. Bere hiztegia, frantsesezkoa izanik, ez du balio herrialde frankofono guztietarako, Frantziako Errepublikarako soilik baizik.

Hitz (termino) baten juridikotasuna erabakitzeke irizpideez ari delarik, Cornuk (1990a:IX) dio ez dela nahikoa hitz bat testu juridiko batean azaltzea juridikoa dela erabakitzeke, eta, beraz, hitz horrek zer adierazten duen begiratu beharra dagoela. Esanahiari gagozkiola, *sortzezko juridikotasuna* (*'juridicité native*) aitortzen die bere izana zuzenbideari zor dioten izaki guztiei, esan nahi

baita, alde batetik, zuzenbideak ezartzen dituen guztiei (e.b, *semeordetza*, *edo oinordekotza* bezalako instituzio juridikoei), eta bestetik, zuzenbidearen arabera ez bada, era ezin daitezkeen zerei (*familia*, *elkartea*...). Baina horietatik at geratuko lirateke hainbat eta hainbat egitate eta gertaera natural, sozial, ekonomiko, politiko eta abar, zeinei zuzenbideak ondorio juridikoak egozten baitizkie, esate baterako, jaiotza, adina, erotasuna, hondamendi naturala, eta abar. Cornuren aburuz, ez da irizpide nahikoa zerbaitek ondorio juridikoak ukaitea; ezinbestekoa da erreferentzia egitea zuzenbidearen ikuspegitik zentzua ematen dion adigai juridiko bati. Horrela, dio, ez du hiztegian sartu '*houragan*' hitza, bai ordea, '*force majeure*', edo '*violence*' edo '*erreur*'.

Mollfulledak (1980:17), bere doktore-tesian, termino juridikoek kazitaritzako testu ez juridikoetan dauzkaten agerpenei buruz ari delarik, Cornuren antzeko irizpideak darabiltza. Haren ustez, juridikotzat ematen da termino bat, baldin eta adierazten duen egitate, ekintza edo fenomeno (edo terminoa bera, adierazpen performatiboetan) zuzenbideak araututako ondorioak sorrarazteko gai denean.

## 5.2.- Zuzenbidean benetako terminorik ba ote?

Termino juridikoen nolakotasunetan sartu aurretik interesgarri deritzogu aipatu, bederen, egiteari, oinarrizko adigai juridikoen benetakotasun kontzeptuala zalantzan jarri dituztenen aburu batzuk. Eztabaida, izan, oso antzinakoa da, baina gaurko moldeetan, nolabait esateko, planteatu dutenei soilik egingo diegu so. Horien artean aipatu beharrekoa da zuzenbidearen filosofo Hart H.L.A.ren aipua<sup>25</sup>

*“(...) the great anomaly of legal language is our inability to define its crucial words in terms of ordinary factual counterparts”* Hart (1953:7)

Ildo horretatik joan dira beste askoren gogoetak; horien adibide gisa ekar dezakegu David (1982:33) zeinak esaten baitu zuzenbideko hizkera '*naif*' dela, alegia, laño eta bakuna, ez delako oinarritzen termino (edo adigai) elementaletan, beste edozein zientzia bezala. Izan ere, dio Davidek, juristek ez dakite (edo ez datoz bat) '*liberté*' edo '*droits de l'homme*' terminoak definitzen. Ez dagoke, beraz, zuzenbidean benetako sistema kontzeptual bat, eta gutxi gora-beherako adigaiekin funtzionatzen da. Davidek ondorioztatzen duenez, nazioarteko zientzia juridiko bat eraikitzea ezinezkoa da.

Davidek planteatzen duen gogoetaren sakontasunean sartu gabe, amaierarik gabekoa deritzogunez, gogora dezagun berriro ere bigarren kapituluan (1.3.3.) esaten genuena termino-mota desberdinei buruz eta oso bereziki Alain

<sup>25</sup>Guk Duarte 1995b: 162, Gémar-etik (91:283) hartu dugu

Reyk zioena adigai-sistema desberdinei buruz, eta zuzenbidearen munduak adigai sistemen artean hartzen zuen toki bereziari buruz. Reyrekin bat, uste dugu argi dagoela ezin direla irizpide bereberaz definitu zuzenbideko eta kimikako terminoak, baina badaudela zuzenbidean termino izena merezi duten zerak.

Beste gogoeta-mota bat da termino-linguistikoen ugaritasunarena, edo zehazkiago esanda, testu juridikoetako hitzen artean zein eta zenbat ote diren termino juridikoak zehazteko irizpideak finkatzearena.

Leratek<sup>26</sup>(1995:45-54) terminoen ezaugarri linguistikoak azaltzeko eskaintzen dituen adibideen artean, hain zuzen ere, termino juridikoak dakartza: frantsesezko 'action' hitz polisemikoa noiz eta zergatik den zen zuzenbideko terminoa azaltzen duelarik (supra II. 1.4.2.). Lerat-en arabera, beraz, zuzenbidean badira terminoak, adigai hau zentzurik hertsienean hartuta ere.

Izan ere, ez dira falta azken urteotan testu juridikoetan benetako terminoak oso gutxi direla sustengatzen dutenak (Caballero Bonald (1993:7). Ideia horren sustenguan, testuen azterketak egin ondoren, Kimblek (1996:97) dio testu juridikoetako terminoak, oro har, hitz guztien %3tik gora ez direla. Kimble-ren azterketa, ingelesezko, eta *Common Law* motako zuzenbide-testuen gainean eginga dagoenez, ez dakigu zein neurritan estrapola daitezken emaitzok beste hizkuntzetara eta beste familia juridikoetako testuetara.

Espainiako zuzenbide-testuak, eta oso bereziki, legeetako diskurtsoa eta terminologia aztertu dituen Prieto de Pedrok (1996:130), antzeko emaitzak lortu ditu (%2tik %5era), baina irakasle horren ondorioa ez da inondik ere ehuneko txikia osatzen duten zuzenbideko terminoen garrantzia gutxiestea, hainbatek, esate baterako *Plain English Campaign*-aren bultzatzaile batzuek, eta gure artean jadanik aipatutako Zabaletak (1996), edo Lozanok (1997:60), egiten duten bezala. Aitzitik, aipatu artikulu berean, eta berriki Deustuko Unibertsitatean, 2000ko azaroaren 14an, hitzaldi batean azaldu zuen bezala, termino batzuk guztiz beharrezkoak dira benetako komunikazio ona lortu nahi bada eta segurtasun juridikoa zaindu nahi bada (Prieto de Pedro 1996:130).

### 5.3. Zuzenbide-arlokoak soilik diren terminoak. Beste arloetan ere erabiltzen direnak.


Aho batez onartutako asertzioa da zuzenbideko hizkerak eta zuzenbideko terminoek ezaugarri komun asko dauzkatela berezitasunik gabeko hizkerarekin, eta, hortaz, hizkuntzako hitz komunekin.

<sup>26</sup> Bigarren kapituluko 1.4.2. puntuan genioenez,



Hainbat ikertzailek proposatzen dute termino juridikoak sailkatzea mundu juridikoarekin —testuinguru juridikoekin— eta ez-juridikoekin dauzkaten harremanen arabera.

Adierazgarriak dira Knappek (1991:10-12) proposatzen dituen sailkapena eta irudia. Zuzenbide-arauek, dio, zuzenbidearenak espezifikoki diren adierazpideak eta hizkuntza orokorrekoak nahiz beste hizkera espezializatuetakoa diren adierazpide espezifikoak erabiltzen ditu. Adierazpide horien arteko erlazioak honela irudika daitezke:



Zirkuluok bi multzo irudikatzen dituzte: (A+C) da hizkuntza orokorrean erabiltzen diren adierazpide guztien multzoa, eta (B+C), hizkera juridikoan erabiltzen diren guztien multzoa. Bertan hiru azpimultzo daude, zeinetan A den zuzenbide-hizkeran ez, baina bai hizkuntza orokorrean, erabiltzen diren hitzen azpimultzoa (*poema, zerua, poza, gorrotoa...* bezalakoak); B izango baita hizkera juridikoan bakarrik erabiltzen diren adierazpideen azpimultzoa (*hilburuko, jurisprudenzia...* bezalakoak) eta azkenik, C, hala hizkuntza arruntean nola hizkera juridikoan, nahiz eta ez beti esanahi berberarekin, erabiltzen diren adierazpideen (*lege, epaile, itun, aginte*) multzoa.

Knapp-ek modu grafiko horretan dioena ia puntuz puntu berresten da Cornuren lanetan (1990a hiztegian eta 1990b monografian). Azken liburu honetan (Cornu, 1990b:59-87) adibide) multzo handi batzuen laguntzaz azaltzen du bere sailkapen xehetua, ondoren deskribatuko dugun bezala.

- 1.) Zuzenbideari bakar-bakarrik dagozkionak, alegia, zuzenbidearen testuinguruan soilik erabiltzen direnez, bertan bakarrik zentzua dutenak adibidez:

(1)

assertoire	déclaratif	executoire	expertal
promissoire	rescindant	aliénabilité	dation
illicéité	incessible	usucapion	codicille
légataire	saisine	antichrèse	fiduciant
sequestre	amodiation	colonat	louage,
arrestiste	ducroire	filiériste	parère
staries.	angarie		

- 2.) Bai zuzenbideko hizkerari, eta bai zuzenbidez kanpokoari batera dagozkionak, esan nahi baita, bietako testuinguruetan aurki

daitezkeenak. Bigarren multzo honen barnean, beste azpimultzoak proposatzen ditu, oharraraziaz ezin daitekeela ez defizinizio ez muga zorrotzik eman.

- a) Alde batean ipintzen ditu nagusiki zuzenbidekoak direnak, hau da, bereziki zuzenbide-munduan erabiltzen direnak, eta arlo horretatik at erabiltzen direnean, kutsu juridiko nabarmena izan ohi dutenak, ondoko adibidekoak esate baterako.

(2)

droit	règle	autorisation	prérogative
légitime	juge	tribunal	contentieux
arbitrage	requête	plaidoirie	statuer
sentencer	contrat	convention	rente
garantie	emprunt		

- b) Eta beste multzo batean, oro har hizkuntza orokorreko hitzak izaki, zuzenbidean erabilera aski espezializatua daukatenak. Adibidez:

(3)

constater	doute	probabilité	prouver
étudier	considération	proposition	énoncer
démontrer	réplique	réfutation	conséquence
principe	matière	sujet	objet
cause	motif	relation	fait
intérêt	avantage	oeuvre	chose
bien	usage	abus	violence
pouvoir	capacité	erreur	siège
parquet	barreau	source	voie
appel	rejet	caducité	détournement
degré	dépot	couverture	saisir
absence	aliments	fruit	liquide
délivrance	confusion	répétition	

Lehenengo (1) multzoaz dio, oso multzo berezia eta laburra dela: bere ustez ez direla izango 400dik gora frantsesez baldintza hori betetzen dutenak; gainera, dio, oso esanahi zehatz eta hertsiko hitzak dira, irudi moduan ere zuzenbidetik kanpo erabiltzen ez direnak. Horien esanahi edo balio juridikoaz dio, bakarren batzuk salbuetsiz, multzo horretako hitzek ez dutela zuzenbideko esanahi garrantzitsurik garraiatzen. Multzo honetakoek beteko lituzkete, sistema juridiko bakar baten baitan, noski, terminoentzat terminologiaren teoria orokorrak ezarritako baldintza zorrotzak.

Bigarren multzoko a) azpimultzoan sartu dituenak ere, irakasle frantziarrak dioenez, oso gutxi dira, agian besteak baino gutxiago, baina badira garrantzitsuak ; izan ere, zuzenbideko adigai nagusi gehienak multzo horretan aurkitzen ditugu izendatuak. Zuzenbideko hiztegiaren multzorik handiena, aldiz, nolabait esateko, zuzenbideak “beregianatu” dituen hiztegi orokorreko hitzez osaturik dago, horrela deskriba baitaiteke, hiztunaren ikuspegitik, hitz horiek hiztegi arruntetik hiztegi juridikora egin duten bidea.

Uste dugu Cornuren behaketa eta gogoeta zorrotzen ondorioak guztiz baligarriak direla gaztelaniazko zuzenbide espainolarentzat, eta horren aldera jotzen duela Mollfulledaren (1980) doktore-tesian proposatuko sailkapenak.

Esan dugun bezala, haren tesiaren gaia denez testu ez juridiko jakin batzuetan termino juridikoek dauzkaten agerpenak aztertzea, Mollfulledak ez ditu aztertzen erabilera eta adiera juridiko hutsezko terminoak, eta bai, juridikoak eta era berean komunak direnak. Honela sailkatzen ditu:

- berez juridikoak direnak, baina hain ezagunak gizartean zein, era berean, hizkuntza komuneak ere badiren; adib.: *compra, venta, trueque, sucesión, abandono, matrimonio*, eta abar;
- termino komunitatik eratorritako termino juridikoak; adib.: "alimentos, activo, abandono, reserva, atenuante, comparecencia",
- termino juridikoetatik eratorritako termino komunak; adib.: *juez (la historia es juez), deuda (de amistad)*,
- termino "osmotikoak", alegia, berez esanahi juridikorik ez daukatelarik, testuinguru batzuetan eduki dezaketeenak adib.: *autor (de un delito, de un libro) gozar (de los frutos de la cosa poseída, gozar de un merecido descanso)*,
- juridikotasun atipikoa dutenak, juridikotasun alderantzikatukoak (1980:18-19).

Dena den, oharrarazi behar da hala Cornuk nola Mollfulledak, *termino / terme* hitza erabiltzen badute ere, hitz bakarreko terminoak dituztela aztergai, eta ez termino guztiak. Termino-sintagmen azterketak oso bestelako proportzioak emango lituzke zuzenbidean soilik erabiltzen direnenetzat.

## 5.4. Erreferente bakarreko termino konplexuak: "EKA" terminoak

### 5.4.1.- Zein diren

Esan izan da terminoak izen propio edo bereziak bezala direla, termino ideala eta adigai banan banako erlazioan daudelako; baina Kocourek (1991:94-97) dioten bezala, ideia hori guztiz onartezina da, izen propioak eta izen arruntak oso modu desberdinean izendatzen baitute.

Izan ere, terminoek, kategoriak edo klaseak izendatzen dituzte, horixe dutelarik izateko arrazoia. Adigai baten definizio terminologikoa egiten denean, kategoriala edo klase baten deskribapena egiten da, eta definizio horretan bildutako ezaugarriak dituen banakoa, klase horretako indibiduo bat dela esaten da. Hau da, terminoaren izendatzeko modua, gramatikako izen arruntarena bera da: erreferentearen eta terminoaren arteko erlazioa zeharkakoa da, kategorizaziotik pasatzen baita (Bouveret, 1998:397-398). Izen propioak, aldiz, indibiduoari soilik dagozkio. Izen propioek, badute erreferentzia, baina ez dute zentzurik: ezin dira

erabili predikatu bezala (Sager, 1990:67-71). Are gehiago, esan daiteke izen propioak ez direla nahitaez hizkuntza batekoak; gehienez, eta ez beti, haien etimologia hizkuntza batekoa izango da, baina berdin erabil daitezke hainbat hizkuntzatan. Gainera, kasu batzutan, izen propioek sailkapen atributuak hartzen dituzte, edo beste espezifikazioen bat behar izaten dute, klase bateko partaide gisa esate baterako: *Everest mendia* esaten denean.

Zuzenbidean (ez noski, zuzenbidean bakarrik) maiz erabiltzen dira izendapen singularrak (Duarte, 1995b:162)<sup>27</sup>, hau da, erreferente bakarrari dagozkionak, izen propioak bezala (Fernandez Leborans, 1999:81)<sup>28</sup>, baina klase edo kategoriaren bidez izendatzen dutenak, izen arruntek bezala.

Esate baterako '*kode zibil*', izen arrunt + izenondo segida bat da, baina ordenamendu juridiko batean, Espainiakoan esate baterako, lege-testu (*Código Civil*) jakin baten izendapen berezia izan daiteke.

Testu juridikoetan, arau-testuen izendapenez gainera, oso maiz aurkitzen ditugu beste izendapen singularrak erakunde juridikoak eta karguak izendatzeko. Begira ditzagun hiru kategoriaz horiek:

- **Arauk**

Testu juridikoetan maiztasun handiz agertzen dira arau-testuen izenburuak; esate baterako: Ley de Régimen Jurídico de la Administración del Estado, edo Estatuko Administrazioaren Erregimen Juridikoaren Legea, Ley de Ordenación de la Actividad Comercial edo Merkataritza Jardueren Antolakuntzarako Legea. Ohiz, izenburu horiek izendapen berezizat jotzen dira baina hizkuntza bakoitzeko izen-sintagma guztiz normalak izatez gainera, ez dute izaten bere baitan izen propiorik. Izen horiek, kasu batzuetan, berdina dira sistema juridiko desberdinetan. Esate baterako, aurrerago aipatutako Código Civil izenekoa, Espainiakoaz gainera izen daiteke Argentinakoa, Boliviakoa eta beste hainbat estatutakoa. Sistema bakoitzaren barruan adigai singularra duen zer hori beste sistemetan ere ezagutzen denez, gerta daiteke, eta gertatzen da, izen hori adigai orokor baten izendapen arruntzat hartzea: 'los códigos civiles'. Testuinguruari begiratu beharko zaio, hortaz, izendapen horiek izen propioaren edo arruntaren balioa duten jakiteko.

<sup>27</sup> "Designacions singulars. D'una banda, hi trobem el cas de les designacions de càrrecs, organismes i institucions; d'altra banda, hi ha el cas dels textos normatius, també els topònims presenten una problemàtica específica, i encara podem examinar el cas dels títols d'obres artístiques, llibres, conferències, etc." Duarte (1995b: 162)

<sup>28</sup> Fernandez Leborans-ek, (1999:81) gure 'EKA izen' horiek ez ditu benetako izen propiotzat ematen. Antroponimoak eta toponimoak izan gabe izen propioen ezaugarri batzuk – hasierako letra larria, esate baterako-- dauzkaten artean, "nombres de instituciones" eta "nombres de productos de la actividad humana" sartzen ditu. Horietan bete-betean sartzen dira guk EKA izen bataiatutakoak.

- **Erakundeak**

*Erakunde* hitza hemen erabiltzen dugunean, zentzurik zabalenean egiten dugu, alegia, zuzenbidearen arabera, zentzu abstraktuan zein materialean, eratuta dagoen edozein zera adierazteko: elkarte, organo, instituzio, gorputz, erakunde juridiko eta abar.

Esate baterako, edozein sistema juridikotan, aparatua judizialaren egitura, erakundez (epaitegiez, auzitegiez...) osaturik dago. Baina sistema bakoitzean bai antolakera, bai erakundeen funtzio bereziak, bai ematen zaizkien izenak, bakarrak izango dira. Esan nahi baita, erakunde horietako bakoitzaren izenak erreferente bakarra izango du, baina izen arruntez osatuta egongo da.

Normalean singularizazioa lortzen da izen sintagmaren ardatz den izenari espezifikatzaileak erantsiaz, eta toki-izen propio batekin bukatuaz. Esate baterako: *Juzgado de Instrucción n.º 5 de la Audiencia Provincial de San Sebastian*.

- **Karguak**

Antz handia dute osaera aldetik erakundeen eta karguen izendapenak. Karguen izenetan ere, oso maiz, osagai arruntez osaturiko izendapenaren azken (sintaxi erromanikoan) espezifikatzaile geografikoa izan ohi da izen berezi bakarra. Adibidez: *Director General de Urbanismo de la Diputación de Gipuzkoa*. Jakina denez, sistema juridiko edo erakunde jakin baten barruan, maiz eliditu egiten da izen geografikoa, horrela, berez izen arrunt hutsa denak izen propioaren balioa hartzen duelarik. Esate baterako, Donostiako Udalaren barruan, *alkate* izen arrunta erreferente bakarreko izen propio baten baliokide da.

Hizkera berezietako hiztegi, bokabulario, eta edozein motatako lan lexikografikoetan, helburu entziklopedikorik ez izatekotan ez da jasotzen benetako izen propiorik, bai ordea, deskribatu ditugun bezalako erakundeen, karguen eta arauen izendapenak.

Horrelakoak izendatzeko<sup>29</sup> inon proposamenik edo jarraipiderik aurkitu ez dugunez, EKA-izen (Erakunde, Kargu, Arau) deitzea pentsatu dugu.

#### 5.4.2.- EKA terminoen egitura eta ezaugarriak

Gehien-gehienak, osorik erabiltzen direlarik, izena baino unitate luzeagoak, izen-sintagmak dira, eta salbuespenak izen soilak direnak (esate baterako *Ararteko*). Ez dugu ezagutzen beste egiturako EKA-izenik.

<sup>29</sup> Aurreko oin-oharrean, gure ustez, Duartek, '*designacións singulares*'-en barruan nahas-mahas sartzen ditu benetako izen bereziak izan daitezkeenak: (toponimoak, esate baterako) eta, gure ustez benetan bereziak ez direnak.

Sintagma horien ezaugarria izaten da maiz beste terminoak baino luzeagoak izatea. Gehienetan, sintagma bakunagoz osaturiko kateak izaten dira.

Esanahiaren aldetik EKA terminoak izaten dira zuzenbideko terminoen partikularitasunaren adibide paradigmaticoak. Oso logikoa da, zeren, definizioz, sistema juridiko bakoitzeko produktuak dira, sistema bereko beste kargu-, erakunde- eta arau-izenen aurkakotasunean ulertzen direnak. Hortaz, horrelako izenak jasotzen dituzten hiztegi elebidunetan, oso maiz, termino baliokiderik gabe, eman behar izaten dira azalpenak eta antzeko balioko arau, kargu edo erakundeen izenak, terminologia klasikoaren ordezkari zintzoa den Arntz eta Picht-en (1995) *Introducción a la terminología* liburuan (241-247) orrialdeetan agertzen den bezala.

## 6.- ZUZENBIDE-TERMINOAK HIZTEGI JURIDIKOETAN

### 6.1. Atal honen aztergaia

Zuzenbide-terminoen zernolakoaz esaten dena aztertu ondoren, ikus dezagun nola gauzatzen den termino horien bilduma diren hiztegi juridikoetan.

Lehenik eta behin, saiatuko gara zehazten zeri deitzen diogu 'hiztegi juridiko'. Hiztegi espezializatuak diren heinean, egoki datorkie *Grand Larousse de la Langue Française*-k (1975) 'dictionnaire terminologique'-z ematen duen definizioa, alegia: "(...) *ouvrage relatif à une matière, une science, un art, et dont les articles sont disposés par ordre alphabétique*", edota *Oxford English Dictionary* delakoak (1985) 'dictionary' sarreran dakarrena: "*By extension: A book of information or reference on any subject or branch of knowledge, the items of which are arranged in alphabetical order*".

Baina hiztegi juridikoaren nozioa gehiago mugatu nahian lexikografoen formulazioen bila jotzen badugu, ondokoen gisakoak aurkitzen ditugu. Esate baterako Groffier-ek eta Reed-ek (1990:26) diote: "*Un dictionnaire de droit doit porter sur les termes juridiques de la langue de base*", baina formulazioa horrek zabaltzen dituen galderak erantzuten dituenak baino gehiago dira. Xehetasun gehiagoren bila, hona zer dioten Dyrbergekek eta Tournayk (1990: 264):

*"Nous pensons qu'un dictionnaire spécialisé doit comprendre comme termes d'entrée toutes les unités qui, par les experts, sont considérées comme des notions appartenant aux sujets traités, qu'il s'agisse de termes simples ou de temes complexes."*

Terminoaren forma lexikoaz zerbait argitzen badu ere, uste dugu oso zehaztugabea dela zer kontsideratzen duten adituek gaiari dagokion nozioa.

Formulazio horiek erakusten dute gure bilaketa nekez mugatu ahal izango dugula bide horretatik.

Beste aldetik, kontuan izanda oso ugariak direla lan terminografikoen motak<sup>30</sup> gure hasierako aukera da ez mugatzea mota jakin batera, eta, benetako 'hiztegiez' gain, 'lexikoak' eta 'bokabularioak' ere aztergai hartzea.

Hiztegi juridiko orokorrak (izenburuan hori diotenak) aukeratu ditugu; horrek esan nahi du, izenburuak diotenari so eginez, hiztegia zuzenbideko hiztegi espezializatua dela, ez hizkuntza orokorrekoa, eta espezializazioaren gaia zuzenbide osoa dela, ez zuzenbidearen adarren bat edo garairen bat soilik. Irizpide horri jarraiki, hiztegi juridiko espezializatuak (kontratuenak, administraziokoak, edo Europako Batasunaren hiztegia esate baterako) ez ditugu kontuan hartu, eta era berean, zuzenbideaz gainera beste gairen bat hartzen dutenak (zuzenbidea eta ekonomia, zuzenbidea eta politika...) ez dira gure azterketan sartu.

Bi multzo egin ditugu, besteak beste, Guilbertek (1976: V-5) proposatzen dituen tipologiei jarraiki: elebakarrak eta hizkuntza bat baino gehiagokoak. Elebakarretan, termino-zerrenda hutsik ezagutzen ez dugunez, sarreraren esanahiaz definizioa edo bederen informazioaren bat aurkitzen da; elebidun edo eleaniztunetan, aldiz, badira 'lexiko' elebidun huts direnak<sup>31</sup>, hau da, sorburu-terminoaren xede-termino baliokidea besterik gabe ematera mugatzen direnak, eta badira beste batzuk, berriz, esanahiari buruzko oso informazio zabala ematen dutenak<sup>32</sup>. Edonola ere, gure xedeetarako, guztiek dute printzipioz, balio bera, guztien sarrerak terminoak direla suposatzen baita, eta sarrera horiek nolakoak diren aztertzea baita gure interes-gunea.

Hortaz, eranskinean jasotzen diren tauletan, gure inguruko hizkuntza batzuetan, (gaztelania, frantsesa, katalana, ingelesa, italianoa eta alemana), hiztegi jurididiko erabilienean sarrerak<sup>33</sup> —terminoak, suposatzen da— nolakoak diren aztertzen eta deskribatzen saiatuko gara. Euskarazko hiztegi bakarren sarrerak ere azertuko ditugu.

Honen antzeko azterlanak eginak dira, (Groffier & Reed (1990:28), Groffier (1990: 323 eta hurr.), Cornu (1990b), esate baterako) gure aurretik, nahiz

<sup>30</sup>Lan lexicografikoen izendapenak ISO R 1087 (Boutin-Quesnel, 1985) arauaren arabera ematen dira: dictionnaire = hiztegi; vocabulaire = bokabulario; lexique = lexiko; glossaire = glosario; nomenclature = nomenklatura; index = aurkibide zerrenda; entrée = sarrera

<sup>31</sup> Esate baterako, Kaplan (1990)

<sup>32</sup> Franchis (1984), esate baterako

<sup>33</sup> Guilbert (1976:V-3 "(...) mot qu'on nomme aujourd'hui, soit entrée, soit adresse, soit mot-vedette, soit encore mot-clé selon les orientations lexicographiques")

eta aztergaiak ez izan berdin-berdinak. Ezagutzen ditugun neurrian bederen, oso antzeko ondorioak atera izan dira.

### 6.1.1. Hiztegi elebakarrak (Ikus III. 6.1.1. eranskina)

Aztartu ditugun hiztegi elebakarrak, 14 dira: espainierazko 6, alemanezko 3, ingelesezko 2, eta frantsesezko 3.

Oso hiztegi desberdinak dira, hala neurriz nola kontzepzioz, ikusiko dugun bezala. Badira gaiak hurrenkera alfabetikoan aurkezten dituzten entziklopedia juridikoak, eta badira sarrera bakoitzari buruzko informazio xumea dakartenak.

### 6.1.2. Hiztegi elebidunak eta eleaniztunak (Ikus III. 6.1.2. eranskina)

Begiratu ditugun hamaseietan era askotako hizkuntz konbinazioak ditugu: gehienak (11) elebidunak dira, bi hirueledunak, eta bat lau hizkuntzakoa. Gehien agertzen diren hizkuntzak espainiera eta ingelesa dira, baina, esan bezala, katalana, frantsesa, italianoa eta alemana ere badaude.

Elebakarretan bezala, esan behar da oso mota desberdineko lanak direla.

### 6.1.3.- Uzei-ren Zuzenbidea Hiztegia

Definitu ditugun baldintzak betetzen dituen euskal argitalpen bakarra da 1985an Uzeik kaleratutako *Zuzenbidea Hiztegia*: Izan ere, zuzenbide osoa besarkatzen du, eta zuzenbidea bakarrik. Horrez gain, badago, noski, zuzenbideko hiztegitzat eman daitekeen Euskaltermeko *Zuzenbidea* atala.

Uzeiko *Zuzenbidea Hiztegia* bikoitza da: lehen liburukia hiztegi euskarazko hiztegi elebakar entziklopedikoa dugu, eta bigarrena, EU/ES/FR hiztegi elebiduna eta hirueleduna.

#### 6.1.3.1.- Liburukia: elebakarra.

Hona zerrenda aski labur horretako sarreraren egiturak:

KATEGORIA, EGITURA	ADIBIDEAK
<b>iz,</b>	abokatutza
<b>iz-elkar.</b>	bake-beharkia
<b>IS</b>	egitatezko suposamendua, zuzenbidearen izaera eta iturriak
<b>adj</b>	ebentuala
<b>AS</b>	Adin txikikoak ebastea
<b>Lat</b>	ad supplementum legitimam actio
<b>EKA</b>	ez

1. taula:ZH-ko lehen liburukiaren sarrerrak



## 6.1.3.2.- II. Liburukia, eleaniztuna

Lagin gisa, hasierako 305 sarrerak hartu ditugu ES-EU zatitik, honako emaitza hauekin:

EGITURA	KOP.	ADIBIDEAK
<b>iz</b>	75	accesión
<b>adj</b>	23	accidental
<b>iz+ adj</b>	71	acusación falsa
<b>iz+ pr+ iz</b>	55	acuerdo de empresa
<b>IS konplexuak</b>	15	
<b>iz+pr+iz+pr+iz</b>	7	administrador de fondos del estado
<b>iz+pr+iz+ adj</b>	4	abstención de funciones públicas
<b>iz+adj+pr+iz</b>	3	acción cambiaria de regreso
<b>iz+pr+iz+adj+pr+iz</b>	1	acto de apertura pública de plicas
<b>ad</b>	32	aconsejar
<b>AS</b>	18	
<b>ad+ x--</b>	4	estar en activo, ponerse de acuerdo
<b>ad+ obj</b>	11	administrar justicia
<b>ad+iz+pr+iz</b>	1	abrir los libros de contabilidad
<b>ad+iz+adj</b>	3	abrir un testamento cerrado
<b>Lat</b>	1	acción ad exhibendum
<b>fras</b>	1	en la forma acostumbrada

## 2. taula :ZHko 2. liburukiaren ES sarrerak

Beraz, Uzeiren hiztegi horietan ez da agertzen irizpide lexikografiko edo terminografiko zorrotzik sarreraren aukeraketan: hiztegi juridikoetan aurkitzen ditugun era guztietako sarrerak baitaude.

Jokabide komunarekin bat, ikusten dugu erdarazko sarrerak hein handi batean nominalak direla: izenak, izen + adjektibo, eta izen + prep+ izen gehienak, eta horien konbinazio luzeagoak, proportzio txikian. Adjektibo soilei ere ematen zaie tokia. Aditz soilak eta aditz-sintagmak ere badira, baina % 15era iritsi gabe. EKA-izenak ere badira, eta latinaren erabilerari dagokionez, latin hutsezko sarrerak ez badaude, bai latinezko zatiak dituztenak (*acción ad exhibendum*).

## 6.2.-Azterketaren emaitzak (Ikus III. 6.2. eranskina)

## 6.2.1. Hiztegien egiturak

Aztertutako hiztegi gehien-gehienek, batek salbu, sarrerak ordena alfabetiko hutsean antolatuta dauzkate. Bat horrek, zuzenbideko arloen araberrako antolamendua dauka, arlo bakoitzaren barruan, alfabetoa delarik gidari. Ez dago bat ere *bokabulario* terminologiko batzuetan ikus daitekeen adigaikako egitura duenik<sup>34</sup>.

<sup>34</sup> Egia da, bestalde, hurrenkera alfabetikoa ia salbuespenik gabe erabiltzen dela edozein motatako lan lexikografiko luze samarretan.

Zuzenbideko arlokako atalak egiteko irizpideak, gainera, ez dira terminologikoak (kontzeptualak) izaten, praktikoak edo akademikoak baizik.

Hiztegi horietako elebakar gehienetan, (Cornurena izan ezik) egitura bakuna da, alegia, maila bakarreko sarrerak, horien artean, nahas-mahas, oso luzera eta egitura gramatikal desberdinekoak daudelarik: batzuk hitz soilak edo multzo lexikalizatuak diren bitartean, beste batzuk izen-sintagma luze-korapilatsuak, edo esapideak, hizkuntza berekoak zein latinezkoak, dira.

Elebidunetan berriz, gehiago dira sarrerak hierarkizatuta dauzkatena: 16tik, 10etan sarrera-maila bakarra da eta 6tan sarrerak eta azpisarrerak daude, bigarrenak, noski, lehenak baino luzeagoak.

## 6.2.2.- Sarreren ezaugarriak

### 6.2.2.1.- Dauden egitura lexiko-sintaktikoak

Ikus dezagun, bada, nolako egitura lexiko-sintaktikoa duten hiztegi horietako sarrera nagusiak eta azpisarrerak. Ondokoak aurkitu ditugu:

A) **Izenak** (batzuetan pluralean),: ( *dismissal*, *alimentos*) eta **izen elkartuak**: (*bench trial*)

B) **Izen sintagmak**

A.1 'bakunak':

A1.1. iz + iz:(*escroquerie et dol*, *daños y perjuicios*)

A.1.2. iz + adj: (*cónyuge supérstite*, *impartial jury*)

A.1.3. iz + prep + (art) +iz: (*Abbruch der Schwangerschaft*)

B.2. aurrekoen aplikazio errekurtsiboak:

B.2.1. iz+adj+ prep+ (art): *partes titulares de la acción*

B.2.2. iz +prep(+art)+adj+iz+pre+ (art)+iz :

(*Adoption des nichtehelichen Kindes durch den Vater*)

C) **Adjektiboak**: (*lícito*, *declarativo*)

D) **Aditzak**: (*céder*, *concertar*)

E) **Aditz-sintagmak**

E.1. ad+ objek: (*transferir bienes por testamento*),

F) **F. Bestelakoak**:

F.1. Latinezko hitzak eta esapideak: (*fideiussio*, *hereditas*, *in forma pauperis confessio est regina probationum*,)

F.2. Fraseologia: ( *dans chaque cas d'espèce*)

F.3. Siglak, akronimoak: (CP, DBH)

Begibistakoa da zuzenbideko hiztegien sarrerak ez direla hizkuntza orokorretakoenak izaten diren bezalakoak. Hiztegi gehienek, ez dute sarrera bezala agertzeko baldintzatzat jartzen hitza edo multzo lexikalizatua izatea. Sarrera nagusi bezala hitzak edo multzo lexikalizatuak bakarrik daukuztenak gutxi dira: (Cornu, (1990); Amorós Merlin (1993); Seminari (1978); Robb, (1998); Franchis (1984); le Docte (1995).

Hiztegi gehienetako sarrera gehien-gehienak, izen soilez, eta izen-sintagmez osatuta daude, baina aditzei eta adjektibo soilei tokia eman edo ukatzerakoan ere ez da ageri irizpide zorrotzik.

Zenbait hiztegitan ez dago inolako aditzik sarrera gisa; izan ere, aditzen ordezt nominalizazioak erabiltzeko joera, terminologian hedatua, oso indartsua da zuzenbidean: esate baterako, ‘concluir’ aditza ez da agertuko, bai ordea ‘conclusión’ edo ‘conclusión de la sociedad de gananciales. Horrela jokatzen dute Fabra Valle 1991, Ribó i Duran 1995 eta Guillien Vincent 1978 hiztegi elebarrak. Beste gehienetan, ordea, badira aditzak eta baita aditz-sintagmak, oso proportzio urrian bada ere.

ISen luzerari buruz, joerak garbiak direnean ere jaso ditugu taulan. ISak onartzen dituztenen artean batzuek nahiko muga hertsia jartzen dizkiete: bi edo hiru hitzekoak bai, baina luzekoak ez (Cornu1990, Fabra Valle 1991, Infante Lope 1988, Comares 1996) . Beste batzuek, aldiz, edozein luzeratakoak onartzen dituzte (Ribó 1995).

Adjektibo soilak sarreratzat onartzeari dagokionez, ez datoz denak bat, baina onartzen direnean ere, sarreren ehuneko txikia osatu ohi dute.

Unitate fraseologikoak, preposizioz hasitakoak eta esapideak onartzeari dagokionez ere, oso banatuta daude hiztegiak. Oro har, gutxitan agertzen dira esaldiak edo esapideak (latinezko esapideak kenduz gero) sarrera gisa.

Latinaren presentzia da testu juridiko askoren, eta hiztegi juridiko askoren bereizgarria. Aztertutako hizkuntza guztietan, eta ia hiztegi guztietan irakur daitezke latinezko esapideak, edo latinezko zatiak dituzten sarrerak.

Tauletan agertzen denez, ez datoz bat hiztegiak EKA-izenei sarreretan tokia emateari dagokionez. Hiztegi elebarretan maizago aurkitzen ditugu. Izan ere, hiztegi elebidunetan, normalean bi sistema juridikoen arteko baliokidetasunak bilatu behar direnez, hainbat informazio osagarri eman ezean oso zaila da itzulpen-baliokideak ematea horrelako izenentzat. Gehienetan, EKA-izenak izaten dira luzeenak, eta egitura sinpleen errekursibotasuna gehien erabiltzen dutenak.

## 6.2.2.2.- Iruzkina sarreren balio terminologikoaz

Jakina denez, batek ez daki inoiz zer aurkituko duen *'hiztegi'* izena duen liburu batean, eta izenaren balio erlatibo hori areagotu egiten da guk aztertu dugun hiztegi-multzoan.

Oro har esan daitekeen gauza bakarra da hiztegi horiek helburu praktikoa zehatza<sup>35</sup> izan ohi dutela, eta hiztegiileen asmoetan ez dela egoten (badira salbuespenak) hizkera baten deskribapen metodikoa egitea, ez eta, zuzenbideko terminologia sistematikoki lantzea.

Horren adierazgarri izan daiteke zein kasu gutxitan aurkitzen dugun hitzaurre landurik; hiztegiintzako irizpide lexikografiko edo terminografikoak azaltzen dituenik, bederen.

Gure azterketa xume honetan berretsi ahal izan dugu Guilbertek bezala Groffier & Reedek (1990:6), eta Pesant & Thibaultek (1995:355) ere, egiaztatu zutena, alegia, hiztegi espezializatuetan ez dela maiz estudio lexikografikorik aurkitzen; nonbait, Guilbertek uste duenez, haien egileek, zientziako edo arteko gizonak izaki, efikaziaz arduratzen direlako, baina ez beren metodoaren teorizazioaz<sup>36</sup>. Salbuespenik interesgarriena, gure ustez, Cornurena da (1990a), baina ez da bakarra; Tortoraren hiztegian ere badago hitzaurre landua.

Alderantziz, hainbat hiztegiaren hitzaurre laburretan azaltzen da zein den lanaren helburua, eta gehien-gehienetan erakargarri moduan esaten da erabiltzaileen behar praktikoei erantzuteko eginak direla. Behar praktikoa horiek, kasu batzuetan, nahiko espezializatuak izaten dira, zeren Groffier & Reed-ek (1990:17) ohartarazten dutenez, hiztegi juridiko "idealak", abokatuen, epaileen, zuzenbideko irakasleen, ikasleen, itzultzaileen, eta irakurle orokorren beharrak asetu beharko lituzke, baina horien interesak maiz kontrajarriak dira.

Hiztegiaren sarreren kategoria gramatikalez edo sintaktikoez gauza zehatzak esan badaitezke, ohartzen gara esanahien mundua askoz labanagoa dela. Edozelan ere uste dugu azterketa azkar horretatik hainbat ondorio atera ditzakegula: orokorra izango litzateke hiztegi gehienetan ez dela ageri metodologia terminologiko zehatzik, eta zuzenbidearen edozein alderdirekin zerikusirik duten sarrerak onartzen direla. Nekez suma daiteke aztertutako hiztegi gehienetan zuzenbideko adigai-eremuak nolabait sistematizatu eta adigai horiei dagozkien termino-sarrerak aukeratu direnik.

<sup>35</sup> Horrek ez du esan nahi xedea ongi betetzen dutenik.

<sup>36</sup> Izan ere, egoera ez bide da asko aldatu Guilbertek (1976 V-4) idatzi zuenetik :“( ) se contentent de réaliser le dictionnaire de leur branche sans théoriser leur méthode.”

Horren adibide izan daiteke maiz aurkitzen direla horrelako hiztegieta latinezko sarrerak (esate baterako '*concilia plebis*') zuzenbide erromatarreko informazioa emateko (Fabra Valle (1991), Gomez de Liaño (1979), Comares (1996), Espasa (1992)), edo zuzenbidearen historiari buruzko sailkapen-irizpideak eskaintzen dituen '*etapas históricas*' sarrera bezalakoak (Fabra Valle et al 1991).

Hainbatetan, esan bezala, hala zuzenbidearen eragileak nola ikertzaileak nola ikasleak behar lezakeen era guztietako informazioa, nolabait zuzenbideari dagokiona, aurki zezan moduko liburuak dira hiztegiok. Beste batzuetan, aldiz, elebidunak, itzulpenerako laguntza-hiztegiak besterik ez dira, hizkuntza bakoitzeko sarrera bakoitzari xede hizkuntzako baliokide bana edo bina atxikirik ematen dutenak. (Amorós Merlin (1993), Seminari (1978), Milian i Massana (1991), Mazzuco & Maranghello (1992), Kaplan (1993))

Hala ere, badira, Ribó i Durán, (1995), frantsesezko Cornu (1990) eta Lemeunier (1988), ingelesezko Martin (1990), bezalakoak, sistema juridikoaren une bateko adigai nagusiak adierazten dituzten hitzak edo terminoak sarrera-gisa antolaturik hiztegia osatu dutenak. Hau da, zuzenbideko adigaiei dagozkien terminoak biltzen dituztenak.

## IV.- KAPITULUA

### EUSKAL HIZKERA JURIDIKOA TESTUETAN \*

#### SARRERA

Lehen kapituluan euskarazko hizkera bereziei buruz esandakoaren haritik, kapitulu honetan zehaztu nahi izan dugu nolakoa izan den euskara juridikoaren eboluzioa eta nolakoa orain dugun hizkera. Hala eboluzioa nola egungo garapen-egoera benetako testuak nolakoak diren aztertuz deskribatu nahi ditugu.

Uste dugu hemen aurkeztu dugun testu-bilketak eta azterketak agerian ipintzen dutela zuzenbideko hizkeraren historia berezi samarra dela beste hizkera bereziekin alderatzen badugu.

Testuen juridikotasunaz den bezainbatean, ikusiko dugun bezala, garai historiko gehienetan oso zabal hartu beharko dugu tasun hori, zuzenbidearekin zerikusia, zuzenean ala zeharka, izan duten testuei aitortuko baitiegu.

Juridikoak ez direnez, ez dira hemen kontuan hartzen hainbat eta hainbat testu erlijioso zeinetan doktrina katolikoaren kontzeptu erlijioso-juridikoak (legeak, manamenduak, Jainkoaren judizioa, kondenazioa, sariak) azaltzen diren. Ez eta, zuzenbidearekin, administrazioarekin edo agintearen egikaritzarekin zer ikusi zuzenik ez duten baina han-hemenka gizarte-antolamenduari buruzko zertzeladak ematen dituen hainbat testu. Bai, ordea, zuzenbidearekin (zibil, militar, ala eliztarrarekin) zerikusia duten edozein motatako testuak: egileak arau juridikoaren emaile edo zuzenbidearen eragile gisa jokatzen duenean (arauak, epaiak, epaiketa-agiriak...), edo pertsona pribatuak egintza juridiko batean parte hartzen duenean, bai beste pertsona pribatuekin, bai administrazioari buruz; baita

---

\*Kapitulu honen aztergai den bilketa-lanari guk geuk eman genion hasiera 1993ko uztailean, doktorego-ikastaroetan aurkeztutako lan xume batekin: *Testu juridiko-administratiboak euskaraz historian zehar* (Doktoretza-lana). Ondoren, EHUko Donostiako Zuzenbide Fakultateko bekadun batek, Imanol Trebiño Barruetabeña jaunak, landu zuen gai bera gure ardurapean. Haren ondoren, bilketa, landa-lan eta ikerkuntza aspergaitzaren fruitua kaleratu du Trebiñok *Administrazio zibileko testu historikoak* izenburuarekin. Liburuaren "Atarikoan" azaltzen duenez, administrazio zibilera mugatu nahi izan du bere lana, eta 1936 urtea jarri dio muga. Trebiñoren lanaren muga materialak eta denborazkoak gure honekin bat ez badatoz ere, gehien gehiena baligarri izan zaigu. Neurri handi batean, testu historikoei dagokienez, kapitulu hau haren zordun da; testu garaikideei dagokienez, aurrekoek gainera, UZEIk emandako erreferentziak ezinbestekoak izan zaizkigu. Denei nire esker ona.

ere, zuzenbideari buruzko iruzkinak, gogoetak edo irakaspenak jasotzen dituzten testuak.

Kapitulu honetan berri eman, eta iruzkintzen ditugun testuak ez ditugu iturrietan bilatu, baizik eta jadanik egindako bibliografia-lanetan eta hainbat liburu eta aldizkari-artikulutan. Gure xedea ez izanik xehetasun filologikoetan sartzea, baizik eta, testuen zer-nolako nagusiak ezagutuaz, haien edukia eta nolabaiteko “juridikotasuna” aztertzea, ez dugu landa-lanik egin.

Testu gehienak, hortaz, geure begiz ikusi ditugu, baina ez “jatorrizko” agirietan edo lehen albistea ematen dutenetan, baizik eta historialariek eta filologoek argitaratutako haien kopietan edo transkripzioetan.

Orobat, lan honen helburua ez denez testu juridiko guztien katalogoa egitea ez dugu zerrendarik ematen, datu-baseak bai baitaude.

Garai bakoitzeko testuen ezaugarri nagusiak (lantzen diren gaiak, itzulpen-izaera eta ezaugarriak, lexikoaren teknikotasuna, eta abar) kontuan hartuta, garai bakoitzean euskarazko hizkera juridikoaren karakterizazioa egiteko saioa izango da kapitulu honetako ekarpenik behinena, xumea bada ere.

## 1.- ZUZENBIDEKO HITZAK ETA TESTU JURIDIKOAK

### 1.1.- Euskararen lexiko juridikoa non aurki daitekeen

Inork ez du ukatzen Euskal Herrian historian zehar zuzenbidea egon, egon dela, gizarte guztietan bezala, eta ondorioz, zuzenbideko hizkera berezia ere izan dela. Hizkera hori zein hizkuntzatakoa izan den, berriz, ertz askoko gaia da.

Era berean, aski gauza ezaguna da gure historia linguistikoaren ondorioz ez zaigula iritsi euskal hizkera juridiko heldu bat, inguruko hizkuntzetan<sup>1</sup> gertatzen den bezala.

Hizkera heldu eta oso bat ez dugula aurkituko jakinarren, badu interesa arakatzek testu historikoetan zer nolako aztarnak utzi dituen praktikatzen zen zuzenbideak. Aztarna horiek, aipatu dugun hizkuntzaren posizio bereziaren ondorioz, ez bakarrik euskarazko testuetan baizik eta erdarazkoetan ere bilatu beharko lirateke. Beste aldetik, testu juridikook, edukiaren aldetik, gure ingurune juridiko-politikoko zuzenbide komunari edo bertako zuzenbide bereziari dagozkiekeenak izan daitezke.

---

<sup>1</sup>Esan nahi baita, mendeetan zehar, eta etenik gabe, funtzio juridikoetan erabiltzearen ondorioz garatzen den hizkera, espainieraz eta frantsesez gertatu den bezala.

Ez da gure gaia, are gutxiago eztabaidagaia denez, historian zehar euskal herrietan egon den zuzenbidea zuzenbideraino izan den berezia aztertzea. Izan ere, aurreko mendeetako Licenciado Poza, Larramendi edo Astarloaren lan apologetikoen bidetik, mende honetan ere idatzi izan dira orriak euskal zuzenbide historikoaren berezitasuna munduko esparru juridiko-kultural handien artean paratuaz. Horrelakoak dira esate baterako, legelarien izenak aipatzeagatik, Galindezek<sup>2</sup> (1985:19) edo Leizaolak (1982:82) euskal zuzenbidearen nortasun berezia, zuzenbide islamdarraren, germaniarraren eta erromatarraren parean ipintzen zutela idatzitakoak. Zuzenbidearen tipologia edo filosofiari gehiago dagozkion baieztapen zalantzarri horiek alde batera utzirik, guri axola zaiguna da zehaztea zuzenbiderainoko aztarna utzi ote duen garai bateko zuzenbide propioak lehengo eta gaurko hizkuntzan.

Zuzenbide propioaren eta hizkera juridikoa propioaren gaiak aztertu dituen Urrutia euskaltzainak (1994b:1284) dioenez, nabarmena da hutsunea, ez baitira hamarrera iristen euskalkietan sakabanaturik (baina erdal testuetan) aurkitzen ditugun antzinako erakunde juridiko bereziak izendatzen dituzten hitzak. Gainera, erakunde horien nolakotasunaz ezin dugu gauza handirik jakin, bai, ordea, ez zaigula haien erregulazio edo kontzeptualizazioari buruzko argitasunik iritsi, juridikoki zehatzak eta "teknikoak" zirela baieztatzeko.

Eskasia horren arrazoi nagusizat ematen ditu Urrutiak (1994b:1285) foru zuzenbidearen ahozkoatasuna, eta ohiturazkoatasuna. Idazten zena, hain zuzen ere, ez zen foru-zuzenbidea. Eta hurbileko garaietara etorrira, XIX. mendeko kodegintzak Bidasoaren bi aldeetan lege idatziari eman zion erabateko nagusitasunak zeharo baldintzatu zuen ahozko zuzenbideak utz zitzakeen aztarnak irautea, Urrutiak bezala, Baranbonesek (1993:74) bere hurbilketa historikotik ondorioztatzen duen bezala.

Edonola ere, jakinik azken urte hauetan garatu den euskal hizkera juridikoa ez dela balizko euskal zuzenbide berezi batena, baizik eta gure inguruko herriekin aspaldidanik konpartitzen dugun mundu juridikoarena, aurrekari historikoak kontzeptu-mundu berekoak izatea ez da arazo-iturri; alderantziz; izatekotan, kultur eta hizkuntz tradizio baten harian kokatuko lirakeke.

Beste aldetik, hainbatetan errepikatu dugun bezala, hizkera juridikoak lotura estuak dauzka hizkera komunarekin, bai zuzenbidea gizarte osoaren bizimoduan txertaturik dagoelako, bai zuzenbideko termino asko hizkuntza

---

<sup>2</sup> *"El Derecho Vasco, el tradicional, el eterno, el que ha perdurado pese al mismo Código Civil francés y el centralismo hispano-galo, pugna rotundamente con esos principios básicos de sus vecinos. No es ya simplemente diferente, es radicalmente opuesto."* Galindez 1985:20



komunetik datozelako. Horrek esan nahi du, terminologia juridikoa eratzen denean, nahitaez, hizkuntza komunekeko elementu lexiko anitz eskuratuko direla, batez ere, mundu juridikotik kontzeptualki hurbil dauden munduetakoak, hala nola moralaren edo erlijioaren mundukoak.

Beraz hiru arlootan aztertu beharko litzateke testu historikoetan zuzenbideko hitzak moldatzeko aurrekariak bila: erdal testu juridikoetan, ea arlo horretako euskal hitz gehiagorik dagoen; euskal testu ez juridikoetan esan berri dugun arrazoiarengatik eta euskal testu juridikoetan, zentzuzkoa baita.

Atal honetan lerro batzuk idatziko ditugu a) eta b) puntuetako azterkizunari buruz, eta ondorengoetan, euskal testu juridikoak, garaiz garaiz aurkezten eta ezaugarriak azaltzen saiatuko gara laburki.

## 1.2.- Euskal hitz juridikoak erdaretako testuetan

Esan bezala foru-zuzenbidea indarrean egon zen garaietan idatzitako testu juridiko gehien-gehienak erdaraz idatzi zirenez, gerta daiteke beste hizkuntzetako testuetan gizarte euskaldunak erabiltzen zituen zuzenbide-hitzak agertzea. Ondorengo lerrootan gai horri buruz egin diren ikerlanen emaitzak jaso dituzten<sup>3</sup> liburu eta artikuluen berri laburra ematen dugu.

Hala Erdi Aroko agirietan nola foruen idazketetan jasotako euskal hitzen berri ematen digute bereziki Michelenaren (1964) *Textos arcaicos vascos*, Caro Barojaren (1969) «Observaciones sobre el vascuence y el Fuero General de Navarra» eta Jesus Arzamendiren (1985) *Términos vascos en documentos medievales de los ss XI-XVI* lanek<sup>4</sup>.

Gure gaiari nahiko estu heltzen diotenez, aipagarriak dira Peillenen (1982) «Zuberotar lege hiztegia hamaseigarren mende hastapenean» eta (1993): «Euskara eta gaskoineraren arteko harreman eta loturak» eta Cristina Osés-en (1992) «Léxico vasco en documentación notarial guipuzcoana»

Gai honi hizkera juridikoaren ikuspegitik hurbildu zaio Andres Urrutia hainbat artikulutan, (1991c, 1994b, 1995).

Lan horietatik guztietatik bildutako euskal “hitz juridikoen” uzta nahiko urria da. Nafarroako forua izan da iturrurik oparoena, honelako zerrendarekin:

<sup>3</sup> Argitu nahi dugu hemen ez dugula egin nahi ikerkuntza horiei buruzko bilketa-lanik, nahikoa baitzaigu, atera behar ditugun ondorioak ateratzeko, azken autoreek aurrekoena jasoaz ematen diguten informazioa. Hortaz, ez gara ibili baieztatzen aipatutako autoreek ematen dituzten iturriak.

<sup>4</sup> Arzamendik dakarren Erdi Aroko euskal hitzen sailkapen semantikoa bereiziki interesgarria zaigu.

(1)	azaguerrico	baturratu	escurayn	ozterate
	echaiaun	echandra	gauca aari	gayces berme
	ones berme	ceylla	zella	olio
	camio	pertica	errota	cayola

Baina Bizkaiko *Fuero Nuevo* bilduman, 24. tituluan IV Legean, hitz gehiago jaso ditu Urrutiak (1991c), eta berak dioen bezala, askoz beranduago idatzitakoak, baina ahozko tradiziotik jasoak direnekin, beste zerrenda hau osa daiteke:

(2)	aburre	bidigaza	ilburuco	alkar poderoso
	etxaguntza	bide-zor	oin	etxe
	gozamen	seniparte	gasaila	erdiriko
	zaingoa	garbitzalda		abere hazgarri

Beste ikertzaileen ekarpenetatik (Osés, 1992:819) *austerreça, tata* eta beste hitz gutxi batzuk ere gehitu ditezke. Seguruena, izango dira beste hitzak, esate baterako hain ugari diren notario-eskrituretan ; hori dirudi adierazten duela, adibidez, Retanaren *Diccionario de Autoridades-ek* dakarren *ondazilegi* sarrerak, euskaraz inon idatzi gabea, baino nahiko ugaria Tolosaldeko notario-protokoloetan.

Edozein modutan, gaur arte aurkitutakoaz balorazio orokorra egiterakoan, bat gatoz Urrutiaren (1994b:1284) hitz hauekin:

*"Lehen arloan, hots, euskarazko hitz juridiko hutsetan, nabarmena da hutsunea, historian zeharreko erakunde jakin batzuen salbuespena alde batera utzita."(...)"Honela, euskalki desberdinetako gasaila, erdirikoa, alkarpoderosoa, zaingoa, abere hazgarria, korta ganadue, garbitzalda, eta baserri ustiaketari buruzko kontratu zein figura juridikoen osatuko lukete jatorriz multzo hau (...)"*

Ondorioz esan daiteke euskal kultura antzinakoaren aztarna horien interesa ezertan zalantzan jarri gabe esan daitekeela oso ekarpen ahula dakarkigutela gaurko hizkera juridikoa osatzerakoan.

### 1.3.- Euskal hitz juridikoak gainerako euskal testuetan: egin beharreko bilaketa

Zuzenbidea gizarte osoan txertaturik bizi denez, zuzenbideko adigaiak ez dira bilatu behar soilik zuzenean eta bete-betean juridiokoak diren idazkietan. Neurri batean, gizarte-gaia edozein delarik, zuzenbideko adigaiak eta erlazioak azal daitezkeenez, era guztietako testuak arakatu beharko liriateke haiek izendatzen dituzten hitzen eta esapideen xerkan. Izan ere, ez da beharrezkoa testu batek espezialitateko testu-izaera eduki dezan bertan zuzenbideko balioa duten

hitzak aurki ditzagun.

*Orotariko Euskal Hiztegiak* eta *Eguno Euskararen Bilketa-lan Sistematiakoak*, eskaintzen dute bidea euskara idatziari buruz galdera horri erantzun aski betea eman ahal izateko; baina guk dakigularik ez da oraino arakatua izan gure lexiko-ondarea juridikotasuna irizpide harturik. Hala ere, gai hauetaz arduratu direnen arabera (Akesolo, Villasante, Peillen, Urrutia, Lobera...) eta geure eskarmentuan oinarriturik, esan dezakegu hala testu juruidikoetan nola gainerakoetan, zuzenbideko adigai orokor-nagusiez at ez dagoela lexiko ugaririk euskal hiztegietan jasorik<sup>5</sup>.

Baina Urrutiarekin (1994b:1283) batera, Cornuri jarraituaz gogoratzen badugu hiztegi juridikoko hitz gehienak ez direla zuzenbide arloan soilik erabiltzen, bai baitute adiera juridikoaz gainera besteren bat, ongi ulertuko dugu horrelako hitzetan askoz aberatsagoa izatea euskara.

Esan daiteke, hortaz, oinarritzko adigai eta erlazio juridikoek badutela izena euskaraz. Horrelakoak dira, esate baterako

(3)	lege	agindu	bide-zor	eskubide
	errege	gobernatu	kontratu	testamentu
	eskubide	gozamen.	nagusi	sententzia
	apelatu	exekuzione	juez juge	jabe
	kondenatu	kartzela	maizter	erabaki
	zuzen	zor	zilegi	

Hitz horiek, eta zalantzarik gabe, beste zenbait, era guztietako testuetan<sup>6</sup> aurkitzen ditugu euskal literaturan. Ezin ahaztu erlatiboki hain ugari ditugun testu erlijioso-moraletan zuzenbidezkoak oso hurbil dauden hainbat adigai erabiltzen direla; besteak beste, honelakoak:

<sup>5</sup> Ugari dira, halaz eta guztiz ere, Larramendiren *Diccionario Trilingüe del castellano, bascuence, y latín* ospetsuan arkitzen ditugunak, hala nola:

Gaztelania	Euskara	Gaztelania	Euskara
acreedor	artzeceduna, artzeceduena	ley	legue, leguea
alquilar	alquilatu, alogueratu, alocatu	monarchia	bacarondea
cómplice	gaistaquidea	nulidad	iñolazcogoa
contratar	salerosi, tratuquidatu	pleito, litigio judicial	aucia
delinquir	arauzi	querella	querella, querellea
diputación,	ecauta	solar donde se edifica	urubea
comission			
divorcio	desescontza	subrogación	ordeztea, besteren ordean sartzea
enajenar	besterenendu, bercerendu	testamento	atzenaya, testamentua, testamanta
fépública	fedajaquiña	usufructo	gozamena, usufructua
juez	ecadoya, jueza		

<sup>6</sup>Esate baterako, gure lehen idazleak, Decheparek, erabiltzen dituen 60 inguru hitz juridiko (zeinetarik 50etik gora maileguzkoak) Urrutiak (1996d:36-51) «Olerkaria lege autuetan. Etxepareren Linguae Vasconum Primitiae ikusmira juridikoan» artikuluan esaten duenez.

(4)	arau	betebehar	eginbide	zuzen
	lege	zuzenbide	judizio	aitortza
	sententzia	pena	penaren erremisio	

Uste dugu, Urrutiaren bidetik, badela zer aztertu euskal tradizioko ondare lexikoan, baina gure lan honetan ezinezkoa zaigu horrelakoetan sartzea; beraz, hitzaren adigaiak gabe, testuaren juridikotasunari so egin diogu.

#### 1.4.- Testuen juridikotasuna zertan datzan

Euskal testu juridiko historikoen bilketa egiterakoan oso irizpide zabalez<sup>7</sup> jokatu behar da ez badugu nahi bilketaren emaitza hutsaren hurrengoa izatea. Besterik frogatzen ez den bitartean inolako legerik, ez judizio-aktarik ez notario-eskriurarik euskaraz idatzi ez denez, beste motatakoak, nolabaiteko juridikotasuna besterik ez dutenak, bildu beharko dira.

Baina, beste aldetik, zuzenbideak gizarte-bizimodua norabide guztietan zeharkatzen duenez, guztiz normala da ia edozein motatako testuetan nolabaiteko balio juridikoa duen hitzak eta esaldiak agertzea. Horrelako lege-educia duten pasartearen bilketa eta azterketa ere noizbait egin beharko bada ere, hemen, testuari, bere osotasunean, juridikotasuna egotz dakiokenean soilik aukeratu ditugu pasarteak.

Esate baterako, epaiketa baten berri ematen duten akta latinezko zein gaztelaniazko batean euskarazko esaldi bat agertzen bazaigu, kontuan hartu eta jaso egin dugu; gauza bera, botere juridikoz (edo administratiboz) jantzitako norbaitek bere funtzioen egikaritzan euskarazko gutun bat edo pasarte bat idatzi badu, dudarik gabe jaso beharrezkotzat jo dugu, edo administrazio pribatu zein publikoko ekintzaren baten idatzizko isla dakarren testua.

Jakina denez, oraintsu arte bi motatakoak izan dira aginte juridikoz hornitutako erakundeak: zibilak<sup>8</sup> eta eliztarrak. Biak, noski, izan dira gure bilketaren gai.

Deskribatu dugun irizpidearen zabalatasuna denborak aurrera egiten duen ahala murriztuz joateko aukera dugu. Aukera, eta beharra, zeren euskarazko izkribuak ugaritu diren heinean biderkatu dira aurreko irizpideekin testu juridiko gisa jaso beharko genituzkeenak. Azken garaiotan, irizpidea murriztu eta testu

<sup>7</sup> Izan ere, aldeztu aurretik badakigu ez dugula ediren Gaztelako Alfontso X.ak idatzitako *Las Partidas*-en edo katalanezko *Usatges de Tortosa*-ren antzekorik, ezta hurrik eman ere.

<sup>8</sup>Agintaritzak militarren ekintza juridikoak, hemen, "zibilaren" barruan kontsideratuko ditugu.

baten interesa jasotzeko modukoa egiten duela erabakitzeko eskatzen zaiona askoz zorrotzagoa da, bai testutasunaren aldetik bai juridikotasunaren aldetik: bazter uzten ditugu zuzenbidea gai ez duten testuak, eta dutenen artean ere, nolabaiteko izaera teknikoa eskatzen diogu jaso izateko merezi izateko.

1978tik aitzina, gai juridikoak zeharka nahiz zuzenean ukitzen dituzten testuak izugarri ugartzen dira. Horretaz, liburuetan, saiatu gara CDU, Unesco, ISBN edo antzeko sailkapen-estandarretan juridikotzat sailkatuko liratekeenak bakarrik jasotzen. Liburu-mailarik gabeko testuetan, aldiz, berez eta zuzenean (arau juridikoak, kontratuak...) zuzenbidea sortzeko direnez kanpoko testu baten juridikotasuna aintzat hartzeko, baldintzatzat jarriko dugu aldizkari espezializatu batean<sup>9</sup> argitaratua izana.

## 2.- EUSKAL TESTU JURIDIKOAK HISTORIAN 1936 ARTE

### 2.1.- Garaikatzearen arrazoiak (Bi aldi nagusi: 1936 artekoa eta ondokoa)

Historia osoko testu juridikoen erreferentziei azaleko begiraldia emanez gero, nabarmen ageri da 1936-37 aldian, eta 1978an hasitakoan, produktutakoak duen neurria gainerako garai guztietan ekoitzitakoarekin alderatuz. Izan ere, bai orri-kopuruaren aldetik, bai erabiltzen diren gaien teknikotasunagatik, berebiziko gailentasuna dute bi garai horiek, aurreko idatzien urritasuna nabarmen geratzen delarik. Ez litzateke bada, oker handirik egingo 1500-1936 bitarteko ia lau mende eta ia erdiak garai bakar batean sartuko balira, eta 1936an hasitzat ematea beste garai berria, itzalaldi luze batekin gure egunetara arte luzatzen dena.

### 2.2.- Erdi Aroko agirietako esaldi juridikoak

Aurreko IV.1.2. puntuan esan bezala, hainbat hitz juridiko iritsi zaigu Erdi Aroko erdal agirietan barreiaturik baina benetako testu-izaerara duenik ez dugu ezagutzen, 1415eko gutunen zatiak izan ezik.

Urte horretan dugu salbuespena, hainbat alditan<sup>10</sup> glosatu den Nafarroako Gorteko bi kargudunen, Machin de Çalua eta Martin de San Martin arteko gutun

---

<sup>9</sup>Nahiz eta espezializazioaren irizpide hori ezin den, jakina, oso zorrotz ezarri.

<sup>10</sup> (Idoate 1969); (Irigaray 1970:135) ; (Ciervide eta Irigoyen 1971:75-90)

erdarazkoak, euskal esaldiak tartekatzen dituztenak<sup>11</sup>. Esan daiteke esaldi xume horiek direla euskara juridiko-administratiboaren lehen agerpenak.

## 2.3.- XVI-XVII. mendeak

### 2.3.1.- Ahoz esandakoaren transkripzioak

Euskara eta gai juridikoa lotzen dituzten esaldiak, XVI. mendean agertzen dira, eta ugari samar. Baina asko zabaldu beharko genuke *testu* hitzaren esanahia testutzat emateko, izan ere, ez dira idatzitako testuak, ahoz ebakitako esaldien transkripzioak baizik.

Esaldi horiek, epaiketetan lekukoren batek edo parterren batek, erdaraz ez zekiela eta euskaraz esandakoak dira, eta latinez edo gaztelaniaz egindako judizioaren aktan, bere hartan jasoak, zegokien itzulpenarekin.

Nolako testuak osatzen ziren adibidetzat emango dugu Zufiako Diegori 1552an egindako judizioaren aktaren zatia:

*"El dicho Diego de Zufia dixo es verdad que yo le tengo dada la fee si yo tuviese que hacer con ella y por mas aclarar su dicho este testigo dice que le dijo el dicho Diego de Zufia que habia dicho a la dicha Maria Miguel quando le pidio que le diese su fee "yo te doy mi fee si te cabalgo" lo cual le dixo en bascuence por estas palabras: Nic ematen drauzut neure fedea baldin baldin Yo baneça aren senar yçateco, y que mas no sabe."*  
(IRIGARAY :1933)

Den-denak hain gordinak ez badira ere, testutasunari edo teknikotasunari dagokienez, antzekok dira. Hain testu xumeak izanda ere, interesgarriak dira badakartelako hainbat kasutan formula juridikoren bat, ezkontzarena, adibidez.

Ondorengo zerrendan, adibide gisa, XVI eta XVII. mendeetan aurrekoaren antzera ezagutzen ditugunak ipiniko ditugu, xehetasunetan sartu gabe, haiek aurkitu edota argitara eman dituztenek<sup>12</sup> ipini bezala, herriaren izena eta urtea emango dugu erreferentzia gisa:

<sup>11</sup> Machin de Çaluak, "clérigo de las finanzas de los cofres del rey", Idoateren hitzetan, bere adiskide eta goikargudun zen Martin de San Martin-i egindako eskutitzean honako lerrokada sartu zuen: *"Et Jaunatiçula abarion ez nayz bildur ezten alla. Et jaquiçu Done Joh[a]ne garaçicoec Dute gr[aci]a eRegue baytaric hurtean yruoguey t amauij florin hurtean baytator sey florin t t[er]tio bat ylean Rebatıçera colectoreari et alegraçayteç onguj. Çure guçia Machin de Çalua."*

<sup>12</sup> Esate baterako: (Aguirre Gandarias S (1992); Floristan Imizcoz J M (1993); Goyhenetche Manex (1983); Michelena L (1964); Sarasola Ibon (1983); Satrustegui J M (1978-1979, 1987,1991)

Huitzi, 1506	Beorburu, 1536	Olazagutia, 1548	Bakedano, 1550
Aoitz, 1551	Iruñea, 1552	Zufia, 1552	Espartza, 1557
Tolosa, 1557	Azpeitia, 1560	Azkoitia, 1566	Burgi, 1569
Barbarin, 1576	Urrizola, 1576	Bera, 1577	Lizaso, 1576
Orikain, 1576	Monreal (Elo), 1597	Ostiz, XVI. m.	Ultzama, XVI.m.
Uterga, (XVI.m)	Intza, 1610	Olague, 1614	Tolosa, 1619
Azpeitia, 1622	Orreaga, 1626	Oiartzun, 1664	Kanbo, 1664
Atarrabia, 1670			

Testu horien leku-jatorriaz den bezainbatean, nabarmena da Nafarroa Garaia-aren presentzia, izan ere, Gipuzkoako dozena erdi bat eta Lapurdiko bakarra kenduz gero, gainerakoak nafarrak baitira. Ez da agertzen Bizkai-Arabako testu bat bedera ere.

### 2.3.2.- Euskara, hizkuntza sekretua

XVI. eta XVII. mendeetan euskara idatziak izan zuen beste erabilerarik zuzenbidearen, edo bederen agintaritzaren munduarekin zerikusia zeukanik.

Dirudienez hizkuntza sekretuaren funtzioa izan zuen 1595-1598ko espioitza militarrean idatzitako gutun batzuetan, Floristan Imizcozek (1993:177-219), eta Satrustegui (1993) esaten dutenez. Daranatzek (1927) jasotako beste gutun batean hizkuntzaren erabilera hori ez zela bakana izan demostratzen da, konspirazioarengatiko auzi batean dokumentu-frogatzat erabili baitzen 1626an.

### 2.3.3.- Lehen "benetako" euskal testu administratiboak

#### 2.3.3.1.- Zuberua – Erronkari. 1616

1995ko abenduaren lehen egunean<sup>13</sup>, Londresko Sotheby's enkante-etxean euskal eskuizkribu-sorta bat atera zen enkantera, baina salmenta ezerezean geratu zen eta saltzaile ezezagunak beretzat gorde zituen berriro. Lotearen deskribapenean, gutun juridiko-administratiboak zirela esaten zen, 1616ko maiatza eta 1617ko ekaina artean, Zuberoko agintari Gabriel Detchart eta Erronkariko alkate Miguel Rosen artean gurutzatutakoak. Guztira 60ren bat orrialde omen dira, horietako zenbait, euskaraz. Pentsak argitara eman zituen bi orrialderen argazkiak, biak Iparraldeko euskaraz —ez erronkarieraz— idatziak.

Horiek dirateke ezagutzen diren euskal testu juridiko "ofizial" zaharrenak. Izan ere, aurrekoak ez dira benetako testuak, ahozko esaldi batzuen transkripzioa besterik ez diren heinean, edo ez dira modu ofizialean idatzi.

Horien ondoren, oso bestelako testuak aurkitzen ditugu, Satrustegik, (1978-79:236) dakarrenez: Leitzan 1626an, elizan irakurri zuten, gaztelaniaz eta

<sup>13</sup> Biharamuneko kazetek (*Diario Vasco, Euskaldunon Egunkaria, 1995/01/02*) ziotenez.

euskaraz, Erromako Rotako tribunalak emandako, herri hartako parrokiaren patronatoari buruzko epaia. Itzulitakoa izan arren, bai erabileraren aldetik, bai edukiaren aldetik, bete-betean euskal testu juridikotzat eman daitekeela uste dugu. Testu teknikoa eta itzulpen lotua izanik, aberatsa da terminologiaren ikuspegitik

Garai haietako beste benetako testu juridikoa bada: Kanbon, 1664an, zeinean ezkontza-agintzaria euskaraz idatzita baitago.

### 2.3.3.2.- Urruña- Hondarribia. 1680

Zuberoa-Erronkari gutun gaizki ezagutuak kenduz gero esan daiteke 1680ko datak zedarri bat markatzen duela euskararen erabilera juridikoaren aldetik, zeren Urruñako Udalak Hondarrabikoari idatzitako hiru gutun ofizialen ondoren, hainbat kasutan errepikatzen da praktika hori: udal-agintariak euskarazko izkribuak egitea beren agintaritzako lanetan.

Udaletik kanporako idazkietan, badirudi denetan mugaz gaindiko korrespondentzia dela; inoiz ez zaio zuzentzen estatu bereko agintari bat besteari euskaraz, hizkuntza ofiziala, —frantsesa zein espainiera— baita agintaritzaginkizunetako hizkuntza idatzia. Hainbat kasutan, espresuki adierazten da euskara erabiltzeko arrazoia. Esate baterako Gabriel Detchartek Miguel Rosi 1616an idatzitakoan azalpen hau irakur daiteke:

*"Jauna ceren çuc ezpaituçu fraincez lengoageric endelgatzen, eta nic ezpaitaquit escribatzen espagnolez, haren causaz heuscaraz escribaturen dut guthun haur, Esperançaz plazer harturen duçula goure lengoage naturalaz".*

Argi dago hasiera hartan, arrazoi berezi bat behar izan zuela Detchart jaunak betiko hizkuntza, frantsesa, baztertu eta euskara erabiltzeko.

Hala ere, mugez gainera erabilera hau ez da gauzatzen nahikoa komeria gabe. 1680ko gutunen historia nahikoa adierazgarria da. Dirudenez, Hondarrabiko Udalak espainolez egin zion arrapostua Urruñako lehen gutunari; honela baitio Urruñako bigarren gutunaren hasierak:

*" Dugularican zuec duzuen dificultade bera zuen lettren iracurzen, escribatzen darozuegu esquaras, pena dobleas."*

Edozelan ere, ez dugu ezagutzen erantzun hori. Bigarrenari euskaraz erantzuten saiatu ziren nonbait hondarribiarrak, baina ez arrakasta handiz, zeren Urruñarren hirugarren izkribuan, berrriro ere hizkuntzari buruzko gogoeta samin hauek irakurtzen baititugu.



*“Zuen eta gure iscuntza escaras aguitz differenta baita pena dugu chit ezin explicatuz zuen letra. Halla desiratzten guindunque zuec guri espaingoles escribatzea, eta guc zuei franseses edo escaras”*

Tamalez, euskara gaiztoko izkribu hori ere agertu ez denez, ez dugu Hegoaldeko euskara administratiboaren laginik XVII. mende osoan.

## 2.4.- XVIII. mendea 1789 arte

Mende horretan sartutakoan aldaketa nabarmena gertatzen da. Euskarazko testu juridikoen kopuruari, teknikotasunari eta barietateari dagokienez. Hainbat mota desberdinetako testuak ditugunez, jatorriaren eta funtzioaren arabera sailkatu nahi izan ditugu. Jadanik aurreko mendean hasitako muga-aldeko udal batzuen erabilera zabaldu egiten da, eta beste motatako izkribu ofizialak agertzen dira udaletan. Gainera, administrazioko beste erakunde goragokoek (Nafarroako Estadoek) ere, egiten dute saio aipagarriren bat euskararen erabileran. Beste aldetik, hala eliz administrazioa nola pertsona pribatuak ere estrainatzen dira euskarazko agiri juridikoak egiten. Kasu horiek bereziaz sailkatu ditugu XVIII. mendeko euskal testu juridikoak.

### 2.4.1.- Udal-izkribu administratibo ofizialak

#### 2.4.1.1.- Administrazioen arteko gutun ofizialak

Mugaz gairik harremanetan, hainbat aldiz, aurretik deskribatutakoekin hasita, eta XIX. mendeko azken laurdena arte, mugatik hurbileko udal batzuek, gehienetan Lapurdikoak, euskaraz idazten diete mugaz beste aldekoek. Ezagutzen ditugun gutun administratibo horiek, gehienetan Sara, Azkaine, Donibane-Lohizune, Urruña, eta Biriaturkoak dira, eta XIX. mendean, Nafarroa Behereko Baigorri, Lasa eta Bidarraikoak ere. Hartzailleak, berriz, eta Hondarribia, Pasaia, Oiartzun, eta muga-lerroko Bera, Etxalar, Baztan, eta Luzaide. Askoz gehiago dira Iparraldetik Hegoalderakoak alderantzizkoak baino. Edukiak, hainbat dira, batzuetan, gertaturiko lapurreten gaineko erreklamazioak<sup>14</sup>, eta oso maiz, fazerietako gorabeherak konpontzeko saioak<sup>15</sup>, eta beste antzeko kontuak, herri-mugakideen artean gertatu ohi direnak.

Horien artean, interes berezikoak dira 1788an Donibane Lohitzuneko merak lapurreta bat izan zela eta, Martin de Leguia Berako errege-eskribauari

<sup>14</sup> Urruña vs. Hondarribia, 1680; Donibane-Lohizune vs Bera,1788; Urruña vs. Pasaia, 1815.

<sup>15</sup> Sara vs. Baztan: 1773-1781, 1799, 1824; Sara vs Bera: 1827; Baigorri vs. Baztan: 1804; Itsasu vs. Baztan: 1807; Sara vs. Etxalar: 1821, 1846; Zugarramurdi vs. Sara: 1829; Biriatur vs. Bera: 1858; Lasa vs. Luzaide: 1860-1862; Bidarra vs. Baztan: 1876; Baigorri vs. Luzaide: 1881.

igorritako bost gutunak<sup>16</sup>, bertan, termino juridikotan aberatsak diren galdeketak, lekukotzak eta abar irakur daitezkeelako.

Horietako gehienetan, euskal testuak bakarrik gorde direnez, badirudi ez zirela itzulpenak, baizik eta zuzenean euskaraz idatzitakoak.

#### 2.4.1.2.- Lehen udal ordenantza eta beste udal-agiriak

Gregorio Mujikak bere *Monografía histórica de la Villa de Eibar* delakoan (464-467) ezagutzera eman zuen gure ustez lehen arau-testu euskarazkoa dena, gaztelaniazkoetik itzulia bada ere. *Ordenanza Municipalac Eusqueras, Elecinuetaracoz* du izenburu, eta 1754-1758 urteen artean datatu da; eskuizkribua da, eta haren transkripzioak badu oraingo 3 orri mekanografiatuen adinako neurria.

Antzeko testurik Hegoaldean berriro atzemateko hurrengo mendea arte itxaron beharko denez, Eibarko udal-arau horrek garrantzi aparta dauka euskal hizkera juridikoaren historian.

Eibarko arauak, hala ere, izan zituen aurrekariak. Aipagarriak dira Arrasateko udal-bandoak<sup>17</sup>, 1705ekoak, eta berriki ezaguturiko Irungo udaleko 1721eko zazpi agiriak<sup>18</sup>, laburrak izan arren, euskarak bere tokia bazuela erakusten dutenak.

Mende horretako azken aldikoa da gure ustez lehen udal-aktaren ohorea merezi duena, Ezkabarteko Udalak 1773an egindako agiri laburra euskara hutsezkoa, dakigunez<sup>19</sup>, baina ofizialtasun osokoa.

#### 2.4.2.- Bestelakoak

##### 2.4.2.1.- ‘Nafarroa Behereko Estadoek’

Orain arte ikusitako agiri administratibo guztiak udal-mailakoak dira, nahiz eta kategoria administratiboak ez izan garai haietan orain bezain zehatzak. Argi dagoena da lurralde historikoen agintaritzak ez zuela, dakigunez, ez Iparraldean, ez Hegoaldean<sup>20</sup> inoiz ordu arte euskara idatzia erabili ekintza ofizialetarako. Euskararen uko hori, hain zuzen ere, 1756ko Nafarroa Behereko “Estadoek” hausten dute, era berean dohaintza-agiri, eta aurrekontu-agiri den izkribu batean. Hori da, bederen, Manex Goyhenetxeren (1983:252) iritzia:

<sup>16</sup> Satrustegik «Correspondencia oficial vasca del siglo XVIII» (FLV 1986, n. 47 agiri-bilduman dakarrenez.

<sup>17</sup> Ozaetak (1992:793-800) argitara emanak.

<sup>18</sup> Altuna, Miranda (1995: 527-544).

<sup>19</sup> Apat Etchebarne (1971).

<sup>20</sup> Beste mende bat igaroko da Biazkaiko Batzar Nagusietan euskara idatzia agertu arte.

*"Euskara sartuko da bakarrik hemezortzigarren mendean, 1756-eko emaitzaren zati bat euskaraz idatzia da. Besterik ez. Hor daukagu Naparroako Estadoek hiru mendeetan zehar eginen duten euskarazko idatzi bakarra."*

#### 2.4.2.2.- Eliz administrazioarenak

Jadanik aurreko mendean euskarara itzulitako epai garrantzitsu baten berri eman dugu; XVIII. mendearen erdi aldean, eliz administrazioak itzulitako arau bat iritsi zaigu. Nonbait hedapen handia izan zuen, zeren hainbat euskal bertsio desberdin gorde baitira<sup>21</sup>.

Ez da eliz administrazioaren euskal dokumentu bakarra, Ainhoako Ynda erretorak 1774an egindakoaren berri ematen baitigu Lafourcadek (1989:581); epaiketa batekin zerikusi handia zuelako, aipagarria da 1778an Hondarribia elizan irakurritako sermoia (Satrustegi:1979 a).

#### 2.4.2.3.- Aurreko garaiko bezalako epaiketa-agiriak

Garai honetan segitzen dute agertzen judizioetako erdal aktetan euskarazko lekukotasunen transkripzioak: Urdanoz: 1687 ; Artajo: 1697; Hernani: 1777<sup>22</sup>. Badugu epaiketa bateko euskal testu bat, Donostian, 1761ean izandako batekoa, zeinean euskal testua ez den ahozkoaren transkripzioa: izan ere, euskaraz idatzitako gutunak dira epaiketako frogabidea.

#### 2.4.2.4.- Zuzenbide pribatukoak

Orain arte aipaturiko testu guztiak mota bateko edo besteko agintaritzari dagozkio, baina badira izkribuak adierazten dutenak noiz behinka euskaldunen arteko erlazio juridiko eta merkataritzakoetan euskarazko agiriak egiten zirela.

Horietako lehena, XVII. mendekoa da, 1683koa, eta Martin de Basauiluaso bilbotar merkataria, Donibane Lohizuneko beste bati igorritako gutun komertziala dugu. Hemen ere, euskara mugaz gairik harremanetan erabilia ikusten dugu.

Ondokoak, bata Hernanikoa, 1726koa, konponketa batzuen aurrekontua<sup>23</sup>: eta bestea Arizkungoa, 1777koa, Nafarroako erregeorde D. Francisco Bucarelli zetoirela eta egindako gastuak aurkezten dituen, ez dira mugaz beste aldera igorritakoak.

Jende pribatuen arteko harreman juridikoetan ospe berezia dauka notarioaren figurak. Haren sinaduraz berretsitako ekintzek maila berezi bat

<sup>21</sup> Satrustegi (1984:41-50, FLV 1982:387)

<sup>22</sup> Murugarren (1972:378-380)

<sup>23</sup> Carrion (1985:372-374)

lortzen dutela jakina da, baita ere, notarioek erabilitako hizkuntza arautua izaten dela. Horrela gertatzen da Frantziako erresuman, zeinean Frantzisko I. erregeak 1539an emandako Villers Coteret ordenantza ospetsuak ezarri baitzuen frantsesa izango zela eskrituren hizkuntza. Guztiz itxarotekoa da, beraz, ekintza juridiko horiek frantsesez Frantziako aldean, eta espainieraz Espainiakoan idatzi izatea. Hala ere, badaude XVIII. mendeko azken aldean notarioek berek egindako edo eginarazitako frantses eskritura batzuen (Miarrizten 1778an, Senperen 1780an eta 1788an), euskal bertsiok, Lafourcadek (1989:574-583) dakarrenez.

Halaber, notario (greffier) batek bere jardunean idatzia denez, aipatu beharrekoa da Martin de Leguia beratar errege-eskribau edo 'greffier'-ak Jaun Apez Dn. Gregorio Mihurari 1876an igorritako gutuna<sup>24</sup>, itxura guztien arabera euskaraz idatzia, ez itzulpena.

### 2.4.3.- Garai honetako testuen ezaugarriak

Hasieran genioenez, mende honetan asko zabaltzen da testu-moten kopurua: administratiboak, epaiketakoak, publikoak, pribatuak aurkitzen baitira.

Aurreko mendeetan ez bezala, gehienak idatziz sortutakoak dira, ez ahozkoen transkripzioak. Ondorioz, testu luzeagoak ditugu, nahiz eta gehienak oso xumeak izan.

Lurraldeei dagokienez, ekialdeak segitzen du gailentasuna gordetzen, baina testu gehienak Lapurdikoak dira, ez nafarrak. Bizkaia behin bakarrik agertzen zaigu, Martin de Basauiuasoren gutunetan. Aski nabarmena da Iparraldeko testuen eta Hegoaldekoen arteko aldea, hala estiloan nola terminologian.

Administrazioak ofizialki sortutakoetan ageri dira horrelako testuen ohiko ezaugarriak: inbertsonaltasuna, objektibotasuna, formaltasuna. Bestalde, nabarmena da, itzuliak ez direnetan ere, frantsesezko hitz eta formula burokratikoak euskaraturik agertzen direla. Terminologia juridikoa, hein handian maileguzkoa da.

Azpimarratzekoa iruditzen zaigu nola mendearen azken aldera ugaritzen diren era guztietako erabilerak, azken hamarraldian, ondoren ikusiko dugunez, zeharo areagotuko den joera, hain zuzen ere.

---

<sup>24</sup> Irigaray (1972), Lafourcade (1989:580)

## 2.5.- Frantziako Iraultzaren garaia

### 2.5.1.- Iraultza aurreko “ofizialtasuna”

Gauza jakina da Frantziako estatuan aspaldidanik izan direla era askotako ekimen bateratzaileak. XIII. mendez geroz, *oil*-eko hizkeren nagusitasuna eta gainerako hizkuntzen gainbehera nabarmena zen erregearen gortean. Oso ospetsua da jadanik aipatu dugun Villers-Cotterets ordenantza, behin betiko ezarri zuena —oraindik indarrean omen baitago— frantses hizkuntza bakarrik erabili ahal izango zela agiri juridiko, publiko zein pribatu, guztietan.

Ordu arte Iparraldeko arau idatzietan gaskoierak izan zuen presentzia ezkutatzuz joan zen, frantsesaren mesedetan. Euskarak ez zuen, hortaz, inolako ofizialtasunik inoiz izan, eta haren agerpenak, aurrerago esan den bezala, gehiago dira salbuespenezkoak arauzkoak baino.

1789an Iraultza hasten da, aurreko estatus guztia, baita neurri batean egoera linguistikoa ere, kolokan jartzen duen gertakaria. Iraultza hark euskararengan izan zituen ondorioetatik, epe luzekoak soilik gogoratzen dira maiz, baina orain dela mende laurdena (Rica:1975) oso lan interesgarria, garai hartako hizkuntzaren egoerak eta erabilera ofizialak izan zituzten gorabeheren berri ematen diguna. XX. mendearen azken laurdenean, ezkutuan zeuden beste hainbat agiri azaldu dira, baina uste dugu Ricak egindako testu haiei buruzko informazio eta gogoetak guztiz baliagarriak direla gaurko egunean. Handik hartuko ditugu datu gehienak.

### 2.5.2.- Frantziar Iraultzako arau eta politika linguistikoak

Iraultza pizten denetik kutsu ofiziala zuten hainbat itzulpen argitaratu baziren ere, Frantziako Asanblea Nazionalak, 1790ko urtarrilaren 14ko data daraman dekretu baten bidez, testu ofizialak tokian tokiko hizkuntzetara itzul zitezzen ezarri zuen (Rica 1975:19).

Frantzian aurrekaririk ez duen dekretu horren arrazoia ulergarria da kontuan hartzen bada herriaren gobernu bati, ez errege absolutuari, planteatzen zaion arazoa dela bere ideiak herriak ezagutu beharra<sup>25</sup>, eta Abbé Gregoireren

---

<sup>25</sup> *"Il eût été contraire à l'esprit même de la démocratie qu'on prétendait instituer et aux principes de gouvernement qu'on posait, de faire des réformes, fussent-elles des plus bien-faisantes, sans les faire connaître, sans en exposer l'économie et les motifs aux citoyens "actifs" et même "passifs".* F Brunot *Histoire de la Langue Française*. Rica-k (1975:22) aipatua.

inkesta 1790koak erakusten zuela frantziar hiritarren erdiak ez zuela frantsesez hitz egiten.

Baina Gregoire apeza ez zen ospetsu bihurtu Frantziako beste hizkuntzei erakutsitako maitasunarengatik. Ezaguna da Iraultzaren norabide-aldaketa arazo horri buruz, eta nola 1792tik aurrera ugaritzen diren frantsesearen aldeko eta beste hizkuntzak suntsiarazteko aldarrikapenak<sup>26</sup>.

Politika linguistikoa, hala ere, ez zen berehala aldatu, eta itzulpenak egin egin ziren, harik eta 1794an, Gregoireren “*Sur la nécessité et les moyens d’anéantir les patois et d’universaliser l’usage de la langue française*” txostenean sustengatutako ideiak arau linguistikoetan gauzatu ondoren, itzulpen-politika bertan behera utzi eta frantses hutsaren erabilera agindu zen. Halaz eta guztiz ere, Jon Bilbaok bere *Bibliographian* (1985) dakarrenez, badira 1795 edo 1796an plazaratutako agiriak, eta, ikusiko dugun bezala, maila apalago batean, euskararen erabilera ofiziala ez da itzaltzen beste urte asko igaro arte.

### 2.5.3.- Iraultzaren euskal testuak

Esan dugun bezala Iraultzarekin hasten dira agertzen izaera politiko-juridikoko euskal testuak. Aurreko guztien azterlanak<sup>27</sup> bildu, eta agiri berriak erantsi dituen Trebiñoren (2001) liburuan, 13 edo 14<sup>28</sup> testuren berri ematen zaigu, 1789tik 1799 artekoak.

Alde batera utziko ditugu, aurrerago iruzkintzeko, Ahetzeko udal agiriak, garai berekoak, baina alde askotatik gisa arras desberdinak baitira.

Neurriz eta izaeraz aski desberdinak dira, bada *Franciaco Bilçarraren edo Estatu Generalen Decretac* izenburukoa bezalakoak, hogei orrialdetik<sup>29</sup> gorakoak, eta badira orri erdikoak. Batzuk benetako arau juridikoak dira eta beste batzuk, aldarrikapen politikoak. Dakigunez, denak dira itzuliak, eta denen jatorizkoak ere ezagutzen dira.

Izpirituz eta xedez iraultzaren asmo berekoak ez badira ere, garai hartan Elizak argitaratutako agiri hauek ere hemen sartzekoak dira erabiltzen duten hizkera eta terminologia juridiko-politikoaren aldetik: *Pyrenea - Aphaletaco departimenduco juan Aphezpicuaren Ordenatça*, eta *Conferencia spirituala*,

<sup>26</sup> *La chronique de Paris* berriemaileak, 1792ko azaroaren 1ean argitaratutako pasarte batean esaten zen :” *le Bas Breton, le Basque, etc., son des idiômes plus étrangers à la majorité des Français que le Chinois ou le Turc. (...) le premier inté rêt de l’Etat es de les propager [les lumières], il faut bannir du territoire de la république toute autre langus que celle qu’on parle à la Convention Nationale*” Brunot-etik aipatua, Rica (1975:20).

<sup>27</sup> Vinson (1984), Rica (1975), Salaburu (1982), Arcocha (1991), Trebiño (2001).

<sup>28</sup> Testu baten bi bertsio baitaude

<sup>29</sup> 4.588 «ordenagailu-hitz»

*çointan ikhusten baita Franciaco Nazioneac Eliça guiçonon gainean eguin duen Constitucione Civila edo Erreglamendua*

Garai honetako testuen funtzioari buruz, Ricari jarraituaz, azpimarratuko genuke, ezen, iraultzaileek berriaz agertzen zutenez, frantsesa ez ziren beste hizkuntzak erabiltzerakoan zeukaten xede bakarra komunikatiboa zela: iraultzaren mezuak herritarrei helaraztea. Beraz, hizkuntza horien erabilerak ez zuen agintarien aldetik inolako aintzatespenik adierazten, izan ere, prestigioa ez zegokion xede hizkuntzari, sorburukoari, baizik. Hurrengo garaietan agertuko den hizkuntzaren funtzio sinbolikoak ez zuen eraginik, gure ustez, Ricak (1975: 85) dioenarekin ados gatozela, itzultzaileen jokabidean.

Beste aldetik, itzulpen-politikaren bultzatzaileek berek hainbat aldiz adierazi zuten itzulpenen zehaztasunaren inguruko kezka. Kezka horrek badu zerikusia produktuarekin, zeren itzultzaileek kasu askotan, adierazien baliokidetzat ziurtatzearen adieraziak (maileguak) ekartzen baitzituzten euskarazko testura.

Hortaz, Ricak egiten dituen gogoeta aberatsez gainera, esan daiteke testu horietan agertzen dela teknikasun-maila aski garaia eta terminologia juridiko-administratiboaren ikuspegitik, ordu arte inoiz aurkitu gabeko aberastasuna eta ugaritasuna.

#### 2.5.4.- Iraultza garaiko (1789-1799) bestelako testu juridikoak

##### Administratiboak

Deigarria da Ahetzeko udal-erregistroaren kasua, 27 euskarazko akta idatzi baitziren 1792ko urtarrilaren 15ean hasita, 1798 arte. Dirudienez, euskaraz idatzi ziren, itzulpen izan gabe. Administrazio euskaldun baten isla diren akta horien zergatia ez da ezaguna, baina pentsatzekoa da aski izan zela herri txiki hartan idazkari euskaltzale bat suertatzea. Testu xumeak izan arren Jean Etchepare, akta horietako geihenak idatzi zituen ‘*greffier*’-aren izena kontuan hartzekoa da euskara juridikoaren historian.

Horrez gainera, hamarkada horretan, aspaldiko ohiturari jaraiki, Iparraldeko Sarako udalak, 1799an, Mendiburu eta Lahetjusan Alkate eta teniente zirelarik, Baztangoari euskaraz idatzi zion.

##### Pribatuak

Garai horretakoa da, esate baterako, 1792ko *Orçaicen emana* hasten den gutun bat, administrazioari zuzenduriko testua.

## 2.6.- XIX. mendea

### 2.6.1.- Udal testuak

#### 2.6.1.1.- Udalen arteko gutunak eta beste udal-agiriak

Iraultza ondoren, aurreko mendean hain ugari diren mugaz gaineko udal-gutunak ere agertzen dira, baina esan daiteke XIX. mendearekin batera, agortuz doala Iparraldeko udalek euskaraz idazteko duten gaitasuna. Gainera, Nafarroa Beherekoak (Baigorri, Bidarra...) hasten diren bezala, Lapurdikoak ixildu egiten dira: izan ere, 1865ean Sarak Berari idatzitakoa da Lapurdiko azkena eta 1897koa, ezagutzen dugun azkena, Lasako udalak igorria. Aldaketa esanguratsuagoa da XIX. mendean mugaldeko udal batzuek (Bera, Etxalar, Luzaide, Oiartzun...) eta barnealdeko Goizuetak edo Hernanik erakusten duten euskalzaletasuna, zeren eta, horietan euskararen erabilera ez da ahitzen mugaz gaineko komunikazioan, baizik herri-barneko hainbat behar administratiboetara ere zabaltzen da. Honela, 1822an Oiartzungo Udalak eta 1855-56ean Etxalarkoak udal-zergei buruzko izkribuak kaleratzen dituzte; 1829an Hernaniko alkateak euskaraz idazten dio Lasarte auzokoari; 1847an Goizuetakoak bando bat kaleratzen du lizarrei buruz, eta urte berean, Berako komisarioak zirkular bat ezagutarazten du; Hernanikoak, berriro 1885an euskarazko bando bat agintzen du. Beste agiri apur batzuk ere badira, esate baterako Tolosaldean egindako bi, elizari ordaindu beharreko "primiciac", eta edarien hornikuntza gai dutenak, 1840 baino zerbait lehenagoakoak. Halaber, aipatu beharrekoa da Donostiako alkateak, 1813an egindako hitzaldi idatzia.

Gehienetan, idazki horiek xumeak dira, baina ezin ukatuzko izaera arautzailea edo administratiboa dute, eta neurri apal batean, terminologia juridikoa erabiltzen dute.

Deigarria da zein eremu txikitan agertzen diren euskal izkribu administratiboak, zeren eta, Luzaide kenduz gero, Lapurdi-Nafarroa muga ingurukoak, eta Gipuzkoako ekialdekoak dira guztiak.

Dena den, ez da ahaztu behar guztira ez direla hogeita hamarrera iritsiko ezagutzen ditugun mota horretako euskal izkribuak

#### 2.6.1.2.- Udal Ordenantzak: Bera, Goizueta, Tolosa, Usurbil

Aurreko mendean Eibarko udala izan bazen aitzindari, XIX.ean, apur bat ugaritzen dira udal-arau euskarazkoak.



Nafarroako Goizuetako udala da bere ordenantzak bitan euskaraz argitaratzen dituen bakarra, estraina aldiz, foruak indarrean zeudela<sup>30</sup>, eta mendearen bukaeran, 1897an, oso bestelako testua, luzea, laurogeita zazpi artikulua baitauzka.

Mendearen hasierakotzat jotzen dira Berako ordenantzak dauzkaten bi izkribu, labur, datarik gabekoak.

Mendearen azken laurdena arte itxaron behar da beste ordenantzak aurkitzeko: *Ayuntamentuaren gañean tratatzen duen erri onetaco ordenantzac* izeneko izkribua, erdarazkoaren itzulpena, orain dela urte batzuk Tolosako udal agiritegian aurkitua, 1874 edo 1875koa izan daiteke.

Azkenik, aipagarriak dira<sup>31</sup>, *Usurbillko erriyaren ordenantzak*, izenekoak; 1888an argitaratu ziren Minteguiaga alkate eta Mendizabal idazkari zirelarik.

## 2.6.2.- Goi mailako administrazioen testuak

### 2.6.2.1.- Gernikako Batzarreak euskaraz

XVIII. mendean agertzen badira Nafarroa Behereko aginte-erakundeen lehen euskal idazkiak, XIX. mendearen erdialdera arte ez dugu parekorik Hegoaldeko erakundeetan. Estraina aldiz, 1846ko Bizkaiko Batzar Nagusien aktetan agertzen da korregidorearen hitzaldia euskaraturik. Harrezkero, eta 1872 arte (Trebiño, 2001:367) guztiz normala da akta inprimatuetan euskarazko idazkiak aurkitzea, gehienetan, hitzaldiak. Trebiñok dioenez, guztira 20 dokumentu eta 53 orrialde inprimatuta dira, denak erdaraz sortuak eta ondoren itzuliak (cf.371).

Itzultzaileei buruz, hala Urrutiak (1998c:254) nola Trebiñok (2001:371) diotenez, Jose Antonio Uriarte euskal idazle ezaguna hainbat urtetan aritu zen langintza horretan.

### 2.6.2.2.- Diputazioak, Batzar Nagusiak, Gobernu zibilak

XIX mendearen bukaeran, euskal letretan oro har gertatzen den pizkundeak badu bere islatxoa goi mailako administrazioetan, oso urria bada ere.

Horrela, 1877an Gipuzkoako eta Bizkaiko Gobernu Zibilek soldaduen erreklutamenduari buruzko agiri euskaratu bat kaleratzen dute, eta urte berekoa da Gizpuzkoako Batzar Nagusien zirkularra.

<sup>30</sup>1825ko urtarrilaren 1ean datatua erdal bertsioan.

<sup>31</sup>Besteak beste, Zabaletak (1985) testu horren itzulpenari buruz argitaratutako artikulua interesgarriengatik.

Hogei urte beranduago, 1897an Gipuzkoako Diputazioak ekiten dio, nekazariei zuzendutako mezuak euskaratzeari, ondorengo urteetan hainbatetan errepikatuko duen jokabidea.

Zer esanik ez, aipatutako agiri horiek denak erdaraz idatzi eta ondoren euskaratuak dira.

### 2.6.3.- Pertsona pribatuenak, elkarteenak

Partikularren arteko harreman juridikoetan ere, Iparraldean, Iraultzaren ondotik urritu egiten dira ezagutzen diren izkribuak. Mendearen lehen herenean oraindik mugaldea da nagusi: Bidarrain 1808an baditugu juridikotzat eman daitezkeen gutunak, Baztango alkateari zuzendurikoak, Arizkunen ere urte berean 1812an lesakar batek Sarako merari igorritakoak eta Sarako 1831koak

Izaera juridikoa nolabaitekoa bada ere, administrazioaren inguruan idatziak direnez, ospetsuak dira Jose Paulo Ulibarrik eta Ygnacio de Echevarriak ministroari euskaraz idatzitako eskabideak 1823an. Gauza beretsua esan daiteke 1824an Juan Ignacio Iztuetak idatzitako gutunaz.

Ondoko urteetan, asko urritzen dira mota honetako izkribuak, harik eta mendearen azken aldirian, Gipuzkoako Zestuan, 1879, 1880, eta 1881 urteteetan idatziriko maizter-kontratuaren ordainketaren ordainagiriak (Garcia Cantero: 1981) agertzen zaizkigun.

Mendearen azken partean agertzen dira bestre motako izkribu juridikoak, elkarteen araudiak. Ezagutzen dugun horrelako lehena (Trebiño, 2001:15) 1867ko *Laphurdiko Konfrarioaren kondizioneac*<sup>32</sup> izenekoa. Handik gutxira *Nafarroco Euscarazco Elcargoa* izenekoaren sortze-agiria dugu, 1878koa, euskaraz idatzia, eta puntu berezi batean aztertuko dugun Lore-Jokoen ingurukoak.

### 2.6.4.- Liburuxkak eta artikuluak, politika eta eskubideak gai.

Iraultza frantsesaren ondorioz, gizartearen erabide juridiko-politikoak herritarrentzat eskuragarri agertzen dira. Giza-eskubideak, konstituzioa, legea, eta antzeko gaiak herriarentzat izan nahi duen literatura-mota berri baten gai bihurtzen dira. Beste aldetik, Euskal Herrian mende honetan zehar gertatzen diren gerrateak eta politika-gorabeherak bi aldeetako literatura politikoa eragiten dute. Kezka berri horien lekuko hainbat testu geratu zaizkigu: erabiltzen duten lexiko juridiko-politikoarengatik interesgarrienetakoak ondoko hauek ditugu

---

<sup>32</sup>Lehenago badira elkarte-arauak, Trebiñok (2001:13) dioenez, XVIII.mendean Alexis Mercy-k euskaratu baitzituen kofradia erlijioso baten arauak; baina horrelako elkarte baten arauen juridikotasuna oso nolabaitekoa izan daiteke.

*Jaquin-bide Iritarautia*. Izenburu osoak dioenez 1820an idatzi edo itzuli zen; baina eskuizkribu gisa geratu zen inolako zabalkunderik gabe, 1987an Juan San Martinek (1987) haren berri eman zuen arte<sup>33</sup>.

*Españiaco uritar constitucionalen cartilla civilia*. Hau ere 1820koa, baina dirudienez, aurrekoak baino zorte hobea izan zuena, Tolosan “moldizquidatua” izan baitzen<sup>34</sup>.

Aurreko biak, Espainian garai hartan zabalkunde handia izan zuen “catecismo politiko” generoko bi liburuxken itzulpenak dira. Lehenengoaren lexikoa aski Larramenditarra da Juan San Martinek (1987) berak dioenez, bigarrenarena, berriz, *baldinde* bezalako zenbait hitz jatorri berekoak agertzen diren arren, askoz tradizionalagoa da.

Oso bestelakoak dira, ideologiaren aldetik, eta hizkeraren aldetik, Iparraldean mende bukaeran, elizaren ideia tradizionalak defenditzearren argitara eman ziren liburuxka eta liburuak hala nola *Eletzionetaco Catichima* (Vinson, 1890:667a zk.), *Botzkako katichima* (Vinson, 1890:667b zk.), *Catichima laburra hautuen edo electionentzat* (Vinson, 1890:667c zk.), *Boz emailearen eginbideac* (Vinson, 1890:668 zk.), Michel Elissambururen *Framazonak eta Frantziako hirur errepubliken ixtorioa laburra, Zer izan diren eta zer diren oraino framazonak munduan edo Aphezen dretchoak eta eginbideac eletzionetan* (Diharassarry: 1890)

Hegoaldeari dagokionez, aipatu beharrekoak dira hala karlisten nola liberalen alderdietan kaleratutako propaganda orritxo eta liburuxkak, eta bereziki, ia izen berekoak baina desberdinak *Bai, pecatu da liberalqueriya* 1888an Baionan inprimatua baina gipuzkeraz idatzia, eta Hegoaldean banatua izatekoa zena *Liberalen doctrina pecatu da* Gregorio Arruek itzulitakoa (Lakarra, 1989:663).

Hurrengo puntuko Lore-Jokoen emaitza ere baden arren, aipagarria da aldizkariko artikulua bat idazten dela euskaraz zuzenbidea duena gai: Lopez Allen Franziskorena, 1898koa, «*Gipuzkoako lege-zarrak eta oen batzarreak*» izenburukoa, *Euskal Herria Revista bascongada*-zelakoan argitaratua<sup>35</sup>.

<sup>33</sup> Itzultzailea, Dr. Dn. Jose Felix Amundarain apez zegamarra. Gaztelaniazko jatorrizkoaren berri ematen du Angel Ibisate Lozares-ek «El original castellano de "Jaquinbide Iritarautia" del Dr. D. J. F.A.» in Scriptorium Victoriense 39 (1992) 222-227

<sup>34</sup> Gure esku, Rikardo Gómez López, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak prestatuturiko bertsio informatikoa.

<sup>35</sup> *Euskal Herria Revista bascongada*-n XXXIX, 1892-2.

### 2.6.5.- Lore-jokoetako administrazio-testuak 1853-1903. (Ikus IV. 2.6.5. Eranskina)

Mende erdi batez luzatu ziren lore-jokoak interesgarriak dira hizkera juridikoaren historiarako, batez ere, Pagolak (1984:56) dioenez, 1879tik aurrerakoak, zeren data hartatik hasita Hegoaldeak hartzen du protagonismoa, bai Lore-jokoaren antolakuntzan, bai partaidetzan. Izan ere, ikerlan berean esaten denez, sorkuntza lexikoa, nahita egindako jarduera bezala, Hegoaldekoen esku egon zen ia eksklusiboki.

Bi alderditan begizta daitege lore-jokoaren eta hizkera juridikoaren arteko lotura. Bata, lore jokoak Donostiara igarotzen diren unetik, bertako euskarazko “hizkera ofiziala” sortzeko ahalegina egiten delako (Pagola, 1984:58), hainbat hitz tekniko eta formula finkatuaz. Seguruenik, aipatu egileak dioen bezala, euskal literatura teknikoaren “tradizio lexikorik” iraunkorrenetakoa, mende laurdena baino gehiago luzatu baitzen.

Beste aldetik, esan bezala, hainbat urtez neologismo-lehiaketak antolatu ziren, eta aurkezturiko hainbat hitzek zuzenbidearen adigai munduarekin zerikusi zuzena izan zutelako.

Hala lore-jokoetako izkribu ofizialetan, nola bertan aurkeztutako lanetan, hizkera juridikoan balio edo tokia izan zezaketen hainbat hitz erabili ziren, eranskinean ikus daitekeen bezala.

Hitz horiek, zuzenbidearen alor batzuk besterik ukitzen ez ba dituzte ere, badute interesa hizkera juridikoaren historiarako. Erakundeak, karguak, tratamenduak, adigai politikoak, izendatzen dira. Azpimarratzekoa da denak direla administrazioaren eta agintearen mundukoak, ez zuzenbide pribatukoak.

### 2.6.6.- Beste zenbait

Agintaritza zibiletik at, nolabaiteko hizkera juridikoa ere erabiltzen da agintari edo nagusi militarrek kaleratutako hainbat agiritan (Trebilño 2001:14). Horietako batzuk aipatzearen, Nafarroan, independentzi gerratean agintari militarren bando bat, *Nafarroco Generala eta Gobernadoreac, Nafarroco Herreynuco bandioen buruac paracen dire premmiotaco* izenburukoa, eta udal mailako artean aipaturiko Berako ordenantzak aukeratuko genituzke.

Nolabaiteko izaera juridikoa ere aitor dakiok Urdazubiko abadeak 1801ean jaurtiriko eskumiku-agiriari<sup>36</sup> ere.

---

<sup>36</sup>Zudaire (1972)

## 2.7.- XX. mendea 1936 arte

### 2.7.1.- XX. mendearen lehen herena

Jakina da, eta aipatu dugu jadanik, euskal letren historian mendea bukatu baino lehen gertatzen direla aldaketa nabarmenenak, bereziki Hegoaldean, baina balio juridikoko testuei dagokienez ez dugu arrazoi berezirik aurkitu literaturan, eta pentsamendu politikoan jazotzen den bihurtuneari hertsiki atxikitzeko. Aurkezpen honetan mende-aldaketa aukeratzeak ere ez du esangurarik, zenbaki biribila izatea besterik.

Aurreko garaietan, Iraultza frantseseko itzulpen-politikatik at ez dugu ezagutzen euskara kontuan hartzen duen araurik euskal herrietan. XX. mendean, ordea, egoera hori aldatzen hasten da, eta badira politika linguistikoaren hasikin batzuk.

Rodriguezek eta Unanuek (1994) egindako ikerketa-lanean irakur daitekeenez, XX. mendeko lehen herenean, bereziki errepublika-garaian, udaletan eta diputazioetan izan ziren hainbat arau, euskarari halako ezagutza ofiziala ematen ziotenak eta horren ondorioz, funtzionarioen euskara jakin beharra galdatzen zituztenak.

Ezagutza horren lehen oinarria, 1924ko urriaren 21eko Errege-Dekretuak, Udal-Estatutua hiru probintzietan aplikatzekoak, ipini zuen, bertan baimena ematen baitzitzairen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako udalei idazkariei eta gainerako langileei euskara jakitea esijitzeko. Estatutu hori kasu gehienetan Errepublika aldira arte indarrean sartu ez bazen ere, izan ziren salbuespenak. Honela, Donostiako Udalak 1928ko azaroaren 20an egindako batzarraldian onartu zuen Udaleko Enplegatu eta Funtzionarioen Araudia, nahiz eta 1931 arte ez zen gauzatzen hasi. Errepublikan sartuta, hainbat udalek (Errenteria, Irun, Eibar...) egindako lanpostu-deialdietan hizkuntz eskakizunak ezarri ziren. Baina, hainbat kasutan hizkuntz eskakizun horietarako azterketak egin baziren, eta eskakizun horiek betetzen bide zituzten funtzionarioak izendatu baziren, probak ahoz egiten zirenez, ez zaizkigu iritsi, ez eta haiek produzitutako euskal izkribuak ere.

Baina estatus juridikoa ukitu gabe, oso nabarmena da 1917-18 urteetan, Bizkaia eta Gipuzkoako Diputazioetan gertaturiko aldaketa. Bizkaian Eusko Alderdi Jeltzalleak Bizkaiko Diputazioa eskuratu zuenean, 1917an, eta hurrengo urtean Gipuzkoako Diputazioan, hainbat idazki euskaratzen hasi ziren, ondoren azalduko dugun bezala.

Gertaera horiek erakusten dutenez, euskarak 1936ko urriaren lehen

Estatutuarekin koofizialtasuna eskuratu baino lehen izan ziren saio batzuk hizkuntza horren estatusa aldatzeko, baina gure interesa ez hizkuntz politikan baizik haren balizko ondorio izan daitezkeen testuetan dagoelarik, esan behar dugu oso testu administratibo gutxi iritsi zaigula garai horretatik, ondoko lerroetan agerian jarriko dugun bezala.

### 2.7.2.- Goi mailako erakundeak. Gipuzkoa eta Bizkaiko Diputazioak

Esan dugun bezala, aurreko mendearen bukaeran agertzen da euskara euskal diputazioetan, gehien bat nekazaritzarekin lotuta. Gipuzkoako Diputazioak 1897an Euskal festak direla eta antolaturiko lehiaketa lehena izan bide zen. ondorengo urteetan antzeko testuak argitaratzen dira, garaiko euskal aldizkarietan irakur daitekeenez, ondoko herrietan: Zestuan 1898an, (*Euskal-Erria* aldizkaria, 1898) Zumarragan 1899an, (*Euskal-Erria*, 1899) Donostian 1906an (*Erria*, 1906:54) Eibarren 1908an (*Erria*, 1908:58).

Baina aldaketa nagusia, 1917an gertatzen da (Trebiño 2001:659) Bizkaiko Aldundia, zirkularrak erdaraz bezala euskaraz ere zabaltzen hasten denean. Urte hartan, eta hurrengoan, 20 zirkular, gutxienez, egiten dira euskaraz, eta horrez gainera, beste hainbat agiri euskaratzen dira. Horien artean garantzitsuenak, basozaintzako Espainiako lege baten itzulpena, eskolentzako dirulaguntzak finkatzen dituen arautegia, eta Euskaltzaindia<sup>37</sup> sortzeko aurkezturiko mozioa. Garai berean, badaude Lekeitioko udalarekin izandako harreman administratiboari dagozkion agiriak, eta beste hainbat. Bainan 1919an eten egiten da euskarararen erabilera ugari hori. Bigarren aldiz ekiten zaio espainiar arau baten itzulpenari, baina hori 1931an gertatzen da, jadanik Errepublika ezarrita dagoelarik, Bizkaiko diputazioak “*basetxeetako errentadoreei*” buruzko dekretua itzultzen duenean.

Gipuzkoako Diputazioan (hobeto esanda Gipuzkoako “Komisio Probintzian”) ere, 1918an hasita, udaletara bidalitako zirkularrak bi hizkuntzetan bidaltzen hasten dira. Trebiñok (2001:702) dioenez, kopuru polita osatzen dute, 41 bai baitaude, gehienak 1918 eta 1919 urteetakoak, baina, baita 1921, 1922, 1923, eta 1931koak ere.

Ondoko 1920ko hamarraldian, beheraldi nabarmena dago, baina 1925an Gipuzkoako Diputazioak argitara ematen du *Gipuzkoa'ko Gurasotzako zezen toki Araudia*, eta 1927an, obligazioen jaulkipenari buruzko idazki bat ere. Jadanik errepublikan sarturik, Gipuzkoako Diputazioak estatuaren aldeko liburuxka bat plazaratu zuen.

---

<sup>37</sup> Artean izenik gabea, 'Euskaltzaindi' izendapena erabaki gabe baitzegoen.

Estatutuaren inguruan, bada beste zenbait euskal izkribu, esate baterako, 1932ko *Euskalerrientzako Sortarau-Asmoa*, Iruñean egindako euskal udalen biltzarrean eztabaidagai izan zena.

Euskarara itzulirik ere, Estatutuaz<sup>38</sup> gainera, badago beste lege-testu bat, Espainiako legebiltzarrean Minoria Nacionalista Vasca/ Eusko Aldunen Elkarteak aurkezturiko lege-proiektua.

### 2.7.3.- Udaletako eta beste administrazioetako agiriak

Iparraldeko zein Hegoaldeko administrazioan eta mundu juridikoan erdaraz idatzi izan dela gauza jakina da, baina Iparraldean, aztarna erdi folkloriko batzuk<sup>39</sup> besterik topatzen ez diren bitartean, Hegoaldean, Bizkaian eta Gipuzkoan, eta Nafarroako Bera herrian, euskara agertzen da hainbat alditan agintarien eskutik, gehienetan bando xume batzuk besterik ez badira ere.

Horien adibide izan daiteke, esate baterako, Oiartzungo Udalak 1911an kaleraturiko bandoak, hartu beharreko osasun-neurriak zirela eta, 1921eko Hernaniko bandoa, 1931 Ondarroakoa eta 1935ean Lekeition kaleratutakoa.

Berako Udalak ere bandoak euskaratzen zituela badakigu, Trebiñok (2001) 1933tik aurrera itzultitako hainbaten izkribuak aurkitu dituelako, baina, argi dago gaztelaniazkoa zela beti formalki idatzia eta alkatearen sinadura zeramana.

Garai horretan bada beste ale bitxia, 1926an Bizkaiko Itsas Komandantziak kaleratutako bandoa, marinelen errentei buruzkoa.

### 2.7.4.- Zuzenbide pribatuko araudiak, aktak eta bestelakoak

Aurreko mendean behin bakarrik agertzen den agiri-mota dugu elkarte pribatuaren estatutuak, edo araudia<sup>40</sup>. Mende-hasiera honetan, aldiz, nahiko ugari dauzkagu; gehienak, kutsu kultural edo politiko nazionalistako elkartetakoak dira, salbuespenak ere badauden arren.

Horrelako multzoak egin daitezke:

Politikoak eta antzekoak ELA<sup>41</sup>, EAJ eta Euzko Gastedi<sup>42</sup>, Euzko Nekazarien Bazkuna<sup>43</sup>, apaizen elkarte bat<sup>44</sup>, Jaungoiko-zaleak<sup>45</sup>.

<sup>38</sup>Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoan argitaratuko zen.

<sup>39</sup> Heldu zaigun lagin bakarretakoa Hendaiaiko udalarena da, 1901ko *Frantziako bestak eta euskaldun bestak* zirela eta antolaturiko lehiaketa publikoa arautzen zuen agiritxo.

<sup>40</sup> Trebiñok (2001:13) oharrarazten duenez, elkarte erlijiosoek hainbatetan itzultzen dituzte beren barne-araudiak, baina horien juridikotasuna oso txikia dela uste dugu.

<sup>41</sup>*Euzko Langilien Alkartasuna'ren Arautegija* 1914, eta *Euzko Langillien Osasun Alkartasuna* /Cooperativa Sanitaria de STV.

Euskararen inguruko erakundeak: Euskal Zaleen Biltzarra<sup>46</sup>, Eusko Ikaskuntza<sup>47</sup>, Euskaltzaindia<sup>48</sup>.

Bestelakoak: aseguru-elkarte bat Baionan<sup>49</sup>, eta Elorrioko guraso-elkarte bat<sup>50</sup>.

Zer esanik ez, testu horietan ageri da jadanik Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko osina. Iparraldean bakarra dugu, baina haren izateko arrazoi bakarra, laborari euskaldunei irakurtze-lana erraztea zen bitartean, Hegoaldekoetan nabarmena da euskararen erabilera sinbolikoa. Nekez aurkituko zen testu horiek euskaraz erdaraz baino errazago irakurriko zituenik.

### 2.7.5.- Zuzenbideari buruzko estudioak eta dibulgazioa

XIX. mendeko aurrekaria salbuetsiz gero, garai honetan sortzen den generoa da zuzenbidearen ikerkuntza edo zabalkundea gai duena. Horrelako lanak, foruen galtzeak eta nazionalismoak sortutako giroak eta ideologiak eraginda sortzen dira gehien bat. Bestalde, gehienak aldizkarietan argitaraturiko artikulua ditugu, hau ere testu mota nahiko berria, lehengoak gehientsuenak liburuxkak edo orri solteak izaten baitziren.

Hiru sailetan multzoka daitezke mende heren horretan argitaratutako lanak.

Propaganda politikoko artikulua.

Aurreko mendean ere horrelakorik izan bazen ere, mende honetan argitaratutako zenbaitek<sup>51</sup>, erabiltzen dituzten adigaiengatik eta tonuarengatik, merezi dute hemen jasotzea.

Dibulgazio juridikoa

Batez ere Argian, herritarrei zuzenbideko oinarrizko adigai batzuk modu xumean azaltzeko artikulua sorta bat<sup>52</sup> argitaratu zen.

<sup>42</sup> *Euzko Gastedijen 2en batzarrerako arautegija*. 1920. Bilbo: Euzko Argitaldaria; *Euzko Alderdi Jeltzaliaren ilunkiderazko eralgundia*. 1933. Bilbo: Zabalgundia; *Euzko Gaztetxu Batza*. Bilbo: Echenagusia, 1933

<sup>43</sup> *Euzko Nekazarien Bazkunaren Araudia*. Zeruko Argia 1933, 653/654 alea

<sup>44</sup> *Euzko Jaupari Bazkunaren Arautegija*. 1914. Bilbo: Imp. de Jesús Álvarez

<sup>45</sup> *Jaungoiko-zale bazkunaren araudia* Jaungoiko-zale, 310 zk., 1927,187-194.

<sup>46</sup> *Euskal Zaleen Biltzarra*. Statuts. 1902. Baiona: Lamoignonère

<sup>47</sup> *Primer Congreso de Estudios Vascos*. 1918. *Erabakiak / Conclusiones: Araudia*: Bilbo: Rochelt 1919

<sup>48</sup> Euskaltzaindiaren sortarauak 1920

<sup>49</sup> *Abere gorrietan hiltzearen kontra asuramendiazko kofradiaren erreglamendua*. 1906. Baiona: Lasserre

<sup>50</sup> *Elorri'ko guraso ta etxeko nagosien bazkunaren arautegija*. Zornotza:1918

<sup>51</sup> Esate baterako, Pierre Lafitteren «Araudia» (*Gure Herria*. 13, 1933, 481-485) eta «Euskal-herri-zaleen chedeac baitezpadako chehetasun batzuek laburzki argituac» (*Euskal-herriaren alde*, Baiona, 1933) edo datarik gabe Gipuzkoako Aldundiaren Irakolan inprimaturiko *Zer da zertarako da Eusko araudia. Irakurri ta Oldoztu liburuxka*



### Ikerkuntza-lanak

Hemen ere, artikuluen maila tekniko apala dela eta, dibulgazioa edo ikerkuntza den zalantzak baditugu ere, uste dugu aipagarriak direla lantxo batzuk<sup>53</sup>.

Toki berezia zor zaie, besterik ez balitz ere, liburu gisa argitaratu zirelako Juan Bautista Eguzkitzak 1935an argitaratutako *Gizarte-Auzia: Ugazaba ta langille arteko gora-berak* liburutxoari, eta Hipolito Larrakoetxeak 1924an itzuli arren 1978 arte argia ikusi ez zuen *Erroma'ko Eleizaren Araudia / Codex Juris Canonici* liburu mardulari. Azken hori da, gure ustez 1978ra arte inoiz egindako euskal testu juridiko luzeena eta teknikoena.

## 2.8.- Euskal testu juridiko historikoak hizkera baten oinarri gisa.

Aurreko lerroetan, gure iritziz, hizkera juridikoaren tradizioa osa dezaketen testuen aurkezpena eta nolakotasun batzuen deskribapena egin badugu, gure xedea izan da azaltzea nolakoa zen euskara juridikoa, haren lexikoa bereziki, gure corpusa osatzen hasten den unean, 1936an, edo beste ikuspegi batetik esanda, zein baliabidez balia zitezkeen testu juridiko ugari idatzi (itzuli) behar izan zituztenak, *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoaren* euskal bertsioren arduradunak.

Beraz, 1936ko hizkera juridikoaren egoeraren zertzelada batzuk eman nahi genituzke, bi ikuspegi azalduaz, bata, hemen aipatu ditugun testuek erakusten dutena, eta bestea, testu horietatik kanpoko hizkuntzan suma daitekeena.

### 2.8.1.- Testu-motak oro har

Kapitulu honetan ikusia dugunez, testu juridiko gutxi idatzi dira euskaraz. Uste dugu baieztapen hori modu absolutuan egin daitekeela, eta proportzioetara jo ahal izan bagenu, alegia, zenbat testu dauden euskaraz eta zenbat erdaretan, baieztapena askoz bortitzagoa izango litzatekeela. Ez dago, noski, erdal testu

<sup>52</sup> Esate baterako «Erriko Idaztegia edo Errejistro Zibila, Soldadutza, eta abar» (*Argia'ren egutegia* 1922, 28-35); «Legetan. Ogasunak, jabea il ondoren», (Leizaolarena, *Argia'ren egutegia* 1923, 34-39); «Gudaritza» (*Argia'ren egutegia* 1926, 37-42) eta «Bizitz aseguratzea zer den» (*Argia'ren egutegia* 1928, 108-109)

<sup>53</sup> Adibide moduan, Etsegaray-ko Karmeloren «Donostia-ko Fueroa» (RIEV 1908, 111-120), Azurtza'tar Kepa Josuren «Eusko Lege ikaskuntza» (*Yakintza* 1934, 7 zk.) eta «Bitoria Aba, Erriarte-eskutza irasle» (*Yakintza* 1936, 19 zk.), Eusko Ikaskuntzaren 1918ko biltzarraren erabakietan argitaratriko «Eri eta latel-ikasgayak» edo E. Bustinza-Lasuenen «Asaben ogasunak» (*Euzkadi*, 3, 1905, 194-203)

juridikoen zenbaketarik<sup>54</sup>, milioika izan daitezkeelako, euskarazkoak —esaldi labur batzuk besterik ez direnak ere testu bezala kontatuaz— hiru digitotan sartzen diren bitartean.

Testu-motei dagokienez ere, urria da jasotako uzta, baina hala ere, mendeetan zehar aleka agertutakoak bildurik, testu-mota askixko agertzen dira. Ondoko lerrootan, mota horien berri labur-laburra ematen saiatuko gara. Laburbilketa honetan orain arteko kategorizazio irizpide berez baliatuko gara, gure xedea —tradizioaren deskribapen xume bat egitea— lortzeko nahikoa izango delakoan.

Izan ere, euskararen azterketa filologikoez, eta historiaz dakiguna kontuan hartuta ziur samar esan dezakegu nekez ager daitekeela testu horien behaketatik ateratzen ditugun ondorioak erabat gezurtatzeko modukorik.

Kasu bakoitzean komentatu diren ezaugarriekin, honako idazki-motak jaso dira:

- Ahozko lekukotasunen transkripzioak
- Gutun pribatuak, merkataritzakoak, espioitzakoak...
- Udalen arteko gutunak
- Udal-aktak
- Udal-ordenantzak eta beste udal-arauak
- Goragoko mailako arauak
- Judizioetako paper itzuliak
- Literatura politikoa
- Herritarrek administrazioari zuzendutako idazkiak
- Kontratuak, diru-kontuak eta notario-agiriak
- Aldarrikapen politikoak
- Elkarteen estatutuak
- Dibulgazio juridikoko artikulak eta liburuxkak

---

<sup>54</sup> Zifra soil bat ekarriko dugu, Atxabal et al. (1995:61) liburuan datorrena: Nafarroako Artxibo Nagusian 80.000 agiri omen daude garai hartako erdaretan, euskarazko huskeria batzuen ondoan.

### 2.8.2.- Bilakabide historikoaren lerro nagusiak

Aldapa txikiko goranzko lerro batez irudika daiteke, XV, XVI, XVII eta XVIII. mendeetako euskal testuen historia, ugaritasunari, dibertsitateari eta teknikotasunari dagokienez.

Banaketa geografikoaz den bezainbatean, XVI. mendeko Hegoaldeko ahozko laginetatik, XVII.ean Iparraldeko benetako testuetara igarotzen gara. Iparraldeko erabilera erlatiboki ugari horrek puntu gorena izan zuen Iraultzako garaian baina handik aurrera badirudi euskara erabiltzeko arrazoiak eta grinak apalduz doazela Iparraldean, Hegoaldean apurka sendotuz doazen bitartean.

XX. mendearen hasieran, bereziki 1918 inguruan eta Errepublika aldiaren, halako loralditxo bat bizitzen da, baina ezaugarri soziolinguistikoak zeharo aldaturik agertzen zaizkigu: alde batetik maiz euskara gizarteko sektore jakin bati, nekazaritzari, loturik agertzen da, beste aldetik, hizkuntzaren erabilera politizatua egiten da: abertzaleek, ez besteek, ematen baitiote leku euskarari agiri juridikoetan. Horrekin loturik, gainera nahiko nabarmen ageri da garai honetan jasotako testu batzuetan hizkuntzaren funtzio sinbolikoa: hainbat testu ez da egiten (aurreko garaietan gertatzen zen bezala) euskaldun jendeak hobeto uler dezan, hizkuntza agerrarazteagatik baizik.

### 2.8.3.- Testuen ezaugarri batzuk

- **Erabilera bakarrekoen ugaritasuna**

Jasotako testuen errenferentzietan azpimarratuko genuke idazki asko erabilera bakarrekokoak direla (gutun administratibo guztiak, esate baterako), beste zenbait artxibatuak izateko idatzi direla, beste batzuk inoiz argirik ikusi gabeak direla, eta oso bakanak erabilera orokor edo zabalekoak, eta iraupen luzekoak. Azken baldintza horiek betetzen dituzten testu tipikoak arau-testuak dira. Garai zaharretan herritar gehienak arau-testuak irakurtzeko gai ez baziren ere, jakina da inguruko hizkuntzetan, hainbat jendek denboran zehar izaten zuela legearen berri, irakurriz ez bazen, norbaitek ozenki eta jende aurrean irakurtzen zituelako.

Ezaugarri horietakoak dirateke Iraultza garaiko hainbat testu eta XIX. mendeko Nafarroa-Gipuzkoako udal ordenantzak; baina ez dakigu zenbat erabili edo ezagutu ziren.

- **Euskara mugaz gaineko erlazioen hizkuntza**

Deigarria da nola, albistea izan arren, zati batean baino ezagutzen ez ditugun 1616ko gutun haiez gero, administrazioan euskara erabiltzera bultzatzen duen indar nagusia, komunikazioaren hartzaileak hizkuntza ofizial desberdinekoak izatea den, itxura guztien arabera.

Izan ere, salbuespen gutxirekin, iritsi zaizkigun gutun administratibo ofizialak muga gainditzeko helburua dute, eta Iparraldetik Hegoaldera norantzakoak dira<sup>55</sup>. Sara eta Urruñako Udalak dira, biak mugaondokoak, euskara gehien erabiltzen dutenak, baina dakigunez, inoiz ere ez dute euskaraz idazten barne aferetarako edota aldameneko udal euskaldun estatukideei ezer adierazteko<sup>56</sup>.

Argi dago, beraz, euskaraz gai horietaz idazteko gauza bazirela, baina hizkuntzaren estatusa zela eta, ezinbestean besterik ez zutela euskara erabiltzen.

- **Euskaraz komunikatzeko zailtasunak**

Aipatu berri ditugun 1616ko gutun haietan jadanik kexu azaltzen zaizkigu egileak euskaraz elkar ulertzeko dauden zailtasunak direla eta. Berdin gertatzen da 1680ko Urruñako eta Hondarribiako udalen artekoetan.

Berez oso hurbilekoak diren euskalkien artean (Urruñako lapurtera eta Hondarribiko goi-nafarrera) ezin ulertua gertatzea arraroa izango litzateke, baina testuen irakurraldi azaleko batek ematen digu gertatu zenaren zantzua. Alde batetik, jakina da, euskal literaturan nabarmen agertzen denez, nolako alde zegoen garai hartan euskal kultura idatziari dagokionez, Lapurdiren eta gainerako lurraldeen artean. Baina, gainera, euskarazko testu horietan, frantziar administrazioan ohikoak ziren frantsesezko formula eta erritual administratiboko esapideak euskaraz kalkatuak agertzen zaizkigu. Testuok, beraz, frantsesez idatzitako testuen itzulpenak ez zirenean ere, frantsesez idazten ohituak zeuden idazkari edo dena delakoen eskutik ateratzen ziren eta Espainiako administrazioan eta frantsesean ohikoak zirenak tiau berekoak baina desberdinak izaki, ez da harritzekoa salatutako ezinulertuak gertatzea.

- **Euskal testu juridikoak eta itzulpena**

Benetako testu juridikotzat eman ditugunen artean, nabarmena da testu itzulien presentzia. Horrelakoak dira judizioen aktak, notarioen aktak, udal ordenantzak, Frantziar Iraultza garaikoak, eta oro har XX. mendean agertzen diren elkarten araudiak, memoriak, eta abar.

Badaiteke multzo bezala hartuta jatorriz euskaraz idatzirikoak Udalen arteko gutunak izatea, eta baita Ezkabarte eta Ahetzeko udaleko aktak.

---

<sup>55</sup> Trebiñok (2001) dioenez, daitekeena da Iparraldeko udal artxiboetan gorderik egotea Hegoaldeko udaletatik igorritako euskal gutunak. Izan ere, badirudi ez dela oraino egin inolako artxibo-antolaketa orokorrik, eta Frantziako administrazioaren ezaugarri batzuk arras zailtzen dutela miaketa hori.

<sup>56</sup>Egoera hori zerbait aldatzen da XIX. mendean Nafarroako Etxalar eta Berako udaletan.

Kontaketa zehatzik ez badugu ere, ziurrenik agiri-kopuruari begira gehiago dirateke euskaraz sortutakoak, baina hitz edo orri kopuruari dagokionez, multzo handienak itzulitakoak dira (Iraultza Frantsesekoak, udal-ordenantzak...).

- **Eredu baten falta**

Gainerako euskal testuetan bezala, testu juridiko-administratiboetan ageri da batasun falta eta estandarrik eza, esan beharrik ez dago.

Baina gainerako euskal literaturan bezalaxe, esan daiteke Urruñako Udalak 1680an hasten duen, eta Iraultza Frantsesetik igarota XX. mendean itzaltzen den Iparraldeko testugintzan badagoela halako jarraikitasun bat, lexikoaren eta formula jakin batzuen erabileran gauzatzen dena.

Lapurdiko udaletan, gutunerian, notario-eskrituretan, garatutako hizkeran, frantses administratiboaren eragin itzela zegoen, dudarik gabe, baina era berean, eredu nahiko bateratu bat bazegoen, bi mende luzetan erabili zena eta euskal hizkera juridiko-administratiboaren hasikintzat jo zitekeena.

XIX. mendean Iparraldeko euskararen erabilera administratiboa desagertuz doa Hegoaldean testuak ugaritzen diren erritmo berean; baina Iparraldeko euskal testugileen lexikoak eta esapideak ez dute zerikusirik Hegoaldean han-hemenka sortuz doazen testu juridiko-administratibo desberdinetan erabiltzen direnekin.

Hegoaldeko testu juridikoen idazketan euskarari buruzko ideiek, joerek eta eskolek neurri handian baldintzatu dute lexikoa eta joskera. Larramendiren eragina XIX mendeko zenbait testutan (*Jaquinbide Iritarautia*, Lore-Jokoak), berehala ezabatzen da XX.mendearen hasieratik hedatzen diren garbizaletasun berriaren eraginpeko testuetan.

- **Teknikotasun juridikoaz.**

Zehaztasunez hitz egiteko adigai horren esanahia argitu beharko bagenu ere, jasotako testuen edukia, xedea, neurriak eta gainerako tasunak azaletik begiratzea nahikoa da ohartzeko testu xumeak direla gehienak, teknikotasun apalekoak eta adigai juridikoak oso modu zabal eta orokorrean tratatzen dituztenak. Garai horietan lurralde beretan beste hizkuntzetan idazten diren testu juridikoekin alderatuz gero zalantzarik gabe esan daiteke euskarazkoen maila guztiz apala dela oro har. Izan ere, errepikatu dugun bezala, oso eskuzabal jokatu behar izan dugu hainbati juridikotasuna egozterakoan.

Azterketa egiteke dagoen arren, argi dago, esate baterako, erlazio juridikoei dagokienez, kontratu-mota desberdinen, edo prozesu-urratsen edo lege-hausturen izen gutxi azaltzen direla.

#### 2.8.4.- Euskal hizkera juridikoaren egoera 1936an

Orain arte egin dugun tradizio idatziaren deskribapenak ez du islatzen 1936an testu juridikoen egileek eskumenean zeukatena. Izan ere, gure bibliografiaren datek erakusten dutenez, testu horiek argitara atera dituzten ikerketa filologiko asko eta asko egiteke zeuden XX. mendearen hasieran. Esan daiteke, testu gehienak ezezagunak zirela 1936an.

Bestalde, jakina da zein pisu handia izan duten Hegoaldeko literatura osoan, baita itzulpengintza juridikoan ere, euskararen zuzentasunari buruzko aurreiritziek. Jakina denez, hainbat hizkuntz baliabide, bai lexiko, bai morfosintaktiko, bai estilistiko, debeku izan dira garai batzuetan. Horrela, esan daiteke Iparraldeko tradizioa ez zela kontuan hartzen —hartzekotan eredu negatibo gisa— euskarak 1936ko urrian ofizialtasuna eskuratzen duen unean.

Garai horretan, euskarazko lexiko juridiko finkatua oinarri-oinarrikoa da, teknikotasuna pittin bat igotzen denetik hori adierazteko hitza inoiz erabili bada, ez dago hiztun edo idazle gehienen eskumenean, eta bilatzeko biderik ere ez duenez, idazleak berak aurkitu beharko du, hitz edo esamolde berria osatuaz, edo lehendik dagoenari esanahia nolabait aldatuaz.

Aurreko testuetan lexiko nahikorik ere ez dagoelarik, ezin euskal hizkera juridikoaz hitz egin, diskurtso juridikoaren oinarria lexikoa baita.

### 3.- ZUZENBIDE-TESTUAK EUSKARAZ 36tik HONA

#### 3.1.- Estatutuaren garaia. *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa*

##### 3.1.1.- Koofizialtasunaren lurraldea eta denbora.

Errepublikaren hasieratik atzeratzen ari zen Euzkadiren Estatutua 1936ko urriaren 1ean jartzen da indarrean. Lehen aldiz, euskarak estatu-lege baten bidez araututako estatus juridikoa lortzen du: euskara ofiziala da aurrerantzean, gaztelaniarekin batera, Euzkadin; baina gerratea hasia da, uztailaren 18an, eta harrezkero, altxatuen gudarosteek Bizkaiko lurraldea besterik ez diote utzi osatzen den gobernu berriari.

Beraz, euskararen ofizialtasunak apurka murriztuz doan lurralde horretan soilik dauka aplikazioa, eta denborari dagokionez, bederatzi hilabetez bakarrik.

Ofizialtasunak irauten duen aldi horretan, eta zehatzago esanda, 1936ko urriaren 9tik 1937ko ekainaren 17ra, Euzkadi'ko Bitarteko Jaurlaritzak *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa / Diario Oficial del Pais Vasco* (aurrerantzean EAjE) argitaratzen du, inoiz ordu arte argitaratu den testu juridikoen bildumarik garrantzitsuena, alde askotatik.

### 3.1.2.- *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoaren ezaugarriak*

#### 3.1.2.2.- Ezaugarri materialak. Neurriak. Argitalpena

Esandako egunen artean *EAjEren* 252 ale argitaratu ziren, egunero, 1936ko urriaren 9an lehena eta 1937ko ekainaren 17an azkena.

Guztira 1.824 orrialde dauzka zenbaki arabiarretan, eta beste 97, eranskinei dagozkienak, erromatarretan: 1921 guztira. Argitalpena, izen bikoitzak adierazten duen bezala, elebiduna izan zen, bi zutabetan banaturik, gaztelania ezker eta euskara eskuin, eranskin batzuk salbu.

Hortaz, orritan, testuaren erdia, hots, 960,5 orrialde, euskarazkoa da; begibistakoa da, ordea, euskarazko testuak erdarazkoak baino askoz laburragoak direla, baina euskal eta erdal testuak, lehena bigarrenaren itzulpena izaki, eduki berekoak direla suposatzen da.

#### 3.1.2.3.- Edukia: arauak, aktak, ediktuak, iragarpenak...

EAjE hasieratik Espainiako Gaceta de Madrid<sup>57</sup> delakoaren erreplika bezala sortzen da. Hortaz, haren edukia egitura eta antolamendua ez dira besteen kopia besterik. Hasieratik, beraz, aldizkari ofizial estandar baten itxura, egitura eta antolamendua dauka, argitaratze-denbora osoan ezertan ere aldatuko ez dena.

Garai hartan aldizkari ofizialetan ohikoak ziren atalak eta edukia izan ohi zuten EAjEaren ale bakoitzak. Honelako hurrenkeran antolatzen ziren edukiak:

- a) "Arkibidea" (Sumario)
- b) Legerik bada, legea. Bederatzi hilabeteetan argitaratutako lege-mailako testu bakarra, Estatutua ("Araudia") izan zen.
- c) "Euzkadi'ko Bitarteko-Jaurlaritzaren Lendaritzaren (Presidencia del Gobierno Provisional de Euzkadi) Oroaginduak (Decretos)" eta maila apalagoko arauak
- d) "Zaingo (Departamento) bakoitzeko Oroaginduak (Decreto) Aginduak (Orden), Oroidazkiak (Circular) arauak", jerarkia horren hurrenkeran.

<sup>57</sup> Ikus <http://www.boe.es/boe/historia/historia.htm>

- e) "Goi Banakaritza-tik (Administración Central)" etorritako arauak, Argitalpenak (instrucciones)
- f) "Erki Banakaritza-tik (Administración provincial)" igorritako arauak
- g) "Erantziñak (Anexos)", hau da Aldundi edo udaletatiko bestelako agiriak: Aginduak (Edicto) Iragarkiak (Anuncio), eta abar.
- h) Justizia Administrazioetik ("Epailletza argibidelaria Juzgado de Instrucción") igorritako "Aginduak (Edictos), Deiak (Cédulas de citación), Gaztiguak (Requisitorias, Emplazamientos), Epaiak (Sentencia)"
- i) Erakunde pribatu batzuen batzar nagusietarako deialdiak, eta abar

#### 3.1.2.4.- Erabilera eta eragin linguistikoa. Beste testuak.

Mota bateko testu juridikotan oparoa izan bazen ere, ez zen garai erraza, euskararentzat, ahalegin militarrek itotzen baitzuen gainerako jardun guztia. Gainera, oso denboraldi laburra da EAeE kaleratu zenekoa.

Garai horrek utzi dizkigun hizkera juridikoko testuak Eusko Jaurlaritzaren ingurukoak izan ziren. Trebiñok (2001:16) dioenez, Telesforo de Monzon eta Jesus Maria de Leizaola "burukideen" sailetan hainbat euskal izkribu eta agiri egin ziren, inoiz, Euskal Herrietako goi mailako administrazioetan izandako erabilera oparoena. Kontuan hartzekoa da, gainera, euskara erabilpen iraunkorreko agiri batzuetan<sup>58</sup> agertzen dela, nahiz eta batzuetan, izenburuan soilik. Bestalde, azterkizun leudeke *Eguna* egunkarian<sup>59</sup> eta *Ereintza* aldizkarian 1937 urtean argitaratutako artikuluetako gaiak eta terminologia.

Ez dugu ezagutzen 9 hilabete haietan egindako testu juridiko pribaturik baina badaiteke agiritegietan gordeta edo desagertuta egotea<sup>60</sup>. Edozelan ere, ez dirudi esandakoaz at hizkera juridikoak garapen handia izan zuenik, ez eta EAeEko euskal testuek eragin nabarmenik.

Berehalako ondorengo garaian, 1937 urtean bertan, badago izenburu hirueleduneko<sup>61</sup> idazlan ofizial bat jadanik atzerrian, bakarra, dakigunez, euskara erabili zuena.

<sup>59</sup>Díaz Noci Javier. (1999) Euskal kazetaritzaren historia. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1999, <http://suse00.su.ehu.es/ephtm/>

<sup>60</sup> Kontuan izan behar da koofizialtasuneko bederatzi hilabete haien ondoren, euskarazko izkribuak edukitzea nahikoa zela frankisten esku eroriz gero erruduntzat emateko, hau da, jendeak ahaleginak egingo zituela euskarazko izkribuak desagertarazteko.

<sup>61</sup>Honelako izenburua dauka: *Euzkadi'ko Jaurlaritza'ren Ordezkaritza Nagusia Catalunya'n / Delegació General d'Euzkadi a Catalunya / Delegación General de Euzkadi en Catalunya*



### 3.2.- Gerraondoa, ofizialtasunik gabeko aldia (1937-1977)

Jakina denez ofizialtasunaren amaierarekin batera, erabateko aldaketa politiko-juridikoa etorri zen Hego Euskal Herrira. Frankismoaren eragina oso bortitza izan zen lehen hogeitun urteetan, eta pittinka leunduz joan zen hurrengoetan. Euskararen ofizialtasuna erabat amaiturik, Euskal Herriko lurraldean ezarritako agintaritzak berriak euskara erabat ukatzen du, jakina denez; baina, gainera, ofizialtasunaren aldian *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa* argitararazi zuten indar politikoek ere badirudi euskararen erabilera “ofizialaz” ahortzi egiten direla. Izan ere, ez dugu ezagutzen Euzko Jaurlaritzak atzerrian plazaratutako euskarazko agiri politiko-juridikorik.

Euskara ikur politiko bihurturik, lau hamarkadako epe horren azken aldian bereziki, atzerrian edo klandestinitatean mugitzen diren hainbat taldek, sinbolikoki bada ere, erabiltzen dute euskara, euren aldizkari, liburuxka eta orrietan.

Esan behar da, garai horretan ere, Iparraldearen historia beste bide batetik doala, baina euskararen estatusak ez duela aldaketarik jasaten, eta euskara, XX.mendeko aurreko garaian bezala, mundu juridikotik bazterturik dagoela. Izan ere, ez dugu jaso inongo ekintza juridiko edo administratibo idatziren aztarnarik ez eta gai juridikoko liburu edo idazlan teknikorik. Urte luze horietan sortu eta desagertzen diren aldizkari euskarazko eta elebidunetan (Diaz Noci, 1999) argitara emandako artikuluen azterketarik ere ez dugu ezagutzen.

Atzerrian argitaratutakoen artean, ospetsuenak, *Euzko Gogoa* aldizkariak, Orixeren eta beste batzuen artikulak, zuzenbidea gai zutenak, argitaratu zituen, eta han-hemenka, beste argitalpenetan plazaratutako lantxo batzuen berri iritsi zaigu.

Talde politikoaren eskutik Euskal Herrian barruan klandestinitatean argitaratutakoetan hemen biltzeko moduko idazlanik atera ote zen berri ematen duen azterketarik ez dugu ezagutzen.

Garai honen azken hamabost-hogei urteetan, euskarazko aldizkarietan (*Jakin*, *Zeruko Argia*.batez ere) zuzenbidearekin zerikusia duten artikulak batzuk argitaratzen dira.

#### 3.2.1.- Egintza juridiko idatziak

Aurreko garaian oso urriak izan baziren euskaraz egindako ekintza juridiko idatziak, 40 urte horietan, uzta izugarri murrizta da.

Soil-soilik, elkarte batzuen estatutuak edo sortze-agiri batzuen erreferentziak ditugu, guztiak oso juridikotasun apaleko testuak. Denetan

ospetsuena, «Euskaltzaindiaren barne-erregelak», *Euskera* aldizkarian argitaratuak (1974, 19 zk.), garaiaren azken aldiari dagokio. Elkarte pribatuei dagokienez, aipa daitezke *Urola ballarako ikasketa alkartasunaren araudia /Estatutos de la Asociación*, 1968koa, Azpeitian idatzia; Sakramentinoen Lagundiaren *Bizi araua*, Bilbon, 1972an argitaratua, eta 1959ko *Erkalaren aldeko ekintza errizalea /Acción Republicana Democrática* talde politikoaren *Sortze agiria ta irakasaldi nagusiak*, (dirudienez, Iokin Zaitegi Plazaolak euskaratua Parisen) nahiz eta politikotik gehiago duen juridikotik baino.

### 3.2.2.- Zuzenbidea gai duten liburuak, ale monografikoak, artikuluak (Ikus IV. 3.2.2. Eranskina)

Hamarkadaz hamarkada goazela, 1930ekoan eta 1940koan, ez da ezer agertzen hizkera juridikoa erabiltzen duenik. 1950eko hamarraldian atzerrira joan behar da horren aztarnak aurkitzeko, hain zuzen ere, *Euzko Gogoa* aldizkarira. Bertan, lau izenburu aurkitu ditugu gai juridikoez. Ospetsuena, ziurrenik, Orixeren «Gizonaren eskubidegai guzietaz aitorkizuna. Erri Batzartuen Batzarre» da.

Hurrengo hamarraldian, 1960koan, gauzak aldatzen hasiak dira: oraindik atzerrian argitaratu behar dira hainbat gauza, Bonifacio de Ataunen argitalpena kasu, baina Euskal Herrian bertan badira horrelako gaiak ukitzen dituzten euskal aldizkariak, bereziki *Yakin/Jakin*. Beste aldetik, kontuan hartzekoa da Rikardo Arregiren (1969) *Politikaren Atarian* liburua, aski aberatsa hizkera juridiko-politikoari dagokionez.

1970ko hamarraldian, eta bereziki 1975tik aitzina, aldaketa nabarmena dago. Aldizkariak ugaritu egiten dira, eta artikulu laburrez gain, badira gai juridiko-politikoaren gainean argitaraturiko ale monografikoak, profesionaltasun-maila berria dakartenak. Hain zuzen ere, jurista ezagunen (Jose Manuel Castells, Gregorio Monreal, Carlos Garaikoetxea...) sinadurak aurkitzen dira, aski maila garaiko artikuluetan, nahiz eta jatorrizkoak erdarazkoak izan. *Jakin* aldizkariak dira maila jasoena erakusten dutenak, baina kontuan hartzekoak dira garai honetan (ez, ordea, hurrengoan) *Anaitasunak*, *Goiz Argik eta Zeruko Argiak* argitaratutako ale monografikoak.

Aldizkarietatik at, hainbat argitalpen elebidun agertzen dira, politika eta zuzenbidea gai hartuta. Honelakoa da *Euzkadirentzat berjabetasun Araudia / El estatuto vasco* monografia. Kontuan hartzekoa iruditzen zaigu argitaratzen hasten diren liburu juridikoak itzulpenak izatea.

Idazlan bakarra ezagutzen dugu aldi horretan zuzenbideko hizkera eta terminologia gaitzat hartzen duena, hain zuzen ere, Villasantek, 1972an

Euskaltzaindiak aurkezturiko txosten laburra, «Lege gizonen behar duten hiztegi berezia» izenekoa, *Euskeran* 1973ko 18 zk.an argitaratua.

### 3.2.3.- Garaiko testuen ezaugarriak

Esan behar da 1975tik aurrera asko ugaritzen direla gai juridiko-politikoko izkribuak, oso modu desberdinetan argitaratuak, eta bbanan bana irakurri gabe oso zaila denez hain maila teknikoak finkatzea, gure zerrenda ez dela inolaz ere osoa, baina bai, gure ustez, nahiukoa urte horietako testu juridikoen zer-nolakoen berri emateko. Lerro labur horietan jasotako testu-izenburuen zerrenda ikusirik honako gogoetak egin ditzakegu testu horien ezaugarriez.

Nabarmena da ofizialtasun ezak testu juridikoen ekoizpenean duen eragin berezia. Alde batetik, logikoa den bezala, ez dago arau-testurik, eta oso gutxi dira urte luze horietan idatzitako testu juridiko praktikoak, elkarte batzuen estatutuak kenduz gero, ez baitugu beste erreferentziarik jaso.

Baina, gainera, garai honetako azken 10-15 urteetan euskal letretan, eta euskalgintzan oro har, euskara batua ekarri zuen belaunaldi berriak eragindako pizkundeak ez dauka ia batere eraginik testugintza juridikoan. Izan ere, hainbat kasutan, oso eskuzabal jokatu behar izan dugu juridikotasuna egozterakoan.

Baina, beste aldetik, garai honetan agertzen dira maila jasoko ikerkuntza-testuak. Zenbait jurista ezagunen lanak erdaraz idatziak, itzuli egiten dira, ordu arteko euskal testuen teknikotasuna beste mailara igoaraziaz.

Ezagutzen ditugun testuen gaia zuzenbide politikoa, eta maila batean administratiboa dira. Ez dago beste gaietakorik.

Bere urritasunean, 1975etik aurrerako testuen ekoizpena, aurreko urtetakoa baino askoz ugariagoa da. Urte horiek kenduz gero izenburuen erdia baino gutxiago geratzen zaizkigu.

Garai luze horretan euskarak ezagutzen dituen aldaketa guztiak testu juridikoetan islatzen direnez, oso zaila da ezaugarri komunak aurkitzea. Euskara batuaren oinarriak finkatzen diren heinean, testu juridiko gehien-gehienak haiek jarraituaz moldatzen dira. Beste arloetan bezala, euskara batuarekin batera, lexikoan ere aldaketa nabarmenak ageri dira.

### 3.3.- Euskara ofiziala: azken 20 urteetan ekoitzizakoak (Ikus IV. 3.3. eranskina)

#### 3.3.1- Garai honetako zerrendarako irizpideak

Koofizialtasuna ez bada bete-betean 1979 edo 1982 arte legeztatzen<sup>62</sup>, 1978an, Eusko Kontseilu Nagusiaren sortzearekin, euskararen estatus juridikoak oso urrats garrantzitsua egin zuen. 1936ko Euzko Jaurlaritzaren ereduari jarraiki, erakunde propio (oraindik ez autonomiadun) bat eratzen den unetik, aldizkari ofiziala bi hizkuntzetan argitaratzeari ekiten zaio. Ukaezina da neurri horren balio sinbolikoa eta era berean, oso zalantzazkoa hasierako testu juridiko haien komunikazio-funtzioa<sup>63</sup>, baina edonola ere, testu juridikoen produkzioari buruz, garai berri baten hasiera-puntua markatzen du, dudarik gabe.

Izan ere, Eusko Kontseilu Nagusiak argitararazten duen Eusko Kontseilu Nagusiaren Aldizkari Ofizialarekin bakarrik, aurreko 40 urteetako testu juridikoen ekoizpena biderkatu egiten da, baina oraingoan, 1936koa ez bezala, saio abortatu bat baino gehiago izango da. Izan ere, euskara, sasi-ofizialtasunetik, erabateko koofizialtasunera igarotzen da autonomiarekin, eta pixkanaka bada ere, urrats guztiek gure hizkuntza zuzenbide-munduan gehiago txertatzera daramate. Esan daiteke normalizazio-bidea orduantxe hasten dela.

Normalizazio-aro berri honetan, euskal testu juridikoen historia xume honetarako orain arte erabilitako irizpideak zeharo aldatu beharrean aurkitu gara: aurreko irizpideekin egin beharreko lana guztiz ezinezkoa izango litzaigukeelako eta gure aztergairako interes berezirik ere ez lukeelako.

Esate baterako, legeen eta gainerako arau-testuen produkzioa, aldizkari eta argitalpen ofizialetan aurki daitekeena, hain handia izanik, aldizkari nagusiak zein diren adierazi besterik ezin dugu egin. Aurreko garaiko Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoarekin egin dugun bezala, zehazkiago deskribatuko

---

<sup>62</sup> Eusko Kontseilu Nagusiaren Aldizkari Ofiziala, 1978ko maiatzaren 15ean lehen alearekin argitaratu zena, beraz, Espainiako Konstituzioaren aurrekoa, erabateko ofizialtasunik oraindik ez zegoela kaleratu zen. Hizkuntzaren erabilera ofizial horren legezkotasuna bereziki 1975ko urriaren 31ko 2929/75, eskualdeko hizkuntzen ("regionales") erabilera arautzen duen Dekretuan oinarritzen da, baina hura baino lehenago ere izan zen 1433/75 Dekretua, maiatzaren 30eko, "lenguas nativas" direlakoak eskolaurreko hezkuntzako programetan sartzea zilegiztatzen zuena. Orobat kontuan hartzekoak dira 586/1976, otsailaren 26ko Dekretua, Euskaltzaindiaren onarpen legala egiten duena, eta 51/1977 Legea, urtarrilaren 4koa, Erregistro Zibilaren Legeko 54. artikulua aldatzen duena, eskualdeetako ("regionales") izenak onartuaz, eta beste zenbait arau, maila apalagokoak.

<sup>63</sup> Izan ere, behin baino gehiagotan irakurri izan ditugu neurri horiek euskararentzako mesedegarri baino kaltegarriagoak ez ote diren izan. Noizbait aztertu beharko lirateke haren ondorio onak eta ez hain onak.

dugu gure ikergaia osatzen duen corpusaren argitalpen-euskarria: *Eusko Kontseilu Nagusiaren Aldizkari Ofiziala* eta *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, hain zuzen ere.

Gainerako testu juridikoei dagokienez, uste izan dugu garai honetan edozein bibliografiatan aplikatzen diren irizpideetara hurbiltzen saiatu behar genuela, hala testuaren izaerari dagokionez (testu individualizatuak, osoak...) eta baita edukiari dagokionez: gaia zuzenbidea izatea, alegia.

Izan ere, 1978ra arte gai politiko-juridikoren bat ukitzen zuen edozein mailatako kazeta-artikuluak jasotzeko modukoa bazen, oraingo garaian juridikotzat emateko, gaia bete-betean juridiko izateaz gain, aldizkari, neurri batean, espezializatu batean argitaratua izatea eskatuko diogu.

Orobat, liburuetan, ez dira zerrendaratu gizarte- edo politika-gaiak, beste espezializaziorik gabe, tratatzen dituztenak.

Izatez testu juridikoak eta nolabait argitaratuak badira ere, ezinezkoa gertatzen da administrazioan, batez ere azken hamarkadan produzitutako dozenaka mila idazkien berri ematea.

Gauza bera esan behar dugu, bizitza juridikoaren arlo guztietan, gero eta ugariago euskaraz (ere) egiten diren agiriei buruz. Hurrengo puntu batean iruzkintzen dugu erabilera hori: zenbaterainokoa, euskararen funtzioa, hizkuntz ezaugarriak, eta abar; baina ez dugu zerrendaratzeko horrelakorik. Esan nahi baita, abokatuek, prokuradoreek, notarioek, agente judizialek, epaileek, eta gainerako eragile juridikoen kasu konkretuetan euskaraz egindako demandak, autoak, jakinarazpenak, epaiak, era guztietako izkribuak eta agiriak, testamentuak, kontratuak, elkarte eta gainerako pertsona juridikoen batzar-agiriak, eta abar. Mundu zabal horri dagokionez, ereduak, formularioak eta horrelakoak dauzkaten liburuen berri ematera mugatuko gara.

### 3.3.2.- Aldizkari ofizialetakoa

Euskal bertsioa dakarten zortzi aldizkari ofizial nagusi dauzkagu. Autonomia Erkidego mailakoak eta lurralde historiko mailakoak zerrendaratu ditugu; ez ditugu, beraz, jasotzen udal eta administrazio-erakunde askotan argitaratzen diren aldizkariak, zeinen estatus juridikoa oso aldagarria baita, bertan testu juridiko ugari irakur daitekeen arren.

Zerrendaratuetik, *Boletín Oficial del Consejo General Vasco / Eusko Kontseilu Nagusiaren Aldizkari Ofiziala* (EKNAO) eta *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria / Boletín Oficial del País Vasco* (EHAA) zehatzago tratatuko ditugunak eta hirugarrena, Eusko Legebiltzarrarena, Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkio. Beste hiru, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoari, eta azken biak

Nafarroako erakundeei. Horiez gainera, bada beste aldizkari ofizial espezializatuago bat, urte batzuetan argitaratu dena, EHU/UPVri dagokiona

Guztietatik, aipatutako EKNAO eta EHAA, elkarren jarraian ateratakoak dira denboraldi osoan (1978-1997) iraun duten bakarrak, zeren besteak beranduago hasi baitziren argitaratzen, euskarazko bertsiotan bederen. Laurogeita hamarreko hamarraldian soilik osatzen dira argitalpen elebidun guztiak.

Azpimarratzekoa da EAEko argitarapen guztiak elebidunak direla, esan nahi baita, liburuxka berean doazela erdal eta euskal testuak, zutabe paraleloetan. Nafarrokoetan, aldiz, hizkuntza bakoitzeko argitarapen berezia dago izenburuek salatzen dutenez.

Argitaratze-eredua elebakarra edo elebiduna izan, esan daiteke hala EAEn nola Nafarroako Foru Komunitatean<sup>64</sup> euskal testuak gaztelaniazkoen itzulpena direla. Salbuespenik izatekotan, EAEkoetan azken urteotan argitaraturiko behe mailako arauen batean egon daiteke, baina ezin izan dugu baieztatu.

Aldizkari ofizial horietan EAEko eta Nafarroako erakunde publiko guztien arau orokorrak argitaratzen direnez, bertan dagoke azken hamarkadetako euskara juridikoaren bildumarik garrantzitsuena.

### 3.3.3- EAetik eta Nafarroatik kanpoko arau itzuliak (Ikus IV. 3.3.3. Eranskina)

Atal honetan jaso nahi izan ditugu aldizkari ofizialetatik at<sup>65</sup>, argitalpen berezietan bakarrik, beraz, kaleratutako arauak. Ez ditugu hona ekarri hainbat liburu arlo berezietako arau-bildumak direnak (euskarari buruzkoak esate baterako) jadanik ofizialki, EHAAn argitaraturiko testuak baitira.

Zerrenda honetako arau gehienak, hortaz, Euskal Herriko erakundeetatik at, Estatu-erakundeetan emandakoak dira. Salbuespen nabarmena da *Erroma'ko Elexearen araudia*, Hipolito Larrakoetxeak 1924an itzulia, baina 1978ra arte argia ikusi gabekoa. Horrez gainerakoak, administrazioaren munduan erabilera zabalekoak izatea dirudi dela itzuli eta argitaratzeko arrazoia; izan ere, gehien-gehien argitaratzailea HAEE / IVAP da.

Duen izaera juridiko gorena dela eta, hizkeraren eredu ere hartu beharko litzatekeen Espainiako Konstituzioa<sup>66</sup> dugu aurrenetakoa, 1978koa baita,

<sup>64</sup> *Nafarroako Foru Komunitatea* da erakunde horren izen ofiziala.

<sup>65</sup> Horregatik, esate baterako, ez dugu zerrendan sartu Euskal Estatutua, hainbat argitalpen berezitan kaleratu den arren, EKNAOn 1980ko urtarrilaren 12ko alean argitaratu baitzen.

<sup>66</sup> Euskal testuaren bitxikerietako bat, eta ez harrigarriena, da bi izenburu dituela: bozkatzeko proposatu zen testua *Espainiako Konstituzioa* zen, baina erreferendumen ondoren Espainiako Buletin Ofizialean argitaratutakoa, *Konstituzio Espainiako*.

euskaraz inoiz egindako testu luze baten<sup>67</sup> argitalpen handiena da, 600.000 ale inprimatu ziren-eta.

HAEE /IVAP-etik at, gutxi dira horrelako testuen argitaratzaileak: kasu bakarrean, Legelarien Euskal Kontseilua, bestean Europako Kontseiluaren Prentsa eta Informazio Bulegoa, eta azkenik, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Bitxia da arau-testu bera (*Acta Única Europea*) bi bider itzulia eta liburu gisa argitaratu izana, bietan Eusko Jaurlaritzaren mendeko erakundeen eskutik<sup>68</sup>.

Zerrenda horren behaketak adierazten digu oraindik euskaraz argitaratzeke daudela Espainiako zuzenbidearen zimentarri diren kode eta lege garrantzitsu gehienak, hala nola kodeak (zibila, penala<sup>69</sup>, merkataritzakoa, prozedurakoak...)

### 3.3.4.- Formularioak, praktika juridikoaren laguntzarako testuak (Ikus IV. 3.3.4. Eranskina)

Zuzenbide-jardunaren zati handiak oso errepikakorrak izanik, guztiz zabalduta dago arlo askotan formularioak eta ereduak (orain arte inprimatuak, gero eta usuago formato elektronikoa) erabiltzea. Gaurko egunean, hala administrazio orokorraren nola justizia administrazioaren nola abokatuen jardunaren tresna ezinbestekoa dira ereduak.

Formularioak, askotan erabiltzeko eginak direnez testu askoren iturri izaten dira. Jaso ahal izan ditugunetatik (justizia administrazioan kaleratu ez diren eredu asko erabiltzen dira) ondoriozta dezakegu azken hamarkadan aski garatu dela arlo batzuetako zuzenbide-hizkeraren erabilera. Dena den, hori bermatzen duen erabilera-azterketarik ez dugu ezagutzen

Zerrendan dakusgun bezala, formularioek hartutako arloak ez dira gehiegi: lan-eskumena, familia, prozedura zibila eta administrazioak. Inprimatutako eredu-bildumez gainera, azken urteotan, esan bezala, ordenagailuz erabiltzeko programetan badaude beste formularioak, baina, hala ere, hainbat arlotako<sup>70</sup> hutsuneak nabarmenak dira.

<sup>67</sup> Letra txikiko 46 orrialde.

<sup>68</sup> Izan ere, bi euskal bertsioren konparazioak irakaspen franko eskaintzen du garai hartako euskal terminologia eta itzulpengintza juridikoaren joera desberdinez.

<sup>69</sup> 2001ean argitaratu da *Zigor Kodea / Código Penal* izenburuarekin, Deustuko Unibertsitateak editaturik, lehen kode handia.

<sup>70</sup> Zuzenbide zibileko nahiz merkatariza-zuzenbideko arlo gehienak, esate baterako.

### 3.3.5.- Irakaskuntza eta Ikerkuntza: liburuak eta artikuluak (Ikus IV. 3.3.5. Eranskina)

#### 3.3.5.1.- Arakatutako aldizkariak

Kazetaritza orokorraz hurrengo puntuan esaten dena kontuan hartuta, hautu murrizgarria egin behar izan dugu aldizkarietako artikuluak aukeratzekoan. Hortaz, azken urte hauetan argitaratzen hasi den *Eleriaz* at ez dugu izan zuzenbideko euskal aldizkaririk, baina gaiari dagokionez, *Herri Arduralaritzaren Euskal Aldizkaria /Revista Vasca de Administración Pública* (RVAP) aldizkari juridikoa izanik, bertan argitaratutako euskarazko artikuluak zalantzarik gabe jasotzeko modukotzat hartu ditugu. Gainerakoetan, hizkuntza bera (*Euskera, Senez*) edo gizarte-gaiak (*Jakin, Uztaro, Karmel, Enseiuarrean*) izanik haien edukia, gure ustez luzera eta teknikotasun mailarik gorena eskaintzen zutenak miatu ditugu.

Gerta daiteke hainbat lan interesgarri kanpoan uztea, baina gure helburua ez da izkribu juridiko guztien berri ematea, baizik eta oro har, testuek erakusten duten hizkeraren egoera deskribatzea.

#### 3.3.5.2.- Liburuak

Hemen, gure ustez, hala liburu orokorrei nola irakaskuntza-liburuei dagokienez, irizpide estandarra (Sailkapen Hamartar Orokorra edo antzekoa) aplikatzea beste biderik ez dago: liburu horiek zuzenbideko liburu bezala, 34 zenbakiarekin sailkatzen dira.

Irizpidea hertsiegia izan daiteke zuzenbideko hizkera duten liburu guztiak jaso nahi izanez gero, eta jakin badakigu 1978 arte nekez sailkatu ahal izango genukeela euskal liburu bat 34 zenbakian. Baina, sailkapen-irizpide hori aplikatu ahal izanak, dudarik gabe, garantia bat eskaintzen du.

Nabarmenezkoa da, Antonio Beristainen 1984, eta 1987ko liburuak kenduz gero, 1990ko hamarkada arte itxaron behar dela gai juridikoko liburuak argitaratzen ikusi arte. Are gehiago, aipatu autorearen 1991koa eta Joxe Ramon Bengoetxearen 1993koa alde batera utzita, 1994 ipin daiteke euskal liburu juridikoaren hasierako data bezala, hots, ofizialtasuna ezarri eta 15 urte igaro arte itxaron behar izan da.

### 3.3.6.- Dibulgazio juridikoa, kazetaritza orokorra

Orri solteak, liburuxkak, eta egunkari zein aldizkarietako artikuluak, 1977 arte jaso zirenak, ez dira hemen jasotzen, nahiz eta asko izan, eta garrantzia handikoak hizkera juridikoaren garapenerako eta normalizaziorako.



Izan ere, literatura-mota horrek, bereziki ele bakarrean argitaratzen delarik, aldizkari ofizialetako testu elebidunek ez bezala, irakurgarritasuna bermatu beharra du; testuok ulertuak ez izatera ez baitute inolako justifikaziorik. Aldizkari ofizialetan, berriz, esan dugunez, legea betetzea, eta funtzio sinbolikoa, dira lehenik agertzen diren arrazoiak, benetako komunikazio-funtzioa maiz badaezpadakoa izanik.

Mota askotako testuak sar daitezke hemen. Era guztietako neurri eta zabalkundeko orri, foileto, eta ISBNrik gabeko liburuxka dabilta hor zehar gai erabat juridikotik hasi, eta zuzenbidea zeharka bakarrik ukitu arte, tratatzen dutela. Bestalde, maila guztietako astekari, hilabetekari edo aldizkarietan gai juridikoak jorratu izan dira, batzuetan nahikoa sakontasunez, aurreko garaiak erkaide hartuz gero.

Gure ustez, aldizkako argitalpen guztien artean aipamen berezia mereziko luke *Euskaldunon Egunkariak*, urte luzeetan zehar, egun oroz bizpahiru orri izan baititu arazo juridikoen berri ematera eskainiak. Epaiaketak, eskuduntza-arazoak, eskakizun juridikoak, arauen iruzkinak, eguneroko berri dira gure gizartean, eta begibistakoa da irakurri ere egiten direla: kazetaritzan ez du zentzurik hartzailerik ez duen testuak publikatzeak.

Azterkizun legoke prentsa orokorrean, eta bereziki *Euskaldunon Egunkarian* erabilitako terminologia, alde batetik, eta argitalpen espezializatu eta liburu juridikoetako bestetik konparatzea eta elkarren eraginak estudiatzea. Hain zuzen ere, gure susmoa da hainbat kasutan *Euskaldunon Egunkariaren* aukerak nagusitu direla.

### 3.4.- Eusko Kontseilu Nagusiaren Aldizkari Ofiziala

Eusko Kontseilu Nagusiak (EKN), 1978ko urtarrilaren 4ko 1/1978 Errege Dekretu-Legearen bidez sortuak, 1978ko apirilaren 17ko batzarrean erabaki zuen *Eusko Kontseilu Nagusiaren Aldizkari Ofiziala* (EKNAO) sortzea.

Aipatutako EKNren erabakian bertan esaten da euskaraz eta erdaraz argitaratuko dela. Kontuan hartzeko datua, zeren artean euskara ez zen ofiziala, ez Estatuturik ez Konstituziorik ere ez zegoelarik.

Lehen alea, 1978ko maiatzaren 15eko dataz kaleratu zen, eta azkena, 1980ko martxoaren 27an. Izenak aditzera ematen duenez, aldizkako argitalpena da, ez egunerokoa. Ia bi urte horretan, periodizitate aldakorrez argitaratu zen.

EKNAOk 37 ale argitaratu zituen, guztira 495 + 54 orrialde, hau da 549. Argitalpen elebiduna, bi zutabetan, gaztelania ezker, euskara eskuin. Bi zutabeek gutxi gora behera neurri berekoak dirudite; ez dago aurreko EAgEn bezalako

alde nabarmenik. Beraz, testuaren erdia euskaraz denez, 275 orrialde dira euskarazkoak.

Edukiaz, hurrengo kapituluan, corpusaren aurkezpena egiterakoan zehaztuko denaren kalterik gabe, EKNren 1978ko apirilaren 17ko akordioan esaten zena hona aldatzea izango da zuzenena. Honela dio:

*"2- Aldizkari honetan, zeina Euskaraz eta Erdaraz publikatuko den, Eusko Kontseiluaren Akordioak, Dekretuak eta beste zernahi argitaratuko da; 3- Halaber, Kontseluari dagozkion Estatuko Administrazioaren aginduak, hala nola Eusko Herriarrentzako interes handia luketen Gorporazio eta erakunde lokalen akordioak eta arauak; 4- Gorporazioen eta Euskal Herriko Erakundeen anuntzioak Aldizkarian emango dira."*

### 3.4.1.- EKNAOren euskal testuen erabilera eta eragina

Gai horiei buruzko azterketarik ezagutzen ez badugu ere, praktika juridiko publiko zein pribatuan euskarak hasiera hartan izan zuen erabilera eskasa ezagututa, zilegi uste dugu dela esatea euskal zutabeen funtzio sinbolikoa garrantzitsua izan bazen, praktikoa ez zela horrenbestekoa izan.

Aldizkari horren anaia zaharrena izan zen EAgEren kasuan bezala, ez dugu ezagutzen garai hartako testurik zeinetan EKNAOn argitaratutako agiri juridiko baten euskal bertsioa erabiltzen den. Guk ez ezgutzeak ez du esan nahi ez dagoenik, baina, edozein modutan, urritasun latzaren adierazgarria dela ezin ukatuzkoa deritzogu.

Baina, testuon erabilera juridikoa oso eskasa izan bazen, uste dugu izan zutela beste mota bateko erabilera, eta garai hartan han-hemengo administrazioetan lanean hasi ziren itzultzaileentzat, testu horiek nolabaiteko iturri eta eredu izan zirela testu juridiko-administratibo berriak moldatzerakoan, hori frogatzea edo neurtzea ezinezkoa bazaigu ere.

## 3.5.- Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA)

### 3.5.1.- Argitaratze-garaia

Euskal Herriko Komunitate Autonomo, Autonomi Elkartea edo Autonomia Erkidegoaren<sup>71</sup> aldizkaria, EKNAOren ondotik, etenik gabe, hasten da argitaratzen. Alde askotatik begiratuta, haren jarraipena da, eta horrela agertzen da EHAAren web-orrian, EAgErekin batera, aldizkari bera balitz bezala.

---

<sup>71</sup> Hiru izendapen horiek, gutxienez, erabili izan dira ofizialki erakunde politiko hori adierazteko.

EKNAOren azken aleak, 37.ak, 1980ko martxoaren 27ko datakoak, argitaratzen du 1980ko martxoaren 24ko Dekretua, *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria* sorrarazten duena. Dekretu horretan esaten denez, EKNAOri egotzitako egitekoak berak izango ditu, eta aldizkari berria argitaratzearekin batera desagertuta geratuko da zaharra.

EHAAREN lehen aleak 1980ko apirilaren 30eko data darama, eta Espainiako Gobernuaren Presidente Adolfo Suarezek sinatutako Errege-Dekretu batekin hasten da. Harrezkero, 'aldizkari' izenak adierazten duenez, aldizka (ia hilabetea estrainako urtean, baina, egunero ere, zenbaitetan) kaleratu da.

### 3.5.2.- Neurriak, edukia.

EHAAREN neurriek ez dute zerikusirik aurreko (eta garai bereko) beste ezekin argitalpenekin. Lehen urteko 6 hilabeteetan (1980ko apirila-abendua) apal agertzen zaigu, 260 orrialde ingururekin, baina 1981tik aurrera, ia etengabe haziz doa. 1981tik a 1989ra, 2500dik 8700era hazten da, ia urtez urte, eta 1990eko hamarkadan, lehen urteko 11750etik 1996ko 20.600era igarotzen da. 1997an, hazkundeak segitzen du, maiatzaren 30ean ia 9.300era iritsi baita. Orrialde-kopurua guztira 159.000era hurbiltzen da<sup>72</sup>. Haien bezala, bi zutabeko sistema erabiltzen du, bi hizkuntzetako testuak alboz albo, orrialde berean. Oker ez bagaude, beraz, 1997ko maiatzaren azken aldian 80.000 inguru orriko testu-multzoa dago euskaraz argitaraturik EHAAn.

Esaten genuenez, corpus horren dimentsioak EAARENekin edo EKNAOrenekin alderatuaz, begibistakoa da zuzenbide-hizkera aro berri batean sartu dela.

### 3.5.2.- EHAAREN euskal testuen erabilera praktikoa eta eragin linguistikoa

Ez dugu ezagutzen inolako azterketarik esango digunik euskaraz argitaratutako testu horiek nolako erabilera praktikoa izan duten bizimodu juridikoan eta administratiboan, ez eta, horrelako testu-kopuru handiak izan duen eragin linguistikoari buruzko estudiorik.

<sup>72</sup> Hona, EHAAREN web-orritik, urte bakoitzeko azken agiriaren azken orria (aldizkariaren azken aldean datozen iragarkiak eta gainerakoak ez dira biltzen) zenbatuaz lortu ditugun kopuruak:

1980	254	1986	6570	1992	11630
1981	2469	1987	6143	1993	11969
1982	3228	1988	7587	1994	16189
1984	4538	1989	8688	1995	16086
1985	5078	1990	11716	1996	20590
1985	6083	1991	10120	1997	9232

GUZTIRA 158.170 orrialde. Erdia euskaraz.

Horren gaineko lekukotasun idatzi gutxi aurkitzen da, nahiz eta ahoz maiz iruzkintzen den gaia izan. Ezagutzen ditugun idatziak, esate baterako, jadanik aipatu dugun Uzeiko *Zuzenbide Hiztegiaren* sarreran esaten dena aldizkari ofizialeko testuak iturri gisa ez erabiltzeko argudio bezala, negatiboak dira.

Erabilera praktikoari buruz, esan daitekeena, hipotesi moduan bada ere, oso orokorra eta azalekoa da, alde batetik testu gehienek<sup>73</sup> ez dutela inolako erabilerarik izan urte luzeetan zehar, eta bestetik, azken urteotan (10 urte?) apurka apurka, administrazioko atal eta toki jakin batzuetan bederen, euskara ari dela lan-hizkuntza bihurtzen, eta hortaz, euskal bertsioen erabilera, areagotzen.

#### 4.- EUSKAL HIZKERA JURIDIKOARI BURUZKO LANAK (Ikus IV. 4. Eranskina)

Hirugarren kapituluan bereizten genituen zuzenbide-testuen artean xede juridikoa dutenak eta zuzenbidez hitz egiteko (gogoetak egiteko, ikertzeko, irakasteko) direnak. Hemen, azken multzo horretan beste bereizketa bat sartu behar dugu, multzo berri bat eginez zuzenbidearen hizkerari, eta zehazkiago, zuzenbidearen euskal hizkerari buruzkoekin.

Zuzenbideko euskarari buruz aritzeko beharra sortu da zuzenbidez euskaraz idatzi behar izan denetik. Ikusi dugun bezala, behar hori, iraunkortasunaz eta gutxieneko zabaltasunaz 1978tik hona sortu eta hazi da. Guztiz esperogarria zenez, ordutik hona garatu da metahizkuntza hau. Eta, halaber, esperogarria zen bezala, salbuespen txikiren bat kenduz gero, zuzenbide-hizkera eta terminologiari buruzko testu guztiak Hegoaldeakoak dira; euskarak Iparraldean erabilera ofizialik ez duenez ez testu juridikorik, ez hizkera juridikoari buruzko testurik ez da ekoizten.

Hegoaldekoa izate hori ez da, bistan da, erreferentzia geografiko hutsa, aitzitik, edukiarekin zerikusi handia duen zerbait; izan ere, Espainiako sistema juridikoaren barruan, eta haren kontzeptualizazioaren barruan kokatzen dira euskal testu juridiko guztiak, Europako arau solte batzuen itzulpenak, eta haien gaineko terminografia-lanen bat kenduz gero.

Zuzenbidez euskaraz idazterakoan erabiltzen den hizkeraren eta terminologiaren inguruan sortutako idazlanen artean hiru multzo nagusi egin ditugu; batean hitz eta termino juridiko-administratiboak biltzen eta azaltzen dituzten era bateko edo besteko hiztegiak sartu ditugu, bestean, euskal hizkera juridikoaren edo administratiboaren hainbat alderdi linguistiko, soziolinguistiko

---

<sup>73</sup>Ziurrenik, salbuestekoak izango lirateke euskarari zuzenean dagozkionak.

eta abar hedadura nahikoaz (orrialde bat edo bikorik ez dugu hartu) tratatzen dituzten idazlanen berri ematen dugu, eta azkenik, hirugarren multzo batean, zuzenbidearen eta administrazioaren munduan dabilzan idazle edo itzultzaileentzako helburu praktikoko testu lagungarriak bildu ditugu.

#### 4.1.-Euskal hiztegi juridikoak eta administratiboak

Zuzenbideko hitzak, gizarte-zientzia eta diziplina guztietan aurki daitezkeen arren, puntu honetan jaso nahi izan ditugu, zuzenbidea, administrazioa eta euren atal edo adarrak zuzenean lantzen dituzten hainbat eratako hiztegiak.

Oso genero berria dugu terminografia edo lexikografia juridikoa euskaraz, espero zitekeenez. Sail honetako lehen hiztegi-lan argitaratua, Uzeiko *Administrazioa eta zirkulazioa Hiztegia* dugu, 1983koa, eta bete-betean zuzenbidekotzat jo daitezkeenak, 1985ean hasten dira, bi argitalpen eta hiru liburuki desberdinekin: UZEIko *Zuzenbidea Hiztegiaren* bi liburukiez, eta *Agintaritza-aldizkarietatikako hitz-bildumaz* ari gara.

Ondoren, argitaratutako euskarazko terminografia juridikoaren sailkapen xume bat proposatuko dugu. Lau multzo egin ditugu; lehenengo bietan, gaia hartu dugu irizpide: zuzenbidea lehenik, administrazioa ondoren. Hirugarrenean, azalduko dugunez, testu jakin batzuetako lexikoak sartu ditugu. Laugarrenean, zuzenbideko hainbat termino interesgarri jasotzen duten gai kolateraletako hiztegiak ditugu (hirigintza, esate baterako).

Sailez saileko deskribapenean ikusiko dugun bezala, oso bakanak dira elebakarrak. Hiztegi elebakarren eskasia horrek oso argi adierazten du zein fasetan dagoen euskal terminologia juridikoa, eta nondik edaten duen: ia ehuneko ehunean gaztelania-euskara eta euskara-gaztelania baitira gainerakoak.

Terminografia-bilketa hau ez dugu mugatu corpusak hartzen duen aldira. Hortaz, azken hiru urteetako hainbaten erreferentziak ere ematen ditugu.

Bigarren kapituluan, euskarazko terminografiaren inguruan izandako eztabaiden berri ematen genuenean (supra II. 4.2.1.) aipatzen genuen, Uzeiko *Zuzenbide Hiztegia* gogoratuaz, hiztegi horren «Hitzaurre Orokorrean» esaten den bezala, hustuketatik ohartuki baztertu zirela aldeztatik idatzitako testu juridiko batzuk (*Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria* adibidez), hiztegi horren lanketarako berariaz idatzitako artikulak hobetsiz. Erabaki hori, lexikografia zientifikoaren ikuspegitik onartezina bada ere, ongi egokitzen zaio 1984an zegoen hizkera juridikoaren lekuko baino gehiago proposamen-multzo sistematiko bat osatzeko asmo adieraziari.

Uste dugu, ordea, administrazioko hiztegi orokorre, eta zuzenbideko adar-hiztegiei neurri batean kritika beretsua egin dakiekeela; inoiz hustuketa sistematikoan oinarrituriko hiztegirik egin ez denez, denak kontsideratu behar ditugu terminologia preskriptiboko lanak, ez deskriptiboak, alegia. Eta ondorengo sailkapeneko “Lexikoen” artean ipini ditugunak hustuketa hutsean oinarritutako bakarrak izan arren alegia, produkzio idatziaren berri, ematen dutenak; horiek ere, lexikografia diren aldetik deskriptiboak badira, uste dugu itzulpen-aukeretan xede preskriptibo ukaezina dutela.

#### 4.1.1.- Zuzenbide-hiztegiak

Zuzenbidea orokortasunean hartzen duen hiztegi inprimatu bakarra dugu: jadanik deskribatu dugun<sup>74</sup> UZEIko *Zuzenbidea Hiztegia*.

Inprimatu gabe, badago 1987 ezkerero sarean (orain internet-en) kontsulta daitekeen datu base terminologikoa, Euskalterm izenekoa, zeinaren atal bat zuzenbidea baita. Datu-base horretan, 1985ko *Zuzenbide Hiztegia*-ren lexikoa, hainbat kasutan definizioz hornituta, eta ondorengo ekarpenak kontsulta daitezke.

Zuzenbideko adar edo atalen lexikoa biltzen duten hainbat lan badago eginik unibertsitatean<sup>75</sup>, baina gutxi argitaraturik; eranskinetako Garbizu (1996) eta Alberdi (1999) dira ezagutzen ditugunak.

Gutziz juridikoa den justizia-administrazioaren munduan euskaraz higitzen laguntzeko asmoz argitaratutako liburuxka baten atal gisa badugu halako lexiko bat, hain zuzen ere eranskinetako Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila (E.J.) (1998)

#### 4.1.2.- Administrazioko hiztegi orokorrak eta partzialak

Administrazioko hainbat adar eta sailetan landu eta argitaratu dira bertan erabiltzeko hiztegi espezializatuak. Batzuek, *hiztegi* izena daramate, eta hiztegiak dira osotasunean, beste batzuk, berriz, administrazioko eskuliburuaren atalak diren bitartean. Badira, bestalde, administrazio orokorrekoak direnak, eta administrazioaren atal zehatzetakoak

Lehena, esan dugunez, Uzeiko *Administrazio-Zirkulazioa Hiztegia* 1983koa izan zen lehena.

Administrazio-hiztegi orokor askorik ez dago 1997ean liburu<sup>76</sup> moduan, bai ordea, liburuen atal direnak, IVAPEk egindakoak, esate baterako

---

<sup>74</sup> Ik. III. Kapituluua, 6.3.3. puntua

<sup>75</sup> Esate baterako, Maeso Augusto, 1990, *Zuzenbide Penala Hiztegia*, EHU. Argig. edo Alkorta, Elozegi, Karrera, 1999, *Zuzenbide zibileko oinarritzko lexikoa*, EHU Zuzenbide Zibil Saila.

*Administraziorako Euskal eskuliburua*. (IVAP 1986) eta *Hizkera Argiaren bidetik* (IVAP:1994) liburuan datozenak .

Liburu gisa, berriz, administrazio-atal jakinen hiztegiak ditugu eranskinean dauden Artola et al. (1987), Olaziregi, Zalbide, Berasategi (1993), Segura J (1998). Halaber, hiztegi moduan erabil daitekeenez, aipa daiteke E.J., HPIN, HAEE / IVAP (1992).

#### 4.1.3.- Testu juridiko jakinen lexikoak <sup>77</sup>

Beste ataletako lexikografia-lanek xede praktikoa bat dute, zalantzarik gabe. Ez dute izan nahi dagoenaren isla, baizik zuzenbide-munduan edo administrazioan euskaraz lan egin behar duenarentzako lanabes lagungarri. Atal honetan, berriz, sartu ditugu corpus batean erabili diren hitzen edo esapideen berri ematen duten hitz-bildumak, hots, nolabait lexikografia deskriptiboan sailka daitezkeenak. Oso hiztegi-lan desberdinak ditugu hemen: terminologikoak, fraseologikoak eta abar. Guztien ezaugarri komuna, testu juridiko jakinetako hustuketatik ateratakoak izatea, eta elebidunak (edo eleaniztunak) izatea.

Badira liburu baten eranskin moduan, bertan erabilitako hitzen argigarri, kaleratutakoak, esate baterako, eranskineko HAEE / IVAP (1992<sup>a</sup>), eta HAEE / IVAP (1992b).

Beste batzuk, berriz, liburu gisa argitaratu dira, itzulpen puntual batean erabilitako terminologia edo fraseologia bilduaz. Horrelakoak dira adibidez, *Europako Itunenen Hiztegia* (Agirre et al: 1991) eta Lurralde Antolamendu eta Hirigintzari Buruzko Hitz-Bilduma (1995)

Eta azkenik, badira aldizkari ofizialetan argitaratutako testu multzo handien gainean egindako hustuketan emaitzak aurkezten dituztenak. Honelakoak dira inolako egile-izenik gabe argitaratutako *Agintaritza-aldizkarietatikako hitz-bilduma. Vocabulario de los boletines oficiales*, (1985), eta HAEE / IVAP (1997).

#### 4.1.4.- Zuzenbidearekin erlazionaturiko gaietakoak

Azken multzo elastiko honetan, adibide gutxi batzuk bakarrik sartu nahi izan ditugu. Izan ere, gizarte-diziplina guztietan zuzenbideak zerikusia baduenez,

<sup>76</sup> Benetako argitalpenik gabe, baina aski zabaldu direnak dira, esate baterako *EHUaren Hiztegi Administrazioa*.

<sup>77</sup> LEXIQUE: Répertoire qui inventorie des termes accompagnés de leurs équivalents dans une ou plusieurs autres langues, et qui ne comportent pas de définitions. Note.- Les lexiques portent généralement sur un seul domaine. Vocabulaire Systématique de la terminologie.. Boutin-Quesnel et al. 1985

haietako edozein hiztegi espezializatutan aurkitzen dira zuzenbideko hitzak eta terminoak.

Esate baterako, Euskalterm datu-baseko ondoko epigrafeetako eremuetan aurki daitezke termino juridiko ugari: *Administrazioa, Hirigintza-Eraikuntza, Merkataritza-Lan Harremanak, Politika-Soziologia-Antropologia*.

Gauza bera gertatzen da Uzeik liburu gisa argitaraturiko: *Politika, Finantzak, Enpresa, Merkataritza, Hirigintza* eta beste hiztegietan. Gainera, kontuan izan behar da, hala Euskaltermen nola paperezko hiztegi batzuetan (esate baterako *Hirigintzan*) lexiko elebidun hutsak gabe, hainbat definizio aurkitzen dela.

Gauza bera esan daiteke eranskineko HAEE / IVAP (1997) eta HAEE/IVAP (1998), edo Mendizabal-Iturriza (1996) hiztegiei buruz.

## 4.2.- Lan teoriko-metodologikoak euskal hizkera juridikoaz.

Historiari dagokiona aurrerago jorratu dugunez, ez ditugu zerrendaratu lan historiko-filologikoak zeinetan antzinako testuen berri ematen zaigun, horietako testuren bat interes juridikokoa izan arren.

Baina bai jasotzen ditugu testu esplizituki juridiko bat(zu)en berri ematearekin batera, bertako hizkera eta terminologia aztertzen dutenak, hala nola Margarita Ricarena (1975).

### 4.2.1.-Liburuak

Eranskinean ikus daitekeenez, bost liburu aurkitu ditugu gaitzat dutenak zuzenbideko, edo administrazioko euskara modu teoriko edo metodologikoan jorratzea. Horietako bi, HAEE / IVAP (1984), eta HAEE / IVAP (1989)<sup>78</sup>, biak administrazio-hizkera aztertzen dutenak; hirugarrena, Atxabal et al. (1995), unibertsitateko eskuliburu gisa moldaturik dago, eta hizkera juridikoaren alderdi teoriko zein praktiko anitz aztertzen dira bertan. Beste biak hemen jaso baditugu ere, ez dira osorik sail honetakoak, zeren *Euskara legebidean* izenekoak hainbat gai juridikorekin batera, hizkuntzari buruzko artikulua batzuk dakartza, *HAEE / IVAP* (1996) erreferentziaduneko artikulua gehienak ez dira euskarazkoak

---

<sup>78</sup> Jadanik iruzkindua, II Kapituluua, 4.2.2.3. puntuan



#### 4.2.2.- Aldizkariak

Kapitulu honetako 3.3.5. puntuan aipatu diren aldizkariak dira arakatutakoak, izan ere, zuzenbidea eta zuzenbideko hizkera modu berezian kontuan hartzen dutenak baitira.

Aipatu beharrekoa iruditzen zaigu urte askotan HAEE/ IVAPek kaleratzen duen *Administrazioa Euskaraz* aldizkaria, uste dugulako, eragin handia duela administrazioko langileen hizkuntz erabileretan. Bertako artikulurik gehienak oso laburrak izaki hemen ez ditugu aipatzen, baina oro har, ezinbestekoa da aldizkari hori ezagutzea. Izan ere, artikulua llabur horietan hizkera juridiko-administratiboaren inguruko alderdi praktiko zein gogoetazko guztiz interesgarriak daude.

#### 4.2.3.- Artikulu nagusiak

Esan bezala, neurritz eta edukiz arlo honetan nagusitzat jo eta argitalpen jakin batzuetan kaleratutakoak bakarrik zerrendaratu ditugu, bazter utziaz txikiegiak irizitakoak eta argitalpen orokorretan argitaratutakoak.

Onarpen-irizpide nahiko murrizgarri horiekin ere, zerrenda aski hornitua lortu dugu. Artikuluok, ez dute konparaziorik aurreko garaietakoekin: gaia nahiko modu zehatzez eta irizpide zientifiko jorratzen dutela uste dugu. Horietako askori ezinbestekoak deritzogu administrazioko eta zuzenbideko hizkera lantzen sortutako arazoak eta eztabaidak ezagutzeko.

Azpimarratzekoa da Andres Urrutia jurista eta euskaltzainaren izena, denetan errepikatuen egileen artean, dudarik gabe.

#### 4.3.- Idazkera-eskuliburuak, administrazioko formularioak

Zerrenda honetako argitalpenak jadanik jasoak daude euskal testu juridikoen artean baina metahizkera baten agerpen direnez, hemen tokia badutelakoan gaude.

Azpimarratzekoa iruditzen zaigu argitalpenon data, alegia, laurogeita hamarretakoak direla.

Beste aldetik, izenburu horien egileen edo itzultzaileen artean ia beti bi erakunderen izenak ikusten dira: UZEI, lau kasutan, eta HAEE / IVAP beste zazpitan.

Aipatzekoa da, azken garaian, inprimatu gabeko ereduak zabaltzen ari direla programa informatikoen bidez, esate baterako justizia-administrazioan, baina horrelakoen erreferentziarik ez dugu jaso.

## 5.- ONDORIOAK: EUSKARA JURIDIKOAREN IBILBIDEA AZKEN ALDIAN

### 5.1.-Testu juridikoen produzio ugaria.

1936ko urrian eta 1997ko maiatzean (gure corpusaren hasiera- eta amaiera-datak) dauden testu juridikoak alderatze hutsetik ateratzen den ondorioa da gaurko egunean testu-kopuru handia dagoela. Izan ere, 1978 arteko testu juridiko guztien erreferentziak biltzea egingarria bada, une honetan daudenak batu nahi izatea zentzurik gabeko lan erraldoia izango litzateke. Bestalde, eta idatzitako hitzen zenbaketarik ez dagoen arren, arriskurik gabe baieztatu daitezke gaurko egunean euskaraz idatzita dagoenaren zati on bat euskara juridikoari dagokiola.

Kopuruaz ari garela hizkeraren garapena nabarmena bada, esan behar da teknikasunaren aldetik ere, ikusgarria izan dela aldaketa: gaur, zuzenbideko testu guztiz teknikoak, eta zuzenbideko arlo eta erabilera-eremu askotarikoak daude.

Aurreko garaiekin alderatuaz ere, esan behar da, lehen ez bezala, 1978 ezkeror idatzitako testu gehien-gehienak euskara batu estandarrean idatzita daudela.

Ezaugarri testualei eta bereziki lexiko-terminologikoei dagokienez, gaineratik begiratuta ere ohartzen gara, testu-multzo batzuetan, esate baterako EHAAan argitaratutako legerian, badagoela urte-multzo batzuetan, jarraikitasun bat, lexikoaren eta formula batzuen erabilera sistematikoa; hots, badaudela “estilo juridiko” berezi baten hasikinak izan daitezkeen elementuak, nahiz eta, ikusiko dugun bezala, hainbat arazo dagoen horren inguruan.

Itzuliak izatea da testu gehienon ezaugarria. Dakigularik, arau-testu nagusi<sup>79</sup> guztiak, itzuliak dira, salbuespenik balego, egiaztatu ezin izan dugularik. Administrazio testuei dagokienez, garai batean denak itzuliak izaten ziren<sup>80</sup> eta geroago, orain arte ere, gehienak. Bizitza juridikoko beste arloetako (notarioritza, mundu judiziala, abokatuen jarduna...) testu gehienak itzuliak dira.

Zuzenbidea gai duten irakaskuntza-liburuetan, Santi Goñirenak (1986) eta Bengoetxearena (1993) izan ezik, denak itzuliak dira. Hainbat kasutan

---

<sup>79</sup> Azken urte hauetan, administrazioan, gehien bat maila apaletan, badira euskarazko arau juridikoak sortzen dituztenak.

<sup>80</sup> Urte luzeetan *itzultzaile* deitzen zen administrazio-organoetan euskarazko testuez arduratzen zena.

zalantzarako arrazoiak badiren arren, salbuespen-multzoak izan daitezke zuzenbideko euskarari berari buruzko lanak, eta ikerkuntza juridikozko artikuluak.

Edozein modutan, zalantzarik gabe esan daiteke euskarazko hizkera juridikoa hizkera itzulia dela, eta gainera, hizkuntza bakarretik, gaztelaniatik, itzulitako hizkera.

## 5.2.- Hizkera juridiko-administratiboaren eredu desberdinak

Oso gai ezaguna da ezen euskal hizkera juridikoaren normaltasuna eta koherentzia oztopatzen duen arazo bat dela batasun eza. Batasun falta hori, alabaina, ez dagokio euskararen ohiko banaketa dialektalari: euskara batuaren barruan ulertu behar da (ia testu guztiak euskara batukoak baitira), eta gainera, badirudi, euskara batuaren elementu berriak erabakitzen eta zehazten diren puntuetan, batasunerako bidea hartzen dela; bereziki, azken urteotako lexiko-munduko erabakiei dagokienez.

Hizkera berezi batean lexikoa izanik elementu bereizgarriena, ez da harrigarria lexikoaren inguruan gertatu badira batasunaren haustura eta eztabaida gehienak. Esan daiteke, hainbat kasutan, orain arte hiztegi arauemaile ofizialik ez izatea izan dela eztabaidarako parada.

Hizkera berezien inguruko eztabaida orokorraren berri ematen genuenean (supra II, 4.2.2.) zuzenbide-hizkerari buruzko hainbat datu eskaintzen genuen, arlo honetako hizkera-arazoak oso nabarmenak eta deigarriak izan direlako. Hortaz, ondoko lerroetan, han idatzitakoa errepikatu gabe, zuzenbideko testu eta hiztegien inguruan bereziki izandako eztabaiden berri laburra ematen saiatuko gara.

Terminografiaz ari ginelarik eztabaida esplizituaren hasiera-data bezala ematen genuen 1981ko abenduan Luis Michelenak *Mugak* aldizkarian idatzitako artikulu ezaguna, baina, jakina denez, desadostasunak lehendik zetozen, eta zuzenbide-hizkeran jadanik agertuak ziren horren zantzuak.

Sarriegik (1985:16-17) idazten duenez, arazoak zuzenbideko hizkeraren azken aldiko abiatze-unetik bertatik agertzen dira: izan ere, eztabaida biziak izan omen ziren Euskaltzaindiaren eta agintari politiko batzuen artean *Eusko Kontseilu Nagusiaren Aldizkari Ofizialari* izena ipintzerakoan. Ondoren, idatziz kaleratzen ez baziren ere, erabili beharreko lexikoaren eta oro har euskara-ereduaren inguruko gorabeherak ez ziren amatatu, eta Sarriegik berak oharrarazten duenez, *EKNAO* aldizkari beraren azken zenbakietan gertatzen da eredu-aldaketa nabarmena.

Esan bezala, maila orokorrera igaro zen eztabaida bizi-bizirik egon zen urte haietan, zuzenbideak protagonismorik ez bazuen ere: zuzenbidekoaz gabe, administrazio-hizkeraz mintzatzen baita. Eztabaidaren hainbat alderdi agertu ziren HAEE / IVAPek administrazioko hizkeren inguruan antolaturiko jardunaldietan: 1982koetan (HAEE/ IVAP:1984), 1984koetan<sup>81</sup>, eta jadanik aztertuturiko 1989koetan (HAEE/ IVAP:1989).

Eztabaida horiek oso nahasiak izan dira, eta eztabaidagaia ez da beti modu gardenean adierazi; badira ordea, *euskara-ereduak* jokoan zeudela nahiko garbiro esaten dutenak. Horrela, UZEIko *Zuzenbidea Hiztegiaren* «Hitzaurren orokorrean», argi eta garbi planteatzen da bi eredu daudela, bata EHAArena, eta bestea, “*gaurko gizartean nagusitu dena*”. UZEIko hiztegiaren egileek bigarrenean paratzen dute euren burua, erabat arbuiatuaz aldizkari ofizialeko bai eredia eta bai lexikoa<sup>82</sup>.

Baina gure ustez, Berasategi (1989:38-39) da arazoari buruzko informaziorik orokorrera ematen duena, bi ereduaren deskribapen linguistikoa eta soziolinguistikoa eskainiaz. Hauek izango lirateke, laburbilduaz, Berasategiren aburuzko bi “korronteon” hizkeren ezaugarriak:

- A korrontea
  - 1936-37 garaiko tradizioari atxikitzen zaio,
  - garbizalea da, mailegutzatik ihes eginez,
  - euskal hiztunaren ohiko moldeak, —terminoen zehaztasunaren kaltetan batzutan— hobetsi nahi omen ditu, baina, garbizale izanik, urrundu egiten da haietarik,
  - maiz jotzen du birdeklinaziora eta hitz elkarketara,
  - euskal testuari autonomia handiagoa eman nahi dio gaztelaniazkoarekiko.
- B korrontek
  - hizkuntza modernizatzeko eta erabilera berrietara egokitzeko ahaleginetan kokatzen du bere burua,

<sup>81</sup> Nahiz eta jardunaldi horien berri jasotzen duen argitalpenik ez dugun ezagutzen

<sup>82</sup> "Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria argitaratzen hasi zenean bati baino gehiagori sortu zitzaion kezka, ea euskara harekin zer egin behar zen, UZEIrena ez bezalako eredia baizerabilen.(...) Aldizkari horren "eredua" ez, bestelakoa, gaurko gizartean nagusitu dela esateko datu ugari dauzkagu. (...) Hori ereduari dagokionez. Aipaturiko Aldizkari horretan erabiltzen den hiztegiari dagokionez, berriz, beste hau esan daiteke: Horko hiztegia ez dago sistematikoki eta organikoki eratua eta erabilia; Zuzenbidean berezi beharreko kontzeptuak eta kategoriak nahasian ematen dira. (...) Funtsean ereduaren ezberdintasuna zegoelako, beraz, gure lanerako ez dugu Aldizkari hori erabiltzerik izan, hori zehatz aztertzeke egin beharreko lana izugarria zelako eta atera zitekeen fruitua, berriz, eskasa" Zuzenbide Hiztegiaren Hitzaurre Orokorra. 25 or.

- espainolezko terminologiaren zehaztasunak eta konotazioak gorde nahian erraz onartzen du mailegutza lexikoa,
- beste alorretan, bereziki irakaskuntzan eta komunikabideetan gertatzen ari den garapenarekin bat jokatu nahi du,
- maileguz beteriko hiri-hizkerara hurbildu nahi du.

Urte berean Agirrek (1988:96), argitu ondoren administrazioan euskaraz ez dela itzulpena baizik egiten, itzulpengintzarako hiru bide daudela zehazten du: a) sistematikoki mailegutza eta kalkora jotzen duena, b) hitzez hitzeko itzulpenean eta kalkoan oinarritzen direnak, neologismoak eta hitz zaharrak adiera espezializatuan nahas-mahas erabiliaz, eta c) hitz elkartuetan, eratorrietan, transposizioan eta modulazio lexikoan oinarritzen direnak. Agirrerentzat, beraz, ez dira bi, hiru baizik hizkera ereduak.

1989 urte berean gertatzen dira Oñatiko jardunaldiak, 2. Kapituluako 4.2.2.3. puntuan deskribatuak. Han genioen bezala, liburu horretan biltzen dira inon baino hobeto hala terminologiaren inguruko nola zuzenbideko hizkeraren inguruko eztabaidaren alderdi anitz. Aipatutako puntuan esaten genuenez, eztabaidagaiak esplizitatearekin batera auziaren alderdiak argitu egiten dira, eta konponbideak zein izan daitezkeen sumatzen hasten.

Hainbatetan aipaturiko eztabaida orokorrean bezala, hizkera juridikoari dagokionez ere, garrantzi berezia izan dute Ibon Sarasolaren iritziek, hainbat artikulutan, baina bereziki aipatutako 1989ko jardunaldietan argitaratutako «Hizkuntza bakarretikako itzulpenez eta bestez» ponentzian, eta HAEE/IVAPek argitaratutako (Agirre:1992) *Europako Ituneen Hiztegiari* «Aurkezpen gisa» izenburuarekin egindako hitzaurrean.

Aipatzekoak dira, planteaturiko ideiei zuzenean erantzuten dietelako Lamarkaren (1989) ihardespina, eta Elosegiren (1992) artikulua, era berean hiztegiaren kritika eta hitzaurreko gogoeten erantzuna.

Ondorengo urteetan zuzenean eztabaida horretan parte hartzen duen idazlanik ez badago ere, zerikusi handia dute ondoko hauek: Urrutiaren (1994a): «Euskararen erabilera zuzena: ikuspegi juridikoak», (1994b): «Euskal hiztegi juridikoa» eta oso bereziki (1996b): «Propuestas de simplificación del lenguaje jurídico: reflexiones desde el euskara»; halaber, kontuan hartzekoak dira Alberdi, Garcia eta Ugartebururen (1997) «Erdal hitz bakarra: euskal hitz bakarra. Jokamolde mimetikoa euskal terminologian» artikulua, Uzeiren *Zuzenbide Hiztegia* hartzen baitu aztergaitzat, eta Lozanoren (1997) :«Zenbait argibide euskara juridikoaren gainean», batzuen “terminologismoa” kritikatzeko baitu.

Gure ustez, beste alorretan bezala, eredu desberdinen arteko hurbiltze-joera indartzen ari dela egia bada ere, oraindik oso urruti daude zuzenbideko hizkera eta terminologia-batasunetik.

### 5.3.- Hizkera juridikoaren garatze-prozesu anomaloa

#### 5.3.1.- Eredua frantziarra eta eredu espainiarra

Gauza jakina da, eta nahiko azaldua lan honetan, euskararen eta zuzenbidearen arteko harremana ez dela izan normaltasunezkoa historian zehar. Alde horretatik, beraz, oso argi dago euskara juridikoaren garapena ere ez dela “normala”. Baina uste dugu, testuen behaketak erakusten duela gorabehera handiagoak daudela testu juridikoetan oro har, euskarazko gainerako testu idatzietan baino, eta azken mendeari dagokionez, zuzenbideko hizkera bereziaren garapena ez dela euskararen beste hizkera bereziak bezalako; alderdi horretatik ere, anormala izan dela.

Testu historikoei dagokienez, Iparraldean, Lapurdin bereziki, XVII eta XVIII. mendeetan zehar garatuz doan hizkera, zeinaren gailurra Iraultza garaian koka daitekeen, guztiz frantseskara dela esan daiteke (Rica 1975); hortik aurrera Hegoaldean pittinka garatuz joango dena erabat “espainolkara” den bezala. Esan nahi baita, gai erlijiosoak eta besteak, mugaz gainekoak izateak, Ipar eta Hegoaren arteko neurri bateko komunitate kulturala baimendu zuen bezala, administrazioko eta zuzenbideko gaiak, eta euren hizkerak mugaren alde banatan geratu ziren. Hortaz, Hegoaldeko testu juridiko-administratiboetan ez da ageri Iparraldekoen eredu ezertarako, ez esamoldeetan, ez lexikoan. Azken urteotan hizkera juridikoaren garapena Hegoaldeko fenomeno izanik, ez da praktika juridikoan batasun-arazorik<sup>83</sup> sortzen, baina argi dago garatutako ereduak zerikusi txikia duela Iparraldeko eredu zaharrarekin.

Esan beharrik ez dago, gaurko euskal hizkera juridikoak ez du ia inolako loturarik zuzenbide propioarekin. Historian izandako instituzio juridiko propioek, ikusi genuenez, ez dute hizkuntzan ondorengo askorik utzi; zuzenbide zibileko familiarren eta oinordetzaren arloetako apur batzuk bakarrik. Eta horiek, idatziz iritsi zaizkigunean, erdaraz idatzitako testuetan izan da.

---

<sup>83</sup> Praktika juridikoan ez, baina komunikabideetan bai, *Euskaldunon Egunkarian* suma daitekeenez.

### 5.3.2.- Hizkuntzaren ofizialtasuna baldintzatzaile

Gure ustez, badago inguruabar bat, hizkera juridikoaren garapenari beste hizkerari ez bezala eragiten diona, hizkuntzaren estatus juridikoaz ari gara, labur esateko, ofizialtasunaz.

Egin dugun testu historikoen errapasotxo labur horretan nahiko nabarmen agertzen da historiaren bi une oso laburretan kontzentratzen dela produkzio gehiena: 1789-1792 urteak Iparraldean, eta 1936ko urritik 1937ko ekainerako tartea Hegoaldean. Esan beharrik ez dago, gertakizun berbera, eta areagotua, dugula 1978an hasitako garaian. Are nabarmenago azaltzen da 1937ko ekainetik 1978ra doazen berrogei urte luzeetan produkzioa erabat urritu egiten dela, eta berriro 1978an bat-batean hasten dela gehiago etengo ez den beste aldi bat.

Euskarazko aldizkari ofizialak, 1936an eta 1978an nola hasi ziren deskribatu dugunean (kapitulu honetako 3.3.2. eta 3.3.5. puntuak) azpimarratu dugu bat-batean kaleratu zirela. Ezinbestekoa izateak ez digu ahantzarazi behar gertaera hori nahiko bitxia eta eboluzio normala galarazteko modukoa dela testuen produkzioan. Esan nahi baita, aldizkari ofizial batean agertu behar diren testuak, edukiak, adigaiak eta forma ere neurri batean, ez direla aukerakoak. Testugileak, itzultzaileak, nola hala euskaraz eman beharko ditu ofizialki argitaratu beharreko testu guztiak, kontuan izan gabe nolako baliabideak dituen hizkuntzak eduki horiek baldintza horietan adierazteko. Gainera, argitaratu behar horrek ez dio aukeratzen utziko irakurle potentzialak duen ulermenaren araberrako testuak egitea; alegia, testuak euskaraz idatzi behar izango dira, ez irakurle euskaldunek hobeto uler ditzaten, baizik eta ofizial izateak horrela eskatzen duelako<sup>84</sup>. Gainerako testu-generoetan ez da maiz gertatzen hori. Izan ere, I. kapituluan egiten genuen hizkera berezien historia xumean agertzen da testuen teknikotasuna eta abstraktutasuna txikitik handira joan dela, sarritan, irakaskuntzan kasu, haurrentzako testuak hasieran, gaztetxoentzat geroago, eta unibertsitarioentzat ondoren, hala terminologia nola hizkera oro har, finduaz eta aberastuaz joan direlarik.

Ofizialtasunarekin loturiko beste distortsio-elementua, hizkera juridikoaren garapena guztiz baldintzatu duena, gure ustez, elebitasun sistematikoa izan da. Hemen ere, testu juridikoekin gertatzen dena ez da ohikoa. Jakina da euskal testu espezializatu asko eta asko itzulpen bidez sortuak direla, eta alde horretatik kasu berean egongo lirarteke zuzenbidekoak, baina beste eremuetan ez da usuegi gertatzen testu bera argitalpen berean, gehienetan alboz

---

<sup>84</sup> Noski, ofiziala izateko arrazoia da "herritarren hizkuntza" izatea, baina ez da kontuan hartzen zein den herritar horien irakurtzeko gaitasuna.

albo, gainera, argitaratzea. Izan ere, koofizialtasunaren interpretazio horrek<sup>85</sup> ekarri du euskal testuaren irakurle potentzialak une berean erdal testua edukitzea begi aurrean, eta hortaz, inolako zailtasunik ez izatea ondoen irakurtzen duen hizkuntza aukeratzeko.

Testu elebidunen alde on eta txarrez asko eztabaidatu bada ere, ukaezinezkoa da argitalpen-mota horrek, testuaren irakurgarritasuna, eta ondoren helburu komunikatiboa erdal testuaren bidez ziurtaturik daukanez, ez duela biderik ematen euskal testuaren kalitatea eta komunikagarritasuna neurtzeko.

### 5.3.3.- Testuen erabilera praktikoaz

Hizkera juridikoa osatzen duten testuen artean bereizten genituen zuzenbidezko ondorioak sortzekoak eta zuzenbideari buruz hitz egitekoak; lehenak, noski, bigarrenen izate-arrazoia izaki. Ondorengo lerroetan laburbilduko ditugu, ikerkuntza lan berezirik egin gabe, gure gizartean aski ezagunak diren zuzenbide-munduko hizkuntzen erabilerari buruzko zertzelada batzuk.

- *Aldizkari ofizialetako euskal testuen erabilera*

Erabilerari horri buruzko daturik ezagutzen ez dugunez, norberaren eskarmentuan, ahoz jasotako iruzkinetan, eta denboran zehar hainbat adituk (Berasategi<sup>86</sup>, 1989:40, 41), (Lobera, 1997:83) (Agirre Bereizibar, 1997:116) testu horiek ulertzeko zailtasunez idatzirikoan oinarriturik esan dezakegu urte askotan aldizkari ofizialetako euskal testuak edergarri eginkizuna izan duela gehienbat. Hala ere, azken hamarkadan euskal testuen erabilera asko handitu dela ere esan daiteke.

- *Harreman juridiko pribatuetan*

Erakunde eta norbanako euskaltzale saiatu batzuk izan ezik, oso txikia da euskararen erabilera idatzia kontratuak, aseguru-polizak, eta edozein motatako izkribu juridikoak egiterakoan. Azken urte hauetan gehien hedatu dena da

<sup>85</sup> Nafarroako aldizkari ofizialetan euskal eta erdal testua argitalpen bananduetan atera dira beti. Hori da, guk dakigula, salbuespen garrantzitsu bakarra.

<sup>86</sup> (...) *hay algo que descorazona profundamente a muchos traductores: la falta de utilización de los textos traducidos. Existe la impresión, deploradamente incluso la certeza, de que la versión en euskara es meramente simbólica, no funcional, que no cumple sus fines comunicativos, que no es leída. (...) Todo esto provoca la falta de utilización del texto en euskara, lo cual implica a su vez para el traductor una falta de "feed back" en su trabajo, que no ayuda al perfeccionamiento de su labor traductora. El traductor no sabe si su mensaje ha sido comprendido (...)* (Berasategi 1989:41.



inprimaki elebidunen erabilera merkataritzan, aseguru-etxe batzuetan, eta zerbitzu publikoetako enpresa nagusietan (banku, elektrika-hornitzaileak, telefono-enpresak...); baina oro har, idazki juridikoen ehuneko ñimiñoa besterik ez dela baieztatu daiteke.

- *Notarioritza*

Zerbait idatzirik badagoenez, alor honetako datuak dakartzagu. Patxi Zabaletak (1992:603-610) dioenez Gipuzkoa eta Nafarroa osoan azkeneko zortzi-hamar urte haietan euskaraz egindako idazki notarialak 62 izan ziren, Araban 6, eta Bizkaian 35. Hainbat urte beranduago, Urrutiak (1997:4) dioenez, beraren eta beste notario euskaldunaren notarioritza 1996ean % 1,5 dira euskaraz sinaturiko agiriak. Datu hori, Bilboko notario euskaldun eta euskaltzale ospetsu bati dagokiolarik, berez dator, ehuneko orokorra askoz txikiagoa izango dela.

- *Justizia-administrazioan*

Hainbat alditan izan da egunkarietako gertakarien gai euskara normaltasunez erabiltzeko dauden zailtasunak, batzuek salatzen dutenez. Azken urteotan erabilera zertxobait areagotu dela kontuan harturik ere, adierazgarriak dira *Euskaldunon Egunkariak* 1996.12.22an argitara emandako datu horiek:

Arabian 22 epaile, 1 da euskalduna; 6 fiskal, 0 euskaldun

Bizkaian 110 epaile, 2 euskaldun; 33 fiskal, 1 euskalduna

Gipuzkoa 40 epaile, 5 euskaldun; 22 fiskal, 2 euskaldun.

Nafarroan, euskararen presentzia edo erabilera arlo horretan, hutsa da, eta esan beharrik ez dago, Frantziako legeak ez duela aurreikusten frantsesaz beste hizkuntzarik bertako justizian.

Datu xume horiek argi asko adierazten dute euskarak duen presentzia erabat esporadikoa denez, hizkera juridikoak ez duela ia batere garapenik Justizia-administrazioan.

- *Administrazioan, administrazioarekiko harremanetan*

Administrazioa, (autonomikoa, forala, eta udaletakoa) izan da, hasieratik, hizkera juridikoaren erabilerarako gune egokiena. Eusko Kontseilu Nagusia abiatu zen unetik bertatik, hainbat udaletan hasiak ziren euskarari tokia egiten.

Piskanaka, aipaturiko hiru mailetan, EAEn euskara sartuaz joan da, arauetan, ebazpenetan, iragarkietan, batzarretako aktetan, eta era guztietako agiri ofizialetan, baina gauza jakina da kasu askotan, lan-hizkuntza gabe, itzulpen-hizkuntza hutsa izan dela. Esan nahi baita tramitazio eta kudeatze-lan guztiak espainolez egin ondoren, azken produktua, kaleratzeko edo interesatuari bidaltzeko presaturik zegoenean soilik euskaratzen zela.

Hizkuntzaren erabilera sinboliko hori nagusia eta ia bakarra izan da 1980ko hamarraldian, eta nagusi izaten segitzen du 1990ekoaren azken zatian. Esan behar da, hala ere, azken urteetan, bereziki euskaldunen ehuneko handiko udal txikietan, eta euskararekin loturiko era askotako erakundeetan gero eta usuago erabiltzen dela euskara lan-hizkuntza gisa.

Edozein modutan azpimarratu nahi genuke ez dagoela parekotasun-erlaziorik administrazioak ekoizten dituen euskarazko agirien eta euskara testu horien erabilera praktikoaren artean.

- *Irakaskuntzan, ikerkuntzan, dibulgazioan.*

Zuzenbidearen praktika zuzenean ez bada ere, edozein hizkera bereziren garapenean garrantzi handia duenez aipatuko dugu irakaskuntza eta ikerkuntza testuek gure ustez adierazten dutena.

Alde batetik, nahiko nabarmena da oso berandu arte, 1990ko hamarraldia ongi sartuta, ez dela unibertsitateko liburua hedatzen. Beste aldetik, salbuespenak badaude ere, itzulpena da nagusi hor ere.

Ikerkuntza-artikuluei buruz, azpimarratzekoa da hori izan daitekeela itzulpen izatetik libratzen den multzo bakarra, eta aski hornitutako atala irudituz zaigula.

#### 5.3.4.- Laburbilduz

Ikusi dugunez oraindik hizkera herrena, eta itzulpenari lotuegia baldin bada, aldi honen bigarren erdian, hala gaiaren aldetik, nola teknikotasunarenetik, esan daiteke badagoela, eta badabilela euskal hizkera juridikoa.

Horrek esan nahi du, ezen onartuz orain 20 urte oso testu eta adigai juridiko gutxi zegoela euskaraz adierazirik, azken bi hamarkadetan osatu dela gehien bat euskal hizkera juridikoa, eta noski, haren osagai nagusia den terminologia.

## **II. ZATIA**

### **LEGE-CORPUS ITZULI BATEKO TERMINOLOGIAREN AZTERKETA LINGUISTIKOA ETA TERMINOLOGIKOA**



## V.– KAPITULUA

### CORPUSA, ITZULPENA, ESPAINIERAZKO TERMINOEN AUKERAKETA eta HUSTUKETA

#### SARRERA

Aurreko kapituluuan egindako gainbegirada historikotik ondorioztatzen denez, euskarak ofizialtasuna erdiesten duen 1936ko unetik hona, euskal hizkera juridikoaz hitz egitea ahalbideratzen duen testu-multzoa ekoitzi da. Ekoiztea, bi urratsetan egin da, 1936-37koa lehenik, eta askoz garrantzitsuagoa eta erabatekoagoa den 1978tik honakoa, ondoren.

Euskal hizkera juridikoaz hitz egin ahal izateak, besteren artean esan nahi du euskal terminologia edo hiztegi juridiko berezia badagoela; beraz, esandako aldi historikoan eratu egin dela.

Ikuspegi askotatik begizta daiteke hizkera baten sortze-prozesua, baina guk aztertu nahi duguna da nolako baliabide linguistikoak erabili diren hizkera-moldatze horretan. Zehatzago esanez, zein baliabide lexikogenetiko eta sintagmatiko erabili diren adigai juridikoak adierazteko.

Azterketa horretarako urratutako bidea, kontsiderazio metodologikoez markatu digute, baina nahitaezko mugapen praktikoek baldintzatu dute. Horien guztien berri ematen dugu kapitulu honetan.

Lehenik eta behin, argi dago hizkera baten deskribapenak edo azterketak ezin duela guztizkoa izan, errealitatean oinarrituta egon nahi badu. Corpus-linguistikaren oinarriak kontuan hartuaz, testu-multzo koherente bat hautatzen saiatu gara, ahal den neurrian zuzenbide-hizkeraren ordezkartasun nahikoaz hornitua. Irizpide horiekin, Euskal Herriaren erreferentzia geografiko-politikoak daramaten aldizkari ofizialetako lege-testuak aukeratu ditugu corpusatzat.

Beste aldetik, eta kontuan hartuaz euskal testuok espainierazko testu batzuen itzulpen direla, eta erlazio jakin batzuk ezartzea ahalbideratzen duten ezaugarri tekniko batzuk (corpus paralekoak) dauzkatela, espainierazko termino jakin batzuen itzulpen-balikiodeen bila joatea erabaki dugu. Horretarako, noski,

aldez aurretik espainierazko terminoen zerrenda bat prestatu behar izan dugu, kapitulu honetan deskribatzen diren irizpideen arabera.

Corpus-linguistika, traduktologiak landutako baliokidetza adigaia eta terminografia juridikoa izan dira, hortaz, gure metodologiaren euskarriak, kapitulu honen lehen ataletan azaltzen dugun bezala.

Ondorengo ataletan, urratses urrats deskribatzen dugu nolako eragiketak burutu ditugun hurrengo kapituluan egiten dugun azterketa ahalbideratuko duen datu-basea eraikitzeko. Hau da, corpusaren atal bakoitzean hustuketa terminologikoa nola gauzatu dugun: beti ere, erdal terminoaren itzulpen-baliokidea bilatuaz, baina bi ataletan eskuz, eta hirugarren atalean, nagusian, aplikazio informatiko baten laguntzaz. Ondoren, azterketaren lehengai bezala erabaliko ditugun euskal segmentu baliokideak mugatzeko eta lematizatzeko erabilitako irizpideak eta metodoak azaltzen ditugu, eta azkenik, horrela lortutako unitateekin datu-basea nola eraiki dugun deskribatzen dugu.

## 1.- CORPUSAREN AURKEZPENA

Atal honetan, hizkera juridikoaren terminologiari buruzko azterketa egiteko aukeratu dugun *corpus*aren deskribapena egin nahi du. Horretarako, hizkuntzalaritzan *corpus* zeri esaten zaion, eta *corpus*aren erabilera zilegiztatzen duen corpus-linguistikaren oinarriak, oso labur bada ere, zein diren azaltzen saiatuko gara.

### 1.1.- Corpora.

#### 1.1.1.- Corpus-hizkuntzalaritza.

*Corpus* hitza eta adigaia ez dira berriak, inondik ere, filologian, gramatikagintzan, eta hizkuntzalaritzan oro har; ez eta beste zenbait arlotan<sup>1</sup> ere. Mendeetan zehar, zerbaiten erakusgarri izan dadin osaturiko testu-multzoari eman ohi zaio *corpus* izena.

Lehen hurbilketarako, ohiko adigai horretatik abia gaitzke, esanaz, testu-multzo batek *corpus* izena merezi izateko ikuspegi batetik edo bestetik, koherentzia maila bat behar duela. Koherentzia, testu-multzo horretatik atera nahi den emaitzari dagokio lehenik.

Hizkuntzalaritzan badira, idatziak ez diren corpusak; ahozko hizketaren bildumak alegia; baina ahozkoa ez denez gure aztergaia, hemendik aurrera *corpus* adigaia aipatzen dugularik, testuez osaturiko corpusaz arituko gara beti.

<sup>1</sup> Zuzenbidean, "*Corpus Iuris Civilis*" esate baterako

Hortaz, esan daiteke (Eagles: 1994) hizkuntzaren lagin gisa erabiltzeko irizpide linguistiko esplizitoz aukeratutako eta antolatutako hizketa-atalen bilduma bat dela corpora.

XX. mendeko hizkuntzalaritzan, hizkuntza, hizkera edo hizketa-mota bat aztertzeko corpusaz baliatzeari inoiz utzi ez bazaio ere, eskola linguistikoen arabera garrantzi handiagoa ala txikiagoa eman izan zaio. Inflesio-puntutzat aipatu ohi da, Chomskyren lehen obra nagusiek, hau da 1957ko *Syntactic Structures* eta 1965ko *Aspects of the Theory of Syntax*, ospetsuek ekarri zuten iraultza teorikoa. Haien ondorioz, corpusen erabilera asko murriztu zen hizkuntzalaritza orokorrean, eta beste arlo askotan; ikuspegi enpirikoa baztertuz, arrazionalistari heldu baitzitzaion. Esan daiteke 60ko eta 70eko hamarkadetan corpusean oinarritutako ikerkuntza arlo zehatz jakin batzuetara mugatu zela gehien bat, hala nola fonetikara edo hizkuntzaren jabekuntzara (McEnery & Wilson, 1996:5); baina 80ko hamarraldiaren erdialdetik hona, corpus-hizkuntzalaritzak berriro ere garrantzi handia berreskuratu du.

Corpus-hizkuntzalaritzaren ospe berri hau, neurri batean datuak era automatikoan prozesatzeko ahalmena biderkatu eta erraldoitu izanak bideratuta etorri da. Izan ere, orain egingarria eta merkea baita testu multzo handiak<sup>2</sup> erabiltzea eta lantzea, ordenagailuak garatu aurreko corpusen muga nabarmenegiak gaindituz. Baina aurrerapen tekniko hori ezinbestekoa izan bada pragmatikoki emaitza benetan fidagarriak atera ahal izateko, gaurko egunean teorikoki ere onartzen da (Kennedy, 1998:7) *corpusean* oinarrituriko hurbilketa enpirikoa eta arrazionalista elkarren osagarri direla.

Esan daiteke informatikaren aro honetan *corpus* hitza ‘*makinak irakur dezakeen corpus*’-aren sinonimo bihurtu dela, eta ez dagoela ia pentsatzerik ordenagailuen laguntzarik gabeko *corpus-hizkuntzalaritzako* lana egin daitekeenik. Hori horrela da, McEnery-k eta Wilson-ek (1997:15) dioten bezala, ordenagailuak izugarrizko ahalmena duelako datu linguistikoak bilatzeko, sailkatzeko, berreskuratzeko eta kalkulatzeko, eta gainera, guztizko zehaztasunez eta errorerik gabe.

Finkatutzat eman daiteke egungo hizkuntzalaritzazko ikerketetan edozein arlotan erabil daitekeela corpus-aren metodologia, baina badira hainbat eremu zeinetan corpus-az baliatzea ezinbestekoa den. Horrela aipa daitezke ahozko hizketaren ikerkuntzak, lexikoaren azterketak, semantika, pragmatika, diskurtsoaren analisia, estilistika, psikolinguistika, soziolinguistika, hizkuntzaren historia, dialektologia eta hizkuntzaren aldaketa, eta oso bereziki linguistika

---

<sup>2</sup>Kopuruok berehalakoan zaharkituak eta are irigarriak geratzeko arriskua badute ere, aipa dezagun *British National Corpus*-ek 100 milioi hitz dituela, eta *Bank of English* izenekoak, 200 miloi. (McEnery & Wilson, 1998:170)

konputazionalaren arlo guztiak, esate baterako, lexikografia automatizatua, testuen desanbiguaioa, makinaz lagundutako itzulpengintza, terminografia konparatua eta abar.

Corpusa aipatzeak, gaurko egunean, corpus elektronikoa esan nahi du, hau da, aztertu nahi den hizkuntzaren aldaeraren lagin nahiko errepresentatibo bat, neurritz mugatua, eta ordenagailuz prozesa daitekeen euskarri batean biltegitratuta, McEnery eta Wilson-en, (1996:24) definizioaren arabera.

Zer esanik ez, xede berezietarako hizkeren ikerkuntzan ere garapen handia izan du corpus-hizkuntzalaritzak; batzuen ustez, (Vikner,1991:15), metodoaren hutsezintasun-ustea urrunegi joan bada ere.

### 1.1.2.- Corpus-motak.

Alde batera utzirik corpus-linguistikan interesgarriak diren hainbat eta hainbat sailkatze-irizpide, bi izango dira puntu honetan aintzat hartuko ditugunak: hizkuntzen kopurua alde batetik, eta hizkuntza osotasunean edo hizkera jakin bat kontuan hartzen den, bestetik.

- **Corpus elebakarrak / eleaniztunak**

Corpusak hizkuntza bakar bateko testuak biltzen dituenan corpus *elebakar* deitzen da, *elebidun* bi hizkuntzatakoak biltzen baditu, eta *eleaniztun* bi baino gehiago badira. *Corpusa* izateko, testu-bilduma bat izatea nahikoa ez denez, corpus elebidunetan eta eleaniztunetan, ezinbestekoa izango da hizkuntza bakoitzarentzat erabilitako hautatze-irizpideak berdinak edo berdintsuak izatea.

Corpus elebidun eta eleaniztunen artean, gure helburuetarako garrantzi berezia duten bi mota bereiziko ditugu: alde batetik itzulpengintzan erabiltzen diren *corpus konparagarriak* deitzen direnak, zeinetan hizkuntza batean eta bestean, luzera bereko edo hitz-kopuru bertsuko testuak, mota berekoak eta antzekoak ditugun, eta bestetik *corpus paraleloak*, testu beraren bi hizkuntza edo gehiagotako bertsiok (itzulpenak) dauzkagun. Bi corpus daudenean, bata bestearen itzulpen zehatza delarik, *testu paralelo elebidunak* deitzen dira. (Martinez Unanue, 1999:13). Horrelako testu paraleloei ingelesez '*bitext*' izena eman ohi zaie.

- **Hizkuntza osokoak, hizkera jakin batekoak.**

Jakina denez, corpus bat hizkuntza natural baten hainbat alderdi aztertzeko erabil daiteke; bestalde, edozein hizkuntza naturalez baliatuz ekoizte daitezkeen perpausen kopurua infinitua denez, definizioz finitua den corpus baten bidez lor dezakegun hizkuntzaren deskribapena mugatua eta osaezina izango da.

Lehen kapituluan ikusi genuenez, espezialitateko hizkeretan beti gertatzen da hizkuntza natural bat komunikazio espezializatuko testuinguru batera



mugatzearen ondorioz, hizkuntzaren ahalbide guztietarik batzuk bakarrik gauzatzen direla. Espezialitateko hizkeretan lexikoa mugatua izaten da, eta are gehiago erabiltzen diren egiturak. Esan daiteke, hizkuntza naturalaren infinitotasuna, maila handi batean murriztua dagoela hainbat deskribapen-mailatan. Hortaz, itxarotekoa da hizkera bereziaren egituren eta lexikoaren homogeneousutasuna dela eta, corpusean oinarritutako ikerkuntzaren bidez emaitza hobeak lortzea.

### 1.1.3.- Testu paraleloak zuzenbidean

Testu paraleloen existentzia eta erabilera ez da atzo goizekoa: Rosetta izeneko harri ospetsuan<sup>3</sup> lege-testu paraleloak zeuden, eta lehenago ere, sumerieraz eta akadieraz idatzitako testu juridiko paraleloen berri badago. Erdi Aroan Europa osoan erabili ziren Biblia eleaniztunak, orri berean testu bera bi, hiru edo hizkuntza gehiagotan (latina, grekoa, hebreera) zeukatenak. Harrezkero, testu paraleloen erabilera asko biderkatu da; pentsatzea besterik ez dago edozein tresna edo makinaren erabilera-arauak zenbat hizkuntzatan idazten diren.

Eta gure ikergaiari dagokionez, ez gara oso oker ibiliko esaten badugu zuzenbidea dela, (legeen argitalpena bereziki), testu elebidun edo eleaniztun luzeenen eta konplexuenen gaia munduan zehar. Bai estatu baten barruan hizkuntza bati baino gehiagori ofizialtasuna ezagutu zaionean, bai erakunde supraestataletan nahiz nazioartekoetan, zuzenbideko testu elebidun eta eleaniztun paraleloen produkzioa izugarri handia da.

Laugarren kapituluan ikusi dugunez, gure tradizioko testu juridiko luzeenak (eta teknikoenak, dudarik gabe), testu elebidun paraleloak ditugu (gogora Eibarko, Tolosako edo Usurbilgo ordenantzak, Iraultza Frantseseko testuak...); eta zer esanik ez, elebitasuna ofiziala izan den garaietako araugintza oso-osoa horrelakoa izan da.

### 1.2.- Tesi honetako corpora, aukeratzeko irizpideak eta aukeraren mugapenak.

Testu paralelo elebidunak aukeratu ditugu, hiru izen desberdin izan dituen, baina argitalpen bakartzat har daitezkeen aldizkari juridikoen bilduma batetik. Gure tesian aztertu nahi ditugun testuak honako hauek dira<sup>4</sup>:

---

<sup>3</sup>1799an aurkitutako harri ospetsuan K.a.ko 195. urteko arau baten lau bertsio zeuden: hieroglifikoa, demotikoa, garaiko egipterazkoa, eta grekoa; elkarren itzulpen ziren, testu paraleloak, beraz.

<sup>4</sup> IV. kapituluko 3.1., 3.4. eta 3.5. puntuetan deskribatuak

- *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoko* legeak eta oroaginduak,
- *Eusko Kontseilu Nagusiaren Aldizkari Ofizialeko* legeak eta dekretuak,
- *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko* 1997ko maiatzaren 30 arteko legeak.

### 1.2.1.- Corpusaren helburua, koherentzia.

Euskarazko zuzenbide-hizkeran, hots, zuzenbideko testuetan, erabiltzen den oinarriko terminologia juridikoa aztertu nahi dugunez, helburu horrekiko koherentzia eskatu beharko diogu corpusari.

Zuzenbideko arauak diren testuak izanik, ezin ukatuzkoa da testuon “zuzenbidezkotasuna”; izan ere, arau-testua, eta legea bereziki, baitira zuzenbide-munduaren oinarri sistemikoa. Badago, beraz, koherentzia testuen izaeraren eta lortu nahi den helburuaren artean.

Barne-koherentziari dagokionez, esan daiteke hiru aldizkariok euskal testu juridikoetan multzo handi, oso eta koherente bakarra osatzen dutela. Izan ere, gure ezagueran dauden gainerako testuekin nekez osa daiteke horrelako jarraiketasun diakronikoa eta tematikoa duen corpusa.

Bestalde, itzuliak direnez dauden euskal testu juridiko gehienak, corpusa ere itzulitako testuez osaturik egotea da logikoena.

Gainera, corpusak hainbat urtetako testuak jasotzen dituzenez, hizkera juridikoaren eboluzioaren garai desberdinak deskribatu ahal izango ditugu haren garapenaren berri emanez.

### 1.2.2.- Testu horien ordezkartasuna zuzenbideko hizkerari buruz.

Esan berri dugunez, nagusitasun sistemikoa ezagutzen zaie lege-testuei zuzenbidearen munduan. Nagusitasun horrek dakar lege-testuek nolabaiteko lehentasuna izatea zuzenbideko izakiak eta erlazioak izendatzerakoan; izan ere, legeetan daude jasoak eta definituak zuzenbideko adigaiak. Esan ohi da (supra II kap 4.2.1.) zuzenbidean ekoizten diren hurrengo testuak, lege-hizkuntzaren metahizkuntzakoak direla.

Baina, egia da aurreko baieztapen horiek egiantzekoak badira ere zuzenbideari dagokionez "normalak" diren hizkuntzetan, esan nahi baita, legegintzarako, legearen aplikaziorako, praktika juridikorako, eta lege-hausturaren ondoriozko eragiketetarako erabiltzen diren hizkuntzetan, zalantzazkoa da euskara multzo horretan sar ote daitekeen.

Zeren, dakigunez, euskal testu juridikoen historiak horrela erakusten baitu, gauzak oso bestelakoak izan dira euskaraz. Gogoratu besterik ez dugu nola

*EAgEk* iraun zuen aldian ez zen ia beste testu juridikorik ekoitzi, gauza beretsua gertatu zela eta bigarren aldian, *EKNAOrean*, eta *HAEEaren* lehen urteetan ere. Esan bahi baita, euskarazko lege-testu horiek, erdarazkoak bezalaxe argitaratzen baziren ere, ondorengo erabilera, praktika juridikoa oro har, ez zen euskaraz egiten.

Nekez esan daiteke, beraz, aipatu garaietan lege-testuetako hizkera beste testu juridikoen oinarri izan zenik, ez baitzen beste testu juridikorik doi-doi ekoitzi. Denbora aurrerago, euskararen erabilera zuzenbide praktikaren beste arloetara zabaldu den heinean, lege-testuen eragin hura gauzatu ahal izan bada ere, ez dugu uste oso zabala izan denik.

Hala ere, lege-testuetako hizkeraren eta terminologiaren orokortasuna eta oinarrizkotasuna genero hori hobesteko arrazoi sendoak direlakoan gaude.

Zuzenbideko azpi-hizkera bat besterik ez dugu hartzen, eta hori ere, ez bere osotasunean, izan ere, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako arau-testuak, eta, beranduago hasita bada ere, Nafarroan argitaratutako euskarazko legeak gure azterketatik kanpo geratzen baitira.

Aitortu beharra dugu, beraz, testu horiek ez dutela euskal hizkera juridikoaren ordezkartasun osoa. Oso bestelako testu-bilketa eta metodologia erabili beharko ziren horrelako ordezkartasunera hurbiltzeko.

Aurrerago azalduko ditugun testuen ezaugarri tekniko batzuek ere bultzatu gaituzte aukera hau egitera.

### 1.3.- Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoaren legeak eta oroaginduak.

Laugarren kapituluko 3.1. puntuan egin dugu *EAgEren* deskribapena, hemen errepikatuko ez duguna. *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoak* irauten duen denboran ez dago legebiltzarrik lurralde autonomoan; beraz, ez da legerik sortzen. *Egunerokoaren* bederatzi hilabeteetan lege formalaren maila duen testu bakarra argitaratzen da: *Estatuto Vasco / Euzko Araudia*.

Hori horrela, ezin genuenez corpora legez soilik osatu, erabaki genuen mailaz legearen hurrena diren dekretu edo oroaginduak ere jasotzea hustuketarako.

Bi motatako, edo hobeto esanda, bi jatorritako oroaginduak aurkitu ditugu: Madrileko gobernutik jalgitakoak eta Euzkadikotikoak; arau-mailari dagokionez berdinak izanik, denak jaso ditugu.

Oroaginduek *EAgEren* zati bat, laurdena baino gutxiago, osatzen dute: Guztira dauden 1.824 orrialdeetatik, 472 orrialdetan daude oroaginduak; hau da,

% 25,87an. Orrialdeok ez daudenez oroaginduz soilik beterik, gure corpusaren neurriak hori baino txikiagoak dira.

#### 1.4.- Eusko Kontseilu Nagusiaren Aldizkari Ofizialeko legeak eta dekretuak

Aldizkari hau argitaratzen den garaia, autonomiaren aurrekoa denez, ez dago legebiltzarrik Euskal Herrian, eta ondorioz, ez Euskal Herriko lege propiorik.

Bi testu daude lege formalaren mailakoak: *Euskadiko Estatutoaren projektoa*", 1979ko apirilaren 20ko EKNAOren Eranskinean argitaratutakoa, eta *Euskal Herriko Autonomia Estatutoaren 3/1979 abenduak 18, Lege Organikoa* deritzona, 1980ko urtarrilaren 12an argitaratutakoa.

Hortaz, hemen ere, lege formalaren eskasia dela eta, mailaz legearen ondotik bigarren diren *dekretu* izeneko arauetz osatzea erabaki dugu.

*EKNAO*k orotara dituen 549 orrietatik 204tan daude legeak edo dekretuak; beraz, 100en bat orrialdeko testu-multzoa dugu. Hemen ere gogorarazi behar da orrialde horiek ez direla beti orrialde osoak, zatiak baizik.

#### 1.5.- Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko legeak 1997ko maiatzaren 30era arte

Neurriaz den bezainbatean, *EHA*Ak benetako jauzi koantitaboa markatzen du hizkera juridikoaren erabileran. Urteroko orri-kopuruak batuaz, 159.000 orrialde-inguru baitaukagu 1997ko maiatzaren azkenera arte; horien erdia euskaraz.

*EHA*Ak berrikuntza handiak dakartza edukiari dagokionez, erakunde autonomiadun eta botere legegiledun baten organoa denez, zuzenbidearen aldetik lehen ez bezalako mailako testuak, Euskal Herrian sortutakoa lege formalak alegia, argitaratzen baititu.

Esandako orri-kopuru horretan, mota askotako testu juridiko-administratiboak daude, horietako zati txiki bat besterik ez direlarik lege mailakoak. Esate baterako, *EHA*Aren lehen alea 1980ko apirilaren 30ekoa bada ere, lehen lege formalak ez da argitaratzen urte horretako azaroaren 3ko alea arte. Eusko Legebiltzarretik jalgitako lehen legea *Euskal Herriko Autonomi Elkartearen Erakundearen Egoitza-ri buruzko Maiatzaren 23ko 1/1980 Legea*, hain zuzen, 19. aldizkarian argitaratzen da, 184. orrialdean.

Urte horretako *EHA*Aetan ez dugu beste lege formalik aurkitzen, nahiz eta Legebiltzarrek 1980ko abenduaren 18an beste bi lege, 2/1980 eta 3/1980, eman;

1981eko otsailaren 6an argitaratu baitziren. 1981 urtean, berriz, ugaldtu eta normalizatu egiten dira legeen argitalpenak; urte horretako martxotik aurrera, aldika, legeak aurkitzen ditugu EHAAn, batzuk, gehienak, laburrak eta bai edukiaren bai testu-ezaugarrien aldetik, oso errepikatuak; Gutxi batzuk baizik ez dira, luzeak eta terminologia berridunak.

Handik aurrera, urtero hainbat lege argitaratzen dira, ondoko taulak adierazten duen bezala.

Urtea	Legeen kopurua	Urtea	Legeen kopurua
1980	3	1990	7
1981	12	1991	5
1982	11	1992	8
1983	33	1993	9
1984	3	1994	18
1985	10	1995	6
1986	10	1996	10
1987	12	1997	5
1988	9		
1989	10		

**1. taula: Lege-kopurua urtez urte**

Guztira 181 lege dira guztira, 181 testu-pare, beraz, 1997ko maiatzaren 20 arte.

Oso luzera ezberdineko testuak dira. Hitz-kopuruaren batz besteko kalkulu bat egin dugu, Word programaren *fitxategia* menuko *propietateak eta estatistika* tresnak erabilia: Garai desberdinetan ausaz aukeratutako 12 dokumenturen kopuruak erabili ditugu lagin gisa.

Dok	Kb	orriald.	parag.	lerro	hitz
8301G	9	9	38	123	961
8308p	29	9	270	518	3152
8312p	66	18	443	1080	6900
8328p	104	29	716	1702	11337
8503P	36	10	220	582	4101
8702p	55	15	309	864	5641
8704p	5	2	46	85	772
8709p	6	2	37	96	648
9307p	27	9	153	485	4669
9401D	110	28	691	1804	12340
9501T	83	23	557	1561	9565
9506P	103	28	633	1691	12120
Guztira	597	182	4113	10591	72206

**2. taula: Testuen luzera**

Ikus daitekeenez, ordenagailuak zenbatzen dituen zifren artean oso antzeko proportzioa mantentzen da dokumentutik dokumentura. Kilobyten (Kb-en) eta hitzen arteko proportzioa:  $72206/597 = 121$ , izanik.

Proportzio hori dokumentu guztien Kb-en baturari aplikatuaz, honako hitz-kopurua lortzen dugu, honetarako erabili dugun garai-banaketaren arabera:

Garaiak	Kb	Hitz-kopurua
1.garaia (80-81-82)	383	46343
2.garaia (83)	644	77924
3.garaia (84-85-86)	436	52756
4.garaia (87-88)	428	51788
5.garaia (89-90)	772	93412
6.garaia (91-92)	602	72842
7.garaia (93-94)	804	97284
8.garaia(95-96-97)	692	83732
Guztira		576081

**3. taula: Corpusaren neurria**

Kopuruak biribilduaz, 600.000 hitz inguruko corpusa da aztergai duguna. Euskarazko corpusari buruzko zenbakiak dira horiek. Espainierazko dokumentuak, alde batetik luzeagoak dira (byte-tan neurtuta), eta beste aldetik, lerroko hitz gehiago daukate. Gutxi gora-beherako kalkulua eginez, esan daiteke 700.000 hitzetik gora izan daitezkeela erdal testuetan. Guztira, beraz, 1.300.000 eta 1.350.000 hitzen arteko kopurua.

## 1.6.- Testuen ezaugarriak

### 1.6.1.- Gaztelania-euskara testu-pareak. Jatorrizkoa ES eta itzulpena EU

Corpus bezala aukeratu dugun testu-multzoa, testu-parez osaturik dago: gaztelaniazkoak eta haien itzulpen diren euskarazkoak.

Zein zeinen itzulpen den legeetan inon ez bada adierazten ere, testu diren aldetik<sup>5</sup>, jatorrizkoa beti gaztelaniazkoa da, gure informazioen arabera, salbuespenik gabe. Halaz eta guztiz ere, kasuren batean jatorrizkoa euskarazko balitz, ez dugu uste baliogabetuta geratuko litzatekeenik hurrengo kapituluan deskribatzen dugun metodologia.

<sup>5</sup> Ez dira nahastu behar ikuspegiak. Ikuspegi linguistiko batetik soilik diogu hemen jatorrizkoa gaztelaniazkoa dela, alegia, itzulpen prozesu bat izan dela, zeinetan sorburu-testua (ST) gaztelaniazkoa den eta xede-testua (XT) euskarazkoa. Besterik izan daiteke testuen balio juridikoari buruzko eztabaida, irizpide juridiko hutsez egin beharrekoa (nahiz eta irizpide horietan oso garrantzitsu izan testuen lehentasun kronologikoa).

### 1.6.2.- Zutabe paralelotan argitaraturik

Arauk ele bitan eman behar direnean hainbat aukera daude argitaratzeko orduan (Duarte: 1985, Duarte1995b: 167): une berean baina argitalpen desberdinetan —bi argitalpen *Nafarroako Aldizkari Ofizialean*, Galiziakoan, edo Kataluniakoan edo anitz, Europako Batasuneko kasu— edo argitalpen berean<sup>6</sup>, batera argitaratzea. Bigarren aukera honetan, antolamendu desberdinak daude, baina, lege-argitalpenetan, orri bereko bi zutabetan bi hizkuntzetako bertsoiak argitaratzea izaten da ohikoena.

*Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoan* abiatutako formari, bi zutabekoari, eutsi zaio corpus osoan. Hizkuntza bakoitzari zein zutabe eman hautatzeko orduan, aldaketa bat gertatu da: *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoan* eta *Eusko Kontseilu Nagusiaren Aldizkari Ofizialean* ezkerrean gaztelania eta eskuinean euskara dugu, baina *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian*, euskarak ezkerrean eta gaztelaniak eskuinean hartu dute<sup>7</sup>.

### 1.6.3.- Barne-antolamendua

Corpusa osatzen duten goi mailako arauak, dekretuak eta legeak, ia hutsik gabe bi zati izaten dituzte: azalpen-zatia eta xedatze-zatia deiturikoak. Legeetan, zati azaltzaileak '*zioen adierazpena*' dioen izenburua darama gehienetan, eta antolamendu berezirik gabekoa testu jarraitua izan ohi da. Xedatze-zatia, berriz, artikulutan<sup>8</sup> banatuta egoten da. Artikuluek kapitulutan eta titulutan bilduta joan badaitezke ere, bat baino gehiago direlarik, zenbaki korrelatiboa eramatean dute hasieratik bukaeraraino.

Zati azaltzailea eta xedatzailea, testu-mota desberdinak izaten dira: lehenengoan informazioa ematea eta mezu-hartzailearen onespina lortzea izaten da helburu; bigarrenetan, berriz, agindu batzuk ezartzea. Estilo aldetik aski desberdinak izan badaitezke ere, erabiltzen diren adigaiak eta terminoak oro har batasun bat osatzen dute.

<sup>6</sup> Horrela egiten da Balear Uharteetan eta Valentzian, eta gauza bera EAEko hiru lurralde historikoetako aldizkarietan.

<sup>7</sup> Eusko Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean, eta Arabako Lurralde Historikoarenean, berriz, gaztelania ezkerrean eta euskara eskuinean aurkitzen ditugu.

<sup>8</sup> Nahiz eta corpuseko arau gehien-gehienetan *atal* deitzen zaion, nahiago izan dugu beste testu askotan erabili izan den *artikulu* hitza erabiltzea. Izan ere, gaurko egunean, ia guztiz orokortu da *artikulu* hitza. baita EHAAn ere. Gauza bera esan daiteke *atalburu/ kapitulu* eta *idazpuru/ titulu* bikoteei buruz.

## 2.- ITZULPENA GURE AZTERKETAN

Corpus paraleloak, hau da, bat sorburukoa eta bestea itzulpena, aukeratu ditugu ikerlan honetarako.

Atal honetan, labur bada ere, azalduko dugu zer den itzulpena, zein den guk aukeratzen dugun itzulpengintzari eta baliokidetzari buruzko teoria. Orobat, saiatuko gara azaltzen zein diren itzulpengintza juridikoaren berezitasunak, baldin badaude, eta horren barruan, gure corpusari zehazkiago dagokion lekeen itzulpengintzari buruzko argibideak emango ditugu.

### 2.1.- Itzulpengintza juridikoa. Zer du berezi

#### 2.1.1.- Itzulpengintza da

Itzulpengintza juridikoaren teorizazioa landu dutenen artean lehenbiziko baieztapena da itzulpen juridikoa ez dela, itzulpengintzak planteatzen dituen arazo orokorren kasu partikular bat baizik (Gemar,1979:35). Izan ere, dio Gemarek, itzulpengintza orokorreko printzipio berak eta mekanismo orokorrak ere berberak dira; eragiketa linguistikoa den heinean arazo lexiko eta sintaktiko bertsuak aurkituko baitira<sup>9</sup>. Has gaitezen, hortaz, itzulpena zer den argituz.

Itzulpenak gaurko eguneko eta betiko testu-produkzioaren ehuneko handia osatzen bada ere, itzulpena zer den definitzean ez dago adostasunik. Izan ere, era askotako ikuspegietatik hurbil gaitetzke adigai horretara.

Itzulpenaren teorikoen artean izan dira (Mounin, 1976:8) itzulpena bera ezinezkoa dela aldarrikatu dutenak. Ideia horrek zerikusi handia dauka hizkuntzari buruzko kontzepzioekin. Indarra jartzen bada hizkuntza bakoitzak munduaren ikuspegi berezia eta desberdina moldatzen duen ideian, Humboldt, Sapir eta Whorf-en bidetik (Hatim & Mason, 1995:45), orduan hizkuntzaz aldatzean mezuaren zentzu bera gordetzea, benetako baliokidetzak, ezinezkoa izango da.

Eztabaida teoriko hori, alabaina, praktikak gainditzen du, erakusten baitu itzulpenak egin izan direla, egiten direla, eta bere funtzioa betetzen dutela.

Itzulpenaren teoriara hurbiltzeko daudekeen hamaika ikuspegi ezberdinen artean, badira itzulpengintza prozesu bezala aztertzen dutenak, eta itzulpena produktu den heinean aintzat hartzen dutenak.

---

<sup>9</sup> Halaz eta guztiz ere, Québecoko irakaslea bera da itzulpengintza juridikoaren berezitasuna (Gémar, 1979:38) gehien azpimarratu dutenetarikoa.



Guri, sorburu-testuaren eta xede-testuaren arteko erlazioak, baliokidetzak, landu nahi ditugunez, itzulpenaren produktu-ikuspegia interesatzen zaigu bereziki. Eta baliokidetzaren hizkuntz alderdiak direnez gure interesgunea, itzulpengintzaren teoria linguistikoari atxikiko gatzaizkio.

Hortaz, eta oharturik eskainitako edozein definizio eztabaidagarritzat eta partzialtzat eman daitekeela, orain dela urte asko, 1965ean, J.C. Catford-ek proposaturiko definizio jadanik klasikotik abiatuko gara, gure xedeetarako aski taxuzkoa delakoan:

*“Translation may be defined as follows: the replacement of textual material in one language (SL) by equivalent textual material in another language (TL) (...) “The central problem of translation-practice is that of finding TL translation equivalents. A central task of translation theory is that of defining the nature and conditions of translation equivalence” (Catford, 1965:20,21)*

Traduktologiak Catforden aurretik eta ondotik landu dituen itzulpengintzaren beste hamaika alderdiren garrantzia ezertan gutxietsi gabe, uste dugu Catforden kontzepzio horrek testu-materiala eta baliokidetzaren azpimarratuaz abiapuntu ona eskaintzen digula gure metodologiaren hainbat alderdi azaltzeko.

### 2.1.2.- Itzulpen juridikoa itzulpen-mota desberdinen artean

Duarte (1995b:154) itzulpengintza juridikoa itzulpen-moten artean kokatzen saiatzen da. Lehenik, dio, ahozko eta idatzizko itzulpenak bereizi behar dira; baina juridikoa bietan kokatzen da. Izan ere, beste diziplina askotan baino gehiago, nabarmena da ahozko itzulpengintzak, interpretaritzak, daukan garrantzia<sup>10</sup>.

Duarte-ren bigarren irizpidea, testuen edukiarena da. Irizpide horren arabera bi multzo nagusitan banatzen ditu testuak: literatur testuak batetik, testu teknolektalak eta dokumentalak bestetik. Bigarren multzoan, teknolektoei dagokien multzoan, testu zientifikoak eta teknikoak sartzen ditu; merkataritzakoak, juridikoak eta administratiboak dokumental izenekoan artean kokatuz. Gure iritziz, egokia da Duarte-ren proposamena zientzia juridikokoak ez diren zuzenbide-testu guztietarako, eta oso bereziki lege-testuetarako.

Hirugarren irizpidea, Duarte-ren sailkapenean, itzulpengintzarako erabiltzen diren metodoei dagokie. Testu batzuei, dio, 'zuzeneko' itzulpena dagokie, bertan hitzez hitzekoa sartzen delarik, eta beste batzuei, aldiz, 'zeharkakoa'. Erreferentziatzat itzulpen-metodoa hartuz, Duarte-ek dio itzulpen juridiko-administratiboa gehien bat, hitzez hitzeko itzulpen-metodoan —beste

---

<sup>10</sup> Gogoratu besterik ez dago zer nolako presentzia duen eta izan duen interpretaritzak garai eta lurralde guztietako epaiketetan.

metodoak erabat baztertu gabe— kokatu behar dela. Aurrerago ikusiko dugun bezala, ‘hitzez hitzekotasuna’ adigaia nahasgarria bada ere, ados gaude gure corpuseko itzulpenetan ‘zuzeneko’ itzulpena erabili dela gehien bat, eta ez ‘zeharkakoa’.

Koutsivis-en aburuz (1990:26), itzulpen juridikoa oro har, itzulpen zientifiko eta teknikoaren multzoan sartu ohi da. Halaz ere, dio, testu juridikoen itzulpena, alde batetik tekniko bada, bestetik kulturala da: guztiz lotuta baitago herrialde batetik bestera desberdinak diren instituzioei; zientifiko da, metodo zurruna exijitzen duelako, eta badu dimentsio sozial garrantzitsua, etengabe gizarteari egokitzen ibili behar duelako, erantzun dinamikoak emanez.

Zuzenbidearen dimentsio kultural hori —III. kapituluko 3.2. puntuan landu duguna— da itzulpengintza juridikoaren berezitasunik azpimarragarriena, autore gehienek iritziak. Ideia horrekin bat datoz adibidez, Greenstein (1997:25) esaten duenean hizkera juridikoak estatu edo sistema juridiko bakoitzari hertsiki lotutako kontzeptuak darabiltzala, eta batzuetan ez dagoela baliokiderik xedeherrialdean, eta Santamaría (1997:84-85) zeinak baitio itzulpen juridikoan baliokidetasuna lortu ahal izateko, beharrezkoa dela antzekotasuna izatea tartean dauden hizkuntzen kulturen artean, eta herrialde desberdinen erakunde juridikoen artean.

Badira, alderdi kultural hori azpimarratuz, itzulpen juridikoa poesiarenarekin (Hickey, 1996:127) parekatzen dutenak, zientifikotasuna edo teknikotasuna errotik ukatuaz, eta baita itzulpen mota horren fidagarritasun eskasaz mintzo direnak (Brasermann, 1993:5).

Juristen artean bada testu juridikoen eta horien itzulpenaren garrantzi berezia azpimarratuaz, teknikotasuna eta zientifikotasuna goraiatzeko joera nabarmena, beste aditu batzuek zalantzan jarri dutena<sup>11</sup>.

### 2.1.3.- Itzulpen juridikoaren berezitasun nagusia. Sistema juridikoak eta hizkuntzak

Tautologia dirudien arren, esan dezagun itzulpen juridikoa, mezu juridikoei dagokien itzulpena dela, eta idatzizkoa den bezainbatean, testu

---

<sup>11</sup>Zalantza horien adibidetzat har daiteke Koutsivisena (1990:226) ironiaz dioenean baietz, oso garrantzitsua izan daitekeela epai baten itzulpena bertan kondenatua denarentzat, baina botika baten erabilpen-arauek itzulpenak ez duela garrantzia txikiagorik gaixoarentzat.

juridikoei dagokiena (Abdel Hadi<sup>12</sup>, 1992:43). Testuaren edukia izango da, hortaz, itzulpenaren izaera juridikoa ebazterakoan kontuan hartuko duguna.

Hirugarren kapituluko 3.2.2.1. puntuan zuzenbide-hizkeraren berezitasunak aztertzen ditugularik, hizkera hori sistema juridiko bakoitzarekiko lotura dela-eta, unibertsaltasunik gabekoa dela azaldu dugu. Beste hizkera berezi batzuekiko desberdintasun horrek<sup>13</sup> ondorio ugari dauzka testu juridikoen itzulpenari ekiterakoan.

Horren arabera, esate baterako, informatikako eskuliburu bat ingelesetik txinerara itzultzeak, hainbat hizkuntz arazo sor diezaiokete itzultzaileari, baina, hala makinen osagarriak nola funtzioak, nola eragiketa bakoitzaren ondorioak berberak izango dira, ingelesez, txineraz edo braillez adierazi.

Aldiz, lege ingeles bat txinerara itzuli behar bada<sup>14</sup>, gizarte txinarrean, bertako errealitate juridikoan eta kulturaren inolako baliokiderik ez duten adigai eta balore abstraktuak eta erakunde konkretuak txineraz adierazi beharko dira, bertako erreferente nolabait antzekoak direnetan oinarrituaz. Kasu horretan arazoak ez dira soilik linguistikoak izango (Sarcevic, 1992:303), nahiz eta hizkuntz baliabideez konpondu beharko diren.

Zuzenbidearen berezitasun horrek ondorio ugari dakartza hizkuntza bat historia eta sistema juridiko jakin bati lotuta dagoenean: erabat edo neurri batean, hizkuntza "nagusi" edo "normal" guztiei gertatzen zaiena, eta zuzenbidearen adierazpen idatzia izan ez direnei, berriz, falta zaiena.

#### 2.1.4.- Itzulpen juridikoaren kasuak eta motak.

Ondoko lerroetan, labur bada ere, saiatuko gara aurkezten nolako kasuak gertatzen diren, zuzenbidearen berezitasun hori dela eta, itzulpengintza

---

<sup>12</sup>“Une traduction juridique est celle qui porte sur un texte juridique. (...) Le texte juridique peut être défini comme étant celui qui entraîne la création de droits ou d'obligations (...) a) textes juridiques par nature. actes législatifs, actes réglementaires, traités internationaux, jurisprudence + le contrat. b) textes juridiques par destination.” (Abdel Hadi Maher, 1992:43-55)

<sup>13</sup>Izan ere, hainbat zientziak bere buruari buruz diotena sinetsiz gero (eta neurri batean sinesgarria da), haiek erabiltzen dituzten adigaiak, hots, testuetan adierazitako erreferenteak, unibertsalak dirateke, hau da, berdinak eta berak mundu osoan zehar. Hots, testu zientifiko batek dioena, hizkuntza batean edo bestean adierazi, gauza bera izango da. Ondorioz, haien itzulgarritasunak arazo linguistikoekin "soilik" egingo luke topo.

<sup>14</sup>Oso argigarria da Derek Roebuck-ek (1986) Hong-Kong-eko esperientziaz dioena eta L J Cooray-ek (1985) kontatzen duena Sri Lanka-ko estatu independentean zuzenbide ingelesa sinhalara eta tamilerara itzultzeko izandako zailtasunez.

juridikoan. Gainbegirada honen xedea, gure corpusaren kasua, dagozkion baldintzak eta gainerakoak zehaztu ahal izatea da.

Ondoko kasu hauek bereiziko ditugu:

- **Hizkuntza bakarra bi sistema juridiko desberdinetan**
- **Bi hizkuntza eta bi sistema juridiko desberdin, eta horren barruan,**
  - Sistema juridiko bakarra bi hizkuntzatan edo anitzetan
  - Kasu konplexuak. Kanadako.

#### 2.1.4.1.- Hizkuntza bakarra, bi sistema juridiko

Gainerako arloetako testu pragmatikoen itzulpengintzan ia ezezaguna den generoa dago (Abdel Hadi, 1992:44), itzulpengintza juridikoan: hizkuntza (eta estandar) beraren barruan sistema juridiko desberdinetako testuen artean egin beharreko itzulpena. Egia da, ohikoa ez dela testu osoak aldatu beharra, bertako zenbait termino baizik (Lind, 1994:824)<sup>15</sup>, beraz, ez geundeke itzulpen-mota desberdin batean, baizik eta itzulpengintzaren kasu edo zailtasun berezi baten aurrean.

Esate baterako, hizkuntza beraren barruan, frantsesez, '*Conseil d'État*' bezalako termino batek, Suitzako Genevako kantoian gobernu-organo bat izendatzen du, eta Frantzia, aldiz, auzitegi administratibo bat. Eta hizkuntzatik aterata, haren kide linguistikoa den '*Consejo de Estado*' terminoak, oso gauza desberdina adierazten du Espainian. Hortaz, frantsesezko '*Conseil d'État*' terminoa ez da soilik arazo izango espainiaratu behar duen itzultzailearentzat gaztelaniazko terminoaren 'adiskide izuna' delako, baizik dagokion sistema juridikoaren araberako esanahia duelako. Itzultzaileak, sistema politiko-juridiko zehatz batean kokatu beharko du terminoaren edukiaz behar bezala jabetzeko. Horrelako adibideak aurki ditzakegu hizkuntza partekatzen duten sistema juridiko desberdinetikako testuen artean, Québec-en esate baterako (Pesant, Thibault, 1995:359)<sup>16</sup>.

#### 2.1.4.2.- Bi hizkuntza eta bi ordenamendu

Itzulpen mota hau da gure inguruko hizkuntza handien artean maizenik gertatzen dena. Itzulpeneko hizkuntza-pareak espainiera, frantsesa, ingelesa, italiera edo alemana bezalakoekin osatzen direlarik, gehienetan, Espainiako,

<sup>15</sup> "Even in countries where the legal traditions and the language are the same, like England and Australia, we find considerable dissimilarities also in respect of the terminology and the legal interpretation of apparently identical concepts." (Lind, 1994:824)

<sup>16</sup> "La même dénomination de société anonyme sert à désigner deux notions distinctes en droit québécois et en droit français." (Pesant et Thibault, 1995: 359)

Frantziako, Erresuma Batuko, Italiako edo Alemaniako zuzenbideak dira hizkuntza bakoitzeko testuetan islatzen direnak.

Itzulpen mota honetarako egin ohi dira hiztegi juridiko elebidun erabilienak. Zenbaitetan, hitzaurrean<sup>17</sup>, hiztegi-gileek oharrarazten dute hizkuntza batean eta bestean garraiatutako adigai juridikoen erabateko baliokidetzaren ezaz; beste batzuetan, berriz, oharririk gabe, erabiltzaile adituak hautematen du unitate lexikorik gabe, parafrasien bidez ematen direla baliokidetzak.

Bi hizkuntza eta bi sistema juridiko jokoan direla egiten diren itzulpenen artan, bi tipologia proposatu ohi dira: familia bereko sistema juridikoak direnean (esate baterako, Frantziakoa, Espainiakoa, Alemaniakoa), eta familia desberdinekoak direnean. Mendebaleko munduan, familia desberdintzat eman ohi dira zuzenbide anglosaxoia (edo *Common Law*) alde batetik, eta zuzenbide erromatarrean oinarritutako sistema zibilistak, zeinaren paradigma Frantziakoa baita.

Edozein modutan, familia berekoak edo ahaidetasunik gabekoak izan, sistema juridikoak beti dira desberdinak, eta beti izango dira kontuan hartzekoak Greensteinek (1997:26) edo Bossini & Glessonek (1998: Introducción) diotena, alegia, sorburu-testuaren herrialdeko eta xede-testuaren herrialdeko sistema juridiko eta judizialen funtzionamenduak ondo ulertu behar direla, hots, itzulpen juridikoa beti dela zuzenbide konparatuko ariketa bat<sup>18</sup>.

#### 2.1.4.3.- Zuzenbide bakarra bi edo anitz hizkuntzatan

Komunitate politiko beraren barruko elebitasun edo eleaniztasun juridikoa oso fenomeno zaharra da historian. Horrek esan nahi du testu berak, adigai berberak, bi hizkuntzatan edo anitzetan, aspaldidanik eman izan direla; horretarako bidea, orain arte<sup>19</sup>, beti, testuetako bat jatorrizkoa eta bestea edo besteak, itzulpen bidez sortzea izan da.

<sup>17</sup>Amoros, Merlin, 1993, Dictionnaire Juridique/ Diccionario Juridico Navarre Français /Espagnol, Espagnol/ Français; Bossini, Glesson, 1998, Diccionario bilingüe de terminología jurídica Inglés-Español/ Español -Inglés. Bilingual dictionary of legal terms English-Spanish / Spanish-English.

<sup>18</sup> Izan ere, hiztegi juridiko batzuk, esate baterako Franchis, 1984, *Dizionario Giuridico// Law Dictionary Inglese-Italiano / English-Italian*, adigai juridiko ingelesak italianoz (eta alderantziz) azaldu nahirik, zuzenbide konparatuko tratatuak bilakatu dira.

<sup>19</sup> Gure ustez, Kanadako hainbat erakundetan (Parlamentu Federalean, New Brunswickekoan, eta beste askotan) gaurko egunean lortzen ari den 'korredakzioa', alegia, lege-testuak hasiera-hasieratik hizkuntza banako teknikari elebidunez osatutako talde batean ekoiztea (Covacs, 1979:105; 1982:92), (Didier 1990:294), bi testuek jatorrizkotasun berbera izan dezaten ez da lehenago posible ere izan; hortaz, behartuta gaude suposatzeraz itzulpena izan dela testu juridiko elebidunak ekoizteko bide bakarra.

Eleaniztasun juridikoan aurkitzen dugun kasuistika guztiz zabal eta konplexuan gure inguruko bi kasu nagusi besterik ez dugu deskribatuko ondoko lerroetan.

- **Europako Batasunaren kasua: zuzenbide bat, hizkuntza anitz**

Jakina denez, Europako Komunitatea(k) edo gaurko Europako Batasuna zuzenbidea ekoizten duen mota berriko izakia da. Estatuaren gainetik dagoelarik, barnean dituen estatuak ia erabat gordetzen dituzte euren hizkuntz eskubideak eta zuzenbideak, baina Europako hainbat arau zuzenean aplikatzen da estatu bakoitzean, bertako hizkuntzan emana.

Hortaz, eleaniztasun juridikoaren mota berri bat sortu da Europan: une honetan 11 hizkuntzatan argitaratzen da zuzenbide europarra. Zuzenbidearen ikuspegitik Europako arauen bertsio guztiek balio berbera baldin badute (Brackeniens: 1991) eta berdintasun hori hauts ez dadin neurri juridiko sofistikuak asmatu badira ere, errealitate linguistikoa besterik da. Egia da, ezein bertsiori ez zaiola ezagutzen lehentasunik edo jatorrizkotasun hoberik, baina hizkuntzari dagokionez, bertsioetako bat izan ohi da jatorrizkoa, eta gainerako guztiak haren itzulpen<sup>20</sup>.

- **Estatu bat eta bi hizkuntza edo gehiago**

Beste kasua, askoz hedatuagoa eta zaharragoa da estatu baten barruan, lurralde osoan (Belgika, Suitza) edo zati batean (Espainiako zenbait autonomia erkidegotan) bi hizkuntza edo gehiago ofizialak izendatu, eta zuzenbidearen hizkuntza direnean. Hau da, noski, gure kasua.

Kanadako legegintzan (ikus beherago) hedatuz doan korredakzioa, —hau da, itzulpenik gabeko elebitasuna— hedatzen ez den bitartean, horrelako egoeretan, itzulpen-arazo hutsa izango litzateke teorikoki. Hizkuntza batean adierazitako mezuak eta adigaiak beste hizkuntzaren baliabideen bidez adieraztea, alegia.

Hala ere, kasu desberdinak ehunka dira, eta ez da hau horrelakoen deskribapenetan sartzeko unea. Azpimarratu nahi genuke, hala ere, arazoak aski desberdinak direla hizkuntza batek baduenean kultura juridiko idatzi propioa (Kataluniaren kasua), eta ez daukanean edo oso urria denean (euskara). Azken kasu honetan, besteak beste, itzultzaileak bere bizkar hartu beharko baitu terminologoaren eta hizkera-sortzailearen eginkizuna.

---

<sup>20</sup> Gai hauei buruz dagoen bibliografia ugariaren artean ikus bereziki: Bauer-Bernet (1983), (1989); Brackeniens (1991); Braselmann (1993); Dyrberg & Tournay (1990); Goffin (1990); Gonzalez Navarro (1986); eta Koutsivis (1991).

#### 2.1.4.4.- Kanadako kasu konplexuen irakaspenak

Zuzenbideen eta hizkuntzen artean ibili beharra, munduko hamaika lurraldetan gertatzen da, zalantzarik gabe, eta kasuistika amaigabea litzateke. Baina Kanadak eskaintzen digu gai horiei buruzko hala praktikarik nola teorizaziorik joriena. Izan ere, bertan aurkitu dira frantsesa eta ingelesa, munduko bi hizkuntza landuenetakoak, eta bi familia juridiko desberdinetako bi zuzenbide-mota zabalduenetakoak. Gizarte aberats eta demokratikoa izanik, sortu diren auzi juridiko eta arazo linguistikoak arreta guztiz bereziaz landu dira. Québec eta Kanada osoa, munduko laboratoriorio bilakatu dira elebitasun arazoetarako, eta guri dagokigunez, zuzenbide-bitasunari eta itzulpengintza juridikoari buruzko literatura ugari eta kalitatezkoaren ekoizle.

Jakina denez, Kanadan, (proportzio berezietan Québecen) bi hizkuntza, frantsesa eta ingelesa, eta bi jatorri desberdinetako sistema juridiko —*Common Law* eta *Droit Civil* deituko ditugunak— aurkitu dira aurrez aurre historian zehar, auziz beteriko bilakabidean. Europan gertatzen diren estatu baten barruko eleaniztasun juridikoaren kasuei buruzko diferentzia nagusia da Europan ez dela inon gertatzen bi kultura juridiko garatu hain desberdinak gaurko estatu eleaniztun<sup>21</sup> batean topatzea.

Egia esan, itzulpen juridikoa, eta horren inguruko kezkek ez dira berriak ez Kanada osoan ez Québec-en, baina arazo praktikoko zein teorikoek dimentsio berria (Gémar, 1982:126-127)<sup>22</sup> hartu dute bereziki, Québec-eko gehiengo linguistikoa bere eskubideak oso-osoan betetzeko bidea urratzen hasi zenetik.

Horrela, Kanada osoan, eta bereziki Québecen, hizkera eta itzulpen juridikoari buruzko ikerlanak izugarri ugartzen dira 1970-1980 urteetan<sup>23</sup>. Gure

<sup>21</sup> Erresuma Batuan, esate baterako, aniztasun juridikoa dago, eta Eskoziako zuzenbidea neurri batean gertuago legoke Europako zuzenbide kontinentaletik, baina aspaldidanik ingeles hutsez egiten denez, itzulpen-arazorik ez da gertatzen.

<sup>22</sup>“*Dans de telles conditions, la traduction est appelée à jouer un rôle très différent selon le contexte dans lequel est pratiquée: unilinguisme, bilinguisme ou plurilinguisme. En situation d'unilinguisme la traduction n'exerce plus guère d'impact sur la langue d'arrivée....*” “*Si un groupe linguistique donné a imposé une situation de bilinguisme par la force, la violence ou simplement par le caractère de supériorité qui auréole une langue de civilisation véhiculaire para rapport à un dialecte local, d'emblée infériorisé, la traduction sera à sens unique LANGUE DE CIVILISATION > DIALECTE et, à la longue, peut devenir intolérable. (...) Dans les deux cas, la traduction est essentiellement un acte unilatéral de communication dans le sens DOMINANT > DOMINÉ plutôt qu'une ressource intellectuelle ou esthétique, aussi la qualité de la langue d'arrivée s'en ressentira-t-elle.*” (Gémar, 1982 126-127)

artean ezagunena elebakartasunaren bidea hartu zuen Québec-eko esperientzia bada ere, beste anitz egoera gertatu eta landu dira hala Estatu federalean, nola New Brunswick, Ontario, eta Manitoba probintzietan. Elebitasun-egoera oso desberdinetan, denek argitaratzen baitituzte lege guztien ingelesezko bertsioekin batera frantsesezkoa ere.

Québec-eko eta Kanada osoko eskarmentuaren eta ikerkuntzaren ekarpen interesgarria da (Didier:1991), (Abdel Hadi:1992) teorikoki bereiztea ‘*traduction*’ eta ‘*transposition juridique*’-ren artean. Lehena [itzulpena], sistema juridiko baten barruan mezu juridiko bat hizkuntza batetik bestera aldatzeko eragiketa izango da, eta bigarrena [transposizio juridikoa], berriz, hizkuntza batean eta sistema juridiko batean jaulkitako mezu juridikoa beste hizkuntza batera eta beste sistema juridiko batera aldatzekoa.

Itzulpen-teknika hoberenak erabilia ere ezinbestean sortzen diren hizkuntz morrontzaren arazoak ekiditeko, Kanadan landutako ‘korredakzioa’ (supra V.2.1.4.3. oin-oharra) da etorkizun handieneko lanabesa.

Beste aldetik, oso irakaspen interesgarria iruditzen zaigu Didier-ek 1990eko *Langues et langages du droit* liburuan azaltzen duena. Hain zuzen ere, itzulpenez edo ‘korredakzioz’ sortutako testu juridikoen hizkerak ikertzearen ondorio bezala, dio, gaurko egunean Kanadan, (eta Québecen), bi hizkuntza baina lau hizkera juridiko erabiltzen dira: ohiko frantses juridikoa, *Droit Civil* delakoa frantsesez adierazteko, ohiko ingeles juridikoa *Common Law* ingelesez idazteko, eta gainera, jatorriz *Common Law*-ekoak diren testuak frantsesez emateko “sortu” den ‘*Common Law en français*’ (CLEF) hizkera berezia, eta *Droit Civil*-eko testuak ingelesez emateko eratu den *Droit Civil en anglais* (DCA), frantsesezko izendapenean, izeneko hizkera.

Zuzen-zuzenean, hango ereduak ez badira hemen aplikatzekoak, dudarik gabe Kanada osotik orain arte baino irakaspen gehiago jaso beharko lirateke, bai teoriari dagokionez, eta baita praktikari dagokionez ere.

---

<sup>23</sup>Jadanik 1970ko hamarraldian oso lan interesgarriak argitaratu ziren. Ezagunenak aipatzearen, gogora dezagun 1979an *Meta* (Montrealgo Unibertsitatea) aldizkariaren ale berezia (Gémar et al.:1979), *La traduction juridique* izenekoa, handik hiru urtera argitaraturiko *Langage du droit et traduction. Essais de jurilinguistique*, (Gémar: 1982). Ondorengo ikerkuntza eta argitalpenetan, *Metaz* gainera, aipagarriak dira Montréal eta Laval-eko unibertsitate frankofonoak, Mac Gill, Québec-eko baina anglofonoak, Moncton Unibertsitatea, New Brunswick-eko baina frankofonoak, Otawakoa, eta *Conseil de la langue française*, *Office de la langue française*, *Bureau fédéral des traductions* erakundeak.



## 2.1.5.- Baliokidetzaren testu juridikoetan

### 2.1.5.1.- Zer den baliokidetzaren itzulpengintzan

Aurrerago eman dugun Catforden definizioan, eta horretan autore asko bat datoz, baliokidetzaren itzulpengintzaren gune-guneko elementua da.

Izan ere, baliokidetzaren traduktologiaren adigai oinarritzak eta eztabaidatuena da. Lehen konstatazioa da oso esanahi desberdinak ematen dizkietela adigai horri eskola batzuetako eta besteetako autoreek. Edonola ere, gaurko egunean inork ez du erabateko baliokidetzaz hitz egiten: bi hizkuntza desberdinetako testuak ez baitira inoiz identikoak izango. Baliokidetzaren totalaren bilaketa guztiz bazterturiko xedea da itzulpengintzan. Catfordekin batera, denek aipatzen dute baliokidetzaren erlatibotasuna.

Bestalde, Mendiguren Bereziarturekin (1992:134) gogoratu behar dugu itzulpen-baliokidetzaren ez dela nahastu behar hizkuntzalaritza kontrastiboan lantzen diren baliokidetzekin. Itzulpengintza, testu konkretuei dagokie, *hizketa (parole)* mailako gertakaria da, beraz, ez *hizkuntza (langue)* mailakoa., edo Catforden (1965:27) hitzez:

*“A textual translation equivalent is any form ( text or portion of text) which is observed to be the equivalent of a SL form text or portion of text).*

Esan bezala, baliokidetzaren oso gai jorratua da traduktologian; autore batzuek ezer argitzen ez duela-eta adigai hori arbuiatzen duten bitartean, beste batzuek itzulpen-teoria osoak eratu dituzte baliokidetzaren ardatz harturik. Horrela, Komissarov-ek (Mendiguren Bereziartu, 1992:25-340) baliokidetzaren mailetan oinarriturik eraiki du bai beste itzulpen-teorien kritika eta baita teoria orokor oso bat ere.

Baina ez da gure helburua itzulpen-teoria aritzea, eta bai gure tesian itzulpenaz eta baliokidetzaz egiten dugun erabilera mugatuarentzat oinarriak finkatzea. Hortaz, gure ustez, arlo honetako ekarpen interesgarrienak egiten dituzten Catfordek, Koller-ek, Zierer-ek eta Newmanek esaten dutenari so egingo diogu.

Esate baterako, kontuan hartuko dugu Koller-ek (1977) dioena<sup>24</sup> (Mendiguren Bereziartu, 1992:135) baliokidetzaren markoei eta baldintzei buruz. Bost harreman-marko bereizten ditu SHko eta XHko testu jakinen artean baliokidetzaz hitz egin ahal izateko: 1) hizkuntzaz kanpoko errealitatea (baliokidetzaren denotatiboa); 2) berbakuntza-motaren bitartez testuan transmititzen diren konnotazioak (baliokidetzaren konnotatiboa); 3) erabilera-arauak (baliokidetzaren

<sup>24</sup> Erreferentziak Mendiguren Bereziartu-tik, (1992:134) hartu ditugu

estilistikoa); 4) itzulpena zuzentzen zaion hartzailea (baliokidetza pragmatikoa), eta, 5) SHko testuaren berezitasun formal-estetikoak (eremu estetiko-artistikozko baliokidetza).

Marko horietako bakoitzean, baliokidetzaz hitz egin ahal izateko baldintza da sorburu-hizkuntzako testuaren X nolakotasunak gorde behar izatea xede hizkuntzako testuan.

Baliokidetza denotatiboa da gure intereseko markoa. Koller-en arabera,

*“Printzipioz baliokidetza denotatiboa lortzeko alde batera utz daitezke beste zirkunstantzia batzuetan kontuan hartu beharreko alderdiak, hala nola: irakurgarritasuna eta ulergarritasuna, hartzailearekiko harremana, testuaren balio konnotatiboa eta formalak”*

Ernesto Zierer-en ekarpenetan interesgarri deritzogu baliokidetza-mailez dioenari. Traduktologo perutarrak (1979:43) dio hiru mailatan atzeman daitekeela itzulpen-baliokidetza: lexiko mailan, perpaus mailan eta perpausaz gaindiko mailan. Lexiko-mailako baliokidetzak esan nahiko luke sorburu-testuko eta xede-testuko hitzen artean erabateko baliokidetasuna dagoela. Hori gehienetan ezinezkoa denez, perpausak baliokideak ote diren azter daiteke, eta horretarako zailtasunen aurrean, perpausaz gaindiko baliokidetasuna bila daiteke. Testu paraleloen konparaziorako kontuan hartzeko puntua da baliokidetza zein mailatan gertatzen den.

Argigarria deritzogu baliokidetzaren izaeraz Newmanek (1993:4694-4700) idatzitakoari. Hiru itzulpen-mota nagusi bereizten ditu *“Literal-Interlinear, Literary-Poetic, eta Referential”*. Hirugarren horren prototipotzat instrukzio-eskuliburuak eta idazki zientifiko-teknikoak ematen baditu ere, gure ustez, legetestuei dagokien itzulpena mota horretan sartu beharreko litzateke. Dioenez, itzulpen-mota horretan baliokidetza maila semantikoan bilatu behar da, baina izan daitezke zenbait alderdi grafiko ere, zeren gertatzen da bi hizkuntzetako informazioak inprenta-euskarri bera edukitzea, edo espazio-dimentsio beretan kokatu behar izatea. Hain zuzen ere, aldizkari ofizialetako lege-testu elebidunei gertatzen zaiena.

Baliokidetzak non gertatzen diren atzematuko Catfordek (1965:28) trukatzearen (*conmutation*) testa proposatzen du. Proba horren ondorioz: SHko testuaren zati jakin batean aldakuntzaren bat eragin, eta orduan bakarrik aldatzen denean XHko testuaren zatia, esan ahal izango dugu baliokidetza testuala dela.

#### 2.1.5.2.- Baliokidetza juridikoaren bila: hitzez hitzeko itzulpena, eta teknika horren kritikak

Idatzizko itzulpen juridikoaren praktika historikoari begiraturik badirudi, beti ez bada ere, garai askotan eta lurralde eta kultura desberdin askotan

konstante bat aurkitzen dugula: testu juridikoen itzulpenean xede testua sorburu testuaren ispiluko irudia bezalakoa izan ohi da. (Gémar-ek, 1982:273), dioenez, ez da inoiz arrazoi juridikorik izan anglofonoen ohitura linguistikoak imotatzeko, baina ia beti, jatorrizko testuaren hitzen eta formaren begiruneak eragin izan du xede testuak ahalik eta hurbilenetik jarraitu nahi izatea lehenari, hots, erabateko baliokidetasuna, hizkuntz baliabideetan ere, bilatzea.

Gure ustez, horrelako zerbait da euskal testu juridiko historikoetan aurkitzen duguna. Horixe da, esate baterako Rica Esnaolak (1975:84-87) Frantziako Iraultza garaiko testu juridiko-politikoaren euskal itzulpena aztertutakoan ateratzen duen ondorioa, eta ondorio bera aterako luke, dudarik gabe XIX. mendean egin ziren udal ordenantza gehienek itzulpenen azterketatik. Badira, noski, besterik erakusten duten testuak, esate baterako, Zabaletak (1985:53-72) 1888ko Usurbilgo ordenantzen itzulpenaren azterketan ondorioztatzen duena, eta gehiegi erratzeko beldurrik gabe, gure corpusaren zatia den *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoaren* itzultzaileek hartu zuten jokabidea. Baina oro har, euskal itzulpengintza juridikoak erakusten diguna da hitzez hitzekoa izan nahiko lukeen jokabidea.

Nazioarteko esperientziak erakusten duena bide beretik doa: Québecen, esate baterako, Gémar-ek (1982:127-130) dioenez, elebitasuna ezarri zen garaietan, legeak eta gainerako testu juridikoak ingelesetik itzultzen zirelarik, hitzez hitzeko itzulpengintza muturreraino eramaten zen (Sparer, 1983:101), hizkuntza frantsesak bere nortasuna galtzera arte. Beharrik gabeko maileguak, kalkoak, eta frantses hizkera juridikoari erabat arrotz zitzaizkion esamoldeak (Reed, 1979:99), ziren itzulpengintzaren ondorio. Itzulpenaren pisua arintzeko (gogora, esate baterako korredakzioaz esandakoa) hamaika bide urratzeaz gain, itzulpengintza juridikoaren kasuak eta baldintzak ikertzeari ekin zioten. Gaurko egunean, baliokidetzaren irizpidea ezertan ukatu gabe, era dinamikoan, eta beste irizpideekin batera jokatuaz erabiltzen da (Sparer: 1983).

Hala ere, ez dira falta hitzez hitzekotasuna defenditzen dutenak, lehen aipaturiko Carles Duarte kataluniarra, esate baterako. Azken urte hauetako liburu eta artikulua askotan (1985:38)<sup>25</sup>, (1995b:156)<sup>26</sup>, defenditu izan du itzulpen

<sup>25</sup>"Ara bé la traducció administrativa té com a trets definitoris, d'una banda el caràcter i l'eficàcia oficial, i de l'altra, el fonament en textos legislatius. Això comporta una exigència de fidelitat à l'original." (...) "Segurament, dins el llenguatge administratiu caldrà cercar un equilibri entre la necessitat de mantenir una fidelitat absoluta al contingut de l'original i una certa adaptació, que no en comporti una reestructuració total, de l'estil de l'original à les normes estilístiques de la llengua receptora." (Duarte, 1985:39)

juridiko administratiboan itzulpen literalari eutsi behar zaiola, familia bereko hizkuntzen artean, bederen. Ideia horren formulaziorik garbienetakoa dugu, agian, Eusko Legebiltzarrak 1989an antolaturiko mintegi batean (Duarte, 1989:192) zioelarik:

*"La traducción de textos jurídicos, por razones de seguridad jurídica, debe basarse entre lenguas afines en el método de traducción literal y entre lenguas de distinto grupo lingüístico en el principio de respeto absoluto al sentido original."*

Familia desberdinen arteko itzulpena jokoan delarik bere arau hori egokitu behar dela aitortu izan badu ere, Duarteren ideien oihartzuna ez dugu uste ahazteko modukoa denik.

Ondoren, euskal lege-testuen itzulpengintzaz aritzen garenean zehazkiago azalduko dugunez, hitzez hitzeko itzulpenaren beharrak izan ditu aldezleak gure artean; interesgarrienak, Josu Oregi eta Pedro Alvarez Mingo. Autore gehienek, berriz, zurruntasun horretatik ihes egiten dute, batzuek baliokidetzeta bera zalantzan jarriaz, eta beste batzuek, adigai horrentzako beste interpretazioak eskainiaz.

Espanian, esate baterako Santamariak (1997:82) oso zalantzan jartzen ditu traduktologian hain erabiliak diren baliokidetzaren eta fideltasunaren adigaiak. Baliokidetzeta semantikoaren orde, funtzio-baliokidetzeta proposatzen du. Esate baterako, dio, erosketa-kontratu baten itzulpenean ziurtatu behar dena da geroko balizko interpretazioan bi hizkuntzetako testuek izan dezaketan baliokidetasuna, ez testuen antza.

Funtzio-baliokidetasuna, testuen ondorio juridikoen berdintasun gisa ulertzea, da autore askok (Sparer, 1988:235)<sup>27</sup> (Pigeon , 82:273)<sup>28</sup> proposatzen dutena.

Beste autore batzuek, esate baterako Koutsivisek (1990:227) uste dute itzultzaile juridikoak oso itzulpen hertsia eta lotua egin behar duela termino

---

<sup>26</sup> "Així, doncs, en la traducció jurídica es tendeix a evitar l'adopció en el text d'arribada de solucions que s'allunyin de les aplicades dins del text de pertença, llevat que el respecte als criteris general de'estil de la llengua d'arribada o la precisió i la seguretat de la comunicació així ho exigeixin". (Duarte, 1995b:156)

<sup>27</sup> "Le but que poursuit le législateur bilingue n'est pas de reproduire d'un langue à l'autre un morphosyntaxe ou une sémantique figées, mais il est avant tout de reproduire les effets de droit, c'est-à-dire, les conséquences juridiques du texte de départ." "(...) Il existe des bornes à ne pas dépasser dans la liberté qu'on prend avec les formes, mais ces bornes peuvent être repoussées plus loin qu'on ne le pense." (Sparer, 1988:325)

<sup>28</sup> "(...) le rôle du traducteur juridique, la loi, le contrat ou le jugement qu'il traduit doit avoir aussi précisément que possible la même portée dans la version du traucteur que le texte original".(Pigeon, 1982:273)

juridikoei dagokienez<sup>29</sup> baina terminologikoak ez diren beste alderdiei buruz, modu sortzailean jokatu behar duela. Antzeko bidea urratzen du Abdel Hadik (1992:52)<sup>30</sup> esaten duenean sorburu-testuan erabilitako terminoek beti ere hertsiki lotzen dutela itzultzailea.

Gure corpusari dagokionez, eduki eta esanahiaren aldetiko baliokidetzak testu-mailan eta baita paragrafo-mailan ere badagoen suposamendutik abiatzen gara. Hain zuzen ere, beheragoko mailetan ere, termino-mailaraino, baliokidetzak aurkitzea espero baitugu.

## 2.2.- Euskal Herriko lege-testuen itzulpengintzaz

### 2.2.1.- Zuzenbide bat bi hizkuntzatan

Jadanik III. kapituluuan ikusia dugunez, euskal herrietan izan den zuzenbide propioak ez du ia batere aztarnarik utzi hizkuntzan (Urrutia, 1991c:29, Urrutia, 1994b:1284). Egun, gure ustez, ezin daiteke esan euskarak garraiatzen duenik kultura juridiko berezirik.

Beste aldetik, corpuseko legeria, sistema juridiko espainiarraren barruan, haren adigaiak eta instituzioak erabiliaz sortua da. Gogoratu beharrik ez dago corpuseko araugintzaren oinarrian, 1931ko eta 1978ko Espainiako Konstituzioak daudelarik, Espainiako zuzenbide adigaiak eta instituzioak direla legeria horren funtsa kontzeptual eta lexikoa.

Aurreko baieztapenaren salbuespen izan gabe, neurri batean hura leuntzera edo egokitzen eraman gaitzake zuzenbide zibil propioa arautzen duten legeak daudela kontuan hartzeak. Horrela izanagatik ere, zuzenbide zibilak ez du askorik elikatzen gure corpusa; izan ere, lehen testua bete-betean zuzenbide zibilekoa dena 6/1988, martxoaren 18ko lege guztiz laburra da, eta ondoren, 02/1993 Legea, 1993ko uztailaren 1ekoa, Foru Zuzenbide Zibilaria buruzkoa. Egia da, lege hori aberatsa dela (Urrutia, 1991c:10) familia eta oinordekotzari buruzko terminologiaren aldetik batez ere, eta bertan euskal izen berezietatik izendatzen direla Bizkaiko zuzenbideko erakunde berezi batzuk, erdarazko beste izendapenik ez dutenak gainera.

---

<sup>29</sup>“*En ce qui concerne les termes, élément aussi capital dans toute traduction technique, ils doivent être parfaitement parallèles en langue-source et langue-ci. Le terme traduit, doit, au delà d'un sens fondamental, (avoir) la totalité des qualités terminologiques du terme original.*” (Koutsivis, 1990:227)

<sup>30</sup> “*En effet, la traduction juridique laisse très peu de marge à l'imagination du traducteur. Celui-ci doit rester strictement lié par les termes employés dans le texte de départ*” (Abdel Hadi, 1992:52).

Lege horrek eta hitz horiek duten garrantzia ezertan gutxiets gabe, esan dezakegu ez dela nahikoa gure aurreko bi asertzioak zalantzan jartzeko.

Ondorioz, esan daiteke, itzulpen juridikoa den aldetik, kasu (teorikoki) bakunenean gaudela: zuzenbide bakar bat bi hizkuntzetan adierazi behar da, eta hizkuntza horiek ez dira bi *kultura juridiko desberdinen* garraiatzaile.

### 2.2.2.- Itzulpenaz idatzi dena

- **Euskadi'ko Agintaritzaren Egunerokoarenaz**

Ez dugu ezagutzen garai hartako idazkirik ez oharrik ere, itzulpenari buruz. Ditugun informazio urriak, Jesus Maria de Leizaolak, artean *Zuzentza eta Jakintza Zaingoaren burukide*, eta idazten duenean erbesteko Euzko Jaurlaritzako lehendakariak, ematen dizkigu 1977ko urriaren 31an *Euzkadi'ko agintaritzaren Egunerokoaren* fac-similezko argitalpenari egindako “Irakurleei / A los lectores”, hitzaurre laburrean (supra IV. kapitulua, 3.1.2.4).

Bertan, itzultzaileei buruzko datu batzuk ematen dizkigu, esanaz, bera<sup>31</sup> Tolosako epaile zen Jesus Azkue, eta beste bi tolosar izan ziren euskaratzaileak. Loberak (1995:29) gogoratzen duenez, aski ezaguna da horietako bata Jesus Insausti "Uzturre" eta bestea Fausto Leunda izan zirela<sup>32</sup>.

Salbuespen batzuekin, nahiko homogenea da itzulpen-lana. Sinesgarria da, beraz, oso esku gutxi (beharbada, Leizaolak dioena eta besterik ez) ibili zirela langintza horretan.

Itzulpen-lanari buruzko iruzkin xume batzuk ere eskaintzen ditu. Alde batetik kontatzen du idazle bizkaitar ezagun bati hots egin ziola “*itzultzalle-nagusi*” bezala lan egiteko baina “*legetzak dituan itz bereziyak bereziegiak izanik eta zeatz-zeatzeko lana bear zalakoan*” ezezkoa eman ziola. Ondoren, 'Agintaritza', 'Oroagindua', 'Zaingoa' eta 'Epailletza Argibidelaria' terminoak horrela emateko irizpideak azaltzen ditu.

Ohar xume horiek argi adierazten dute kezkek alderdi terminologikoan zutela gunea, eta euskal tradizioan bilatu nahi zirela —garaiko kultura politikoaren irizpide linguistikoaren barruan, noski— adigai juridiko berrientzako euskal ordainak.

<sup>31</sup> “*Nik neronek euskeraz osatu nituan lenengo eta bigarrengo Egunerokoak*” (Leizaola, 1977:3).

<sup>32</sup> Hori, eta ez beste, bide da garai hartan eta Bilbaon argitaratutako aldizkari bat gipuzkeraz izateko arrazoia; Loberak zehazten duenez, bizkaieraz doazen 8 testuren salbuespenarekin.

Tesi honetan egingo dugun *EAgEko* legeen eta oroaginduen terminoen azterketan, erabilitako hizkuntz baliabideez zerbait gehiago argitzen saiatuko gara.

Itzulpenaren beste alderdiei buruzko idazkirik ez dugu ezagutzen, eta begi-bistakoa dena idaztera mugatuko gara. Horrela, nabarmena da euskal testua, itzulpena, erdarazko jatorrizkoa baino laburragoa dela. Eskarmentuak erakusten digunez, itzulpenetan euskara zerbait laburragoa gertatzea normala bada ere, testu horietan dagoen aldea gaurko egunean ohikoa dena baino handiagoa da. Itzulpengintzarako irizpideen aplikazioak zer ikusi handia du, dudarik gabe, emaitza horretan.

Itzultzaileak nabarmenki urruntzen dira garai haietan EAJ-PNVren inguruan erabiltzen zen euskara garbizale gogorretik. Beste aldetik, hitzez hitzeko itzulpenik gabe, badago hizkera juridikoaren formulismoetatik ihes egin eta itzultzaileek daukaten "herri-hizkeraren" eredura hurbiltzeko saioa. Esate baterako, esaldiak laburrak dira, askotan, idatziak baino areago ahoz esandakoak diruditela; inolako gupidarik gabe aldentzen dira erdal testuko esaldi luze-kateatuetatik<sup>33</sup>.

- **Eusko Kontseilu Nagusiaren Aldizkari Ofizialekoarenaz**

Izenburu horrekin argitaratutakoari buruz ez dugu aurkitu Sarriegik (1985:16-17) artikulua batean eskaintzen dion orri bat baizik.

Lehen alean argitaratu zen dekretuan irakur daitekeenez, EKNk, 1978ko martxoaren seian erabaki zuen Euskaltzaindiari eskatzea aurkez zitzan itzultzaile bat edo batzuk, Kontseiluak haien artean izenda zezan *EKNAOren* itzultzaile ofiziala, itzultzaileen *ganbara* zuzenduko baitzuen.

Sarriegik dioenez, ia bi urte iraun zuen aldizkari horren itzulpengintzan esku bat baino gehiago nabari dira; hasieratik 1980ko otsailaren leko alera arte, oro har, itzulpen-teknikaren eta euskara-ereduaren aldetik batasuna dagoela esan daiteke, baina harrezkero, irizpide berriak, terminologiaren aldaketak eta oro har, euskara-eredua ere aldatu ikusten du Sarriegik.

*EKNAO*ko itzulpengintzan erabilitako irizpideei buruz esan daitekeena da aurreko garaikoetatik zeharo urruntzen direla. Izan ere euskararen garaiak ere oso ezberdinak ziren.

Euskarak, garai horretan literatura politikoan (eta oro har gizarte modernoari dagozkion gaiak erabiltzen direnean) ageri diren ezaugarriak erakusten ditu: euskara batua da, ortografiari eta morfologiari dagokionez

---

<sup>33</sup> 34 Adibide gisa ikus daiteke beherago, 5 ataleko 1, puntuan, datorren (2) adibidea.

Euskaltzaindiak emandako arauak betetzen dira. Lexikoari dagokionez, 1936-37ko testuetan baina askoz mailegu gehiago erabiltzen da; sintaxiari buruz, XX. mendean zehar Hegoaldeko testuetatik ia desagertutako forma "klasikoak" ('zein'-ekin eraturako erlatiboak, eta abar) berreskuratzen dira, maiz modu esperimentalean.

Sarriegiren hitzetan, (1985:17) “Aldizkari Ofizialaren itzulpena egiterakoan ordura arteko kulturgintzan hedatuena zen ereduak markatzen zuen bidea jarraitu zuten (...).

Itzulpenari buruz, begi-bistakoa da askoz ere lotuagoa dela aurreko garaikoa baino: bi bertsioen neurriak ia berdinak dira orri guztietan; erdarazko terminoaren parean, mailegatutako baliokidea topa daiteke maiz.

Amaierako bizpahiru aleak kenduz gero, esan daiteke ez dagoela 1936ko testuen eraginik, ez lexikorik, ez estilistikorik, ez itzulpen-metodologiari dagokionik.

- **Eukal Herriko Agintaritzaren Adizkarikoarenaz**

Urte askotan zabalpen handiena zuten testu juridikoak izan arren, eta ahozko hamaika iruzkin eta eztabaidaren gai izan ziren arren, oso idazki gutxi aurkitu dugu Agintaritzaren Aldizkariaren testugintzaz eta itzulpengintzaz ari denik. Zehatzenak, lehen urteei dagozkie, ikusiko dugun bezala.

Argitaratutako lehenak, dakigunez, *Euskara eta administrazioari buruzko I. Ihardunaldiak* (HAEE/ IVAP:1984) izenburuko liburuan, plazaratutako hiru artikulu dira. Horietarik bi *EHA*Aren itzulpengintzan zuzenean esku hartutako Josu Oregik eta Pedro Alvarezek idatziak dira, eta hirugarrena, Xabier Mendiguren traduktologoarena. Hirurak interes berezikotzat jo ditugunez, bertako gogoetak iruzkinduko ditugu ondoren.

Itzulpen teknikaz den bezainbatean, Josu Oregik jokabidea deskribatu eta irizpideak azaltzen ditu bere artikuluan. Hitz tekniko edo terminoei dagokienez, orri luzeetan zehar azaltzen du ez hitza, baizik hitzaren esanahia delarik garrantzitsuena, esanahi hori dela euskaraz eman behar dena, euskaraz ulertzeko moduan. Ondorioz, hainbat adibideren bidez, maileguetara jotzeko ohitura neurrigabea salatzen du<sup>34</sup> eta oro har, maileguzko hitzetara jotzea arbuiatu gabe, euskararen morfologiak eskaintzen dituen ahalbide guztiak erabiltzearen aldeko agertzen da.

Baina ezusteko moduan planteatzen du *EHA*Aren itzulpengintzan arazo testualei emandako irtenbidea. Hona Oregiren hitzak:

<sup>34</sup> Adibide bezala dio, erdarazko *credito* hitzak dituen bi esanahiak, euskaraz *mailegu* eta *diru-izendapen* eman daitezkeela, erdal *parlamento* euskaraz *legebiltzarra* izan behar duela.



*"Joskeraren aldetikako korapiloez: " Elertiaren alorrean korapilo hori nola askatu ohi den ba dakigu: Lerroaldiak moztuz, zatituz eta euskal senera egokituz. Agintaritzaren alorrean, ordea, aterapide hori ezinezkoa gertatzen zaigu, horrek esaldiaren haria eten eta batabestearekiko atxekitasuna eta menpetasuna hautsi egingo bait-lituzke, zehaztasunaren kaltetan" (Oregi Aranburu, 1984:106)*

Gainera, haren ustez, arazo horrek ez du beste irtenbiderik baldintzak daudenean dauden bitartean. Itzulpen izateak hori dakar nahitaez:

*"Arazo horrentzako aterapidea zera litzateke: Agindu hoiek euskaraz idatzi eta gaztelaniara itzultzea, edo, gutxien-gutxienez, horien arduraren dutenek, arazoaz jabetu, eta bere esaldiak laburtzen edo menpe-esaldiak gutxitzen ahalegintzea. (Oregi Aranburu, 1984:106)*

Hitzez hitzekotasun hertsia definitzen ez bada ere, lotura formal eta estilistiko zurruna da Oregik begiesten duena, eta urte luzeetan zeharreko itzulpenetan, jatorrizko eta xedeko testuen egiturak alderatzen badira, egiazta daitekeena.

Idea bertsuak, baina oraingoan hitzez-hitzekotasuna esplizituki aipatuaz, defendatzen ditu Pedro Alvarez Mingok, haren lankidea izan zenak EHAko itzulpen lanetan. Honela dio:

*"Oinarri horietatik hitzez-hitzezko itzulpena dugu lehenbizikoa, eta honen beharra Konstituzioaren eta Estatutoaren 3.2 eta 6.1 atalek, hurrenez hurren erakusten digute. "(...) lege-idazkerak ezin daitezke adierazi hitzez-hitzezko itzulpenaren bidez baino." "(...) "Hitzez-hitzezko itzulpena, hizkuntza zehatza lortzeko bide denez, arauzko itxuraren baliokidetzaren nahiz edukiarena kontutan hartu beharko dugu, baliokidetzaren horretan nahiko eragin badute joskerak nahiz lexikoak (...). (Alvarez Mingo, 1984:139, 164)*

Oregiren eta Alvarez Mingoren irizpide horiek testuen arteko baliokidetzaren lortzeko teknika bezala formulatzen badira, interesgarria da kontuan hartzea zer esaten duten aldizkari ofizialeko itzulpenaren beste alderdiei buruz, alegia, testu horien funtzioari eta hartzaileari buruz bereziki, zeren haien ondotik inork ez dio zuzenean heldu itzulpen-prozesu horiek orokorrean deskribatzeari, eta alderdi partzial batzuei buruzko irizpideak besterik ez baitira kaleratu.

Horrela, Alvarez Mingoren ustez, horrelako itzulpen-teknikak erabiltzea, testuen izaera juridikoaren ezinbesteko ondorio izateaz gainera, euskaraz sortu beharreko hizkera juridikoaren ezaugarria izango litzateke, baina ez du beste argitasunik ematen itzulpen horien funtzioaz.

*"Edonola ere, argi eta garbi utzi nahi izango genuke, hizkera hori ez dela gaztelaniaren berariazkotasun bat, lege-gizonaren beharrezko baliapidea baizik. Eta euskerak ez dio inola ere baliapide hori ukatu behar" (Alvarez Mingo, 1984:146)*

Gai hori gehiago lantzen du Josu Oregik aitortzen duelarik:

*“ (...) gure lana gaurregun eta bertatik bertarako ondorioei bagagozkio ia alperrikako denaz jabetuta gaude; gerora begira ari gara beraz, gure agintariek bere manuak euskaraz eman ahal ditzateneko bidearen zegunak jartzen”.*(Oregi Aranburu, 1984:97)

Aurrekoarekiko kontraesana badirudi, berak egindako galderari (1984:97): *”Zeinentzat egiten da itzulpena? Zein da begiz jotzen dugun irakurlea?”* ematen dion erantzunean, ez dago etorkizuneko izakia baizik: *“Inolako zalantzarik gabe irakurle euskalduna noski, euskeraz dakiena”*, eta aurrerago (1984:101) zehazten du nolakoa izan behar duen euskaldun horrek: *“Gaia ezagutzen duen edo ezagutzeko gauza den euskaldun batek bigarren aldiz irakurri eta euskaldun denez uler dezan itzulpena ematea”*. Aurrerago dioenez, honelako ezaugarriak beharko ditu *'arduralaritz-auskerak'*: euskara izatea, zehatza izatea eta ulertteraza izatea.

Argitalpen berean, eta gai zabalago batez ari dela, administrazio-itzulpenaz, alegia, Mendiguren Bereziartuk (1984:126) itzultzaileen kezka bere egiten du esanaz zalantzak daudela<sup>35</sup> garaiko itzultzaileen lanak ezertarako balio ote duen, baina planteatzen dituen zalantzaren bi alderdiek:—*“lekukotasun-balio hutsa”*, eta *“pixkanaka eragin soziala izatea”*— adierazten dute une horretan testu horiek balio komunikatibo normalik ez dutela. Batean, balio sinbolikoa, eta bestean etorkizuneko balioa, baitira aukerak.

Hurrengo urtean, 1985an, *Agintaritz-aaldizkarietatikako hitz-bilduma/Vocabulario de los Boletines Oficiales*. (Arabako Diputazioa: 1985) kaleratzen da. Egile-izenik gabeko *Aurkezpen* laburrean aipatu ditugun Josu Oregiren hainbat ideia agertzen dira, batzuetan hitz berberetan emanak. Talde baten izenean mintzo den aurkezpen-egileak honela marrazten du bere langintzaren markoa:

*“Talde hori giro berezi-berezi baten ekin behar izan zitzaion bere lanari, hutsetik abiatuta esateko eta aurrean zituzten adierazgai berriak euskaraz eman beharrean”*.

Ondoren, ISO-ren 37. Teknika Batzordearen arauari jarraiki, adierazgai berriak euskaraz emateko erabilitako baliabideak azaltzen ditu 1984ko artikuluan egiten zen modu bertsuan.

<sup>35</sup>*“Gaurregun itzultzaileak zalantzak dituzte beren euskal itzulpenen zertarakoaz. Inorentzat, baliorik gabeko eta froga operatibo gabeko itzulpengintzan ari gara, beraz, lekukotasun balio hutsa duen zerbaitetan ala pixkanaka eragin soziala izan eta gainerako hizkuntz-adierazpenekin solidarioa den euskaragintzan?”* (Mendiguren Bereziartu, 1984:126)

Urte berean, 1985ean, argitaratu zen Uzeiko *Zuzenbidea Hiztegia*. Bertan, Hitzaurre Orokorrean: (1985:25)<sup>36</sup> esana dugun bezala, EHAren euskara-eredua aipatzen da, bertako terminologia arbuiaitzeko hiztegiaren iturritzat.

Hortik aurrera ez dugu beste lanik ezagutzen EHAren itzulpengintza gaitzat hartzen duenik. Baina aurreko kapituluuan euskara juridiko-administratiboaz eta haren inguruko eztabaidez esandakoa<sup>37</sup> dudarik gabe aldizkari ofizialetako euskara-ereduari dagokio. Itzulpen-teknikak, edo baliokidetza, ordea, ez dira eztabaidaren gai izan.

Puntu hau amaitzeko, aipa dezagun aldizkari ofizialean erabili beharreko euskarari buruz ezagutzen dugun arau juridiko bakarra: Lehendakaritza sailak 1993an argitaratutako *Lege egitasmoak, dekretuak, aginduak eta erabakiak lantzeko jokabideak*, izenekoa, zeinean besteak beste, hainbat hizkuntza-alderdi, bereziki lexikoak, arautzen diren. Halaz eta guztiz ere, ez dakigu zenbateraino bete zen praktikan.

### 3.- ZERGATIK TERMINOAK, ZERGATIK ABIATU EST-tik, ZERGATIK AUKERATU EST HORIEK?

#### 3.1.- Terminoak ala hizkera?

Hizkera berezi baten azterketa ez da ahitzen haren terminologian, eta zalantzarik gabe, ikerkuntza osoagoa izango litzateke testuen beste alderdiak ere aztertuko lituzkeena. Baina hiztegi espezializatua izanik gaiaz berezitako hizkera baten ezaugarriak objektiboena eta garrantzitsuena, hortik hasteari iritzi diogu komenigarriena.

Gainera, euskarazko hizkera juridikoa gauza berria eta eratze-bidean doana izaki, ez dugu uste hitz egin daitekeenik estilo edo fraseologia juridikoaz, gaztelaniaz edo frantsesez dagoenaren antzera. Izan ere, euskaraz ez dira garatu, gaztelaniazko hizkera juridiko-administratiboan bezala, gramatika-baliabide batzuen erabilera bereziak, batzuetan arkaismoak<sup>38</sup> eta besteetan, hizkera

<sup>36</sup> "Aldizkari horren [Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria] "eredua ez, bestelakoa gaurko gizartean nagusitu dela esateko datu ugari dauzkagu. (...) Hori, ereduari dagokionez. Aipaturiko Aldizkari horretan erabiltzen den hiztegiari dagokionez, berriz, beste hau esan daiteke: Horko hiztegia ez dago sistematikoki eta organikoki eratu eta erabilia; Zuzenbidean derrigor berezi beharreko kategoriak eta kontzeptuak nahasian ematen dira." (UZEI, 1985: 25)

<sup>37</sup> Gogora, esate baterako: Lamarka, (1989:132); Berasategi, (1989:40); Agirre, (1989:25)

<sup>38</sup> Gaztelaniazko subjuntiboko etorkizun-aldia, esate baterako, testu juridikoetan bakarrik erabiltzen da gaur.

horretara mugatutako berrikuntzak direnak. Ezin esan daiteke, gure ustez, euskal hizkera juridikoak ezaugarri propioak dituenik terminologiatik at.

### 3.2.- Zuzenbideko euskal terminologia hein handi batean itzulpen bidez moldatu da

Laugarren kapituluan ondorioztatzen genuenez, zenbakiak eta ehunekoak egin ez baditugu ere, begi-bistakoa da mendez mendeko euskal testu juridikoei begiraturaz gero, genero aski zehatz batzuk (hala nola administrazio-gutunak) kenduta, ia gainerako guztiak erdaretiko itzulpenak direla. Kasu gehienetan, gainera, jatorrizko gaztelaniazkoa edo frantsesezkoa ezagutzen dugu.

Gure corpusak hartzen dituen hiru garaietan gauzak ez dira bestelakoak. Izan ere, 1936-37 urteetan, testu juridiko nagusiak *EAgAkoak* izaki, itzuliak dira; 1978-80 bitartean administrazioan euskarak daukan tratamendu berriak, eduki juridikoko testuak izugarri ugaltzea ekarri zuen, baina gure informazioaren arabera, euskarazkoak beti edo ia beti ziren erdarazkoen itzulpen. *EHA*Ak irauten duen denboraldi luzean gauzak aldatuz joan dira: ziurtasunez esan badaiteke lehen urteetan itzulpena arau eta testu sortua salbuespen zirela, urteak joan ahala, gero eta testu gehiago ondu dira zuzenean euskaraz. Halaz eta guztiz ere, corpusaren azken aldian, 1997ko maiatzean, testu-bilketak erakusten duenez, itzulpenak nagusi dirau euskaraz sorturiko testuaren aurrean.

Aurrekoa, testuei badagokie, terminologiari ere berdin aplikatu dakiokelakoan gaude. Egoera ideal batean itzultzailearen eta terminologoaren egitekoek ongi bereizirik egon beharko balute ere, gurean, testu juridikoen itzultzaileek euren lepoen (Berasategi, 1989:37) gainean hartu izan dute askotan terminologia sortzeko langintza.

Horixe da, bestalde, hala Leizaolak nola Oregik adierazten dutena aldizkari ofizialen itzulpen-lanari buruz.

Are gehiago, lan terminografikoak gauzatu direnean ere, itzulpena izan da oinarritzko baliabidea. UZEIren Zuzenbide Hiztegiaren lehen liburukia euskara hutsezkoa bada ere, jakina da artikulu nagusi gehienak, denak ez esateagatik, gaztelaniaz idatzi eta gero euskaratuak direla, eta bigarren edo hirugarren mailakoekin ere gauza bertsua gertatu zen kasu askotan. Testu osoa itzulita ez zegoenean ere, erabilitako terminologia baliokidetzaren bilaketaren prozesu baten ondorioz lortutakoa zen, ezinbestean. Hortik kanpora, dakigunez, ez da beste lan terminografikorik elebiduna ez denik<sup>39</sup>.

<sup>39</sup>Hiztegietan euskara-erdara atalari lehentasuna emateak, jarrera eta borondate baten adierazgarritzat hartu behar dira, ez lanketa-metodologiaren islatzat.

Kontuan izanda aurreko lerroetan deskribatu dugun errealitatea, uste dugu, euskarazko testu juridikoen ezaugarri nagusietakoa dela bere jatorria itzulpenean edukitzea, eta, hortaz, guztiz egokia dela testu itzuliak erabiltzea oraingo hizkera eta terminologia juridikoaren deskribapena egin nahi bada.

### 3.3.- ES terminologia finkatuta eta jasota dago; euskarazkoa ez.

Hirugarren kapituluan eta, bereziki haren 6. puntuan ikusten genuen terminologia juridikoaren adigaia ezin zitekeela uler terminologia zientifiko-teknikoen ezaugarri eta baldintzekin. Baina, benetan dagoen terminografia juridikoak erakusten duen sistematizazio-eskasiarekin eta erlatibotasunarekin bada ere, zilegi da esatea gaztelaniaz badagoela terminologia juridiko normalizatua, eta terminologia hori finkatutzat eman daitekeela.

Espainierazko terminologia hori bilduta dago, metodologia desberdinekin, maiz termino ez diren beste unitateekin nahastuta bada ere, hiztegi juridiko elebakar eta elebidunetan.

Euskal terminologia juridikoa, berriz, gure corpusaren denbora luzean zehar finkatzeke dago<sup>40</sup>. Hain zuzen ere finkatzeko urratsak corpusaren garaikideak dira, eta azken urteetan soilik ari dira emaitzak lortzen.

### 3.4.- Testu-pareez baliatzea terminoen baliokideak bilatzeko

Ditugun gaztelania/euskara testu-pareetan, itzulpena den bezainbatean jatorrizkotasuna erdarazkoari dagokio, bai hastapeneko testuak (lege-proiektuak) erdarazkoak direlako, eta baita Eusko Legebiltzarrean egindako zuzenketak, erdal testuaren gainean egin izan direlako ere. Lege Biltzarreko eztabaidetan noizean behin euskarazko jardunak izan badira ere, guk dakigularik, inoiz ez da oinarrizko testu nagusi gisa euskarazkoa baliatu.

Hortik abiatuaz, gure hipotesia da, erdarazko sarrera gisa aukeratu ditugunak benetako kontzeptuen izendapenak badira, eta itzulpenak baliokidetza nahikoa erdiesten badu, espainierazko termino bakoitzak (EST)<sup>41</sup> ukan beharko duela euskarazko testuan zerbait baliokide dena. Zerbait hori, Euskal Segmentu Baliokide (EUSB) izendatu dugu.

---

<sup>40</sup> Puntu honi dagokionez, aho batez mintzatu dira gaira hurbildu diren guztiak: beste pasarteetan aipatu ditugunez gainera, Agote, 1993:229; Astola, 1990:181; Barambones eta Gonzalez, 1993:77; Lizundia, 1982:166 eta beste asko.

<sup>41</sup> Guk asmatutako laburdura-sigla hauek (EST, EUSB) izen arrunt gisa deklinatuko ditugu, (ESTaren, EUSBetan...), 'BEZ', 'CD', eta beste batzuekin egiten den bezala.

Izan ere, tesi honen helburuetako bat denez gaztelaniaz (eta beste erdarez) forma terminologikoa duten kontzeptuen izendapenak euskaraz zein forma duten aztertzea, ezin ginen abiatu euskarazko “terminoetatik”, ez baitakigu zein diren.

Proba-saio batzuk egin genituen metodo honi buru-belarri ekin baino lehen, zeren ez baikenekien gure hipotesi hori zenbateraino betetzen zen. Saio haiek ziurtatu ziguten metodoa bideragarria zela, ia beti aurkitzen baitzen identifikatzeko eta bakartzeko moduko hitz-multzoa, EUSBa, ESTaren baliokide zena. Horrek ez du esan nahi baliokidetza hori zehatza denik, ez eta segmentu baliokide horren mugak taxutzea beti erraza izan denik, aurrerago azalduko dugun bezala.

## 4.- AUKERATUTAKO ES TERMINOAK. IRIZPIDEAK ETA EZAUGARRIAK

### 4.1.- ES terminoen zerrenda osatzeko irizpideak

Helburuak ezarritako irizpideak dira banan bana terminoak izatea, eta termino juridikoak izatea, eta multzoan harturik zuzenbide-hizkera osoaren nolabaiteko “ordezkaritasuna” izatea, hau da, oro har zuzenbideko adar guztietako hitz tekniko orokorrenak agertzea.

Baina aukeraturiko corpusak, erakunde autonomoari dagokion araugintza-ahalmenen arabera izanik, zuzenbidearen adar batzuen eta besteen presentzia desberdina dauka. Esate baterako, zuzenbide penaleko eskua oso osorik estatu zentralarena delarik, ez dago gai horretako legerik corpusean, nahiz eta, hala penaleko nola beste adar guztietako adigaiak agertu, baina proportzio txikiagoan. Hori guztia kontuan izanda, adarren arteko proportzioak orekatu behar izan ditugu terminoen zerrenda osatzerakoan.

#### 4.1.1.- Terminoak izatea, eta juridikoak izatea

Bigarren eta hirugarren kapituluetan landutako bi adigai horiek hartuko ditugu kontuan. Gogoratu beharrik ez dugu terminoen eta ez-terminoen arteko lerro zehatza marraztea ezinezkoa dela oro har, eta gehiago zuzenbidean, autoreek diotenez, eta hiztegi juridikoen behaketatik ondorioztatzen genuenez. Horretaz, terminoak aukeratu nahi izan ditugu, hau da, adigai juridikoen izendapenak, definizio baten gai izan daitezkeenak, eta ahal den neurrian, definitzen den adigaiaren izendapen finkatuak direnak. Hori horrela, baztertu egin ditugu hiztegi juridikoetan hain maiz aurkitzen diren esapideak, fraseologia,

latinezko aforismoak eta gainerakoak. Zalantzarik gabe, horien euskal baliokideak aztertzeak ere badu interesa, baina hizkera juridikoaren elementu ezinbestekoak aztertzea aukeratu dugu.

Hirugarren kapituluko 4.2.1. puntuan proposatutako sailkapenaren arabera, gure corpuseko testuek, arau juridikoak direnez, “berezkoa” dute juridikotasuna. Baina testuari horrelako tasuna ezagutzeak ez du esan nahi bertako hitz guztiak termino juridikoak direnik (Cornu, 1990a:IX), ez eta ere, termino-itxura duten guztiak zentzu juridikoan erabilia daudenik. Hortaz, nahikoa ez denez testua juridikoa izatea, termino izan daitekeen bakoitzaren agerpen bakoitzean baieztatu beharko da erabilera zehatz horretan zer den. Horretarako, geroago esango denaren kalterik gabe, testuingurua beharrezkoa izango zaigu. Termino izan daitekeen bakoitzarekin batera testuingurua ematen digun hustuketa-teknika erabili beharko dugu.

#### 4.1.2.- Zuzenbidearen ikuspegi orokorra emateko modukoak

Ikerketa-lan honetan gaitzat zuzenbide-hizkera hartu dugunez, zuzenbidea bere osotasunean hartu nahi dugu eremu gisa, ahal delarik zuzenbidearen arlo batari edo besteari eskusibotasuna edo nagusitasuna eman gabe.

Hortaz, lehenetasuna izango dute zuzenbideko adigai nagusi-orokorrenak izendatzen dituzten terminoek, eta horiekin batera, zuzenbideko adar nagusietako adigaien izendapenak. Horretarako, saiatuko gara zuzenbidearen adarrek (supra, III. 4.2.4.) ordezkaritza orekatua izan dezaten<sup>42</sup> eta adar bakoitzeko termino errepresentatiboak, hau da, izenburuak osatuko lituzketenak, jasotzen.

Legeetan zuzenbideko adar guztietako adigaiak eta hitzak aurki daitezke, teorikoki bederen, baina zuzenbidekoak diren hitz asko eta asko ez dira legeetan agertzen. Hortaz, saiatu gara baztertzen zuzenbideko arlo edo eragile berezien erabilerakoak soilik diren hitzak, esate baterako epaietako hizkerakoak edo notarioen mundukoak.

Orobat, zuzenbide-jakintzako termino bereziak, oso garrantzitsuak eta (testu teorikoetan) erabiliak izan arren, halako izaera teorikoa edo izenburu-balioa duten hainbat eta hainbat termino saihesten saiatu gara. Bereizkuntza hori egiten duen hiztegi juridikorik ezgautzen ez dugunez, intuizioz jokatu behar izan dugu gure zerrendetan lekurik ez emateko testu akademiko edo doktrinaletan bakarrik irakurri ohi ditugun terminoei, esate baterako, ondoko adibidekoei:

---

<sup>42</sup>Terminoak adarka sailkatuta aurkezten dituzten hiztegien arabera.

(1)

contratos reglamentados	obligaciones negativas
eficacia de los reglamentos	inderogabilidad singular
derecho internacional privado convencional	actos de comparación
discrecionalidad administrativa	

Bestalde, terminoen zerrenda osatzerakoan erakunde, kargu eta arauen izenak, (EKA-terminoak) sartu behar zirela erabaki dugu. Aurreko kapituluan azaltzen saiatu garen bezala benetako termino juridikoak izanik ez dago haiek baztertzeko arrazoirik, eta interesgarri iruditu zaizkigu, ezaugarri nabarmen bat erakusten dutelako: beste terminoak baino luzeagoak izaten dira. Horiek aukeratzekoan, gainerako terminoekin erabilitako irizpide berak aplikatzen saiatu gara.

#### 4.2.- Termino juridikoen zerrendaren iturriak

Behin baino gehiagotan esan dugu espainierazko zuzenbide-hitzak eta terminoak landuta eta bilduta aurki daitezkeela berezitasuneko hiztegietan. III. kapituluko 6. atalean hainbat hiztegi juridiko aztertu eta konparatu ditugunez, gure zerrendarako osagaiak haietan bilatzea izan da gure lehen erabakia. Hiztegi horien artean sarreren "terminotasunaz" garantia gehien eskaintzen diguna aukeratzekoan, gure zerrendaren iturriak.

Espainierazko hiztegi elebakarren artean hautatua, Ribó i Durán-en *Diccionario Jurídico*-ren 1995ko argitalpena izan da, aipatu III kapituluko 6.ataleko 2.1. puntuan ikus daitezkeen konparazio-koadroan (7. taula) ikus daitezkeen ondoko ezaugarri hauengatik:

- Sarrera guztiak definizioz horniturik daudenez, definizio horietan egiazta daiteke zenbateraino dagokion sarrera benetako termino juridiko bati.
- Esapiderik, aforismorik, eta beste antzeko fraseologi elementurik gabe, sarrera gehien-gehienak izen-sintagma egiturako terminoak dira.
- Hiztegiaren gorputz nagusiaren aurretik badu zerrenda bat, zuzenbidearen adarka antolatua, zeinetan adigai bakoitzaren inguruko "termino-sarea" osatzen dutenak irakur daitezkeen. Zerrenda horren egitura aski terminologikoa iruditu zaigu.

Hiztegiaren aukera eginik, 2.500 sarrera hautatu ditugu, aurrerago deskribaturiko irizpideak aplikatuaz: orokorrenak lehendabizi, eta adar guztietarik modu orekatuan, ondoren.

Zerrenda horren baliagarritasuna egiaztatzeko, ondoren deskribatuko dugun aplikazio informatikoaren bidez, corpusaren erreproa orokorra egin dugu.



2500 termino horietatik 987 corpusean agertzen ez zirela egiaztaturik, beste iturriak ustiatzera jo dugu.

Iturri horiek, hustu beharreko corpusa osatzen duten *EAgEko* eta *EKNAOko* testuak izan dira, haien hustuketa egina baitzegoen ordurako, aurrerago azalduko dugun bezala.

Hustuketa horietatik terminoak aukeratzekoan, irizpide terminologiko bertsuetan oinarriturik, *Ribó* hiztegitikoen antzekoak hartu ditugu. Gaiaren aldetik gauza bat azaldu da nabarmen zerrenda berriotan: zuzenbide politikoak eta administratiboak beste adarretakoak baino ordezkari ugariagoa dute.

Azkenean hustuketarako erabili dugun zerrendan, 1.811 termino daude, horietatik 1. 513 *Ribó* hiztegitikoak dira, 178 *EAgEren* hustuketatik hartuak eta beste 120 *EKNAOn* agertzen zirenak.

#### 4.3.- Espainierazko terminoen nolakotasunak hizkuntzaren aldetik. Hitz-kopuruak eta egiturak.

Ondoko tauletan ESTen ezaugarri batzuk aztertu nahi ditugu. Bi irizpideren arabera multzokatu ditugu: termino bakoitzaren hitz-kopurua alde batetik, eta egitura, bestetik.

Hona, lehenik, nola banatzen diren espainierazko terminoak hitz kopuruaren arabera:

Zenbat hitz	Kop.	%
Hitz bat	313	17
2 hitz	729	40
3 hitz	458	26
4 hitz	196	11
5 hitz	80	6
6 hitz	26	1,4
7 hitz	9	0,4
Guztira	1811	100

**4. taula: Terminoen hitz-kopurua**

Luzeraz den bezainbatean, zerrendako termino gehienak laburrak dira: bi hitzekoak dira multzo handiena: %40. Hurren ugariena, hiru hitzekoa, laurdena baino gehiago, eta hurrena, hitz bakarrekoa: izenak gehienbat, aditz batzuk eta adjektibo gutxi batzuk.

Kontuan izan behar da ordenagailuaren arabera zenbaketa denez, bi zuriuneren arteko letra-sekuentzia guztiak direla hitz, baita sintagma barneko artikulua eta preposizioak ere.

Baina hitz-kopuru hutsak ezer gutxi erakusten digu kontuan hartzen ez badugu zein hitz-motakoak diren, eta zein egitura duten.

Ondoko taulan ikus daiteke hitz bakarrekoak, bikoak, hirukoak, eta abar, nola banatzen diren egitura desberdinetan:

Zenbat hitz	IS	Egitura xeheak	AS	Egitura xeheak	Adj
Hitz bat	266	iz	32	aditza	5
2 hitz	720	iz + adj	9	ad + obj	
3 hitz	453	iz+prep+ iz, iz+ adj + adj	5	ad+ obj	
4 hitz	196	iz+prep+ art+ iz iz+ adj+prep+iz	0		
5 hitz	80	iz+ prep + iz+ adj iz+ adj+ prep+	0		
6 hitz	26		0		
7 hitz	9		0		
<b>Guztira</b>	<b>1750</b>		<b>46</b>		<b>5</b>

5. taula:Terminoen egiturak

Egitura orokorrari dagokionez, ISak dira gehien-gehienak: 1750 / 1811, hau da, %96,6. Beste egiturak askozaz urriagoak dira: 46 sailkatu ditugu aditz-sintagma bezala. Geratzen diren beste 5ak, adjektiboak dira.

Izen-sintagma egitura dutenen artean hitz bakarreko izenak 266/1811, guztien seirena dira.; bi hitzekoetan, *iz + adj* egitura dutenak dira ugariak: 720/1811, hau da, % 40, eta hiru hitzekoetan 393/1811, guztien bostena gutxi gora behera, *iz + prep + izen* egiturakoak dira.

4 hitz baino gehiagokoak 115 dira, %6. Gainera, kontuan izan behar da horietako 43 direla EKA izenak, hau da, erreferente (erakunde, kargu, arau) bakarreko izenak. Horietan beti errepikatzen dira izenaz, adjektiboaz eta preposizioaz osaturiko egitura errekurrenteak.

Termino luzeagoetan, *iz + adj* eta *iz+ pr+ iz* egituren konbinazioak aurkitzen ditugu beti.

Bestalde, kontuan hartzekoak dira hitzen zenbaketan preposizioak eta artikulua, aski ugariak, bereziki termino luzeetan: 4 hitzekoetan (196 guztira), 190etan dago preposizio edo artikuluren bat, eta 66tan, bi.

Aditz-sintagmak hitz bakarrekoak edo bikoak dira: hitz bakarrekoak aditz hutsak eta bikoetan beti aditza eta argumentu bat, objektua, ditugu. Oso gutxi dira ASak: 46/1811, hau da, %2.

Hitz bakarrekoetan, adjektibo soilak oso gutxi dira, 5 bakarrik

Hortaz, esan daiteke, EST zerrendako termino tipikoa IS dela, hiru hitz edo gutxiagokoa, eta egitura errepikatuena, izenak eta adjektiboak osatzen duten izen-sintagma.

## 5.- LEHEN FASEA (1): HUSTUKETA TERMINOLOGIKOAREN METODOLOGIAK

Jarraitu dugun metodoaren corpus-linguistikazko eta traduktologiazko oinarriak azaldu ondoren, eta gure azterketarako egin nahi ditugun urrats orokorren zer nolakoak eta aukeratutako ESTen azalpena eman ostean, hurrengo orrietan, corpusa osatzen duten hiru atalen hustuketarako egindako urratsak, ondorengo mugatze- eta lematizatze-urratsak, eta datu-basearen xehetasunak deskribatu nahi ditugu.

### 5.1.- Hustuketa; baliokidetzaren espazioak mugatzea

Hustuketa, corpusaren erabilera bezain eragiketa orokorra eta zaharra da: modu batean edo bestean, lexikografia-lanak hustuketan oinarritzen dira. Hustuketa terminologikoak, hortaz ez du aparteko berezitasunik; defini daiteke esanez espezialitate-arloari dagozkion termino propioak corpusetik erauzteko egiten den eragiketa dela.

Eragiketa horretarako bi ekintza burutu behar dira (Cabré, 1992:284), bata terminoek testuan duten kokapena zehaztea eta terminoen mugak erabakitzea, eta bestea, termino horiek egin nahi den lanerako pertinenteak ote diren erabakitzea.

Bigarren ekintza hori, jadanik burututa dago gure metodoan, espainierazko terminoak zein diren erabakitzerakoan. Aukera hartatik abiatzen gara, beraz eta pertinentziaz ez gara arduratuko: ondorioetan balioztatu beharko dugun zerbait izango da.

Fase honetako eginkizuna, beraz, izango da hustuketa materialki egitea, beti ere ESTen itzulpen-baliokideak bilatuaz, eta euskal segmentu baliokideak modurik zehatzenean mugatzea.

Ekonomia-printzipioak agintzen du segmentu baliokide horiek atzematerakoan bilaketaren espazioa ahalik eta gehien murriztea. Ikus dezagun, bada, noraino murriz daitezkeen espazio hori gure corpuseko testuetan

Abiapuntua, esan bezala, lege bakoitzeko bi testu paraleloetan zegoen. Bi testuok, bata jatorrizkoa eta bestea itzulpena dira, biak batera argitaratuak, eta juridikoki, balio berekoak. Testu osoen balio berdina, baliokidetzatza, da gure lan guztiaren auresuposamendua.

Gainera, jakina da, lege-testuen barne-antolamendua ez dela ausazkoa edo nahierazkoa, sistematikoa eta arautua baizik: guztietan dator, izenburua, data eta gainerakoen ondotik legearen nondik norakoak azaltzen dituen zati azaltzaile bat, —*exposición de motivos/ zioen adierazpena* izenburupean gehienetan—, eta ondoren, beti *artículo/ atal, artikulu* izeneko atal zenbakituak. Zenbaitetan, ez beti, legearen azken zatian, egoten dira *artículo* izenik gabeko normalean *disposición* izenburupean beste xedapen edo erabakiak. *Artículo / atal* -kako egituraz gainera, testuak luzeagoak direnean, aurkitzen dugu artikulu multzo batek *capítulo /atalburu, kapitulua* osatzen duela, eta *capítulo-ak* bere aldetik *título / idazpuru, titulu* -tan bilduta etorri ohi direla.

Bi hizkuntzetako testuen egituraketa berdin-berdina denez, ziurtatuta zegoen printzipioz, artikulu-mailara arteko baliokidetzatza eta paralelismoa. Baina, hala ere, artikulu batzuk luzeak eta egitura konplexukoak, hots, hainbat paragrafoz osatutakoak, izaten direnez, artikuluaren azpiko zatiak ere baliokide-paralelo zirela ziurtatu behar zen.

Lagin batzuetan egindako probek baieztatu ziguten paragrafo-mailaraino aurkitzen zela erabateko baliokidetzatza: testu batek eta besteak garraiatzen duen informazioa baliokidea da paragrafoz paragrafo<sup>43</sup>. Hots, puntu eta bereiz guztiek balio bereko zatiak banatzen dituzte printzipioz. Puntu soilek, berriz, ez beti; hainbat kasutan, itzultzaileak erabakitzen baitu paragrafo baten barruko esaldiak eta puntuazioa jatorrizkoan ez bezala antolatzea.

Corpusa osatzen duten hiru ataletan, itzulpen-jokabide desberdinak daude, horrenbeste urtetan luzatzen den corpusean normala den bezala.

Denbora-tarterik handienaz bereizitako *EAgEn* suma daiteke irizpide desberdinena. Esate baterako, aldizkari hartan maiz aurkitzen dira testu-antolakera nabarmenki desberdinak erdarazko eta euskarazko bertsioetan. Adibide gisa, begira dezagun zer gertatzen den 1937ko urtarrilaren 5eko *EAgEn*, 731. orrialdean argitaraturiko ondoko oroaginduaren hasierako zatian:

---

<sup>43</sup> 'Paragrafo' hitza nazioarteko adieran erabiltzen dugu, *Euskal Hiztegia*n jasotzen den bezala: "*Prosazko testuetan, letra larriz hasi eta puntu eta bereiz batez bukatzen den atal bakoitza*"

(2)

<p>Departamento de Hacienda  <b>DECRETO</b>          Teniendo presente que las necesidades actuales exigen una perfecta compenetración y unidad de acción para la defensa de todos los intereses, y muy especialmente de los de la Banca, base fundamental de las actividades todas, y en particular de las mercantiles e industriales, el Gobierno de Euzkadí, reconociendo la asistencia y cooperación que ha encontrado en la Banca privada de Vizcaya, estima conveniente, sin perjuicio de la estructuración futura, modificar la actual constitución de los Consejos de Administración de la Banca privada en forma que permita su normal desenvolvimiento, haga más efectiva la unidad de acción y satisfaga en parte justas aspiraciones sociales.</p>	<p><i>Ogasun Zaingoa</i>  <b>OROAGINDUA</b>  <i>(1) Arretak alkar-tajutuaz eta ekintzak batuaz jarduteko garaian gera, guzcion arazoak, eta batez-ere Diru-etxeenak, aldeztu nai baditugu. (2) Diru-etxeenak batik-bat, bai: ardura guzien oñarri baitdira; gintza eta salerosketaren ardatz. (3) Euzko-Jaurlaritzak, Bizkai'ko Diru-etxeak opa dioten laguntza ezagutzen dualarik, beroien Banakaritza Batzordeak eraberritu nai eginditu. (4) Eraberritu gaurkoz, biarkoan erabateko erabakiak emateko asmoa beregan dualarik. (5) Eta au, ekintza batasuna lortzeagatik bezala, gizartearen zuzentza naiak asetzeagatik.</i></p>
--	---

Adibide horretan ikus daitekeenez, espainierazko testuan paragrafo osoan ez dago puntuz bereizitako esaldirik; are gehiago, paragrafo osoa perpaus konplexu bat da. Euskal testuan, berriz, lau puntu ortografiko gehiago sartu dira.

Horrelakoetan, egiturak guztiz desberdinak izaki, baliokidetzak ezartzeko lana zailagoa da. Baina horrelako kasuetan ere, aldizkari horretan oro har paragrafo-mailako baliokidetzari sistematikoki eusten zaio, goiko adibidean bezala.

*EKNAOn*, paragrafo-mailako baliokidetzari beti eusten zaio, eta baita, gehien-gehienetan, puntuen banaketari, hots, puntuen artean doazen testuen arteko baliokidetzari.

*EHAAn*, Oregik eta Alvarez Mingok esaten duten bezala, puntuazioa errespetatu egiten da. Puntuaz mugatutako espazio berean daude baliokideak. Zer esanik ez, paragrafoen banaketa berdina da, akatsen bat gora-behera. Ondoko (3) adibidean ikus daiteke nola gordetzen den puntutik punturako baliokidetzak, nahiz eta itzultzailearentzat —eta irakurlarentzat— lan nekeza eskatzen duen:

(3)

<p>Artículo 18.-          Los Ayuntamientos podrán autorizar la venta, en las modalidades que a continuación se relacionan en lugar fijo de la vía pública o en determinados espacios abiertos, durante más de dos días por semana, siempre que previamente y mediante la correspondiente Ordenanza municipal hayan sido regulados los requisitos a que deberá atenderse su instalación y control, los cuales deberán contemplar inexcusablemente lo previsto en los artículos 15 y 17 anteriores, así como que para la venta de los productos alimenticios se cumplan las normas exigidas en el Código Alimentario.</p>	<p><i>18garren Atala.-</i>  <i>Udalek, kaleko toki berean edo jakineko leku zabaletan astean bi egun baino gehiagotan aurrerago aipatzen diren salmenta-moduak egin daitezeneko baimena eman ahal izango dute, honako baldintza hauekin: Hoiien ezarpenerako eta zaingorako baldintzak Udala-Agintarauen bidez aurrez araupetuta egotea hoiiek, nahitaez, aurreko 15garren Atalean oharmandakoak barne daramatzatela eta, janariaren salmentarako, Elikabide-Legebilduman ezarritako bideen arauera egitea.</i></p>
--	---

Azken hamarkadako *HEAA*an itzulpen-irizpideak eta jokabideak hainbat aldiz aldatu badira ere, beti zaintzen da paragrafo-mailako baliokidetzak, eta puntuak desberdin banatzen badira, ez da hori gertatzen *EAgEn* bezain sarri, inondik ere.

Hortaz, nahiko ziurtasunez esan daiteke corpusaren hiru ataletan paragrafo-mailako baliokidetzak dagoela. Bilaketaren espazioa horrela murrizturik, paragrafo baliokide pareetako testuan *ESTak EUSBrik* ba ote duen, eta zein den zehaztu beharko dugu.

Deskribatu dugun corpora hirukoitza izanik, hiru metodologia desberdin erabili behar izan ditugu hustuketarako. Ondorengo lerroetan, hustuketa nola gauzatu den deskribatuko dugu.

## 5.2.- *EAgEren* hustuketa

Jadanik esana dugu hiru atalez, hiru aldizkariz, osatzen dela gure corpora. Ondoren, hiru atal horietako bakoitzaren neurriek eta euskarri materialek ahalbideratzen eta era berean baldintzatzen duten lan-metodologia deskribatzen saiatuko gara.

*Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoaren* hustuketarako, aldizkari horren fac-similezko berrargitalpena erabili genuen, hots, paperean inprimatutakoa, eta HAEE /IVAP-en aginduz egindako hustuketa bat<sup>44</sup> euskarri informatikoan. Bietan hustuketa bikoitza da, gaztelaniazko eta euskarazko unitatean baliokidetzak ezarriaz.

Baina HAEE/ IVAP-en hustuketaren eta guk behar genuenaren irizpideak ez zetozen bat, alde batetik, corpusaren mugak desberdinak zirelako (haienean testu guztia eta gurean legeak eta oroaginduak soilik) eta bestetik, hustuketa-irizpideak ere oso bestelakoak zirelako: egindakoan era askotako terminoak, esapideak eta gainerakoak jasotzen ziren, guk, ordea, zerrenda batekiko korrespondentzia soilik atzeman nahi genituen.

Edozelan ere, egindako hustuketaren koherentzia eta erabatekotasuna egiaztatu ondoren, hartaz baliatzeko urrats hauek egin behar izan genituen:

Lehenik eta behin, testua egokitzeko, legeak eta oroaginduak zeuzkaten orrialdeak bereizi genituen. 372 orrialdetan zeuden aipatutako motako testuak.

---

<sup>44</sup> Hustuketa horren emaitza, urte batzuk beranduago etorri zen, 1997an, argitaratutako *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa. (1936ko urritik 1937ko ekainera) Hiztegia -- Diario Oficial del País Vasco (octubre 1936 - junio 1937* izenburua duen hiztegia.

Orrialde horien erreferentzia ez zeramaten terminoak alde batera utzirik gure zerrendako terminoen, eta jasotako arteko korrespondentziak bilatu genituen. Hurrengo urrats batean, markatutakoak jaso genituen, testuinguruekin, eta iturri-datuekin batera.

Horrela jasotako elementuez, zerrenda bat antolatu genuen, lerro bakoitzeko ondoko zutabeekin:

- espainierazko terminoa
- espainierazko terminoaren testuingurua: puntutik puntura
- euskarazko testuan aukeratutako zati baliokide-gaia
- baliokide-gaiaren testuingurua
- legearen edo oroaginduaren urtea
- baliokide-gaia azaltzen den orrialdea

Aldizkari osoak orri-zenbaketa bakarra duen arren, nahiago izan genuen neurri batean erredundantea den informazioa, hots, urtea eta orrialdea (orrialdeen hurrenkerak ere adierazten baitu zein urtetakoa den) bereizirik jasotzea, corpusaren beste ataletan egin beharrekoarekin koherenteagoa izan zedin.

### 5.3.- EKNA Orena

*Eusko Kontseilu Nagusiaren Aldizkaria*, hala paperezko fotokopiatan nola mikrofilmetan eskuratu genuen, baina artean ez zegoen euskarri informatikoan.

Aldizkari honen hustuketarako urrats guztiak eskuz egin behar izan ziren. Hasteko, legeak eta dekretuak markatu ondoren, gure zerrendako terminoek testuan zeuzkaten agerpenak markatu genituen, eta orobat, pareko euskal paragrafoan haien zati baliokide-gaiak.

Ondoren, *EAgEren* irizpide berberetzat osatutako zerrendak egin genituen.

### 5.4.- EHAAREN hustuketa

Corpusaren atal honek besteak ez bezalako neurriak dituen bestelako metodologia erabiltzea eskatzen zuen hustuketa-lan fisikoa aurrera eramateko.

1994an lortu genuen Eusko Legebiltzarreko lege guztien testu elebiduna euskarri informatikoan. Hiru urte beranduago, 1997ko maiatzera arteko gainerako lege-testuak ere eskuratu genituen, hortik aurrerako legerik ez da hustu lan honetan.

Corpus-zati horren hustuketan erabilitako metodologia guk geuk asmatua denez, xehetasun gehiagorekin deskribatuko dugu ondorengo 6. puntuan.

## 6.- LEHEN FASEA (2): HEAAren HUSTUKETA AUTOMATIKOA

Esan bezala, neurri aski handiko testuen hustuketa egitea zen gure asmoa, eta testu horiek euskarri informatikoan geneuzkan. Testuok sorburukoa eta itzulpena, eta paraleloak zirenez, hustuketaren zati bat modu automatikoan egitea erabaki genuen.

Egun edozeinen esku daudenekin alderatuz gero, aski mugatuak izan dira gure baliabide informatikoak. MS DOS sistema eragilean oinarrituriko aplikazioak erabili ditugu, eta ASCII kodean idatzitako testuak. Formatoa behin baino gehiagotan aldatu behar izan denez, hainbat arazo sortu dira, batez ere gaztelaniazko testuen karaktere bereziekin.

Hustuketa honetan erabilitako *softwarea*, eragiketa hau burutzeko berariaz prestaturikoa<sup>45</sup> izan da.

### 6.1.- Lege-testuen paralelizaziorako urratsak

#### 6.1.1.-Fitxategiei izen sistematiko egokiak ematea

Eskuratutako fitxategi informatikoez bazuten izena, baina Eusko Legebiltzarraren administrazioaren beharretarako egokia bazen ere, ez guretzat. Besteak beste, kronologia interesatzen zitzaigunez, zuzenbideko praktikan lege-testuei ematen zaien identifikazio alfa-numerikoaren laburdura moduko bat ipini genien izentzat. Esate baterako, 7/1987 *Legea* denez erabiltzen den izendapena, lau zenbakiko izena: "8707" ipini genion<sup>46</sup>.

Lege bakoitzaren bi testu, gaztelaniazkoa eta euskarazkoa, landu behar genituenez, bi testuoi izen nagusi bera (lehen esandakoaren araberrakoa) jarri, eta DOS sistema eragileak baimentzen duen hiru letrako luzapena, fitxategiaren nolakotasunaren ordeztu, hizkuntza adierazteko erabili genuen *<.cas>* gaztelaniazkoari, *<.eus>* euskarazkoari, ipinita. Horrela lege bakoitzaren bi bertsioek izen nagusi bera eta luzapen desberdina izan zezaten.

#### 6.1.2.- Bi testuen paralelizazioa

Corpuseko testuen bertsio inprimatuan (argitaratutako aldizkari ofizialetan) paralelismo bisuala dago oro har: erdarazko paragrafoaren parean

<sup>45</sup> Aplikazioaren egilea UZEI-Euskaltermeko Miel Loinaz jauna izan da.

<sup>46</sup> Horretarako, zeukaten izenen hurrenkera eta guk hobetsitakoa bat ez zetozenez, fitxategi guztiak banan bana ireki, dataren zenbakiak jaso, eta izenez aldatu behar izan genituen.



aurkitzen dugu euskarazko zutabeen paragrafo baliokidea; ez beti, ordea, noizean behin erabateko paralelismoak huts egiten baitu, testuan zerrendak agertzen direnean bereziki<sup>47</sup>.

Beraz, lehenengo lana izan da bi hizkuntzetako paragrafo baliokide guztiak toki paraleloetan ipintzea, hau da, paragrafo-hurrenkera berdinean bertan bertan lortzea, halako moduan non erdarazko testuko informazio batek duen hurrenkera-zenbaki bereko euskarazko paragrafoan informazio baliokidea aurkitzen den. Horretarako, beharrezkoa izan da artxibategi-pare guztiek paragrafo-kopuru bera zutela egiaztatu ondoren, hizkuntza bakoitzeko paragrafo bakoitzak beste hizkuntzako paragrafo baliokidearen hurrenkera-zenbaki berdinean ipintzea. Kasu gehienetan, hori lortzeko, gehiegizko *itzuli* aginduak ezabatu behar izan dira banan bana.

## 6.2.- Espainierazko terminoen zerrendak prestatzea

### 6.2.1.- Lematizazioa eta bilaketarako prestakuntza

Aurretik deskribatu dugun ESTen zerrendan ohiko lematizazio-irizpideak jarraitu ditugu: izen-sintagma maskulino singularrean ipini ditugu, adjektibo soilak ere, maskulino singularrean, eta aditz-sintagmetan, infinitiboa aukeratu dugu lematizatzeko.

Horren arabera, zuzenbideko hiztegi terminologikoetan maiz aurkitzen diren sintagma pluralak, *causas de divorcio*, *leyes de Cortes* bezalakoak, singularrera ekarri ditugu: *causa de divorcio*, *ley de Cortes*. Baina pluralaren erabilerak esanahi berezi bat adierazten duenean, esate baterako familia-zuzenbidean *alimentos* hitzak hartzen duen esanahi berezia, plurala gorde dugu.

Arazorik ez dago, beraz, ESTen lematizazioan, baina hustuketa automatikoari ekiterakoan, aldaketa batzuk eragin behar izan dira. Esate baterako, bilatu nahi dugun terminoa *instruir expediente* bada, begiz irakurtzerakoan badakigu infinitiboak aditzaren forma jokatu guztiak (*instruye*, *instruyó*, *instruirá...*) ordezkatzeko dituela, baina hustuketa automatikorako, analizatzaile morfologikorik ez genuenez, hitzen forma ere prestatu behar izan zen.

---

<sup>47</sup> Gainera, testuak egituraz paraleloak izateak ez du esan nahi bertsio informatikoetan gauza bera gertatzen denik. Izan ere, itzulpen bidez lortutako testuak maiz luzera desberdinekoak izanik, inprimatzerakoan parekotasun bisuala gordetzearren, testu batean edo bestean *itzuli* (*return*) aginduak sartuaz lortzen baita espazio fisikoak berdintzea. Baina, horietako agindu bakoitzak paragrafo bat gehitzen du zenbaketa automatikoan.

Horrela, espainieraren aldaera morfologikoak kontuan hartuaz, hitz batzuen forma moztuak erabili behar izan ditugu. Honako kasu hauek dira ugariak:

**Izen-sintagma** direnetan, singular/ plural, maskulino/femenino aldaerak egon daitezkeen kasuetan hitzen forma laburtuak erabili ditugu ondoko adibidean ikus daiteken bezala<sup>48</sup>:

(4)	abogad*	adjudicatari*	concesionari*
	condenad*	inculpad*	magistrad*
	inscripci*	interposici*	

**Aditz-sintagma** direnetan, infinitiboa da forma lematizatua, baina forma moztuak erabili behar dira bilaketa automatikorako. Horrela, *deroga\** izango da *derogar*, *derogan*, *derogó*, *derogaba*, *derogar*, *derogar*, *derogar* eta beste adizki jokatuak bilatzeko erabilitakoa.

Aditz-sintagmak gutxi izateak eta aditz irregularrik ez suertatzeak lan hori erraztu du.

### 6.2.2.- Kasu berezi batzuk

Kasu batzuetan, ESTaren ezaugarri bereziak direla eta, aldatu egin behar izan da hustuketarako erabilitako karaktere-multzoa.

Esate baterako, ESTen zerrendan *embargo* hitz bakarreko terminoa agertzen da, *embargar*, *embargo por deudas de la seguridad social* eta *embargo preventivo* termino konplexuekin batera. Baina *embargo* letra-katea edozein testutan automatikoki bilaturik, *sin embargo* esapide arrunta aunitz aldiz aurkituko litzatekeenez, beste estrategia erabili behar izan dugu, eta *embargo de nahiz embargo por* unitateak erabili ditugu bilaketarako.

Baina horrelako estrategiak asmatzea aski neketsua denez, zerrenda bera osatzerakoan hainbat kasutan baztertu egin genituen hitz bakarreko hainbat termino, emaitza ugariegi eman zezaketelakoan, eta termino konplexuak landu genituen haien orde. Esate baterako, ez dago *demanda* terminoa, nahiz eta badakigun benetako termino juridikoa dela, baina badaude hitz hori bere baitan duten honako termino hauek guztiak:

<sup>48</sup>Hizkera mota honetan gaztelaniaz hain usu agertzen den ‘-ción’ bukaerak, esate baterako buruhauste handiak eman zizkigun, gure aplikazioarentzat ‘ó’ eta ‘o’ ez baitira karaktere bera.

(5)	admisibilidad de la demanda	allanarse a la demanda	contestación a la demanda
	demanda de clasificación profesional	demanda de ejecución	demanda incidental
	demanda laboral	demanda por accidente de trabajo	demanda por despido
	estimar la demanda		

Beste kasu batzuetan, berariaz, zerrenda osatzerakoan termino “sinonimoak” edo nahi bada termino beraren bi forma desberdin sartu dira, bai bilaketa errazteko, eta bai azterketan bi hizkuntzetako egituren arteko alderaketak egin ahal izateko.

Bi egitura-bikoterekin egin dugu hori :

- $iz + adj$  eta  $iz + de + iz$   
(6)  
*acción subrogatoria* eta *acción de subrogación*
- $[Nominalizazioa + de + iz]IS$  eta  $[ad + iz]AS$   
(7)  
*instrucción de expediente* eta *instruir expediente*

### 6.3.- Hustuketa automatikoa burutzea

Testu-pareak erabat paralelizaturik, fitxategiak izen korrelatiboez horniturik, eta ESTen zerrenda hustuketarako prestaturik, hustuketaren fase automatikoari ekin zaio.

Horretarako, dokumentuak hainbat direktoriotan antolatu dira, garai batzuen arabera multzokatuta eta ondoren ESTen zerrendako termino bakoitzaren agerpenak bilatu dira. Aplikazioak, bakoitzarekin egindako urrats zikliko nagusiak honako hauek izan dira:

- Direktorio bakoitzean, dokumentu-bikoteak irekitzen dira, banaka, euskarazkoa eta gaztelaniazkoa.
- Dokumentu-bikote bakoitzean paragrafoak irakurtzen dira, banaka.
- Gaztelaniazko paragrafo bakoitzean termino-zerrendako bakoitzaren bilaketa egiten da.
- Terminoren bat aurkitu denean<sup>49</sup>, honako hau jasotzen da: alde batetik, gaztelaniazko paragrafoa, bere baitan ESTa markaturik duela, eta

<sup>49</sup> Maiztasun-estatistikarik egingo ez dugunez, zerrendako termino bakoitzaren lehen hiru agerpenak soilik atera dira testu-fitxategi (beraz, lege) bakoitzeko. Murrizpen hau sartu nahi izan dugu ekonomi arrazoiengatik gehienbat, agerpen errepikatuak irakurtzeko eta ezabatzeko lana saihestearren. Suposatu dugu testu berean termino berari ez zaizkiola itzulpen desberdin asko emango, eta emaitzetan egiaztatu ahal izan dugunez, testu bakoitzean gutxitan agertzen da termino beraren itzulpen-baliokide bat baino gehiago.

paragrafoaren kokapenari buruzko informazioa (dokumentua eta paragrafo-zenbakia), eta bestetik, euskarazko paragrafo baliokidea, kokapen-informazio berarekin.

- Termino bakoitzaren hustuketaren emaitzak, terminoa bera izenburutzat dutelarik, bata bestearen jarraian ematen dira.

Hurrengo adibidean adibide-gisa ikus daiteke *derecho de tanteo* terminoaren hustuketak emandako emaitza gordinak.

(8)

===== derecho de tanteo:

#### 1. AGERPENA

En los casos de cesión, inter-vivos, de viviendas locales antes de que el socio adquiriera su plena propiedad excepto las que se realicen en favor del cónyuge y demás parientes que convivan en el domicilio familiar, la Cooperativa tendrá el <<<derecho de tanteo, hecho que será regulado obligatoriamente en los Estatutos Sociales. K=8201P OR=432

Bazkidea erabat jabe izan gabe egindako bizien arteko aldatetetan, ezkontidearen eta familiaetxean bizikide diren gainontzeko ahaideen aldekoetan salbu, Koperatibak prezio berdinean beretzakotzeko eskubidea izango du, Baltzu-Araudiak eskubide hori nahitaez araupetu behar duela. K=8201P OR=432

#### 2. AGERPENA

la regulación de los <<<derechos de tanteo y retracto supone un instrumento válido para regular ámbitos y relaciones no forzosamente civiles, que en manos de la Administración va a permitir desarrollar en plenitud la función social de la propiedad, posibilitando el acceso al disfrute de una vivienda digna y adecuada a este respecto, a las clases sociales menos privilegiadas. K=8807P OR=8

Haztatze eta atzera egite-eskubideei buruzko arauetan dugu norbanako-alorrekoez besteko alor eta harremanak ere araupetzeko legebide baliotsua. Legebide horrek, Arduralaritzak erabiliz gero, bide emango digu jabeagoaren gizarte-mailako egitekoa bete-betean burutzeko, bideak eskainiz, giza talderik ahulenek ere etxebizitza duin eta egokia lortu ahal dezaten. K=8807P OR=8

#### 3) . AGERPENA

La Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco gozará de los <<<derechos de tanteo y retracto en la primera y sucesivas transmisiones sobre las Viviendas de Protección Oficial y sus Anejos.

K=8807P OR=12

Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko Arduralaritzak, haztatze eta atzera egite-eskubideak izango ditu, Agintaritzaren Babespeko Etxebizitzan eta bere Eraskinen lehenengo jabe-aldakuntzan nahiz hurrengoetan. K=8807P OR=12

#### 4. AGERPENA

El ejercicio de los <<<derechos de tanteo y retracto, indicados en el artículo anterior, se efectuará conforme al procedimiento siguiente: K=8807P OR=15

Aurreko atalean adierazitako haztatze eta atzera egite-eskubideez baliatzea ondorengo bideari atxikiz egingo da: K=8807P OR=15

#### 5. AGERPENA

En el plazo de dos meses el órgano competente del Gobierno Vasco podrá ejercer el <<<derecho de tanteo para sí o para otras instituciones públicas o de carácter cultural sin ánimo de lucro, obligándose al pago del precio convenido. K=9007P OR=125

Gaitasunaren jabe den Eusko Jaurlaritzako ihardutze-sailak, bere alde nahiz herri-erakundeen edo irabazte-xederik gabeko kultur-alorrekoei alde, bi hilabeteko epean, haztaketarako eskubideaz baliatu ahal izango du, erabakitako prezioa ordaintzera bere burua behartuz. K=9007P OR=125

#### 6. AGERPENA

En los casos en que el Gobierno Vasco no ejerza el <<<derecho de tanteo, si la venta no queda formalizada en las condiciones notificadas o si, a pesar de no haber variado las condiciones inicialmente establecidas, ha transcurrido un año sin que el contrato haya quedado formalizado, el enajenante estará

nuevamente obligado en los términos previstos en el apartado 1. K=9007P OR=126  
Eusko Jaurlaritzak haztaketarako eskubideaz baliatu ez dadin etan, salmenta gaztigatutako baldintzetan gauzatu ez bada, edo hasierako baldintzak aldatu ez arren, akuraketa gauzatu gabe urtebete igaro bada, inorentzaketzailea, 1. zatian oharmandako neurrietan, berriro behartuta geratuko da. K=9007P  
OR=126

#### 7. AGERPENA

Si la pretensión de venta y sus condiciones no han sido notificadas correctamente, se podrá ejercer, en los mismos términos previstos para el <<<derecho de tanteo, el de retracto en el plazo de dos meses a partir de la fecha en que se tenga conocimiento fehaciente de la venta. K=9007P OR=128  
Saltzeko asmoa eta horretako baldintzak behar denez jakinarazi ez badira, egitekoa den salmentaren berri modu sinistagarritz izandako egunetik hasi eta bi hiletako epean, haztaketa-eskubiderako oharmandako neurri berberetan, atzera-indarrez jabetzeko eskubideaz baliatu ahal izango da. K=9007P  
OR=128

#### 8. AGERPENA

Artículo 23.- <<<Derechos de tanteo y retracto K=8905P OR=159  
Atala.- Prezio berean eta atzera-indarrez jabetzeko eskubidea K=8905P OR=159

#### 9. AGERPENA

Los <<<derechos de tanteo y retracto en todas las transmisiones onerosas de bienes y derechos relativos a los terrenos ubicados en las áreas de especial protección, así como aquellos otros que se determinen en el Plan rector de Uso y Gestión podrán ser ejercitados por la Administración de la Comunidad Autónoma y, en su defecto, por la Diputación Foral de Bizkaia, correspondiendo a los Ayuntamientos afectados la posibilidad de hacer efectivos tales derechos en caso de que el Organo Foral no los ejercitara.

K=8905P OR=160

Berarizko babespeko eremutan dautzan lurrei buruzko ogasun eta eskubideen diru-ordainezko jabego-aldaketa guztietan prezio berean eta atzera-indarrez jabetzeko eskubideaz baliatu ahal izango da Autonomi Elkarteko Arduralaritza eta, honen ezean, Bizkaiko Foru-Diputazioa, eta Foruzko Ihardutze-saila eskubideaz baliatuko ez balitz, doakien Udalek izango dute horiek gauzatzeko aukera.

K=8905P OR=160

#### 10. AGERPENA

El ejercicio de los <<<derechos de tanteo y retracto, indicados en el párrafo anterior, se efectuará conforme al procedimiento siguiente: K=8905P OR=161

Aurreko lerroaldian esandako prezio berean eta atzera-indarrez jabetzeko eskubideaz baliatzea honako era honetan egingo da: K=8905P OR=161

#### 11. AGERPENA

La declaración de un espacio como protegido lleva aparejada la de utilidad pública, a efectos expropiatorios de los bienes y derechos afectados, y de la facultad de la Administración gestora para el ejercicio de los <<<derechos de tanteo y retracto, en las transmisiones onerosas “inter vivos” de terrenos situados en el interior del mismo. K=9416P OR=140

Gune bat babestu izendatzeak bere erabilera publikoa dakar berekin, bai doakien ondasun eta eskubideak jabegabetezari dagokionez, bai, babesturiko lurretako zatiek pertsona bizidunen arteko eskualdatze onerosoak izatean, administrazio kudeatzaileak tanteo- eta erretrakto-eskubideak gauzateari dagokionez.

K=9416P OR=140

#### 12. AGERPENA

Reglamentariamente se regulará el ejercicio del <<<derecho de tanteo y retracto previsto en el apartado anterior. K=9416P OR=141

Aurreko idazatian oharmandako tanteo- eta erretrakto-eskubideez baliatzea araudi bidez arautuko da. K=9416P OR=141

## 7.- BIGARREN FASEA: EUSKAL SEGMENTU BALIOKIDEAK MUGATZEA ETA JASOTZEA.

Automakikoki lortutako emaitza gordin horietan, ES terminoaren agerpen bakoitzeko bi paragrafo "baliokide" eta "lekukide" erdietsi ditugu. Gaztelaniazkoan, sartutako ereduari egokitzen zaion letra-katea, markatuta dator '<<<' karakterekin; euskarazko paragrafoan, aldiz, ez dago inolako markarik adierazteko zein den, non dagoen edo nondik norainokoa den euskal terminoa. Emaitzei dagokielarik, (8) adibide luzean ikus daitekeenez, —aurrerago zehaztasunez azalduko dugun bezala—, hainbat ESTen emaitza hutsa izan da; beste asko behin edo bitan bakarrik agertzen dira, eta beste batzuek, berriz, ia dokumentu bakoitzean badute lekukoren bat.

Hustuketaren ondoko urrats guztiak eskuz egin behar izan ditugu, ordenagailuan bada ere. Puntu honetan, hustuketatik lorturiko paragrafoetan EUSBak atzemateko, mugatzeko eta jasotzeko egindako eragiketak deskribatzen dira urratsez urrats.

### 7.1.- Euskal segmentu baliokidea atzematea, mugatzea eta moztea

Badakigu, espainierazko ESTarekin batera atzemandako euskal paragrafoan testuaren zati batek erdarazko terminoaren esanahi-eduki bera daramala. Zati hori zein den, ordea, ikerkizun dago.

Gure euskal testuak itzulpen bidez sortu direlarik, itzulpengintzako estrategiak eta baliabideak erabiliaz berreraikitako testuak dira. Hortaz, ezin dugu alde zurretik igarri nolako itxura, nolako egitura sintaktikoa edo nolako kategoria gramatikala izango duen zati baliokide horrek. Hainbat eragiketa burutu beharko ditugu baliokidea den zati hori atzemateko, muga zehatzez zedarritzeko, eta forma lematizatua emateko. Baina eragiketa horiek burututakoan lortuko dugun emaitzak itxura terminologikorik baduen edo ez duen ez dakigunez, ez dugu *termino* deituko, *Euskal Segmentu Baliokide* (EUSB) baizik. *Segmentu* hitza aukeratu dugu 'hitz edo hitz-kate mugatu' besterik esan nahi ez duenez (Martinez Unanue, 1999:48), ez delako nahasten hizkuntzako ezein unitaterekin.

Terminoak irizpide gramatikal formalez mugatzeko zailtasun handiak daude edozein hizkuntzatan, II. kapituluko 2.2. puntuan agertzen genuen bezala. Izan ere, hori da, Otman-ek (1991:63) gogorarazten duenez, frantsesez testuetako unitate terminologikoen erauzketa automatikoa burutzeko dagoen arazorik handiena, nahiz eta erauzketa hori izen-sintagmetara mugatu.

Euskarazko terminologiaren erauzketa automatikoaren ikerkuntzan diharduen taldeko kideek (Aldazabal eta al., 1997:495) Nazioarteko Terminologia Biltzarrean aurkezturiko komunikazioan esaten denez<sup>50</sup>, ingelesez, aurreratuen dagoen hizkuntzan, oraindik giza laguntza behar du makinak eragiketa hori txukun burutzeko, eta euskararako horrelako tresna bat garatzerakoan, eragozpen gehiago topatzen dira.

Erdal terminoak garraiatzen duen esanahia euskal paragrafoko zein testu-segmentutan dagoen zehazteko, irizpide formalik ezean<sup>51</sup>, bai hiztun gisa dugun sorburu-hizkuntzaren eta xede-hizkuntzaren ezagueran eta bai zuzenbideko adigaiak ulertzeko eta testuak interpretatzeko ditugun ezaguera espezializatueta oinarritu behar izan dugu.

## 7.2.- EUSBak mugatzean agertutako kasuak

Aurreko adibideetan erakutsi dugu nola jokatu dugun hizkuntzari buruzko eta gaiari buruzko ezaguerekin. Ondoren, EUSBak mugatzerakoan aurkitutako kasuak eta irtenbideak sailkaturik deskribatuko ditugu.

Zorionez, kasu gehienetan ESTaren esanahia izen-sintagma egiturako segmentu batean aurkitu dugunez, mugaketaren erabakia ez da zailegia izan. Izen-sintagma ez diren hainbatetan, berriz zalantzarako arrazoi anitz ediren dugu.

### 7.2.1.- Izen-sintagmetan oro har

Izen-sintagmaren hasierako eta amaierako mugak ipintzea, ez da zaila izaten, hizkuntzari dagokionez; gehienetan, esanahiari eta baliokidetzari buruzko balorazioa da erabakigarria, ondoko taulako adibideetan ikus daitekeenez.

Lehen zutabean, hustuketak markaturik ematen digun ESTa bere testuinguruarekin jaso dugu; bigarrenean, lehen urratsean bakartu dugun ‘EUSB-gaia’ bere testuinguruarekin, eta hirugarrenean, hurrengo urratsean egiten dugun EUSBaren mugaketa.

---

<sup>50</sup>“(…)ondoko hiru arrazoiengatik: batetik bateratze-prozesua bukatzeke dagoenez, terminologia konplexuagoa da; bestetik, egindako ikerketak murrizak dira; eta azkenik, hizkuntza eranskaria izateagatik, terminologia identifikatzeko behar den tratamendua inguruko hizkuntzena baino konplexuagoa izango da.” (Aldazabal et al.,1997:495)

<sup>51</sup> Gure tesi honen langintza aski aurreratua zegoela eskuratu genuen Raquel Martinez Unanue-ren doktore-tesia (Martinez Unanue:1999), bide horretan egindako aurrerapenen berri ematen duena.

EST testuinguruan	EUSB-gaiaren testuingurua	EST = EUSB-gaia
1 podrá ejercer el <<<derecho de tanteo	<i>haztaketarako eskubideaz baliatu ahal izango du</i>	derecho de tanteo = haztaketarako eskubideaz
2 En los casos de cesión, inter-vivos, de (...) la Cooperativa tendrá el <<<derecho de tanteo	<i>egindako bizien arteko aldaketetan,(...), Koperatibak prezio berdinean beretzakotzeko eskubidea izango du</i>	derecho de tanteo = prezio berdinean beretzakotzeko eskubidea
3 consignación y <<<afianzamiento	<i>diru-izendapena eta sendespena</i>	afianzamiento = sendespena
4 corresponde al País Vasco el <<<desarrollo legislativo y la ejecución de la legislación básica	<i>oinarrizko legeen legegintza-osaketa eta egiterapena Euskal Herriari dagozkio</i>	desarrollo legislativo = legegintza-osaketa
5 La adquisición de bienes y derechos por vía de herencia, legado o <<<donación	<i>Ogasun eta eskubideak hil-ondarez, ondarez gainetikako emaitzen bidez edo emari-bidez norberetzakotzeko</i>	donación = emari
6 La regulación de los <<<derechos de tanteo y retracto	<i>Haztatze eta atzera egite-eskubideei buruzko arauetan</i>	derecho de tanteo = haztatze-eskubidei buruz

### 5. taula: EUSB-gai diren ISak mugatzea

Goazen, bada, taula horretan erakusten diren kasuak lerroz lerro azaltzera:

1. lerroa. *derecho de tanteo* ESTaren baliokidea aurkitzeko ia ziurtasun osoz bila dezakegu *eskubide* osagaia, hitz hori agertzen baita ia beti erdarazko ‘*derecho de-*’ ren parean. Euskal paragrafoan *haztaketarako eskubideaz* agertzen da, izen-sintagma bakunean eta testuinguru dudaezinean, modu instrumentalean badago ere, ESTaren funtzio baliokidean baitago.

2. lerroko adibidean IS konplexu baten aurrean gaude. Esanahi-baliokidetza aski arazotsua da, bi aldetatik gutxienez. Lehenik *prezio berdinean* adberbioak beste prezioaren bati erreferentzia egiten diolako, eta prezio adigaia ESTan ez delako espresuki adierazten. Eta bigarren, *beretzakotzeko* hitzaren erroaren balioan anafoa bat dagoelako. Hala ere, *prezio berdinean beretzakotzeko eskubidea* izen-sintagma aukeratu dugu *derecho de tanteo-ren* EUSBtzat.

3. lerroan EUSB izan daitekeena, juntagailuz juntaturik agertzen da beste izen-sintagma batekin, ESTaren pareko egituran. ESTaren esanahiaren ezagutza da hemen erabakitzailea EUSBaren mugak erabakitzerakoan, beste zailtasunik ez baitago juntadura apurtzeko.

4. lerrokoa, antzeko kasua dugu, baina EUSB-gaia, IS luze baten barruan dagoen mugakizun bikoitza duen izen-elkarte konplexu batetik: *legegintza osaketa eta egiterapena* erauzi behar izan dugu *legegintza osaketa* elkarte bakuna.

5. lerroko adibidean izen baliokidea postposizioa osatuz sumatu dugularik, postposizioa desegin behar izan dugu izena erauzteko.



6. lerroan berriz, 4.eko eta 5.eko zailtasunak metatzen zaizkigu. Mugatzaile bikoitzetik erauzi behar da EUSBa eta gainera, izen-elkarte osoa postposizio batean dago.

Horien antzeko kasuak eta eragiketak egokitu zaizkigu izen-sintagma moduan agertzen zaizkigun EUSBetan. Ikus dezagun, ondoren, zailtasun bereziak dauzkaten izen-sintagma mota batzuk.

### 7.2.2.- Adizkidun izen-sintagmetan

Hainbat kasutan, euskal paragrafoan EUSB izan daitekeen zatia, (EUSB-gaia), izen-sintagma moduan muga daitekeen arren, bere baitan adizkiak dauzka; batzuetan, benetako aditz-sintagmak. Ondorengo lerroetan mugaketarako arazo batzuk azaltzen dira.

#### 7.2.2.1.- [(IS)+ (adb)+ ad+ -n]<sub>erIP</sub>+ IS egitura dutenetan

Ikus ditzagun, aurrekoan bezala, adibide batzuk:

	EST testuinguruan	EUSB-gaiaren testuingurua	EST = EUSB-gaia
1	<<<acciones - nominativas-	<i>eskuz aldatu eziñak diran ogasun-paperak</i>	acción nominativa = eskuz aldatu eziñak diren ogasun-paperak
2	respetándose los <<<derechos adquiridos	<i>irabazita dauzkaten eskubideak aitortzen zaizkiela</i>	derecho adquirido = irabazita dauzkaten eskubideak
3	Oficina asistencia <<<víctimas del delito	<i>Lege-hauspenak jasaten dituztenen sorozpidetzarako Idazgua</i>	victima del delito = lege-hauspenak jasaten dituztenak

#### 6. taula: Erl P duten ISak mugatzea

Bi kasu desberdin egokitu zaizkigu.

Lehena, (taulako 1. eta 2. lerroak ) erlatibozko perpausaren ondoren ageriko izen-ardatza datorrenean; Edozein izen-sintagmaren kasuan bezalaxe muga daiteke.

Bigarrena, (taulako 3. lerroa) perpaus erlatiboak izen-ardatza isildurik duenean (EGLU - V. 206). Aurkitu ditugun guztiak EGLUk erlatibo generikoen artean sailkatzen dituenetakoak dira; aurrekaririk ez izateak, mugaketa erraztu egiten du.

#### 7.2.2.2.- [Partizipio+(-ta/-rik) +-ko]<sub>izg</sub> + IS egitura dutenetan

Oso antzeko kasuak aurkitu ditugu izenburuko egitura dutenen artean. Gehienetan, izen-ardatza agerikoa da.

(9)

*onartutako egitekoak*  
*norbaitek beretzakotutako eskubide*  
*benetan egindako zerbitzu*  
*ekonomia-Itunean ohartemandako zergapide*  
*balio gehigarriari erantsitako zerga*

### 7.2.2.3.- Aditz-izena duten izen-sintagmak

Aurreko kasuetan funtsean izenlagunarekin osaturiko izen-sintagmak ziren, baina hemen benetako aditz-sintagmak ditugu, aditz-izena buru dutenak.

Dena dela, mugaketa-kontuetarako, izen-sintagmen arazo berak planteatzen dituztenez, hemen sailkatu ditugu. Beste modu batera esateko, aditz jokaturik ez dagoenean, aditz-izena izentzat hartu da. Esate baterako, ondoko taulako adibideetako EUSBak, izen-sintagmen moduan mugatu ditugu.

EST testuinguruan	EUSB gaiaren testuingurua	EST = EUSB gaia
1 o su afianzamiento producirá los efectos de pago	<i>horren bermea uzteak ordainketa egin izanaren indarra izango du</i>	afianzamiento = bermea uzteak
1 la facultad de <<< emisión de deuda pública	<i>zor publikoaren agiriak emateko eskubidea</i>	emisión de deuda pública = zor publikoaren agiriak emate
2 competencia para el <<<desarrollo legislativo	<i>legeak osabideratzeko aginpidea</i>	desarrollo legislativo = legeak osabideratze

#### 7. taula: Aditz-izena duten ISak mugatzea

Lehen lerroko adibidean aditz-izena buru duen izen-sintagma aske dago perpausean; hortaz, mugaketarako ESTaren esanahiari dagokion aditz-sintagmaren zatia hartu dugu, izen-sintagma amaieran duela.

2. eta 3. lerroetako adibideetan, aditz-izena buru duen sintagma izenlagun batetik erauzi behar izan dugu, beste izen-sintagmetan egin dugun bezala.

### 7.2.3.- Izen-sintagma ez direnetan,

Euskarazko paragrafoan izen-sintagma gabe, baliokide izan daitekeen zatia aditz-sintagma edo esaldi oso bat denean, EUSBak mugatzeko zailtasun handiak izan ditugu. ondoko adibideen iruzkinetan irakur daitekeenez.

EST testuinguruan	EUSB gaiaren testuingurua	EST = EUSB
1 en los casos de <<<expropiación forzosa	<i>etxea derriorez artuko balitzaio</i>	expropiación forzosa = derriorez artu
2 se someterá a <<<información pública durante un período de sesenta días.	<i>lehenengoz onartu ondoren, jendaurrean jarriko da hirurogei egunetan.</i>	información pública = jendaurrean jarri
3 podrán <<<cubrir las citadas vacantes con el personal propio	<i>hutsik gelditutako lantoki horiek beren langileekin edo horretarako aukeratutakoekin bete ahal izango dituzte.</i>	cubrir vacante = hutsik gelditutako lantokia bete

	<b>EST testuinguruan</b>	<b>EUSB gaiaren testuingurua</b>	<b>EST = EUSB</b>
4	quienes ostentan la <<<capacidad jurídica necesaria	<i>legez horretarako gai izan daitezzenak</i>	capacidad jurídica = legez gai izan

### 8. taula: AS diren EUSB-gaiak mugatzea

Lehen lerroko adibidean, ESTaren segmentu baliokidea aditz-sintagmaren *adb+ ad* zatia dela esan daiteke; elkarren jarraian daudenez, ez dago mugatze-zailtasunik.

Bigarren lerrokoan, aldiz, zalantzazkoa da mugaketa, zeren *jendaurre* hitza nabarmenki motz geratzen da, baina *jendaurrean jarri* segmentuak badu erdarazko *someter a* aditzaren esanahia. Nahiago izan dugu horrelakoetan esanahiaren aldetik hutsunerik ez duen segmentua moztea.

Hirugarren eta laugarren lerroetako adibideetan, ESTari egokitzen zaion esanahia daramaten hitzak aukeratzeko, hots, EUSBa mugatzeko, tarteko beste hitz batzuk kendu behar izan ditugu.

Adibide horiek erakusten dutenez, itzulpen izatearen, eta bi hizkuntza oso desberdinetako bertsioak izatearen ondorioak oso nabarmen agertzen dira izen-sintagma moduan mugatu ezin daitezkeen segmentu baliokideetan. Ohartu gara zalantzazkoak izan daitezkeela egindako aukera batzuk.

## 7.3.- EUSBak lematizatzea

Hustuketaren ondotik egindako mugaketa-lana buruturik, gure beharretara egokitzeko, lematizatu egin ditugu, horretarako ohikoak diren eragiketak eginez.

Izen-sintagma aukeratu dugunean, absolutibo mugagabeen ipintzeko lana guztiz mekanikoa da, baldin eta barnean aditz-sintagmarik ez badarama. Aditz-sintagmekin topo egiten dugularik, hainbat arazo konpondu behar izan dugu komunztadurak direla-eta.

Ondoko lerroetan, hala izen-sintagmetan nola aditz-sintagmetan azaldu zaizkigun kasuak eta berezitasunak deskribatuko ditugu.

### 7.3.1.- Aditzik gabeko izen sintagmen lematizazioa

Bi kasu bereizi ditugu:

Lehena, arrunta, eta zalantzarik gabekoa, gehienetan ediren duguna, 0 forman eman daitezkeen izen-sintagmena da. Horietan, ohi bezala, absolutibo mugagabea da forma lematizatua.

(10)

*gehigarritzko xedapenak* → *gehigarritzko xedapen*

Bigarren kasua, salbuespenezkoa bada ere, kontuan hartzekoa da. Izan ere, hainbat kasutan ESTaren eta EUSBtzat mugatutako zatiaren arteko baliokidetzarako euskal segmentuak plurala beharrezko zuela iruditu zaigu, erdarazkoetan balio multzokaria duten izenak baitaude. Ondoren aztertzeke asmotan, pluraltasuna EUSBaren ezaugarria izan daitekeela adierazteko, absolutibo plurala erabili dugu lematizaziorako, ondoko adibideek erakusten duten bezala.

	EST	Mugatutako EUSB-gaia	Lematizaturiko EUSB
1	personal eventual	<i>aldi baterako langileei</i>	aldi baterako langileak
2	ordenamiento jurídico	<i>legebideak</i>	legebideak

9. taula: ISak lematizatzea

### 7.3.2.- Aditzak eragindako lematizazio-arazoak

#### 7.3.2.1.- Erilatibozko perpausa duten ISetan

Bi eragiketa-mota eskatzen dizkigute horrelako segmentuak. Alde batetik, izen-sintagma osoaren lematizazioa, deskribatutako bi kasuekin: (izen ardatza agerian dutenak, eta ezkutaturik dutenak) absolutibo mugagabeen ipiniko dira. Baina, horretaz gainera, kasu batzuetan, perpaus erlatiboko aditz jokatu ere lematizatu behar izan dugu.

	EST	Mugatutako EUSB-gaia	Lematizaturiko EUSB
1	competencia exclusiva	<i>beste inorena ez den aginpidea</i>	beste inorena ez den aginpide
2	acciones - nominativas-	<i>eskuz aldatu eziñak diran ogasun-paperak</i>	acción nominativa = eskuz aldatu ezina den ogasun-paper
3	derecho adquirido	<i>irabazita dauzkaten eskubideak</i>	irabazita daukan eskubide
4	victima del delito	<i>lege-hauspenak jasaten dituztetenenk</i>	lege hauspena jasaten duen

10. taula: ErIP duten ISak lematizatzea

Lehen lerroko adibidean, izen-sintagmaren bukaerako deklinabidean bakarrik eragin dugu lematizazioarekin.

Bi eta hirugarren adibideetan, buru den izenaren plurala ezabatzeak erlatiboko aditz jokatuaren komunztaduran aldaketa dakarrenez, aditza ere lematizatu behar izan dugu.

Laugarren adibidean, izena agerikoa ez delarik, erlatiboko aditza singularrean lematizatu behar izan dugu., eta baita bere barneko elementuak ere.

#### 7.3.2.2.- [Partizipio+(-ta/-rik) +ko]<sub>izlg</sub> + IS

Kasu bertsua delakoan, jokabide berdina izan dugu (11) adibidekoak bezalakoekin, nahiz eta erlatibozko perpausetan bezala, aditz-egitura nahiko konplexuak egon daitezkeen.

- (11)
- |                                   |  |
|-----------------------------------|--|
| <i>onartutako egitekoak</i>       | <i>norbaitek beretzakotutako eskubide,</i> |
| <i>benetan egindako zerbitzu,</i> | <i>ekonomia-Itunean ohartemandako</i>      |
|                                   | <i>zergapide</i>                           |
| <i>balio gehigarriari</i>         |  |
| <i>erantsitako zerga</i>          |  |

### 7.3.2.3.- Aditz-izena duten izen-sintagmak

Izen-sintagmatzat hartu ditugu aditz-izena ardatz duten guztiak. Horietan, barneko aditz-sintagman ez dago aditzarekiko komuntadurarik, baina, kasu batzuetan aditz-sintagma horretako objektuarena egiten duen izen-sintagma lematizatu behar izan dugu.

Horrelakoetan, sintaxiak eskatzen duen mugatzailea, singularrean edo pluralean, ipini diogu forma lematizatuari, ondoko taulako adibideetan ikus daitekeenez.

EST	Mugatutako EUSB-gaia	Lematizaturiko EUSB
1	ejecución de sentencia	<i>epaia betearazte</i>
2	pago de intereses	<i>dirusariak ordaintze</i>
3	prestación de servicios	<i>zerbitzu-lanak egite</i>
4	cumplimiento de deber	<i>egitekoak betetze</i>
5	desarrollo legislativo	<i>legeak egite</i>

**11. taula: Aditz-izena duten ISak lematizatzea**

Hemen ere, kontuan hartu da ESTarekiko baliokidetzak plurala eskatzen zuen ala ez.

Lehen lerroko adibidean, EUSBak ez duenez beharrezkoa plurala, arau orokorra aplikatu dugu, singularra erabiliaz lematizaziorako.

Hurrengo bi lerroetako adibideetan, uste izan dugu ESTaren parekotasunak plurala eskatzen zuela aditz-sintagmaren barruko izen-sintagman, eta pluraleko lematizazioa eman diogu.

Hirugarren eta laugarren adibideetan ere, esanahiak plurala gordetzea eskatzen zuelakoan, horrela egin dugu.

### 7.3.2.4.- AS direnen lematizazioa

Aditz-sintagmatzat hartu ditugu adizki jokatu buru duten EUSBak. Horiek lematizatzeke, aditzak hiztegian ohi duen lehen forma, hau da, partizipioa, aukeratu dugu.

EST	Mugatutako EUSB- gaia	Lematizaturiko EUSB
derogar disposición	erabaki guztiak deuseztutat jo bitez	<i>deuseztutat jo</i>
ejercitar acción	legebideak eginaz	<i>legebideak egin</i>
expropiación forzosa	jabetza derrigorrez kentzen denean	<i>jabetza derrigorrez kendu</i>
expropiación forzosa	etxea derriorez artuko balitzaio	<i>derriorez artu</i>
información pública	jendearentzako argipideak eman ditzan	<i>jendearentzako argipideak eman</i>

#### 12. taula. Aditz-sintagma diren EUSBak lematizatzea

Komuntadurak direla eta aditz-sintagmak mugatzeko arazo bereziak aurkitu baditugu ere, erabakia hartuz gero, lematizazioak ez du zailtasunik.

### 7.4.- Lematizazioaren inguruko beste arazoak

Gure corpusaren bigarren (*EKNAO*) eta hirugarren atalak (*EHAA*) euskara batuan idatzita daudenez, ez dugu haietan lematizazio-arazo berezirik aurkitu.

*Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunkarian*, euskara baturik ez zegoenez, hainbat hitzetan badira aldaera morfologikoak eta ortografikoak, baina nahasbiderik sortzen ez dutenez, ez ditugu kontuan hartu.

Hortaz, ez ditugu kontuan hartu EUSBen desberdintasunak epaitzerakoan honako aldaerak:

(12)

- í/ rr—adibidez: efi / herri
- s/ z — adibidez: sor/ zor, Euskadi/ Euskadi, euzko/eusko, etab.
- x/ z—adibidez:gixon/ gizon ; gixaki / gizaki
- ñ/ in—adibidez: España/ Espainia, egiña /egina
- h/ 0— adibidez: erri /herri; mai/ mahai, lendakari / lehendakari
- u/ -o— adibidez: dekretu/ dekretu

Halaber ez dira aldatu ez kontuan hartu *erazi /arazi*, eta antzekoak.

### 7.5.- Garai bakoitzeko EUSB desberdinak jasotzea

Alderdi koantitatiboak aztertzeke asmorik ez dugularik, ez dugu guztizko jasotzerik egin; horrela, hustuketatik beretik mugatu egin dugu bildutakoen kopurua. Dokumentu bakoitza husterakoan, aplikazioak EST bakoitza 3 bider bakarrik bilatu du<sup>52</sup>; hau da, dokumentu bakoitzeko lehen 3 EUSBak.

Bigarren murrizketa, jasotako EUSBEei dagokie. Izan ere, aldizkari bakoitzean formalki desberdinak direnak bakarrik jaso ditugu, forma errepikatuak

<sup>52</sup> Jokabide hori zuhurra zen ala ez egiaztatzeko, hainbat kasutan, lehen hiru agerpenak zeuzkan testu-zatia kendurik hustuketa-aplikazioa berriz korriaraziz, ez dugu EUSB desberdinik aurkitu. Hortaz, uste dugu EST bakoitzari dagozkion EUSB gehien-gehienak bildu ditugula.

baztertuaz. Horren arabera EUSB bera aldizkari berean agertzen bada, lehena gorde eta gainerakoak utzi egin ditugu. Baina, esate baterako *EAgEn* jaso dugun EUSB bat *EKNAOn* edo *EHAAn* berriz agertzen bada, aldizkari bakoitzeko bana jaso dugu.

Berdintasuna, EUSB lematizatuan aztertu dugu. Adibidez, (8) adibidean ikusi dugun *derecho de tanteo* terminoaren hustuketaren emaitza gordinean, aldizkari berean, hiru bider daukagu *haztatze (eta atzera egite) eskubidea*. Hiruretan berdin-berdina denez, bakarra jaso dugu. Aldiz, *haztaketarako eskubide*, eta *haztaketa-eskubide* forma desberdinak direnez, biak jasoko ditugu, *haztatze-eskubidez* gainera.

Baina *administración institucional* ESTaren baliokide gisa 1980 urtean eta 1992 urtean, hots, garai desberdinetan *administrazio istituzional*, EUSB bera, aurkitu dugun arren, biak gorde ditugu.

Desberdintzat eman ditugu, gure ustez lexikalizazio-mailari buruz zeresana dutenak, nahiz eta diferentzia ortografikoa soilik izan. Esate baterako hitz-elkarteen idazkeran uste dugu lexikalizazio-mailaren adierazgarri direla, neurri batean bederen, jarraian idatzitakoak eta bereiz edo marratxoarekin idatzitakoak.

(13)  
*agintemende eta agente-mende,*  
*lege-gizon eta legegizon.*

Hortaz, EUSB desberdintzat jaso ditugu letra berdinez osaturik egon arren idazkera diferenteetako hitz elkartuak.

## 8.- HIRUGARREN FASEA: DATU-BASE ERLAZIONATUAK ERATZEA ETA OSATZEA

Hasierako ESTetik abiatuz egindako hustuketa, mugaketa eta lematizazioa burutu ondoren lortutako emaitzekin bi datu-base eraiki ditugu: bata ESTena eta bestea EUSBena.

Hala EST guztiak (880) nola bakoitzetik lortutako EUSB guztiak (2.858) ikus daitezke zerrendetan inprimaturik V.8. eranskinean.

Zerrenda horiek, izan dira bi datu-base erlazionatuen<sup>53</sup> oinarria. Izan ere, hustuketaren emaitzak (VI. kapituluua) lantzeko ezinbestekoa zen datu-baseak erlazionatu ahal izatea, zeren EST bakoitzaren baliokide gisa *n* EUSB ditugu; **1/n**

<sup>53</sup> Datu-baseak FileMaker Pro 3 aplikazioa baliatuz eratu ditugu. Aplikazio horren aukeraren arrazoia da programazioaren ezaguerarik gabe ahalbideratzen duela datu-base erlazionatuak moldatzea.

erlazioan daude, alegia, eta datu-base bakoitzean hainbat eremurekin jokatu behar dugu.

Horretarako, hiru corpus-zatien hustuketatik lortutako datuak bateratu egin ditugu, eta zenbakizko eremu berdin baten bidez erlazonaturiko datu-base banatan sartu ditugu.

Ondoko taulan irudikatzen dira adibide batekin datu-baseen oinarrizko eremuak:

EST	ID	EUSB	Dok.	Par.
derecho de tanteo	148			
	148	<i>tanteo-eskubide</i>	78	72
	148	<i>haztatze-eskubide</i>	8807P	6
	148	<i>haztaketa-eskubide</i>	8808T	732
	148	<i>prezio berean jabetzeko eskubide</i>	8905P	160
	148	<i>haztaketarako eskubide</i>	9007P	125
	148	<i>tanteo-eskubide</i>	9416P	140

13. taula: Oinarrizko datu-basearen adibidea

Hasieratik, taula horretan<sup>54</sup> agertzen ez diren beste eremuak ere moldatu ditugu, hala nola EUSB bakoitzaren testuingurua daukana.

Ondoren, hala ESTen datu-basea nola EUSBena bakoitzari dagozkion ezaugarriak lantzeko eremuez hornitu ditugu ondoko lerroetan deskribatzen dugun bezala.

## 8.1.- ES terminoaren ezaugarriak dauzkaten eremuak

Eremu batean terminoak bere osotasunean duen egitura sintaktikoa eta/edo kategoria gramatikala zehaztu nahi izan dugu, kapitulu honetako 4.3. puntuan hasierako 1811 terminoentzat egin genuenaren bidetik. Honako egitura nagusiak bereizi ditugu:

kategoria / egitura	adibidea	Kop.	%
iz	abogado	204	24
iz+iz	daños y perjuicios	11	1
adj	legitimado	6	0,7
iz+ adj	acción popular	361	41
IS + de(pr)+ IS	administración de justicia	254	30
IS + prep (-de) + IS	impuesto sobre el patrimonio	19	2
Aditz / AS	impugnar; instruir expediente	25	3
<b>Guztira</b>		<b>880</b>	

14. taula: ESTen egiturak

<sup>54</sup> EST = Jatorrizko terminoa, gaztelaniazkoa; ID = Bi datu-baseen arteko lotura egiten duen eremua; EUSB = ESTaren baliokide agertzen diren EUSBak; Dok= EUSB bakoitzaren iturri-dokumentuaren gakoa (urtea, edo iturria eta zk.); Par = Dokumentuaren orria edo paragrafoa.



Aipagarria da 4.3. puntuan jadanik egina genuen sailkapen orokorrari buruz proportzioak ez direla aldatu. 1811 ESTren bilaketak erdia doi-doi utzi digu: 880, eta gelditu direnen egiturek, ia sartu genituenen proportzio berean diraute.

Terminoaren osagarriek azaleko egituren osatzen dutenari bakarrik begiratu diogu. Hortaz, esate baterako, ez dugu nominalizazioaren inolako analisisirik egin, ez eta, sintagma preposizionalen sakonean egon daitezkeen erlazio argumental desberdinak kontuan hartu.

Adibidez, sailkapen bakarra (*iz + de + iz*) eman diegu ondoko (13) adibideetako terminoen egiturei, nahiz eta begi-bistakoa den (a), (b) eta (c) adibideetan *de* preposizioaren eskuinera doan izenak aurrekoaren objektu-argumentuarena egiten duela; eta (e)-ko preposizioak aposizio-erlazioan dauden bi elementu lotu besterik egiten ez duela.

(13)

- (a) acuerdo de suspensión
- (b) cumplimiento de deber
- (c) administración de justicia
- (d) administración del estado
- (e) delito de estafa

Finkaturik zein den EST bakoitzaren egitura orokorra, beste eremu batean ESTa osatzen duten elementu lexiko nagusien berri eman dugu, kategoria bakoitzaren sinbolo bat, terminoan agertzen den hurrenkera berean, ipiniaz. Ez ditugu hemen jaso artikulua, juntagailuak. Ez dugu, bestalde aurkitu ez erakuslerik, ez izenorderik.

Gakoa	Hitz-segida	Adibidea
a	iz	<i>abogado</i>
aa	iz+iz	<i>concurso oposición, daños y perjuicios</i>
aca	iz + de + iz	<i>acuerdo de suspensión</i>
acad	iz + de + iz + adj	<i>bien de dominio público</i>
apa	iz + prep + iz	<i>cese en el cargo</i>
apacad	iz + prep + iz + prep+iz+adj	<i>impuesto sobre la renta de las personas físicas</i>
ad	iz + adj	<i>acto jurídico</i>
add	iz + adj + adj	<i>entidad local menor</i>
h	aditza	<i>reenviar, sustanciar</i>
ha	ad + iz	<i>cubrir vacante</i>
d	adj	<i>incapacitado, no aforado</i>

15. taula: ESTko elementu lexikoak datu-basean

Deskribapen hau oso azalekoa izan arren, eremuan erabakita utzi dugun egitura nagusiaren argitan, terminoen egitura sintaktikoaren alderdi gehienak irudikatzeko balio du ia kasu guztietan. Izan ere, egitura horiek, egindako oharrak kontuan harturik, oso sinpleak eta errepikatuak baitira.

Aurreko puntuetan deskribatutako moduan interesatzen zaizkigun zertzelada linguistiko gehienak agertzen badira ere, ez da denen berri ematen. Hortaz, beste eremu batean, maiztasun urrikoak izanik EUSBekiko konparaziorako balioa izan dezaketelakoan, ondoko elementuen berri ematen dugu: juntagailuak (a), adberbioak (b) pluralaren marka (c):

(14)

- (a) seguridad e higiene en el trabajo
- (b) pena inmediatamente inferior,  
informar preceptivamente,  
informe no vinculante
- (c) colegio de abogados

## 8.2.- EUSBen ezaugarriak dauzkaten eremuak

Bigarren datu-basean, hustuketan lorturiko Euskal Segmentu Baliokideak sartu ditugu, testuingurua daraman beste eremua, eta agerpenaren dokumentuaren eta kokalekuaren berri ematen duten beste eremu bana gehituaz.

**Dok** izendatu dugun eremuan zein dokumentu, hots, zein oroagindu, dekretu edo legetan agertu den adierazten da. Hustuketa-teknikaren arabera, bi multzo egin ditugu: eskuz hustutako *EAgEn* eta *EKNAOn*, oroagindu edo dekretuari dagokion urtea soilik ipini dugu, bi digiturekin (36, 78). Ordenagailuz husturiko EHAakoekin, Kapitulu honetako 6.1.1. puntuan idatzi dugun moduan, urteaz eta legearen hurrenkera-zenbakiaz osatutako lau digituko zenbakia osatu dugu. Horrela, 1982ko 7. legea 8207 izango da eta 1997ko 10.ena, 9710 . Kasu batzuetan zenbaki bereko bi lege egon daitekeenez, gorde dugu Eusko Legebiltzarrean emandako letra (*p, t, f...*): 9203f

**Par** deitu eremuan, dokumentuan duen kokapena jaso dugu. *Dok* eremuari buruzkoan deskribatutako bi multzoen arabera, bi sistema desberdin erabili ditugu: eskuz hustutakoetan, orriaren zenbakia ipini dugu. Ordenagailuz hustutakoetan, aldiz, makinak berak emandako paragrafo-zenbakia hobetsi dugu, zehaztasun handiagoa eskaintzen duelako, eta inprimatutako bertsioko orriaren zenbakia eskura ez dugulako.

Oinarrizko eremu horiez osatutako datu-baseak izan dira hurrengo kapituluak deskribatzen diren azterketa linguistikoaren abiapuntua.

Ondoren, ESTen datu-basean bezala, zertzelada linguistikoak lantzeko eremuz osatu dugu EUSBen datu basea, hurrengo kapituluak xehetasunez azaltzen den ustiaketa egin ahal izateko.

## VI. KAPITULUA

### DATU-BASEAREN USTIAKETA: EUSBen AZTERKETA LEXIKOLOGIKOAREN ETA TERMINOLOGIKOAREN EMAITZAK

#### 1.- SARRERA

##### 1.1.- Helburuak, baliabideak, oinarri teorikoak

Ikerlanaren kapitulu honetan espainierazko termino juridikoen, (ESTen), baliokide gisa azaltzen diren euskarazko testu-segmentuak, (EUSBak), deskribatzeari ekingo diogu, zenbait alderdi lexiko-linguistikotik nola terminologikotik.

Deskribapen horren xede orokorrak dira:

- a) *segmentu baliokide* (EUSB) izendatzen ditugunak morfologiaren eta sintaxiaren aldetik, zer diren jakitea,
- b) terminoen esanahi-balioa duten segmentu horiek eratzeko erabilitako baliabide lexikogenetikoak eta sintagmatikoak aztertzea, eta
- c) ohiko — inguru hizkuntzetako terminologioekin, eta, bereziki, gure corpuseko espainierazko terminoekin (EST) — konparatuta, zein ezaugarri duten jakitea.

Horretarako dugun lanabes nagusia, aurreko kapituluan azaldu moduan eratu dugun datu-basea da. Gogora dezagun datu-base horretan dauzkagula alde batetik guk sartutako espainierazko termino-zerrenda ezaugarritz hornitua, eta beste aldetik, haietako bakoitzarekin erlazionaturik, haien baliokidetzat mugatu eta aukeratu dugun euskal segmentu baliokideen multzoa, bakoitzaren agerpen-datuekin eta ezaugarriekin.

Hortaz, gure azterlan honetako fase guztietan, testuetan baliokideak diren bi hizkuntzetako sekuentziak beti izango ditugu konparakizun eta aukera horretaz baliatuko gara, aurrerago azalduko dugun moduan.

Azterketa honek lehenik eta behin deskribapen bat izan nahi du, eta erabiliko ditugun tresna teorikoak aski zabalak eta guztiz onarturikoak izango dira. Inoiz puntu teorikoren bati buruzko oharren bat egiten badugu ere, gure

gidaria Euskaltzaindia izango da, eta zehatzago hitz eginik, Euskaltzaindiak argitaraturiko *Euskal Gramatikaren Lehen Urratsak* izeneko liburuki-bilduma, horietako zenbaiten laburpena den *Euskal Gramatika Laburra*, eta Euskaltzaindiaren LEF Batzordeak argitara emandako Hitz Elkartuak saileko hiru liburukiak, eta 1994tik aitzina argitaraturiko *Arauk*.

Gure corpora aski ezohikoa da, 60 urteko aldia besarkatzen baitu. Bistakoa da urte-mordo luzeegia dela azterketa sinkroniko huts batekin konforme gelditzeko. Izan ere, hala zuzenbideak nola euskarak aldaketa bortitza jasan dute urte horietan, testu historikoen gainbegirada egiterakoan egiaztatu dugunez. Hortaz, azterketaren puntu guztietan bereizi nahi izan dugu garai bakoitzean zer gertatzen den, eta agerpenen kopuruen arteko konparazioa egin dugu, ea datu esanguratsurik agertzen den. Edozelan ere, terminologiaren eboluzioaren hainbat alderdi agertuko dira azterketa horien ondoren.

## 1.2.- Garaiak eta EUSBak

Garaiak mugatzerakoan irizpide bi erabili ditugu: alde batetik, corpora osatzen duten aldizkariak bereizi ditugu: oso argi baitago 1936-37 urteetako *Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoak*, besteak baino 40 urte lehenagokoa izaki, erabateko nortasun desberdina duela, eta horren berezia ez bada, baita *Eusko Kontseilu Nagusiaren Aldizkari Ofizialak* ere, ondoren etorriko den *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari* buruz. Edukiari dagokionez, gainera, EAgen eta EKNAOn ez dago ia batere legerik, EHAAren Eusko Legebiltzarraren legegintza osoa jasotzen den bitartean. Bestetik, aztertzen ditugun EHAAren ia 17 urteetako testuetan eboluzioa hobeto zehaztu ahal izateko, 1980-1997 urtealdi luzea erdibitu egin dugu: 1980-1989 eta 1990-1997 garaietan.

Honela, lau garai bereizi ditugu. Ondoko taulan ikus daitezke garai bakoitzeko aldizkariaren izenburuak, hasiera- eta bukaera-daten zehaztasunak eta dagokion EUSBen kopuruak.

<b>Garaiak</b>	<b>Izenburua</b>	<b>Hasierako eta bukaerako datak</b>	<b>Zenbat EUSB</b>
<b>A garaia</b>	EAEg	1936 urria 9 -- 1937 ekaina 17	323
<b>B garaia</b>	EKNAO	1978 maiatza 15 -- 1980 martxo 27	230
<b>C garaia</b>	HAEE	1980 apirila 30 -- 1989 abendua 30	1.274
<b>D garaia</b>	HAEE	1990 urtarrila 2 -- 1997 maiatza 30	1.021
<b>Guztira</b>			2.858

**1. taula: EUSBak aldizkariaren eta garaien arabera**

Garaiak, oso desberdinak direnez, ezingo dugu beti parekatzeko moduko ondoriorik atera. Neurriari dagokionez, binaka multzokatzen dira: aurreko biak

eta azkeneko biak. Lege (formal) -edukiari dagokionez ere, bi multzo horiek daude, baina diakroniari begiratuz gero argi dago azken hiru garaiak hizkuntzaren aro berekoak direla, euskara batuaren arokoak, eta lehena, bistan denez, euskararen estandarizazioaren aldetik, oso bestelakoa. Xehetasun horiek guztiak kontuan eduki beharko dira ondorioak ateratzerakoan.

### 1.3.- Kapitulu honen eskema

Kapitulu honetako puntuen arabera, honako atalak izango ditu:

- **2. atala: EUSB osoaren deskribapena eta sailkapena.**

Deskribapenaren lehen urratsa izango da EUSBak beren egitura sintaktikoaren (eta lexikoaren) arabera sailkatzea, egitura bakoitzean zenbat sartzan diren, garaikako banakera, eta egitura bakoitzaren erabileren artean erlaziorik dagoen argituaz.

Beste aldetik, saiatuko gara zehazten EUSB mota bakoitzaren jatorria zein egituratako ESTetan dagoen, eta, alderantziz ere, egitura jakin bakoitzeko ESTek zein egituratako EUSBak sorrarazten dituzten corpusean.

- **3. atala: Hitz-elkarketa EUSBetan.**

Bigarren atal honetan, euskararen baliabide lexikogenetiko indartsu honek EUSBen osaeran duen presentzia eta egitekoa aztertuko dugu. Horretarako, Euskaltzaindiari jarraiki, hitz elkartuen mota bakoitzak corpusean dauzkan agerpenak aztertuko ditugu, garai bakoitzekoak besteekin alderatuaz beti ere.

Hitz-elkarketaren erabilera benetan ugaria eta askotarikoa denez, berrelkarketaz, eta elkarteen andanaz osatutako EUSBen azterketa bereziari ekingo diogu.

- **4. atala: Eratorpena EUSBetan.**

Aurreko atalean hitz elkartuen sailkapen “guztizkoa” erabili badugu, eratorpenaren azterketak ez du horrelako asmo erabatekorik, baina gehien agertzen diren atzizkiak banan bana aztertzen ditugu, EUSBetako hitzen osaeran daukaten egitekoa zehaztuaz.

- **5. atala: Gako-hitz batzuen erabilerak eta balioak.**

Elkarketa eta eratorpena euskararen baliabide unibertsalak badira, atal honetan, corpusaren behaketak erakutsi digun berezitasun bat dugu aztergai.

Izan ere, iruditu zaigu EUSBetan badirela hainbat hitz aparteko garrantzia hartzen dutenak corpus honetan, eta ziurrenik, edozein corpus juridikotan, baina hainbat arazoren iturri gerta daitezkeenak. Hitz horien erabilerak eta esanahiak

aztertu ditugu, beti ere datu-base elebidunak eskaintzen dizkigun aukerak baliatuaz.

- **6. atala: EUSBetako osagai batzuen azterketa.**

Atal honetan, aurrekoan bezala, EUSBen behaketak erakutsi dizkigun berezitasun batzuk aztertu nahi ditugu.

“Osagai” izendatu ditugu, oso elementu linguistiko desberdinak baitira. Horietako hiru, adjektiboak, adberbioak eta juntagailuak, kategoria gramatikalak dira; interresgarri iruditu zaigu horiek aztertzea zeren eta lehen begiraldian uste izan dugu oso eginkizun eta erabilera desberdinak dauzkatela euskal zerrenda terminologiko honetan, eta deskribapenen gai izan ohi diren hizkuntzetako terminologietan.

Pluralei, juntagailuei bezala, oso maiztasun handia igarri diegunez, egiaztatu nahi izan dugu geure susmoak oinarririk bazuenez, eta zein diren maiztasun horren arrazoiak.

- **7.atala: Alderdi terminologiko batzuk.**

Azkenik, daudekeen askoren artean, alderdi terminologiko batzuei heldu diegu. Honela, ESTen eta EUSBen datuak baliatuaz, “sinonimia” eta “polisemia” terminologikoak, hau da, zenbat EUSB desberdin dagoen EST bakoitzeko, zein kasutan, zein garaitan, eta era berean, EUSB bat erabiltzen ote den EST desberdinak izandatzeko, aztertuko dugu. Aurrekoa bezalako azterketa orokorra egingo dugu EUSBen luzerari buruz.

Amaitzeko, oinarrizko corpus juridiko batean ia ezinbestekoak gertatzen diren izendapen batzuk: legeenak, zergeenak, eta eskubideenak, corpusean nola egiten diren aztertuko dugu.

## 2.- EUSB OSOAREN DESKRIBAPENA: egiturak eta jatorriak

### 2.1.- Sarrera

Aurreko kapituluaz azaltzen dugunez hustuketaren lehen emaitza izan da baieztatzea erdal terminoa dagoen hurrenkera-zenbaki bereko paragrafoan, euskal testuan badagoela segmentu jakin eta mugatu bat, haren karga kontzeptual bera, edo oso antzekoa, daramana.

Korrespondentzia hori oso kasu gutxitan falta da: 2.880 EUSBetik 22tan bakarrik esan daiteke huts egiten duela jatorrizko ESTarekiko erlazio semantikoak.

Hustuketa-prozesuaren bidez lortutako 2.858 EUSBak, bere osotasunean, ditugu ikergai puntu honetan. Esan nahi baita, euskal segmentu osoen egiturak zein diren aztertuko dugula.

Sailkapen nagusi batetik, (jadanik V. kapituluaz aurreratu baitugu) abiatuko gara: ondoko tauletako kopuruek adierazten diguten bezala banatzen diren izen-sintagmak eta izen-sintagma ez direnak.

	<b>EUSB</b>	<b>IS</b>	<b>%</b>	<b>Ez-IS</b>
<b>A garaia</b>	323	283	87,61%	40
<b>B garaia</b>	230	217	94,34%	13
<b>C garaia</b>	1.284	1195	93,06%	89
<b>D garaia</b>	1.021	907	95,00%	114
<b>Guztira</b>	2.858	2632	92,09%	226

**2. taula: Izen-sintagmak. Kopuruak eta ehunekoak**

Gehien-gehienak, hortaz, izen-sintagmak dira. Horien azterketarako, osaera kontuan harturik sailkatuko ditugu. Determinatzailea alde batera utzirik, elementu nominalez soilik osatuak daudenetan bi kasu bereiziko ditugu, izen hutsa, eta izen-elkartea; elementu atributiboez horniturik daudenen artean, izen + izenondo egiturakoak, izenlagun + izen direnak, eta perpaus baten laguntza daramatenak. Azken horiek, kasu batean izan ezik, erlatibozkoak dira.

Izen-sintagma diren arren azterketa berezia egingo diegu buruan aditz-sintagma baten buru den aditz-izena dutenei, eta halaber, aditz-izen + *ko* osaera duten izenlagunei.

Beste aldetik, izen-sintagma egiturarik ez duten EUSBak aztertuko ditugu: gehienetan aditz jokatua buru duen aditz-sintagmak dira.

Horrela sailkaturik, mota bakoitzeko EUSBentzako aterako dugu garai bakoitzari zenbat dagozkion, garaien artean diferentziarik ba ote dagoen eta zer adierazten duen aztertzeke.

Halaber EUSB bakoitzaren sorburuan zein EST dagoen dakigunez, ikertu ahal izango dugu euskal egitura bakoitzak zein erdal egituratan duen jatorria edo baliokidea. Eta alderantzizko bidea eginaz, ESTetako egitura bakoitza euskaratutakoan zer bilakatzen den jakin ahal izango dugu.

## 2.2.- Egitura orokorrak banan bana

### 2.2.1.- Izen-sintagmak

2. taulan ikusi dugunez, EUSBen artean izen-sintagmen proportzioa aski garaia eta konstantea da. Ehuneko handiena azken garaian dago (% 95) eta txikiena A garaian (% 87,61). Gainera, B garaian proportzioa C garaikoa baino handixeagoa da. Baina ez dugu uste diferentzia horiek oso esanguratsuak direnik, batez ere, kontuan harturik ESTetan ere, aditz-sintagmak ehuneko handiagoan daudela A garaian.<sup>1</sup>

Corpuseko 2.858 EUSBetatik, %92tik gora izen-sintagmak dira, baina, esan bezala, hainbat egitura-mota bereiz daiteke horien artean. Batzuetan, izen determinatua bera da, osagarririk gabe, izen-sintagma; gure azterketarako hiru azpimultzo egin ditugu: izen soilak, izen elkartuak eta izen-gehiketak. Beste batzuetan, izenaren osagarriak – izenondoak, izenlagunak eta perpausak —daude.

Ondoko taula honek erakusten ditu aipaturiko azpimultzo horien kopuruak garaiz garai.

	IS	Izen bakun	Izen gehik.	Izen elkar	Izen + izond.	Izlg + iz	Erl. Perp + iz
<b>A garaia</b>	283	63	0	152	29	35	3
<b>B garaia</b>	217	45	1	55	65	52	1
<b>C garaia</b>	1195	164	5	464	53	498	16
<b>D garaia</b>	907	130	5	272	121	379	28
<b>Guztira</b>	2632	402	11	939	268	964	48

3. taula: EUSBen egitura orokorrak

Bi multzo nagusi, izen elkartuak eta izenlagun + izen, ageri dira, bien artean EUSB guztien % 72 osatzen dutelarik. Beste bi multzo kopurutsuak izen

<sup>1</sup>Nonbait, gaztelaniazko hizkera juridikoaren nominalizaziorako joera, oraindik ez zegoen hain garatua garai hartan.



soilak eta izen + izenondo egiturakoak ditugu. Ondoko lerroetan bakoitzaren ezaugarriak, eta garaiz garai erakusten dituzten berezitasunak aztertuko ditugu.

### 2.2.1.1.- EUSB = izen bakuna

Azpimultzo honetan kategoria gramatikalarena baino irizpide hertsiagoak erabili ditugu, bete-betean izen kategorian sartzen diren izen-elkarteak beste azpimultzo batera eraman baititugu; era berean, izenez osaturiko beste batzuk, izen-gehiketak bezala, ez daude hemen. Beraz, izen bakarrekoak soilik jaso ditugu hemen.

Ondoko adibideetan ikus daitezke garai bakoitzeko EUSB batzuk izen bakunak direnak, euren EST jatorrizkoekin.

(1)			
(a)	36	<i>nagusi</i>	propietario
(b)	36	<i>nolabaitkeria</i>	fraude
(c)	37	<i>bazkun</i>	corporación pública
(d)	79	<i>inmunitate</i>	inmunidad
(e)	80	<i>liskar</i>	conflicto de competencias
(f)	79	<i>kasazio</i>	casación
(g)	8103p	<i>legeak</i>	ordenamiento jurídico
(h)	8201p	<i>norbanako</i>	persona física
(i)	8103p	<i>merkataritza</i>	comercio
(j)	9412p	<i>zergadun</i>	sujeto pasivo
(k)	9204p	<i>ebazpen</i>	auto
(l)	9204p	<i>erakunde</i>	persona jurídica

#### 2.2.1.1.1.- Agerpenak eta ehunekoak

Ondoko taulan ematen dira, garaika, izen bakun diren EUSBen kopuru absolutuak, eta EUSB guztiekiko ehunekoak.

	Izen bakunak	%
<b>A garaia</b>	63	19,50%
<b>B garaia</b>	45	19,56%
<b>C garaia</b>	164	12,77%
<b>D garaia</b>	130	12,73%
<b>Guztira</b>	402	14,65%

4. taula: Izen bakun diren EUSBak

Aski hornituriko multzoa osatzen dute izen bakunak; 402 horietatik 48 bakarrik dira errepikatuak, beraz, 354 hitz desberdin daude.

#### 2.2.1.1.2.- Zein ESTtatik datozen

Aztertzen ari garen euskal terminoak espainierazko terminoen itzulpen direnez, begira dezagun ondoko taulan nolako egiturak dauzkaten haien jatorrizkoak.

EST = izena	337
EST = izen + adj	47
EST = Beste	18
Guztira	402

#### 5. taula: Izen bakunen EST jatorria

Taulak erakusten du 337ren jatorrian espainierazko izen bat dagoela (ik. 1. adibideko (a),(b), (d), (f) eta (k)) hau da, espainierazko izen-termino baten ordainetan izen-termino bat dagoela euskal bertsoan.

Badira 65, (1c), (1e), (1g), beste zerbaiten baliokide direnak. Gehienetan, erdarazko *izen + adjektibo* egiturako terminoek eman dute euskal ordain hori.

Berez ez dago ezer harrigarrik hizkuntza bateko unitate baten esanahia beste hizkuntza batean bi hitz edo gehiagorekin ematean. Baina adibide batzuetan nabarmena da ESTaren eta EUSBaren arteko baliokidetzaren semantikoa badaezpadakoa dela. Jakina da ezin dela ondorio zehatzik atera testuinguruak aztertu gabe, baina hala eta guztiz ere, uste dugu ondoko adibideoi buruzko iruzkinak egin daitezkeela.

(2)

(a)	8110p	<i>lege</i>	proyecto de ley
(b)	8308p	<i>denda</i>	establecimiento comercial
(c)	8314p	<i>ogasun</i>	bien mueble
(d)	9608p	<i>ordainketa</i>	dación en pago

- (a) *proyecto de ley* > *lege*. Nabarmena da EUSBaren eta EST aren arteko desberdintasuna<sup>2</sup>.
- (b) *establecimiento comercial* > *denda*. Testuinguru batzuetan *denda* hitzak izan dezake erdarazkoaren esanahi osoa, baina erregistro-beheratze nabarmena izatez gainera, ez dugu uste kasu guztietarako balio duenik zeren ikuspegi juridikotik ‘establecimiento comercial’ diren asko ez lirateke inoiz *denda* deituko euskaraz.
- (c) *bien mueble* > *ogasun*. Erdal adjektiboak ematen duen zehaztasun funtsezkoa erabat falta da euskal hitz soilean.
- (d) *dación en pago* > *ordainketa*. Aurrekoetan bezala, erdal terminoaren zehaztasuna eta teknikasuna desagertu egiten dira euskal hitz bakun horretan.

Adibide horietan gertatzen dena, beste kasu askotara hedatu daiteke.

#### 2.2.1.1.3.- Beste izen-egiturak

Gutxi badira ere, (12ren bat guztira) kontuan hartzekoak dira izen soilez osatutako beste EUSBak, garai guztietan agertzen direnak, zeinetan ez izen

<sup>2</sup> Agian itzulpen-akatsa besterik ez da.

bakarra baizik juntagailuz loturiko bi izen ezin bananduzkoak agertzen diren, honako adibideotan bezala:

(3)	(a)	37	<i>ezkongai ala ezkondu</i>	Estado civil
	(b)	80	<i>lehiaketa eta oposizio</i>	concurso oposición
	(c)	8108T	<i>beharrak eta eskubideak</i>	obligaciones y derechos
	(d)	8312P	<i>gaitz eta kalteak</i>	daños y perjuicios
	(e)	8605P	<i>harturenak eta ordainkizunak</i>	derechos y obligaciones
	(f)	8805P	<i>zuriztapen edo ezabapen</i>	prescripción
	(g)	9416P	<i>kalte eta hondamenak</i>	daños y perjuicios

Badira (3c),(3d), (3e) eta (3g), hizkera juridikoan, bai gaztelaniaz, bai inguruko beste hizkuntzetan ere, erabiltzen diren gehiketazko edo aurkatasunezko bikote-termino ezagun batzuen ordaina direnak, baina (3a) edo (3f) adibideetakoak ez dira horrelakoak<sup>3</sup>.

#### 2.2.1.2.- EUSB = izen elkartua

Kapitulu honetako atal oso bat eskaintzen zaio EUSBetako hitz-elkarketen azterketari; hortaz, han egiten denez elkarteen zer-nolakoen deskribapen osoa, puntu honetan, zenbaki batzuk aurkeztu eta iruzkindu besterik ez dugu egingo. Beti ere, gogoratu behar da egitura orokortzat izen-elkarketa duten EUSBak soilik direla hemen aztergai.

Irizpide morfologiko hutsari begiratu zaio, hitz-elkarte den eta izen kategoriakoa den. Elkarketa-atalean azaldutako arrazoiengatik, oro har, eratorpenean nahiz elkarketan sar daitezkeenak, elkartutzat eman ditugu: esate baterako *zordun, eskubide edo oinorde*.

(4)	(a)	36	<i>gintza-bazkun</i>	empresa
	(b)	36	<i>gizarte-laguntza</i>	asistencia social
	(c)	37	<i>jabetza arkibidetza</i>	Registro de la Propiedad
	(d)	78	<i>administrazio-bide</i>	vía administrativa
	(e)	80	<i>altzada errekurtsio</i>	recurso de alzada
	(f)	80	<i>diru-gaiztakeria</i>	delito monetario
	(g)	8205P	<i>aginte-sail</i>	jurisdicción
	(h)	8205P	<i>agiri-liburu</i>	libro de actas
	(i)	8105P	<i>Arduralari-Batzorde</i>	consejo de administración
	(j)	8906P	<i>administrazio-kontratu</i>	contrato administrativo
	(k)	9103P	<i>agindei</i>	requerimiento
	(l)	9401D	<i>aginpide-transferentzia</i>	transferencia de competencias

<sup>3</sup>Juntagailuen erabilera kapitulu honetako VI.atalean aztertzen dugu.

## 2.2.1.2.1.- Agerpenak eta ehunekoak

Ondoko taulan ikus daiteke zenbat EUSB dauden egitura horretakoak, eta EUSB guztiekiko ehunekoak, garaika antolatuturik.

	Izen elk. guztira	EUSBak	%
<b>A garaia</b>	152	323	47,05%
<b>B garaia</b>	55	230	23,91%
<b>C garaia</b>	464	1.284	36,13%
<b>D garaia</b>	272	1.021	26,64%
<b>Guztira</b>	939	2.858	32,85%

6. taula: Izen elkartu diren EUSBak

Lehen iruzkina, izen elkartuen kopuru osoari dagokio: oso nabarmena da corpus honetan hitz-elkarketak duen emankortasun terminogenetikoa: ia EUSB guztien heren bat hitz-elkarteak dira.

Nabarmentzekoa da, halaber, nola aldatzen den garai batetik bestera hitz elkartu direnen proportzioa. Lehen garaian (1936-37) erdira hurbiltzen da, bigarrenean (1978-80) laurdena baino gutxiago izatera igarotzeko. Ondoren (1980-1989) berriz goraldi handia dauka ehuneko horrek, herena baino gehiago, azken garaian (1990-1997) laurden erosoan gelditzeko.

Aurrerago ikusiko dugu horren antzeko aldaketak beste egituretan ere gertatzen direla, eta korrelazioen bat bilatzen saiatuko gara.

## 2.2.1.2.2.- Zeren ordain diren

Gauza jakina da gaztelaniaz hitz-elkarketak ez duela, euskaraz duen bezalako tokia eta eginkizuna terminologian. Gogora dezagun espainerazko terminoetan 15 bakarrik direla edonolako izen elkarteak. Hortaz, badakigu ez dugula kasu askotan aurkituko korrespondentziarik ESTetako egitura berberekoekin. ESTetako zein egituraren ordainetan agertzen diren EUSB izen elkartuak jakitea da hurrengo urratsa.

Aipaturiko kasu bazterrekoaz, (EST hitz-elkartea) gainera, hiru multzo nagusi egin ditugu ESTetan:

- izen direnak (4. adibideko (a), (g), (k)),
- *iz + prep + iz* egitura dutenak (4. adibideko (c),(e),(i), eta (l)), eta
- *iz + adj* direnak (4. adibideko (b), (d) (f), eta (j)).
- 

Eta garaika banaturik, honako taula hau erdiesten dugu:

	EST = Iz	iz elk	EST =iz+prep + iz	EST = iz + adj
<b>A garaia</b>	58	1	21	66
<b>B garaia</b>	3	1	33	22
<b>C garaia</b>	85	6	105	231
<b>D garaia</b>	55	2	66	132
<b>Guztira</b>	203	10	225	451

7. taula: Izen elkartuen EST jatorria

Izen elkartu diren EUSBen erdiak espainieraz *iz+ adj* sekuentzia duten egituraretatik datoz. Beste erdia, izen soiletatik eta *iz + prep + iz* egiturakoetatik.

Izen elkartu diren EUSBen laurdenak erdarazko izen soila dute jatorri-baliokidetzat. Honi buruz, gogora dezagun irizpide formalen arabera hitz-elkartetzat hartu ditugun zenbait lexikalizaturik daudela, eta hiztunak ez dituela gehienetan osagaiak sumatzen, izaki bakun baten izendapentzat hartzen baizik.

Hitz elkarte gehienak *mugakizun + mugatzaile* egitura dutenez, egokiak dira unitate terminologikoak terminologiak eskatzen duen zehaztasuna adierazteko<sup>4</sup>.

### 2.2.1.3.- EUSB = izen + izenondoa

Izenondoaren definizio zehatzean sartzen ez diren arren, izenondotzat jo ditugu hemen *-dun eta -tar* hizkiekin osaturikoak, nahiz eta hitz-elkarketaren azterketa zehatzari ekiterakoan *-dun-dunak* elkarte bezala kontsideratu. Partizipioak, izenondoa gisa agertzen direlarik ere, hemen sartu ditugu. Beraz, ondoko adibideak erakusten duen bezala, era guztietakoak hartu ditugu kontuan.

(5)

(a)	37	<i>ogasun higigarri</i>	bien mueble
(b)	37	<i>astungarri berezi</i>	circunstancia agravatoria
(c)	37	<i>oben aundi</i>	delito
(d)	79	<i>zabarkeria nabarmen</i>	negligencia notoria
(e)	80	<i>jabego intelektual</i>	propiedad intelectual
(f)	80	<i>testu eraberritu</i>	texto refundido
(g)	8805P	<i>huts larri</i>	falta grave
(h)	8812P	<i>jabetza pribatu</i>	dominio privado
(i)	8817T	<i>Azterlan zehatz</i>	estudio de detalle
(j)	9105P	<i>ekintza zergagarri</i>	hecho imponible
(k)	9201T	<i>Administrazio instituzional</i>	administración Institucional
(l)	9202P	<i>ezintasun fisiko</i>	incapacidad física

<sup>4</sup>Gogora II. kapituluko 2.2.3.2. puntuan Guilbert-ek, Kocourek-ek, Collet-ek eta Cabré-k ziotena.

## 2.2.1.3.1.-Agerpenak eta ehunekoak

Ondoko taulak erakusten digu garai bakoitzeko EUSBen artean zenbatak duten egitura orokortzat *iz. + izond.*, eta EUSBen kopuru osoaren zenbateko ehunekoa diren.

	<b>iz+ izond</b>	<b>%</b>	<b>EUSBak guztira</b>
<b>A garaia</b>	29	8,97	323
<b>B garaia</b>	65	28,03	230
<b>C garaia</b>	53	3,97	1.284
<b>D garaia</b>	121	11,57	1.021
<b>Guztira</b>	268	9%	2.858

8. taula: *Iz + izond* diren EUSBak

EUSB guztietatik %9 dira *iz + izond* egitura dutenak. Ehuneko horrek, espero zitekeen bezala, ESTetakoarekin zerikusi txikia dauka; izan ere, ESTetan, 361/880 (% 41) dira egitura horretakoak.

Nabarmena da corpusean garai batetik bestera dagoen aldea *iz + adj* egitura erabiltzerakoan. Lehen garaian, osotasunean dagoen ehuneko beretsua (% 9) dago, baina bigarrenean, Eusko Kontseilu Nagusiaren Aldizkarian, hirukoiztu egiten da. Aldizkariaren izen-aldaketarekin batera, egitura horretako EUSBen erabilera zeharo murrizten da, % 4ra. Ondoren, batez bestekoa baino handiagoko erabilera dago azken garaian.

## 2.2.1.3.2.- Zein ESTatik datozen

Ondoko taulan ikus daiteke, garaiz garai, *iz + izond* egiturako EUSBen jatorrian zein egitura dauden.

	<b>ES = iz + adj</b>	<b>ES = iz + prep + iz</b>	<b>Besteak</b>
<b>A garaia</b>	24	1	4
<b>B garaia</b>	61	4	0
<b>C garaia</b>	49	2	2
<b>D garaia</b>	117	2	2
<b>Guztira</b>	251	9	8

9. taula: *Iz + izond* diren EUSBen ESTen egiturak

Taula horrek erakusten duenez, (gauza bera ikus daiteke (5) adibidean) *iz + izond* egitura duten EUSB gehien-gehienak (ia (94%) *iz + adj* egitura duen EST baten baliokide dira. Espainierazko jatorrian *iz + prep + iz* egitura dutenak % 3 inguru dira, eta gainerako %3 aski banatuta dago.

Esan daiteke, hortaz, corpusean egitura hau ia beti erdal egitura berekoen baliokideetan agertzen dela, nahiz eta kontrakoa, hau da, ESTko *iz + adj* egiturari EUSBko *iz + izond* egiturak erantzutea, egia ez izan arren

Kapitulu honetako 6. atalean izenondoan azterketa berezia egiten dugunez, hemen utziko dugu egitura honetako EUSBen azterketa.

#### 2.2.1.4.- EUSB = Izenlagun + IS

Izen sintagmetan, buru den izenaren osagarri bezala maiz aurkitzen da *-ko* eta *-ren* atzizkiez eraturiko izenlaguna. Hemen aztertu nahi ditugu egitura nagusitzat  $[X+-ko]_{Izlg} + IS$  eta  $[IS+-ren]_{Izlg} + IS$  egitura duten EUSBak.

Jakina denez, hainbat egitura desberdin egon daitezke  $[X+-ko]_{Izlg}$  egituraren X-ren tokian; denak aztertzeari ekingo diogu kapitulu honetako 3. atalean, eratorpena estudiantzen dugunean. Puntu honetan, egitura horietako bi soilik, *aditza + -tzeko* eta *aditza + -tutako* dutenak soilik hartuko ditugu azterketa xehetuagoaren gai gisa.

Ondoren ikus daitezke aztergai hartzen dugun EUSBen adibide batzuk:

(6)		
37	<i>legezko eskubide</i>	capacidad jurídica
37	<i>ebaste mailako erru</i>	delito de estafa
79	<i>Laneko Kontseilaritza</i>	Consejería de Trabajo
80	<i>Kontentzioso Administratiboko Jurisdikzio Lege</i>	Ley de la Jurisdicción Contencioso Administrativa
8507P	<i>udal-lakapeneko zerga</i>	exacción municipal directa
8814P	<i>Gizarte-Segurantzako Agizko Jaurpide</i>	Régimen General de la Seguridad Social:
9004P	<i>Hiri-Antolakuntzako Egitamu Nagusi</i>	plan general de ordenación urbana
9005P	<i>Epai-Agintaritzako Kontseilu Nagusi</i>	Consejo general del poder judicial
80	<i>Euskadiko kontuen auzitegi</i>	Tribunal de Cuentas Públicas del País Vasco
8002	<i>Erresumaren gutzizko diruegitamu</i>	Presupuestos generales del Estado

#### 2.2.1.4.1.- Agerpenak eta ehunekoak

Taula orokorrean (3. taula) ikusten genuenez, egitura hau da maizen agertzen dena EUSBetan.

Ondoko taulan ikus daitezke kopuru haiek, eta EUSB guztiekiko ehunekoak.

	Izlg. Guzt.	EUSBak	%
<b>A garaia</b>	35	323	10,83%
<b>B garaia</b>	52	230	22,60%
<b>C garaia</b>	498	1.284	38,78%
<b>D garaia</b>	379	1.021	37,12%
<b>Guztira</b>	964	2.858	33,72%

10. taula: *Izlg + IS* diren EUSBak

EUSB guztien herenak dauka egitura hau, baina garaiz garai behatuta diferentzia nabarmena agertzen da, lehen garaiko % 11 eskasetik azken bi garaietako ia % 40ra.

2.2.1.4.2.- *-ren* izenlagunak

Hona, egitura horretako EUSBen kopuruak garaiz garai:

	<i>-ren</i> Izlg	Izlg Guzt.
<b>A garaia</b>	13	35
<b>B garaia</b>	15	52
<b>C garaia</b>	43	498
<b>D garaia</b>	83	379
<b>Guztira</b>	154	964

11. taula: *-ren* Izlg-ak

Ondoren, *-ren* Izlg + *IS* egitura nagusitzat duten EUSBen adibide batzuk:

(7)

78	<i>Euskal Parlamentarien Biltzarre</i>	Asamblea de Parlamentarios Vascos
78	<i>espedientearen instrukzio</i>	instrucción de expediente
8803P	<i>nahiaren burujabetza</i>	autonomía de la voluntad
8910T	<i>txatalen zerrenda</i>	pliego de cláusulas
9007P	<i>inguru-erasoaren neurketa</i>	evaluación de impacto ambiental
9401D	<i>baltzuen multzo</i>	grupo de sociedades

Garai guztietan agertzen da egitura hau; zerbait nabarmentzekotan seinalatuko genuke B garaian eta D garaian proportzio handiagoan agertzen dela, sintaxi hedapena gutxiago erabiltzen duten A eta C garaien aldean.

*-ren* Izlg + *iz* egitura duten EUSBak nondik datozen aztertzen badugu, honako kopuruak lortzen ditugu: izen hutsa diren ESTetatik 5 bakarrik eta *iz* + *adj* nahiz *iz* + *prep* + *iz* egituretatik 68 eta 70, hurrenez hurren, kopuru berdintsuak, beraz.

Esanahiari buruz, talde berezi bezala azpimarratuko genuke '*Izlg -ren*' diren EUSBetako burua *-keta*, *-pen*, *-kuntza* atzizkiez osaturiko ekintza adierazten duen izena denean. Horietan, ia salbuespenik gabe *-ren* atzizkia daraman izenak aditzaren objektu zuzenaren funtzioa betetzen du. Ondoko adibideotan ikusten denez:

(8)

8108T	<i>ekintzen erabilpen</i>	ejercitar acción
8108T	<i>ahalmenen eskuraketa</i>	transferencia de competencias
8201P	<i>Araudiaren Aldakuntza</i>	modificación de estatutos
8206R	<i>zerbitzuen egiterapen</i>	prestación de servicios
8503P	<i>Legebiltzarraren ezabapen</i>	disolución del parlamento
8510T	<i>lan-tokien sailkapen</i>	clasificación de puestos de trabajo
8604P	<i>hauspenaren errepikapen</i>	reincidencia
8808T	<i>hizkuntzaren normalkuntza</i>	normalización lingüística
9103P	<i>estatutuen aldaketa</i>	modificación de estatutos
9206P	<i>zergaren ordainketa</i>	devengo del impuesto
9007P	<i>inguru-erasoaren neurketa</i>	evaluación de impacto ambiental
9411P	<i>legeen garapen</i>	desarrollo legislativo

Baina salbuespenak ere badaude, zeinetan izenlaguneko izena den aditzaren subjektua:



(9)

8301G	<i>jaurlaritzaren adierazpen</i>	comunicación del gobierno
8903P	<i>norbere kitapen</i>	autoliquidación
9407P	<i>administrazioaren ebazpen</i>	resolución administrativa

Oro har, ‘jabegoa’ da erlazio semantiko ohikoena, baina denetarik dago. Kasu batzuetan, ez da ikusten zergatik aurkeratzen den atzizki hori; esate baterako ondoko bi hauetan:

(10)

8319	<i>erregeren dekretu lege</i>	real decreto ley
9104P	<i>administrazioaren jardunbide</i>	procedimiento administrativo

#### 2.2.1.4.3.- *-ko* izenlagunak.

Ondoko taulak erakusten duenez, *-ko* izenlagunak dira ugarietak.

	Izlg <i>-ko</i>	Izlg. Guzt.
<b>A garaia</b>	22	35
<b>B garaia</b>	37	52
<b>C garaia</b>	455	498
<b>D garaia</b>	296	379
<b>Guztira</b>	810	964

12. taula: *-ko* Izlg-ak

Nabarmena da C eta D garaietan egitura horiek daukaten maiztasuna.

EUSB askoren egitura nagusia ez ezik, barne-osagaietan ere oso ugaria den *-ko* atzizki izenlagun-egilea kapitulu honetakon 3.4.puntuari xehetasunez aztertzeko utziko dugu.

#### 2.2.1.4.4.- Zein ESTatik datozen $[X+ko]_{Izlg} + IS$ egiturak

Ondoko taulan *-ko* izenlagunak baliokidetzat ematen dituzten ESTen egituren kopuruak ikus daitezke garaiz garai.

	iz +prep+ iz	iz + adj	izena	besteak
<b>A garaia</b>	7	73	0	2
<b>B garaia</b>	17	18	0	1
<b>C garaia</b>	127	256	21	15
<b>D garaia</b>	85	133	7	10
<b>Guztira</b>	226	480	28	28

13. taula: *-ko* izenlagunen EST jatorriak

Nabarmena da zein ehuneko handitan (%60) aurkitzen diren *iz+ adj* egitura nagusia duten ESTak. Ehuneko horrek ia hirutan biderkatzen du *iz + ‘de’ preposizioa + iz* egitura dutenen kopurua.

2.2.1.4.5.- Aditz-izena + *-ko* + *IS*. Azterketa xehetua

Zubiri eta Zubirik (1995:179), izenlagunen sailkapena egiterakoan, ‘*izen-sintagma* + *-ko*’ izenburupean sartzten dute *izena* + *-ko* egitura, bi azpimultzo eginez: ‘*izena* + *-ko*’ eta ‘*aditz-izena* + *-ko*’.

Gure aldetik ez dugu argi ikusten non kokatu beharko liratekeen egitura hauek, baina multzo berezia egin dugu, EUSBetan daukan presentzia nabarmenagatik, eta EST bera itzultzerakoan beste egitura batzuekin duen alternantzia bereziki aztertzea interesgarria iruditu zaigulako.

Azpimarragarria deritzogu aztertzen ari garenaren antzeko egitura bati, alegia, *-t(z)e* + *ko*-ren ordez *-t(z)e* + *z* + *ko* atzizkiez eratutakoari. Biak aztertuko ditugu.

Ondoko taulan ikus daiteke garaiz garai zenbat EUSB agertzen diren horrelako izenlagun-egiturarekin.

	<b>-t(z)eko</b>	<b>-t(z)ezko</b>
<b>A garaia</b>	0	0
<b>B garaia</b>	1	0
<b>C garaia</b>	23	5
<b>D garaia</b>	26	2
<b>Guztira</b>	50	7

14. taula: *-t(z)eko* *-t(z)ezko*

Ehunekotan gehiegi ez badira ere (%2), ez da baztertzeko kopurua. Gainera, egitura honetaz eratutakoak ez direnez askotan errepikatzen, desberdinen kopurua handi samarra da.

## 2.2.1.4.5.1.- Jatorrizko ESTak zer diren

Azaleko kategoriari soilik begiratuaz, ikus daiteke hiru motatako ESTren ordainetan daudela egitura honetakoak:

- Izen soilak 6 dira, ondoko adibideotan bezala:

(11)

8608P	babesa eskatzezeko goradei	recurso de amparo
8201P	prezio berdinean beretzakotzeko eskubide	tanteo
9504P	egiteko debeku	inhabilitación
9204P	baliorik gabe uzteko aldi	prescripción

- Beste 21etan, ESTen egitura nagusia da *iz* + *prep* + *iz*:

(12)

8608P	babesa eskatzezeko goradei	recurso de amparo
9203F	itzultzeko eskubide	derecho de reversión
8815P	Indargabetzeko epe	plazo de prescripción
9416P	jendaurrean jartzeko izapide	trámite de información pública

- Gehienak, erdia, 29, *iz* + *adj* egiturakoak dira:

(13)	9004P	osatzezko arau	norma complementaria
	8328P	zigortzezko ahalmen	potestad disciplinaria
	9202P	indargabetzeko xedapen	disposición derogatoria
	9414P	hartzeko-eskubide	derecho pasivo
	9605P	zigortzezko ahalmen	potestad sancionadora

Azpinarratzekoa da jatorrizkoESTetan ia beti izenak (*reversión, inhabilitación, prescripción*) edo izenondoak (*derogatorio, privativa, sancionadora*) aditzetik eratorritakoak izatea.

#### 2.2.1.4.5.2.- Egitura honen eta besteen alternantzia EST bera itzultzeko

Ondorengo adibideotan ikus daiteke, *aditz-izen +-ko + izen* egitura agertzen delarik, maiz *aditzoin + izen*, eta *aditz-izen + izen*, edo baita adizkirik gabeko egituretan oinarrituriko beste EUSBak agertzen direla.

<p>(14 a)</p> <hr/> <p><b>procedimiento sancionador</b></p> <hr/> <p>9605P <i>zigortzeko jardunbide</i>        8201P <i>Zigortzebide</i>        8201P <i>zigortze-bide</i>        8328P <i>Zigorpide</i>        9104P <i>Zigorbide</i>        9204P <i>zigortze-prozedura</i>        9416P <i>zigor-prozedura</i>        9307P <i>zigor-ihardunbide</i></p>	<p>(14 b)</p> <hr/> <p><b>acuerdo de suspensión</b></p> <hr/> <p>9004P <i>indar-gabetzeko erabaki</i>        79 <i>baliogabetze akordio</i>        79 <i>etendura erabaki</i>        79 <i>suspensio akordio</i></p>
<p>(14 c)</p> <hr/> <p><b>derecho de tanteo</b></p> <hr/> <p>8905P <i>prezio berean jabetzeko eskubide</i>        8807P <i>haztatze -eskubide</i>        8808T <i>haztaketa-eskubide</i>        9007P <i>haztaketarako eskubide</i>        9416P <i>tanteo-eskubide</i>        78 <i>tanteo-eskubide</i></p>	<p>(14 d)</p> <hr/> <p><b>procedimiento expropiatorio</b></p> <hr/> <p>8909P <i>jabegoa kentzeko ihardunbide</i>        9003P <i>Jabego-kenketak egiteko modu</i>        9303P <i>Desjabetze-prozedura</i>        9506P <i>desjabetza-ihardunbide</i>        8318P <i>jabegabetze-bide</i></p>
<p>14 e)</p> <hr/> <p><b>licencia de apertura</b></p> <hr/> <p>8308P <i>irekitzeko baimen</i>        9406P <i>irekitze-baimen</i>        9504P <i>irekitzeko lizentzia</i></p>	<p>(14 f)</p> <hr/> <p><b>plazo de prescripción</b></p> <hr/> <p>8815P <i>Indargabetzeko epe</i>        8312P <i>Indargabetzeratzeko aldi</i>        9306P <i>indargaltzeko epe</i>        9605P <i>iraungitzeko epe</i>        8312P <i>indargabetze-epe</i>        8906P <i>indarra galtzen dueneko epe</i>        9204P <i>Iraungipen-epe</i>        9411P <i>preskripzioaren epe</i></p>

(14 g)		(14 h)	
<b>potestad sancionadora</b>		<b>derecho pasivo</b>	
9605P	<i>zigortzeko ahalmen</i>	9414P	<i>hartzeko-eskubide</i>
8805P	<i>zigortze-ahalmen</i>	8311P	<i>gozamen-eskubide</i>
9104P	<i>ahalmen zigortzaile</i>	8312P	<i>gozamen-sari</i>
9306P	<i>zigorra jartzeko ahalmen</i>	8906P	<i>gozamen-saritarako</i>
9306P	<i>zigor-ahalmen</i>		<i>eskubide</i>

Adibide horiek behatuz nabarmen agertzen da hiru egitura horien presentzia, hainbat aldiz, hirurak, maizago horietako bi, eta maiz ere, antzeko esanahia duen aditzarekin.

Gehien errepikatzen diren alternantziak, [aditz-izen + izen] elkarteak, eta [aditz-izen+ -ko]<sub>Izlg</sub> + izen egiturakoak dira.

#### 2.2.1.4.6.- Partizipiodunak [part + -ta/ -rik + -ko]<sub>Izlg</sub> + IS

.Horrelako osaera duten izenlagunak, toki garbia dute, egiturari dagokienez, adizlaguna + -ko multzoan.

*Euskal Gramatika Laburrean* 'erlatibo laburtuak' deitzen dira egitura horiek. Izan ere, adjektibo-balio berbera dute erlatibozko perpausek eta aztertzen ari garenek.

Ondoko adibide hauetakoak bezalakoak dira hemen aztertzen ditugunak:

(15)

8906P	<i>eskuratutako eskubide</i>	derecho adquirido
8907P	<i>izendatutako aurrekontu</i>	dotación presupuestaria
8909P	<i>egitaraupetutako hirigintzarako gaitutako lur</i>	suelo urbanizable programado
9003P	<i>bateratutako idazki</i>	texto refundido
9004P	<i>Autonomiez osatutako Estadu</i>	Estado de las Autonomías
9005P	<i>sendetsitako auzi-epai</i>	sentencia firme
9203F	<i>elkarrekin egindako testamentu</i>	testamento mancomunado

Horrelako egituren kopuruak ondoko taulan ematen dira:

<b>Part+-ta /-rik</b>	
<b>+ -ko</b>	
<b>A garaia</b>	0
<b>B garaia</b>	0
<b>C garaia</b>	27
<b>D garaia</b>	13
<b>Guztira</b>	40

15. taula: part +-ta +-ko

Aurreko garaietan egitura honetako alerik ez dago, baina azken aldizkarian zerbait ugaltzen dira.

Jatorrizko ESTak zer diren begiratzen badugu, gehien-gehienetan, 34tan, hau da. % 82,5tan *iz +adj* aurkitzen dugu, 4tan *iz + de* + *iz* egitura, eta 2tan izen

soilak. ESTetako adjektiboak ere eginez gero ohartzen gara, haietako gehienak ere, partizipioak direla (*certificado, añadido, refundido, adquirido, reconocido, motivado, incapacitado*); beraz, neurri handian korrespondentzia dago ESTetako partizipio eta EUSBetako partizipio-egitura horien artean.

Jatorrizko erdal terminoak izena dagoen kasuetan eta *iz + prep + iz* egiturakoetan, euskarazkoan parafraasiak ditugu, ondoko adibideotan ikus daitekeen bezala:

- (16)
- |       |  |                          |
|-------|--|--------------------------|
| 8803P | <i>Ordaintzaileak berak egindako kontu-garbiketa</i> | autoliquidación          |
| 9004P | <i>autonomiez osatutako Estadu</i>                   | estado de las autonomias |

### 2.2.1.5.- Perpaus erlatiboa+ IS egiturakoak. [(IS)+ (adb)+ ad+ -n]<sub>erIP</sub>+ IS

Jakina denez, izen-sintagmaren barnean, adjektiboak hainbat forma desberdin har ditzake, eta horietako bat, perpaus erlatiboarena da. EUSBetan hainbat kasutan aurkitu ditugu ondoko adibidekoak bezalako izen-sintagmak:

- (17)
- |     |       |  |                               |
|-----|-------|--|-------------------------------|
| (a) | 36    | <i>agintaritzari ez dagozkion diru-etxeak</i>            | banca privada                 |
| (b) | 37    | <i>eskuz aldatu eziña den ogasun-paper</i>               | acción nominativa             |
| (c) | 79    | <i>hirigintza legeen kontrakoa dan (a)</i>               | infracción urbanística        |
| (d) | 8309P | <i>agintaritzaren duen(a)</i>                            | superior jerárquico           |
| (e) | 8201P | <i>Bertako bazkide den kooperatiba</i>                   | cooperativa asociada          |
| (f) | 8205P | <i>zigor-legeen alorrean egin daitekeen bide</i>         | acción penal                  |
| (g) | 8205P | <i>ofizial den hizkuntza</i>                             | idioma oficial                |
| (h) | 9003P | <i>akurapena eman dakien akuratzailerik</i>              | adjudicatario                 |
| (i) | 9004P | <i>Jaurlearitzaren duen ordezkari</i>                    | delegado del gobierno         |
| (j) | 9605P | <i>Toki-Jaurbidearen Oinarriak Arautzen dituen Legea</i> | Ley de bases de régimen local |
| (k) | 9416P | <i>astutzeko eraginik izan dezakeen gorabehera</i>       | circunstancia agravante       |

Horietan denetan daukagu erlatibozko perpaus bat elementu gehiago edo gutxiagoz osatua, *-n* menderagailua eta sintagmaren buru den izena edo haren ordezkari mugatzailea.

#### 2.2.1.5.1.- Agerpenak, motak.

Ondoko taulan ikus daitekeenez, ehunekoak esanguratsuak ez badira ere, EUSBetan honelako egiturak garai guztietan agertzen dira. Gainera, azpimarragarria iruditzen zaigu D garaietan C garaietan baino askoz ugariagoak izatea:

	Perp. erl + IS	%
<b>A garaia</b>	3	0,09%
<b>B garaia</b>	1	0,04%
<b>C garaia</b>	16	1,24%
<b>D garaia</b>	28	2,74%
<b>Guztira</b>	48	1,67%

16. taula: Perpaus erlatiboak

*EGLU V*-ekin (1999:206) batera, bi mota bereiziko ditugu: IS agerikoa dutenak (21a),(21b),(21e),(21f) eta (21g) eta ISa ezkutaturik dutenak (21c) eta (d). Honako kopuruetan daude.

	IS ezk	IS ageri
<b>A garaia</b>	3	3
<b>B garaia</b>	1	0
<b>C garaia</b>	16	15
<b>D garaia</b>	28	20
<b>Guztira</b>	48	34

17. taula: IS ezkutukoak eta agerikoak

Taulan honetan ikus daitezke zein diren mota bakoitzak sorburuan dituen ESTen egiturak eta kopuruak.

	EST iz +de+ iz	EST iz + adj	EST izena
<b>IS ezkutukoa</b>	2	7	5
<b>IS agerikoa</b>	8	24	2
<b>Guztira</b>	10	31	7

18. taula: P. Erl. dutenen EST jatorria

Perpaus erlatiboaren adjektibo funtzioa oso argi geratzen da hizkuntzen arteko konparazioa eginda ere: 31 kasutan, *iz + adj* egiturako ESTa dago sorburuan, eta beste 10etan, *iz + prep + iz* egiturako terminoa (i), (j)

7 kasutan EST izen soila da: (21h).

#### 2.2.1.5.3.- Iruzkinak

Erlatibozko perpausak ez dira maiz ikusten inguruko hizkuntzetako terminologietan; gure corpuseko ESTen zerrendan ez da behin ere agertzen

Gehienetan erlatibozko esaldia, erdal adjektiboaren parafrasi modukoa da.

Ez ditugu aztertu erlatibozko perpausen barneko elementuak, baina hasierako adibideetan ikus daitekeenez badira garai guztietan ESTko adigaiaren azalpen xehetuak direnak., (21a),(21b), (21c), (21h) eta (21k) lerrokoak bezala.

## 2.2.1.6.- Aditz-izena buru duten ISak.

Hala *EGLU II.n*<sup>5</sup> nola *EGLPBn*<sup>6</sup>. esaten denez, euskal aditz-izenaren zertzelada berezia da une berean edukitzea izenaren eta aditzaren ezaugarriak (Odriozola, 1993:147)<sup>7</sup>.

Izaera bikoitz horren inguruko eztabaidak izan dira euskal gramatikarien artean<sup>8</sup>. Gure lanaren xedeak gaintzen dituen eztabaida horretan sartu gabe, aipaturiko Euskaltzaindiaren lanen haritik, eta gure EUSBen sailkapenaren xede hutserako, aditz-izenen bi alderdiak izango ditugu kontuan.

Aditz-izen horiek aztertuz gero, batzuk benetako izentzat eman daitezke (22. adibidekoak kasu), inolako aditz-funtziorik gabe. Horiek, hitz-elkarketan eta eratorpenean aztertzen ditugu, eta hemen ez dira kontuan hartuko.

(18)

8206R	<i>birgizarteratze</i>	reinserción social
8608P	<i>jakinarazte</i>	notificación
37	<i>nekaltze-legedi</i>	código penal
8102R	<i>legehauste</i>	delito

Corpuseko hainbat EUSBtan, aldiz, aditz-izenek beren izaera bikoitza agertzen dute. Alde batetik izen-sintagma baten buru dira, eta ISri dagozkion determinatzaileak hartzen dituzte; hain zuzen ere, horregatik mugatu eta lematizatu ahal izan ditugu beste ISak bezala. Baina buru hori, aditz-izena, aditza ere badenez, AS baten burua da, eta hortaz, argumentuen zein adberbioen laguntza eraman dezake.

(19)

9204P	<i>zerbitzutik baztertze</i>	separación del servicio
36	<i>iritziz kidetze</i>	conciliación
9401D	<i>korrituak ordaintze</i>	pago de intereses

<sup>5</sup>Aditz-izenaz ari garelarik, jokatu gabeko perpaus baten aditzaz ari gara, aditz hori izen baten itxurarekin agertzen baldin bazaigu ere. Egia esateko, aditz-izenen izaerak arazo larriak sortzen dizkigu, ber denboran izenen eta aditz izenen berezitasun eta ezaugarriak baitituzte horrelako formek. (EGLU II, 1987: 97-109)

<sup>6</sup>Izen bezala, izenaren ezaugarri gehien-gehienak ditu, deklinabidearen gai da (murriztapen txiki batzuekin), eta ISren buru izateko guztizko gaitasuna dauka. Baina era berean, ez du aditz-izaera galtzen, eta aditz jokatuaren argumentuak eta adberbioen laguntza izan dezake. (EGLPB, :231)

<sup>7</sup>Axularren lanean, Odriozolak ondorioztatzen duenez, izen- eta izenondo sintagmen ezaugarri batzuk —erakuslea eta genitibo subjektua bezala— aditz-ezaugarriekin batera ager daitezke; beste batzuk, ordea, hitz-elkarteko mugatzaile posizioan egotea, izenondoa aditz-izenaren ondotik agertzea bezala, izen izatearen seinale garbiak dira.

<sup>8</sup>Patxi Goenagak hainbat izkributan (bereziki 1980, 1985) lantzen du aditz-izenaren izaeraren gaia, bikoiztasuna aldeztuaz. Irizkide ditu autore gehienak, horrela Ortiz de Urbina (1989), Odriozola (1993) eta, oro har, Euskaltzaindiaren hala *EGLU II* nola *EGLPB* bide horretatik doaz. Artiagagoitiak (1992: 381) berriz, *-tze* atzizkia izengilea dela dio, alegia, atzizki horretaz osatutako hitzak beti ere izaera nominalekoak direla, [+ACTIVITY] klase semantikoaren murriztapen baten barruan.

## 2.2.1.6.1.- Agerpenak, ehunekoak eta motak.

Ondoko taulan ikus daitezke horrelako zenbat egitura agertzen den garai bakoitzean, eta zein ehuneko osatzen duten EUSB guztien aldean.

	Aditz-iz. buru	%
<b>A garaia</b>	8	2,47%
<b>B garaia</b>	5	2,17%
<b>C garaia</b>	72	5,60%
<b>D garaia</b>	68	6,66%
<b>Guztira</b>	154	5,38%

19. taula: Ad-iz buru duten ISak

Garai guztietako baliabidea bada ere, azken garaietan bikoiztu eta ia hirukoiztu egiten da egitura honen erabilera.

Motei dagokienez, honako multzo hauek egin ditugu

- **Aditz-izen soilak.** Ez adverbiorik ez beste osagarririk ez dute, baina testuinguruan aditz-jokabidea dute, menpeko esaldien buru izanik.

(20)

37	<i>kitatze</i>	indemnización
78	<i>prozesatze</i>	procesamiento
8325P	<i>errolderatze</i>	inscripción registral
9202P	<i>egozte</i>	Despido

- **Adverbioren baten laguntza dutenak.** Horietan aditz-izaera askoz argiagoa da.

(21)

80	<i>erregistroan sartze</i>	inscripción registral
8206R	<i>berriro gizarteratze</i>	reinserción social
8906P	<i>zerbitzutik aldentze</i>	separación del servicio
9101T	<i>bete gabe uzte</i>	incumplimiento

- **Objektu-funtzioa betetzen duen IS osagarria** daramatenak. Adverbio baten laguntzaz edo gabe.

(22)

36	<i>legeak bete-erazte</i>	ejecución de la legislación
79	<i>errekurtsua jartze</i>	interposición de recurso
9005P	<i>Eusko Legebiltzarra deusezte</i>	disolución del parlamento

Ondoko taulak erakusten du nola banatzen diren mota horien agerpenak garaiz garai.

	ad-iz soil	adb + (obj) + ad-iz	obj+ad-iz	Guztira
<b>A garaia</b>	2	3	3	8
<b>B garaia</b>	2	1	2	5
<b>C garaia</b>	16	25	31	72
<b>D garaia</b>	18	19	31	68
<b>Guztira</b>	38	48	67	154

20. taula: Ad-iz buru duten ISak garaiz garai



## 2.2.1.6.2.- Nondik datozen

	EST Izena	EST iz + adj	EST Iz+ prep+ iz	Guztira
<b>Aditziz. soila</b>	24	27	14	65
<b>Adb+ aditziz</b>	2	14	8	24
<b>Obj + aditziz</b>	12	7	44	63

21. taula: Ad-iz buru duten EUSBen EST jatorria

Aditz-izen soilak hitz soilak direnez, beste izenen antzeko jokabidea erakusten dute: kasu askotan, erdarazko izen soilen baliokide baitira.

Beste aldetik, deigarria iruditzen zaigu zenbat aldiz dagoen egitura bikoitza (*ad-iz + adb* edo *adi-iz + obj*) erdal hitz soilaren baliokide gisa. Adberbioidun egiturei dagokienez, sakonduko dugu adberbioak aztertzerakoan. (infra 6.1.3.6. eta 6.1.5.)

Azken iruzkina aurreko taulari buruz: *aditz-izena + objektu* egitura, hirutik bitan erdarazko *iz + prep + iz* egituratik dator, eta lehen izen hori, aditzetik eratorritako izana da.

## 2.2.2.- Aditz-sintagmak.

Erdarazko termino juridikoen baliokideak mugatzerakoan, hainbat kasutan aditz jokatua eta haren osagarriek osatutako multzoa, aditz-sintagma, aukeratu dugu. Horiek lematizatzerakoan partizipio burutua hartu dugu.

Esan bezala, hainbat izen-sintagmaren barnean ere agertzen dira adizkiak eta aditz-sintagmak. Hemen jaso ditugunak ezin dira izen baten mendera bildu, eta aditz jokatuaren inguruan eratu dira.

Batzuetan, (ik. 23. adib)testuinguruan nahiko argi ikus daiteke aditz soila dela espainierazko terminoaren baliokidea (a), (b) eta (c), baina beste batzuetan, aditz-sintagman objektua den IS sartu dugu (d), (e), (f), (g), edo besteetan, adberbioren bat (h), (i), (j), edo beste elementuren bat.

(23)

(a)	37	<i>bahitu</i>	embargar
(b)	79	<i>eskatu</i>	requerimiento
(c)	8103P	<i>jakinarazi</i>	notificación
(d)	37	<i>argibidea iriki</i>	instruir expediente
(e)	8312P	<i>kalteegatik ordaina eman</i>	indemnización
(f)	8312P	<i>adierazpena egin</i>	notificación
(g)	9104P	<i>errekurtsua egin</i>	interponer recurso
(h)	78	<i>hauzibidez eraman</i>	sustanciar
(i)	8312P	<i>egintza-bidetik jo</i>	ejercicio de acciones
(j)	8506P	<i>zahar-saritura egon</i>	jubilación
(k)	37	<i>deuseztutat jo</i>	derogar

### 2.2.2.1.- Aditz-sintagmak: agerpenak eta kopuruak

Ondoko taulan ikus daiteke garaiz garai aditz-sintagmen artean sailkatu ditugun EUSBen kopuruak eta ehunekoak.

	AS	%
<b>A garaia</b>	29	8,97%
<b>B garaia</b>	12	5,21%
<b>C garaia</b>	68	5,29%
<b>D garaia</b>	100	9,79%
<b>Guztira</b>	209	7,31%

**22. taula: AS kopuruak eta ehunekoak**

Ehunekotan, A eta D garaiak antzekoak dira, eta beste aldetik B eta C garaiak ere bai.

### 2.2.2.2.- Aditz-sintagmen motak

Puntu honen hasierako adibideetan azaldu dugunaren arabera, lau multzo egin ditugu aditz-sintagma diren EUSBak sailkatzeko, edo hobeto esateko, hiru multzo eta “zaku” bat.

- Aditz soila direnak
- Aditza + objektu den izen-sintagma, (+ adb) osaturikoak
- Aditza + adberbioa osaera dutenak
- Besteak

Ondoko taulan ikus daitezke multzo bakoitzeko kopuruak garaiz garai

	ad soil	ad+IS+()	ad+adb	Besteak	Guztira
<b>A garaia</b>	7	15	6	1	29
<b>B garaia</b>	4	2	4	0	12
<b>C garaia</b>	26	29	17	8	68
<b>D garaia</b>	24	33	23	4	100
<b>Guztira</b>	61	79	50	13	209

**23. taula: Aditz-sintagma diren EUSBak sailkaturik**

### 2.2.2.3.- Nondik datozen

Ikus dezagun ondoren ESTetako zein egituretan daukan sorburua aditz-sintagmen multzo bakoitzak

#### 2.2.2.3.1.- Aditz hutsen sorburua

Lehen taula honetan ikus daiteke aditz huts diren 61 EUSBen sorburua garaiz garai.

	EST Izena	EST Aditza	Besteak
<b>A garaia</b>	3	4	
<b>B garaia</b>	3	1	
<b>C garaia</b>	16	7	
<b>D garaia</b>	19	3	
<b>Guztira</b>	41	15	5

24. taula: Aditz hutsa diren EUSBen EST jatorria

ESTetan aditzak gutxi direnez, espero zitekeen bezala, izena edo IS da euskarazko aditz gehien sorburua. Jakina, izen hori nominalizazioa da gehienetan, *-ción* atzizkidunak oso ugari direlarik. Ikus ondoko adibideok

(24)

37	<i>egiztatu</i>	justificar
37	<i>baitu</i>	embargar
79	<i>subrogatu</i>	subrogación
79	<i>aldarrikatu</i>	promulgación
79	<i>eskatu</i>	requerimiento
8103P	<i>jakinarazi</i>	notificación
8103P	<i>eskatu</i>	requerimiento
8201P	<i>atzeratu</i>	mora
8108T	<i>jabetu</i>	ocupación

2.2.2.3.2.- *Ad + IS* egituren sorburua

Honako EST egiturek ematen dituzte *ad+ IS* egiturako EUSBak

	A --EST Izena	B --EST AS.	C --EST iz + prep+ iz	D --EST Izen+ Adj
<b>A garaia</b>	3	10	7	0
<b>B garaia</b>	0	1	1	1
<b>C garaia</b>	8	9	6	4
<b>D garaia</b>	7	7	10	6
<b>Guztira</b>	18	27	23	11

25. taula: Ad + IS diren EUSBen EST jatorria

Hona sorburu bakoitzeko adibide batzuk :

(25)

A	8906P	<i>seme-alabaren bat hartu</i>	adopción
	9306P	<i>Arau-haustea behin eta berriro egin</i>	reiteración
B	36	<i>epai-arazoa argitu</i>	instruir sumario
	8108T	<i>goradeia sartu</i>	interponer recurso
	8108T	<i>hutsunea bete</i>	cubrir vacante
C	8110P	<i>legebideak egin</i>	ejercicio de acciones
	8332P	<i>eginkizunak bete</i>	cumplimiento de deber
	8503P	<i>ekintza egipideratu</i>	ejercicio de acciones
D	9412P	<i>erregistroan izena eman</i>	inscripción registral
	9207P	<i>jabetza derrigorrez kendu</i>	expropiación forzosa

ESTan izen soil bat eta EUSBan aditz-sintagma aurkitzen dugularik, parafrasi baten aurrean gaude. Gainerako kasuetan, terminoetan hain ugari den

bitasuna bi hizkuntzetan ageri da, baina aditzaren erabilera garai guztietan handiagoa da euskaraz gaztelaniaz baino.

### 2.2.2.3.3.- Aditza + adberbio egituren sorburua.

Hona garaika, sorburuak eta kopuruak

	A --EST Izena	B --EST Aditz soila	C --EST iz + adj	Besteak
<b>A garaia</b>	2	4	0	
<b>B garaia</b>	1	2	0	
<b>C garaia</b>	6	4	6	
<b>D garaia</b>	12	3	7	
<b>Guztira</b>	21	13	13	3

26. taula: Ad++ adb diren EUSBen EST jatorria

Hona jatorri bakoitzeko adibide batzuk.

(26)

A	36	<i>derriorrez artu</i>	expropiación
	79	<i>auzitan sartu</i>	procesamiento
	8506P	<i>zahar-sarrituta egon</i>	jubilación
B	78	<i>deusestaturik utzi</i>	derogar
	78	<i>hauzibidez eraman</i>	sustanciar
C	9412P	<i>erregistroan sartu</i>	inscripción registral
	9203F	<i>erabilpenez eskuratu</i>	prescripción adquisitiva
	8906P	<i>aurrekontuetan diruz hornitu</i>	dotación presupuestaria

Hala jatorrian izen soila duenean nola aditz soila duenean (aditza + adberbio egiturako ESTrik ez dagoenez), beti gertatzen da euskarazko bi edo hitz gehiagoren bidez gaztelaniazko hitz bakarraren esanahia adieraztea. Horrek esan nahi du EUSBan ESTaren azalpen moduko bat irakurtzen dela.

### 2.2.3.- Besteak: adjektibo- sintagmak, bestelakoak

ESTetik abiatuaz euskal segmentu baliokideak mugatzerakoan hainbat kasutan zailtasunak izan ditugu itzulpen-baliokidetzak aldaketa-gramatikal handien bidez bilatu direlako. Hortaz, ez izen-sintagmen artean, ez aditz-sintagmetan sailkatu gabeko hainbat EUSB geratu zaigu. Hona kopuruak.

	Besteak
<b>A garaia</b>	11
<b>B garaia</b>	1
<b>C garaia</b>	23
<b>D garaia</b>	14
<b>Guztira</b>	49

27. taula: Bestelako egiturak

Horien artean egin daitezke halako multzo batzuk, esate baterako, adjektibo-sintagmak, ondoko adibideon gisakoak:

(27)			
	37	<i>nekaldu</i>	inculpado
	79	<i>ez-konpatible</i>	incompatibilidad
	8102R	<i>errudun usteko</i>	inculpado
	8510T	<i>lege-indarrik gabeko</i>	nulo de pleno derecho
	8504T	<i>erabat lege-indarrik gabeko</i>	nulo de pleno derecho
	8805P	<i>herriarentzat baliagarri</i>	uso público
	9005P	<i>zigortu</i>	condenado

Kasu bakar batean,—28. adibideko (a)— aurkitu dugu izenaren mendeko perpaus konpletiboa; beraz, izen-sintagmen artean sailka daitekeena. Baina beste kasu askotan, zalantza ugari izan dugu segmentu batzuk sailkatzeko. Batzuetan, itzulpen-akatsa dago (b), besteetan, itzultzaileak erabilitako parafrasi-teknikak mugapena zaildu egiten du, eta segmentu-mota oso desberdinak ematen dituenek, ez gara gehiago sailkatzen saiatu. horrelakoen lagin batzuk (28c), (28d) eta (28e) lerroetan ditugu.

(28)			
a)	9003p	<i>esku ematea aski delako egiaztapen</i>	bastanteo de poder
(b)	8503P	<i>"defensor del pueblo"</i>	defensor del pueblo
(c)	9605P	<i>Erabakia hartzeko izandako arrazoiak azaldu beharko ditu</i>	resolución motivada
(d)	8906P	<i>egitekoak betetzeko etengabe gai ez denean</i>	incapacidad permanente
(e)	9412P	<i>x du, eta ez beste inork, aginpidea</i>	competencia exclusiva

Azpitarratzekoa da sailkagaitzetako gehienetan aditz-sintagmak egotea.

## 2.3.- Ondorioak

### 2.3.1.- ESTen egiturak eta EUSBenak oro har

Ondoko bi tauletan biltzen dira hala ESTen nola EUSBen egiturak, konparazio orokorra egin ahal izateko.

EGITURAK	Kop.	Egiturak	Kop.	%
<b>IS</b>	849			96,47%
		iz	215	24,41%
		iz+ adj	361	41,02%
		IS + prep + IS	273	31,02%
<b>ad / AS</b>	25			02,93%
<b>adj</b>	6			0,68%
<b>Guztira</b>	880			

28. taula: ESTen egiturak

<b>Egiturak</b>	<b>Kop.</b>	<b>Egiturak</b>	<b>Kop.</b>	<b>%</b>
<b>IS</b>	2632			92,09%
		izen bakunak	402	14,65
		izen elkar	939	32,85
		iz + izond.	268	9,1%
		Izlg + iz	964	37,72
		Erl. Perp + iz	48	1,67%
<b>AS</b>	209			7,31%
<b>Adjektiboak</b>	10			0,34%
<b>Besteak</b>	39			1,25%
<b>Guztira</b>	2.858			

29. taula: EUSBen egiturak

Hona, gure ustez, taula horiek erakusten dituzten berdintasun eta ezberdintasun nagusiak:

Bietan dago izen-sintagmaren nagusitasun handia, baina euskarazkoan aditz-sintagmen presentzia ehunekotan, erdarazkoetakoa baino bi bider eta erdi handiagoa da.

Izen-sintagma diren egituren banaketa aski desberdina da.

Badira bi egitura paraleloak direnak: izen bakuna eta izen + adjektibo.

Izen bakunari dagokionez, ehunekoak oso desberdinak dira bi hizkuntzetan: ia laurdena izen bakuna da ESTetan, eta %15era ez dira iristen osaera hori duten EUSBak. Horren arrazoiak hainbat dira eta garrantzitsua iruditzen zaigu kontuan hartzea elkartetzat jo ditugun batzuek lexikalizazio-maila handia daukatenak (*oinordeko, langile, hutsegite, lantoki, eskubide, zuzenbide, burujabe...*) izatea, baina halaz eta guztiz ere, badirudi ondoriozta daitekeela hitz bakun gutxiago dagoela euskaraz, gaztelaniaz baino, adigai juridikoak adierazteko ahalmen osoz.

Beste egitura paraleloa izen + adjektibo egitura da. Horretan bereziki, bi hizkuntzetako ehunekoak oso desberdinak dira: %9 euskaraz eta %41 espainieraz. Aztertu dugu zer bihurtzen diren egitura paraleloa ematen ez duten ESTak, eta ez dugu hemen xehetasunez errepikatuko; gogora dezagun, hala ere, zein maiztasun desberdina duen egitura horrek garai batetik bestera, eta zenbat kasutan *iz + izond* egiturako izenondoa maileguzkoa den<sup>9</sup>.

Paraleloak ez diren egituretan, hitz-elkartea, edo zehatzago esanda, izen-elkartea, oso ugaria da euskaraz: ia EUSB guztien herena hitz-elkartea baita. Hemen ere, seinalatzekoa da nolako aldaketa dagoen garai batetik bestera hitz-elkarteen erabilerari dagokionez, eta nolako korrelazioa dagoen hitz-elkarteen eta

'izen + adjektibo' egituren artean: zenbat eta hitz-elkarte gehiago hainbat eta adjektibo gutxiago, behin eta berriro ikusiko dugunez.

Izenlagunak eta izenak eratzen duten egitura ere euskararena bakarrik da. Ikusi dugunez, bera da ugarien agertzen dena: hiru segmentutik batek egitura hori baitauka. Jatorriari buruz, %60an *iz + adj* egiturako ESTetatik datoz; beraz, corpusari dagokionez esan daiteke *Izlg + iz* egitura dela gaztelaniazko haren ordain normalena. Izenlaguna oso egitura irekia denez, barnean era askotako osagaiak eta egiturak onartzen ditu. Horien artean bereizirik aztertu ditugu aditz-sintagma daukatenak.

### 2.3.2.- Aditzaren eta aditz-sintagmaren presentzia ugaria

Aditzaren presentzia ESTetan aditz-sintagmetara mugatzen da hertsiki; hortaz, nahikoa da aditz-sintagmak aztertzea aditzarena egiteko. EUSBetan, aditz-sintagmak askoz ugariagoak dira, baina, gainera, izen-sintagma diren hainbat egitura desberdinetan ere agertzen da aditza:

**Izen-sintagmak izan arren, burua aditz-izena izaki, aditz-sintagma baten buru denean.** Aski emankorra da egitura hau, eta gainera, azken garaietan erabilera areagotu egiten da. Sorburuari buruz, hala aditz-izen soilak nola adberbioz lagundurikoak oso maiz dira izen soilaren ordain, eta aditz-izena bere objektuarena egiten duen ISren laguntzaz doalarik, gehienetan *iz. + prep + iz* egiturako EST bat izaten du itzulpen-jatorrian. Proporzio handi batean, gainera, erdal sekuentziako bigarren izena aditzetik eratorritako izena, edo nominalizaioa izaten da.

**Aditz-izenaren ganean eraturiko izenlagunetan.** Egitura honetan ere, aurreneko garaietan bat ere ez agertzetik gero eta ugariago izatera igarotzen da. Dauden 50 agerpenetatik 25etan, sorburua *iz + adj* egituran dago, eta 19tan *iz + prep + iz*. egituran. Aurrekoan bezala, azpimarratzekoa da aditzetik eratorritako izenen nahiz adjektiboen presentzia ugaria ESTetan. Beste aldetik gure datuen arabera, egitura honen ezaugarri garrantzitsua da trukagarritasuna: hainbat kasutan EST baten baliokidea *ad-iz + -ko + iz* dagoelarik, badaude beste egiturako EUSBak haren baliokide; gehien errepikatzen diren alternantziak, [*aditz-izen + izen*] elkarreak, eta [*aditz-izen+ -ko*]<sub>Izlg</sub> + *izen* izanik. Horietako izenlagun batzuk aski luzeak eta konplexuak dira: termino-itxurako izendapenak baino gehiago adigaiaren azalpenezko parafraziak osatzen baitira.

**Partizipio-adberbioen ganean eraturiko izenlagunetan, edo 'erlatibo laburtuetan'.** Egitura honetako EUSBak %82,5an *iz+ adj* egiturako EST baten

---

<sup>9</sup>Kapitulu honetako 6.2. puntuan aztertzen dugu xehetasun gehiagoz adjektiboei, eta bereziki adjektibo erreferentzialesi dagokiena.

ordain dira, adjektibo hori, gehientan, partizipioa, hots, aditzetik eratorria izanik. Bestalde, azpimarratzekoa da sorburuan egitura hori ez dutenak oso nabarmenki azalpenezko parafrasiak izatea.

**Izen-sintagmaren osagarri bezala dauden perpauk erlatiboetan.**

Inguruko hizkuntzetako terminoetan ez da, ohikoa perpauk erlatiboa, eta gure corpuseko ESTetan ez da bat ere aurkitzen. EUSBetan ez dira ugari, baina 48 agerpen, hau da, %1,67 ez da baztertzeko moduko kopurua. Aurrekoetan bezala, perpauk erlatiboen adjektibo funtzioa oso argi geratzen da hizkuntzen arteko konparazioa eginda ere: 31 kasutan, *iz + adj* egiturako ESTa baitago. Gehienetan erlatibozko perpausa, erdal adjektiboaren parafrasi modukoa da.



### 3.- HITZ-ELKARKETA EUSKAL SEGMENTU BALIOKIDEETAN

#### 3.1.- Sarrera

Jakina da hitz-elkarketa euskararen tresnarik indartsuenetakoa dela hitz berriak eratzekorakoan; eta gure zerrendetan, lehen behaketatik baiesten da lanabes horren balioa.

Termino juridiko berri askoren moldaketan hitz-elkarketak duen presentzia nabarmena da, jadanik EUSBen egitura osoa aztertutakoan (supra 2.2.1.2.) egiaztatu genuenez; baina hitz elkartuen presentzia ez da horretara mugatzen, EUSBaren edozein ataletan agertzen baitira. Aipatu puntuan (6. taulan) irakur dezakegu 939 direla egitura hori duten EUSBak, baina, ondoren xehetasunez azalduko dugun bezala, guztira aztertzen ditugun 2.858 terminoetako 1.400etan badago hitz-elkarteren bat, eta oro har, 1.900dik gora elkarte-erlazio daude. Gure aztergaia puntu honetan, beraz, 1.900 elkarte horiek dira.

Azterkizunaren abiapuntu bezala (3.2.), labur-labur azalduko dugu zer den kontuan hartzen dugun elkarketa, eta nola baliatzen ditugun Euskaltzaindiak argitaraturiko lanak gure azterketaren marko teoriko gisa.

Ondoren (3.3. puntuan), Euskaltzaindiaren LEF batzordearen lanari jarraiki, saiaturiko gara EUSBetan agertutako hitz elkarteak sailkatzen, garai bakoitzean agertu diren mota bakoitzeko kopuruak zehazten, multzoak handiegiak ez direnean elkarte desberdin guztien berri ere ematen, eta elkarte-mota horrek corpusean duen presentzia edo presentzia-ezaz iruzkinak egiten.

Baina EUSBetako elkarteak ez dira beti bi hitzez osaturikoak. Hain zuzen ere, berrelkarketaren erabilera ugaria agertzen da euskal terminoen zerrendan, eta use izan dugu interesgarria dela aztertzea nolakoak diren elkarketa konplexu horiek, eta zein kasutan, eta nolako erdal terminoei erantzuteko eratzen diren horrelakoak.

Beste ataletan bezala, azterketa koantitatiboak, (kopuru absolutuak eta ehunekoak) eta koalitativoak egingo ditugu, garaien arteko berdintasunak eta diferentziak aztertuaz, eta erdal sorburuan dauden ESTekiko erlazioak landuaz.

## 3.2.- Hitz elkartuak euskaraz: hurbilketak, nozioa, eta sailkapenak

### 3.2.1.- Hitz elkartuen inguruko ikerkuntza

Paninik antzinatean egindako azterketa eta sailkapen ospetsuez geroztik hitz-elkarketa gramatikari eta ikertzaile askoren lantegi izan da. Hizkuntza askotan, eta bereziki ikerketa linguistiko gehien-gehien oinarri bilakatu den ingelesean, hitz-elkarketa, tresna lexikogenetiko emankorra izanik, euskara, beste hizkuntzetako ikerketez baliatu ahal izan da neurri handi batean.

Euskal gramatikarien artean, aipagarriak dira Campionek (1884), Uhlenbeckek (1911), Azkuek (1923) eta Lafittek (1944), autore —nolabait esateko— "zaharren" artean, hitz-elkarketaren azalpenari egindako ekarpenak eta bide-urratzeak. Guregandik gertuago, eta azken urteotako loraldiaren aintzindari gisa aipatu beharrekoa da, Villasanteren (1974) lana, Mujikarena (1982) ahaztu gabe.

Dena den, esan behar da, bestelako maila erdietsi dutela euskal morfologiari, eta bereziki hitz-elkarketari buruzko lanak 1980.eko hamarkadan sartuta, Euskaltzaindiaren eraginez edota haren inguruan aztergai horiei ekin zitzaienean. Aurrerago esan dugun bezala, beste hizkuntzetako ekarpenak erabakigarriak izan dira euskal hitz-elkarketari buruzko ikerkuntzak egin dituen aurrerapenetan.

Euskaltzaindiaren garai bateko Lexikologiazko Erizpideak Finkatzeko (LEF) batzordean aritutako guztien izenak izango lirateke aipagarri, askoren lanaren emaitza baitira LEF Batzordearen *Hitz Elkarketa 1, 3 eta 4* liburuak, baina gure ustez, Miren Azkarate, batzorde horretako partaidea, *Hitz- Elkarketa /3-*ren moldatzailea eta beste liburu eta artikulu anitzen egilea izan da euskal hitz elkartuen ikerkuntza benetako maila nazioarteko homologagarrian ipini duena, eta guretzat gidaritza berezia izan dena.

### 3.2.2.- Adigaia zehazteko zailtasunak

Hitz-elkarketaren definizioa eta sailkapena, ez dira, inondik ere, gai baketsuak eta behin-betiko garbituak.

'Hitz' adigaia bera definigaitza denez, hitz elkartua zehazki definitzeko egin diren saioek alde batetik edo bestetik huts egiten dutela esan daiteke. Saio teoriko askoren porrotaren adierazgarri izan daiteke Bauer-ek (1983:11) ematen duen eta Azkaratek (1990:17) jasotzen duen definizio "gordina": "*Compounding or composition, is, roughly speaking, the process of putting two words together to form a third*", nahiz eta Bauer-ek berak (1988:239) urte batzuk beranduago

dirudenez ontzat emandako beste definizio honek, funtsean bide beretik jotzen duen: "*Compounding is the formation of new lexemes by adjoining two or more lexemes*"

Dena den, ez da gure eginkizuna definizio zehatz batera iristen saiatzea. Are gutxiago ikusirik Azkaratek (1990:15-49) hitz elkartearen definizio zehatzaren bila egindako ikerkuntzan irizpide fonologikoak, morfologikoak, eta funtzioari nahiz esanahiari dagozkionak erabili ondoren hitz-elkartearen muga zehatzak marrazteko ezintasuna erakutsi zuela, eta hark hitz-elkartearen eta beste zerbaiten mugan kokaturiko gehienak, guztiak ez bada, LEF batzordeak, *HE4*an, hitz-elkarte gisa tratatzen dituela.

### 3.2.3.- Zenbat elkarketa

Ondoko taulan EUSBetako elkarketa-erlazioez hainbat zifra ematen da. Lehen zutabeetan, garai bakoitzeko EUSBen kopurua gogoratzen da. Bigarrenean, horietako zenbatetan dagoen elkarteren bat, zenbaki absolutuetan eta ehunekotan. Hirugarrenik, EUSB batzuetan elkarte bat baino gehiago dagoenez, garai garai zenbat elkarte dagoen adierazten da, aurrekoan bezala, zenbaki absolutuetan eta ehunekotan.

	EUSB guztira	Zenbatetan elkarketa		Zenbat elkarte	
		Kopurua	%	Kopurua	
<b>A garaia</b>	323	186	57,58	252	
<b>B garaia</b>	230	80	34,78	84	
<b>C garaia</b>	1.284	733	57,08	1.014	
<b>D garaia</b>	1.021	462	45,24	618	
<b>Guztira</b>	2.858	1.461	51,19	1917	67%

**30. taula: Zenbat elkarte; zenbat elkarketa.**

Honako puntu hauek azpimarratuko genituzke:

Lehenik eta behin, elkarketak duen presentzia handia: ia EUSBen erdian bada elkarketaren bat, eta elkarketen kopuru totala, EUSBen kopuruaren %67 da.

Garai bateko eta besteko kopuruak konparatuaz, deigarria da A garaian eta C garaian dauden proportzio handiak. Izan ere, bi garai horietan, ia hamarreko seitan bada elkarteren bat. Proportzio horiek, beste garaietakoak baino askoz handiagoak dira.

B garaian berriz, elkarketen proportzioak zeharo gain behera egiten du. Garai hau da atipikoena ikuspegi honetatik.

D garaian elkarteak EUSBen osagai guztiz garrantzitsuak badira ere, C garaiarekin alderatuta nabarmen gutxiago erabiltzen da baliabide lexikogenetiko hau.

Beste aldetik hainbeste EUSBtan elkarte bat baino gehiago egotea ere kontuan hartzekoa iruditzen zaigu. Hain zuzen ere, kapitulu honetako 3.4. atalean ekiten diogu aztergai horri.

### 3.3.- EUSBetako elkarteak LEFeko sailkapenaren arabera

Esan bezala, HE4 liburuan LEF elkarteak egindako sailkapena jarraitzen dugu corpusean aurkituriko hitz-elkarteak aztertzerakoan. Sailkapen horretan, irizpide zabala, baina ez zernahikeria, erabiliaz, hitz-elkarketaren ezaugarri guztiak edo batzuk dauzkaten egiturak biltzen dira, Miren Azkarateren tesi-lanean (Azkarate 1990) eta LEF batzordearen aurreko lanetan agertzen diren hainbat arazo teoriko erabakizun utzirik.

Esate baterako, hamazazpi multzoko sailkapenean toki egin zaie bi osagaietako bat edo biak benetako hitzak ez diren hots-multzoez osatutakoei (“16: *Sinbolismo fonetikoak eta hots-uztardurak*”), hitz elkartearen ezinbesteko baldintza teorikoa —hitzez osaturik egotea— betetzen ez duten arren. Mugatzailean edo mugakizunean erdi-hitz erdi-atzizki duten guztiak (*gain-, aurre-, -aurre, -alde...*) hitz elkartzat onartu dira, menpekotasunezkoen barruko azpisail bereziak osatuaz. Egitura sintaktikoaren eta lexikalaren artekoak diren aditz-esapideak eta postposizioak ere sartu egin dira.

Beste aldetik, 17 multzotan aurkezten dira, itxuraz oso irizpide-sailkapen deseberdinak erabiliaz batetik bestera; ez da ageri, lehen begiraldian, sailkatze-irizpide hierarkikorik, baina aurretiko ikertzaileek landutakoak, LEF batzordeak berak *HE1* eta *HE3* liburuetan jasoak, bereziki Miren Azkaraterenak (1990).

Ondoko lerroetan, bada, 17 ataleko sailkapen horren arabera aztertuko ditugu corpuseko hitz-elkarteak. Atal bakoitzari dagokionez, taula batzuetan emango dugu garaika bereizirik zenbat hitz-elkarte dauden mota horretakoak. Agerpen horiek gehiegi ez direnean saiatuko gara zehazten elkarte desberdin bakoitza zein garaitan eta zenbat aldiz agertzen den.

Horrela, garai bakoitzeko joerak —bereiz badaitezke—, elkarte-mota bakoitzak corpuseko lege-testuetan duen erabilera, ageri daitezkeen zalantza-puntuak, eta erabilerari edo balioari buruzko iruzkinak egingo ditugu.

### 3.3.1.- Bikoiztapenak<sup>10</sup>

Sail honetan, HE4ko sailkapenari jarraiki, amredita arruntak, *etxez etxe*, *aurrez aurre*, bezalakoak, eta indargarriak, *bete-bete* bezalakoak, sartu ditugu.

Ondoko taulan, garai bakoitzean agertzen direnen kopuruak eta osatzen diren hitz desberdinak ikus daitezke.

	<b>Kopuruak</b>	<b>desberdinak</b>
<b>A garaia</b>	1	aurrez aurre
<b>B garaia</b>	0	
<b>C garaia</b>	12	etxetik etxe (3) bete-bete(1) behin-behingo (8)
<b>D garaia</b>	2	etxez etxe, behin-behingo
<b>Guztira</b>	15	

**31. taula: Bikoiztapenak**

#### 3.3.1.1.- Iruzkina

Urria da mota honetako elkarte desberdinen presentzia. Izan ere, 8 bider errepikatzen da *behin-behingo* eta 3 *etxetik etxe*. Hain gutxi direnez zaila da garaikako erabilerari buruzko ondorioak ateratzea.

HE4ko sailkapeneko 1.3 *gorri-gorri(a)* moduko indargarrien bi agerpen desberdin besterik ez izateak badu erlaziorik, EUSBen izaerarekin. Izan ere, aski lexikalizatuak dauden *behin-behineko* bezalako batzuk kenduz gero, osaera horretako bikoteak egokiagoak dirudite hizkera-maila informaletarako gure corpusa osatzen duten izendapen terminologikoetarako baino.

Esan dugunaren frogagarri, gehien errepikatzen dena *behin-behingo* adizlagun bikoiztu jantzia, (*Hiztegi Batuan* 'behin-behineko' forman jaso), eta horrez gainerako bakarra, *bete-bete* hain zuzen ere, terminologizatu gabeko itzulpen azalpenezko batean ageri izatea:

(29) 8102R *legea hausten bete-bete harrapatutakoan* flagrante delito

#### 3.3.2.- Dvandvak

Ondoko taulan, garai bakoitzean agertzen diren dvandven kopuruak, eta osaera desberdinak ematen dira.

<sup>10</sup> Ondoko epigrafeetan erabiltzen dugun zenbakikuntza-sisteman 3.3. zenbakien ondotik doana, HE4 liburuko sailkapen-zenbakiei egokituko zaie. Hortaz, (3.3.11.)tik aurrerako zenbakikoetan, ohiko zenbakikuntzan salbuespena egiten dugu, azpi-epigrafeak ez doazelako modu korrelatiboan, baizik eta LEF 4ko sailkapen-moduari jarraituz.

	<b>Kop</b>	<b>desberdinak</b>
<b>A garaia</b>	24	hartu-eman (1), sal + eros osaera dutenak (23)
<b>B garaia</b>	0	
<b>C garaia</b>	5	galera-irabazi (1), galdu-irabazi (1), seme-alaba (1), eztabaida (2)
<b>D garaia</b>	3	saleros (2), seme-alaba (1)
<b>Guztira</b>	33	

32. taula: Dvandvak

### 3.3.2.1.- lruzkinak

Elkarte-mota honen presentzia ere ez da ugaria, bereziki kontuan hartzen badugu gehienak errepikatuak direla, batez ere, *sal + eros* adizkiez osaturiko 25ak.

1936-1937 garaikoak oso ugari badirudite ere, bi osaera desberdin bakarrik daude: aipatu *sal + eros* eta *hartu + eman*.

*Sal* eta *eros* adizkiez eratutakoei buruz badago zer esana, izan ere, A garaian ondoko zerrendako (34) hitz desberdin hauek guztiak aurkitu baititugu, nahiz eta egia esan errepikatuenak *saleroste* (12) eta *salerosketa* (4) izan. Horietako batzuk, (*saloste*, *salostari*, *salostelari*) nabarmenki arauz kontrakoak dira, eta erabat baztertu dira egungo erabileran. Osaera berekoak (*sal + eros*) ere aurkitzen ditugu hurrengo garaietan, bi bider.

(30)

<i>salerosketa</i>	<i>salerosketalari</i>	<i>saleroste</i>
<i>salerostelari</i>	<i>salerostegi</i>	<i>salerosle</i>
<i>saloste</i>	<i>salostari</i>	<i>salostelari</i>

Beste garaikoetan ez dago ugaritasun handirik: *seme-alaba* (3), *galera-irabazi* (1), *galdu-irabazi* (1) eta guztiz lexikalizaturiko *eztabaida* hitza.

### 3.3.3.- Bahuvihi-motakoak

Mota honetakorik ez dugu aurkitu. Kontuan izanda elkarte horien izenondo-izaera, eta adibidetegietan agertzen diren gehien-gehien hizkeramaila lagunartekoa (maiz ironikoa) ez da harritzekoa horrelakorik ez aurkitzea terminologia juridikoan<sup>11</sup>.

<sup>11</sup>Nahiz eta, beste hizkera teknikoetan, batez ere natur zientzietako arlo batzuetan ugarixko sortu diren bahuvihi berriak.

### 3.3.4.- Izaera-elkarteak

Aditzoina edo partizipioa + '-gaitz' edo '-ezin' dira hemen jaso ditugun elkarteen osagaiak.

	Kop	Desberdinak
<b>A garaia</b>	1	igikaitz (1)
<b>B garaia</b>	1	mugikaitz (1), elkarezintasun (1), bateraezin (1)
<b>C garaia</b>	8	ukiezin (1) elkarrezin(1), elkartuezin (2), mugiezin (2), bateraezinarau (1), bateraezin (1)
<b>D garaia</b>	3	aldaezintasun (1), higiezin (1), elkartezintasun (1)
<b>Guztira</b>	13	

**33 taula: Izaera-elkarteak**

#### 3.3.4.1.- Iruzkinak

Izaera-elkarteak izenondo baliokoak dira, gure adibideetako gehienetan egiazta daitekeenez.

Hainbat kasutan, ordea, izen baliokoak dira egitura honetako elkarreak; gaztelaniazko '-idad' bukaera duten hainbaten baliokide agertzen dira:

(31)

8102R	<i>ukiezin</i>	inmunidad
8104P	<i>elkartuezin</i>	incompatibilidad
8112P	<i>elkarrezin</i>	incompatibilidad

Corpuseko izaera-elkarreak erdarazko *in* + *aditza* + *ble* edo horren eratorriak itzultzeko erabiltzen dira ia beti, aurreko adibidekoetz gainera ondoko hauek erakusten duten bezala:

(32)

37	<i>ogasun igikaitz</i>	bien inmueble
8201P	<i>ogasun mugiezin</i>	bien inmueble
8503P	<i>bateraezinarau</i>	incompatibilidad
8708P	<i>bateraezintasun</i>	incompatibilidad
9005P	<i>aldaezintasun</i>	inamovilidad
9208T	<i>ondasun higiezin</i>	bien inmueble
9412P	<i>elkartezintasun</i>	incompatibilidad

Osaerari dagokionez, A garaiko 'igikaitz' eta B garaiko 'mugikaitz' kenduz gero, *-ezin* da gainerako guztietan agertzen dena. Oinarriaz den bezainbatean, zalantza nabarmena da, batzuetan partizipioa, eta besteetan aditzoina baita.

Horietako batzuk erabileratik bazter geratu dira, bereziki osaera okerra dutenak, *bateraezinarau* (*izond* + *iz*). Kasu batean agertzen da loturazko >t< lehen osagaiaren eta *ezin*-en artean: *elkartezintasun*.

### 3.3.5.- *Lotsagabe, lo falta* modukoak

Bi modutako elkarteak sartzan ditu LEF-4k multzo honetan: *lotsagabe* bezalakoak eta *lo falta*-ren gisakoak. Bigarren eredukorik ez dugu bat ere aurkitu EUSBetan, ugari samar dira, ordea, *-gabe*-rekin moldatutakoak. Ondoko taulak adierazten dituen kopuruak aurkitu ditugu:

	X+ gabe	X + gabe +tasun	X + gabe +ko	X +gabe+tze
<b>A garaia</b>	2	0	0	1
<b>B garaia</b>		0	0	1
<b>C garaia</b>	1	3	2	20
<b>D garaia</b>		10	7	0
<b>Guztira</b>	3	13	9	22

34. taula: X+gabe elkarteak

#### 3.3.5.1.- lruzkinak

Jasotako guztietan, izena da oinarri. Bakar batean (*etengabe*) zalantza sor daiteke aditzoina ala izena den. Gainerako, agerpen guztietan beste kategoriako zerbaiten oinarri gisa baitago

Bi agerpenetan bakarrik, eta biak A garaikoak (*izenge eta lokabe*), aurkitu dugu *Xgabe* soila izenondo gisa, eta behin (aipaturiko *etengabe*) adberbio funtzioan.

Beste guztietan *Xgabe* hizkiren baten laguntzaz agertzen da. Hiru multzotan banatu ditugu aurkitutakoak:

Izen eratorrien oinarria direnak. Oso gutxi dira, 3 bakarrik, 2 hitz desberdin osatzen direlarik: *axolagabekeria* (2) eta *errugabetasuna*

Partizipioaren edo aditz-izenaren oinarri, *baliogabetze* edo *indargabetu* bezala. Hau da maizen aurkitu duguna: guztira 33 dira, 23 C garaikoak eta 10 D-koak. Dena den honako 8 desberdin hauek besterik ez daude:

(33)

<i>askatasungabetu</i>	<i>eskubidegabetu</i>	<i>iareitasungabetu</i>	<i>jabegabetu</i>
<i>baliogabetu</i>	<i>gaitasungabetu</i>	<i>indargabetu</i>	<i>zergagabetu</i>

Elkarte horien osaeraz, Alberdi, García eta Ugarteburuk (1997:40) bezala, esan beharra dago zalantzarako bidea zabalik dagoela. Esan nahi baita elkarte baten gainean eraturiko hitz eratorriak  $[[\text{balio} + \text{gabe}]_{\text{izond}} + \text{-tu}]_{\text{ad}}$  edo izen batez eta partizipio batez osaturiko aditz-elkarte  $[[\text{balio}]_{\text{iz}} + \text{gabetu}]_{\text{ad,ad}}$  baten aurrean gauden erabakitze zailtasunak daude. *Baliogabetu* aditza, esate baterako, aditz-elkarteen adibidetzat proposatzen du LEF batzordeak (HE4:62) baina Euskara Batuko Hiztegian *baliogabe* izenondoa onartzen da hitz lexikalizatutzat, *jabegabe*



eta *indargabe*-rekin batera. Uste dugu, Alberdi, García eta Ugartebururekin batera, izenondo horren gainean eratua dagoela.

Gainerakoetan *askatasungabe edo zergagabe* bezalako hitzik ez denez erabiltzen beharbada *izen (-ez) gabetu* parafrasa zitezkeen. Azken irtenbide horren alde bultza dezake bi EUSBTan *gaitasun-gabetze* eta *indar-gabetze* idazkera agertzea. Baina hain zuzen ere, ikusi dugu *indargabe* badela lexikalizatutako izenondoa.

Edozein modutan, arazo hori sustraitik garbitzeak ez liguke argitasun berezirik ekarriko, bi egiturek oso-oso antzeko esanahiko hitza sorrarazten baitute.

Bitxitasun moduan atzizki-metaketaren adibide gisa merezi du hemen aipatzea bi EUSBTan aurkitu dugun *Xgabe+ tze+ ra+tze* egitura

(34)

8312P	<i>indargabetzeratzeko aldi</i>	plazo de prescripción
8815P	<i>indargabetzeko epe</i>	plazo de prescripción

Halaber, aipatzekoa da *manu-baliogabetze-ren* kasua, azalpen zailekoa.

*Izena + gabe+ -ko*. Egitura honetakoak ez datoz HE4ko adibideen artean, baina ondoko (36.) adibidean ikus daitezkeenak, hitz-elkartetzat eman daitezke (Alberdi, García, Ugarteburu, 2000:46), sintaxi-egituratzat baino areago, izenondoaren tokian doazelako, eta/edo *-ko* gabekoen aldaeratzat har daitezkeelako.

(35)

<i>erabat eta berez baliogabeko</i>	<i>berez lege-baliogabeko</i>
<i>luzaroko eta etengabeko jaurgo</i>	<i>forugabeko</i>
<i>gaitasungabeko aldarrikatu</i>	<i>lurrealde forugabeko</i>
<i>adingabeko</i>	

### 3.3.6.- Aditz-elkarteak

Aditz elkarteetan bi mota bereiziko ditugu LEF-4-rekin batera, aditz elkarte arruntak deitzen direnak eta aditz-esapideak, ihartuak zein ihartugabeak. Honako kopuruak aurkitu ditugu garaiz garai:

	arruntak	aditz esapideak	Guztira
<b>A garaia</b>	1	6	7
<b>B garaia</b>	3	0	3
<b>C garaia</b>	8	5	13
<b>D garaia</b>	8	3	11
<b>Guztira</b>	20	14	34

35. taula: Aditz-elkarteak

### 3.3.6.1.-Iruzkinak

Gutxi dira corpusean ere, gure hizkuntzan (Azkarate 1990:300), eta beste batzuetan (Bauer 1983:208) ere, oro har diren bezala, agertzen diren aditz elkartuak. 35. taulan emandako kopuruak apaldu egin behar dira, desberdinak, daudenak baino askoz gutxiago direlako, ohi bezala. Gogora dezagun aurreko atalean aztertu ditugula *X+gabe+tu* modukoak; ez gara haietaz berriro arituko hemen.

Lehen multzoan, *etsi* aditzarekin osatutakoak dira gehienak, honako hitz desberdinak osatuz: *zinespen, salbuespen, sendetsi, balioespen, sendespen, sendetsitako, ezetsita*. Azpimarratzekoa da behin ere ez dugula aditz jokatu moduan aurkitu. *Galdu* aditzaz osaturiko bat *indargaltze*, bi bider, *aldatu* aditzaz ere bakarra, *lekualdatze*, eta *berritu* aditzaz *eraberritu*, bi aldiz.

Euskaraz oso usu erabiltzen diren aditz-esapideek ordezkaritza urria daukate gure corpusean: *aurka egin, uko egin, lan egin, porrot egin, berri eman*, eta *hutsegin*, aditz-elkarte iharturikotik eratorri den *hutsegite* izena.

*Baliogabetu*-ren moldekoak, aditz-elkartetzat ere interpreta daitezkeen arren, aurreko multzoan, hau da, *lotsagabe* ereduokoen aztertu ditugu, izenondo elkartu + tu/ tze moduan interpretatuaz.

Ez dugu bat ere aurkitu azken hamarraldietan, ugaritu diren *aurrikusi*-ren modukorik

### 3.3.7.- Sintetikoak

Multzo zabala eta askotarikoa osatzen dute hitz-elkarte sintetikoek euskaran, baita gure corpusean ere; baina nahiko garbi muga daitekeela iritzi ohi zaio talde honi. Izan ere, talde honetakoena parafrasia oso gardena izaten da maiz, eta anbiguotasunrako toki gutxi geratzen da, menpekotasunezko beste gehienetan ez bezala. Elkarteko mugakizunean aditz-erroaren presentzia da horietakoena ezaugarri komuna, aditz horrek agerian uzten duelarik elkartzen diren hitzen arteko erlazio sintaktikoa: horrela '*lege-hausle*' elkartearen parafrasia bera da: *legea hausten duena*.

Baina gure corpusean atzeman dugun arazo bat da morfologikoki sintetikoaren forma berekoak diren elkarte batzuk ezin direla sintetikotzat jo<sup>12</sup>, horrela interpretatzeak batzuetan absurdura daramalako, eta beste batzuetan haien jatorrizko erdal terminoaren esanahiarekin zerikusirik ez duen zerbaitera. Honelakoak ditugu ondoko adibidekoak:

<sup>12</sup>Ez, bederen, *objektu-aditz* motakoen (Azkarate, 1990:276).

(36)

a)	8602P	<i>lege-antolaketa</i>	ordenamiento jurídico
b)	8502P	<i>lege-egiketa</i>	acto jurídico
c)	9504P	<i>herri-erabilera</i>	uso público
d)	8108T	<i>herri-xahupen</i>	gasto público

Horietan eta beste hainbatetan ezinbestekoa da beste interpretazioren batera jotzea, argi baitago mugatzailea ez dela mugakizuneko aditzaren argumentua. Honela, a) adibidearen parafasia ez da *Xk legea antolatzen du*, inolaz ere ezin daiteke ulertu *lege* aditzaren objektu gisa, elkarte sintetikoaren modura.

Arazo horiek hitz gutxi batzuren inguruan biltzen direla sumatu dugunez, horien artezketa berezia kapitulu honetako 5.2, 5.3 eta 5.4. puntuan egiten dugu, eta hortaz, ez ditugu hemen landuko. Ondoko taulako datuak, hortaz, benetako sintetikotzat eman ditugunei soilik dagozkie.

<b>Kopuruak</b>	
<b>A garaia</b>	29
<b>B garaia</b>	7
<b>C garaia</b>	82
<b>D garaia</b>	72
<b>Guztira</b>	200

36. taula: Sintetikoak

## 3.3.7.1.- Ekintza-elkarteak

Hainbat mota desberdinetakoak sartu ditugu multzo honetan. Gehienek, aditzoina + eratorpen atzizki baten bidez eratutako hitza daukate mugakizuntzat. Ondoko taulan biltzen dira garaiz garaiko xehetasunekin guztien agerpenen kopuruak.

	-tze	-keta, -kuntza -pen	-men	-era	-zaintza	-gintza
<b>A garaia</b>	8	0	0	0	6	0
<b>B garaia</b>	1	1	0	0	0	3
<b>C garaia</b>	9	33	1	1	3	17
<b>D garaia</b>	17	19	2	6	2	28
<b>Guztira</b>	35					

37. taula: Ekintza-elkarteak

## 3.3.7.2.1.- Aditzoina +-tze

35 agerpen daukate, baina errepikatuak kenduaz, honako hitz desberdin hauek eratu dira aditz-izen horien bidez:

(37)

<i>agindu-hauste</i>	<i>lege-urratze</i>	<i>oinordetza-kentze</i>	<i>oinordetza-galtze</i>
<i>arau-hauste</i>	<i>gaitasun-kentze</i>	<i>desmen-egite</i>	<i>manu-baliogabetze</i>
<i>lege-hauste</i>	<i>jabegokentze</i>	<i>zerbitzu-egite</i>	<i>dirusari-ordaintze</i>
<i>agintzauste</i>	<i>jabetza kentze</i>	<i>eskuemate</i>	

Azpimarratzekoa da 35 agerpenetatik 33tan ESTan dagoen adigaia hitz bakarrez adierazten dela, ondoko adibideetan ikus daitekeen moduan.

(38)

37	<i>agintzauste</i>	infracción
8102R	<i>legehauste</i>	delito
8314P	<i>nahitaezko jabegokentze</i>	expropiación forzosa
8312P	<i>manu-baliogabetze</i>	derogación
8503P	<i>arduralaritzazko eskuemate</i>	concesión administrativa
8201P	<i>ohar egite</i>	apercibimiento
9411P	<i>lege-urratze larri</i>	falta grave
9412P	<i>gaitasun-kentze</i>	inhabilitación
9203F	<i>oinordetza-kentze</i>	desheredación
9412P	<i>esku-emate orokor</i>	apoderamiento general

Nabarmena da aurreko bost adibideetan sorburuko ESTan hitz bakarra izateak EUSBaren ortografian duen eragina, Alberdi, García eta Ugarteburuk (1977) salatzen duten moduan. Bistan da itzultzaileak hitz bakarrari hitz bakarrez erantzun nahi diola. Hala ere, kontuan hartzekoa da EUSBetan joera horrek ez duela agerpen berririk 1985tik aurrera. Harrezkero, ez da horrelako elkarte gehiagorik agertzen jarraian idatzita, naiz eta marratxoa ez den inoiz ahazten.

### 3.3.7.2.2.- Aditzoina + *-keta*, ; *-pen /men*; *-kuntza*; *-era*

Atzizki desberdin horiez eratutako guztiak batera bildu ditugu. Eratorpenaren azterketan atzizkiak eta euren arteko diferentziak eta diferentzia-  
ezak aztertzen ditugunez, hemen oso antzeko adierako elkarteak osatzen direla ikusirik, bateratzea nahiago izan dugu.

Hona aurkitu ditugun elkarte desberdin guztiak:

(39)

<i>aginte-eskuraketa</i>	<i>zermugapen</i>	<i>hizkuntz normalkuntza</i>
<i>legegintza-osaketa</i>	<i>lege-hauspen</i>	<i>balio-gehikuntza</i>
<i>aginte-eskuraketa</i>	<i>legehauspen</i>	<i>hiri-antolakuntza</i>
<i>diru-eskuraketa</i>	<i>zor-egiaztapen</i>	<i>hitzarmen</i>
<i>jabego kenketa</i>	<i>diru-izendapen</i>	<i>diru-sarrera</i>
<i>kontu-garbiketa</i>	<i>diruizendapen</i>	
<i>hiri-antolaketa</i>	<i>arau-hauspen</i>	
<i>zerga-kudeaketa</i>	<i>lur-sailkapen</i>	
<i>lur-zatiketa</i>	<i>herrizor-Jaulkipen</i>	
<i>tributu kudeaketa</i>	<i>oinordeko-izendapen</i>	
<i>lan-birmoldaketa</i>	<i>jabego-aldakuntza</i>	
	<i>legegintza-garapen</i>	

3.3.7.2.3. izena + *-gintza*; *-zaintza*

- **-gintza**

*-gintza*-ren izaera zalantzarria bada ere, ez baita inoiz forma horretan agertzen hitz beregain gisa, hartaz osaturikoak elkarteen artean estudiatu ohi dira. 37. taulan agertzen denez, agerpen ugari daukate EUSBetan Hona hitz desberdinak:

(40)

<i>araudigintza</i>	<i>epaigintza</i>	<i>hirigintza</i>
<i>legegintza</i>	<i>zerbitzugintza</i>	<i>plangintza</i>

- **-zaintza/ -zaingo**

Hamabost agerpen guztira, baina sei hitz desberdin:

(41)

<i>legezaintza</i>	<i>diruzaintza</i>
<i>txindizaintza</i>	<i>ertzaintza</i>
<i>herri-zaintza</i>	<i>herri-zaingo.</i>

Guztietan, ‘erakundea’ adierako hitzak sortzen dira. *Legezaintza* hitzaren ondoan bada corpusean *lege-zain*, *ertzaintza*-ren kasuan, (h)*ertzain* hitza ere ageri da<sup>13</sup>. Besteetan ez dago horrelakobikoterik.

3.3.7.3.- Egile-elkarteak: *-le*, *-tzaile*, *-dun*, *-zain*.

Ondoko taulan mota horretako elkarteen kopuruak.

	<i>-le</i>	<i>-dun</i>	<i>-zain</i>
<b>A garaia</b>	7	7	1
<b>B garaia</b>	0	2	
<b>C garaia</b>	9	27	4
<b>D garaia</b>	12	16	
<b>Guztira</b>	28	52	5

38. taula: Egile-elkarteak

- **-le edo -tzaile:**

Aurreko taulak erakusten duenez, A garaian aski emankorra da atzizki hau: zazpi agerpenetatik 6 desberdinak dira. Hurrengo garaietan emankortasuna galtzen du, agerpen gehienak *langile* elkarte guztiz lexikalizatuari baitagozkio. Garaitako banaketak ez du, gure ustez, ezer berezirik adierazten, agerpen-tasa normala baita.

Hona garai bakoitzean agertzen diren elkarte desberdinak:

<sup>13</sup>Nahiz eta lau agerpen desberdinetan (*Hertzain*, *Autonomia Hertzaina*, *Ertzaina* eta *Autonomia-Ertzaina*), gaztelaniazko *policía autónoma* (erakundearen izena) ESTaren ordainetan egon.

(42)

A garaia	B garaia	C garaia	D garaia
<i>lege-egile</i>	-	<i>herri-babesle</i>	<i>lege-urratzaile</i>
<i>arau ausle</i>	-	<i>lan-hartzaile</i>	<i>gozamen-jartzaile</i>
<i>agindu-hausle</i>	-	<i>herri-jagole</i>	<i>langile</i>
<i>lege-ematzalle</i>	-	<i>langile</i>	<i>testamentu-egile</i>
<i>lege-ausle</i>	-		<i>arau-hausle</i>
<i>lege-beteerazle</i>	-		

- **-dun**

Aski emankorra da egitura hau garai guztietan ondoko taulak erakusten duenez. 20 elkarte desberdin daude, honela banatuak garaikako agerpenetan:

(43)

A garaia	B garaia	C Garaia	D Garaia
<i>zordun</i>	<i>errudun</i>	<i>errudun</i>	<i>forudun</i>
<i>errudun</i>	<i>autonomiadun</i>	<i>zordun</i>	<i>nortasundun</i>
<i>aldundi</i>		<i>karreradun</i>	<i>senipartedun</i>
<i>eskubidedun</i>		<i>euskaldun</i>	<i>zergadun</i>
		<i>lansaridun</i>	<i>eskubidedun</i>
		<i>kargudun</i>	<i>errudun</i>
		<i>baimendun</i>	<i>autonomiadun</i>
		<i>saridun</i>	<i>interesdun</i>
		<i>legenortasundun</i>	<i>eskuduntza</i>
		<i>autonomiadun</i>	<i>eskudun</i>
			<i>akurapendun</i>
			<i>hartzekodun</i>

Deigarria da D garaian daukan emankortasuna. Izan ere, C garaia izaten da morfologia-baliabideak gehien erabiltzen dituen.

Beste aldetik, azpimarratuko genuke oinarrietan, denetarik dagoela: hitz soilak (*zergadun*), eratorriak, (*akurapendun*), elkartuak (*senipartedun*) eta eraikuntza sintaktiko ihartuak (*hartzekodun*).

- **-zain.**

Multzo berezia osatu dugu *-zain (zai)*-dunekin, nahiz eta multzo txikia izan; lau agerpen desberdin dira guztira, ikusitako *-zaintza*, *-zaingo* kenduta.

(44)

*lege-zain dizuzaitegi*  
*hertzain aurzaitegi*

Azpimarratzekoa da elkarte sintetikoaren izen eratorriak (*aurzaitegi*, *diruzaitegi*), A garaikoak direla. Emankortasun urria, beraz, egitura *-zain*-elkartearena.

### 3.3.8.- Asmo-elkartek

Multzo honetan sar daitezkeen elkarte askorik ez dugu aurkitu; eta aurkitu ditugunak ere zalantzazkoak dira.

Bi hitzez (*zale* eta *asmo*) eraturiko 5 elkarte desberdin besterik ez dira. Ondoko taulan, garai bakoitzeko zenbakiak, eta hitz desberdinak ikus daitezke:

	Kopuruak	elkarte desberdinak
<b>A garaia</b>	2	<i>zorzale, errentazale</i>
<b>B garaia</b>	0	
<b>C garaia</b>	12	<i>egitasmu, irabazasmu, irabazi-asmu</i>
<b>D garaia</b>	0	
<b>Guztira</b>	14	

39. taula: Asmo-elkarteak

C garaikoetan, bi (edo hiru) desberdin besterik ez dira: hainbatetan errepikatzen den *egitasmu*, forma ihartutzat ematen dena, eta bi forma desberdinetan agertzen den *irabaz asmua* / *irabazi asmua* (beti ere, duda geratzen zaigu bigarren forma hau, Hegoaldean aditzoina eta partizipioarekin egiten den nahasketaren ondorioztat eman daitekeen.

### 3.3.9.- Egin berri modukoak

Ez dugu eredu horretako adibide bat ere aurkitu

### 3.3.10.- Jarleku modukoak

*Jarleku* modukoak EUSBetan duten presentzia aztertzerakoan, Hitz Elkartuak 4 liburuak 10. multzoan egiten duen banaketa gure eginez, bi multzo (10.1 'egongela' eta 10.2 'aurkibide') egin ditugu. Hona *aditzoin* + *izen* osaerako elkarteen kopuruak.

	<i>Egongela</i>	<i>Aurkibide</i>	<b>Guztira</b>
<b>A garaia</b>	1	10	11
<b>B garaia</b>	0	2	2
<b>C garaia</b>	5	48	53
<b>D garaia</b>	9	52	61
<b>Guztira</b>	15	112	127

40. taula: Jarleku moduko elkarreak

#### 3.3.10.1.-Egongela modukoak

Hitz elkarte mota hau ez dugu EUSB askotan aurkitu: A Garaian, horrela osatutako bakarra dugu, *salneurri*; bat ere ez B garaian, 5 C garaian eta 9 azken aldian. Azken garai honetako 7 agerpen *egitarau* direla kontuan hartuta, esan daiteke ez duela emankortasun handirik. Hona osaera horretako elkarte desberdinen zerrenda laburra:

(43)

<i>arteztarau</i>	<i>egitarau</i>	<i>izuekintza</i>
<i>agindei</i>	<i>salneurri</i>	<i>trukaneurri</i>

3.3.10.2- *Aurkibide* modukoak

Multzo honetan, HE4ren arabera, aditzoina gehi maiztasun handiz bigarren osagai gisa agertzen den hizki batez osaturikoak sartu ditugu.

Honako erdi-hitz-erdi-atzizkiok aurkitu ditugu: *-gai*, *-aldi*, *-toki*, *-lan*, eta *-bide*. Ondoko taulan ikus daitezke aipatu hizki bakoitzarekin osaturikoen kopuruak.

	<b>-bide</b>	<b>-aldi</b>	<b>-toki</b>	<b>-gai</b>	<b>-lan</b>	<b>Guztira.</b>
<b>A garaia</b>	9	0	0	1		10
<b>B garaia</b>	1	1	0	0		2
<b>C garaia</b>	44	2	1	0	1	48
<b>D garaia</b>	50	2	0	0	1	52
<b>Guztira</b>	104	4	1	1	2	112

41. taula: *Aurkibide* modukoak

Nabarmena da gehien-gehienak *-bide-* rekin osatuak direla, eta oso gutxi beste hitzez; ondokoak soilik dira hitz desberdinak.

- (44)
- |                   |                 |                |                 |
|-------------------|-----------------|----------------|-----------------|
| <i>geldialdi</i>  | <i>ezkongai</i> | <i>saltoki</i> | <i>azterlan</i> |
| <i>utzialdi</i>   |                 |                |                 |
| <i>entzunaldi</i> |                 |                |                 |

Askozaz emankorragoa da *-bide* hizkia. EUSBetako agerpenetan ezaugarri eta arazo berezi batzuk agertzen direla sumatu dugunez, azterketa berezia egiten dugu kapitulu honetako 5. atalean hitz/hizki horretaz, eta berezikiosatzen dituen elkarketaz.

*Bide*-rekikoetan hain zuzen, arazo berezi batekin egin dugu topo elkarte batzuk *aditzoin* + *izen* edo *izen* + *izen* diren erabakitzerakoan. Izan ere, badira dudarik gabe aditzointzat hartu behar direnak hala nola *antolapide* edo *eskabide* elkarteetako mugatzaileak; beste batzuk, adibidez *aburupide* edo *legepide* hitzetakoak, izentzat jo behar diren bitartean; baina beste batzuk, *irizpide*, *zuzenbide*, *argibide* edo *irabazpide* bezalakoak, bi sailetan sar daitezke.

Alde batera edo bestera egiteko arrazoi lexikalik ikusten ez denean gure jokaera izan da mugatzailea aditza izan daitekeelarik aditzat ematea, aurrerago (infra 5.6.2) azaltzen dugunez, horrela interpretaturik argiagoak direlako.

Hona multzo honetan sartu ditugun *-bide*-dunak:

- (45)
- |                  |                    |                   |                 |
|------------------|--------------------|-------------------|-----------------|
| <i>aginpide</i>  | <i>aurrerabide</i> | <i>irabazpide</i> | <i>jaurpide</i> |
| <i>zuzenbide</i> | <i>antolapide</i>  | <i>erabide</i>    | <i>isilbide</i> |
| <i>sorozpide</i> | <i>ihardunbide</i> | <i>argipide</i>   | <i>eskabide</i> |
| <i>izapide</i>   | <i>irizpide</i>    | <i>arkibide</i>   | <i>helbide</i>  |
| <i>jaurbide/</i> | <i>zentsapide</i>  |                   |                 |



### 3.3.10.3.- Iruzkina

Aditzoin + izen osarako hitz elkarteak gutxi dira, bai *egongela* modukoak, bai *aurkibide* modukoak, *bide*-rekikoak kenduz gero.

Kapitulu honetako 3.3.11(2.5) eta 5.6. puntuetan *-pide/-bide* mugakizuna daukaten elkarten hainbat alderdi aztertuko ditugunez, hemen ez gara gehiago luzatuko.

Kapitulu honetako 2.2.2.4. (*-tze*ko izenlaguna) puntuan aztertzen da egitura hartako EUSBen sorburuko EST beraren ordainetan agertzen diren egiturak zein diren. Hain zuzen, *jarleku* moduko esangura aurkezteko parafrasi ohikoena *ad. + t(z)eko + iz* delarik, itzarotekoa da izenlagunaren alboan hitz-elkarte mota hau ugari azaltzea baina ez da horrela gertatzen: *zigortzeko bide /zigorbide* besterik ez baitago.

Halaber, 3.3.11.(1).2 puntuan aztertzen dugu *aditzoin + izen* eta *aditz-izen + izen* elkarten arteko erlazioa EUSBetan.

### 3.3.11. *Eguzki-lore*: menpekotasunezko izen-elkarteak.

HE4 liburuak, 11. multzoan biltzen ditu menpekotasunezko *izen+ izen* elkarteak. Hainbat azpi-multzo egiten ditu bertan LEF batzordeak, morfologiari begira, sintaxi-ingurumenduaren arauz besteak, eta semantikaren ikuspegitik beste batzuk.

Ondoren datozen 3.3.11. zenbakidun epigrafeetan, HE4k menpetasunezko izen-elkarten azpisailkapenerako dakartzan zenbaki berak erabiliko ditugu.

### 3.3.11.(1).- *Behi-esne* modukoak

HE4k *behi-esne* moduko izen-elkarte arruntan artean sartzen dituen artean azpimultzo bat egin dugu mugatzailetzat aditzetik eratorritako izena dutenekin. Horrela jokatzeko arrazoia, aurreraxeago (3.3.11.(1).2. puntuan argituko dugu.

Ondoko taulan ikus daiteke zenbat *behi-esne* moduko izen elkarte dagoen garai bakoitzean. Bi zutabetan bereizi ditugu mugatzailean aditz-izena dutenak eta ezaugarri hori ez dutenak (“arrunt-arruntak”).

	“Arrunt-arruntak”	ad-iz + iz	Guztira
<b>A garaia</b>	101	4	105
<b>B garaia</b>	46	2	48
<b>C garaia</b>	370	28	398
<b>D garaia</b>	202	17	219
<b>Guztira</b>	719	51	770

42. taula: Behi-esne moduko elkarteak

Ondoko lerroetan bi azpimultzo horiek bereizirik aztertuko ditugu.

### 3.3.11.(1.)1. Izen+ izen “arrunt-arruntak”

Gogora ekartzen baditugu atal honen hasieran ikusitako zenbakiak, alderatu ahal izango ditugu elkarte mota hauen eta elkarteen guztizko kopuruak. Hona:

	Elkarteak guztira	iz + iz. arruntak	%
<b>A garaia</b>	252	101	40%
<b>B garaia</b>	84	46	55%
<b>C garaia</b>	1014	370	36%
<b>D garaia</b>	618	202	33%
<b>Guztira</b>	1917	719	37%

43. taula: Iz + iz “arruntak”

Taulak erakusten duenez, elkarte mota hau da ugariena, oro har corpusean, eta bereziki garai batzuetan. Deigarria deritzogu B garaia eta besteen arteko aldeari. Beste garaietan ehuneko berrogeiaren inguru dabiltzanak % 55 baino gehiago dira garai horretan.

Era guztietako egiturak daude sorburuko ESTetan. Kapitulu honetako 2. atalean egindako azterketen emaitzak eta honetarako egindakoenak oso berdintsuak direnez, ez ditugu errepikatuko. Gogora dezagun ESTetan *iz + adj* egiturako sekuentzia izaten direla gehienetan euskal hitz elkartuen sorburuan.

### 3.3.11.(1.)2. Aditz-izen + izen motakoak

Multzo hau bereizteko arrazoia da konparazioak egin ahal izatea aditz-erro berarekin eratutako beste egitura batzuekin: *aditzoin + izen* osaerako elkarteekin eta [*aditz-izen+ko*]<sub>izlg</sub> + *izen* egiturako hedapen sintaktikoekin.

Goragoko taulan ikusi dugunez, garai guztietan agertzen dira mota honetako elkarteak, eta ugariagoak dira C garaian.

Hala ere, multzo honen ezaugarri bat da elkarteak ez direnez askotan errepikatzen, desberdinen kopurua handia dela. Ondoko 38 hauek dira:

(46)

<i>arduratze-batzorde</i>	<i>bahitze-manu</i>	<i>banatze-jaurpide</i>
<i>behartze-indar</i>	<i>berrikusketa-errekurtso</i>	<i>betetzealdi jarrai</i>
<i>betetze-indar</i>	<i>birrabiatze-eske</i>	<i>birzatatze-proiektu</i>
<i>ebazte-indar</i>	<i>burutze-unitate</i>	<i>zigortze -legedi</i>
<i>ebazte-laudo</i>	<i>burutzapen-unitate</i>	<i>nekaltze-lege</i>
<i>etendura erabaki</i>	<i>haztatze -eskubide</i>	<i>erkatze-legelaritza</i>
<i>zentzatzte-ahalmen</i>	<i>zigortze-ahalmen</i>	<i>ihardute-menpekotasun</i>
<i>ihardutze-erakunde</i>	<i>ihardutze-lege</i>	<i>ihardutze-sail</i>
<i>irabazte-xede</i>	<i>zigortze xedapen</i>	<i>irekitze-baimen</i>

<i>jaurtze-sail</i>	<i>iraungipen-epe</i>	<i>salostetxe</i>
<i>ordezkaketa-baltza</i>	<i>zigortze-prozedura</i>	<i>zigortze-jaurpide</i>
<i>estutze-bide</i>	<i>hertsatze-bide</i>	<i>zigortzebide</i>
<i>hertsipen-bide</i>	<i>hertsitze-aldi</i>	

Horietako lautan *-bide* da mugatzailea, eta batean *-aldi* gainerako guztiak izen "arruntak" dira, nahiz eta aditzetik eratorritakoak ere badiren.

Mugatzaileen atzizkiak bereiziaz, honako zerrendak lortzen ditugu:

(47)

	<b>-t(z)e atzizkia</b>		<b>Beste atzizkiak</b>
<i>arduratze</i>	<i>birrabiitze</i>	<i>haztatze</i>	<i>berrikusketa</i>
<i>bahitze</i>	<i>burutze</i>	<i>hertsatze</i>	<i>zuzenketa</i>
<i>banatze</i>	<i>ebazte</i>	<i>zentsatze</i>	<i>hertsipen</i>
<i>behartze</i>	<i>erkatze</i>	<i>ihardutze</i>	<i>iraungipen</i>
<i>zigortze</i>	<i>estutze</i>	<i>irabazte</i>	<i>etendura</i>
<i>betetze</i>	<i>saloste</i>		
<i>zigortze</i>	<i>irekitze</i>		
<i>nekaltze</i>	<i>jaurtze</i>		

Aditzoinari erantsirik ekintza-ondorio adierako hitzak eratzen dituzten atzizkiak aztertu ditugunean ikusi dugu corpus honetan atzizkien esanahien artean bereiztea ia ezinezkoa dela, aditz berari atzizki bata edo bestea erantsirik aurkitzen dugulako.

Bestalde, aditz-izen + izen motako elkarten eta aditzoin + izen motakoen agerpenak konparatuaz honako kopuruak lortzen dira.

	<b>Aditz-izen + izen</b>	<b>Aditzoin + izen</b>	<b>%</b>
<b>A garaia</b>	4	11	36%
<b>B garaia</b>	2	2	100%
<b>C garaia</b>	28	53	52%
<b>D garaia</b>	17	61	27%
Guztira	51	127	40%

**44. taula: Ad-iz + iz eta aditzoin + iz**

Badirudi corpus honetan baieztatzen dela azken urteotan (Azkarate, Olarte, 1991:763), gertatzen ari den *izenkia* + *izen* egituraren ugaltzea eta, orobat, hori errazago gertatzea baldin eta aditzoina *iz*, *izond* edo *adb* batetik eratorria da.

26 aditz desberdin daude, eta ondoko hauetan *ardura*, *bahi*, *bana*, *behar*, *bete*, *buru*, *eten*, *estu*, *hertsu*, *iraungi*, *ireki*, *zigor*, *zuzen*, aditzoinak izen, izenondo edo adberbio baten forma bera dauka.

Eta oro har, esanahiaren aldetik *aditzoin* + *izen* eta *aditz-izen* + *izen* motako elkarteak berdintsuak izanik trukagarriak direla pentsa badaiteke ere, hiru kasutan soilik, eta hirurak aditz berarekin (*zigor*, aurkitu dugu bikote hori. *Zigor*

hitzaren inguruko xehetasunak kapitulu honetan (infra 5.6.) ematen ditugunez ez gara hemen horretan luzatuko.

Beste aldetik,  $[aditz-izen+-ko]_{izlg} + IS$  egiturako EUSBak aztertu ditugunean (supra 2.2.1.4.5.3.) ikusi ditugu harekin batera, EST beraren baliokide gisa agertzen diren beste egiturak, eta zehazki, aditz beraren gainekoak. Gogora dezagun ezen, azterketa horren arabera, corpusean hainbat kasutan balio berekoak direla *aditz-izen + izen* elkarreak, aipatu berri ditugun *aditzoin + izen* elkarreak eta  $[aditz-izen+ko]_{izlg} + izen$  egitura sintaktikoak.

### 3.3.11.(2).1,2,3,4.- Mugakizun berezikoak

Menpekotasunezko izen-elkarreen artean, HE4ri jarraituaz, mugakizun bereziko izen-elkarreak bereizi ditugu, eta sail horren barruko beste 6 taldeak. EUSBetan daukaten banaketa kontuan hartuaz, lehen 4 azpimultzoak (11.2.1., 11.2.2., 11.2.3. eta 11.2.4.) batera aztertuko ditugu, oso gutxi baitira.

	11.2.1.	11.2.2.	11.2.3.	11.2.4.
<b>A garaia</b>	0	1	0	0
<b>B garaia</b>	0	0	0	0
<b>C garaia</b>	0	0	0	1
<b>D garaia</b>	2	0	0	3
<b>Guztira</b>	2	1		4 7

45. taula: Mugakizun berezikoak

Ondoren, adibide gisa, dauden guztiak ematen ditugu (48a) eta (48b) 11.2.1. taldekoak; (48c) 11.2.2. koak eta (48d), (48e), (48f) eta (48g) 11.2.4. taldean sartu ditugunak.

(48)

(a)	9408P	<i>gizatalde</i>	fundación
(b)	9417P	<i>lur-sailak berriz zatitze</i>	reparcelación
(c)	36	<i>zuzen itxuraz jantzi</i>	justificar
(d)	8308P	<i>etxerik-etxeko salmentamodu</i>	venta a domicilio
(e)	9203F	<i>seme-alaba mota</i>	filiación
(f)	9206P	<i>karga moeta</i>	tipo de gravámen
(g)	9501T	<i>karga-mota</i>	tipo de gravámen

### 3.3.11.(2.5.)- Andregai moduko mugakizun berezikoak

Mugakizuntzat erdi-atzizki bihurturik dagoen hitza daukatenak ‘*andregai* modukoak’, alegia, jasotzen ditugu puntu honetan.

Honako mugakizunak aurkitu ditugu: *-aldi*, *-orde*, *-kide*, *-buru*, *-gai*, *-gizon*, *-gune*, eta *-bide*. Ondoko taulan jasotzen dira garaiz garai mukakizun berezi horietako bakoitzaz eratutako elkarten kopuruak.

	<b>-aldi</b>	<b>-orde</b>	<b>-kide</b>	<b>-buru</b>	<b>-gai</b>	<b>-gizon</b>	<b>-(g)une</b>	<b>-bide</b>
<b>A garaia</b>	0	6	3	0	0	5	1	7
<b>B garaia</b>	0	1	1	0	1	0		4
<b>C garaia</b>	11	18	7	2	2	0	1	85
<b>D garaia</b>	1	12	5	0	0	0		30
<b>Guztira</b>	12	37	16	2	3	5		126

**46. taula: Mugakizun bereziko kopuruak**

Baina kopuruok engainagarriak suerta litezke emankortasunari buruz, izan ere, asko baitira hainbat aldiz errepikatzen direnak. Hona garai bakoitzeko elkarte desberdinak.

	<b>bide /pide</b>	<b>-aldi</b>	<b>-kide</b>	<b>-orde</b>	<b>besteak</b>
<b>A garaia</b>	eskubide, ustebide		sendikide, burukide, bazkide	batzorde, oinordeko, gurasordeko	legegizon, hutsune
<b>B garaia</b>	eskubide, auzibide,		lehiakide	batzorde	legegai
<b>C garaia</b>	aburupidetza, agintepide, araubide, araupide, ekintzapide, epaibide, eskubide, itunebide, lanbide, legebide, legepide, legepidetza, ogibide, osasunbide, zergapide, zigorpide, zorpide	agintealdi, lanaldi, batzarkide-aldi, indarraldi, saioaldi, zerbitzu-aldi, manualdi	berekide, bazkide, elkartekide,	batzorde, oinorde	zergagai, sailburu, udalbatzar buru, hutsune
<b>D garaia</b>	araubide, eskubide, lanbide, legebide, zergapide, zigorbide	ezkontza-aldi,	lankidetza, jabekide	batzorde, oinorde, oinordetza, eskuorde,	
<b>Guztira</b>					

**47 taula: Mugakizun bereziko desberdinak**

### 3.3.11.(2.5.)1.- Iruzkinak

Oso emankortasun desberdina erakusten dute horietako hitzak gure corpusean oro har nahiz garaika. A garaia eta C garaia dira, ia kasu guztietan, hitz-elkarketarako joerarik handiena dutenak, eta baita mota honetarako ere.

Aditzoinekikoetan bezala, maiztasun handiena duen mugakizuna *-bide* da; haiekin batera azterketa bereziaren gai izango direnez, ez ditugu hemen landuko.

*-orde*: hizki honekiko elkarteak lexikalizazio-maila handia dute. Gutxi dira, bestalde (*oinorde*, *batzorde*, *eskuorde*) hainbat aldiz errepikatuak badaude ere. Lexikalizazio-maila apalagoa dauka besteak: *gurasordeko*. Ez zaigu behin ere agertu erdarazko *vice*- edo *sub*- aurrizkien ordainetan<sup>14</sup>.

*-aldi* hizkiaz osatutakoek, berriz, aspaldi dokumentaturik dagoen *lanaldi*-z at, nahiko berriak, eta terminologiarako eratuak dirudite.

*-kide*-z eratutakoen artean badaude lexikalizatutzat eman daitezkeenak, eta bidean daudenak. Bitxiak dira gaurko ikuspegitik, *burukide*, corpusean erdarazko *ministro*-ren baliokidetzat ematen dena, eta Sarasolaren (1996) hiztegian “*Eusko Alderdi Jeltzaleko Buru Batzarren bateko kidea*” adieraz azaltzen dena, eta *berekide*, lexikalizatua, *OEHN* ikus daitekeenez, baina erabilpen urrikoa, Sarasolaren hiztegian ez agertzeak adierazten duenez.

*gai*- hizkia bi elkartetan soilik agertzen zaigu (*legegai*, *zergagai*) haren polisemia airean geratzen dela.

*-(g)une* hizkiaz hitz bakarra, eta lexikalizatua (*hutsune*) dago.

*-gizon* hitz bakarraren (*lege-gizon*) osagai da. Lehen garaian soilik azaltzen da<sup>15</sup>.

### 3.3.11.(2.6).- *Hitzaurre* modukoak

Mugakizuntzat leku-denborazko deiktikoak, alegia, *aitzin*, *alde*, *arte*, *atze*, *aurre*, *azpi*, *barne*, *barru*, *be(pe)*, *gain*, *gibel*, *inguru*, *ondo*, *oste* eta izen-elkarketazko postposizioak bereiztea, kasu batzuetan (*nazioartea* / *nazioarteko*) ez da beti erraza. Gure jokabidea izan da HE4k proposatzen duen irizpide formalari atxikitzea, eta, hortaz, EUSBetan leku-denborazko deklinabide-markarik agertzen direnak hemen biltzea, eta besteak postposizioetan; hala ere, salbuespen bat egin dugu *aldarteko* forma jaso arren, *aldarte* hitza hemen sailkatu baitugu.

Ondoko taulan, multzo honetako hitzen garaikako guztizko kopuruak, eta mugatzaile bakoitzarekin osaturiko hitz desberdinak ikus daitezke.

	<b>kopuruak</b>	<b>-arte</b>	<b>-alde</b>	<b>-aurre</b>
<b>A garaia</b>	3	<i>gizarte</i>	<i>lurralde</i>	<i>zigorraurre</i>
<b>B garaia</b>	4		<i>herrialde</i>	
<b>C garaia</b>	7	<i>gizarte</i>	<i>lurralde</i>	
		<i>aldarte</i>		
<b>D garaia</b>	6		<i>lurralde</i>	
<b>Guztira</b>	19			

**48. taula: Hitzaurre modukoak**

<sup>14</sup> *Vicelehendakari*, edo *subdirector* bezalakoak, alegia.

<sup>15</sup> Hurrengo garaietan ez azaltzea, gertaturiko kultura-aldaketaren adierazgarritzat har daiteke.

Horrelako multzo txikiak direnez, ez du merezi beste bereizketarik sartzea; gainera ia agerpen guztiak: *aldarte*, *lurralde*, *herrialde* eta *gizarte* hitz lexikalizatuenak dira.

Multzo honetako gainerakoak guztiz lexikalizatutako hitzak badira ere, *zigorraurre* (erdal *apercibimiento* -ren baliokide) hitz berria dirudi, eta gure ustez aski semantika igarriezinekoa.

Postposizioak aztertzerakoan eztabaidutuko ditugu zalantzazkoak izan daitezkeen egitura batzuk.

### 3.3.11(3).- *Aurreproiektu, elkarlan* modukoak

Menpekotasunezko izen elkartuetan LEF batzordearen arabera, mugatzaile bereziko, hots, erdi-atzizki diren leku-denborazko *aurre-*, *aitzin-*, *barne-*, *gain-*, *goi-*, deiktikoez eta *elkar-*, *kontra-* elkarkariez osatutakoek azpisail berezia osatzen dute.

Gure zerrendetan badira azpisail horretako hainbat, ez gehiegi, eta are gutxiago dira desberdinak. Ondoko taulan, garai bakoitzeko agerpenen kopuruak, eta mugatzaile berezi bakoitzaz osaturiko desberdinak erakusten dira:

	A garaia	B garaia	C garaia	D garaia
<b>aurre-</b>	-	(2)	(6)	(13)
<b>aitzin-</b>		aurrea autonomia	aitzin-egitasmo aurrea autonomia aurrekontu	aurrekontu aurregitasmo aurreproiektu
<b>barne-</b>	-	-	(2) barne-maila	(4) barne-aurrerabide barne-igoera
<b>goi-</b>	(1) goi-lanaritza	-	(4) goi-kargu goi-agintari, goi-mailako, goi-kargudun	-
<b>gain-</b>	-	-	(1) gain-balio	(1) gainsari
<b>atze-</b>	(3) tzerrizergaetxe atzergetxe	-	-	-
<b>elkar-</b>	-	-	(1) elkarkidetasun	(1) elkar-egokitasun
<b>Guztira</b>	4	2	12	20

49. taula: *Aurreproiektu, elkarlan* modukoak

Sail honetako hitz elkartu batzuk, gaurko egunean lexikalizatutzat eman daitezkeenak, *aurrekontu* bereziki, hainbat EUSBtan errepikatzen denez, badirudi elkarte-mota honen presentzia ugaria dela, baina, oro har, hitz desberdinak ez dira gehiegi.

*Atzergetxe* hitza guztiz ulertezina izango litzateke haren alboan *atzerri-zerga-etxe* ez balego. Garai hartan beste batzuetan ikusten den moduan, tronkazioz eraturako bigarrenaren aldaera eman dezakegu.

Multzo honetan *aurrea autonomia* elkarketan ematen da beste batzuetan *preautonomia* maileguzko hitzez ematen den EST beraren ordaina. Uste dugu elkartean erdal hitzaren kalkoa dugula, ez baita erraz ulertzen euskal osagaietatik abiatuta.

### 3.3.11.(5).- Postposizioak

Izen-elkarketazko postposizioak, hitz-elkarketaren eta sintaxi-egituraren ezaugarriak bateratzen dituzten egiturak dira; beste aldetik, ez dira beti erraz bereizten *hitzaurre* moduko izen elkartuetatik

3.3.11.2. puntuan zehazturiko irizpideak aplikatuaz, honakoak dira sail honetan sartzekoak:

	bide-	aurre-	arte-	maila-	pe-	Guztira
<b>A garaia</b>	1	0	0	1	0	2
<b>B garaia</b>	0	0	0	1	0	1
<b>C garaia</b>	5	0	1	13	14	33
<b>D garaia</b>	2	4	1	6	4	17
<b>Guztira</b>	8	4	2	21	18	53

**50. taula: Postposizioak: kopuruak.**

Ondoko taulan ikus daitezke *-bide*, *-aurre*, *-arte*, eta *-pe* hizkiez eraturiko postposizioak; *-maila*-z eraikitakoak geroago aztertzeke alboratu ditugu.

	-bide	-aurre	-arte	-pe
<b>A garaia</b>	epaile-bidez	-	-	-
<b>B garaia</b>	-	-	-	-
<b>C garaia</b>	epailaritzza-bidezko itune-bidez legegintza-bidez lege-bidez, agiri bidez,	jendaurrean jendaurreko	nazioarteko	menpeko itunepeko agintepeko babespeko legepeko saripeko zaintzapeko zinpeko
<b>D garaia</b>	meritu-bidezko	eskribau- aurrean	nazioarteko	ardurapean

**51. taula: Postposizioak: elkarte desberdinak**



3.3.11.(5).1- *Maila* hitza postposizio gisa

*Maila* da hizki horietatik emankortasun handiena erakusten duena: 21 daude, garai guztietan dago agerpenen bat, eta 16 dira desberdinak.

OEHn ikus daitekeenez, “(Como segundo miembro de comp.)” izenburupean datozen adibideetan XX. mendearen bigarren erdian hainbat kasutan agertzen da *maila* hitza postposizio moduan, eta gradua gabe, mota edo modua bezalako zerbait adieraziaz.

Mendeko azken hamarraldietan, asko ugaritu da erabilera hori, beharbada, gaztelaniazko ‘a nivel de’ esapidearen oihartzun gisa.

Ondoko adibidietan, argi ikus daiteke *mailako* postposizioak, ‘harekin loturiko hitzak esan nahi duenari dagokiona<sup>16</sup> beste esangurarik ez duela.

(49)

37	<i>ebaste mailako erru</i>	delito de estafa
79	<i>oinarri mailako lege</i>	ley de bases
8605G	<i>industria mailako jabetasun-eskubide</i>	propiedad industrial
8906P	<i>nazio mailako gaitasun</i>	habilitación de carácter nacional
9004P	<i>lurralde-mailako aginpide</i>	competencia territorial
9606P	<i>fiskal mailako diru sarrera</i>	ingreso fiscal
9005P	<i>administrazio-mailako goradei</i>	recurso administrativo
9101T	<i>Iraskunde-mailako Arduralaritza</i>	administración Institucional
9401D	<i>erakunde-mailako administrazio</i>	administración Institucional
9201T	<i>instituzio mailako Administrazio</i>	administración Institucional

Beste kasu batzuetan, ordea, Sarasolaren hiztegiak *maila* sarreraren 3. adieran ematen duen definizioan: “*Hierarkia edo balio sistema batean, egongunetako bakoitza*” ongi kokatzen dira EUSBetako ‘*mailak*’ ondoko adibideotan ikus daitekeenez:

(50)

8504T	<i>legetasun-mailako araupide</i>	norma de rango legal
8206R	<i>udal-maila baino goragoko maila</i>	entidad supramunicipal
8503P	<i>aginte-mailazko gainoko (sic)</i>	superior jerárquico
9003P	<i>lege-mailako arau</i>	norma de rango legal

## 3.3.11.(5).2.- Iruzkinak

Ez dira oso ugariak gure corpusean postposizio-elkarteak. Eta garaika, berriro ere 1980-1990 aldia agertzen da elkarte-ekoizle nagusi bezala

Postposizio-elkarteak eta postposizio sintagmatikoen arteko alternantzia kasu gutxitan agertzen da. Behin bakarrik aurkitu dugu (a), (a´) horrelako bikotea, balio bereko adigaia adierazteko, gainera. Eta postposizio-hizki horiek egitura sintaktikoetan ere oso gutxitan agertzen dira: (c) eta (d) adibideetakoak besterik ez dugu aurkitu corpus osoan.

<sup>16</sup>Hain zuzen ere, erdal adjektibo erreferentzialen funtzio bera. Izan ere, hainbat kasutan, *mailako* postposizioak ESTetako erreferentzialen tokian agertzen dira.

(51)

(a)	8803	<i>eskribauaren aurreango agiri</i>	documento público
(a')	9203F	<i>eskribau aurrean egindako testamentu</i>	testamento notarial
(b)	9003	<i>bankuren baten bidez dirua bidali</i>	transferencia bancaria
(c)	77	<i>Estatuaren eta autonomi elkarte</i> <i>arteko aginpidea</i>	competencia concurrente

-*Pe* postposizioari buruz esan behar da emankorra dela *bide* kenduz gero, eta hartaz osaturiko hitzek badutela lexikalizazio-“kutsu” handia. Izan ere, dauden (*menpeko, itunepeko, agintepeko, babespeko, legepeko, saripeko, zaintzapeko, zinpeko*) zortzietatik 2 (*saripeko, zinpeko*) Euskal Hiztegi Batuan jasota daude, eta behin ere ez da *-pe* hizkia ez beste egituratan, ez hitz bakarrean ez den beste modu batean idatzita agertzen.

Postposizioen idazkerari buruz, ditugun adibide guztietan dago lotura: edo jarraian idazten dira (*nazioarteko, babespeko*) edo marratxoaz loturik (*itune-bidez, eskribau-aurrean, aginte-maila*), beranduago, HE4 liburuan, hain zuzen ere, Euskaltzaindiak aurkako araua eman badu ere.

### 3.3.12.- Atributu- eta koordinazio-elkarteak

Bi izenez osaturiko elkarte horietan ez dago menpekotasunezko erlaziorik, ez eta dvandvetan dagoen koordinazio-esanahirik. Hainbat azpisail onartzen dituen multzo hau konplexua bada ere, ez dauka presentzia ugaririk gure EUSBetan. Hortaz, taula bakar batean emango ditugu garaiz garai agertutakoen kopuruak eta elkarte desberdinak.

	<b>Kop.</b>	<b>Desberdinak</b>
<b>A garaia</b>	4	oroagindu-lege, epailletza argibidelari, batzar lege-emalle, lege-ematzalle Agintaritza
<b>B garaia</b>	2	lege-barruti, dekretu lege
<b>C garaia</b>	9	dekreto-lege, lege-dekretu, esparru-lege, erresuma elkartekide, alkate-udalbatzarburu, etxebizitza
<b>D garaia</b>	1	etxebizitza
<b>Guztira</b>	16	

**52. taula: Atributu- eta koordinazio-elkarteak**

#### 3.3.12.1.- Azpisailkapenak eta iruzkinak

Aurreko taulan agertzen direnak hain gutxi izanik ere, zalantza ugariren iturri dira. Lehenik eta behin, HE4ko azpisailtan kokatzeko aski argi ikusten ditugunak iruzkinduko ditugu.

Koordinazio-elkartea: uste dugu hurrengo koordinazio-elkartetzat eman behar dela, bere interpretazio zentzuzkoena hau baita: norbait (zerbait) B da eta A da.

(52) 8328P *Alkate-Udalbatzarburu*      alcalde-presidente

Atributu-elkartek (*harri zilindro* bezalakoak) dira (a), (b) eta (c) adibideetakoak, baina (d) adibideko hurrenkera bitxiak ez digu biderik uzten inon sailkatzeko. Multzo berean sartzekoa da guztiz iharturiko *etxebizitza*.

(53)

(a)	37	<i>epailletza argibidelari</i>	juzgado instructor
(b)	37	<i>batzar Lege-emalle</i>	poder legislativo
(c)	8602P	<i>estado miembro</i>	erresuma elkartekide
(c)	36	<i>lege-ematzalle Agintaritza</i>	poder legislativo

- **‘Ley marco’-ren itzulpenak**

Espainierazko *ley marco* terminoak bi itzulpen dauzka (a) eta b).

(54)

(a)	79	<i>lege barruti</i>	ley marco
(b)	8805P	<i>esparru-lege</i>	ley marco

*Barruti* eta *esparru* sinonimotzat jo daitezkeenez esan daiteke osagai berekin eratutako bi elkarte desberdinen aurrean gaudela. Lehena, (a) (*lege barruti*) atributu-elkartea "B izena A (edo A modukoa) da" interpretatu beharrekoa izango litzateke; eta (b)-rentzat (*esparru lege-rentzat*) bi toki posible ikusten ditugu: lehena atributu-elkarteetako "A izena B (edo B modukoa, edo Bduna) da" azpisaila, eta bigarrena ‘sumpsuntive’ deiturikoen artean.

- **Decreto ley / decreto legislativo bikotearen itzulpenak.**

Honako konbinazio hauek aurkitu ditugu:

(55)

(a)	37	<i>oroagindu-lege</i>	decreto-ley
(b)	8208R	<i>dekreto-lege</i>	decreto-ley
(c)	8319P	<i>erregeren dekretu-lege</i>	real decreto ley
(d)	8508P	<i>dekreto-lege</i>	decreto legislativo
(e)	8320P	<i>lege-dekreto</i>	decreto legislativo
(f)	8603G	<i>lege-dekretu</i>	decreto legislativo

Alde batetik esan behar da oso zaila dela erdal ‘decreto-ley’ elkartearen interpretazioan erantzun bateratua<sup>17</sup> lortzea. Eztabaida antzua izan daiteke, baina izendapena finkaturik dago gaztelaniaz. Euskaraz, ordea, zalantzak daude oraindik osagaien hurrenkerari dagokionez. EUSBetan hiru bider (55a), (55b),

(55c), lehenik *dekretu* / *decreto* / *oroagindu* eta bigarren *lege* hitza agertzen badira, praktikan, alderantzizko ordena maiz aurkitzen da. Horren adibide izan daiteke HE4 liburuan, atributu-elkarteen adibideen artean *lege-dekretu* ekartzea.

Beste aldetik ikus daiteke (55d), (55e) eta (55f) adibideetan hitz berez osaturiko elkarteak erabiltzen direla beste termino bat (*decreto legislativo*) itzultzeko. Azken biak menpekotasunezkoztat hartu beharko lirarteke zentzurik edukitzekotan, baina lehena ezin dugu inolaz ere interpretatu. Deigarria iruditzen zaigu eduki guztiz desberdineko bi adigai juridiko itzultzeko euskaraz hitz berberak erabiltzea.

### 3.3.13.- Tautologiazko elkarteak

Gauza bera edo oso antzekoa adierazten duten bi hitz desberdin elkartuz osatzen direnak dira tautologiazko elkarteak. Oro har ez da multzo handia, ez oso emankorra.

Corpusean, hitz bakarra (*salmenta*) aurkitu dugu multzo honetan sartzekoa, hiru bider errepikatua: 2 C garaian eta behin D garaian. Honako adibideotan jasotzen dira hirurak:

(56)

8308P	<i>etxerik-etxeko salmentamodu</i>	venta a domicilio
8308P	<i>etxerik -etxekako salmenta</i>	venta a domicilio
9407P	<i>etxez etxeko salmenta</i>	venta a domicilio

### 3.3.14.- Aposizioak

Gutxi direnez, ondoko koadro bakarrean ematen dira batera garaikako kopuruak eta aposizio-elkarte desberdinak.

	<b>Kop.</b>	<b>Desberdinak</b>
<b>A garai</b>	2	Erritar-arkibidea Legea. Españaiko Laterri
<b>B garai</b>	2	alzada errekurso, “recurso de alzada” delakoa
<b>C garai</b>	2	inpartzialtasun-irizpide, agiritasun-irizpide, Espainiako erresuma
<b>D garai</b>	8	publizitate-printzipio, solidaritate-printzipio, “inter vivos” egintza, “intervivos” ekintza, “mortis causa” egintza, Espainia Estatu
<b>Guztira</b>	14	

**53. taula: Aposizio-elkarteak**

<sup>17</sup>Izan ere, berdin esan daiteke ‘dekretuaren ezaugarriak dituen legea’ dela edo ‘legearen ezaugarriak dituen dekretua’ dela.

## 3.3.1.4.1.- Iruzkinak

Aposizioak hizkera teknikoetan izaten duen erabilgarritasuna ez da islatzen corpusean, oso gutxi baitira mota honetako elkarteak; D garaian, beste garai guztietako batura baino gehiago, hala ere.

Gehiegi ez badira ere, hainbat mota desberdinetakoak daude. Sintagma-hedabideari dagokionez, gehienak dira ezker-hedapen biluziak (*agiritasun-irizpide*) baina badira ezker-hedapen jantziak, bai *-ko* atzizkiaren bidezko izenlagunez eratuak (57a) eta bai, *-ren* atziazkiaz moldatutakoak (57b)

(57)

(a)	8102R	<i>Espainiako Erresuma</i>	Estado Español
(b)	8906	<i>alderdikieriarik ezaren irizpide</i>	principio de imparcialidad

Batzuetan lehen osagaia latinezko hitza edo esapidea da. Beste hizkuntzetako hiztegi juridikoetan, eta testuetan ere, oso ohikoak diren latin-izendapenek badute presentzia, urria bada ere, EUSBetan: (a) eta (b). Beti ere, latinezko izena komatxo artean agertzen da. Kasuren batean, ordea, aposizioa erabili beharrean beste egitura bat (c) agertzen da izendapen berarentzat:

(58)

(a)	9412P	"Inter vivos" egintza	acto inter vivos
(b)	9412P	"Mortis causa"egintza	acto mortis causa
(c)	9203F	"Inter vivos" erako eskualdaketa	acto inter vivos

Kasu bakarrean erabiltzen da aposizioa lege bat izendatzeko<sup>18</sup> eta hori, 1937an. Esan daiteke, hortaz, corpusean ez duela erabilgarritasunik aposizioak legeen izendapenetan.

(59)

37	<i>Erritar-Arkibidea Legea</i>	Ley del Registro Civil
----	--------------------------------	------------------------

Idazkerari buruz, zalantzak agertzen dira zenbaitetan. Batez ere, hitzak marratxoaz lotzeko joera ikusten da (*inpartzialtasun-irizpide*) baina 1992tik aurrera badirudi bereiz idazteko araua betetzen dela, ez baita berririk agertzen bestelako idazkerarekin.

## 3.3.15.- Izengoiti-elkarteak

Ez dugu horrelakorik bat ere aurkitu, mota honetako testu batean espero zitekeen bezala.

## 3.3.16.- Sinbolismo fonetikoa eta hots-uztardurak

Aurrekoan bezala, itxarotekoa zenez, corpus osoan ez dugu mota horretako elkarerik aurkitu.

### 3.3.17.- Exo-elkarteak

Adamsek 1973 (128-133) eta Bauer-ek (1991:213-216) talde berezi batean sartzen dituzte '*neo-classical compound*' izenarekin, osagai grekoz eta latinez, osoki zein hizkuntza propioko osagaiekin konbinatuaz, egiten diren hitz berriak, oso ugariak inguruko hizkuntza guztietan<sup>19</sup>, eta bereziki hizkera tekniko batzuetan. HE4 liburuak, Azkaratek (1988) egindako azterketaren haritik, talde berezi bat proposatzen du honelakoentzat.

Ez dugu exo-elkarte askorik aurkitu gure EUSBetan. Ez ditugu *autonomia/ autonomo* edo *estradizio* sartu '*neo-klasikoen*' artean; izan ere, maileguan bi zatiek bere forma osoa gordetzen dutenez, ezin baitaiteke esan euskarazko konposatua denik; euskal hiztunarentzat erabat opakoak direlakoan gaude.

Ondoko adibideko hauek, berriz, jasan duten egokitzeak direla-eta, kontsidera daiteke euskal exo-elkarteak direla, edo bederen horrelakotzat har daitezkeela zuzenbideko erabilera espezializatuan, eta hortaz, beste batzuen eredu ere bihur daitezkeela.

(60)

9306P	<i>antijuridikotasun</i>	antijuridicidad
8906P	<i>autogobernu</i>	autogobierno
9412P	<i>autokontratazio</i>	autocontratación

### 3.4.- Elkarketa-erlazioak corpusean. Elkarketa konplexuak.

Ikusi dugu EUSBen egitura orokorra aztertzerakoan zenbat EUSB diren hitz-elkarte, ikusi dugu egitura horietako euskal segmentuak zein ESTri dagozkien. Ondoren aztertu dugu EH4ko sailkapenaren arabera nolako elkarteak dauden EUSBetan.

Baina gure aztergaiak EUSBak izanik, nabarmena da segmentu askotan hitz-elkarte bat baino gehiago daudela, beste batzuetan, elkarketa-erlazioak ez direla bi osagaien artekoak, hiru, lau edo gehiagoren artekoak baizik. Interesgarri iruditu zaigu EUSBetako elkarketa-erlazioak ikuspegi horretatik aztertzea, terminologia honen ezaugarri baten aurrean aurkitzen garen egiaztatzeko.

Puntu honetan, aztergai-abiapuntua EUSB da, eta kontuan hartzen dena, bertako elementuen artean elkarketa-lotura egotea. Aurretik azterturiko mota guztietako elkarketa-loturak eduki dira kontuan, guztizko lexikalizazioa, (hiztegietan jasotako hitza) egina dutenetatik hasi eta itzuli beharrak

---

<sup>18</sup>Ohargarria da hitz elkartu egiturako izendapenean lehen osagaia (Erritar-Arkibidea) mugatzailez hornitua agertzea. Legeen izendapenen egiturei buruz, ikus aurrerago kapitulu honetako 7.4.1. puntua.

baldintzaturik sortutakoetaraino; izen-elkarteak, aditz-elkarteak, postposizioak eta gainerakoak.

Puntu honetan, beraz, ez dugu bereizten nolako elkarketa den: (dvandva, aposizioa, atributiboa, menpekotasunezkoa edo dena delakoa), kontuan hartzen dugu soilik elkarte-lotura bat egotea (HE4-en arabera)

### 3.4.1. –Gure sailkapena. Taulak

EUSBen elkarte-egiturak aztertzeko, euskal hitz-elkarteen egitura binarioaren printzipioan oinarriturik, elkarte-multzo primarioetatik abiatuta terminoaren osaera argitu nahi izan dugu.

Ondoko taulan (54.) digito bakoitzak elkarte-multzo baten berri ematen du. Elkarte-multzoa simplea (1), hots, bi hitz soilen elkarketa, edo konplexua (2, 3, 4, 5, 7, 8'), hau da, 3, 4 edo 5 hitz bere artean elkarketa-lotura besterik ez dutena edo baturaduna (6, 9), hau da, elkarketako elementuetako batean nahiz bietan juntagailua dutena, izan daiteke.

Egitura konplexu horien azterketa azaltzeko, EUSBetako elkarketa-egiturak sailkatu egin ditugu, eta gakoak egotzi dizkiegu egitura horiei. Ondoko tauletan ikus daitezke hala bakoitzaren egiturak, eta adibidea, nola emandako gako-zenbakia, ondorengo azterketan baliatuko duguna.

Elkarte-multzo bakoitzari 1etik 9ra arteko digito bat egokitu zaionez, unitate lexiko hainbat digito egongo dira. Esaterako *legebiltzarkide-aldi-ri*, edo *jarauntsi- eta emaitza-zerga-ri* ) digito bana dagokie, eta *herri-alorreko legegide-ri* b) adibidekoari bi (11), *bi direnez* (*herri-alor* eta *legegide* ) haren baitako elkarte-multzoak.

Gakoa	Egitura	& (elkarte-lotura)	Adibideak
1	aa	a&b	legegizon
2	(aa)(aa)	(a&b)&(c&d)	taldeburu-batzorde
3	(aa)a	(a&b)&c	saleroste-elkarte
4	a(aa)	a&(b&c)	arduralaritza-egintzabide
5	a(aa)a	a&((b&c)&d)	alkate-udalbatzarburu
6	(a+a)a	(a+b)&c	jarauntsi eta emaitza zerga
7	a(a(aa))	&(b&(c&d))	lege-aintzinegitasmo
8	((aa)a)a	((a&b)&c)&d	legebiltzarkide-aldi,
9	((aa)+a)a	((a&b)+c)&d	Herri-lanak eta Hirigintza Ministeritza
11	aa+aa	a&b+c&d	herri-alorreko legegide
12	aa+ (aa)(aa)	a&b + (a&b)&(c&d)	legetasun-arauerako oinarri-irizpide
14	aa + a(aa)	a&b + a&(b&c)	industria mailako jabetasun-eskubide
31	(aa)a+aa	(a&b)&c+d&e	auzipide-arduralaritzaren aginte-eremua
41	a(aa)+aa	a&(b&c) + d&e	Lur-Lanbide eta Hiri-Antolaketari buruzko Lege

**54. taula: Elkarte-multzoak; gakoak, egiturak eta adibideak**

<sup>19</sup>Ikus, bereziki, Guilbert (1975:224-238)

### 3.4.2.- Elkarketa konplexuak garaia.

Ondoko bi tauletan aurkezten ditugu garaiz garai EUSBetan aurkitzen diren elkarte-egituren kopuruak, aurreko puntuak egitura bakoitzari egotzi diogun gakoan arabera.

	1	2	3	4	5	6	7	8	1...8
<b>A garaia</b>	138	5	26	11	1	0	0	0	43
<b>B garaia</b>	74	0	4	2	0	0	0	1	6
<b>C garaia</b>	587	7	33	68	1	0	1	0	110
<b>D garaia</b>	379	8	23	40	0	2	2	1	76
<b>Guztira</b>	1178	20	86	121	2	2	3	2	235

55. a) taula: Elkarte-egitura bakarria dutenak

	11	111	12	13	14	31	41	12+13+14+31+41
<b>A garaia</b>	1	0	0	0	0	0	0	
<b>B garaia</b>	3	0	0	0	0	0	0	
<b>C garaia</b>	55	8	2	1	3	6	4	16
<b>D garaia</b>	53	2	0	1	0	2	4	9
<b>Guztira</b>				2		8		25

55. b) taula: Elkarte-egitura bat baino gehiago dutenak.

Ikus daitekeenez oso presentzia-tasa desberdinak dauzkate egiturok. Hirutan (elkarte sinpleez at), hau da, 3, 4 eta 11 gakoak dauzkatenen presentzia nabarmen handiagoa da.

Ondoren, ikus ditzagun banan bana elkarte-egitura horien zehaztasun batzuk.

### 3.4.3.- Elkarte nagusiko mugatzailea elkartua denean ( $3 = (a \& b) \& c$ ), 13, 31

Elkarketa hauetan hiru hitz daude osagai, lehen biek hitz-elkarte bat osatzen dute, ondoren hirugarrenarekin elkartzen dena.

55.a) taulan agertzen diren kopuruak (3ko 86, 13ko 2 eta 31ko 8) erakusten dute aski ugari direla horrelako egiturak; baina oso nabarmena da A garaiko ugaritasuna. Halere, esan behar da asko direla errepikatuak.

#### 3.4.3.1.- Osaera

Elkarte nagusia, ia kasu guztietan menpekotasunezkoa da, salbuespen batzuekin; esate baterako atributu-elkarteak diren *oroagindu-lege*, *bazkide-langile*. Menpekotasunezkoen artean, mota anitzekoak aurkitu ditugu, oso ugari izanik mugakizuna erdi-atzizkia dutenenak, hots, lexikalizazio maila (edo itxura, bederen) handia dutenenak.



Mugatzaile elkartua izen-elkartea da; izen soila, edo aditz-izena izan daiteke. Badira 3.2. puntuan jadanik iruzkindu dugun *dvandva* motakoa diren *seme-alaba mota*, edo *sal + eros* aditzez osatuak; bakar bat badago, *bateraezinarau*, izaera-elkarte baten gainean, eraturakoa, baina gehien-gehienak menpekotasunezkoak dira.

Hainbat kasutan, mugatzaile elkartua iharturiko hitz-andana da, ondokoak bezala:

(61)	itsasontzi	oñarri	laterri
	lurralde	aurrekontu	lanbide
	batzorde	aginpide	zuzenbide
	oinordeko	bazkide	

### 3.4.3.2.- Iruzkinak. Bitan banatzeko zailtasunak, beste arazoak.

Arazo nagusiak, hiruko elkarte batzuen banaketan daude, alegia, bitariko izan behar duen partiketa nola egin jakiteko ezinbestekoa izatea hizkuntzaz kanpoko informazioa, kasu honetan, itzulpenak ematen diguna.

Arazo hauek ugariagoak dira, dudarik gabe, A garaiko EUSBetan, esate baterako ondoko (62a),(62b) eta (62c) adibideetan. (62d) adibideko elkarte, berriz, garai bateko tronkazio-eragiketen adibide, erabat opakoa delarik, ulertzeko arazoak hain handiak dira non eta itzulpenari begiratu behar izan diogun osagaiak igertzeko<sup>20</sup>:

(62)	(a)	36	<i>atzerri-zerga-etxe</i>	aduana
	(b)	37	<i>erri-zaintza gizonak</i>	fuerzas de orden público
	(c)	37	<i>diru-atera-agiri</i>	cheque bancario
	(d)	37	<i>atzergetxe</i>	aduana

Proporzioan askoz gehiago badira ere A garaikoak, badira hiruko elkarte banagaitzen ale batzuk C eta D garaietan, esate baterako ondoko hirukote hau, zeinetan idazkeraren<sup>21</sup> zalantzak ezer baino hobeto erakusten duen iluntasun hori.

(63)	8108P	<i>herridiru-sarrera</i>	ingreso público
	8504T	<i>herri-dirueskuraketa</i>	ingreso público
	9414P	<i>herri diru-sarrera</i>	ingreso público

Beste kasu batzuetan, hitza nola osatu nahi izan den argi badago ere, nabarmena da desegokitasuna, esate baterako *bateraezinarau* hitzean.

<sup>20</sup> *Atzergetxe*-ren kasuan, *atzerri-zerga-etxe* izan ez bagenu ez genuke igarri ere egingo. Azken horren analisiak *atzerri-zerga + etxe* ematen duela uste dugu; *erri-zaintza + gizonak* behar duela izan uste dugu, eta *diru-atera-agiri*-ren partiketari dagokionez, denak dira nolabaitekoak.

<sup>21</sup> Kasu horren azterketa berezi bat egiten dugu kapitulu honetako 5.3.4. puntuan.

### 3.4.4.- Elkarte nagusiko mugakizuna elkartua denean (4 = a&(b&c), 14

Hauek ere hiruko elkarteak dira, lehen hitzak, bakunak, ondorengo biko elkartearekin elkartu bat osatzen duela.

Mota honetako elkartu-multzoak ugariak dira, aurrekoak bezala, baina honetan askoz nabarmenagoa da C garaian (1980-1989) agertzen den kopuruaren nagusitasuna. Izan ere, guztira dauden 121etik erdia baino gehiago, 68, garai horretakoak baitira.

#### 3.4.4.1.- Osaera

Egitura nagusiak menpekotasunezkoak dira, ondoko hauek salbuetsiz:

(64)

9002P	<i>Esparru-Hitzarmen</i>	acuerdo marco
8602P	<i>Erresuma elkartekide</i>	estado miembro

Mugakizun elkartuak, bere aldetik, menpekotasunezkoak dira, ondoko salbuespen bakar honekin:

(65)

78	<i>errege dekretu-lege</i>	real decreto ley
----	----------------------------	------------------

#### 3.4.4.2.- Iruzkinak

Aurreko multzoan bezala, hainbat kasutan hiruko elkartean ez da erraza bikoteak osatzea; batzuetan, gainera, ez datoz bat morfologia-osaera eta testuotako hitzen idazkerak erakusten duena. Esate baterako (72) adibidean logikoena izango litzateke elkartu sintetiko bat ikustea: *hauteskunde-lege + hauspen* baina jakinik hamaika bider agertzen dela *legehauspen* erdal *delito*-ren itzulpen bezala, uste dugu horren interpretazioa dela idazkerak erakusten duena, hau da, erdal hitzak itzultzen dituen.

(66)

9005P	<i>hauteskunde- legehauspen</i>	delito electoral
-------	---------------------------------	------------------

Antzeko kasuak iruditu zaizkigu ondoko hauek

(67)

36	<i>erri-epailemai</i>	Tribunal Popular
8308P	<i>Udal-Agintarau</i>	ordenanza municipal
8308P	<i>udalagintarau</i>	ordenanza municipal
8508P	<i>zahar -bisisari</i>	jubilación

Bada horietan ere elkartu konplexuez hitz, itxuraz lexikalizatuak egiteko joera, ondoko adibideetan ikus daitekeenez:

(68)

8803P	<i>zigorlegepidetzaren alorreko erantzunbehar</i>	responsabilidad penal
8309P	<i>Gizartesegurantzaren lege-jaurpidetza</i>	régimen jurídico de la Seguridad Social

### 3.4.5.- Elkarte nagusiko bi osagaiak elkartuak direnean ( $2 = (a \& b) \& (c \& d)$ )

Horien kopuruak askoz apalagoak dira 55.a) taulak erakusten duenez: A garaian 5, C garaian 7, D garaian 8, eta bat ere ez B garaian.

Lau hitz elkartzen dituzten elkarte horiek denek menpekotasunezko egitura binarioa  $(a \& b) \& (c \& d)$  daukatenez, elkarte nagusiaren bi osagaiak argi geratzen dira. Gainera, elkartzen diren elkarteak, gehienak nahiko lexikalizatutakoak dira; asko, halaber, erdi-atzizki diren mugakizunez osatutakoak

Talde honetan ez dago morfologia-arazo berezirik, ez bada osagaietako batzuek berez dauzkatena. Esate baterako: *laterri*. Besterik da esanahiaren aldetik eduki ditzaketeen zehaztasunik eza edo erabilera-eskasia: esate baterako: *gizarte-erabide* gaztelaniazko *orden publico* itzultzeko edo *zeregin-geldialdi*, erdarazko *suspensión de funciones*-en baliokide bezala.

### 3.4.6- Mugatzailearen koordinazio-hedapenak ( $6 = (a+b) \& c$ )

Ondoko hiru kasuok besterik ez dira egokitu gure EUSBetan, baina gure ustez ugari samar aurki daiteke corpusean.

(69)

8903P	<i>jarauntsi eta emaitza-zerga</i>	impuesto sobre sucesiones y donaciones
9601P	<i>azterketa eta meritu bidezko lehiaketa</i>	concurso oposición
8319P	<i>herri-lanak eta hirigintza ministeritza</i>	ministerio de obras públicas

Azken aposizio hori modu ez arauzkoan osatuta dagoela esan behar da, koordinazioko lehen osagaiak plural-marka daramanez.

### 3.4.7.- Elkarte-egitura are konplexuagoak (5,7,8...)

- **Mugatzailea bakuna eta mugakizuna '3'** ( $5 = a \& ((b \& c) \& d)$ )

(70)

8328P	<i>alkate-udalbatzarburu</i>	alcalde-presidente
-------	------------------------------	--------------------

Atributu-erlazioa da nagusia multzo honetan.

- **Mugatzailea bakuna eta mugakizuna '4'** ( $7 = a \& (b \& (c \& d))$ )

Horrelakoetan, elkarte-erlazio guztiak dira menpekotasunezkoak.

(71)

8504T	<i>lege-aintzinegitasmo</i>	anteproyecto de ley
9204P	<i>lege aurregitasmo</i>	anteproyecto de ley

•

- **Mugakizuna bakuna eta mugatzailea '4'** ( $((a \& (b \& c)) \& d)$ )

(72)

37	<i>Erritar-Arkibidea Legea</i>	Ley del Registro civil
----	--------------------------------	------------------------

Aposiziokoa da elkarte nagusia

- **Mugakizuna bakuna eta mugatzailea '3' (((a&b)+c)&d )**

(73)

8102R      *legebiltzarkide-aldi*      mandato legislativo

•

- **Beste multzo konplexuak**

(74)

36      *gizarte-hazikera -laguntza*      asistencia social

Erdarazkoa kontuan hartu gabe bi erataratu daitezke: ‘gizarteari dagokion hazikera-laguntza’, eta ‘gizarte-hazikerari dagokion laguntza’.

### 3.5.- Iruzkin orokorrak

- **Elkarketa-mota bakoitzaren presentzia.**

Hitz-elkarketa gehienbat izenak eratzeke modua denez, espero zitekeen bezala, presentzia handia dauka izendatzea helburu duen zerrenda batean.

EUSBak osotasunean hartuta zer ziren galderari erantzuten genionean ikusten genuen hein handi batean hitz elkarteak zirela, baina hitz-elkarteak EUSBak baino askozaz gehiago dira, zenbaitetan hitz elkarte bat baino gehiago dagoelako.

LEF Batzordeak proposaturiko sailkapenaren arabera aztertu ditugularik hainbat xehetasun nagusi ondorioztatu dugu.

Orokorrena izango litzateke adigaien izendapenari loturiko elkarte-motak ugariak direla, eta aitzitik, eginkizun hori ez daukatenak hala nola adjektiboak osatzen dituztenak edo formaltasunik gabeko hizkeretako edo adierazkortasunaren eta sentimenduen munduko zerak adierazteko erabiltzen direnak oso urri erabiltzen direla.

Horrela, izenondo bahuariak (LEFeko 3. taldea) edo 15. taldeko izengoiti-elkarteak edo sinbolismo fonetiko eta hots uztardurakoak (16) ez dira agertzen, eta tautologiazkoek, esate baterako, oso agerpen gutxi daukate.

Beste mota batzuetako elkarten presentzia, berriz oso ugaria da, bereziki sintetikoena eta menpekotasunezko izen elkartuena; zerbait gutxiago *jarleku* moduko *aditzoin* + *izen* osaerakoena. Izan ere, 200 inguru kokatu ditugu sintetikoen artean eta 1130 menpekotasunezko izen-elkarteetan. Azken horien talderik handiena, 770 agerpenekin, *behi-esne* moduko izen-elkarte arruntena da. Aditzoin + izen modukoak, beste 127 dira gure kontaktetan.

Oso argi geratzen da, beraz, corpuseko elkarketa batez ere menpekotasunezko izen-elkarketa dela.

LEFen sailkapeneko beste talde askok badute presentzia EUSBetan, baina aski urria taldeak banan bana hartuta.

Gainerako multzoetan, handiena, 47 agerpenekin, *lotsagabe* modukoek osatzen dutena da; baina agerpen gehienak ez dira aditzondoan, baizik horietatik eratorritako izen eta izenkienak.

Parekotasunezkoei gagozkielarik, talde handiena dvandvena da, baina 33 besterik ez ditugu zenbatu, eta gehienak errepikatuak. Atributu eta koordinazio-elkarteena, 16 agerpenekin, bereziki iluna iruditu zaigu, osagaien arteko erlazioa zein den erabakitzeke zailtasunagatik. Eta aposizio-elkartei dagokienez, esan behar da oso erabilpen eskasekoa dela, 8 besterik ez baitira, hizkera teknikoetarako egotzi ohi zaien erabilgarritasunaren aurka.

Bikoiztapenek, izaera-elkarteek, asmo-elkarteek edo aditz-elkarteek aski multzo txikiak osatzen dituzte oro har corpusean.

- **Garai batetik besterako alde**

Garaian arteko desberdintasuna nabarmena da hitz-elkarketaren erabilerari buruz.

EUSBen egitura aztertzerakoan oharrarazi dugunez, garai batzuetan proportzio handiagoan agertzen dira elkarketak beste batzuetan baino.

Proportzio horiek argi ikus ditzakegu, elkarte bakarra duten EUSBen eta kopuru osoen arteko konparazioa egiten badugu garaiz garai.

	<b>EUSBak guztira</b>	<b>Elkarte bakarra</b>	
<b>A garaia</b>	323	138	42%
<b>B garaia</b>	230	74	32%
<b>C garaia</b>	1274	587	46%
<b>D garaia</b>	1021	379	37%
<b>Guztira</b>	2.858	1.178	41%

**56. taula: Elkarte bakarra duten EUSBak**

Taula horretako ehunekoek aski ongi erakusten dute baliabide honen erabilpenaren gorabehera. A garaian elkarte asko dago, B garaian, inoiz baino gutxiago erabiltzen dira, eta hein handi batean menpekotasunezko elkarte arruntak egiten dira. C garaian berriro gora egiten du, D garaian aldiz behera, baina ez B garaiko mailara.

Elkarte-mota bakoitzean errepikatzen dira, oro har, joera horiek. Kopuruak txikiak direnean ez dira adierazgarri, gerta daitekeelako elkarte bakar baten edo gutxi batzuen errepikapenak erabileraren ugaritasuna aditzera ematea. Horrela gertatzen da esate baterako A garaian dvandva motakoekin, zeinetan *sal+eros* osaerako dvandvak hainbat aldiz errepikatzen diren.

Elkarteen eta, oro har, baliabide morfologikoen erabilerak bi une goren dauzka 1936-37an eta 1980-1989 garaian. Alderantziz, hedapen sintagmatikoak ugariagoak dira beste garaietan. Erlazio aski zuzena, ia-ia alderantzizko proportzioa ikus daiteke elkarteen eta *iz + adj* egituren erabileren artean.

- **Berrelkarketaren presentzia berezia**

Ez dugu konparazio-daturik hemengo kopuruak eta ehunekoak beste testu-motakoekin alderatzeko, baina uste dugu oso ugaritasun handia agertzen dutela elkarte konplexuek gure corpusean.

	Elkarte konplexuak	Elkarte konplexu bat baino gehiago	Guztira
<b>A garaia</b>	43	1	44
<b>B garaia</b>	7	3	10
<b>C garaia</b>	110	82	192
<b>D garaia</b>	76	62	134
<b>Guztira</b>			380

57. taula: Elkarte konplexuak dituzten EUSBak

Garaika banatuta behatzeak aukera ematen digu gorabeherak sumatzeko elkarte-konplexuen erabileran. 1936-37ko garaian bereziki ugari azaltzen dira, eta garai hartako joera “trinkotzailea” islatzen dutenak, *atzergetxe* edo *latziñaltegi*, bezala ez dira falta; aldiz, EKNAOren garaian elkarte konplexuen erabilera erabat jausten da. 1980 urtean izen berria estreinatzen duen aldizkarian, bereziki lehen urteetan, oso ugari daude, baina berrelkarketak maiz ekarri ohi duen interpretazio-zailtasuna badago ere, morfologia-arauen arabera eratuak. Hamarkada horren azken aldera gutxituz doaz, eta urritzeko joera hurrengo garaian areagotu egiten da.

Corpusean guztiz betetzen da berrelkarketarako erraztasunari buruz LEF Batzordearen oharretan esaten dena. Hemen jaso ditugunetako asko dira, esate baterako *euskal* edo *eusko* hitza mugatzaile dutenak, edo mugatzailean, mugakizunean, edo bi tokietan hitz-andana ihartua dutenak. Eta jakina, mugakizuna erdi-hitz erdi-atzizki dutenak, bereziki *-bide-z* osaturikoak maiz agertzen dira elkarketa-multzo konplexuetan.

- **Hitz-elkarte “trinkotuak”**

EUSBen zerrendan zehar ageri da elkarketaz eratutako unitateak hitz “trinko” edo lexikalizatuaren itxura emateko joera. Xede horretarako estrategia desberdinak erabiltzen dira garai batzuetan eta besteetan; gainera, ez da beti indar beraz agertzen. Esaterako, A garaian, jadanik aipatu dugun bezala, tronkazioa erabiltzen da: hitzen arteko loturan ez fonetikak ez gramatikak baimentzen ez dituzten aldaketak sartzen dira; hurrengo garaietan berriz, horrelako desitxuraketarik ez da eragiten, baina idazkerarekin jokutzen da, tradizioaren

aurkako hitz jarraituak idatziaz: marratxoa marratxorik egon ohi ez den tokian, eta idazkera jarraitua marratxoa beharko litzatekeen kasuetan. Ondoko lerroetan elkarketaren inguruko jokabide berezi horien berri emango dugu

o A garaiko elkarte bereziak

Honako zerrendan jaso nahi izan ditugu hitzak moztuz, edo aldaketa fonetiko arauzkontrakoak eraginez eratutako hitz elkartu “trinkotu” argienak.

(75)

36	<i>agintari-aldizkingi</i>	boletín oficial
37	<i>agintaritza-izparkari</i>	boletín oficial
36	<i>agintaritzaren izparkari</i>	boletín oficial
36	<i>agintaritzizparkari</i>	diario oficial
37	<i>atzergetegi</i>	aduana
37	<i>atzergetxe</i>	aduana
36	<i>laterri zaingo</i>	ministerio
37	<i>laterri-legegizon</i>	abogado del estado
37	<i>latziñaldari</i>	notario
37	<i>latziñaldaritegi</i>	notaría
37	<i>Latziñaltegi</i>	notaría
36	<i>laziñaldari</i>	notario
37	<i>ziñaldari</i>	notario
36	<i>ziñaldari barruti</i>	notaría
37	<i>ziñaldaritegi</i>	notaría
36	<i>ogasun salostetxe</i>	bolsa
37	<i>saloste bazkun</i>	empresa comercial
37	<i>salostari</i>	comerciante

o Idazkeraz lexikalizatutzat emateko joera.

B garaia ia berrogei urte beranduago hasten da, eta, jakina denez, gerra-aurreko hainbat hizkuntz jokabide bazterturik daude, baina funtsean aurrekoen helburu bera duen beste jokabide bat ageri da hainbat elkartetan: ortografia erabiltzen da hitz-elkarteei halako trinkotasuna eta lexikalizatzeko-itxura emateko. Gure ustez hori erakusten dute ondoko adibideok:

(76)

36	<i>legezar legedi</i>	derecho foral
37	<i>lege-zarrak</i>	fueros
36	<i>obenaundi</i>	falta grave
36	<i>epailetxe</i>	juzgado
8103P	<i>legenortasundun</i>	persona jurídica
8205P	<i>herrizerbitzu</i>	servicio público
8805P	<i>zigorjaurpideak</i>	régimen sancionador
8328P	<i>alkate udalbatzarburu</i>	alcalde-presidente
8308P	<i>udalagintarau</i>	ordenanza municipal
8503P	<i>gaineko agintemilako</i>	superior jerárquico

8309P	<i>Gizartesegurantzaren lege-jaurpidetza</i>	régimen jurídico de la Seguridad Social:
8332P	<i>herrizudu</i>	interés general
9101T	<i>izuekintza</i>	terrorismo
8309P	<i>Agintemende</i>	jurisdicción
9412P	<i>legemende</i>	jurisdicción
8108T	<i>ogibidearteko gutxienezko lansari</i>	salario mínimo interprofesional
8312P	<i>Lurraldearteko Ordezkaketa-Baltza</i>	fondo de compensación interterritorial
8801P	<i>goradei</i>	recurso de alzada
8308P	<i>berekabuz lan egite</i>	trabajo por cuenta propia
8205P	<i>menpebaltzu</i>	sociedad filial

Luze joko luke horien azterketa xehetua egitea, baina adibideok balio lezakete joera baten erakusgarri gisa. Izan ere, kasu gehienetan suma daiteke sorburuko ESTaren egitura lexikoaren antzekoa erdiesteko asmoa, Alberdi, García eta Ugartebururen 1997ko lanean aztertzen den modukoa.

Urtealdiari begiratuz gero, nabarmena da horrelako gehienak 1980-1990 bitarteakoak direla, eta D garaian, gutxiago sortzen direla; berriak bederen.



## 4.- ERATORPENAREN ETA -KO ATZIZKIAREN ERABILERA EUSKAL SEGMENTU BALIOKIDEETAN

### 4.1.- Sarrera

#### 4.1.1.- Eratorpenaren garrantzia termino-sorkuntzan.

Eratorketa denez, hitz-elkarketarekin batera, euskarak duen bide lexikogenetikoetako nagusia, ezinbestekoa da termino sortu berrien azterketa linguistiko batean eratorpenak duen egitekoa aztertzea.

Jakina da eratorpena beste bide lexikogenetikoekin batera gerta daitekeela; eta termino asko eta asko era berean elkartuak eta eratorriak direla. Baina eratorpenaren presentzia itzelaz oharrarazteko izen bakunez eraturako EUSBen multzoari begiratu diogu honako emaitzekin:

	<b>EUSB = Iz</b>	<b>soila</b>	<b>eratorria</b>
<b>A garaia</b>	62	18	44
<b>B garaia</b>	45	25	20
<b>C garaia</b>	159	57	102
<b>D garaia</b>	129	46	83
<b>Guztira</b>	395	146	243

**58. taula: Izen bakunak: soilak eta eratorriak**

Taulak erakusten duenez askoz gehiago dira hitz eratorriak soilak baino, eta gainera ohart gaitezke soilen eta eratorrien proportzioak gorabehera handiak dituzteka garaitik garaira.

Atal honen helburua ez da inondik ere EUSBetako eratorbidearen guztizko azterketa egitea, askoz mugatuagoa baizik. Gure asmoa, maiztasunik handiena duten atzizkien erabilerak aztertzea da.

Corpus elebidun paraleloekin jokatzek bidea ematen digu erabilera konkretuko esanahiari buruzko azterketak egiteko. Izan ere, eratorpenaz den bezainbatean gai jakina eta are topikoa da hainbat atzizki desberdinez oinarri berarekin osaturiko hitzen esanahiak ez direla oso garbi bereizten. Hori esan izan da batez ere aditzoinari erantsiz ekintza / ondorio adierakoak osatzen dituzten *-tze*, *-keta*, *-kunde*, *-kuntza*, *-men*, *-mendu*, *-pen*, *-era*, *-kera* atzizkiez. Badira Euskaltzaindiaren esku-hartze berezia eskatu duten beste gai batzuk, hala nola *-ari* / *-(tzai)le* atzizkien erabilera nahasitakoa, eta *-garri* / *-kor* atzizkiak.

EUSB bakoitzaren agerpen-datekin jokatuaz aztertu ahal izango dugu, datuak deigarriak direnean bereziki, nolako jokabide desberdinak izan diren garai batzuetan eta besteetan erator-atzizki honi edo hari buruz.

Aurrerago azaltzen dugunez, *-ko* atzizkia ez da erator-atzizki hutsa, hainbat funtzio desberdin baititu, gehienetan, izenlagunak sortzea, baina erator atzizkia ere badenez, atal honetan aztertzea erabaki dugu, corpusean eraikuntza aski bitxietako osagaia baita.

#### 4.1.2. -Eratorpena eta elkarketa; morfologia eta sintaxia.

Ohikoa da euskal gramatiketan irakurtzea badirela hainbat egitura lexiko bai eratorpenean bai elkarketan sar daitezkeenak. Izan ere, badira arrazoiak esateko *bide*, *gai*, *kide* bezalakoak hitz beregainak direla bakarrik doazenean, baina izaera hori ukatzeko beste hitz bati loturik agertzen direnean. Are gehiago, *-gintza*, *-gile*, *-dun* ez dira inoiz hitz beregainak, baina hala ere, haiez osaturikoak hitz-elkarte bezala hartzeko arrazoiak pisukoak dira.

Eztabaida eta arazo horietan sartu gabe, gure aldetik, Euskaltzaindiaren LEF batzordearen argitalpenetan, bereziki *Hitz elkartuen osaera eta idazkera*. *Hitz-elkarketa 4* izenburukoan elkarketaren kasu bezala tratatzen diren guztiekin jokabide berbera izango dugu eta eratorpenean ez ditugu aztertuko.

Horrek ez digu galarazten eratorpena lantzen dugularik, konparazio batzuetarako, erdibideko *-gile*, *-pide* eta *-dun* dunak ere hona ekartzea.

Bestalde, gaian sartu aitzina aipatu beharrekoa da atal honen izenburuan ‘*Eratorpena*’ hitza idatzi badugu ere, hemen azterkizun ditugunak ez direla erator-atzizkiak bakarrik, jakina baita *-ko* atzizkiaren izaera askotarikoa, besteak beste, funtzio sintaktiko garbikoa, izenlagunak osatzen dituenen.

#### 4.2.- *-(t)asun*, eta *-keria* atzizkiak corpusean

Izen abstraktuak (gehienbat) eratzen dituen atzizki hau bizien eta emankorrenetakoa dugu hala euskara osoan nola termino berriak osatzerakoan. Ondoko taulak erakusten du garai bakoitzean eta oro har, zenbat EUSBetan aurkitzen den atzizki hau.

	<b>-tasun</b>
<b>A garaia</b>	7
<b>B garaia</b>	4
<b>C garaia</b>	64
<b>D garaia</b>	59
<b>Guztira</b>	124

59. taula: *-tasun* atzizkia

Ohi denez, EUSB desberdinak izan arren, hitzak errepikatu egiten dira. Atziziki honetaz eraturiko 58 hitz desberdin zenbatu ditugu. Hona:

(77)

<i>agirikotasun</i>	<i>agiritasun</i>	<i>ahaidetasun</i>	<i>aldaezintasun</i>
<i>alkartasun</i>	<i>antijuridikotasun</i>	<i>askatasun</i>	<i>aurkakotasun</i>
<i>auzotasun</i>	<i>barnekoitasun</i>	<i>batasun</i>	<i>bateraezintasun</i>
<i>berjabetasun</i>	<i>bidezketasun</i>	<i>burujabetasun</i>	<i>deneantzekotasun</i>
<i>egiazkotasuna</i>	<i>elkar-egokitasun</i>	<i>elkarezintasun</i>	<i>elkarkidetasun</i>
<i>erruduntasun</i>	<i>errugabetasun</i>	<i>ezgaitasun</i>	<i>ezintasun</i>
<i>gaieztasun</i>	<i>gaitasun</i>	<i>gaixotasun</i>	<i>garbitasun</i>
<i>herritartasun</i>	<i>herritasun</i>	<i>iareitasun</i>	<i>inpartzialtasun</i>
<i>interesgarritasun</i>	<i>isiltasun</i>	<i>jabetasun</i>	<i>kidetasun</i>
<i>konstituzionaltasun</i>	<i>konstituziotasun</i>	<i>kontrakotasun</i>	<i>legetasun</i>
<i>legezkotasun</i>	<i>lehentasun</i>	<i>menpetasun</i>	<i>mugikortasun</i>
<i>naziotasun</i>	<i>nortasun</i>	<i>nortasundun</i>	<i>ogasun</i>
<i>ondasun</i>	<i>osasun</i>	<i>segurtasun</i>	<i>senidetasun</i>
<i>tronkalekotasun</i>	<i>urkotasun</i>	<i>xehetasun</i>	<i>zilegitasun</i>
<i>zuurtasun</i>			

Kopuruak argiak dira: 123 agerpen eta 58 hitz desberdin zenbaki handiak dira. Dudaezinezkoa da atzizki honen emankortasuna. Gainera, azken bi garaietan emankortasun hori areagotu egiten da.

#### 4.2.1.- *-(t)asun* atzizkiaren formaz, oinarriaren kategoriaz eta osaeraz.

*-tasun* da ia guztietan aurkitzen duguna; *-asun*, ‘t’-rik gabeko atzizkidunei dagokienez, guztiz lexikalizaturiko *ogasun*, *ondasun* eta *osasun* besterik ez dugu aurkitu.

Oinarriaren kategoriaz den bezainbatean, izenak (*gai*, *senide*, *herri*), numeralak (*bat*), galdetzaileak (*nor*), era askotako adjektiboak (izenondoak, *-tar*-ekin osatutakoak, *-dun*-ekikoak, hainbat moldetako izen lagunak) aurki daitezke.

Hainbat kasutan atzizki-metaketa (*mugikortasun*, *barnekoitasun*) gertatzen bada ere, behin bakarrik ageri da *-garri* + *-tasun* (*interesgarritasun*), baina ez da espero zitekeen erdal ‘*bilidad*’ itzultzen duen ezer.

Kasu bakar batean (*nortasundun*) aurkitu dugu atzizkiaren antzeko bat *-tasun*-en eskuinera, baina hitz-elkartetzat joko dugunez, ez dugu hemen aztertuko.

Zortzi kasu desberdinetan aurkitu ditugu *X* + *-ko* + *-tasun* egiturako hitzak. Hona:

(78)

<i>agirikotasun</i>	<i>bidezketasun</i>	<i>legezkotasun</i>	<i>legezkontrakotasun</i>
<i>aurkakotasun</i>	<i>egiazkotasun</i>	<i>tronkalekotasun</i>	<i>deneantzekotasun</i>

Oinarriaren osaerari dagokionez interesgarria da ondoko (79) adibideko bikotea, erakusten duelako nolako zalantzak dauden zerbaiten ukapena adierazi

nahi duten hitzak ‘ez’ partikularen bidez eratzerakoan. Izan ere *izond + ez + -tasun*) osaera aski bitxia dela esan behar da.

(79)

9005P	<i>gaieztasun</i>	incapacidad (jurídica)
9203F	<i>ezgaitasun</i>	incapacidad (jurídica)

#### 4.2.2.- Iruzkina

Esanahiaren aldetik, atzizki hau gardena eta sistematikoa da; eraturiko hitzak ia beti dira izen abstraktuak, oinarriaren nolakotasun adierazten dutenak.

Izenak, baina ez abstraktuak dira, hain zuzen ere, *ez –tasun* baizik *–asun* atzizkiak osatutako *ogasun, osasun, ondasun*, lehen aipatuak.

Oinarria izenondo edo beste edozein adjektibo motatakoa bada, eratorritako izena guztiz gardena izaten da, baina oinarrian beste zerbait dagoelarik, batzuetan eratorria ez da guztiz garbia. Ondoren, EUSBetan aurki daitezken zalantzazko kasuen adibide gisa, bakarren batzuk iruzkinduko ditugu:

(80)

(a)	8906P	<i>naziotasuna galtze</i>	pérdida de la nacionalidad
(b)	8906P	<i>auzotasun</i>	vecindad
(c)	9203F	<i>foru-herritasun</i>	vecindad foral
(d)	9203F	<i>herritasun zibil</i>	vecindad civil
(e)	9203F	<i>herritartasun</i>	vecindad civil

Azpiratutako genue denetan izena dela oinarri, baina *auzotasuna*-ren kasuan, *auzo* hitzaren esanahi bikoitza (tokia, eta tokiko pertsona) dela-eta, onargarria iruditzen zaigu hitz hori erdal *vecindad (cualidad de vecino)* itzultzeko, baina *herri-k* tokia, edo pertsona-multzoa, baina ez pertsona, adierazten duenez, *herritasun* hitzak ‘*cualidad*’ edo ‘*carácter de pueblo o nación*’ adierazteko balio lezake, baina ez ‘*carácter de vecino o ciudadano*’. Izan ere, lege berean dugu irtenbide zuzena (*herritartasun*), (80e) adibideak erakusten duen bezala.

Beste hainbat hitzetan arazoak egon badaitezke ere, seinalatuko genue arazok ez datozela *–tasun* atzizkiaren erabileratik, aukeratutako oinarritik baizik. Zalantza horiek gorabehera esan daiteke EUSBetako adibideetan *–tasun* atzizkia oso emankorra dela, eta gainera, ia kasu guztietan hartaz eratutako hitzak gardenak direla.

#### 4.2.3.- *–tasun / –tza / –go* oinarri berarekin.

Zenbaitetan atzizki horietaz eratutako hitzak oso antzeko baliokoak izaten dira; adibidez, *alarguntasun / alarguntza*.

Horrelako bikoterik edo hirukoterik ba ote zegoen aztertu dugu EUSBetan. Oinarri bakar batekin —*jabe*-rekin— eraturiko hitzak aurkitu ditugu,

eta hiru atzizkiak erabiltzen direla. Bost adibideok erakusten dutenez, balio berdintsua dute kasu horietan hiru atzizkiek

(81)	37	<i>jabetza eskubide</i>	derecho de propiedad
	8909P	<i>jabego-eskubide</i>	derecho de propiedad
	8108T	<i>nahitaezko jabego-kentze</i>	expropiación forzosa
	8327P	<i>burujabetza</i>	autogobierno
	8109P	<i>jabetza</i>	autonomía
	8201P	<i>burujabetasun</i>	autonomía

#### 4.2.4.- *-keria* atzizkia

Hona taula batean EUSBetan *-keria* atzizkiaz eraturik agertzen diren hitzen kopuruak eta hitz desberdinak garaiz garai.

	Kop.	desberdinak
<b>A garaia</b>	2	nolabaitkeria, arinkeria
<b>B garaia</b>	4	zabarkeria, gaiztakeria
<b>C garaia</b>	10	agintekeria, alderdikeria, ajolagabekeria, azpikeria, ebaskeria, gehiegikeria, marrukeria, utzikeria, zabarkeria
<b>D garaia</b>	6	alderdikeria, gehiegikeria, indarkeria, maltzurkeria
<b>Guztira</b>	22	15

#### 60. taula: *-keria* atzizkia

Aurrekoaren antzera, askoz mugatuagoa bada ere, atzizki hau emankorra eta erabilerraza da.

Eraturiko hitz guztiek, atzizkiak ezartzen duen gaitzespen sema dela eta, zuzenbidearen hausturak adierazten dituzte.

Hainbat kasutan, EST bera itzultzeko, oinarri desberdinei eransten zaie atzizki hau, sinonimoak lortuaz:

(82)	78	<i>zabarkeria argi</i>	negligencia notoria
	8201P	<i>ajolagabekeria</i>	negligencia
	8503P	<i>utzikeria</i>	negligencia

#### 4.3.- Izena *+tza, -go, -di, -eria, -tegi* atzizkiaz osaturikoak

*-tza* atzizkia alde askotarikoa dugu. Alde batetik autonomia osoa duten beste atzizkien (adibidez: *-kuntza*) bukaeran aurkitzen dugu, beste aldetik, erdi-atzizki erdi-hitz den *-gintza*-ren osagaia da, eta atzizki autonomoa denean ere, bi edo hiru atzizki desberdintzat jotzen da (Azkarate: 1991),(Alberdi: 1995).

Horietako bi, *-tza<sub>1</sub>* eta *-tza<sub>2</sub>*, izenari eransten zaizkio, eta lehenak, ofizio, erakunde (*alkatetza*) adierako izenak ematen ditu, bigarrenak, berriz, (*-tza<sub>2</sub>*),

multzoa adierazten duten izenak sorrarazten ditu : *dirutza*, *jendetza*. Hirugarrena, aldiz, (-*tza*<sub>3</sub>) aditzoinari erantzen zaio: *emaitza*, *egoitza* bezalako hitzak sortuaz.

Hemen, Alberdik (1995) bezala, *-tza*<sub>1</sub> deituko dugun atzizkiaz arituko gara<sup>22</sup>, hau da, '+ pertsona' azpikategoriazioa duen izenari erantsiz, ofizio, kargu, edo erakunde bezalako esanahia duen izena eratzen duen atzizkiaz.

Ez ditugu hemen ikusiko *-gintza/ -kintza* bukaeradunak, hitz-elkarteak aztertzerakoan baizik.

#### 4.3.1. *-tza* atzizkiaz

*Izena + -tza* osaerako hitzak 176 bider aurkitu ditugu, guztira 53 hitz desberdin osatzen direlarik. Hona garaikako eta atzizkikako banaketa:

	Guztira	<i>-tza</i>	<i>-aritzea</i>	<i>-b/-pidetzea</i>
<b>A garaia</b>	12	3	7	2
<b>B garaia</b>	5	1	4	0
<b>C garaia</b>	115	7	95	13
<b>D garaia</b>	44	9	35	0
	176	20	141	15

61. taula: *tza* atzizkia

Taulak erakusten duenez, *izena + -tza* egitura duten hitz ugari dago corpusean, baina horietako asko, 141, *izena + -ari + -tza* osaerari dagozkio. Ondorengo azterketan, egiaztapen horren ondorioz, multzo bereziak egin ditugu osaerari hori ez dutenekin. Halaber, nahiz eta elkarketan ere aztertzen ditugun, *X+ bide+ -tza* osaeradunen *-tza* atzizkia aztertu nahi izan dugu.

Zerrenda osoan badira bi (*baldintza* eta *ezetza*) bereziak direnak, oinarrian izena ez dutelako.

4 dira *-kide+ -tza* dutenak, 2 hitz desberdin.

#### 4.3.2.- (Ofizio)-izen + *-tza*)

23 EUSBetan (aurrerago aztertzen diren *-aritzea* atzizkidunak kenduta) agertzen da *izen +- tza* = ofizio edo kargu izena adierazten duen hitza. 23 horietatik, honako 15 hauek dira desberdinak:

(83)

<i>arbitrotza</i>	<i>tutoretza</i>	<i>oinordetza</i>	<i>oinordekotza</i>
<i>babesletza</i>	<i>epailetza</i>	<i>eskuduntza</i>	<i>ordezkotza</i>
<i>lekukotza</i>	<i>kuradoretza</i>	<i>burujabetza</i>	<i>ondorengotza</i>

<sup>22</sup> Hala ere, aurrerago adierazten dugun bezala, hemen aztertzen dtugun *-tza*-dun batzuen interpretazioa aski zalantzazkoa da, eta multzo-izen bezala ere interpreta daitezke. Esate baterako: *legepidetzea*.

*maisutza                      jabetza                      ministeritza*

Aurrekoen artean bada bat, *ministeritza* euskal eratorpenaren ikuspegitik azal ezina dena, izan ere *-eri-* ez baita erdal *-erio/ ère* atzizkiaren egokitzapena baino. Baina zuzentasuna gorabehera, uste dugu *-tza* atzizki hori hemen sartu behar dela.

#### 4.3.3.- *-ari + -tza* dutenak

Adiera aldetik aurrekoak bezala instituzioa, kargua edo ofizioa adierazten dute, baina gure corpusean daukaten agerpen-ugaritasun kontuan harturik, multzo berezia egin dugu *izen+ -ari+ -tza* atzizki konposatua dutenekin.

Ondoko taulan ikus daitezke horrela osaturiko hitzen kopuruak garai garai, eta zein hitz desberdin dauden.

	<b>-aritz</b>	<b>arduralaritz</b>	<b>-aritz-dun hitz desberdinak</b>
<b>A garaia</b>	7	0	jaurlaritz, agintaritz, banakaritz, lendakaritz, lanaritz, salataritz., zuzendaritz
<b>B garaia</b>	4	0	kontseilaritz, merkataritz,
<b>C garaia</b>	42	53	aseguroalaritz, erroldaritz, arduralaritz, epaikalitz, epaialaritz, ordezkalaritz, sindikalitz, legelaritz, lehendakaritz,
<b>D garaia</b>	28	7	zergalaritz, ikuskaritz,
<b>Guztira</b>	81	60	

**62. taula: *-ari + -tza* atzizkiak**

Guztira 20 hitz desberdin dira. Banaketa kronologikoaren aldetik, maiz gertatzen den bezala, A eta C garaiak dira oparoenak.

*Arduralaritz* hitza da, esan dugunez, agerpen gehien duena. Izan ere, 1980 aldean lehen aldiz agertzen den hitz hori hutsik gabe erabili da hainbat urtetan —oro har 1980ko hamarraldian— erdal *administración* eta haren adjektibo *administrativo*-en ordainetan. Ondoko urteetan, *administrazio* hitza da, hasieran noiz behinka, eta geroago erabatekotasunez, hura ordezkutzen duena. Azpimarratzekoa da A garaian ez dela hitz hori erabiltzen, gehienetan *banakaritz* baita *administración*-en itzulpen-baliokide<sup>23</sup>.

<sup>23</sup> *Arduraduntza* hitza ere agertzen da EAgEn, baina ez gure corpusean, erdal *intendencia*-ren baliokide bezala (HAEE / IVAP 1997).

## 4.3.4.- X + -bide + -tza

Ondoko taulan  $X + -bide$  elkarteari  $-tza$  atzizkia eranstean zaiolarik eraturiko hitzak garaika nola banatzen diren ikus daiteke.

	kop.	hitz desberdinak
<b>A garaia</b>	2	arkibidetza
<b>B garaia</b>	0	
<b>C garaia</b>	13	erapidetza, erabidetza, antolapidetza, jaurpidetza, sorospidetza, aburupidetza, legepidetza, zergapidetza
<b>D garaia</b>	0	
	15	9

63. taula:  $-bide + -tza$  duten EUSBak

Erabilerari dagokionez ugariak ez badira ere, esanguratsua da banakera kronologikoa. A garaian 2 bider, B garaian behin ere ez da erabiltzen, eta C garaian pilatzen dira beste agerpen guztiak; D garaian, horrelako hitzik duen EUSB berri bat ere ez dago.

$X+ -bide+ -tza$  osaturiko hitz horietako  $-tza$  atzizkia zer den erantzutea ez da gauza erraza. Hitz eratorri osoei, (*legepidetza, zergapidetza...*) begiratzen badiegu, esanahiaren aldetik zehazteko zailtasunak ditugu. Badukete zerikusia kargu, ofizio edo erakunde esanahia dutenekin, baina haien osieran ez dago *egile izena+ -tza*<sub>1</sub> = 'ofizio, kargu erakundea'.

Galde dezakegu ez ote diren hobeto esplikatzen Azkaratek (1991:47) '*tza*<sub>2</sub>' atzizkia deitzen duena dugula kontsideratuaz. Hau da, *dirutza, jendetza, belartza*, bezalako hitzak, alegia, multzo handia edo adierazten dutenak osatzeko atzizkia. Baina Azkaratek oharrarazten duen bezala '*tza*<sub>2</sub>' atzizkiaren oinarritzko izena ez eratorria, '+ konkretu' azpikategoriakoa izan denez, zail da interpretazio hura onartzea.

Beste aukera izan zitekeen  $-tza$ <sub>3</sub> (*jaiotza, ezkontza, eskaintza*) ekintza adierazten duen atzizkia dela pentsatzea, eta horretarako bidea ematen duen adibide bat ere badago, baina askoz ugariagoak dira ekintza esanahia arbuiatzeko argudioa ematen duten adibideak.

(83)

37	<i>erritarren arkibidetze legea</i>	ley del registro civil
37	<i>saleroste arkibidetza</i>	registro mercantil

Gainera, hainbat kasutan aurki daitezke  $X+ bide$  eta  $X+ bide+ -tza$  bikoteak, esanahi berarekin kasu gehienetan.



(84)

(a)	37	<i>saleroste arkibidetza</i>	registro mercantil
(a')	37	<i>erritar-arkibidea legea</i>	ley del registro civil
(b)	8903p	<i>zergapide-egoitza</i>	domicilio fiscal
(b')	8903p	<i>zergapidetza-lan</i>	gestión tributaria
(c)	8806r	<i>foruzko legepidetza</i>	derecho foral
(c')	8806r	<i>herri-alorreko legepide</i>	derecho civil
(c'')	8602g	<i>elkarte- legepidetza</i>	derecho comunitario

Sorburuko ESTari begiraturik badakigu itzultzaileak 'erakunde' esanahiko hitza eratu nahi izan duela, baina erabilitako baliabideak ez dira oso argiak, ez eta erdietsitako hitzak.

Edonola ere, ez dugu ahantzi behar *X+bide* elkarteei buruz esaten duguna hala elkarketa aztertzen dugularik (supra VI.,3.3.11) nola *bide*-ren erabilera lantzen dugularik (infra VI.,5.6.); eratorriaren oinarritik beretik baitatoz arazoak.

#### 4.3.5.- -go atzizkia

Gehienbat Ekialdeko tradizioan erabili den *-go(a)* atzizkiaren inguruan zeuden hainbat zalantza argitzeko bidean jarrita daudela dirudi. Esate baterako, orain hamar urte Azkaratek (1991: 37) planteatzen zuen ea ez ote ziren bereizi behar hainbat '*-goa*' desberdin. Badirudi puntu hori argiturik, ez dagoela horrelako aniztasunik tradizioan, bai, ordea, bi adiera edo<sup>24</sup> dituen atzizki bakarra. Hain zuzen, ustezko aniztasunean oinarriturik, azken urte hauetan Hegoaldean multzokari gisa erabili izan da.

Ondoko taulan jasotzen dira garaiz garai *-go* atzizkiaz eraturiko hitzak agerpen-kopuruekin. (Ezkerrean zenbakirik ez dutenak behin bakarrik agertzen dira.)

	Kop.	Desberdinak
<b>A garaia</b>	4	zaingo
<b>B garaia</b>	9	administratzgo, administralgo, gehiengo, jabego, merkatalgo, ministergo,
<b>C garaia</b>	18	gehiengo, herrizaingo, jabego, jaurgo, kidego, zaingo
<b>D garaia</b>	9	elkargo, erkidego, gehiengo, jaurgo, kidego,
<b>Guztira</b>	40	17

64. taula: -go atzizkia

#### 4.3.5.1.- Iruzkinak

Berrogei EUSBetan agertzen da *-go* atzizkia, hamahiru hitz desberdin osaturik.

<sup>24</sup> Euskaltzaindairen 73. arauak badirudi bi adiera edo bi *-go(a)* onartzen dituela, ofizioa edo lanbidea adierazten duena, eta tasuna adierazten duena.

Kasu bakar batean aurkitzen dugu *-tza* atzizkia ere hartzen duen aditzoinari erantsita: *zaintza / zaingo* bikotean.

*Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoaren* garaian, Leizaolak azaltzen duenez, (1977ko berrargitalpenaren hitzaurrean) *zaingo* hitza Zuberotik hartu zen Jaurlaritza osatzen zuten atal nagusietako (Consejería, erdaraz) bakoitza izendatzeko.

Adiera horretan ez da gehiago erabiltzen gure corpusean, eta honako terminoak itzultzeko erabiltzen da:

(85)

1983	<i>zaingo</i>	fiscalización
1988	<i>herrizaingo</i>	orden público
1989	<i>Haurren Zaingorako Epaitegi</i>	Tribunal Tutelar de Menores

Bestalde, oharraraztekoa da, agertzen diren 13 hitz desberdinetatik zenbat diren nolabaitekoak arrazoi batengatik edo bestearengatik. Esate baterako, *administrazgo*, *administralgo* edo *ministergo* hitzen oinarria guztiz asmatua dirudi. Bestalde, ondoko puntuaz aztertzen dugun multzokari-adieraren arazoaz at, uste dugu *administralgo*, *administrazgo*, *kidego*, *lanarigo* eta *ministergo*, hitzak oso epe laburrekoak eta erabiltzaile gutxikoak izan direla<sup>25</sup>, eta hala *erkidego* nola *jaurgo* hitzen erabilera ere oso gorabeheratsua izan dela.

#### 4.3.6.- *-go* eta *-eria/ -di* atzizkiak

Puntu honen hasieran esan dugun bezala, Hegoaldean azken hamarraldiotan, tradizioz gabeko esanahi multzokaria eman zaie *-go* atzizkiaz osatutako hainbat hitzi.

Goiko zerrendako hitzetan honako hirurok izan litezke horrelako adiera dutenak: *gehiengo*, *lanarigo*, *kidego*,

Hitz bakarra aurkitu dugu *-eria* atzizkiaz eratuta eta multzokari adierarekin: *legeria*.

Lau hitz desberdin kausitu dugu *-di*-rekin eratuak: *legedi*, *araudi*, *aldundi* eta *Euzkadi/Euskadi*.

Ez dute emankortasun handirik atzizki horiek gure corpusean; baina, EUSBetako pluralen erabilera aztertzen dugularik (infra 6.4.) ikusi ahal izan dugu hainbat kasutan ESTko esanahi multzokaria islatzeko pluralaren morfemak erabiltzen direla.

<sup>25</sup> Maiztasun Hiztegiaren ez daude *lanarigo* eta *kidego*; besteak bai, baina geroko Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan ez da bat ere jasotzen.

#### 4.3.7.- *-tegi* atzizkia

Ondoko taulan, oinarri bati *-tegi* atzizkia eransten zaiolarik eraturiko hitzak garaika nola banatzen diren ikus daiteke.

	<b>kop.</b>	<b>desberdinak</b>
<b>A garaia</b>	21	atzergategi, aurzaitegi, auzitegi, dirutegi, diruzaitegi, epaitegi, latziñaldaritegi, latziñaltegi, ziñaldaritegi, ogasuntegi, salerostegi, saltegi,
<b>B garaia</b>	6	auzitegi
<b>C garaia</b>	14	auzitegi, epaitegi, erroldetegi, lantegi, ustiategi
<b>D garaia</b>	19	auzitegi, epaitegi, lerrokategi, saltegi,
<b>Guztira</b>	60	

**65. taula: *-tegi* atzizkia**

Agerpen ugari dauka atzizki honek gure corpusean. Nahiz eta, termino ugaritan bi hitz errepikatzen diren: *auzitegi* eta *epaitegi*.

Azpimarratzekoa deritzogu lehen garaian erakusten duen emankortasunari. Hain zuzen ere, 65. taulan agertzen diren 17 hitz desberdinetarik, 12 A garaikoak dira.

Esan bezala, horietako hitz gehienak A garaian agertzen dira, baina berezitasun batekin: ondorengo garaietan ez dira agertzen.

LEF batzordeak (1997:1042) oharrarazten duenez tradizioan aurrekari eskasa duten erabilerak nabarmendu dira azken mendean. Gure EUSBetako adibideetan, alde horretatik inolako arazorik ez duten hainbaten aurrean, oinarrian aditza dutela diruditen batzuk ere badira: *salostegi*, *saltegi*, *ustiategi*, *lerrokategi*.

A garaikoen artean, oinarriaren kategoria izena bada ere, aski berezitzat eman behar dira *atzergategi*, *latziñaltegi*, *latziñaldaritegi*, hitz-elkarte bezala aztertu ditugunak.

#### 4.4.- Aditzoinari eransten zaizkion atzizki batzuk

Gauza jakina da nominalizazioak hizkera berezietan eta terminogintzan duen garrantzia berezia. Espainierazko hizkera juridikoan, esan ohi da, izenak kendu dio bere tokia aditzari.

Ikusia dugu jadanik aditz-sintagmak maiztasun handiago duela EUSBetan ESTetan baino, eta halaber ikusi dugu zenbat kasutan agertzen diren *-t(z)e* aditz-izenak.

Baina euskarak ere, oinarrian aditza duten izen asko erabiltzen ditu. Ondoko lerroetan aztertu nahi dugu aditzoinari erantsiz sortzen diren izenen hainbat alderdi.

Atzizki hauen *-t(z)e*, *-pen*, *-men (mendu)*, *-keta*, *-era -kuntza*, *-tza*, *-tura*, *-kizun*, agerpenak, bakoitzaren kopuruak garaiz garai, osatzen diren hitz desberdinak, balioak eta xehetasunak aztertu ditugu.

Atzizki horien ugaritasuna, ezaguna denez, ez da beti zehaztasunaren ekarle. Gure corpusean atzizki horiek nola erabili diren, balio finkorik eman izan zaien, edo haien balioen arteko mugak lausoak diren aztertze hainbat alderaketa egingo ditugu.

Hurrengo lerroetan banan bana aztertuko ditugun atzizkien agerpenen kopuruak ondoko taulan jaso ditugu garaika antolaturik.

	<i>-tze</i>	<i>-keta</i>	<i>-men</i>	<i>-pen</i>	<i>-kuntza</i>	<i>-era</i>	<i>-tura</i>	<i>-tza</i>	<i>-kizun</i>	Guzt
<b>A garaia</b>	17	5	0	3	0	2	1	2	1	31
<b>B garaia</b>	2	4	2	3	0	1	1	2	3	18
<b>C garaia</b>	20	43	34	70	20	7	4	6	10	214
<b>D garaia</b>	8	29	16	56	30	11	5	2	12	169
<b>Guztira</b>	47	81	52	132	50	21	11	12	26	432

**66. taula: Aditzoinari erantsitako atzizkien kopuruak**

#### 4.4.1.- *-tze* atzizkia.

Ikerlan honetako hainbat puntutan aztertzen ditugu *-tze* atzizkia osagai duten hainbat egitura. Ez dugu hemen errepikatuko aditz-sintagmak eratuz agertzen den kasua, eta izen kategoriakoak soilik aztertuko ditugu.

Hiru posiziotan aurkitu ditugu *-tze* atzizkiaz eratutako izenak:

1. Hitz beregain gisa, testuinguruak (adjektiboen laguntza...) argi eta garbi erakusten duelarik izenak direla, eta ez AS baten buru: (86a), (86b) eta (86c) adibideak
2. Hitz-elkarte baten mugatzaile posizioan: (86d), (86e) eta (86f) adibideak). Horien deskribapen bereziari ekiten diogu menpekotasunezko izen elkartuen azterketan, (supra 3.3.11.1.2.).
3. Hitz-elkarte baten mugakizun-posizioan, elkarte sintetikoa osatzen duelarik: (86g), (86h), (86i) adibideak. Hauek ere, sintetikoetan aztertu ditugu.

(86)

(a)	37	<i>erailtze</i>	pena de muerte
(b)	8206R	<i>birgizarteratze</i>	reinserción social
(c)	8608P	<i>jakinarazte</i>	notificación
(d)	37	<i>Nekaltze-Legedi</i>	código penal
(e)	79	<i>baliogabetze akordio</i>	acuerdo de suspensión
(f)	8503P	<i>ihardutze-sail</i>	órgano administrativo
(g)	36	<i>lege-auste</i>	hecho delictivo
(h)	8201P	<i>ohar egite</i>	apercibimiento
(i)	8103P	<i>zahar-saritze</i>	jubilación

Ondoko taulan garai bakoitzean zenbat eta zein posiziotan aurkitu ditugun ikus daiteke.

	hitz bakun	mugatz.	mugakz.	Guztira
<b>A garaia</b>	3	10	7	17
<b>B garaia</b>	0	1	1	2
<b>C garaia</b>	2	8	10	20
<b>D garaia</b>	2	3	3	8

67. taula: *-t(z)e* atzizkia

Ondoko zutabeotan jaso ditugu posizio bakoitzean arkituriko *-t(z)e* atzizkidunak.

(87)

Hitz bakunetan:	Mugatzaile posizioan:	Mugakizun posizioan:
<i>hauste</i>	<i>birgizarteratze</i>	<i>arau hauste</i>
<i>saleroste</i>	<i>birrabiatze</i>	<i>desmen-egite</i>
<i>jakinarazte</i>	<i>ebazte</i>	<i>dirusari-ordaintze</i>
<i>sailkatze</i>	<i>erailtze</i>	<i>esku-emate</i>
<i>erailtze</i>	<i>hauste</i>	<i>gaitasun-kentze</i>
<i>birgizarteratze</i>	<i>haztatze</i>	<i>herri-ogasuntze</i>
	<i>ihardutze</i>	<i>hutsegite</i>
	<i>jakinarazte</i>	<i>indargabetze</i>
	<i>nekaltze</i>	<i>legehauste</i>
	<i>ordezkatze</i>	<i>ohar egite</i>
	<i>sailkatze</i>	<i>oinordetza-kentze</i>
	<i>saleroste (saloste)</i>	<i>zahar-saritze</i>
		<i>gaitasungabetze</i>
		<i>iareitasungabetze</i>
		<i>zergagabetze</i>

#### 4.4.2.- *-pen* atzizkia

Ondoko taulan ematen dira garaiz garai *-pen* atzizkiak dauzkan agerpenak

	<b>-pen</b>
<b>A garaia</b>	3
<b>B garaia</b>	3
<b>C garaia</b>	70
<b>D garaia</b>	56
<b>Guztira</b>	132

68. taula: *-pen* atzizkia

Ugaritasun benetan handia dago, baina adierazgarria iruditzen zaigu atzizki honen emankortasuna C eta D garaietan, batez ere, aurreko bietan emandako urria kontuan harturik.

Errepikatu anitz badago ere, hitz desberdin askoren iturri da atzizki hau. Ondoko zutabeetan ikus daitezkeen 48ak dira desberdinak, kontuan hartu gabe horien gainean osatutako elkarteak (*diruizendapen*).

(88)

<i>adierazpen</i>	<i>egiterapen</i>	<i>iraspen</i>	<i>ohartarazpen</i>
<i>aitorpen</i>	<i>egozpen</i>	<i>iraupen</i>	<i>onarpen</i>
<i>akurapen</i>	<i>erabilpen</i>	<i>iraungipen</i>	<i>salbuespen</i>
<i>aldezapen</i>	<i>errepikapen</i>	<i>izendapen</i>	<i>sailkapen</i>
<i>atzerapen</i>	<i>etsipen</i>	<i>jaulkipen</i>	<i>sariztapen</i>
<i>balioespen</i>	<i>ezabapen</i>	<i>jaraunspen</i>	<i>sendespen</i>
<i>barkapen</i>	<i>garapen</i>	<i>jazarpen</i>	<i>sorospen</i>
<i>biderapen</i>	<i>irizpen</i>	<i>kitapen</i>	<i>xahupen</i>
<i>birrauspen</i>	<i>hauspen</i>	<i>kontziliapen</i>	<i>xedapen</i>
<i>burutzapen</i>	<i>hertsipen</i>	<i>lakapen</i>	<i>zehapen</i>
<i>ebazpen</i>	<i>ikuskapen</i>	<i>notifikapen</i>	<i>zinespen</i>
<i>egiaztapen</i>	<i>iraizpen</i>	<i>oharpen</i>	<i>zuriztapen</i>

Horietako lau (*balioespen*, *salbuespen*, *sendespen*, *zinespen*) ‘izen + etsi’ aditz elkartua daukate oinarri.

#### 4.4.3.- -men atzizkia

*-pen* eta *-men/ mendu* atzizkiak bat bi edo hiru diren eztabaidatzeko arrazoi sendoak badaude ere, hemen bi multzotan desberdintzea erabaki dugu, gure ustez oro har balio desberdina eman ohi zaielako azken urteotako terminogintzan. Gainera, badago beste berezitasuna: *-pen* atzizkiaren agerpen guztiak aditzoinari lotuta diren bitartean, *-men* atzizkia beste kategoriekin ere uztartzen da.

Hona, bada, garaiz garai *-men / mendu* atzizkiez eraturiko hitzen kopuruak, eta hitz desberdinak.

	<b>-kop.</b>	<b>desberdinak</b>
<b>A garaia</b>	0	
<b>B garaia</b>	2	proposamen, aprobetxamendu
<b>C garaia</b>	34	ahalmen (7), baimen (5), gaudimen (2) gozamen (9) hitzarmen (7), hondamen (2)
<b>D garaia</b>	16	baimen (3), hitzarmen (4) gozamen (1)eskumen (1) hondamen (1) proposamen (1) probetxamendu (3), antolamendu (1)
<b>Guztira</b>	52	

**69. taula: -men, -mendu atzizkia(k)**

Aski ugari dira atzizki honetaz eraturakoak. Hemen ere deigarria da lehen garaian, 1936-37an ale bat ere ez aurkitzea.

Taula horretan jaso ditugun arren ez dugu uste *probetxamendu* / *aprobetxamendu*-ko *-mendu* atzizkitzat har daitekeenik, ikusirik maileguren jatorrizkoak *-miento* bukaera duela. Bai, ordea, *antolamendu* hitzekoa. Bestalde, Oharrarazi behar da *baimen* eta *ahalmen* hitzen osiera ez dela *aditzoina* + *-men*. Eta azkenik, ez dago corpusean erro berarekin osatutako *-men* /-*pen* alternantziarik.

#### 4.4.4.- *-keta* atzizkia

Hona, garaiz garai atzizki honetaz eraturako hitzen kopuruak

	<b>-keta</b>
<b>A garaia</b>	5
<b>B garaia</b>	4
<b>C garaia</b>	43
<b>D garaia</b>	29
<b>Guztira</b>	81

**70. taula: -keta atzizkia**

Honako 43 hitz desberdin hauek eratu dira *-keta* atzizkia erabiliaz:

(89)

<i>akuraketa</i>	<i>aldaketa</i>	<i>antolaketa</i>	<i>aprobetxaketa</i>
<i>arakaketa</i>	<i>argiketa</i>	<i>argipideketa</i>	<i>azterketa</i>
<i>bahiketa</i>	<i>bazterketa</i>	<i>berdinketa</i>	<i>berrikusketa</i>
<i>birmoldaketa</i>	<i>egiketa</i>	<i>egitamueketa</i>	<i>egitamuketa</i>
<i>elkarketa</i>	<i>epaiketa</i>	<i>erkaketa</i>	<i>eskualdaketa</i>
<i>eskuraketa</i>	<i>garbiketa</i>	<i>haztaketa</i>	<i>heziketa</i>
<i>hirigintzaketa</i>	<i>horniketa</i>	<i>iharduketa</i>	<i>ikuskaketa</i>
<i>ituneketa</i>	<i>izendaketa</i>	<i>kenketa</i>	<i>kudeaketa</i>
<i>lehiaketa</i>	<i>ordezkaketa</i>	<i>osaketa</i>	<i>osasunketa</i>
<i>salaketa</i>	<i>salerosketa</i>	<i>sorozketa</i>	<i>trukaketa</i>
<i>ustiaketa</i>	<i>zatiketa</i>	<i>zuzenketa</i>	

Gehienen oinarria, aditzoina da; horren arabera ulertzen dira eta horixe da bere itzulpen-balioa, baina baditugu osiera horrekin bat ez datozenak, ondoko adibideetan beren jatorrizko ESTekin batera ikus daitezkeenak:

(90)

(a)	8808T	<i>ituneketarako mahai</i>	mesa de negociación
(b)	8108T	<i>osasunketa-sorozpide</i>	asistencia sanitaria
(c)	8318P	<i>Hirigintzaketa-Egitasmo</i>	proyecto de urbanización
(d)	8318P	<i>zati-egitamueketa</i>	plan parcial
(e9)	8318P	<i>herri-argipideketa</i>	información pública

(90a) adibideko *ituneketa*-k izena du oinarri; izan ere, *itundu* aditza badago, baina dakigularik, ez *itunetu*; *itune*, *itun* izenaren aldaera bat da, baina ez aditzoinaren aldaera.

Antzekoak izango lirateke *egitamuketa*, *osasunketa*, *hirigintzaketa*, gure ustez izenen gainean eraikiak. Zalantzazkoa, berriz, *argipideketa*, *argipidetu* aditza suposatzen duela dirudi eta.

Jatorrizko ESTetan aditz-izenak aurkitzeak, ordea, galarazi egiten du –*keta* atizikia multzogiletzat hartzea, eta Azkaratek (1991c:66), ‘bila joan’ adierako izen gisa sailkatzen dituenen artean ipintzera bultzatzen gaitu, zalantza askorekin, ordea.

#### 4.4.5.- *-kuntza* atzizkia

Ondoko taulan, EUSBetako –*kuntza* atzizkiaren agerpen-kopuruak eta hartaz osaturiko hitz desberdinak.

	Kop.	Hitz desberdinak
<b>A garaia</b>	0	
<b>B garaia</b>	0	
<b>C garaia</b>	19	aldakuntza, antolakuntza, gaikuntza, gehikuntza, hezkuntza, hizkuntza, jazarkuntza, salakuntza, normalkuntza
<b>D garaia</b>	6	eraikuntza, prestakuntza, antolakuntza (7)
<b>Guztira</b>	25	

**71 taula: -kuntza atzizkia**

Aurrekoetan bezala. oharraraztekoa iruditzen zaigu A garaian batere ez aurkitzea, eta, aldiz, C eta D garaian, aski ugaria izatea.

Osaerari buruz, hitz bakarra, *hizkuntza*, dago aditzoinarene gainean eraikia ez dena.

#### 4.4.6.- *-era* atzizkia

Ondoko taulan, EUSBetako –*era* eta –*kera* atzizkien agerpen-kopuruak eta osaturiko hitz desberdinak.

	kop.	-era	-kera
<b>A garaia</b>	2	izaera	azikera, izkera
<b>B garaia</b>	1	egoera	
<b>C garaia</b>	7	hasiera, sarrera, egoera	idazkera, erabilkera
<b>D garaia</b>	11	galera, igoera, sarrera	
<b>Guztira</b>	21		

**72 taula: -era, -kera atzizkia**

Aurrekoan bezala esan behar dugu *hizkera* hitzaren kasuan, ez dela aditzoina atzizki hau jasotzen duena.



*-era/ -kera* formen batasunari edo bitasunari buruz ezin da ezer ondorioztatu corpuseko erabileratik, izan ere, zein arrazoi ote dagoen *azikera* eta *erabilkera* aldaerak hautatzeko (*h*)*aziera* eta *erabilera*-ren ordez, ez dago batere garbi ESTen argitan.

(91)

36	<i>gizarte-hazikera -laguntza</i>	asistencia social
8905P	<i>erabilkera</i>	aprovechamiento

#### 4.4.7.- *-tza<sub>3</sub>*- atzizkia

Aurrerago (supra 4.3.) zehazten genuenez, aditzoinari eransten zaion *—tza<sub>3</sub>* atzizkia aztertuko dugu hemen. Ondoko taulan, daudenak eta desberdinak.

	<b>kop</b>	<b>desberdinak</b>
<b>A garaia</b>	2	<i>laguntza, ordaintza</i>
<b>B garaia</b>	2	<i>emaitza, desjabetza</i>
<b>C garaia</b>	6	<i>egoitza, eraentza, emaitza, ezkontza, zuzentza</i>
<b>D garaia</b>	4	<i>eskaintza, dohaintza, etxebizitza, heriotza</i>
<b>Guztira</b>	12	

**73 taula: *tza<sub>3</sub>* atzizkia**

Egia da horietako hainbaten osaera zalantzazko dela, bi erataria interpretatzea zilegi baita. Horrela *laguntza*-ren oinarria aditzoina edo izena izan daiteke. Gauza bera gertatzen da *zuzentza*-ren kasuan, edota hain ugari agertzen den *-bidetza /-pidetza-n* (ik. supra 4.3.4.). *Herio* aditza erabiltzen ez bada ere, badirudi hemen sailkatzea dela egokiena.

Esanahiari begira azpimarratzekoa da batzuek erabateko izen-adieraren ondoan, ekintza adierazten duena ere badutela; horrela *egoitza* hitzak badu gehienetan ‘egon-toki’-ren adiera, baina *egoitza-baimen*-en kasuan, argi eta garbi, ‘egoteko’-ren adiera hartu duela esan behar da.

#### 4.4.8.- *-dura / -tura* atzizkia

Hona atzizki honetaz eraturiko hitzen kopuruak eta hitz desberdinak.

	<b>kop.</b>	<b>desberdinak</b>
<b>A garaia</b>	1	baitura
<b>B garaia</b>	1	etendura
<b>C garaia</b>	4	bahitura (3), egitura (1)
<b>D garaia</b>	5	bahitura (2), egitura (1), ohitura (2)
<b>Guztira</b>	11	

**74. taula: *-tura* atzizkia**

Nabarmena da, aurreko atzizkiekin alderatuz, emankortasun txikiagoa duela garai guztietan atzizki honek.

Esanahiaren aldetik, *bahitura*, *egitura*, *ohitura* hitzak aski lexikalizatuak daudelarik, gelditzen den bakarra, *etendura* analizatzen badugu, ohartuko gara – *dura* atzizkiaren balioa ez dela askorik desberdintzen 'ekintza-ondorio' esanahian aditzoinari eransten zaizkion beste geheinetatik.

#### 4.4.9.- *-kizun* atzizkia

Atzizki hau, izen-sortzaileen eta izenondo-sortzaileen artean sailkatzen bada ere, EUSBetako agerpenetan izen-sortzailea da, eta horregatik, aditzoinari eransten zaizkienekin batera ipini dugu.

Hona, atzizki honek sortzen dituen hitzen kopuruak et ale desberdinak garaiz garai.

	<b>kop.</b>	<b>-kizun desberdinak</b>
<b>A garaia</b>	1	eginkizun
<b>B garaia</b>	3	antolakizun, erantzukizun
<b>C garaia</b>	10	eginkizun, erantzukizun, ordainkizun, zergakizun
<b>D garaia</b>	12	betekizun, eginkizun, erantzukizun, eskakizun, galdakizun, ordainkizun, zergakizun
<b>Guztira</b>	26	

**75. taula: -kizun atzizkia**

Objektua/produktua (Azkarate 1991:57) azpikategorizazioa duten izenak sortzen ditu, oro har, '*x-tzen / -x-tzeko* den zera' balioa duelarik, baina B garaiko agerpen batzuetan, oso gertu dago aditzoinari erantsiz 'ekintza/ ondorioa' adierako izenen sortzaileengandik.

(92)

79	<i>Hiri Antolakizun eta Orube Errejimenari buruzko Lege</i>	Ley sobre Régimen del Suelo y Ordenación Urbana
79	<i>Antolakizuneko Plan Municipal Orokor</i>	Plan General Municipal de Ordenación

Aski ugari agertzen da atzizki hau azken garaietan.

#### 4.4.10.- Aditzoin berari aditz-izena eratzeko atzizki bat baino gehiago ezartzen zaion kasuak.

Askotan oharrarazi da (Azkarate-Olarte, 1991:762) aditzoinari erantsiaz aditz-izena eratzen duten atzizkien artean bereizketa semantiko zehatzik ez dagoela, eta bereziki, ia denek adieraz dezaketela ekintza bera. Hortaz, maiz aurkitzen ditugu aditzoin berari erantsitako atzizki desberdinen ondorioz,

formalki desberdinak diren hitzak, baina esanahiaren aldetik nahiko bereizkaitzak izaten direnak.

Ondoko taulan, aditzoin berari atzizki desberdinak erantsiaz eratutako izenak ditugu.

akuraketa akurapen	aldaketa aldakuntza	antolaketa antolakuntza antolamendu	aprobetxamendu aprobetxaketa
bahiketa bahikuntza bahitura	ebazpen ebazte	hauspen hauste	haztaketa haztatze
heziketa hezakuntza	Iharduketa ihardutze	ikuskaketa ikuskapen	ikuskaketa ikuskapen
izendaketa izendapen	oharpen ohartarazpen	jazarkuntza jazarpen	ordezkaketa ordezkatze
salerosketa saleroste	sailkapen sailkatze	salaketa salakuntza	salerosketa saleroste
sorospen sorozketa	ustiaketa ustiakuntza		osaketa osasunketa

**76. taula: Atzizki desberdinak aditzoin berarekin**

Horietako batzuek nahiz eta esanahi berekoak izan, erdarazko termino desberdinari erantzuten diotenez, ezin dugu “sinonimia terminologikoaz” (supra VI. 7.) hitz egin.

Ondoko lerroetan, corpus paraleloak erabiltzeak ematen duen aukera baliatuaz, EUSBetako aditz-izenen arteko adiera-desberdintasunaz argibiderik atera daitekeen aztertuko dugu.

Ondoko aditzoinetan aurkitu ditugu horrelakoak: *alda-*, *antola-*, *bahi-*, *gehi-*, *jazar-*, *presta-*, eta *ustia-*.

Hona banan bana, aditzoin horietaz eratutako hitz desberdinak, EST beraren baliokidetzat ematen direnak:

- **alda: aldatze, aldaketa, aldakuntza**

(93)

**modificación de estatutos**

8201p *araudiaren aldakuntza*

9103p *estatutuen aldaketa*

9103p *estatutuak aldatze*

- **antola: antolaketa, antolamendu, antolakuntza, antolakizun.**

Horiez gainera, hitz elkarketari dagozkion *antolapidetza*, *antolapideak* ere ipini ditugu, “sinonimia terminologikoaren” erakusgarri direlako.

(94)

<b>ordenamiento jurídico</b>		<b>ordenación urbana</b>	
8315p	<i>lege-antolakuntza</i>	79	<i>hiri antolakizun</i>
8210p	<i>lege-antolapidetza</i>	8805P	<i>hiri-antolaketa</i>
8602p	<i>lege-antolaketa</i>	9007P	<i>hirigintza-antolakuntza</i>
8801p	<i>lege antolapideak</i>	9505P	<i>hiri antolamendu</i>
9605p	<i>zuzenbide-antolamendu</i>	9004P	<i>hiri-antolakuntza</i>

- **bahi: bahikuntza, bahiketa, bahitura**

(95)

<b>decomiso</b>		<b>hipoteca</b>	
8815P	<i>bahikuntza</i>	36	<i>bahitura</i>
9306P	<i>bahiketa</i>	37	<i>bahitu</i>
		8205P	<i>bahitura</i>
		8314P	<i>bahikuntza</i>

- **jazar: jazarkuntza, jazarpen**

(96)

<b>recurso contencioso-administrativo</b>	
8311P	<i>arduralaritza-auzipidetatikako jazarkuntza</i>
9003P	<i>arduralaritza-auzipidetatikako jazarpen</i>

- **presta: prestakuntza, prestatze**

(97)

<b>formación ocupacional</b>	
9501T	<i>prestakuntza okupazional</i>
9506P	<i>lanerako prestatze</i>

- **sala: salakuntza, salaketa**

(98)

<b>denuncia</b>	
8801P	<i>salakuntza</i>
8201P	<i>salaketa</i>

- **ustia: ustiakuntza, ustiaketa, (ustiategi)**

(99)

<b>aprovechamiento</b>	
8816P	<i>ustiakuntza</i>
8111P	<i>ustiaketa</i>
8901P	<i>ustiategi</i>

#### 4.4.11.- Iruzkinak

Espero zitekeen bezala, oso ugaria da aditz-izenen erabilera gure corpuseko EUSBen artean. Izan ere, hizkera tekniko guztien ezaugarria da, eta oso bereziki zuzenbide-hizkerarena, nominalizaziorako joera.

Ikusi dugunez euskaraz aditza baliatzeko joera gaztelaniaz baino askozaz markatuagoa izan arren, aditz-izenaren erabilera handia da, batez ere, *-pen*, *-keta*, *-men* eta *-kuntza* atzizkiez osaturikoei dagokienez.

Atzizkien erabilera ugari horretan, azpimarratzekoa da atzizki askoren balioen arteko mugak ipintzeko zailtasuna. Azken hamarraldietako lexikogintzan gertatu dena guztiz baieztatzen da gure corpusean.

## 4.5.- *-garri* eta *-kor* atzizkiak

### 4.5.1.- *-garri* atzizkia eta haren inguruko arazoak.

Euskal eratorpenaren gairik aztertuenetakoa eta eztabaidatuenetakoa da *-garri* atzizkiarena, bereziki azken urte hauetan. Ondoko lerroetan atzizki horri buruzko galderei azken urteotan eman zaizkien erantzunen argitan aztertuko ditugu gure corpuseko EUSBetan agertzen diren *-garri* atzizkiaz osaturiko hitzak.

Lehen azterkizuna da zein kategoria gramatikaletako hitzak sortzen diren *-garri* atzizkiaz. Autore guztiak bat datoz, gehienbat izenondo-sortzaile dela, baina benetako izenak ere sortzen dituela esaterakoan. Atzizkiaren funtzio hau, Artiagagoitiak (1995:368) dioenez, ez da oso emankorra gure egunetan; Villasantek, Arrigarayk eta Azkaratek, besteak beste, erakutsi duten bezala, aurreko garaietan atzizki horrek izan duen emankortasun izen-sortzailea erdi edo zeharo agortua dirudi horrenbestez.

Bigarren galdera da zein kategoriatakoa den atzizki honen oinarria. Eta erantzun zehatza emana du Artiagagoitiak (1995:367) esanaz aditz-atzizki garbia dela, hots, aditzoina duela oinarri, lau-pabost salbuespen kenduta. Gainera, aditz guztiak ezin izan daitezke atzizki honen oinarri: argumentu biko aditzak izaten baitira *-garri* onartzen dutenak

Hirugarren eztabaidagaia, Azkarateren (1990), Euskaltzaindiako LEF Batzordearen (1994:1047), eta Artiagagoitiaren (1995), lanei esker bereziki, aski argitua, atzizki izenondo-sortzaile horren adierak bi edo hiru izanik, atzizki bakar batez hitz egin ote daitekeen. Puntu hau ere erabakitzat eman daiteke bi ikuspegitik. Lehena, gramatiketan ematen zaion tratamenduaren aldetik, atzizki bakartzat ematen baita eta eman izan baita; bigarrena teorikoago, Artiagagoitiaren aburuz ere ebatzita legoke atzizki bakartzat emateko arrazoi indartsuak baitaude.

Hirugarren puntu horrekin loturiko arazo praktikoa da aipaturiko Azkarateren (1990) lanean aztertzen dena, alegia, nola interpretatu izan den azken hamarraldietan *-garri* atzizkiaren balioa hitz berriak osatzerakoan, oso bereziki terminogintzan. Erabilera horrekin loturiko bi puntu aztertuko ditugu gure corpusean: lehena zein erlazio dagoen erdarazko *-ble* (*-bilis*) atzizkiaren eta euskal *-garri* atzizkiaren artean, eta bigarrena, ba ote dagoen *-garri* vs. *-kor* dikotomia erakusten duen kasurik.

4.5.2.- *-garri* atzizkiaren agerpenak EUSBetan

33 agerpen ditu *-garri* atzizkiak aztertzen ari garen EUSBetan, ondoko taulak erakusten duen modura banatuak, eta honako hitz desberdinak osatzen dituztela.

	<b>kop.</b>	<b>desberdinak</b>
<b>A garaia</b>	6	astungarri, babesgarri, igigarri, zigorgarri,
<b>B garaia</b>	4	gehigarri, lagungarri, osagarri,
<b>C garaia</b>	10	baliagarri, bermagarri, gehigarri, osagarri,
<b>D garaia</b>	13	eskuragarri, gehigarri, gogaikarri, higarri, hirigarri, interesgarri, osagarri, zergagarri,
<b>Guztira</b>	33	

77. taula: *-garri* atzizkia

Aurreko taulan errepikatzen direnak baztertuaz, honako 14 hitz desberdinak osatzen dira *-garri* atzizkiak:

## 4.5.3.- Oinarria, kategoria gramatikala

Oinarrian, denek, bat salbu, aditzoina dute; salbuespena, —Artiagagoitiak (1995:367) lauzpabost besterik ez direnen artean— jaso, *interesgarri da*, honako 2 adibide hauetan agertzen dena:

(100)

(a)	8503P	<i>bidezko interesgarritasun</i>	interés legítimo
(b)	9007P	<i>kultura-interesgarritasun</i>	interés cultural

Zalantzazkoak dira, gure ustez (101) adibideko *zergagarri* eta *hirigarri* hitzetako oinarriak zein diren, ez baitugu inoiz irakurri *zergatu* edo *hiritu* bezalako aditzik<sup>26</sup>; baina azken hau erdal *urbanizar*-en ordainetan emana dagoela ikusirik, uste dugu aditzarena dela interpretazio posible bakarra.

(101)

9703P	<i>egitaraupeko lur hirigarri</i>	suelo urbanizable programado
9105P	<i>ekintza zergagarri</i>	hecho imponible

Eratortitako hitzen kategoria gramatikari dagokionez, esan daiteke gehienak izenondo garbiak direla, baina badira izen gisa erabiliak, ondoko adibideon arabera, baina gainerako *'garri'*-dun guztiak, izenondoak dira.

(102)

9202P	<i>osagarri berezi</i>	complemento específico
8906P	<i>berarizko osagarri</i>	complemento específico
8312P	<i>bermagarririk gabeko gaudimen</i>	garantía personal
37	<i>astungarri berezi</i>	circunstancia agravatoria

<sup>26</sup> Euskal Hztegian eta Elhuyar Hztegian ez dago *zergatu*, baina bai *zergapetu*. Uzeiko Zuzenbide Hztegian *zerga(pe)tu* sarrera ikus daiteke. Azken horretan bakarrik agertzen da *zergagarri*. *Hiritu*-ren agerpenik ez dugu ezagutzen

#### 4.5.4.- *-garri* Vs *-ble* gure corpusean

Azkaratek (1990) eta Euskaltzaindiak (1994) besteak beste, landu duten gaiari ekinez, hau da, zenbateraino gaurko hizkera tekniko-zientifikoetan euskarazko *-garri* atzizkia erdarazko *ble-* atzizkiaren "itzulpen automatikoa" bihurtu ote den, gure EUSBen artean hau topatu dugu:

8 EUSB, eta 5 (14 ziren guztira) desberdin bakarrik, dira espainierazko *-ble*-dun hitzen itzulpen; aldiz, 27 beste zerbaiten itzulpen dira.

Alderantzizko erkaketa ere egin dugu, hau da, zein kasutan *-ble* edo *-bilidad* atzizkia duten erdal hitzek euskaraz *-garri* -rik gabeko baliokidea duten. Era guztietako kasuak aurkitu ditugu, eta horien artean *-kor* (a), *-kizun* (b), atzizkiez eta *-gai* (c) eta *-pide* (d) erdi-hitz erdi-atzizkiez osatutakoak ondoko adibidekoak bezala.

(103)

(a)	37	<i>ogasun higikor</i>	bien mueble
(b)	8312P	<i>zergakizun</i>	hecho imponible
(c)	8502P	<i>hecho imponible</i>	zergagai
(d)	8507P	<i>hecho imponible</i>	zergapide

Bestalde, ditugun *-garri*-dunen artean, erdarazko *-ble*-rik gabeko hitzen baliokideak ere ugari dira: 25.

Interesgarria iruditu zaigu aztertzea zein diren horietatik esanahi "aktiboko" adjektiboen itzulpen. Erdarazko adjektibo hauek aurkitu ditugu euskal *-garri*-dunen jatorrian: *tutelar*, *agravatorio*, *complementario*, *subsidiario*, *adicional*, *añadido*, *insalubre*, *nocivo*, ondoko adibideak erakusten duen bezala.

(104)

37	<i>Aurren Auzitegi Babesgarri</i>	Tribunal Tutelar de Menores
37	<i>astungarri berezi</i>	circunstancia agravatoria
78	<i>arau osagarri</i>	norma complementaria
79	<i>arau lagungarri</i>	norma subsidiaria
80	<i>agindu gehigarri</i>	disposición adicional
9003P	<i>Balio Gehigarriari erantsitako Zerga</i>	impuesto sobre el valor añadido
9607P	<i>Iharduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuak</i>	actividades molestas insalubres nocivas y peligrosas

#### 4.5.5.- *-garri* eta *-kor*

*-garri* atzizkiaren adierak direla-eta, azken urte hauetan *-garri* eta *-kor* atzizkien erabileran gertatzen den nahasmenduan argia egiten saiatu dira, besteak beste Azkarate (1991c:1-2) eta LEF Batzordea Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarraren, argitalpenean (1994:104). Gogoeta haien harian aztertu nahi dugu gure corpusean zer gertatzen den arlo horri dagokionez.

Ondoko taulan, garaiz garaiko kopuruak eta hitz desberdinak.

	Kop	desberdinak
<b>A garaia</b>	1	<i>igikor</i>
<b>B garaia</b>	3	<i>orokor</i>
<b>C garaia</b>	7	<i>orokor (6), mugikor(1)</i>
<b>D garaia</b>	16	<i>orokor (12), mugikor (2), iraunkor(2)</i>
<b>Guztira</b>	27	

78. taula: -kor atzizkia

27 agerpenetatik, 21 *orokor* hitzari dagozkio, eta beste 6etan 3 hitz soilik daude: *higikor*, *iraunkor*, *mugikor*. Beraz, -kor atzizkia daukatenak, bost hitz desberdin besterik ez dira: *orokor* eta *iraunkor*, hurrenez hurren erdal 'general'-eta 'permanente' adjektiboen itzulpen "automatikoak"; zuzenbide errealetako kategoria ezaguna den *bien mueble*-ren itzulpenetan agertzen diren *igikor*, nahiz *mugikor*, eta atzizki metaketaz sortutako *mugikortasun* : *mugikortasun geografiko* = *movilidad geográfica*

#### 4.5.5.1.- -gari eta -kor oinarri berarekin

Ondoko adibidekoak aurkitu ditugu:

(105)		
37	<i>ogasun igikor</i>	bien mueble
37	<i>ogasun igigarri</i>	bien mueble
9007P	<i>ondasun higigarri</i>	bien mueble

Kasu bakar batean gertatzen da erro berari atxikirik -gari eta -kor atzizkiak, eta gainera espainolezko termino beraren itzulpenean aurkitzea.

OEHN irakur daitekeenez, *higikor*-en esanahia ES '*movedizo*'-rena izango litzateke, eta *higigarri*-rena, '*lo que hace moverse, 'remuable'*', hots, nahiko esanahi bitarikoa, pasiboa edo aktiboa den ezin erabakizkoa, alegia. Ez dirudi, hortaz, aukera batak zein besteak ohiko erabilerarekiko haustura dakartenik.

#### 4.6.- -tzaile, -le, -ari atzizkiak

Egile-izenak osatzen dituzten atzizkietan ugarietak -tzaile, -le, eta -ari, dira, baina badira beste batzuk, hala nola -zale zenbait kasutan antzeko adiera hartzen dutenak. Jakina denez, aurreko biak -tzaile, -le, atzizki beraren aldaerak besterik ez dira, klase bereko oinarriari, aditzoinari, eransten zaizkionak. -Ari atzizkiak, antzeko esanahia duten hitzak eratzen baditu ere, haren oinarria, gehien-gehienetan, izena da. Azkenik, -gile, atzizkitzat jo badaiteke ere, hitz elkartuetan aztertzea hobetsi dugu.

Ondoko taulan, garaiz garai, mota bateko edo besteko oinarrien gaineko egile-izen eratorrien koopuruak ikus daitezke.



	-le -tzaile	-letza	-ari	-aritz	arduralaritz a
<b>A garaia</b>	9	1	18	7	0
<b>B garaia</b>	1	0	7	4	0
<b>C garaia</b>	16	0	18	42	53
<b>D garaia</b>	16	1	12	28	7
	48	2	55	81	60

79 taula: -(tzai)le, -(tzai)letza, -ari, -aritz atzizkiak

## 4.6.1.- -le / -tzaile atzizkiaz osaturikoak

Ondoko adibideetan jaso ditugu *-le / tzaile*, eta *-zale* atzizkiez osaturiko hitz bakun guztiak. Horiez osaturiko elkarteak kontuan hartuta askozaz gehiago dira.

(106)

<i>akuratzaille</i>	<i>epaile</i>	<i>hautatzaille</i>	<i>ordezkatzaille</i>
<i>akusatzaille</i>	<i>erregistratzaille</i>	<i>itzultzaille</i>	<i>salerosle</i>
<i>aldezle (i)</i>	<i>errentatzaille</i>	<i>jagole</i>	<i>saltzaille</i>
	<i>fundatzaille</i>	<i>jaraunsle</i>	<i>sortzaille</i>
<i>alogeratzaille</i>	<i>gordetzaille</i>	<i>jartzaille</i>	<i>zaintzaille</i>
<i>babesle</i>	<i>hartzaille</i>	<i>ordaintzaille</i>	<i>laguntzaille (i)</i>
<i>beteerazle</i>	<i>hausle</i>	<i>lurratzaille</i>	<i>zigortzaille (i)</i>

Guztira, 27 hitz desberdin osatzen dira *-le*, *-tzaile* atzizkiez. Jakina denez, atzizki horrekin osatutakoen semantika dela eta, aski erraz egokitzen zaie izenondo funtzioa. Horren adibideak dira EUSBetan *aldezle*, *laguntzaille* eta *zigortzaille*.

Badira, horiez gainera, *-zale* atzizkiaz osaturiko 2: (*zorzale*, *errentazale*).

Atzizki honetaz eratutako hitz asko eta asko karga juridiko handiko adigaiak dira (*infractor*, *defensor*, *fundador*, *juez*, *testador*, *reservista*, *ejecutivo*...) baina corpusean ez da beti finkotasuna aurkitzen. Esate baterako kontratu beraren bi alderdiak posizio guztiz desberdina duten arren, EUSBetan hitz berarekin izendatuak ikusten ditugu, ondoko adibideko (107a) eta (107b) kasuetan bezala, beste agerpen batzuetan (107c) eta (107d), atzizki beraz osatutako beste itzulpenak ditugularik.

(107)

(a)	8201P	<i>alogeratzaille</i>	arrendatario
(b)	8315P	<i>alogeratzaille</i>	arrendador
(c)	8319P	<i>alogeran hartzaille</i>	arrendatario
(d)	9501T	<i>errentatzaille</i>	arrendador

## 4.6.2.- -ari atzizkia

Aspaldiko eta bereziki mende honetako euskaran, emankortasun handiko (Azkarate 1991a:41) atzizki honetaz eraturiko hitzen ugaritasun handia dago EUSBetan: 25 agerpen desberdin 1936-37 garaian, 9 EKNAOren garaian, eta 103

guztira EHAAn; gehienak, 81, ohi bezala, 1980-1989 aldian. Egia da garai horretan *arduralaritzea* hitzaren errepikatze ugariak kopuru engainagarriak ematen dituela.

Baina hitz horren erabilera ugariak ez du galarazten *-ari* oso atzizki emankorra izatea, esan nahi baita, hitz desberdin askoren sortzaile. Ondoko taulan ikus daitezke bi zutabetan banaturik *-ari* atzizkiaz eraturiko hitz desberdin guztiak, eta *-ari* atzizkiaren gainean *-tza* atzizkia ere jasotzen dutenak.

	<b>-ari atzizkiaz eraturiko hitz desberdinak</b>	<b>-aritze atzizki konplexuaz</b>
<b>A garaia</b>	agintari, lendakari, zuzendari, lanari, epailari, errentalari, gintzalari, jaurleri, latziñaldari, laziñaldari, salatari, salerostelari, salostelari, ziñaldari	jaurlaritzea, agintaritzea, banakaritzea, lendakaritzea, lanaritzea, salataritzea, zuzendaritzea
<b>B garaia</b>	agintari, lehendakari, zuzendari, notari	kontseilaritzea, merkataritzea,
<b>C garaia</b>	agintari, lehendakari, zuzendari, lanari, artezkari, dendari, enpresari, funtzionari, herrilanari, kontseilari, legelari, merkatar	asegurolaritzea, erroldaritzea, arduralaritzea, epaikaritzea, epailaritzea, ordezkaritzea, sindikaritzea, legelaritzea, lehendakaritzea,
<b>D garaia</b>	agintari, lehendakari, zuzendari, gobernari, ministrari, ordezkari, teknikari,	zergalaritzea, ikuskaritzea,

**80. taula: -ari, -aritze atzizkiez eraturiko hitz desberdinak**

#### 4.6.2.1.- -ari

Emankor agertzen da *-ari* atzizkia lau garaietan. Izan ere, EUSB desberdinetan 3 hitz (*agintari*, *lehendakari*, *zuzendari*) bakarrik errepikatzen dira garai guztietan, eta beste bat (*lanari*) A eta C garaietan.

Atzizkiaren formari dagokionez, zalantza asko daude *-ari* *-lari* eta *-kari* aldaeren artean. Kasu batean (*epailari* / *epaikari*) corpusean bertan daude bi formak. Beste batzuetan (*errentalari*) aukeratzen den forma, ez da tradizioan gehien erabilitakoa (*errentari*).

Oinarriari gagozkiola, batzuetan bakarrik agertzen da argi eta garbi izena (*dendari*, *enpresari*, *legelari*, *dendari*, *kontseilari*, *teknikari*). baina asko dira bestelako oinarria dutenak, esate baterako *-ka* aditzondoa: *banakaritzea*, *ikusari*, *artezkari*, *ordezkari*; hainbatetan: *lehendakari*, *zuzendari*, *jaurleri*, *epaikari* ez da erraza igartzea oinarria zein kategoriatakoa den, ez eta zein den ere.

Kasu gutxi batzuetan ikus daitezke oinarri bera edo beretsua gehi hizki desberdin bat eraturiko hitzak, esanahi bereko emaitza emateko. *Epaile*-ren oinarria aditzoina, eta *epailari*-rena izena izan daitezke.

(108)

9203F *epaile* juez  
8201P *epailari* juez

*Errentatzaile / errentari* bikote zaharrear, kasu berezia ikus dezakegu: kontratu baten bi alderdien izendapenak, oinarri beraren (edo beretsuen) gainean eraikiak. Hemen ere, pentsa daiteke *errentatzaile*-ren oinarria *errenta(tu)* aditza dela eta *errentari* edo *errentalari*-rena *errenta izena*.

Corpus honetan ohikoa baino maiztasun handiagoa dauka *lanari* hitzak. Behin bakarrik agertzen da 1936-37an, baina oso ugari 1980-1989an. Oinarri beraren gainean eraturiko *langile* hitz-elkarte guztiz ohikoari ez bezalako esanahia ematen zaio EUSBetan, batzuetan *herri-* ri loturik, baina beste batzuetan, bera bakarrik doala, *lanari = funcionario* eginez

Beste kasu batzuetan, jakina denez, itxurazko atzizkia besterik ez dugu, “mailegu mozorrotuak” deitu izan diren horietan (*funtzionari...*) bezala, edo aurreko batzuen itxura kopiatuz *merkatari / ministrari; merkataritza / sindikaritza* eratu direnen kasuen arabera. Bide horretatik abiatuta sortu dira *egoitza administrari* (vecindad administrativa) bezalako izenondo arauz kontrakoak.

A garaian badira trunkazio ez arauzkoen ondorioz sorturikoak; honela, *salostelari*, corpusean berean agertzen den *salerostelari*-tik edo, *ziñaldari*, *latziñaldari*, *laziñaldari*, *gintzalari*, oso erabilera laburrekoak, eta hiztegieta (OEHN ere ez) jasotzen ez direnak. Hurrengo garaietan guztiok desagertu egiten dira.

#### 4.6.2.2.- *-ari + -tza*

*-ari + -tza* atzizki konposatua, ikusten genuenez (supra 4.3.3.) ugari agertzen da corpusean: ondoko 20 hitz desberdin hauek aurkitu ditugu:

(109)

<i>administraritza</i>	<i>agintaritza</i>	<i>arduralaritza</i>	<i>asegurolaritza</i>
<i>banakaritza</i>	<i>epaikitza</i>	<i>epailaritza</i>	<i>erroldaritza</i>
<i>ikuskaritza</i>	<i>jaurlaritza</i>	<i>kontseilaritza</i>	<i>lanaritza</i>
<i>legelaritza</i>	<i>lehendakaritza</i>	<i>merkataritza</i>	<i>ordezkaritza</i>
<i>salataritza</i>	<i>sindikaritza</i>	<i>zergalaritza</i>	<i>zuzendaritza</i>

Azpimarratzekoa iruditzen zaigu, 20 horietatik 6tan (110) bakarrik dagoela *-tza*-rik gabeko ofizio-hitza, eta, batzuetan (*arduralaritza*, *asegurolaritza*, *sindikaritza*) ez dagoela corpusean oinarrian duten izenaren (*arduralari*, *aseguroolari*, *sindikari*) agerpenik.

(110)

<i>agintari</i>	<i>agintaritza</i>
<i>epailari</i>	<i>epailaritza</i>
<i>jaurleri</i>	<i>jaurlaritza</i>
<i>kontseilari</i>	<i>kontseilaritza</i>
<i>lanari</i>	<i>lanaritza</i>
<i>zuzendari</i>	<i>zuzendaritza</i>

#### 4.7.- Beste atzizki batzuk ( -(t)ar,-ka, -kada, -ki,)

Puntu honetan, oso era desberdineko atzizkiak bildu ditugu. Hemen batera aztertzeko arrazoia bakarra da, corpusean erabilera urrikoak izatea.

##### 4.7.1.- -(t)ar

Oso adibide gutxi aurkitu ditugunez, ondoko adibideetan denak ikus daitezke.

(111)		
37	<i>erritar-arkibidea legea</i>	ley del registro civil
80	<i>ekintza herritar</i>	acción popular
8210P	<i>Euskal Herritar</i>	ciudadano vasco
8205P	<i>herritar euskaldun</i>	ciudadano vasco
8318P	<i>eusko herritar</i>	ciudadano vasco
9203F	<i>herritartasun</i>	vecindad civil

Ez dago ondorio askorik ateratzerik hain aztergai urritik, baina azpimarratzekoa iruditzen zaigu atzizki honetaz eraturiko guztietan esanahia jatorriari (modu eratorrian bada ere) lotuta dagoela (*ekintza herritar* terminoa salbuetsia) hau da, azken garaietan atzizki horri, erdal adjektibo erreferentzialen ordainak eratzeko ematen zaion erabilera ez gehiago agertzea<sup>27</sup>

##### 4.7.2.- -ka

Aditzondoak sortzen dituen atzizki hau izenlagunetan soilik aurkitu dugu, *akziokako, atalkako, banakako, presakako, zatikako*, eta *zeharkako* hitzak osatuaz. Ondoko adibideotan ikus ditzakegu batzuk.

(112)		
8001P	<i>atalkako idazkera</i>	texto articulado
8201P	<i>banakako eskubide</i>	derecho individual
8319P	<i>presakako biderapena</i>	procedimiento de urgencia
9004P	<i>Zatikako Plan</i>	plan parcial
9105P	<i>zeharkako zerga</i>	impuesto indirecto
9415P	<i>akziokako lan-baltzu</i>	sociedad anónima laboral

##### 4.7.3.- -ki

Forma honetako atzizkiak gutxienez bi dira: aditzondo eratzailea eta izen-eratzzailea. Ez dugu horrelako aditzondo ale bat ere aurkitu, bai, ordea, honako taulan xehetzen diren 13 izen hauek:

<sup>27</sup>Ikus aurrerago 6.22 eta 6.2.3. puntuak.

	<b>kop.</b>	<b>desberdinak</b>
<b>A garaia</b>	8	<i>erki, gizaki, idazki, soroski,</i>
<b>B garaia</b>	2	<i>eranski</i>
<b>C garaia</b>	2	<i>aldaki, idazki</i>
<b>D garaia</b>	1	<i>idazki</i>
<b>Guztira</b>	13	

**81. taula: -ki atzizki izen eratzailea**

Oinarriari begiratuz gero, bi atzizki direla esan beharko genuke. *Erki*, (Aranak (h)erri + *ki* sorturikoa hitz berria) eta *gizaki* izenaren gainean eraiki dira; gainerakoak, aldiz, aditzoinaren gainean.

Ez da oso emankorra, A garaiko *erki* errepikatua kenduz gero, oso gutxi baitira.

#### 4.7.4. -kada

'Objektua/ produktua' adierako izenen sortzaileen artean sailkatu ohi da atzizki hau. Gure corpusean behin bakarrik topatu dugu, eta ezohiko adierako hitzak sortuaz, 1937ko oroagindu batean, *lerrokada* hitzean, erdarazko *catastro* itzuliaz.

### 4.8.- -ko atzizkiaren azterketa xehetua

#### 4.8.1.- -ko atzizkiaren balioak. Sailkapena.

Euskarak gehien erabiltzen duen atzizkia da, eta corpus honetan bertan baieztatzen da; izan ere, 2.858 EUSBetatik 690tan aurkitzen da.

Denbora luzean, deklinabide-atzizkien artean sailkatu izan da *-ko* atzizkia, kasu gehiegi egin gabe nabarmenki erakusten zituen ezaugarri bereziei. Horrela sailkatzeak, hala ere, ez zuen galarazten izenlagunak osatzeko ahalmena azaltzea gramatiketan<sup>28</sup>. Deklinabide-atzizki izaeratik urruntzeko bidean, Mitxelenak (1972a, 1972b) egindako analisi sintaktikoaren emaitzetan oinarriturik, Goenagak (1980:133) eman zuen urratsik erabakitzaileena. Izan ere, funtzio guztiz sintaktikoa azpimarratu zuen azaldu zuelarik atzizki hori aditzlagunari eransten zaiola izenlagunak osatzeko. Harrezkero, Trask (1985), Euskaltzaindia (1987), De Rijk (1988), Azkarate eta Altuna (1993), Eguzkitza (1993), edo Zubiri (1995) modu batera edo bestera joan dira atzizki horren alderdi eta funtzio desberdinak zehazten. Gaurko egunean onarturik dago *-ko* atzizkia ez dela bakarra, eta bereziki aditzlagunari eransten zaiona izenlaguna osatzeko, oinarrian sintaxi-kategoria duelarik, ezin daitekeela ohiko erator-atzizkitzat hartu (Azkarate

<sup>28</sup> Azkue (1923-25), Altube (1929), Lafitte (1944)

91:104). Beste hainbat puntu oraindik azterkizun dago, baina ez dagokigu guri horiek argitzen saiatzea.

*-ko* atzizkiaz sorturiko hitzak eta egiturak sailkatzerakoan Azkarate eta Altunaren (1993:91-111) artikuluz eta EGLU gramatikaz baliatu gara gehienbat. Baina haien sailkapen hirukoitzeko bigarren atalean (“2.-Izena + *-ko* = izena”) sartzeko ale bat ere ez dagoenez, eta beste aldetik, EUSBen egitura orokorrak aztertutakoan (supra 2.2.2.4.2) jadanik bereizi genituenez *aditz-izen* + *-ko* egituradunak, honako multzo hauek egin ditugu:

- *-ko* atzizki lexiko-eratzailerak. (4.8.2.).
- Izen-multzoa + *-ko*, adjektibo funtzioan. (4.8.3.).
- *Ad--iz* + *-ko*, izenlagun-eratzailerak. (4.8.4.).
- *Adlg* + *-ko*, izenlagun-eratzailerak. (4.8.5.).

#### 4.8.2.- *-ko* atzizkia, lexiko-eratzailerak

Kasu batzuetan *-ko* atzizkia ez da izenlagun-sortzailerak; atzizki horretaz eratutakoak ez dira izenlagunak, ISren buruak baizik, izen burujabeak.

Ondoko taulan jaso ditugu gure ustez multzo honetan sartu beharrekoak, haien kopuruak eta garaiz garaiko hitz desberdinak erakutsiaz.

	<b>kop.</b>	<b>desberdinak</b>
<b>A garaia</b>	5	eguneroko, oñordeko, ondorengo,
<b>B garaia</b>	0	
<b>C garaia</b>	28	egiteko, egitasmotarako, egitasmotzako, egitamutarako, eskuordeko gizabanako, hilburuko, norbanako, oinordeko, ondorengo, seme-alabatzako,
<b>D garaia</b>	10	ezezko, egitasmoetarako, gizabanako, norbanako, oinordeko, ondorengo, hartzekodun
<b>Guztira</b>	33	

**82 taula: *-ko* atzizkiaz eraturiko izenak**

Ihartze-prozesu bat nabari daiteke guztietan. Denek tradizio eskaseko *norbanako* eta *gizabanako* hitzek izan ezik funtziona lezakete izenlagun gisa, nahiz eta, horietako batzuen (*oinordeko*, *ondorengo*, *hilburuko*) lexikalizazio-maila sendoa dudaezina izan.

Izan ere, horietako batzuk izenak ote ziren erabakitzeke ezinbestekoa izan zaigu testuingurua, izan ere, forma berarekin izan daitezke izenlagun edo izen, (113a) adibidekoak bezala; (113b) adibidekoak, ordea, guztiz iharturik, eta izenlagun-erabilera galdurik daudelakoan gaude.

(113)

- (a) *egiteko, eguneroko, ondorengo,*
- (b) *gizabanako, hilburuko, oinordeko, hartzekodun*

Izen horien osieran *adizlagun* + *ko* motako egitura dago funtsean. Bi salbuespen daude: *egiteko* eta *hartzekodun*, zeinetan, *aditz-izena* +*-ko* baitago.

Edonola ere, esan behar da izenlagun bezala ohikoak ez direnetako batzuen lexikalizazio-maila zalantzazkoa dela, esate baterako, *semetzako*-ren arabera moldatutako *seme-alabatzako*.

Zalantzazkoa baino areago iruditzen zaigu ondorengo adibidekoen lexikalizazioa, denak *lege* hitzarekin elkartuak erdarazko *anteproyecto de ley* itzultzeko sortuak, baina aski ulergaitzak.

(114)

<i>egitamutarako</i>	<i>egitasmoetarako</i>
<i>egitasmotarako</i>	<i>egitasmotzako</i>

#### 4.8.3.- Izen-multzoa + *-ko*

Euskaltzaindiaren EGLU-I, eranskinean (1987a:52-57) '*izen-multzoa* + *-ko*' egitura lau azpimultzotan banatzen da:

- *iz* + *-ko*
- *iz* + *izond* + *-ko*
- *-ren*+ *iz* + *-ko*
- *zenbat* + *iz* + (*izond.* ) +*-ko*

Lehen azpimultzoan sartzeko (eta hori ere zalantzaz) moduko bakarra aurkitu dugu, (115) adibidean ikus daitekeen *karrerako* hitza. Zalantzaz, diogu, onartzen duelako *adizlagun* + *-ko* sailkatuko lukeen interpretazioa. Baina (b) adibidean haren baliokidetzat agertzen den *karreradun* ikusteak bultzatu gaitu honela sailkatzera.

2. eta 3. multzotan sailkatzeko ez dugu bat ere aurkitu.

4.ari dagokion bakarra dugu, bitan errepikatua (c).

(115)

(a)	8206R	<i>karrerako herrilanari</i>	<i>funcionario de carrera</i>
(a)	8906P	<i>karrerako funtzionari</i>	<i>funcionario de carrera</i>
(b)	8112P	<i>karreradun lanari</i>	<i>funcionario de carrera</i>
(c)	9414P	<i>kide anitzeko organo</i>	<i>órgano colegiado</i>

#### 4.8.4.- 'Aditz-izena + *-ko* / +*zko*' izenlaguna

EUSBen egitura orokorrak aztertzerakoan (VI., 2.2.2.4.) jorratu dugu puntu hau, baliabide terminogenetiko gisa. Gogora ditzagun han ikusitako kopuru nagusiak.

	-t(z)eko	-t(z)ezko
<b>A garaia</b>	0	0
<b>B garaia</b>	1	0
<b>C garaia</b>	23	5
<b>D garaia</b>	26	2
<b>Guztira</b>	50	7

83. taula:-t(z)eko eta -t(z)ezko

Egitura hau, kasu guztietan EUSBen egitura nagusi gisa agertzen denez ez ditugu errepikatuko kapitulu honetako 2. atalean ikusitakoak. Baina egitura horretan eratorpenaren aldetik beste zerbaite den  $-t(z)e+z+ko$  atzizki konposatua aurkitzen dugunez, horren azterketari ekingo diogu.

#### 4.8.4.1.- tzezko bukaera

Atzizki konposatu hau, formalki, izenlagun- sortzailea denez, geroago aztertzen dugun *adizlagun* + *-ko* bezala sailkatu beharko genuke, baina *aditz-izen* + *-ko* egiturarekin duen kidetasuna dela eta, nahiago izan dugu hemen aztertzea.

Gehiegi ez direnez, zenbakiak eta laginak ekarri ordez, denak ematen ditugu ondoko adibidean:

(116)

8210P	<i>baliogabetzeko erabaki</i>	disposición derogatoria
8318P	<i>nahitaezko jabegokentzeko lege</i>	ley de expropiación forzosa
8328P	<i>zigortzeko ahalmen</i>	potestad disciplinaria
8608P	<i>babesa eskatuzko goradei</i>	recurso de amparo
8201P	<i>ordezkatzeko edo bigarren mailako erantzukizun</i>	responsabilidad subsidiaria
9004P	<i>osatuzko arau</i>	norma complementaria
9004P	<i>ordezkatzeko arau</i>	norma subsidiaria

Gramatiketan aurkitu ez dugun<sup>29</sup>, eta irakurri ere gutxitan egin daitekeen atzizki konposatu honi EUSBetan ematen zaion baliora hurbiltzeko, osatzen dituen terminoen jatorrian zegoen espainierazko terminoa zein den, eta EUSB "sinonimoak" ba ote dauden aztertu dugu. Hau da, *-tze*ko izenlaguna egiturako EUSBak aztertzerakoan egindako ariketa beraz baliatuz ikusiko dugu atzizki honek esanahiari plusen bat eransten dion edota, beste batzuen aldaera arbitrarioa den. Hona adibide batzuk:

<sup>29</sup> Azkuek ez du "desinencias dobles"-en artean sartzen.



(117a)	<b>potestad disciplinaria</b>	(117b)	<b>norma subsidiaria</b>
9202P	<i>zigortzeko ahalmen</i>	9004p	<i>ordezkatzeko arau</i>
8801P	<i>zigortze-ahalmen</i>	9004p	<i>ordezkatzeko arau</i>
8328P	<i>zigortzeko ahalmen</i>	8318p	<i>ordezko arau</i>
8805P	<i>zentzatzeko ahalmen</i>	9417p	<i>arau ordezkatzaille</i>
8805P	<i>zentzarazte-ahalmen</i>	79	<i>arau lagungarri</i>
8906P	<i>zentzapide-aginte</i>	9703p	<i>arau subsidiario</i>
8906P	<i>zentzapide-ahalmen</i>		

(117c)	<b>ley de expropiación forzosa</b>	(117d)	<b>norma complementaria</b>
8318P	<i>nahitaezko jabegokentzeko lege</i>	9004P	<i>osatzeko arau</i>
8108T	<i>nahitaezko jabegoa kentzeko lege</i>	8108T	<i>araupide osagarri</i>
9007P	<i>nahitaezko jabego-kenketarako lege</i>	8801P	<i>osagarritzko arau</i>
8909P	<i>nahitaezko jabego-kentzearen lege</i>	8801P	<i>arau osagarri</i>
9207P	<i>derrigorrez jabetza kentzeari buruzko lege</i>	78	<i>arau osagarri</i>
		78	<i>eranskin</i>

Badirudi, adibide horien arabera, ez dagoela esanahi-aldaketarik ohiko *-tze* eta *-tze* honen artean. Gainera, *-tze* izenlagunaren azterketan bezala, ikus daiteke beste modu askotara ematen dela corpusean esanahi berbera.

Nabarmentzekoa iruditu zaigu ez dela *-tze* atzizkiaz eraturiko hitz bat ere agertzen A eta B garaietan, ezta ere D garaian, 1990 urtetik aurrera.

#### 4.8.5.- 'Adberbioa +-ko' izenlaguna

Jakina denez, *-ko* atzizkiaz eratutako en artean egitura hau da usuen aurkitzen dena, eta, autoreek (Trask,1985, Azkarate eta Altuna, 1993:104), azpimarratu duten bezala, emankorrena, ia debekurik gabeko bakarra. Esan nahi baita, salbuespenezko kasu batzuk izan ezik<sup>30</sup>, inolako eragozpenik ez duela jartzen gramatikak edozein adizlaguni *-ko* erantsiaz izenlaguna sortzeko.

Era guztietako adberbioez osa daiteke izenlaguna *-ko* erantsita (EGLPB:173). Ondoko taulan, horrelako egiturak mota bakoitzeko adberbioekin, garaiz garai zenbat bider agertzen diren jasotzen da.

	<b>Adond, adb.-esap</b>	<b>Aditz esap.</b>	<b>Partizip. adverb.</b>	<b>Postp. Sintag</b>	<b>Ines.</b>	<b>beste kasuak</b>
<b>A garaia</b>	0	4	0	0	5	6
<b>B garaia</b>	3	0	0	2	18	9
<b>C garaia</b>	48	1	26	29	63	151
<b>D garaia</b>	25	5	13	24	66	85

84. taula: 'adb. + -ko = Izlg' egiturak garaika

<sup>30</sup> *-ki* atzizkiaz osaturiko aditzondoak, esate baterako.

Ondoren, EUSBetako adberbioen azterketa beste puntuan egiten denez, *adberbio + ko* mota bakoitzeko adibide batzuk ematera mugatuko gara. Denetan ugariena, hau da, kasu-markari *-ko* atzizkia erantsiaz eratzen dena, 4.9. puntuan xehetasun handiagoaz aztertzen dugu, kasu asko baitira, eta gainera, bertan kokatzen baitira corpus honetako aukera berezi eta azpimarragarri batzuk

- a) Aditzondoak, eratorriak, adberbio-esapideak:

(118)

<i>zatikako egitamu</i>	<i>urteoroko kontu</i>
<i>erabateko epai</i>	<i>etxerik-etxeko salmentamodu</i>
<i>behin betirako diru-garbiketa</i>	

- b) Aditz-esapideak:

(119)

<i>bete beharreko txosten</i>	<i>higiezinako ogasun</i>
<i>itzuli beharreko dohaintzak</i>	<i>ontzat eman beharreko eginbeharrak</i>

- c) Partizipio adberbialak:

(120)

<i>aitortutako zorpideak</i>	<i>arrazoituriko ebazpen</i>
<i>bateratutako testu</i>	<i>beretzakotutako eskubide</i>
<i>eraberritutako idazkera</i>	<i>erantsitako Zerga</i>
<i>eskuratutako eskubide</i>	<i>onartutako egitekoak</i>
<i>ontzat emandako betebeharrak</i>	<i>sendetsitako epailaritzaepai</i>
<i>zehaztutako aldirako lan-hitzarmen</i>	

Bi bakarrik dira *partizipio + -rik+ -ko*; gainerako guztiak *partizipio + -ta+ -ko*; adjektibo-balioa nabarmena da guztietan.

- d) Postposizio-sintagmak:

(121)

<i>agintaritza babespeko etxebizita</i>	<i>hirigintzari buruzko egitamuketa</i>
---	---

#### 4.9. *-ko* atzizkia. Kasu-marka *+ -ko* egituraren azterketa berezia.

Gauza jakina da, Azkuez (1923:344-348) geroztik, *-ko* atzizki izenlagun-sortzailearen tokia askotarikoa dela, eta *nor*, *-ik*, *nork*, eta *nori* kasu-markak kenduz gero, gainerako kasu-marka guztiei erants dakiekeela. Baina halaber ezaguna da askoz errazago eransten zaiela deklinabide-marka batzuei beste batzuei baino.

Interesgarria iruditu zaigu aztertzea nola gauzatzen den gure corpuseko EUSBetan *-ko* atzizki izenlagun sortzailearen gaitasuna deklinabide-marka desberdinekin. Horretarako argibidea eman digu Josu Oregi Aranburuk 1976an argitaturiko «Birdeklinaketa. Aditz-Flesioekingo "(e)N" ariazko atzizkia.» artikulua zeinaren xedea “birdeklinaketa”ren ahalmenak probetxatzeko moduak erakustea baita.

Izan ere, lehen begiradan ohart gaitezke EUSBetan izugarrizko ugaritasuna dutela deklinabide-marka + *-ko* atzizkia duten egiturek. Horietako batzuk, bereziki inesiboaren gainean ohiko moduan eraturikoak, oso-oso arruntak dira hizkuntzaren aldaera guztietan; beste zenbait, hala nola adlatiboaren gainean eraturiko *-rako*, edo soziatiboaren gaineko *-kiko*, ugaltzen ari direla dirudi, eta ugalketa hori hizkera-maila batzuetan gertatzen dela bereziki. Beste zenbait, ordea, testu-mota gutxietan ikus daitezke, baina corpus honetan presentzia aski nabarmena dute, *-ango*, esate baterako.

Lehen uneko uste horiek egiaztatzeko edo gezurtatzeko interesgarri iritzi diogu 'deklinabide atzizkia + *-ko*' eraturiko hitzen azterketa xehetua ekiteari.

Atzizkiz atzizki, zenbat agerpen duten, zenbat egitura edo hitz desberdin osatzen duten, eta nolako balioa duten aztertuko dugu, arazoak eta zalantzazko erabilerak azpimarratuaz.

	<b>-ango</b>	<b>-ra +- ko</b>	<b>-entzat + -ko</b>	<b>-z + -ko</b>	<b>-tzat + -ko</b>	<b>-tik +- ko</b>	<b>-gatik+ -ko</b>	<b>-kin + -ko</b>
<b>A garaia</b>	0	0	0	6	0	0	0	0
<b>B garaia</b>	0	3	0	6	0	0	0	0
<b>C garaia</b>	22	39	0	87	5	2	7	9
<b>D garaia</b>	3	21	1	55	0	1	0	4

**85. taula: Deklinabide-marka + *-ko* egiturak garaia**

#### 4.9.1.- *-ra + -ko*, *-raino +-ko*, *-rantz +-ko*, *-gana + -ko*

Ez dugu aurkitu *-raino + ko*, *rantz+ -ko* edo *-engana + -ko* egiturarik; hortaz, adlatiboaren gaineko adibide guztietan *-rako* atzizki konposatua dago.

85. taulan ikus daitekeenez, azken garaietan, 1978tik aurrera, agertzen da corpuseko EUSBetan atzizki hau. Ziurrenik horrek badu zerikusia azken urte hauetan gertatzen ari den erabileraren ugaltzearekin. Izan ere, lehen *-ko* hutsa ikusten zen hainbat kasutan, orain *-rako* ageri da gero eta gehiagotan.

Agerpen guztietan, (122). adibidekoetan izan ezik, izenlaguna osatzen du. Bi hauetan, ordea lexikalizaturik agertzen zaigu, izena osatuaz.

(122)

9605P *lege-egitasmoetarako* anteproyecto de ley  
8312P *lege-egitamutarako* anteproyecto de ley

Izenlagun batzuetan, *-ko* adberbio konposatuei eransten zaie (123a.) eta (123b) adibideetan bezala. Biak dira iruzkingarri: (a) Euskaltzaindiak 20. arauan argitu duenez *betiko* delako tradizio hobea duen forma, eta (b) adibidekoa, aski irregularra delako atzizkien metaketa aldetik. Beste izenlagun batzuk postposizioak dira, ondoko (123c), (123d) eta (123e) bezala:

(123)

(a)	8108T	<i>behin betirako diru-garbiketa</i>	liquidación definitiva
(b)	8510T	<i>behin-behingorako lanariak</i>	personal eventual
(c)	8312P	<i>legezkotasunaren arauerako irizpide</i>	principio de legalidad
(d)	8503P	<i>legetasun-arauerako oinarri-irizpide</i>	principio de legalidad
(e)	8206R	<i>udal-mailatik gorako erakunde</i>	entidad supramunicipal

ESTetako eskubide konkretuen izendapenak itzultzeko agertzen zaigu hainbat kasutan, iduriz, erdarazko *derecho a* esamoldeak esplizitatzen eta *derecho de* formulak ezkututzen duen esanahaia agerraraziaz. Baina honelakoen azterketa xehetua aurrerago (infra VI. 7.4.3) egiten dugu.

(124)

8604P	<i>barnekoitasunerako eskubide</i>	derecho a la intimidad
8803P	<i>elkarketarako eskubide</i>	derecho de asociación
8906P	<i>grebarako eskubide</i>	derecho de huelga
8906P	<i>gozamen-saritarako eskubide</i>	derecho pasivo
9007P	<i>haztaketarako eskubide</i>	derecho de tanteo

Halaber aurrerago (infra VI. 7.4.1), xehetasunez jorratuko ditugun lege konkretuen izendapenak emateko corpusean erabiltzen diren moduetako bat da. Gehienetan, *ley de*-ren ordainetan ikusten dugu..

(125)

8605G	<i>merkataritza jardunaren antolaketarako lege</i>	ley de ordenación de la actividad comercial:
8803p	<i>herri legepeko epaibidetarako lege</i>	ley de enjuiciamiento civil
9007P	<i>nahitaezko jabego-kenketarako lege</i>	ley de expropiación forzosa

Atzizki konposatu honen balioa, gehienetan zertarako galderari erantzuten diona da, baina hainbat kasutan, ikus daiteke *-rako / -ko* atzizkien alternantzia EST beraren itzulpenetan edo oso antzeko balioetan honako adibideok erakusten duten bezala:

(126)

(a)	8103p	<i>eusko jaurlaritzako kontseilari</i>	consejero del gobierno vasco
(a')	8311P	<i>eusko jaurlaritzarako lehendakari</i>	presidencia del gobierno vasco
(b)	9004P	<i>hiri-antolakuntzako egitamu nagusi</i>	plan general de ordenación urbana
(b')	9417P	<i>hiri antolakuntzarako plan orokor</i>	plan general de ordenación urbana
(c)	9417P	<i>hirigintzako-plangintza</i>	planeamiento urbanístico
(c')	8318P	<i>hirigintzarako baltzu</i>	sociedad urbanística

#### 4.9.2.- *-tzat + -ko*

Atzizki konposatu honek 2 agerpen desberdin soilik dauzka corpusean, ondoko adibidean jasotzen direnak, biak C garaikoak dira.

(127)

8906P	<i>seme-alabatzakoren bat hartze</i>	adopción
8312P	<i>legearen egitasmozako</i>	anteproyecto de ley

Bietan, izenlagun edo aditz-lagun gabe (*seme-alabatzako, egitasmozako*), izen kategoriako banakoa osatzen da. Biak, gure ustez, aski bitxiak.

## 4.9.3.- -rentzat + -ko

Maila guztietako hizkeretan maiztasun handikoa den atzizki konposatu honen adibide gutxi (128) aurkitu dugu corpus osoan.

(128)			
8201P	prezio berdinean beretzakotzeko eskubide	tanteo	
8314P	norbaitek beretzakotutako eskubide	derecho adquirido	
8314P	eginbeharrak beretzakotze	subrogación	
9504P	jendearentzako erabilera	uso público	

Aurreko hiruretan, (*beretzakotze*, *beretzakotutako*, *beretzakotzeko*) –izenlagunetik eratorritako aditza —ez oso ohikoa— aurkitzen dugu, askoz ezagunagoak diren *beretu* edo *bereganatu*-ren balikodea, gure ustez.

## 4.9.4.- -tik+ -ko, -gandik + -ko

Ez dago *-gandik + -ko* egiturako hitzik, eta 3 bakarrik (129) dira *-tik+ -ko* atzizki konposatuez eraikiak, 2 C garaian eta 1 D garaian.

Bitan *aldetikako* hitza agertzen da, baina hirugarrenean, morfologikoki oso argi ulertzen ez den *auzipidetatikako*, ez baitakigu mugagabea izan nahi duen.

Baina erabilera edo balioa da hemen interesgaia. Alde batetik, *legearen aldetikako* parafraisi gutxi erabilia dugu, erdal terminoko *jurídico* hitza edo ‘zuzenbideari dagokiona’ adigaia dagoenean itzultzeko, eta hirugarrenean, erdarazko *contencioso-administrativo*-k corpusean dauzkan baliokide askotariko bat, ez oso gardena.

(129)			
8328P	zigor-legearen aldetikako erantzunbehar	responsabilidad penal	
9003P	legearen aldetikako segurantz	seguridad jurídica	
8601G	administrazio-auzipidetatikako eske	recurso contencioso-administrativo	

## 4.9.5.- -gatik + -ko

C garaiko 7 kasutan aurkitzen da egitura hau. Ez dauka agerpenik 1980 arte, ez eta berririk 1990tik aurrera.

Kapitulu honetako 7. atalean '*impuesto sobre*'-ren euskal itzulpenak aztertzerakoan ikusiko dugu atzizki konposatu honen erabilera ugariena (130a) adibidekoa bezalakoa dela; kasu bakar batean (130b) agertzen baita beste egitura baten itzulpen gisa.

(130)			
(a)	8502P	ondareagatikako zerga	impuesto sobre el patrimonio
(b)	8601G	zahar izateagatikako bizi-sari	pensión de jubilación

## 4.9.6.- -kin + -ko

Hainbat lanen aztergai izan da egitura hau; azken urteetako interesgarrienak aipagatzearen, Azkarateren argitaratu gabeko Hobekuntza Ikastaroan (1995), eskaintzen zaizkion atalak, eta gai monografikotzat hartzen duen Makazagaren (1999) ‘Kiko atzizki konposatuaz’ artikulua. Azken honek aurrekoen ekarpenetan oinarrituaz modu zabalean tratatzen duenez gaia, bera hartuko dugu gidari berezitzat.

*-kin* sozietiboaren marka + *-ko* eraturikoek bi forma nagusi izan dute tradizioan, *-kilako*, gehienbat Iparraldean erabilia, eta *-kiko*, Hegoaldekoa; askoz agerpen gutxiagoko beste bat izan da: *-kingo*.

Gure corpusean, behin bakarrik aurkitu dugu *-kingo* eta 20 bider *-kiko*. Honela banatzen dira garaietan

	<b>-kiko</b>	<b>-kingo</b>
<b>A garaia</b>	0	0
<b>B garaia</b>	0	0
<b>C garaia</b>	16	1
<b>D garaia</b>	4	0

**86 taula: -kiko eta -kingo atzizkiak**

Ez dugu aditz-lagunik aurkitu, denak izenlagunak baitira, gainera, izena agerian dutela, ondoko adibidean jasotzen den salbuespen (131) bakarraz. Honen antzekoak izan daitezke Makazagak (1999:26) jasotako (*mandatariarekikoa eginda...*) adibide batzuk.

(131)

8104P *elkartuezinekikoen batzordea* comisión de incompatibilidades

Makazagari jarraiki, saiatuko gara argitzen zein diren EUSBetako beste *-kiko*-dunen balioak. Oinarrian *-kin* deklinabide-atzizkia eduki dezakete ondoko adibideetakoak, eta horien kidekoak: izan ere, (131a) adibidekoa, erdarazkoaren itzulpen guztiz librea, ‘administrazioarekin izaten diren auziak’ interpreta baidaiteske, eta (137b)koa, berriz, ‘elkarrekin duten aginpidea’

(132)

- (a) 9413P administrazioarekiko auzitarako orden contencioso-administrativo  
 auzitegiak
- (b) 8502P elkarrekingo agintepide competencia compartida

Gainerakoetan, ezin atzeman daitezke, gure ustez, sozietiboarena bezalako bi norantzako erlazioa, eta, egia esan, badirudi denek daukatela interpretatzeko zailtasuna, erdal baliokidearen bila joatea edo eskatzen duena.

Kasu batzuetan, ESTan preposizio-sintagma bat dago, ondoko adibideetako *impuesto sobre, ley de*, bezala.

(133)

- |     |       |                             |                                |
|-----|-------|-----------------------------|--------------------------------|
| (a) | 8201P | koperatibekiko euskal legea | ley de cooperativas de euskadi |
| (b) | 8903P | ondarearekiko zerga         | impuesto sobre el patrimonio   |

Legeen izenak euskaraz nola ematen diren aztertzen dugun puntuan ikusten dugu kasu bakar batean, 138 (a) adibidekoan, arauaren edukia adierazten duen sintagma eta *lege* izena *-kiko*, atzizki konposatuaren bidez lotzen direla.

Era berean, (infra VI., 7.4.1.) *impuesto sobre X* esapideari. ematen zaizkion 23 ordainetatik 6tan agertzen da *-kiko*. Gure ustez, erabilera hori, Makazagak (1999:35) dioen egituraren balio berria da, gehienez ere, *-ri buruzko* postposizioaren baliokoa.

Beste kasuetan ez dago ESTan preposizio-sintagmarik; hortaz, euskal EUSBaren itzultzaile-egileak eman nahi izan dion interpretazioaren bila joan behar dugu. Ondorengo adibideek erakusten dutenez, ez da beti erraza *-kiko* atzizkiaren balioa zein den antzematea.

(134)

- |     |       |                               |                                |
|-----|-------|-------------------------------|--------------------------------|
| (a) | 8312P | gauzekiko eskubide            | derecho real                   |
| (b) | 8702T | kupoarekiko bitariko batzorde | comisión mixta del cupo        |
| (d) | 8312P | gauzarekiko berme             | derecho real de garantía       |
| (b) | 8328P | legeekiko hauspen             | delito                         |
| (e) | 8104P | elkartuezinakikoen batzordea  | comisión de incompatibilidades |

Garaikako banaketari buruz, azpimarratzekoa da bat ere ez dagoela A eta B garaian, eta D garaian agertzen diren egitura horretako berriak, formalki lau desberdin badira ere, bakarrera ekar daitezkeela, denak baitira egitura honi buruz berdinak, eta denak erdarazko *'contencioso-administrativo* bitxiaren itzulpen. Hortaz, esan daiteke atzizki konposatuaren erabilera corpusaren garai bati dagokiola oso bereziki.

#### 4.9.7.- -z + -ko

Bi kasu bereizten ditugu atzizki konposatu honetaz eraturikoetan; lehena, *aditz-izena + zko* (edo *-tzezko* atzizkia), jadanik aztertua, eta bigarrena, izenari, izenondoari edo partizipioari eransten zaionean. Puntu honetan, bigarren honi lotuko gatzazkio.

85. taulan ikusten genuen zenbat agerpen dauden garaiz garai. Garaikako banaketak adierazten du 1980 arte atzizki konposatu honen erabilera aski urria izan dela, C garaian gorakada itzela dago: dauden guztien %60 baino gehiago garai horretakoak baitira., eta 1990tik aurrera ostera behera egiten du erabilerak.

## 4.9.7.2.- zko atzizkiaren balioa

Aztertzen ari garen atzizkia ‘zerezko kasua’ deitu izan da (Zubiri eta Zubiri, 1995:185), eta oro har, ‘zer gaiaz egina den zerbait’ egotzi izan zaio adiera nagusizat. Baina gure corpuseko adigai gehienbat materiagabeko edo abstraktoetan, ez dago beti oso garbi zer adierazten duen atzizki horrek, edo beste modura esateko, 'B+ -zko A' egitura agertzen denean zein erlazio predikatzen den A eta Bren artean. Iluntasun hori gure ustez nabarmena da ondoko adibideotan:

(135)

80	domeinu publikozko ondasun	bien de dominio público
8108T	diruegitamuzko izendapen	dotación presupuestaria
8504T	ardulararitzazko lege	derecho administrativo
8601G	administraziozko bide	procedimiento administrativo
8504T	Autonomiazko Ertzaintza	policía autónoma
8805P	foruzko arau	norma foral

Atzizki honek itzulpen-balio berezirik ba ote duen baieztatzeko begira ditzagun oinarri beraren gainean beste atzizkiekin edo beste egiturekin osaturiko alternantzia batzuk.

- **Legezko**

Esate baterako, EUSBetan *legezko X* egitura agertzen zaigunean, zein erlazio predikatzen da *lege* eta *X*-ren artean?

Hori aztertzeko, *legezko* daukaten EUSBak bilatu ditugu, eta bakoitzaren baliokide, hau da, EST beraren baliokide agertzen direnekin konparatu dugu.

Gehienetan errepikatzen den egitura-bikotea da *legezko X* eta *lege-X*, hau da, *legezko* izenlagunaren ordeztu, elkarteko mugatzaile gisa *lege* hitza, ondorengo adibideetan ikus daitekeenez.

(136a)

	<b>a) estado civil</b>		<b>b) acto jurídico</b>
8311P	legezko egoera	37	legezko ekintza
8201P	lege-egoera	9007P	lege-ekintza

(136b)

	<b>c) norma jurídica</b>		<b>d) persona jurídica</b>
9003P	legezko arau	8314P	legezko nortasundun
8802R	lege-arau	8103P	legenortasundun

(136c)

	<b>e) personalidad jurídica</b>		<b>f) seguridad jurídica</b>
8103P	legezko nortasun oso	8909P	legezko segurtasuna
8309P	lege-nortasun	9005P	lege-segurtasun
9412P	zuzenbidezko nortasun	9003P	legearen aldetikako segurantz

(136d)

	<b>g) capacidad jurídica</b>		<b>h) representación legal</b>
37	legezko eskubide	8509P	legezko ordezkari
37	lege gaitasun	9103P	lege-ordezkatza



(136e)

**i) desarrollo legislativo**

8509P	legezko garapen
9411P	legeen garapen

Jakina denez, menpetasunezko izen elkartuetan ez dago igartzerik zein den bi osagaien arteko erlazioa; hortaz, egitura horrek ez digu ezer argitzen bere baliokide duen *-zko*-ren esanahiaz.

*-zko / -ren* alternantzia ere ez da argigarria; izan ere, *legeen garapen* ESTaren baliokide ona bada, ez da ulertzen zer esan nahi duen aztertzen ari garen egiturak.

Adierazgarriena “*legearen aldetikako*” da, baina hori ere, ez da oso zehatza.

- **Zuzenbidezko, lakapenezko**

(137)

(a)	9412P	<i>zuzenbideko estatu</i>	estado de derecho
(a')	9412P	<i>zuzenbidezko estatu</i>	estado de derecho
(b)	8502P	<i>udal-lakapenezko zerga</i>	exacción municipal
(b')	8507P	<i>udal-lakapeneko zerga</i>	exacción municipal

Horien kasuan *-ko / -zko* agertzen da, baina ez dugu argi askorik jasotzen; harrigarria bada ere, beste kasu gutxitan dago alternantzia hori.

- **Hizkuntzazko**

(138)

8504T	<i>hizkuntzazko normalkuntza</i>	normalización lingüística
8808T	<i>hizkuntzaren normalkuntza</i>	normalización lingüística

Berriro *-zko / -ren* alternantzia. Hemen ere esan beharko da *hizkuntzaren* aukerak aski esanahi zehatza duen bitartean, gure aztergaiak ilun jarraitzen duela.

- **Gutxienezko/ gutxieneko, beharrezko / beharreko**

(139)

8108T	<i>ogibidearteko gutxienezko lansari</i>	salario mínimo interprofesional
8508P	<i>gutxieneko lanbidearteko soldata</i>	salario mínimo interprofesional
8508P	<i>gutxieneko soldata</i>	salario mínimo interprofesional
8108T	<i>gutxienezko lansari</i>	salario mínimo
9305P	<i>bete beharreko txosten</i>	informe vinculante
9608P	<i>beharrezko txosten</i>	informe preceptivo

Corpusean dauzkagun adibideek ez dute baieztatzen Zubiri eta Zubirik (1995:186) azaltzen duten aurkaritza, hiztegietan islatzen dena, hau da, bi balio desberdineko hitzak izatea. Izan ere, EST bera itzultzeko atzizki bata zein bestea duten EUSBak baititugu.

4.9.8.- *-ango* atzizkiaren azterketa

Euskara bizian aski bazterrekoa eta noizean behingoa den forma honek agerpen ugari dauzka corpusean eta EUSBetan.

Hona taula honetan bildurik garaiz garai dauden agerpen desberdinak eta kopuruak

	<b>kop.</b>	<b>desberdinak</b>
<b>A garaia</b>	0	
<b>B garaia</b>	0	
<b>C garaia</b>	22	aurreango, bakarreango, baltzuango, bateango, berdineango, laneango, taldeango, diruegitamuetango, iharduneango, indarreango, kaltetango
<b>D garaia</b>	3	bakarreango, baltzuango, bateango,

**87. taula: -ango atzizkia. Kopuruak eta hitz desberdinak**

Aurreko “birdeklinaketetan” bezala ikus dezakegu gorabehera nabarmenak daudela garaitik garaira, eta beti C garaia, 1980tik 1989ra doana, oparoena dela.

4.9.8.1.- *-ango* atzizkiaren balioa

Badirudi gure corpusean *-ango* atzizkia ez dela besterik gabe *-ko* forma duen atzizki baten aldaera dialektala, estetikoa edo arbitrarioa, funtzionala baizik.

Hori egiaztatu edo gezurtatzeko, begiratu dugu ba ote dagoen, *-ango* atzizkidunen ondoan ESTberaren baliokide agertzen diren beste EUSB “sinonimorik”. Bilaketak erakutsi digu guztiek, batek izan ezik, badauzkatela “sinonimoak”

Ondoko adibidean jasotzen dira *-ko*-*-dun* sinonimo ia berdina, dutenak:

(140)

(a)	8201P	<i>bakarreango aginte</i>	competencia exclusiva
(a')	9406P	<i>bakarreko aginpide</i>	
(b)	8309P	<i>laneango segurantzaz eta osasunbidez</i>	seguridad e higiene en el trabajo
(b')	8906P	<i>laneko segurtasun eta higiene</i>	
(c)	8311P	<i>iharduneango zerbitzu</i>	servicio activo
(c')	8906P	<i>jarduneko zerbitzu</i>	
(d)	8504T	<i>Diruegitamuetango erroldak</i>	plantilla presupuestaria
(d')	9101T	<i>diruegitamuko erroldak</i>	

Aurreko adibide horiek guztiek aditzera ematen dute *-ango* formaren aukera aski arbitrarioa eta funtziogabea dela. Beste kasu batzuetan, ordea, ez dago horrelako alternantziarik.

Ondoko lauetan (141) *-ango*-dun hitzak, (ESTko adjektibo baten itzulpen delarik), izenondo mailegatu bat du “sinonimotzat”. Egia da kasu horietan oinarriari *-ko* atzizkia erantsiaz ez dela lortzen ESTaren baliokidea, baina horrek ez du esan nahi, *-ango*-duna baliokidea denik.

(141)

<i>bakarreango</i>	exclusivo	esklusibo
<i>baltzuango</i>	colegiado	kolegiatu
<i>bateango</i>	colectivo, colegiado	kolektibo
<i>taldeango</i>	colegiado	kolegiatu

Beste bi kasutan (142a), 142b), preposizio-sintagma baten ordainetan dago:

(142)

(a)	8309P	<i>laneango segurantzaz eta osasunbide</i>	seguridad e higiene en el trabajo
(b)	8312P	<i>X-en kaltetango itune</i>	contrato en perjuicio de X
(c)	8906P	<i>laneko segurtasun eta higiene</i>	seguridad e higiene en el trabajo

Nabarmena da *-ango* duten segmentuekin batera beti azaltzen direla bai erdal adjektiboa mailegatzan dutenak, bai *-ko* soilez itzultzen dutenak, eta baita, zenbait kasutan, erlatibozko esaldien bidez ematen dutenak.

#### 4.10.- Aurrizkiak euskal segmentuetan

Atzizkiek ez bezalako eginkizun gramatikala daukate aurrizkiek euskaraz, ez baitute kategoria edo azpikategoria berririk sortzen.

Corpusean egiten den eratorbide honen erabilera ere, oso bestelakoa da: urria baita, bai hizki desberdinei dagokienez, bai eraturiko hitzen kopuruari dagokienez ere.

. *-des* eta *-bir aurrizkiak* besterik ez ditugu aurkitu. Hona, errepikatuak kenduta, aurkitutako desberdin guztiak:

(143)

80	ezinbesteko desjabetze	expropiación forzosa
79	nahitaezko desjabetza	expropiación forzosa
9411P	desmen-egite	desacato
9506P	desjabetza-ihardunbide	procedimiento expropiatorio
8311P	birrabiatze-eske	recurso de reposición
8308P	birrauspen	reincidencia
9308P	birzatikatze	reparcelación
9308P	lan-birmoldaketa	regulación de empleo
8206R	birgizarteratze	reinserción social

Taula horretako datei begiratu gero, azpimarratzekoa iruditzen zaigu, erabileraren urritasunaz gainera, banaketa kronologikoa. Izan ere, ez dugu aurrizkiak eraturiko hitz bat ere aurkitu A garaian; *des-* aurrizkirik ez da agertzen

C garaian; aldiz, B garaian, kopuru txikia bada ere, proportzioan agerpen ugari dago. D garaian, bi aurrizkiez osatutakok daude

#### 4.11.- Iruzkin orokorrak

Atal honetan egindako atzizkien azterketak baimentzen gaitu esateko eratorpena, beste eragiketa morfologikoekin batera, oso bide emankorra dela gure corpusean, baina ohiko testuetan ez bezalako ezugarri berezi batzuk azpimarratzekoak dira.

- **Erator-hizki ugariak eta maiztasun urrikoak**

Jakina da edozein corpusetan erator-atzizki gehienak izen-eratzailleak direla (*-tu* aditz-eratzaillea kenduz gero); ez da beraz, harritzekoa gurean ere ugariena mota horretakoak izatea. Baina banan bana ikusitako kopuruak kontuan hartuaz, esan daiteke nagusitasuna oso nabarmena dela. Izan ere, ez dira 40ra iristen *-garri*, *-kor*, *-tar* eta besteen agerpen guztiak batuta, izenondo-eratzailleak. Aditzondo-sortzailleak ere, azterturiko *-ka* atzizkiaz at, agerpen bakarrekoak edo oso maiztasun urrikoak dira (*berriro...*)

Konstatazio hau, elkarketaren kasuan genioen bezala, guztiz koherentea da corpusaren izaera nominalarekin.

Izen-eratzailleen artean ere, ikusi dugunez oso gutxi dira benetan emankorrak direnak: *-tasun*, *tzal*, *-tegi*, *-ari*, *-(tzai)le*, eta nominalizazio-sortzailleak. Hurrengoak, oso urrutitik jarraitzen zaizkie.

Oso atzizki multzokari gutxi aurkitu dugu: ugariena, *-di* 4 hitz desberdinetan soilik, *-go*, 3 bider, *tza* 2 behin edo bitan, eta *-eria*-ren agerpen bat ere ez.

- **Aditzoinari erantsitako atzizkien erabilera.**

Ikusi dugu bereziki ugariak direla horrelako eratorpenak. Guztiz normala, izan ere, euskaratzen diren termino askotan nominalizazioak daude-eta.

Guztira horrela eratutako 432 hitz aurkitu dugu; horrek esan nahi du EUSB guztietako %15ean badagoela horrelako eratorriren bat. Hau da atzizki-multzorik ugariena. Atzizki horien banakeraz den bezainbatean, ikusi dugu *-pen* (*-men* bertan sartu gabe) dela askoz ugariena.

Beste aldetik, atzizki horien arteko konparazioak erakutsi digu ez dutela askoren artean benetako esanahi-desberdintasunik, izan ere, maiz agertzen dira binaka edo hirunaka EST beraren baliokide gisa.

- **Garaien arteko gorabeherak**

Atzizki askoren garaikako agerpenen kopuruak iruzkindu ditugularik oharrarazi dugu garaitik garaira zeuden aldeak. Gauza bertsua gertatzen zen elkarketa-mota gehienetan. Esan daiteke ia hutsik gabe A garaian eta C garaian askoz gehiagotan jotzen dela eratorpenera eta elkarketara, B garaian gutxiena, eta D garaian C-n baino gutxixeago. Gogora dezagun *iz + izond* egituraren eta elkarketaren aurrean alderantzizko proportzioa agertzen zela.

Baina nominalizazio-atzizkien agerpenetan nabarmentzekoa da orokorrean izaten diren gorabeherak goranzko lerro zuzen bihurtzen direla. Izan ere, A garaian oso gutxi daude, gehiago Bn, eta C eta D garaietan gero eta ugariago.

Orobat jokabide desberdina dauka *-ari* atzizkiak, oso emankorra baita A garaian, eta gutxiago hurrengoetan.

- **Erorpena eta hitzaren jatorria**

Atalaren hasieran ikusten genuen izen bakunak diren EUSBetan “soilak” 146 zirela eta eratorriak 243; esan nahi baita, ehunekotan %67 eratorriak direla.

Nabarmena iruditu zaigunez hitz soilen eta eratorrien artean desberdintasunak daudela, alfabetoaren arabera zerrendaratu ditugu, eta zerrenda bakoitzetik aurreko 30ak (batzuk, jakina, errepikatuak daude) hartu ditugu ondoko taulak moldatuaz:

HITZ SOILAK		HITZ ERATORRIAK	
Jat.	Maileg.	Jat.	Maileg.
agindu	doktrina	adierazpen	antijuridikotasun
agiri	abal	aditu	aprobetxamendu
akura	abokatu	agintari	aprobetxaketa
aloger	aduana	agintaritza	aprobetxamendu
aloger	albazea	agintza	arbitrotza
arta	ammistia	ahaidetasun	autokontratazio
asmo	arbitraia	akuraketa	
baltzu	autogobernu	akurapen	
berme	autonomia	akuratzaile	
berme	balore	aldundi	
debeku	delitu	alkartasun	
denda	dibortzio	alogeratzaile	
diru	direktiba	aginte	
alkate	enpresa	agintekeria	
alkate		alokatu	
arazo		arakaketa	
amarru		araudi	

88. taula:Mailegutza hitz soiletan eta eratorrietan

Hitz soilei eta eratorriei dagozkien bi zerrendak erkatuaz, oso nabarmen ageri da hitz bakunen artean proportzio beretsuan daudela maileguzkoak eta jatorrizkoak<sup>31</sup>, 14na desberdin; aldiz, eratorrietan askoz gehiago direla tradiziozko euskal oinarrien gainean eraturikoak, 22, nabarmenki maileguzkoak direnak baino, 6.

Gai honetan gehiago sakondu gabe, apunte moduan soilik izan arren, uste dugu esan daitekeela baliabide morfologiko honen erabilera loturik dagoela aukera lexikoarekin: tradiziozko ondare lexikoaz baliatuz gero, eratorpena jotzea beharrezkoagoa dirudi, hitza bere horretan mailegutzen denean baino. Beste modu batera esanda, itzultzen denean jatorrizko terminoak bere horretan mailegatzeko joera dago.

- **Atzizki batzuen erabilera nahasia dela-eta.**

Azken garaiotako joera baztergarrizat Euskaltzaindiak arau berezien bidez zuzendu nahi izan dituen joera batzuk (*-garri* eta *-kor* atzizkien erabilera nahasia, *-go* multzokaria, eta abar, ez dira agertzen gure corpusean.

- **Birdeklinaketaren erabilera ugaria.**

Corpus honen ezaugarri berezizat eman daiteke deskribatu dugun birdeklinaketaren erabilera ugaria. Baina, corpus osoarena baino areago, urtealdi batena dela esan daiteke, 1980-1989 garaikoa, hain zuzen ere.

---

<sup>31</sup> Mailegu hitza erabiltzen dugularik ez gara adigai filologikoaz ari, inondik ere. Hitz hori, traduktologian erabiltzen den moduan idazten dugu. Esan nahi baita, itzultzaileak bere jardunean, sorburu testuko hitza (xede hizkuntzan sustraitu gabea) xede testuan erabiltzea aukeratzen duenean, esango dugu maileguzko hitza erabiltzen duela. Eta hitzak sustraiak (neurri batean bederen) dituztenean, jatorrizkotzat eman dugu.

## 5.- MAIZTASUN HANDIKO GAKO-HITZ EDO HIZKI BATZUEN AZTERKETA BEREZIA.

### 5.1.- Sarrera

Corpusean aurkituriko menpekotasunezko hitz-elkarteak sailkatzerakoan, askotan errepikatzen diren hitz eta hizki batzuk kausitu ditugu. Hitz horiek, berez hizkuntza orokorreko hitz arruntak eta erabilerazabalekoak, lehen mailako garrantzia daukate terminologia juridikoan, esanahiaren eta erabileraren aldetik, baina gure interesa piztu duena da haiez osatutako elkarketetan arazo komun batzuk aurkitzea.

Horietako gehienak (*lege, herri, zigor, lan*) maizenik menpekotasunezko hitz-elkarteetan aurkitu ditugu, eta elkarteko mugatzaile-posizioan, baina, hitz beregain gisa, elkarteko mugakizun gisa, edo eratorrien oinarri bezala ere agertzen direnez, posizio guztietakoak begiratuko ditugu, esanahiari buruzko zailtasun batzuk argitzen lagunduko digulakoan.

Puntu honetan, azterketa berezia merezi zuelakoan, sartu dugun beste hitz edo hizkia *bide* da. Hau, besteak ez bezala, mugatzaile gisa aurkitu dugu gehienbat, baina osatzen dituen hitz asko ezinbesteko termino juridikoak dira, haiek bezalaxe.

Gainera, hitz horiek posizio batzuetan eta besteetan hartzen duten balioen arteko halako desberdintasunak daudela iruditu zaigunez, hitz horien agerpenmota guztiak aztertzen saiatuko gara.

### 5.2.- 'Lege' hitzaren esanahiak eta erabilerak

III. kapituluko 2.1.1. eta hurrengo puntuetan, 'IUS' adigaiaren euskal izendapen tradizionalak aztertzerakoan, ikusten genuen *lege* hitza izan dela gehien erabili izan dena; eta ondoko lerroetan, errepikatuko ez ditugun arrazoiak direla eta, gure aukera *zuzenbide* hitzaren aldekoa zela erabakitzen genuen.

Ondoko lerroetan *lege* hitzak EUSBetan dauzkan agerpenetan, hala hitz beregain gisa, nola elkartearen osagai moduan, nola eratorritako hitzaren oinarri bezala dituen erabilerak eta esanahiak aztertuko ditugu

### 5.2.1.- Agerpenak

Hitz-elkartean lotua (*lege-gizon*), eratorriaren oinarri gisa (*legedi*) edo hitz beregain bezala (*ohizko lege*) 317 agerpen dauzka; dudarik gabe, corpus guztiko hitz erabilienetakoa.

Ondoko taulak erakusten du nola banatzen diren agerpen horiek garaika.

<b>Agerpenak</b>	
<b>A garaia</b>	49
<b>B garaia</b>	23
<b>C garaia</b>	168
<b>D garaia</b>	77
<b>Guztira</b>	317

**89. taula: lege hitza**

### 5.2.2.- 'Lege' hitz beregaina; 'lege'-ren eratorriak eta konposatuak

*Lege* hitz beregaina 74 bider agertzen da; horietako 58tan erdal *ley*-ren ordain da; 2tan *legal* adjektiboaren ordain, 4tan *derecho* irakur daiteke erdal ESTan, eta 10etan *juridiko*.

*Lege* hainbat hitz eratorriren oinarri eta elkarturen osagai da. Gainera, hitz elkartu horiek, gehienak, idazkerari, eta egiten den erabilerari dagokionez, itxuraz bederen, erabat lexikalizaturiko multzoak dira, esan nahi baita, ez zuriunerik ez marratxorik gabe idatzirik agertzen diren elkarteak. Esate baterako:

(144)

8331P	<i>erkatze-legelaritza</i>	derecho comparado
9203F	<i>legebide</i>	ordenamiento jurídico
8503P	<i>arduralaritza-legepidetza</i>	derecho administrativo
8806R	<i>herri-alorreko legebide</i>	derecho civil
8805P	<i>legepidetzaren oinarri-irizpide orokor</i>	principio general del derecho
8312P	<i>herri-alorreko legepeko diru-eskuraketa</i>	ingreso de derecho público

Hitz elkartu eta eratorriok aztertuz gero, jatorria beti erdal terminoko *derecho* edo *jurídico* hitzetan dagoela ikusten dugu. Aldiz, ES terminoan *ley* edo *legal* agertzen delarik "lege" hitzak ez du eratorririk sortzen. Esango litzateke itzultzaileek ez dutela beti erabat garbi ikusi 'lege' hitz soilaren ahalmena IUS kontzeptua adierazteko, eta atzizkiren batez hornitu beharra sumatu dutela.

Erdarazko terminoetan *derecho* / *jurídico* besterik ez denak, euskaraz honako aldaerak dauzka: *lege*, *legelaritza*, *legedi*, *legebide*, *legepidetza*, *legebide*, *legepe*, ondoko adibideok erakusten dutenez:



(145)		
36	<i>legezar legedi</i>	derecho foral
8110P	<i>Erkaketa Legelaritza</i>	derecho comparado
8312P	<i>herri-alorreko legepeko diru- eskuraketa</i>	ingreso de derecho público
8327P	<i>Legezko Erresuma</i>	estado de derecho
8504T	<i>arduralaritzazko lege</i>	derecho administrativo
8602G	<i>Elkarte- Legepidetza</i>	derecho comunitario
8806R	<i>herri-alorreko legegide</i>	derecho civil
9406P	<i>administrazio-zuzenbidearen lege bide</i>	derecho administrativo

### 5.2.3.- 'Lege' hitz-elkarte sintetikoetan

Ikusia dugunez, hitz-elkarte sintetiko ugari dago EUSBen baitan eta haietako askotan *lege* hitza agertzen da mugatzaile gisa, objektuaren funtzio sintaktikoan, iduriz. Izan ere, elkarte-mota horren ezaugarritzat ematen den gardentasuna kasu batzuetan gezurtaturik geratzen da *lege* hitzaren (eta beste batzuen) erabilera askotarikoa dela eta.

Ondoren erakutsiko dugun bezala, gure ustez, mugakizuna *nork* motako adizkia duten hitz-elkarte batzuetan ez da ohiko erlazio sintaktiko hori betetzen; hots, ez dira elkarte sintetikoak, eta gaizki ulertzeko arriskua daukate.

Ondoko adibideotan, gure ustez, '*lege*' mugatzailea osagarri zuzena eta izenki mugakizuna subjektua edo ekintza dira: horrelako elkarten egitura ohikoenak, alegia.

(146)		
36	<i>Lege-beteerazle Bazkun</i>	Poder Ejecutivo
37	<i>lege-zain</i>	fiscal
37	<i>lege-hausle</i>	inculpado
8102R	<i>legehauste</i>	delito
8102R	<i>Legegintza-Agintaritza</i>	poder legislativo
8205P	<i>lege-hauspen</i>	delito

Esate baterako, *legehauspen* benetako sintetikoa da, '*norbaitek legea hautsi*' parafraasia, zehaztasuna gorabehera, bat datorrelako haren itzulpen-balioarekin.

Baina elkarte horien egitura itxuraz berdina duten ondokoetan gauzak ez doaz modu berean:

(147)		
8602P	<i>lege-antolaketa</i>	ordenamiento jurídico
8605G	<i>lege ordenamendu</i>	ordenamiento jurídico
9002P	<i>lege-erakuntza</i>	ordenamiento jurídico
8502P	<i>lege-egiketa</i>	acto jurídico
9007P	<i>lege-ekintza</i>	acto jurídico

Argi dago, itzulpen-balioari so eginez gero, elkarte horiek ezin direla aurrekoak bezala interpretatu, ez baita esan nahi '*legeak antolatzea*' edo '*legeak ordenatzea*'. Agian pentsa zitekeen '*sujetu-aditz mota*'-ko (Azkarate 90:280) elkartearen aurrean gaudela, eta ondorioz, '*lege-antolakuntza*' uler daitekeela '*legeak antolatzen du*', eta *lege-ordenamendu* '*legeak ordenatzen du*'. Baina interpretazio hori ez litzateke egokia izango *lege- egiketa*-rentzat, baldin eta *acto jurídico*-ren baliokide izan nahi badu, zeren erdal termino horretan adierazten dena da "*acto*"-ak zuzenbidezko ondorioak dituela.

Hona *lege*-osagai duten sintetiko eta sintetiko faltsuen multzoa.

	lege gintza	Lege -hauste	Beste sintet.	Sintet. falts.
<b>A garaia</b>	0	4	7	0
<b>B garaia</b>	0	0	0	0
<b>C garaia</b>	2	4	11	8
<b>D garaia</b>	14	6	0	2

90 taula: *lege* hitzaz eraturiko sintetikoak eta sintetiko faltsuak

#### 5.2.4.- 'Lege'ren itzulpen-balioak

Aztertzen ari garen hitzaren agerpen bakoitza espainierazko termino (EST) bati dagokion EUSB batean izateaz baliaturik, atera dezakegu zein diren itzulpen-balioak. Ondoko taulan ikus daite ESTetako hitz bakoitzak garaiz garai eman dituen *lege*-rekiko itzulpenak.

##### 5.2.4.1.- Itzulpen-balioak eta kopuruak

Hiru multzotan bana ditzakegu itzulpen-balioak:

— 1.- *ley* eta *legalidad*-en ordainetan agertzen denean:

(148)

8803P	<i>Herri-Legepeko Epaibidetarako Lege</i>	Ley de Enjuiciamiento Civil
9006P	<i>lege-egoera</i>	condición legal
8325P	<i>indarreango legebide</i>	legalidad vigente

— 2.- *derecho* eta *jurídico*-ren baliokide denean:

(149)

8108T	<i>arduralaritza-lege</i>	derecho administrativo
8103P	<i>legezko nortasun oso</i>	personalidad jurídica

— 3.- *delito*, *infracción*, *falta* hitzen ordainetan agertzen denean:

(150)

37 *lege-auste* delito

Ondoko taulan ikus daitezke bakoitzaren kopuruak garaiz garai.

	ley	legal legalidad	derecho	jurídico	falta, delito, infracción.
<b>A garaia</b>	5	1	3	3	4
<b>B garaia</b>	20	0	0	2	0
<b>C garaia</b>	40	9	20	32	4
<b>D garaia</b>	35	10	4	14	6
<b>Guztira</b>	91	20	27	51	10

**91 taula: lege eta lege-hauste-ren itzulpen-balioak**

Taulak erakusten duenez, bi multzo handitan banatzen dira *lege* hitzaren sorburukoak: *ley*, edo *legal/ legalidad* eratorriak dutenak (111 agerpen) eta *derecho* edo horren adjektibo erreferenziala<sup>32</sup> den *jurídico* daukatena (78 agerpen). Hirugarren multzoa, askoz txikiagoa, *lege-hauste* bezalakoez osatua, aurrerago aztertuko dugu.

#### 5.2.4.2.- LEX / IUS balioak

Egia da lagunarteko hizkeran, espezializaziorik gabeko testuetan oro har, eta baita testuinguru tekniko batzuetan ere, espainolez '*ley / legal*' hitzak maiz erabiltzen direla balio bikoitzarekin: batzuetan maila jakin bateko arau idatzia (LEX), (adib.: *Ley de Enjuiciamiento Civil*) eta besteetan IUS deitzen duguna (adib.: *imperio de la ley, asesoramiento legal*) Baina testu juridikoetan, askoz urriagoa da erabilera bikoitz hori<sup>33</sup>. Gehienetan '*ley*' / '*legal*' hitzek '*ley formal*' esan nahi dute, eta IUS kontzeptuari dagokiona, normalean '*derecho*' eta '*jurídico*' hitzen bidez izendatzen da.

Gure corpuseko ESTetan, '*ley*' hitza duten terminoetan ez dago erabilera horien salbuespen bat bakarra ere. Salbuespen izatekotan '*legal*' hitzean aurkitu ditugun ondoko adibidekoak, nahiz eta bi horietan, gure ustez '*legal*'-en esanahia oso zabala izanik, berdin ipin zitekeen '*jurídico*' adjektiboa.

(151)

8209P	<i>representación legal</i>	legezko ordezkotza
9006P	<i>condición legal</i>	lege-egoera

Euskaraz, ondoren ikusiko dugunez, ez da banaketa lexiko berdina egiten: '*lege*' hitza, eta haren konposatuak eta eratorriak dira maiztasun handienekoak.

<sup>32</sup> "Que atañe al derecho o se ajusta a él". (DRAE)

<sup>33</sup> Argitu beharra dago, azken garaietan kultura anglosaxoiaren eraginez, maiz ikusten dela profesionalak ez diren argitalpen batzuetan *legal* adjektiboa *jurídico* beharko lukeen tokian. Baina uste dugu ez dela horrelakorik gertatzen praktika juridikoan.

91. taulan ikusten genuenez, 111 kasutan ‘*lege*’ hitzaren agerpena erdarazko ‘*ley /legal / legalidad*’ hitzei dagokie, eta 78 kasutan, berriz, ‘*lege*’-z osatutako zerbait daukagu gaztelaniazko ‘*derecho /jurídico*’-ren ordainetan.

Badira, noski, ‘*lege*’ hitzaren beste itzulpen-balioak, ondoko adibideetan agertzen den bezala, baina oso gutxi, eta, gure ustez, anekdotikoak dira.

(152)

8201P	<i>lege-egoera</i>	estado civil
9414P	<i>lege-gaitasuna (ukan)</i>	legitimado (estar, quedar)

### 5.2.5.- Zehaztasun-arazoak

Zuzenbideko hitz gehienak hizkuntza arrunteko hitzen erabilera espezializatuak izaten direnez, terminoak osatzen dituzten hitzak banan bana hartuta nekez izango dira monosemikoak. Terminoak, ordea, are gehiago hainbat hitzez osaturikoak, aski monosemikoak izatea espero da. Benetako arazoa izan daiteke termino baten agerpen bakoitzean testuingurua arakatu behar izatea anbiguotasuna ekiditeko.

Gure ustez, ‘*lege*’ hitza osagai duten hainbat EUSBetan arrisku hori nabarmena da. Ondoren, *ley* eta *derecho*. nahasteko arriskua dutenak, eta *delito* eta *delito ez direnak* EUSBetan bereizkaitzak direla azalduko dugu.

#### 5.2.5.1.- Ley /derecho

Euskal segmentu batzuetan, jakinez *lege*-ren balioa bikoitza dela, suma daiteke zein den kasuari dagokiona, baina beste batzuetan, hain dira paraleloak esanahi bateko eta besteko terminoak non ezinezkoa gertatzen baita dagokion balioa asmatzea.

Gure corpuseko ‘*lege*’ hitzaren agerpenen itzulpen-jatorria aztertuz, esanahiak berezi behar horri ez zaiola beti jaramonik egiten ikus dezakegu

(153)

8803P	<i>funtsezko lege</i>	ley orgánica
9006P	<i>ohizko lege</i>	derecho consuetudinario
8817T	<i>arduralaritza-lege</i>	derecho administrativo
9006P	<i>administraritza-lege</i>	derecho administrativo

Izan ere, *arduralaritza-lege* edo *administraritza-lege* IUS dela eta ez LEX, igarrezina dela aitortu behar da.

‘*Lege*’ hitza bakarrik erabiltzearen ondorio adierazgarria dugu ondoko adibidean

(154)

9414P	<i>lege</i>	norma de rango legal
-------	-------------	----------------------

Hau da, zehaztu behar denean ere, alegia, maila horretako eta ez besteko araua dela adierazi behar denean, zehaztasunari ihes egiten zaio.

## 5.2.5.2. 'Zuzenbide' hitzaren erabilera

Aurreko zenbakietan agertzen denez, oso ugari erabiltzen da *'lege'* hitza erdarazko *'derecho'* eta *'jurídico'*-ren ordainetan. Izan ere, gure corpusean *'lege'* hitza askoz erabiliagoa da beste testu eta hiztegi batzuetan erdarazko *'derecho'*-ren baliokidetzat ematen den *'zuzenbide'* baino. Ondoko taulan ikus daitezke garaiz garai *'zuzenbide'*-ren agerpenen kopuruak.

<b>Zuzenbide</b>	
<b>A garaia</b>	0
<b>B garaia</b>	1
<b>C garaia</b>	2
<b>D garaia</b>	19
<b>Guztira</b>	22

**92 taula: zuzenbide-ren agerpenak**

Taula horretako datuak aztertuz, esan behar da guztiz normala dela A garaian (1936-37) 'zuzenbide' hitza ez agertzea, izan ere, ez baitzegoen batere hedatua haren erabilera.

B garaiko agerpen bakarra, berriz, engainagarria izan daiteke, hainbat aldiz erabili baitzen EKNAOn; baina EUSBetan bakarra dago. C garaian dago deigarriena, gure ustez, zeren bi bider bakarrik agertzen da, eta horietako batean (160 adibidea) ezin daiteke esan IUS esanahi zehatza duenik. Erabilera urri hori harrigarria da kontuan hartuz gero 1980ko hamarraldian hala administrazioetan nola lan lexikografikoetan<sup>34</sup> erruz erabiltzen zela hitz hori IUS adieran. Hain zuzen ere, *'lege'* hitzak eragin zezakeen anbiguotasuna ekiditeko erabiltzen baitzen.

(155)

8210P zuzenbidea eragiten dutenak administración de justicia

D garaian ere, 1992ko Bizkaiko Foruaren Legea argitaratu zen arte ez dugu hitz horren erabileraren lekukorik EUSBetan. Data horretatik aurrera, gero eta gehiago agertzen da *'zuzenbide'* hitza IUS adigaia adierazteko. Izan ere, bi kasutan bakarrik aurkitu dugu EUSB berri bat zeinetan *'lege'* hitzak ESTko *'derecho'* itzultzen duen, eta beste 11 zeinetan *'jurídico'*-ren ordaina den, eta denak 1995 baino lehenagokoak.

Azken urte hauetan erabat hedatu da aldizkari ofizialetan *'zuzenbide'*-ren erabilera IUS adierazteko eta zehaztasun edo anbiguotasun-arazo horiek desagertze bidean direlakoan gaude.

<sup>34</sup> Gogora UZEIko Administrazio eta Zirkulazio Hiztegia (1984) eta Zuzenbidea Hiztegia (1985)

## 5.2.5.3.- Delito / falta / infracción

Hainbat baliokide dauzkate termino horiek euskarazkoetan; besteak beste hurrengook:

(156)	<i>oben/ hogen</i>	<i>erru</i>
	<i>gaiztakeria</i>	<i>delito</i>
	<i>lege hauste</i>	<i>lege-urratze</i>
	<i>lege-urratze larri.</i>	

Horiatariko bitan: *delito* = *legehauspen* eta *infractor* = *lege-urratzaile* eta *falta grave* = *lege-urratze larri* erreparatzen badugu, ohartuko gara balio bereko bi aditz (*hautsi*, *urratu*) dauzkagula, osagarri zuzen berarekin: *lege*. Horren arabera, *delito* = *infracción* = *falta* berdinketa bidezkoa litzateke, baina zuzenbidearen ikuspegitik anbiguotasun onartezinean jausirik, zeren egia bada bietan dagoela '*legearen*' edo '*zuzenbidearen*' haustura bat, bi hausturok ezin dira berdintzat eman<sup>35</sup>, berdin izendatuaz egiten dena.

Baina aztertzen ari garen corpusean ondoko adibideok erakusten dutenez, badirudi 'legea hautsi' edo 'legea urratu' beste zehaztapenik ez dela behar,

(157)	36	<i>lege-auste</i>	infracción
	36	<i>lege ausle</i>	infractor
	8314P	<i>legehauspen</i>	delito
	8205P	<i>marrukeriazko lege-hauspen</i>	delito doloso
	9506P	<i>lege-urratzaile</i>	infractor
	9411P	<i>lege-urratze larri</i>	falta grave

Gure ustez, beste zehaztapenik gabe, eta gainera, *lege* hitzak 'lege formal' edo 'zuzenbidea' adierazten duen ere, argitu gabe, *legearen hauspenaz* edo *urraketaz* hitzegitea, onartezineko zehaztasunik eza izango litzateke mundu juridikoan.

## 5.3. -'Herri' hitzaren esanahiak eta erabilerak

## 5.3.1.- Agerpenak

Hona '*erri* / *herri*'- ren agerpenak forma guztietan, hitz beregain gisa, eratorrien erro gisa, elkarteko mugatzaile bezala, eta elkarteko mugakizun bezala.

<sup>35</sup> Azalpen laburra eginez, esango dugu zerbait 'delito' izan dadin 'lege' formal (ez edozein arau juridiko) baten aurkakoa behar duela izan, eta gainera, lege hori, lege penala, 'delito' hori zehazki deskribatzen eta tipifikatzen duena, izan behar duela. '*Falta*' hitzaren esanahia testuinguruaren menpekoagoa bada ere, zuzenbide penaleko testuinguruetan oso kategoriatzat zehatza da, hain zuzen ere Kode Penalean '*delito*'-ri oposatzen zaiona. '*Infracción*', berriz, edozein mota edo mailatako arau baten urraketa izan daiteke.

	Guztira	bereg	erat.	elkart.
<b>A garaia</b>	23	0'	3	20
<b>B garaia</b>	6	1	1	4
<b>C garaia</b>	73	1	4	69
<b>D garaia</b>	27	1	5	21
<b>Guztira</b>	129			114

93 taula: *herri* hitzaren agerpenak

Nabarmentzekoa da taularen arabera, EUSBetako '*herri*' %90etan elkartebaten osagaia dela.

### 5.3.2.- 'Herri' hitz beregaina eta eratorpenaren oinarri

Oso kasu gutxitan, ondoko adibideetako hiruretan bakarrik, agertzen da elkarketaz edo eratorpenez kanpoko '*herri*' hitza: hiruretan, erdal '*público*'-ren ordain:

(158)	79	<i>herriari horren berri eman</i>	información pública
	8805P	<i>herriarentzat baliagarri</i>	uso público
	9416P	<i>herriarentzat baliagarri</i>	dominio público

Eradorpen-erro bezala ere, ez da oso emankorra: '*herritar/ herritartasun*' eta '*herritasun*' besterik ez baitzaigu agertzen corpusean.

(159)	37	<i>erritar-Legedi</i>	Código civil
	37	<i>Erritarren Arkibidetze Legea</i>	Ley del Registro Civil
	80	<i>ekintza herritar</i>	acción popular
	37	<i>Erritar-Arkibidea Legea</i>	Ley del Registro Civil
	9203F	<i>herritartasun</i>	vecindad civil
	9412P	<i>herritasun</i>	vecindad civil

### 5.3.3.- 'Herri', mugakizun

Jakina da '*herri*'-ren balio ohikoa ez dela berdina hitz-elkartearen mugakizun edo mugatzaile izan. '*Herri*' mugakizun duten hitz zaharretan bezala, Sarasolak (1996) dioen "*Beste ezaugarri batek mugatzen duen herrialde edo lurraldea*" esanahia sumatzen dugu berrietan ere. Hala ere, ondoko adibidekoak bezalako sei besterik ez dira honelako elkartebatuetan, (*Euskal Herri, Laterri, atzerri, baserri, udalerr*) horietariko lau A garaian agertzen direlarik.

(160)	36	<i>laterri zaingo</i>	ministerio
	37	<i>atzerri-zerga-etxe</i>	aduana
	9203F	<i>baserri</i>	finca rústica
	8810P	<i>udalerr</i>	término municipal

Horietako hitz bat (*laterri*) egun gutxi erabiltzen dela, eta beste bat (*baserri*) eman nahi zaion adierarako aski desegokia dela esanaz utziko genuke horien iruzkina, '*herri*'-ren posizio hori ez baita garrantzitsua EUSBetan.

## 5.3.4.- 'Herri' elkarte sintetikoetan

Hitz hau, ikusi dugunez, elkarte askoren mugatzaile moduan agertzen da. Horietako hainbat, itxuraz sintetikoak dira, hau da, mugakizuna aditzetik eratorritako izena da, baina batzuetan mugatzailearen eta mugakizunaren arteko erlazioa espero zitekeena den bitartean (161), beste batzuetan 'lege' ren kasuaren antzera, horrela interpretatuz gero esanahi absurdua edota ESTaren esanahirekiko kontraesan handia sortuko litzateke.

(161)

37	<i>erri-zaintza gizonak</i>	fuerzas de orden público
8104	<i>herri-jagole</i>	defensor del pueblo
8906	<i>herri-babesle</i>	defensor del pueblo
8318P	<i>información pública</i>	herri-argipideketa

Multzo horretan, onargarria da hitz-elkarte sintetikotzat hartzea (beste kontsiderazioak alde batera utzirik), baina beste kasu batzuetan, berriz, ondoko adibidekoetan bezala, guztiz onartezina litzateke bistan denez.

(162)

8817T	<i>herri-ogasuntze</i>	hacienda pública
8108T	<i>herri-xahupen</i>	gasto público

## 5.3.4.1.- 'Herri' +'diru'+ 'sarrera'-ren kasua

Hitz-elkartuen idazkera, LEFen Hitz-Elkarketa / 4 eta Euskaltzaindiaren 25. Araua kaleratu zirenetik askoz arautuagoa eta normalizatuagoa dago, baina hala ere, menpekotasunezkoetan zein den ihartutako hitza eta zein ez erabakitzea, ia banan bana egin beharreko hautua da. Idazkerak kasu gehienetan erakusten du nolako lexikalizazio maila egozten zaion konposatu bati. Elkarteak hiru osagaikoak direlarik, idazkerak interpretatzeko bidea ematen digula kontsideratzen badugu, oso kasu bitxia aurkitzen dugu 'herri'-rekin osatutako multzo hari EUSBetan ematen zaion tratamendu ortografikoan

(163)

8108T	<i>herridiru-sarrera</i>	ingreso público
8504T	<i>herri-dirueskuraketa</i>	ingreso público
9414P	<i>herri diru-sarrera</i>	ingreso público

Ortografiaz fidatuz, lehenengoan ulertu behar dugu 'herridirua' dela sartzen dena; hirugarrenean, berriz, nahiko garbi legoke 'diru-sarrera'-ren nolakotasuna adierazten duela, eta bigarrena ere berdin ulertzea izango litzateke zuhurrena. Baina uste dugu, ortografiaren finkotasun ezaren gaineratik 'herri' hitzaren erabilera ez ohikoa dagoela ondorengo puntuan aztertuko dugun bezala.



### 5.3.5.- 'Herri'-ren itzulpen-balioak

EUSBetan 'herri' azaltzen zaigunean haien jatorrizko ESTetan zein hitz edo esanahi dugun aztertuko dugu ondoko lerroetan, gertatzen diren hainbat arazo iruzkinduaz.

#### 5.3.5.1.- Balioak garaiz garai

Ondoko taulan, EUSBetan 'herri' agertzen delarik, jatorrizko ESTetan zein hitz edo adigai dagoen erakusten da. Lau "adiera" nagusi aurkitu ditugu, horietako bi (*público*, *civil*) aski ugariak, eta besteak oso maiztasun txikikikoak corpus honetan. Guztiak azalduko ditugu aurrerago.

	público	civil	local	Populus
<b>A garaia</b>	8	3		2
<b>B garaia</b>	0	0	1	0
<b>C garaia</b>	40	11		1
<b>D garaia</b>	14	2		0
<b>Guztira</b>	62			

94. taula: herri-ren itzulpen-balioak

#### 5.3.5.2. EUSB = herri- ; EST = público

Espanierazko terminoan '*público*' hitza dagoelarik, eta haren baliokide gisa, maizenik '*herri*' agertzen zaigu, beti elkarte bateko mugatzaile gisa,. Beste kasu batzuetan, nahiz eta ES terminoan ez agertu '*público*' adjektiboa, esanahiaren aldetik oso garbi dago egon zitekeela. Esate baterako ondoko adibideetan:

(164)

8316P	<i>erakundetzako herri-arduralaritza</i>	administración institucional
8206R	<i>karrerako herrilanari</i>	funcionario de carrera
8328P	<i>aukerako izendapenezko herri-kargudun</i>	cargo de libre designación

Gaztelaniazko '*público*' hitzak esanahi ugari ditu, baina '*herri*' agertzen denean haren ordainetan, gure corpusean, kasu gutxi batzuetan (165a) eta (165b) izan dezakeen '*abierto o accesible a todos*' adiera salbuetsiz, gainerako guztietan, duen esanahia da DRAEk sarrera horretako 3. adierari ('*Aplicase a la potestad, jurisdicción y autoridad para hacer una cosa, como contrapuesto a privado*') dagokiona. Esanahi hori dauka '*público*' hitzak ondoko adibideko gainerako terminoetan.

(165)

a)	8314P	<i>herri-erabilpen</i>	uso público
b)	8318P	<i>herri-argipideketa</i>	información pública
c)	36	<i>erri-pakearen aldeko indar(rak)</i>	fuerzas de orden público
d)	9103P	<i>herri-aginte</i>	poder público
e)	9104P	<i>herri ogasun</i>	hacienda pública
f)	9401D	<i>herri-administrazioaren diru-sarrera</i>	ingreso público
g)	9307P	<i>herri-lanari</i>	empleado público
h)	8314P	<i>herri-jaurgopeko ogasun</i>	dominio público
i)	8327P	<i>herri-baliapide</i>	dominio público
j)	8314P	<i>herri-jaurgopeko ondasun</i>	bien de dominio público

Zuzenbidean eta administrazioan termino askoren ardatz den adigai horren euskal ordaina ematerakoan hainbat zalantza izan dira garaietan zehar ondoko taulak erakusten duenez:

	<i>público = herri-</i>	<i>público = publiko</i>
<b>A garaia</b>	8	0
<b>B garaia</b>	0	3
<b>C garaia</b>	37	5
<b>D garaia</b>	13	15
<b>Guztira</b>		

95. taula: *herri* vs *público*

Taula horretan, jaso ditugu gure interpretazioan “*estatuari edo erakunde publikoei erreferentzia egiten diona*” adierako ‘*público*’ hitza duten terminoak soilik, eta garaiz garai eman zaien euskal itzulpenaren arabera sailkatu ditugu. Ageri denez, ‘*herri*’ eta ‘*publiko*’ hitzak lehian daude, ESTetako ‘*público*’-ren ordain gisa.

‘*Publiko*’ euskal adjektibo moduan 23 aldiz agertzen da, behin ere ez 1936-37ko aldian, baina ‘*herri*’, 8 aldiz; 3 EUSBetan dugu ‘*publiko*’ B garaian, ‘*herri*’ agertzen ez den bitartean, 5 bider C garaian, ‘*herrik*’ 37 agerpen dituelarik, eta 15 azken aldian, ia kopuru berdinekoak direla ‘*herri*’-ren agerpenak. Gainera, C garaian agertzen diren bostak, 1989koak dira. Horrek adierazten du 1980tik 1989ra ‘*publiko*’ ez zela erabiltzen, baina data horretatik aurrera, gero eta maizago agertzen dela.

Gure corpusak azterketa hau aurrerago emateko biderik ematen ez digun arren, uste dugu ikusitako adibideetatik ondoriozta daitekeela ‘*herri*’ hitzaren erabilera esandako adieran mugatuta, eta nolabait finkatuta geratu dela bai erakunde jakin batzuen izenetan, eta bai termino batzuetan (*herri administrazio*, *herri-agintari*, *herri-erakunde*...). Hau da, gaurko egunean ez dela beti egiten, 1980-1989 urteetako adibideek erakusten dutenez, “itzulpen automatikoa” dei

dezakeguna, hau da, edozein erdal '*izen + público*' multzoaren ordainetan, '*herri-*' mugatzaile duen elkartea itzultzea.

Baina '*herri*'-ren beste itzulpen- balioak aztertu ondoren aterako ditugu ondorioak.

### 5.3.5.2.- '*Herri-*' = civil

#### 5.3.5.2.1.- EUSBetan daudenak

15 kasutan agertzen zaigu euskarazko '*herri*', ESTko '*civil*' adjektiboaren ordain gisa. Horiei buruz ere, zenbait iruzkin egin beharra dago, bereziki esanahiaren ikuspegitik.

Gaztelaniazko testu eta termino batzuen itzulpenaz ari garelarik, gogora ditzagun espainierazko '*civil*' hitzaren adiera eta erabilera juridiko batzuk.

Erromatar sustraiak dauzkan mundu juridikoan hitzik zaharrenetakoa, eta ospetsuenetakoa da, aski jakina den bezala. Gogora dezagun soilik latinezko '*civilis*' '*cives*'-etik heldu zela, hau da, *hiritarren* eta ez besteen zuzenbidea zela hasieran. Gaurko egunean, erabilera juridikoan<sup>36</sup> '*civil*' hitzak zuzenbide-mota bat edo atal bat adierazten du ia beti<sup>37</sup>. Gure ustez, corpus osoan behin bakarrik agertzen zaigu '*civil*' adjektiboa zuzenbide zibilarekin lotzen ez den adiera batean, hain zuzen ere, '*gobernador civil*' karguaren izenean.

Gainerako guztietan, '*civil*' adjektiboak izen horretako zuzenbide atalari egiten dio erreferentzia, eta ez '*cives*'-i, ondoko adibideek erakusten duten bezala:

(166)

36	<i>erri-legedi</i>	código civil
37	<i>erri sail</i>	sala de lo civil
8110P	<i>herri-lege</i>	derecho civil
8803P	<i>herrilege-bilduma</i>	código civil
8201P	<i>herrilegezko erantzukizuna</i>	responsabilidad civil
9406P	<i>herri-erantzukizun</i>	responsabilidad civil
8803P	<i>herri-legepeko epaibidetakoko lege</i>	ley de enjuiciamiento civil
8328P	<i>herri-alorreko erantzunbehar</i>	responsabilidad civil
8328P	<i>herrilege alorreko erantzunbehar</i>	responsabilidad civil

<sup>36</sup> Beste arlo askotan erabiltzen den hitza da, (*protección civil, desobediencia civil, ingeniero civil, guardia civil...*) baina ez dagokigu adiera bakoitzaren gorabeherak xehetzea.

<sup>37</sup> Salbuespena izan daiteke '*derechos civiles*', horrela, pluralean, esapideak adierazten duena, hain zuzen ere, ingelesezko '*civil rights*'-en kalkoa, eta teknikoki '*derechos políticos*' itzultzen dena.

### 5.3.5.2.2.- Iruzkinak; beste hizkuntzetako ereduak

Interesgarria izan daiteke puntu honetan espainieraz beste hizkuntzetako adibideak begiratzea. Espero zitekeenez, hizkuntza errromantzetako erabilera juridikoetan, ‘civil’ adjektiboa da beti erabiltzen dena, gaztelaniaren esanahi eta hedapen berberekin.

Ingelesaren ereduak ez zaizkigu oso baliagarriak ikuspegi juridikotik, haien sistema sailkapenak eta gureak ez baitatoz bat, baina baieztatu dezakegu ‘civil’ adjektiboa erabiltzen dela (*Civil Law, Civil Lawyer, civil liability*) tradiziozko beste izendapen bat ez dagoelarik. Esate baterako, badago ingelesez *law of torts* deituriko zuzenbidearen atal bat, espainieraz *derecho de responsabilidad civil* itzul daitekeena.

Alemanez, gertatzen denari interesgarriago deritzogu, zeren, hainbat kasutan aipatua izan baita hizkuntza hartan ereduak aurki ditzakegula hizkuntza errromantzeen eraginetik itzuri egiteko, eta badugu susmoa eredu hari begiratu zaiola EUSB batzuetako itzulpenak moldatzerakoan.

Uste dugu itzulpen batzuen iturria Alemaniako kode zibilaren izendapenean: *Bürgerliches Gesetzbuch (BGB)*, egon daitekeela; hori izan dela, hain zuzen ere, ‘herri-lege bilduma’ bezalako aukeren inspiratzailea.

Esanahiaren aldetik, zehazteko puntu bat da ‘*Bürgerliches*’ hitzeko ‘*Bürger*’ -ek, ‘*hiritar*’, ‘*ciudadano*’, ‘*citoyen*’ esan nahi duela, hau da, latinezko ‘*cives*’ haren antzeko adigai, eta ez duela zerikusirik ‘*Volk*’-ekin (‘*herri*’, ‘*pueblo*’, ‘*peuple*’). *Bürgerliches Gesetzbuch*-en hitzez hitzeko itzulpena *Hiritarren lege-liburua* edo *kodea* izango litzateke, inondik ere ez *herri(aren) legea* goiko adibideetan agertzen zen bezala.

Bestalde, hitzaren erabilerari dagokionez, esan behar da zuzenbide-atal bereko kodeak Suitzan beste izen bat hartzen duela, *Zivil Gesetzbuch*, alegia, erabilera orokorrarekin baterago datorrena. Izan ere, hala Suitzan nola Alemanian kasu gehienetan ‘*zivil*’ adjektiboa da erabiltzen dena adiera honetan. Esate baterako BGBek badu Alemanian bertan *Zivil Gesetzbuch* izendapena; *Zivilrecht*, eta *Zivilgesetz* erabiltzen dira gehienbat ‘zuzenbidea’ eta zuzenbide-ikasgai hori deitzeko, *Zivilehe* da zuzenbide horren araberrako ezkontza, eta *Zivilrichter* gai zibilezko auziak erabakitzeke *Zivilprozess* aurrera eramaten duen epailea.

### 5.3.5.3.- ‘Herri-’ = ayuntamiento / local

Azpimarragarria da gure EUSBetan behin bakarrik (a) agertzen dela euskarazko ‘*herri*’ ESTko ‘*ayuntamiento*’ edo haren erreferentzial modura erabiltzen den ‘*local*’ itzultzen; gainerako guztiaetan ‘*udal*’ edo ‘*toki-ren*’ bidez ematen baitira.

Azterketa hau sinkronikoa balitz azpimarratu beharko genuke ‘herri’ hitzaren erabilera polisemiko horrek anbiguotasuna sortzen duela, esate baterako alderatzen badugu (167a) adibidea hiru urte beranduagoko (167b)-koarekin. Baina esan bezala, ez dugu kasu gehiagotan aurkitu adiera hura.

(167)	(a)	79	<i>herri-administrazio</i>	administración local
	(b)	8205P	<i>Herri-Arduralaritza</i>	administración pública

Edonola, kontraesan bat dago gure ustez, *OEHk* erakusten duen ohiko erabilera ugariarekin, zeren hiztegi horretako adibide gehienek erakusten dute ‘herri’ hitza agintaritzarekin lotu izan delarik, ia salbuespenik gabe udal mailako edo beheagoko agintaritzarekin lotu dela, eta ez goragoko mailekoekin. Baina corpusean goragoko mailarekin lotzen da, ez udal mailarekin.

#### 5.3.5.4.- ‘Herri-’ = "populus"

‘Herri’ hitzaren polisemia zabalean, adiera-multzo batek, agian hizkuntzan erabilienak, ‘populus’ adigaia dauka ardatz, hiztegiek eta edonoren hizkuntz konpetentziak erakusten duten bezala. Baina adigai hori, beste arlo bazuetan (politika, antropologia...) hain erabilia bada ere, zuzenbidean ez du hainbesteko maiztasunik. Dena den, erabili, erabiltzen da, bereziki ‘popular’ adjektibo erreferentzialaren bidez, hain zuzen ere, ‘público’ edo instituzionala ez dena, edo haren aurkakoa, adierazteko. Horrela, gaurko eguneko zuzenbideko kasurik argiena izan daiteke epaiketa-prozedura batzuetan ‘*acusación pública*’-ren parean dagoen ‘*acusación popular*’ izenekoa.

Hiru kasutan (168a), (168b), (168c) aurkitu dugu *herri* hitza adiera horretakoak itzultzen. Aurreko bi adibideek ongi erakusten dute nolako kontraesanak sor daitezkeen izendapen horiek interpretazen badira beste testuetan antzeko izeneko erakundeek (168d),(168e),(168f) adibideek duten adieran ulertuz gero. Izan ere, logikoena dirudi ‘*erri auzitegi*’ ulertzea beste erakundeen modura, eta ez justuki, aurkako adieran.

(168)	(a)	36	<i>erri-epailemai</i>	tribunal popular
	(b)	37	<i>erri-auzitegi</i>	tribunal popular
	(c)	80	<i>ekintza herritar</i>	acción popular
	(d)	36	<i>erri-ogasun</i>	tesoro público
	(e)	37	<i>erri-lanari</i>	función pública
	(f)	37	<i>erri-lanari</i>	funcionario público

Antzeko arazoak sor daitezke ‘*herritar*’ hitzaren erabilera nahasitik. Izan ere, ez dagoelarik ikuspegi juridiko-instituzionaletik finkatua *eusko / euskal* hitzen balioa, horietako edozeini *herri* edo eratorriren bat gehituz gero eratzen dena (169) anbigua da ‘populus’-ari edo erakundeari dagokion zehazten ez duelako. Inguruko hizkuntzetan badago beti hitzen bat (*ciudadano, citoyen*,

*ressortissant, citizen, Bürger*) erakunde politikoezko lotura anbiguotasunik gabeko moduan adierazten duena, baina euskaraz ez dugu uste ‘*herri*’-tik horrelakorik atera daitekeenik.

(169)

37	<i>euzko-erritar</i>	ciudadano vasco
8210P	<i>Euskal Herriko herrikide</i>	ciudadano vasco
8210P	<i>Euskal Herritar</i>	ciudadano vasco
8205P	<i>herritar euskaldun</i>	ciudadano vasco
9203F	<i>administrazio-herritasuna</i>	vecindad administrativa
9203	<i>foru-herritasun</i>	vecindad foral

#### 5.4.- ‘Zigor’ hitzaren esanahiak eta erabilerak

Aurretik aztertutako *lege* eta *herri* ren maiztasunez ez bada ere, hainbat EUSBtan agertzen da *zigor*; kasu gutxi batzuetan hitz beregain bezala, hainbatetan eratorrien oinarri gisa, eta gehienetan, elkarteko mugatzaile moduan. Hemen esanahiaren aldetik arazo batzuk egon daitezkeela sumatzen dugunez, *zigor* hitza duten EUSBen eta haien jatorrizko ESTen arteko parekotasunaz baliaturik azterketa xehetuari ekingo diogu.

##### 5.4.1.-Agerpenak eta itzulpen-balioak

Gure corpuseko *zigor* hitzaren, eta haren eratorrien agerpen gehien-gehien gaztelaniazko termino-jatorrian bi erro edo hitz aurkitzen ditugu: bata *penal* adjektiboa, bestea *sanción* izena, eta *sancionador, sancionable* adjektiboak. Kasu gutxi batzuetan, ordea, erdarazko terminoetan ez dira esandako erro horiek agertzen. Ondoko taulan ikus daiteke garaiz garai zenbat *zigor* agertzen diren, eta ESTeko zein hitz ordeztuko.

	<i>sanción</i>	<i>penal</i>	<i>condena</i>	besteak	Guztira
<b>A garaia</b>	2	1	0		3
<b>B garaia</b>	0	0	0	10	10
<b>C garaia</b>	16	9	2	5	32
<b>D garaia</b>	11	3	3	9	26
<b>Guztira</b>					

96. taula: *zigor*-en agerpenak eta balioak

##### 5.4.1.1.-‘Sanción’

ESTetan *sanción, sancionable, sancionador* agertzen denean (28 agerpen), euskaraz, *zigor* duten terminoak agertzen dira 27tan (170a, b, c eta d) adibideetan bezala; salbuespen bakarra (170e) adibidekoa da.

(170)	(a)	36	<i>oker zigorgarri</i>	acto sancionable
	(b)	9104P	<i>zigorbide</i>	régimen sancionador
	(c)	9306P	<i>zigor-ahalmen</i>	potestad sancionadora
	(d)	9416P	<i>zigor-erabaki</i>	disposición sancionadora
	(e)	9206P	<i>zehapen erregimen</i>	régimen sancionador

#### 5.4.1.2.- 'Penal'

*Pena* edo *penal* duten ESTek 24 EUSB ematen dituzte. Horietatik 15etan *zigor* edo horren eratorriak nahiz elkarteak agertzen dira (171), baina beste erro batzuekiko lehian. Izan ere, 1936-37ko garaian, bizpahiru aldiz, *neke-legedi* edo *nekaltze-lege* bezalakoak irakur daitezke, eta azken garaian (1990-1997), berriz, *penal* izenondoa. Argi dirudi, beraz, corpus honetan egin den aukera lexikoa argia dela, *zaha(tu)* aditzetik eratorritakoak baztertu eta *zigor*-etikakoak soilik erabiltzearen alde.

(171)	36	<i>zigortze-legedi</i>	codigo penal
	9003P	<i>zigor-lege</i>	código penal
	8201P	<i>zigorlegezko erantzukizuna</i>	responsabilidad penal
	8328P	<i>zigor alorreko erantzunbehar</i>	responsabilidad penal
	8608P	<i>zigorrezko erantzukizun</i>	responsabilidad penal
	8326P	<i>zigorepailaritza</i>	jurisdicción penal
	9601P	<i>zigorbidezko arau-hauste</i>	infracción penal

#### 5.4.2.- Arazoak, beste hizkuntzetako ereduak

Honaino, korrespondentzia formalak aztertuz, ikusi dugu nolakoa den erabilera. Gure ustez, bi tokitan kokatzen dira hitz honen inguruko arazoak. Bata da ea hitz bakarrekin izenda daitezkeen zuzenbidean adigai horren inguruan izendatu beharrekoak, eta bestea, *penal* adjektiboaren itzulpen-ordain guztietarako balio ote duen euskarazko *zigor*-ek elkartearen mugatzaile moduan. Bi arazoak aski korapilatuak daude gure ustez. Beste hizkuntzetan gertatzen denari begiraldi bat emango diogu.

##### 5.4.2.1.- Beste hizkuntza batzuetako ereduak

Hizkuntza erromantzeetan, ikus daiteke oinarriko izena: *pena/peine*, hitz guztiz arrunta dela, eta dagokigun adieran, hainbat sinonimo dituela (*castigo/punition, sanción/sanction*), baina zuzenbideko erabileran esanahi aski zehatza hartzen duela: hain zuzen ere, hitz horretatik eratorritako adjektibo erreferentzialak, *penal*-ek, duenaren parekoa. Hitz gutxitan, *pena/ penal* bikoteak zuzenbidearen atal zehatz batekin, (*Code Penal / Código Penal* izeneko legean biltzen dena) loturiko esanahia dauka, eta zuzenbide penalari ez dagokionean, ez

dira hitz horiek agertzen, haien erdi-sinonimo diren *sanción, castigo, disciplina*, eta horien eratorriak baizik.

Bestalde, *penal* adjektiboaren ondoan, *criminal* agertzen da, bereziki prozedurari dagokionean, balio berarekin.

Ingelese<sup>38</sup>, oinarrizko izena (ES *pena*) *forfeit, penalty, punishment, sanction, sentence*; hitzen bidez ematen da, baina adjektiborik erabiliena *criminal* da; horrela *penalista = criminal lawyer, proceso penal = criminal procedure*, edo *responsabilidad penal = criminal liability*. *Código Penal*-en ordainetan, honako hauek ematen dira: *Penal Code, Penal Law, Criminal Law, Crown Law, Public Law*.

Baina ikus dezagun zer gertatzen den alemanez, hizkuntza hori baita, hainbatentzat ustezko eredu. Alemanez, zuzenbide penalari dagokion terminologia gehiena *Strafe (pena, punición, castigo, escarmiento*, Becher 1989 hiztegiaren arabera) izenaren gainean eraiki da, nahiz eta *Kriminal* adjektiboa ere agertzen den, termino gutxi batzuetan.

Hiztegian dauden *Strafe* erro horretako hitz eta termino guztiak espainierazko *penal* dutenekin itzultzen dira. Honela, *derecho penal = Strafrecht; Código Penal = Strafgesetzbuch; proceso penal = Strafprozess*, eta beste asko, hizkuntza erromantzeetan bestelako izendapenak hartzen dituztenak, esate baterako *criminal, delincuente = Straffällig*.

*Strafe*-dun terminoek zuzenbide penalari erreferentzia egite hori hain zurruna da non bestelako zigorrez aritzeko esplizituki adierazi behar den: *pena no criminal = Strafnichtkriminelle* adibideak erakusten duen bezala, edo zigor baten penaltasuna adierazteko *Straf* erroa behar dela: *Strafsanktion = sanción penal*.

Adibide horrek adierazten duenez, *Sanktion* hitza alemanez badago, eta erabiltzen da, aski ugari penalak ez diren arloetan, baina *Strafe eta Sanktion* ez dira inoiz modu nahasgarrian erabiltzen.

#### 5.4.2.2.- 'Zigor'-en ohiko esanahia eta erabilera

*OEHk* (497 agerpen) erakusten duenez, *zigor* izena jadanik Axularrengan aurkitzen bada, handik eratorritako aditzik ez da agertzen XX. mendea arte. Badirudi Enbeita dela lehen erabili zuena, eta Orixe *zigortu / zigorkatu* gehiago zabaldu zuena. Aditzaren formari buruz, *zigortu* eta *zigorkatu* biak lehian daude, azken urte hauetaraino non *zigortu* ia bakarrik agertzen den.

*EEBSn* (571 agerpen) ikus daiteke aditzaren erabilera guztiz hedatu dela XX. mendearen bigarren erdialditik hona.

<sup>38</sup> Alcaraz Varo, Hughes, 1993 hiztegiaren arabera



*Zigor* hitzak, beste adiera materialagoez gainera, badu gaztelaniazko '*sanción*', '*castigo*' edo '*pena*' itzultzeko balio lezakeena. Hori da Sarasolaren hiztegian *zigor* sarrerako 3. adiera, "*Huts edo hobenen bat egin duenari ezarririko kaltea, nekagarria edo zentzagarria*" definitzen dena, eta *zigortu* aditzaren 2. adieran: "*zigorra ezarri*" ematen dena.

Alde horretatik ez legoke arazorik adierazitako *pena* edo *castigo zigor* hitzaren bidez emateko. Izan ere, zentzu generiko hori ongi ulertzen da ondoko EUSBetan:

(172)	<i>zentsapide-zigor</i>	<i>oker zigorgarri</i>
	<i>zigortzeko ahalmen</i>	<i>zigortze ahalmen</i>
	<i>ahalmen zigortzaile</i>	<i>disziplinazko zigor</i>
	<i>zigor penal.</i>	

Hain argi ikusten ez dena da *zigor* hitzarekin eman ote daitezkeen, corpus honetan bezala, EST desberdinetako adigai guztiak. Begira ditzagun banan bana,

#### 5.4.2.2.1.- "Pena (penal)" vs "sanción (genérica)"

Lehenik eta behin aztertuko dugun arazoa da beste hizkuntzetan lexikoki bereizten diren *kastigu* orokorra eta zuzenbide penalarri dagokiona, EUSBetan bereizten ote diren eta horren inguruan anbiguotasun-arazorik sortzen ote den. Beha dezagun zer gertatzen den ondoko adibideotan:

(173)		
(a)	8201P <i>zigortzebide</i>	procedimiento sancionador
(b)	8328P <i>zigortzeko ahalmen</i>	potestad disciplinaria
(c)	9104P <i>araubide zigortzaile</i>	régimen sancionador
(d)	8805P <i>zigor-jaurpideak</i>	régimen sancionador
(e)	8906P <i>zentsapide-zigor</i>	sanción disciplinaria
(f)	9601P <i>zigorbidezko arau- hauste</i>	infracción penal
(g)	9003P <i>Zigor-Lege</i>	código penal
(h)	9005P <i>zigortu</i>	condenado

Aurreko bostetan, (173a-e) ESTko baliokideek, eta testuinguruek) adierazten dutenez, *kastigu* orokorra —ez penala— da gaia. Azken hiruretan, aldiz, funtsean dagoena da zuzenbide penalaren araberakotasuna.

Arazoa zein den erakusteko oso argigarria iruditzen zaigu 1994ko adibide batean '*sanción penal*' euskaraz eman beharraren aurrean, '*zigor penal*' itzuli dutela. Horren arabera, '*zigor*' hitzak nekez eman dezake testu berean edo espezialitate-erabilera berean '*kastigua*' eta '*kastigu*' horren nolakotasun juridikoa.

## 5.4.2.2.2.- “Penal de pena” vs “penal de derecho penal”

Gorago genioenez, hizkuntza erromantzeetako erabilera juridikoan *penal* adjektibo erreferentzialak esanahi espezializatua hartu du; esan daiteke, kasu gehienetan erreferentzia lerratu egin dela *pena*-tik *derecho penal* –era. Adjektibo erreferentzial horren erabilera gehienak, Zabalak (1997:545) sailkatzaile deitzen dituen artean kokatu behar dira.

Hori erakusten dute, gure ustez, *código penal*, *responsabilidad penal*, *acción penal*, *jurisdicción penal*, *sanción penal* eta beste termino askok.

Gure corpusean kronologia kontuan hartu gabe, ESTetako *penal*-en ordainetan EUSBetan *zigor* agertzen zaigularik, erlazio tematikotik sailkapenezkora halako gradazioa egin daiteke.

Batzuetan, *zigor* eta *lege* elkartzen direnean onargarria izan daiteke erlazio tematikoa *zigor* hitzaren eta haren mugakizunaren artean.

(174)

9003P	<i>Zigor-Lege</i>	código penal
9306P	<i>zigor-legezko erantzukizun</i>	responsabilidad penal
9003P	<i>Zigor-Legepeko hogen</i>	delito
8205P	<i>zigor-legeen alorrean egin daitekeen bide</i>	acción penal
8805P	<i>zigorlege-alorreko erantzun behar</i>	responsabilidad penal

Onar daiteke, HELBURUA edo EDUKIA erlazioak daudela *lege* eta *zigor*-en artean. Hortaz, *zigor-lege* hitz-elkartea izango litzateke erdal *penal*-en ordain.

Baina beste batzuetan, ESTko *penal*, mugakizuna edozein delarik, mugatzaile posizioan *zigor* duen hitz elkartu baten bidez itzultzen da, elkarteko bi osagaien arteko erlazioa zein den oso ilun geratzen dela.

(175)

8326p	zigorepailaritzza	jurisdicción penal
9601P	zigorbidezko arau-hauste	infracción penal

Horietatik lehenak ez luke gaizkiulerturik sortuko, beste "epailaritzarik" ez delako *zigorrarekin* lotzen, baina mugakizun beste edozein izanik, bigarren adibidekoa bezala, anbigotasuna egongo litzateke, eta interpretazioa, zaila.

Beste kasu batzuetan, (176) adibideak, areago doa *zigor* hitzaren erabilera teknikoa. Badirudi, itzultzaileak jokatzen duela euskaraz *zigor* = *penal* berdinketa finkatua balego bezala baina gure ustez, nahiko onargaitzak dira termino gisa EUSB horiek; izan ere, berdin uler baitaiteke *ley sancionadora*, *procedimiento sancionador*.

(181)

8608P	zigorrezko erantzukizun	responsabilidad penal
9601P	zigorbidezko arau-hauste	infracción penal

### 5.4.2.2.3.-Kasu berezi bat : '*Responsabilidad penal*'-en EUSBetako ordainak

*Responsabilidad penal* terminoaren itzulpen-ordainetan ikus ditzakegun aldaerak oso argigarriak dira:

- (177)
- (a) 8328P *zigor-legearen aldetikako erantzunbehar*
  - (b) 8201P *zigorlegezko erantzukizuna*
  - (c) 8328P *zigor alorreko erantzunbehar*
  - (d) 8608P *zigorrezko erantzukizun*

Lehen adibidean (177a), gure ustez ez legoke arazorik, *Zigor-lege*, bere letra larri eta guzti, erreferentzia zehatza delako; (177b)-ko *zigorlegezko*, berriz, nahiko anbigua da, *legezko*-k izan dezakeen interpretazio postpositiboarengatik, eta interpretazio horretarako bidea areagotu egiten delako hitz bakarrean idatzitakoan. Hirugarren adibidean (177c), *lege*-ren ordeztu ipini den *alor* hipergenerikoak anbigutasuna areagotu egiten du, eta (177d)-ko *zigorrezko erantzukizuna* erabat onartezina da gure ustez, ez bakarrik *zigor* horren "penaltasuna" argi ez dagoelako, baizik eta erantzukizuna zigortzailea edo zigor-jasailea den argitzen ez duelako.

## 5.5.- '*Lan*' hitzaren esanahiak eta erabilerak

*Lan* hitza hitz beregain gisa, eratorpenaren erro, elkarteko mugatzaile eta elkarteko mugakizun gisa maiztasun handiz agertzen da gure corpuseko EUSBetan. Hemen ere, berez hizkuntza orokorreko den hitz guztiz arrunt baten aurrean gaude.

### 5.5.1.- Agerpenak eta itzulpen-balioak

Ondoko taulan, ESTetako eta dagozkien EUSBetako *lan* hitzaren edo oinarriaren artean dagoen korrespondentzia materialen berri ematen da

	<i>trabajo</i>	<i>laboral</i>	<i>empleo</i>	<i>funciona</i> <i>rio (lanari)</i>	<i>servicio</i>	<i>obra</i>
<b>A garaia</b>	0	0		7	0	0
<b>B garaia</b>	2	0		0	0	0
<b>C garaia</b>	22	10	1	6	4	6
<b>D garaia</b>	12	1	1	0	0	1
<b>Guztira</b>	46	11	2	13	4	7

97. taula: *lan*-en agerpenak eta balioak

Ondoren, zutabe bakoitzeko adibide batzuk ikusiko ditugu:

- **Lan = trabajo**

(178)

80	<i>lan-egun</i>	jornada de trabajo
8308P	<i>lan egiteko baimen</i>	permiso de trabajo
8906P	<i>laneko baldintzak</i>	condiciones de trabajo
9307P	<i>laneko istripu</i>	accidente de trabajo
8906P	<i>lantegi</i>	centro de trabajo

- **Lan = laboral**

(179)

8103P	<i>lanaldi</i>	jornada laboral
8109P	<i>lan-auzi</i>	conflicto laboral
8906P	<i>lan-itunepeko akurapen</i>	contrato laboral
8906P	<i>epe-mugarik gabeko lan-akurapen</i>	contrato laboral indefinido

- **Lan = obra**

(180)

8504T	<i>lan-itune</i>	contrato de obra
8510T	<i>lan-akuraketa</i>	contrato de obra
9103P	<i>lan-hitzarmen</i>	contrato de obra
8106P	<i>herrilanak</i>	obras públicas

- **Lanari = función-, funcionario**

(181)

36	<i>agintaritza-lanari</i>	funcionario público
37	<i>erri-lanari</i>	función pública
37	<i>goi-lanaritza</i>	función pública
8103P	<i>lanari-Errolde</i>	plantilla de personal
8112P	<i>karreradun lanari</i>	funcionario de carrera
8316P	<i>lanariak</i>	funcionariado

- **Lan = empleo**

(182)

9308P	<i>lan-birmoldaketa</i>	regulación de empleo
-------	-------------------------	----------------------

- **Lan = servicio**

(183)

8309P	<i>lanak egite</i>	prestación de servicios
8906P	<i>lan egin</i>	prestación de servicios

- **Besteak**

(184)

8817T	<i>azterlan zehatz</i>	estudio de detalle
8903P	<i>zergapidetza-lan</i>	gestión tributaria
9417P	<i>hirigintza-lanetarako lur</i>	suelo urbanizable programado
8909P	<i>hirigintza-lanak egiteko eskubide</i>	derecho de urbanización
9506P	<i>lanerako prestatze</i>	formación ocupacional
9307P	<i>laneko gaixotasun</i>	enfermedad profesional

### 5.5.2.- ‘Lan’ hitz eta oinarriaren esanahiak eta arazoak

Jakina denez, oso hitz polisemikoa dugu euskaraz; Euskal Hiztegian egozten zaizkion 1., 2., eta 3. adieren definizioak aldatuko ditugu hona, oso argiak baitira corpuseko hitz horren erebileretan sumatzen ditugun arazoak zedarritzeko.

- “1. *Onuragarri den zerbait lortzeko egiten den jardun edo ahalegin jarraitua*
- 2. *(Jardun hori, ondasunak lortzearen, giza talde baten barnean eta era arautuan egiten denean).*
- 3.- *Eskulangile, burulangile edo ertilari baten jardunaren ondoriozko gauza.”*

#### 5.5.2.1.- OPUS eta LABOR

Zuzenbidean badira arlo honetan ongi berezi beharreko bi adigai, latinezko LABOR eta OPUS hitzez bereizi ohi direnak, eta Sarasolaren hiztegi 2. eta 3. adierekin ongi datozenak. Lan-zuzenbidearen gaia, LABOR (lan egitea) da, hori baita, lan-erlazioan langileak ematen duena enpresaburuaren ordainketaren truke. OPUS adigaia, berriz, lan egitearen emaitza da. Horrek ez du esan nahi, ordea, erlazio juridikoetan gaia LABOR delarik beti lan-zuzenbidearen mendeko erlazioa denik, baina hori hurrengo puntuan (5.5.2.2.) aztertuko dugun beste kontua da.

Horrela, esate baterako, enpresa batek edo profesional batek, OPUS bat hitzartzen du, beste enpresa edo erakunde batekin, eta OPUS bat izaten da kontzesio administratibo baten gaia. Hortaz, garrantzitsua da hitzarmen batez ari bagara, hitzarmen horren gaia zein den zehaztea. Ondoko adibideek erakusten dutenez, *lan* hitza soilik erabiliaz, gaztelaniaz *contrato de obra* eta *contrato de trabajo/ laboral* edo zuzenbide-adar honetako edozein motatakoa izendatzeko, nahasketa sor liteke.

(185)

8510T	<i>zehaztutako aldirako lan-itune</i>	contrato de duración determinada
8510T	<i>zehaztutako aldirako lan-hitzarmen</i>	contrato de duración determinada
8906P	<i>Lan-itunepeko akurapen</i>	contrato laboral
8906P	<i>epe-mugarik gabeko lan-akurapen</i>	contrato laboral indefinido
8510T	<i>bateango lan-Itune</i>	convenio colectivo
9309T	<i>lan-itun</i>	convenio colectivo
8504T	<i>Lan-itune</i>	contrato de obra
8510T	<i>lan-akuraketa</i>	contrato de obra
9103P	<i>Lan-hitzarmen</i>	contrato de obra
8910T	<i>lan-hartzaile</i>	adjudicatario

Adibide horiek erakusten dutenez, *lan-akuraketa/pen, lan-hitzarmen, lan-itune*, berdin izan daitezke ‘*contrato de obra*’, alegia obra (*opus*) batzuk enkargatzea, edo ‘*contrato laboral*’, zuzenbide laboralaren arabeko kontratua.

### 5.5.2.2.- *Lanari* hitzari buruz

Gorago esaten genuenez, zuzenbidean funtsezkoa da lan egiteaz edo lanaren ondorioaz hitz egiten dugun jakitea, eta gehitzen genuen lan-zuzenbidea deitzen den atala lehenengoaren inguruan sorturiko erlazioez arduratzen zela. Baina, oharrarazten genuen lan-egite guztiak ez zirela lan-zuzenbidekoak. Izan ere, administrazioan ohikoa da bertako “langile”-ekiko harreman juridikoa ez izatea lan-zuzenbidekoa, bestelakoa baizik, funtzionariotza-erregimenekoa, alegia. Desberdintasun hori sistematikoki adierazten da gaztelaniaz, ‘*funcionarios y laborales*’ bezalako esapideetan.

EUSBetan, bi sistema erabiltzen dira, gehienbat, diferentzia egiteko, egiten denean: *herri-* (*uri*), *agintaritza-* hitzez adierazi eta *lanari* hitza erabili, haietako batekin elkartuz, edo bakarrik.

*Lanari* hitzaren banaketa kronologikoa adierazgarria da: agerpen bat dago 1936-37 aldian, bat ere ez 1978-80koan, 11 agerpen 1980 eta 1989 bitartean, eta beste bakarra, 1990 urtean, azken aldian. Badirudi ez dela gehiago erabiltzen, *funtzionario/o* eta *herri-langile* izan direlarik haren ordezkioak.

### 5.5.2.3.- *Lanbide* hitzari buruz.

Azken urte hauetan dirudenez, bere ohiko esanahietara mugatzen ari den hitz honi etekin handia atera nahi izan zaio, ondorengo adibideok erakusten dutenez:

(186)

8108T	lanbideidazgu	oficina de empleo
8108T	gorenlanbide	alto cargo
8309P	lanbide-elkarte	colegio profesional
8311P	lanbide	puesto de trabajo

### 5.5.2.4.- Beste esanahi batzuk

- **Servicio**

Gorago, (183) adibidean, jaso dugunez, administrazioan erabilera espezializatua duen hitz hori itzultzeko ere kasu batzuetan *lan* hitza erabili da. Oso gutxitan, hala ere, zeren 40 agerpenetik gora dauzka *zerbitzu* hitzak.

- **Empleo**

ESTetan bitan bakarrik (182) agertzen denez, ezin esan zenbat erabiltzen den *lan* hitza adiera horretan.

- **Función pública ( agintaritza-lan)**

Adibide bakarra hau ere, eta 1937koa.

## 5.6.- 'Bide'- ren esanahiak eta erabilerak

Bistan da *bide* ez dela, aurrekoak bezala, esanahi juridiko garrantzitsuko hitza. Izan ere, testuinguru jakin batzuetatik at inork ez luke esango zuzenbideko hitza denik. Bestalde, bereziki interesatzen zaigun *bide*-ren erabilera, hitz-elkarteetakoa, ez da mugatzaile-posizioan gertatzen, mugakizunean baizik. Labur esanda, hitz honen arazoak eta aurretik aztertutakoenak oso desberdinak dira, baina iruditu zaigu, besteek bezala garrantzi berezia hartzen duela corpus honetan, eta hitz-elkarketaren erabilera terminologikoaren arazo batzuk aztertzerko haiek bezala baliagarria zela.

Aztertzen ari garen corpuseko EUSBetan oso ugari aurkitzen da *bide* hainbat kokapen eta funtzio desberdinetan: postposizio gisa, hitz beregain moduan, eratorpenaren oinarri bezala, eta elkartearen osagai eran.

Menpekotasun-elkarteen mugakizun dela, *-bidek* jokabide berezia erakusten du kasu batzuetan. Jakina da, erdi hitz erdi erator-atzizkien artean sailkatzen den hizki hori maiztasun handikoa dela; baina, hain zuzen ere, sumatzen dugunez corpus honetan ohikoa baino erabilera ugariagoa duela posizio horretan, azterketa xehetuari ekin diogu. Oinarria aditzoina edo izena den erabaki ondoren (supra 3.3.10.2) hemen balioa edo esanahia aztertu nahi izan dugu: aurreko hitzekin egin dugun bezala, itzulpen-balioak zehaztuaz, eta baita, euskal hiztegieta hitz horiek jasoak dauden, eta zein adierak egozten zaizkien ikertuaz. Beste aldetik *-bide/ -pide* alternantziaren arrazoiak zein ote diren argitzen saiatuko gara.

### 5.6.1.- 'Bide' hitz beregaina, postposizioa, eta elkarteko osagaia. Agerpenak eta adibideak.

Postposizio gisa hamarren bat kasutan agertzen da, (187a, b, c eta d) adibideen modura. Idazkerak aurreko kasuotan laguntzen digu postposizio bezala sailkatzen, baina beste batzuetan (187e) ez dakigu bestelako hitz elkartu edo postposizioa den are gutxiago (187f) adibidekoa bezalakoak dauzkagularik:

(187)

(a)	36	<i>epaile bidez etxetik bota</i>	desahucio
(b)	8328P	<i>agiri-bidezko egiaztapen</i>	prueba documental
(c)	9003P	<i>bankuren baten bidez dirua bidali</i>	transferencia bancaria
(d)	9601P	<i>azterketa eta meritua bidezko lehiaketa</i>	concurso oposición
(e)	78	<i>hauzibidez eraman den,</i>	sustanciar
(f)	79	<i>auzibide-administralgo maila</i>	orden contencioso-administrativo

Badago beste *bide* bat batzuetan ezkerrean izenlaguna duela (188a), (188b), (188c) eta besteetan, elkarturik (188d-h) baina esanahia oso garbi gordeaz, erabiltzen dena. Horietan denetan, *bide* = *procedimiento* edo *vía* oso modu zurrunean gordetzen da, eta, azken adibidean (188h) bezala, kasu batzuetan hitz jarrai bakarrean idazten bada ere, ezin daiteke esan lexikalizazio-arazorik dagoenik. Horien antzera, *bide* hitzak esanahi finko bera gordetzen du aditz-izenari lotzen zaion kasuetan (188i), (188j), (188k).

(188)

(a)	8101P	presazko bide	procedimiento de urgencia
(b)	8508P	ardularitzazko bide	procedimiento administrativo
(c)	8601G	administraziozko bide	procedimiento administrativo
(d)	78	administrazio-bide	vía administrativa
(e)	8111P	ardularitzabide	procedimiento administrativo
(f)	9006P	administraritzabide	vía administrativa
(g)	9007P	administrazio-bideko lege	ley de procedimiento administrativo
(h)	8110P	ardularitzabide-lege	ley de procedimiento administrativo
(i)	8201P	zigortzebide	procedimiento sancionador
(j)	8318P	jabegabetze-bide	procedimiento expropiatorio
(k)	8805P	hertsatze-bide	vía de apremio

*Bide*-ren eratorpenez sorturikotzat jo dezakegu beste '*bidezko*' bat (189), ez postposiziokoa, izenlaguna baizik, dena, eta beste esanahi arrunt desberdina duena: corpuseko erdarazko baliokideetan beti *legítimo* adjektiboa:

(189)

<i>bidezko zudu</i>	<i>bidezko interes</i>
<i>bidezko interesgarritasun</i>	<i>nahiaren bidezkotasun</i>

Kasu bakar batean () agertzen zaigu '*bide*' elkarte baten mugatzaile posizioan (190), eta kasu horretan bakarrik, gure corpusean, hartzen du *bide* hitzak bere "hiztegiko lehen adiera", alegia, Sarasolaren hiztegian "*Bertatik ibiltzeko prestatua dagoen lur zerrenda*" definitzen dena, nahiz eta baieztapen hau zentzu juridikoan, ez fisikoan, ulertu behar den.

(190)

9203F	<i>bide-zor</i>	servidumbre de paso
-------	-----------------	---------------------

### 5.6.2. 'Bide' hitz-elkarteko mugakizun: izena / aditzoina + *-bide/ -pide*

Baina hitz beregain gabe, hitz-elkartean loturik agertzen zaigu maizenik '*-bide*' eta haren aldaera den '*-pide*'. Hauxe da corpuseko hitz-elkarteetako osagai erabiliena: 311 agerpen dauzka. Hitz elkartuetan, beti, (aipatutako *bide-zor* salbuespen bakarra delarik) mugakizun gisa agertzen zaigu; HE 4ko '*aditzoin* + *izen*' eta '*izen* + *izen*' sailetakoko 'mugakizuna erdi atzizki bihurturik' dauzkatenen azpisailletan kokatu ditugu guztiok.

Horiek dira gure corpusean maiztasun handiena, eta interes berezia daukatenak. Ez da gure egitekoa erabakitzea benetako hitzak edo atzizkiak diren,



eta gure azterketaren abiapuntutzat, LEF batzordearen jokabide bera hartuko dugu: hitz-elkarte gisa tratatzea.

Ondoko taulak erakusten digu garai bakoitzean agertzen diren horrelako elkarteak. Gogoratuko dugu, garai bakoitzean EUSBan edo ESTan zerbait desberdina dutenak bakarrik jasotzen direnez, ezin daitekeela jakin noiz arte eta nola luzatu den hitz bakoitzaren erabilera. Horregatik, bereizi ditugualdi bakoitzean agertzen diren berriak

	<b>Berriak</b>	<b>Aurreko garaietan azalduak</b>
<b>A garaia</b>	argibide/argibidelari, arkibide, arkibidetze, arkibidetza, eskubide/ eskubidedun, (h)elbide, ustebide	
<b>B garaia</b>	auzibide, zuzenbide,	eskubide,
<b>C garaia</b>	aburupidetza, agintepide, araubide/ araupide, baliapide, egipideratu, ekintzabide/ ekintzapide, epaibide, erdibide, eskabide, garazpide, irizpide, itunbide, jardunbide, jaurpide, jaurpidetza, lanbide, legebide/ legepide/ legepidetza, ogibidearteko, osasunbide, zentzabide/ zentzapide, zergabide/ zergapide/ zergapidetze/ zergapidetza, zigorpide, zorpide,	argibide/ argipide/ argipideketa, eskubide/ eskubidedun, zuzenbide
<b>D garaia</b>	aginpide, aurrerabide, erabide, irabazpide, isilbide, izapide, osabideratze, sorospide,	araubide, baliapide, eskubide, jardunbide, jaurbide/ jaurpide lanbide, legebide, zergapide, zigorbide, zuzenbide

**98. taula: X+ -bide /-pide –ren agerpen berriak garaika**

Nabarmena da egitura honek duen emankortasun lexikoa, bereziki, C garaian. Izan ere, aldaerak kontuan izan gabe, *bide*-rekiko 26 hitz berri agertzen dira garai horretan.

Horietako hitz batzuek, lehen begiraldian, aski ezagunak eta erabiliak dirudite, baina beste batzuek ezin da horrelakorik esan, nahiko ezohikoak direnez. Batzuen eta besteen corpuseko erabilera eta balioak aztertzen saiatuko gara.

Beste aldetik, hainbat kasutan *-bide /-pide* alternantzia ageri da, baina ez dakigu balio lexikorik duenentz; kontu hori argitzeko ahaleginak egingo ditugu.

EUSB batzuetan, aztertzen ari garen hizkia aditzoin bati elkartu zaio, eta beste batzuetan, berriz, izen bati. Hitz-elkarketa aztertzerakoan erabaki dugu elkarte batean zalantzazkoa denean mugatzailea aditzoina edo izena den,

aditzointzat emango dugula<sup>39</sup>. Dena den, batean edo bestean sailkatzeari ez deritzogu oso garrantzitsu, bi taldeek jokabide morfologiko beretsua erakusten dutelako, eta batera edo bestera eginda ere, arazo semantiko berdintsuak agertzen zaizkigulako.

Hona, dena dela, garaiz garai agertzen direnak irizpide horren arabera sailkatuak.

	<b>Aditzoin + bide</b>	<b>Izen + bide</b>
<b>A garaia</b>	argibide/argibidelari, arkibide, arkibidetze, arkibidetza, (h)elbide,	eskubide/ eskubidedun, ustebide
<b>B garaia</b>	zuzenbide,	auzibide, eskubide,
<b>C garaia</b>	antolapide, argibide/ argipide/ argipideketa, baliapide, egipideratu, epaibide, eskabide, irizpide, jardunbide, jaurpide, jaurpidetza, zentzabide/ zentzapide, zigorpide, zuzenbide	aburupidetza, agintepide, araubide/ araupide, ekintzabide/ ekintzapide, erdibide, eskubide/ eskubidedun, garazpide, itunbide, lanbide, legebide/ legepide/ legepidetza, ogibidearteko, osasunbide, zergabide/ zergapide/ zergapidetze/ zergapidetza zorpide,
<b>D garaia</b>	aginpide, aurrerabide, baliapide, erabide, irabazpide, isilbide, izapide, jardunbide, jaurpide, osabideratze, sorospide, zigorbide, zuzenbide	araubide, eskubide, lanbide, legebide, zergapide,

**99. taula: -bide-rekin osatutako elkarte guztiak garaia**

Oinarri berarekin hitz desberdinak eratzen direnez, begira dezagun (191) zein diren oinarriko aditzoin eta izenak:

(191)

<b>Aditzoinak</b>		<b>Izenak</b>	
<i>agin</i>	<i>hel</i>	<i>arau</i>	<i>lege</i>
<i>antola</i>	<i>izan</i>	<i>ekintza</i>	<i>ogi</i>
<i>aurrera</i>	<i>irabaz</i>	<i>esku</i>	<i>osasun</i>
<i>argi</i>	<i>isil</i>	<i>garatz</i>	<i>zigor</i>
<i>aurki</i>	<i>jardun</i>	<i>itun</i>	<i>zor</i>
<i>balia</i>	<i>osabidera</i>	<i>lan</i>	
<i>egin</i>	<i>soros</i>		
<i>epai</i>	<i>zentza</i>		
<i>era</i>	<i>zuzen</i>		
<i>eska</i>			

<sup>39</sup> Aukera, beti ere eztabaidagarria, eta ez oso garrantzitsua, kasuan kasuko ezaugarriak eta erabilerak kontuan hartuta egin dugu. Esate baterako, *araubide*-ren kasuan, *legepide*ko *legerekin* duen parekotasuna izan da *arau* izen bezala, eta ez aditzoin gisa (*arautu* aditza ere bai baitago) hartzera bultzatu gaituena. Oso ilun den *zuzenbide*-rentzat, iruditu zaigu oraingo hiztunaren ikuspegitik errazago onar daitekeela aditz-adiera (zuzentzeko bide) izen-adiera baino; eta gogoeta beretsua egin daiteke *epaibide* eta beste batzuekin.

### 5.6.3. *-bide /- pide* alternantzia

*Euskal segmentu baliokideen* artean, hainbat kasutan *bide / pide* alternantzia azaltzen zaigunez, bikoteak zein kasutan agertzen diren eta zeinetan ez aztertuz, alternantziaren arrazoiak ikertu nahi izan ditugu, ea arrazoi fonetikorik edo morfologikorik dagoen, edo alternantzia horrek arrazoi semantikorik ote duen.

Alternantzia fonetikoari dagokionez, aspalditik ezaguna da (Michelena 1961: 240 et hur.) herskariaren artean horrelako bikoteak ohikoak direla (*bake/pake*); beste aldetik, eta hitz-elkarketetan lehen osagaiaren bukaerako txistukariak, edo dardarkariak bigarren osagaiko hasierako herskariaren ahoskabetzea dakartela edo ekar dezaketela. Esan daiteke, kasu horietan alternantziak ez duela balio fonologikorik.

EUSBetako hitzak mugakizunaren bukaeraren arabera sailkatuta honako taula dugu:

	<b>-bide bakarrik</b>	<b>-pide bakarrik</b>	<b>biak</b>
<b>Bokal.</b>	arkibide auzibide aurrerabide epaibide erdibide eskabide eskubide ogibide ustebide	antolapide aburupide agintepide baliapide ekintzapide erapide	argi-bide/ -pide arau-bide/ -pide lege-bide/ -pide zerga-bide/ -pide zentza-bide/ -pide
<b>Konts.</b>	helbide osasunbide zuzenbide ihardunbide	egipideratu garazpide izapide irizpide irabazpide sorospide zorpid	jaur-bide/ -pide zigor-bide/ -pide

**100. taula: *-bide /- pide* alternantzia**

EUSBetako alternantziek aurreko arauetan sar daitezkeenez, ez lukete, printzipioz balio lexikorik izan behar, baina kasu batzuetan horrelako balioa ematen zaiela sumatzen dugunez, batzuen eta besteen itzulpen-balioak aztertuko ditugu.

Kontuan hartzekoa da *-pide*-dunen banaketa kronologikoa. Izan ere A eta B garaian ez da *-pide*.ren kasu bat ere agertzen; C garaian, 83 dira, eta D garaian 25; baina azken garaiko gehienak lehen urteetan agertzen dira; bakarra dago

1995tik aurrera.. Gainera, 1990 tik aurrera, ez da hitz berririk agertzen zalantzazko *-pide* horretaz eratua.

#### 5.6.4. *-bide* / *-pide* mugakizunaren balioak eta esanahiak

##### 5.6.4.1.-Corpuseko *-bide* / *-pide*-dunen forma eta esanahia hiztegiatan

*Euskal Hiztegiak* eta *Orotariko Euskal Hiztegiaren* paperezko argitalpenak<sup>40</sup> EUSBetan aurkituriko *-bide/-pide*-rekiko hitzen adierak eta definizioak begiratu ditugu corpusekoekin alderatzeko, eta, ahal delarik, *-bide/-pide* mugakizunak ezartzen duen esanahian erregulartasunik aurkitzen ote den aztertzeko. Honako ondorioak atera daitezke:

- *-bide/ -pide* formari buruz, aldaerak kasu askotan gertatzen dira. Gainera, hainbat kasutan, EUSBetan agertzen ez diren aldaerak daude, eta maiztasun handiagoz, hiztegiatan. Esate baterako, *OEHk* edo biek aukera desberdina eskaintzen du(te) ondoko adibidekoetan, eta *EHk erabide* hitzean; ez dugu, hortaz, erregulartasunik igartzen.

(192)

<i>aginpide / aginbide</i>	<i>lanbide / lanpide</i>	<i>antolabide</i>
<i>egipide / eginbide</i>	<i>helbide / helpide</i>	<i>irabazpide/ irabazbide</i>
<i>izapide / izanbide</i>	<i>jardunbide / jardupide</i>	<i>jaurbide.</i>

- *Aditzoin* + *-bide/-pide* gehienak agertzen dira, eta gehienak bi hiztegiatan; badira bi (*izapide, sorospide*) *EHn* agertzen ez direnak.
- *Izen*+ *-bide/ -pide* eratutakoei dagokienez, EUSBetan agertutako hainbat ez dira hiztegiatan jasotzen. Ez dira inon agertzen: *aburupide, agintepide, ekintzapide, garazpide* eta *EHn*, horiez gainera, ez dira jasotzen: *auzibide, epaibide, zigorpide, zergapide.*
- Aztertzen ari garen hitz batzuek aski lexikalizatuak dirudite. Horrelakotzat eman daitezke (193) adibidekoak. Oro har esan daiteke *aditzoin* + *bide* osaerakoek gardenagoak diruditela, aditzak adierazten duena lortzeko bidea edo horrelako zerbait esan nahi dutela; *izena* + *-bide / -pide* osatutakoak, aldiz, aski igarriezinak.

(193)

<b>Izena +-bide / -pide</b>	<b>Aditzoina + bide / -pide</b>		
erdibide	argibide	eskabide	erapide
eskubide	eskabide	jardunbide	irizpide
lanbide	jardunbide	egipide/eginbide	
ogibide	argibide	irabazpide	

<sup>40</sup> (XIII. liburukia: *pebre* sarreraino)

- o *bide / -pidez* eraturiko hainbat hitzen polisemia oso nabarmena da; esate baterako ondokoetan:

(194)

erabide	jardunbide
irabazpide	izapide/ izanbide
helbide	zuzenbide

5.6.4.2.-*bide / -pide*-z osatutako hitzen itzulpen-balioa. (Ik VI. 5.6.4.2. eranskina)

Gure aztergaia oso-osoan itzulpenaren emaitza delarik, baliokidetzazehatzak ezar daitezke kasu askotan. Hemen dauzkagunetan, posible izan da kasu batzutan hitzaren mailara jaistea, alegia, zein erdal hitzi dagokion *-bide*-dun hitz bat zehaztea.

Eranskinean ematen ditugun bi tauletan (EST bakar edo ia bakarraren itzulpen direnak, eta ESTermino desberdinen itzulpenak direnak) ikus daitezke *bide / -pide*-z osatutako hitzen itzulpen-balioen hainbat ezaugarri. Honako zertzelada hauei irizten diegu azpimarragarri:

Erdal termino bakar edo ia bakar baten itzulpen direnetan nabarmena da *arabide* eta *arapide* hitz desberdin gisa erabiltzen direla corpus honetan.; baina gainerakoetan, *-bide / -pide* alternantziak inolako esanahi-aldaketarik ez dakarrela.

Bestalde, taula horretako hitzak EST jakin baten ordaintzat agertzen badira ere, bizpahiru kasutan (*osasunbide*, *eskubide*, *zuzenbide*) bakarrik dira ordain bakarrak edo finkatuak; beste guztiak hainbat “sinonimorekin” lehian agertzen baitira.

Eranskineko bigarren taulak (*ESTermino desberdinen itzulpenak direnak*) erakusten ditu ESTetan esanahi nabarmenki desberdineko baliokideak dituzten – *bide / -pide* osagaidun hitzak.

Hitz horien erabileran aski deigarria da nolako balio desberdinak eman izan zaizkien EUSBetan. Gainera, EUSB bakoitza hainbat EST desberdinen ordain denez, EST horietako bakoitzak hainbat EUSBren iturri denez, ESTen eta EUSBen arteko baliokidetzak oso finkagaitzak dira kasu gehienetan

Uste dugu hitz horiei egozten zaizkien balio anitz horiek erakusten dutela *-bide / -pide* mugakizun duten hitz horien esanahia ez dela gardena, esan nahi baita, ez dela osagaietatik zuzenean eratortzen.

#### 5.6.4.3.-*-bide / -pide*-z osatutako hitzen eratorriak

Hainbat kasutan, aztertzen ari garen elkarteak eratorpen-atzizkiak jasotzen dituzte hitz berriak eratzeko. Horietako batzuk hainbat aldiz errepikatzen dira,

garrantzi handiko termino juridikoen osagarri izanik. Hiztegieta horrelako hitzik aurkitzen ez dugunez, interesgarri deritzogu moldaera hori aztertzeari. Aurkitu ditugunak (103. taula) bi (*argibidelari*, *argipideketa*) izan ezik, *-tza* atzizkiaz eraturik daude. Honako hauek aurkitu ditugu:

	Kopurua	desberdinak
<b>A garaia</b>	3	arkibidetza, argibidelari
<b>B garaia</b>	0	
<b>C garaia</b>	13	erapidetza, erabidetza, antolapidetza, jaurpidetza, sorospidetza, aburupidetza, legepidetza, zergapidetza, argipideketa
<b>D garaia</b>	0	
	16	9

**101. taula: *-bide* *+tza*. Kopuruak eta desberdinak, garaika**

Oso deigarria iruditzen zaigu C garaian egitura hauek daukaten emankortasuna, eta ez B ez D garaietan horrelako bat ere ez agertzea.

'Izena *+.-bide* / *-pide*'-ren gainean eraturikoak *aburupide*, *legepide* eta *zergapide* dira ; 'aditzoin + *bide* / *-pide*' elkarte oinarri dutenak *argibide/argipide*, *arkibide*, *erabide/ erapide*, *antolapide*, *antolapide*.

Esan bezala, nahiko hitz garrantzitsuak eratu ziren, ondoko adibideotan ikus daitekeenez.

(195)

37	<i>jabetza arkibidetza</i>	registro de la propiedad
37	<i>epailtza argibidelari</i>	juzgado instructor
8104	<i>lege-erapidetza</i>	ordenamiento jurídico
8210P	<i>lege-antolapidetza</i>	ordenamiento jurídico
8309P	<i>gizartesegurantzaren lege-jaurpidetza</i>	régimen jurídico de la seguridad social
8318P	<i>herri-argipideketa</i>	información pública
8805P	<i>aburupidetza</i>	doctrina
8805P	<i>epai-aburupidetza</i>	jurisprudencia
8806R	<i>herri-alorreko legepidetza</i>	derecho civil
8903P	<i>zergapidetza-lan</i>	gestión tributaria

### 5.6.5. Ondorioak

*-Bide* mugakizunaz eraturiko hitz-elkarte gutxi batzuk hiztegieta jasotako adiera jakin batean erabiltzen dira gehienetan. Horietako batzuek (*eskubide*, *lanbide*, *zuzenbide*) esanahi finko samarra dute; *eskubide*-ren kasuan corpuseko esanahia eta tradizioan izan dutena bera da, eta beste batzuek (*zuzenbide*), esanahi tekniko finkatu berria dute. Hona hiztegieta jasotako adieran erabiltzen direnak:

(196)

<i>aginpide</i>	<i>eskubide</i>
<i>izapide</i>	<i>lanbide</i>
<i>ogibide</i>	<i>irabazpide</i>
<i>jaurpide</i>	<i>zuzenbide.</i>

Beste batzuk, berriz, hiztegieta batere aurkitzen ez den adieran, edo hiztegiko esanahitik eratorri bai, baina harekin urrutiko zerikusia duen zentzuan erabiltzen dira. Honako hauek:

(197)

aburupide	agintepide
epaibide	garazpide
itunebide	legepidetza
zergapidetza	zigorpidetza
zorpide	

Lexikalizatuta ez daudenetan, diferentzia dago aditzoin + *bide* eta izen + *bide* osatutakoen artean. Esan daiteke hizki hori aditzoinari erantsita agertzen delarik, argiagoa dela; modu zabal baina bakar batean ulertzeko modua dagoela. Izenaren gainean eratutakoetan, aldiz, hizki horrek zer eransten duen igartzea aski zaila da. Horrela eratutako hitz berriak ez dira gardenak.

Jadanik tradizioko *bide* / *-pide*- hizkiaren semantika zehaztu gabea denez, badirudi hartaz osaturiko hitz berriak banan banan onartzen direla edo ez direla. Horrela, gure ustez, *zuzenbide* hitz guztiz polisemikoaren adieretako bat (IUS) finkatu eta aski onartua dago azken urteotako erabileran, corpusak berak frogatzen duenez, baina hiztunak hitz osoa ulertzen du, ez osagaien elkarketaren emaitza. Corpuseko beste hitz askok, ordea, ez zaienez esanahi zehatz bat egotzi, ez dute horrelako harrera onik izan.

Berez oso ongi ulertzen ez den hitz bati beste atzizkiren bat (bereziki *-tza*) gehituz eraturiko hitzetan, iluntasuna areagotu egiten da. Gure ustez horrek azaltzen du, besteak beste, ondoko hitzen finkapen eskasa:

(198)

<i>aburupidetza</i>	<i>antolapidetza</i>	<i>erabidetza /erapidetza</i>
<i>jaurpidetza</i>	<i>legepidetza</i>	<i>zergapidetza</i>

*Bide* / *-pide* alternantziari dagokionez, ezin daiteke esan balio lexikoa duenik, nahiz eta, kasuren batean (*araubide/ araupide*) horiez osaturiko hitzak corpusean desberdinak izan.

Garaikako azterketak erakusten duenez, badirudi corpusean 1990ko hamarraldian batez ere osatu direla hitz berriak hizki horiekin, eta azken garaian, ongi finkaturikoak baizik ez direla erabiltzen.





## 6.- EUSBetako OSAGAI BATZUEN AZTERKETA: ADBERBIOAK, ADJEKTIBOAK, JUNTAGAILUAK, PLURAL-MARKAK

EUSBen behaketak erakutsi digu badirela baliabide gramatikal batzuk, inguruko hizkuntzetako terminologia zerrendetan ez bezala erabiltzen direnak. Horietako elementu batzuen azterketa da atal honen gaia.

Aditzaren presentzia handia dago EUSBetan, eta aditzak adizlaguna eskatu ohi du aldamenean. EUSBetako adberbioen erabilera, nabarmena denez, inguruko hizkuntzetako zerrenda terminologikoetan ez bezalakoa da. Dauden adberbio motak bereizi ondoren, garaiz garai aurkezten dituzten ezaugarriak aztertuko ditugu.

Izenondoek ere oso erabilera desberdina daukate EUSBetan eta ESTetan, euskarazkoen egitura osoa aztertzerakoan egiaztatu genuenez. Hemen, izenondoa bera izango dugu aztergai, eta erreferentzialesi arreta berezia eskainiko zaie.

Ondoren, juntagailua aztertuko dugu, baina interesgune zehatz batekin: saituko gara zehazten zein kasutan eta nola erabiltzen den juntagailua ESTetan baliabide lexikoz adierazten dena EUSBetan hitz-sekuentzia baten bidez itzultzeko.

Eta azkenik, pluralei, juntagailuei bezala, oso maiztasun handia igarri diegunez, egiaztatu nahi izan dugu geure susmoak oinarririk bazuenez, eta zein diren maiztasun horren arrazoiak.

### 6.1.- Adberbioak EUSBetan

Erdal sarreretan (EST) ez dugu adberbiorik aurkitu, bi salbuespen kenduz gero (*informar preceptivamente, pena inmediatamente inferior*), biak mota berekoak, lexikoak eta kalifikatiboak (Kovacci, 1999:707), bigarrena, adjektiboaren gradatzaile funtzioan.

Euskal segmentu baliokideetan, berriz, adberbioen presentzia ugaria dugu, ez bakarrik aditz-sintagma egitura dutenetan, baizik eta, izen-sintagmaren barruko aditz-sintagmetan ere.

#### 6.1.1.- Zer da adberbioa euskaraz. Adberbio-motak

Euskal adberbioaren inguruan, azterkizun ugari dago, eta hainbat alderditan jakintzat emandako egiak zalantzan jartzeko zantzu ugari ere bai. Dena

den, onartuko dugu de Rijk-ek (1995-55) dioen bezala, euskarak, azken bost mendeetakoak bederen, baduela oro har munduko gramatiketan adberbio deitu izan den kategoria. Hau da, Zubiri eta Zubiriren (1995-206) hitzak ona ekarriz, ezaugarri hauek dauzkatenak:" a) *Aditza lagundu eta osatu egiten dute, b) Aldagaitzak dira, eta c) Ez dute aditzarekiko komunztadurarik."*

Horrelako definio batekin lan egin du Euskaltzaindiak hala *EGLUn* nola *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna* delakoan adberbioen deskribapena eta sailkapena egiterakoan.

Adberbioen artean sartu ohi diren hainbat elementu, postposizioen artean edo izenondoen artean hobeto egongo lirakeela defenditu dute Zabalak eta Odriozolak artikulu batean (1994), baina de Rijk-ek (1995:54) zalantzan jarri du proposamen hark gauzak argitzen edo areago zailtzen ote dituen.

Gure aldetik, Euskaltzaindiaren bideari jarraitu diogu gure corpuseko adberbioen azterketa eta sailkapena egiterakoan. Hortaz, onartu dugu bitariko sailkapena, adberbioak bi multzotan banatzen dituen: aditzondoak, (*bihar*) kasu-markarik behar ez dutenak, nahiz eta batzuetan deklinaturik agertzen zaizkigun, eta adizlagunak, kasu-marka baten bidez adberbio bilakatzen direnak (*aurrean*).

Hala ere, zenbakiak egiterakoan, lau multzo osatu ditugu

- aditzondo bakunak, eratorriak eta konposatuak
- partizipioarekin osatutako aditzondoak : aditz- partizipioa+ (*-ta*) (*-rik*) egitura dutenekin (*eraberrituta*), (Zubiri eta Zubiri, 1995:213),
- adberbio-esapideak
- adizlagunak

Partizipioekin talde bat egiteko arrazoia da adizkien presentziaz zerbait gehiago aztertzea, eta adberbio-esapideen talde bereziaren arrazoia, lexikalizazio-maila eskaseko adberbioen presentziaz oharrararaztea

Beste aldetik, funtzio sintaktikoaren arabera, beste bi multzo nagusi egin ditugu, batean bildu ditugu adberbio-funtzioan agertzen direnak, eta bestean, adberbioari *-ko* edo *-ren* atzizkiak erantsiaz osaturiko izenlagunak.

### 6.1.2.- Adberbioen presentzia EU segmentuetan

Ondoko taulan ikus daitezke EUSBetako adberbioen agerpen-kopuruak garaiz garai. Lehen zutabeetan adberbio funtzioan daudenak bildu ditugu, eta bigarrenetan, izenlagun baten osagai direnak.

	Adberbio funtzioan	Izenlagunaren osagai	Guztir a
<b>A garaia</b>	8	7	15
<b>B garaia</b>	5	9	14
<b>C garaia</b>	48	203	251
<b>D garaia</b>	47	99	146
<b>Guztira</b>	108	318	426

102. taula: Adberbioen agerpenak garaika

Aski kopuru handiak dira, kontuan hartzen badugu 2.858 direla azterkizun ditugun EUSBak. 108 euskal segmentutan adberbioen bat aurkitzeak esan nahi du ehuneko %3,7an dagoela, izenlagunen barruan aurkitzen ditugunak, berriz, askozaz ugariagoak: 318, beraz % 11,12, eta kopuru osoa hartuta  $426 / 2.858 = \% 14,90$ .

Garaikako banaketari dagokionez azpimarratzekoa da 1980-1989 garaian adberbioek izenlagunen osagaitzat duten presentzia handia.

Datozen bi taula hauetan, funtzio bakoitzean, mota bakoitzeko adberbioen kopuruak ematen ditugu

	Adond.	Partiz.	Adb. esap.	Adl g	Guztira
<b>A garaia</b>	2	0	1	5	8
<b>B garaia</b>	1	1	0	3	5
<b>C garaia</b>	7	6	7	28	48
<b>D garaia</b>	11	6	4	26	47
<b>Guztira</b>	21	13	12	62	108

103. taula: Adberbio-funtzioan

	Adond. Izlg.	Partiz. Izlg	Adb. esap. Izlg	Adlg. Izlg	Guztira
<b>A garaia</b>	1	0	0	6	7
<b>B garaia</b>	0	0	3	6	9
<b>C garaia</b>	33	24	19	127	203
<b>D garaia</b>	13	10	11	65	99
<b>Guztira</b>	47	34	33	204	318

104. taula: Izenlagunaren osagai

Ikus daitekeenez, hala posizio batean nola bestean, adizlagunak, hau da, deklinabide-kasuen gainean eratutakoak dira ugarietak.

### 6.1.3.- Adberbio-funtzioan

#### 6.1.3.1.- Aditzondoak

Garai desberdinetan, eta era guztietako ESTen baliokidetan aurkitu ditugu aditzondoak:

(199)

37	<i>aurka ekin</i>	impugnar
79	<i>egiteak aurrera eramate</i>	ejercitar acción
8201P	<i>bertan egon</i>	personarse
8206R	<i>berriro gizarteratze</i>	reinserción social
8308P	<i>atzera egiteko eskubide</i>	derecho de desistimiento
8308P	<i>bertan bizi izateko baimen</i>	permiso de residencia
8906P	<i>berriro hutsegite</i>	reincidencia
8906P	<i>barne-mailatan gora egite</i>	promoción interna

Guztira, 9 aditzondo desberdin hauek aurkitu ditugu:

(200)

<i>aurka</i>	<i>bazter</i>	<i>bertan</i>
<i>aurrera</i>	<i>berriro</i>	<i>derriorrez</i>
<i>atzera</i>	<i>berriz</i>	<i>gora</i>

### 6.1.3.2.-Adberbio-esapideak

Hona, aurkitu ditugun 6 adberbio-esapide desberdinak:

(201)

<i>aurrez aurre</i>	<i>behin eta berriz</i>	<i>bertan behera</i>
<i>etxerik etxe</i>	<i>nahita</i>	<i>nahitaez</i>

Aurrekoan bezala, hainbat garai eta mota desberdinetako ESTen baliokideetan aurkitu ditugu:

(202)

36	<i>aurrez-aurre jarri</i>	impugnar
8102R	<i>legea hausten bete-bete harrapatu</i>	flagrante delito
8308P	<i>etxerik-etxe saltze</i>	venta a domicilio
8815P	<i>hauspenak behin eta berriz egite</i>	reincidencia
8906P	<i>bertan behera utzi</i>	sobreseimiento
9204P	<i>zereginak nahitaez burutu</i>	ejecución forzosa
9605P	<i>behin eta berriz egin</i>	reincidencia

### 6.1.3.3.- Partizipioan oinarriturikoak

Garai guztietan aurkitu ditugu partizipioan oinarrituriko adberbioak, baina beti aditzaren edo aditz-izenaren ordainetan:

(203)

37	<i>salaturik aurkitu</i>	inculpado
78	<i>deusestaturik utzi</i>	derogar
8506P	<i>zahar-sarrituta egon</i>	jubilación
8905P	<i>indargabetuta geratze</i>	prescripción
9003P	<i>hartuta euki</i>	ocupación
9005P	<i>ezinduta gelditze</i>	incapacidad (jurídica)
9413P	<i>ezetsita egon</i>	recusación
9610T	<i>okupatuta egon</i>	ocupación

Desberdinak honako 9 hauek dira:

(204)

<i>salaturik</i>	<i>indargabetuta</i>	<i>okupatuta</i>	<i>irabazita</i>
<i>deusestaturik</i>	<i>hartuta</i>	<i>legeztatuta</i>	<i>aitortuta</i>
<i>sarrituta</i>	<i>ezetsita</i>	<i>ezinduta</i>	

#### 6.1.3.4.- Adizlagunak

Oso ugari dira, 62, deklinabide-kasuen gainean eraturiko adizlagunak. Honako deklinabide-atzizkiak aurkitu ditugu: inesiboa, ablatiboa, soziatiboa, instrumentala, motibatiboa eta prolatiboa. Hona adibide batzuk (205)

36	<i>iritziz kidetze</i>	conciliación
36	<i>zuzen itxuraz jantzi</i>	justificar
37	<i>legez kentze</i>	expropiación
79	<i>auzitan sartu</i>	procesamiento
8103P	<i>auzitan aurkezte</i>	personarse
8312P	<i>kalteegatik ordaina eman</i>	indemnización
8314P	<i>aldiaz galtze</i>	prescripción
8328P	<i>ihardunetik aldentze</i>	suspensión de funciones
8906P	<i>kargutik kentze</i>	destitución del cargo
9103P	<i>indarrean dagoen legedi</i>	legalidad vigente
9104P	<i>legez argipidea emate</i>	informar preceptivamente
9203F	<i>testamentua elkarrekin egite</i>	testamento mancomunado
9204P	<i>astuntzat jo</i>	tipicidad

#### 6.1.3.5.- Zein ESTtatik datozen.

Adberbioak aditz-egiturari lotuta doaz. EUSBen egitura orokorrak aztertzerakoan ikusten genuen, aditz-egiturak ez zeudela soilik aditz-sintagma egiturako EUSBetan, baizik eta, izen-sintagma egiturakoetan ere, bereziki, erlatibozko perpausa zutenetan, eta aditz-izena zein partizipioa buru zeukaten izen-sintagmetan. Mota horietan denetan aurkitu ditugu adberbioak.

Ikus dezagun orain nolako egiturak dauden EUSBetako adberbioak ematen dituzten jatorrizko ESTetan.

- **Batzuk, izen soiletatik datoz:**

(206)

36	<i>gurasordekoen mende egon</i>	tutela
36	<i>iritziz kidetze</i>	conciliación
37	<i>legez kentze</i>	expropiación
79	<i>auzitan sartu</i>	procesamiento
8312p	<i>kalteengatik ordaina eman</i>	indemnización
8314p	<i>aldiaz galtze</i>	prescripción
8807p	<i>atzera egite</i>	retracto
8815p	<i>hauspenak behin eta berriz egite</i>	reincidencia
9203f	<i>aipatu gabe egon</i>	preterición
9413p	<i>ezetsita egon</i>	recusación

Kasu guztietan, nominalizazioak ditugu EST jatorrizkoan, eta euskarazkoak, 'adberbio + aditza' egiturak, haien parafrasi moduko itzulpenak sortuaz.

- **Beste batzuk, iz + adj egituratik**

(207)

(a)	78	<i>x-rako esku bakarrik eduki</i>	competencia exclusiva
(b)	80	<i>erregistroan sartze</i>	inscripción registral
(c)	8102r	<i>legea hausten bete-betean harrapatu</i>	flagrante delito
(d)	8906p	<i>aurrekontuetan diruz hornitu</i>	dotación presupuestaria
(e)	9203f	<i>testamentua elkarrekin egite</i>	testamento mancomunado
(f)	9204p	<i>zereginak nahitaez burutu</i>	ejecución forzosa
(g)	9610p	<i>barne mailatan gora egin</i>	promoción interna

Bitan (207b, 207d), ESTetan adjektibo erreferentzialaren bidez adierazten dena, euskaraz adberbioaren bidez ematen da. Guztietan, aurrekoetan bezala, itzulpen parafrastikoaren kutsua daukate EUSBek.

- **Beste batzuek, iz + prep + iz daukate jatorrian.**

(208)

8607p	<i>epaitegian aurrera jotze</i>	interposición de recurso
8906p	<i>kargutik kentze</i>	destitución del cargo
8906p	<i>egitekoetan eten</i>	suspensión de funciones
9412p	<i>hildakotzat jotze</i>	declaración de fallecimiento
79	<i>gorago jo</i>	recurso de alzada
8314p	<i>agintepideaz gehiegikeriaz baliatu</i>	abuso de autoridad
8328p	<i>ihardunetik aldentze</i>	suspensión de funciones

### 6.1.3.6.- Adberbioak, aditz arrunten osagarri / zehazgarri

EUSBetan *adberbio + aditz / aditz-izen* egitura maiz agertzen da aditz-erro berarekin. Ikus dezagun egitura hori euskal aditz erabilienekin: *egin, egon, eman sartu, utzi, jarri*.

- **Egin aditza + adberbioa:**

(209)

37	<i>aurka egin</i>	impugnar
8815P	<i>hauspenak behin eta berriz egite</i>	reincidencia
8807P	<i>atzera egite</i>	retracto
8308P	<i>atzera egiteko eskubide</i>	derecho de desistimiento
9605P	<i>derrigorrez egin behar izan txostena</i>	informe preceptivo
9610P	<i>barne mailatan gora egin</i>	promoción interna
9203F	<i>testamentua elkarrekin egite</i>	testamento mancomunado
9407P	<i>berriz egite</i>	reincidencia
9407P	<i>behin eta berriz egite</i>	reiteración

- **Egon**

(210)

36	<i>gurasordekoen mende egon</i>	tutela
8201P	<i>bertan egon</i>	personarse
8503P	<i>espetsxean sartuta egote</i>	reclusión
8506P	<i>zahar-sarituta egon</i>	jubilación
9104P	<i>erroldan erroldaturik egote</i>	inscripción registral
9203F	<i>aipatu gabe egon</i>	preterición
9413P	<i>ezetsita egon</i>	recusación
9610T	<i>okupatuta egon</i>	ocupación

- **Eman**  
(212)
 

8312P	<i>ontzat emandako betebeharrak</i>	obligación reconocida
9412P	<i>erregistroan izena eman</i>	inscripción registral
9504P	<i>errentan emate</i>	arrendamiento
  
- **Hartu**  
(213)
 

8314P	<i>bahituran hartzeko manu</i>	providencia de embargo
8319P	<i>alokeran hartzaile</i>	arrendatario
9003P	<i>hartuta euki</i>	ocupación
9203F	<i>ordezkotzan hartze</i>	subrogación
  
- **Jarri**  
(214)
 

36	<i>aurrez aurre jarri</i>	impugnar
9416P	<i>jendaurrean jarri</i>	información pública
8909	<i>indarrean jarri</i>	promulgación
8309P	<i>ihardunez X.en menpean jartze</i>	dependencia orgánica
  
- **Sartu**  
(215)
 

79	<i>auzitan sartu</i>	procesamiento
8325P	<i>erroldean sartu</i>	inscripción registral
8709P	<i>indarrean sartu beriro</i>	reconducción
9503P	<i>espetxean sartuta egote</i>	reclusión
  
- **Utzi**  
(216)
 

37	<i>zerga gabe uzte</i>	exención tributaria
78	<i>deuseztaturik utzi</i>	derogar
8906P	<i>bertan behera utzi</i>	sobreseimiento
9204P	<i>baliorik gabe uzteko aldi</i>	prescripción
9101T	<i>bete gabe uzte</i>	incumplimiento

Adibide horiek erakusten duten bezala, oso emankorra da egitura hau; garai guztietan gainera.

Kontuan hartzekoa da aurreko adibideotan, ESTetan adierazten den adigai aski zehatz eta teknikoaren euskal baliokidea aditz guztiz arruntari adberbio bat erantsiaz eratzen dela.

(217)

<i>aurka egin</i> = impugnar	<i>atzera egite</i> = retracto
<i>berriz egite</i> = reincidencia	<i>bertan egon</i> = personarse
<i>aipatu gabe egon</i> = preterición	<i>ezetsita egon</i> = recusación
<i>aurrez aurre jarri</i> = impugnar	

#### 6.1.3.7.- Berriro = re-

*Berriro*, eta horren baliokide diren *berriz*, *behin eta berriz* adberbioek ESTetako *re-* aurizkiaren balioa dute hainbat kasutan, *reincidencia*, *reiteración*, *reinscripción*, *reparcelación* hitzen baliokideak emanez, ondoko adibideotan ikus daitekeen modura.

(218)

9306P	<i>berriro erori</i>	reincidencia
9407P	<i>arau-haustek behin eta berriz egite</i>	reincidencia
9504P	<i>berriz egin</i>	reiteración
9407P	<i>behin eta berriz egite</i>	reiteración
9417P	<i>lur-sailak berriz zatitze</i>	reparcelación
8206R	<i>berriro gizarteratze</i>	reinserción social
8799	<i>indarrean sartu berriro</i>	reconducción

#### 6.1.4.- Izenlagun funtzioan

Gorago, 104. taulan, ikusten genuenez, oso ugariak dira 'adberbio +-ko' osakerako izenlagunak, 318 guztira. Horietako gehienek, adizlaguna dute oinarri.

Ondoko zerrendetan ikus daitezke izenlagun funtzioan aurkitu ditugun 25 aditzondoak, 13 adberbio-esapideak eta 19 partizipioan oinarriturikoak:

(219)

Aditzondoak	Adberbio-esapideak	Part + -ta /-rik + -ko
agizko	aldi baterako	aitortutako
akziokako	behin betirako	egindako
atalkako	nahi bezalako	eskubidegabetutako
banakako	erabateko	izendatutako
bateango	behin-behingo	arrazoituriko
benetako	etxerik-etxeke	egiaztatutako
berarizko	nahitezko	eskuratutako
berdineango	behinbehingorako	legeztaturiko
berenezko	etxez etxeke	arrazoitutako
bertako	ezinbesteko	egitaraupetutako
betiko	behin-betiko	gaitasungabetutako
derrigorrezko	etxerik -etxekako	onartutako
luzaroko	halabeharrezko	bateratutako
etengabeko		elkartutako
guztizko		gordetako
gutxieneke		sendetsitako
gutxienezko		beretzakotutako
bitariko		eraberritutako
gerorako		izandako
ohiko		
orotariko		
osoko		
zaticako		
zeharkako		
goragoko		

##### 6.1.4.1.- Zein ESTetik datozen

Izenlagunak, adjektibo funtzioa betetzen duenez, adberbioz osatutako izenlagunetan ere funtzio sintaktiko horixe du, oro har.

Eta zein ESTren baliokide agertzen diren horrelako egiturak jakin nahi badugu, honako emaitzak ditugu:



- **Izena direnak**

16 bakarrik dira, hau da, % 6,5. Izenaren ordain gisa *izenlagun*+ *izen* egitura dagoen beste kasuetan bezala, euskarazko terminoa espainierazkoaren azalpen modukoa izaten da.

(220)

8201P	<i>lansaripeko langile</i>	asalariado
8309P	<i>agintepeko eremu</i>	jurisdicción
8314P	<i>atzera-indarrezko jabetze</i>	retracto
8314P	<i>ondarez gainetikako emaitza</i>	legado
8803P	<i>legezko gaitasun</i>	legitimación
9003P	<i>Zigor-Legepeko hogen</i>	delito
9204P	<i>agintezko eskaera</i>	requerimiento

- **Izena + adjektiboa**

Izenlagunaren adjektibo balioa berretsita agertzen da mota honetako izenlagunetan; izan ere, jatorrian duten ESTetan ia beti adjektiboa dago: 244/318, hau da, % 76,7tan.

(221)

8906P	<i>gutxieneko zerbitzuak</i>	servicios mínimos
9004P	<i>Zatikako Egitamu</i>	plan parcial
9006P	<i>bateango sail</i>	órgano colegiado
9105P	<i>zeharkako zerga</i>	impuesto indirecto
8906P	<i>beharrezko zerbitzu</i>	servicio esencial
8909P	<i>legezko segurtasun</i>	seguridad jurídica
9002P	<i>bakarreango aginpide</i>	competencia exclusiva
9003P	<i>behartze-indarrezko txosten</i>	informe vinculante
9004P	<i>Lurralde-mailako aginpide</i>	competencia territorial

- **iz + prep + iz**

Gainerako 58 kasuetan, hau da, %24an, gisa honetako izenlagunaren sorburuan *iz + prep + iz* egiturako EST bat dago.

(222)

9004P	<i>presazko ihardunbide</i>	procedimiento de urgencia
9004P	<i>Hiri-Antolakuntzako Egitamu Nagusi</i>	lan general de ordenación urbana
8906P	<i>norbere gauzetarako baimen</i>	permiso por asuntos propios
8909P	<i>Hirigintza-lanetarako eskubide</i>	derecho de urbanización
8910T	<i>lanerako baldintzak</i>	condiciones de trabajo

### 6.1.5.- Iruzkinak

Hasierako 102., 103., eta 104. tauletan agertzen den bezala, oso ugariak dira EUSBetako adberbioak. Kategoría honetako hitzen erabileran dagoke diferentziarik nabarmenetako bat ESTen eta EUSBen artean.

Dudarik gabe, adberbio-funtzioan agertzen direnen kopuruak zerikusi zuzena dauka adizkiaren (aditz jokatua, aditz-izena, partizipioa) presentziarekin.

Seinalatzekoa iruditzen zaigu nola baliatzen den adberbioez, hainbat aditz arrunten esanahia zehaztuaz ESTetako termino juridiko aski teknikoen baliokideak eratzeko.

Halaber ausartuko ginateke esatera zenbait kasutan adberbioak baliatuz eraturiko segmentu baliokide askoren balio terminologikoa zalantzazkoa dela, izendapenak baino areago azalpenak direlako.

## 6.2.- EUSBetako adjektiboen azterketa

Kapitulu honen bigarren atalean aztertu ditugu EUSBen egitura nagusi gisa 'izen + izenondo' dutenak.

Oraingoan, azterkizun ditugu ez egiturak, baizik eta adjektiboaren kategoria lexikoan sar daitezkeen hitzak, hau da, izenondoak, eta izenaren aurretik edo atzetik para daitezkeen *-dun* zein *-tar* atzizkiez osatutakoak.

### 6.2.1.- Adjektiboen agerpenak

Ondoko taulan corpuseko adjektiboei buruzko hainbat datu orokor ikus daiteke.

	1.GUZTIRA	2. Zenbatetan adj	3. Zenbat adj
			%
<b>EST</b>	880	430	49%
<b>EUSB</b>	2.858	336	12%

**105. taula: Adjektiboak ESTetan eta EUSBetan**

Lehen zutabeen gogorarazten dugu zenbat EST eta zenbat EUSB dauden guztira corpusean. Bigarrenean, horietako zenbatetan dagoen adjektiboren bat, eta zein ehuneko osatzen duen. Hirugarrenean ikus daitezke guztira dauden adjektiboen kopuruak.

Jadanik EUSBen egiturak aztertzen genituelarik azpimarratzen genuen 'izen+ izenondo' egitura aski urria zela euskaraz, bereziki erdarazko kopuruekin alderatuz gero: (%9 euskarazkoan, % 41 espainierazkoan). Adjektiboen presentziari dagokionez, oso antzeko ehunekoak ditugu. Euskarazkoetan %12an bakarrik dago adjektiboren bat, aldiz, erdarazko bitik batean (% 49), badago adjektibo bat gutxienez. Gainera, adjektiboen kopuru totali begira ikus dezakegu ESTetan 155 gehiago daudela, eta EUSBetan 10 gehiago. Horrek esan nahi du, EST askotan adjektibo bat baino gehiago dagoela, eta aldiz, euskarazkoetan oso bitxia dela ondoko adibideotan ikus daitekeen gertaera hori.

(222)			
79	<i>antolakizuneko plan municipal orokor</i>		plan general de ordenación urbana
9607p	<i>Iharduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuak</i>		actividades molestas, insalubres, perjudiciales y peligrosas

Garaikako banaketari dagokionez, ez dago ia aldaketarik 'izen+ izenondo' egitura nagusia aztertzen genuenean ateratakotik:

Adjektiboak	
<b>A garaia</b>	35
<b>B garaia</b>	78
<b>C garaia</b>	61
<b>D garaia</b>	172
<b>Guztira</b>	346

**106. taula: Adjektiboak garaika**

Hortaz, esan daiteke oro har adjektiboen erabilera oso gorabeheratsua dela garai batetik bestera, eta C garaian ihes egiten zaiola izenondoaren erabilerari, nabarmenki.

### 6.2.2.- Nolako adjektiboak

Era guztietako adjektibo lexikoak daude corpusean. Horien azterketarako interesgarri iruditu zaigu hainbat irizpide desberdinen araberako multzoak egitea, corpuseko adjektiboen ezaugarrien berri hobeto emateko. Honela banatu ditugu:

- "Izenondo bakunak"
- Izenondo eratorriak eta elkartuak
- Partizipioak
- Erreferentzialak
- 

#### 6.2.2.1.- "Izenondo bakunak":

"Izenondo bakun" esapidearekin adierazi nahi dugu, eratorpen edo elkarketarik gabe izenondo kategoria (besteak ukatu gabe) daukana. Hemen, "ohikoak" eta "maileguzkoak" bereizi ditugu, ez, noski hitzaren jatorria axola zaigulako, baizik eta, iruditu zaigulako badirela ohiko hitzak direnak, aldaketa formalik gabe behar terminologikoetara egokituak izan direnak, eta beste batzuk, berriz, tradizio eskasekoak eta itzulpenaren beharretarako *ad hoc* mailegatuak.

Honela, "ohikoen" artean ondoko zerrendetan agertzen diren 19 hauek kokatu ditugu, eta maileguzkoen artean, alde batera utziaz aurrerago erreferentzialen artean aztertuko ditugunak, honako 7 hauek:

(223)

“Ohikoak”		“Maileguzkoak”
<i>argi</i>	<i>berezi</i>	<i>konpatible</i>
<i>arin</i>	<i>egoki</i>	<i>pasibo</i>
<i>astun</i>	<i>goren</i>	<i>subsidiario</i>
<i>libre</i>	<i>handi</i>	<i>absolutu</i>
<i>berdin</i>	<i>huts</i>	<i>minimo</i>
<i>jare</i>	<i>oso</i>	<i>misto</i>
<i>labur</i>	<i>txiki</i>	<i>partzial</i>
<i>larri</i>	<i>zahar</i>	
<i>lau</i>	<i>zehatz</i>	
<i>nabarmen</i>		

6.2.2.2.- Eratorriak, konposatuak, *-dun*, *-tar* atzizkidunak

Erartorpena aztertzerakoan egin genuen atzizki bakoitzarekin eraturikoen azterketa xehetua. Gogora ditzagun zein ziren izenondo-sortzaile emankorrenak

- *-garri* atzizkia da alde handiz emankorrena: 15 hitz desberdinekin.
- *-kor* atzizkia, aldiz, oso gutxiren iturri da: 3
- *-tzaile* /*-le* atzizkia, izen-sortzaile bada ere, maiz izen horiek izenondo dira.

(224)

80	<i>erabaki gehigarri</i>	disposición adicional
8108T	<i>araupide osagarri</i>	norma complementaria
9007P	<i>ondasun higigarri</i>	bien mueble
9309T	<i>Estatuaren Aurrekontu Orokor</i>	Presupuestos generales del Estado
8906P	<i>interes orokor</i>	interés general
9203F	<i>ondasun mugikor</i>	bien mueble
9204P	<i>ezintasun iraunkor</i>	incapacidad permanente
37	<i>Lege-gizon aldezele</i>	abogado defensor

Halaber, elkarketa aztertzerakoan eman genuen izenondo elkartuen berri. Honakoak dira:

- *-gaitz* /*-kaitz*, 3tan agertzen da (*higikaitz*, *mugikaitz*, *osasungaitz*)
- *-ezin*, 5etan: (*ukiezin*, *elkartuezin*, *mugiezin*, *higiezin*)

Esan dugunez, *-dun* eta *-tar* hizkiak bereziak dira, osatzen dituzten hitzak ez direlako beti izenondoak. Hain zuzen ere, EUSBetan dauden *-tar* atzizkiaz eraturiko bi hitzetatik, (*herritar*, *europear*), lehena 6 bider agertzen da izen bezala, eta behin bakarrik adjektibo gisa. Horien iruzkina aurrerago, izenondo erreferentzialetan, irakur daiteke. Hona hemen, dena dela, EUSBetan dauden *-dun*, *-tar* guztiak:

(225)

79	<i>autonomidun herrialde</i>	comunidad autónoma
9309T	<i>erakunde autonomiadun</i>	comunidad autónoma
80	<i>ekintza herritar</i>	acción popular
8603	<i>elkarte europear (sic)</i>	comunidad europea

### 6.2.2.3.- Partizipioak

Ondoko taulan ikus daitezke garaiz garai izenondo funtzioan erabili diren partizipio desberdinak, eta kopuruak.

	<b>kop</b>	<b>desberdinak</b>
<b>A Garaia</b>	3	<i>arkitu, mugatu, nekaldu,</i>
<b>B Garaia</b>	8	<i>berregin, berritu, eraberritu, errefunditu, kolejiatu, mugiezin, partekatu, zertifikatu,</i>
<b>C Garaia</b>	4	<i>ireki, kolejiatu, mugiezin</i>
<b>D Garaia</b>	17	<i>arrazoitu, artikulatu, bateratu, baterabildu, bereganatu, erantsi, erkatu, eskuratu, higiezin, ireki, konparatu, programatu,</i>
<b>Guztira</b>	32	

**107. taula: Partizipio-izenondoak garaika**

Nabarmentzekoa da B garaiak, askoz EUSB gutxiago dituelarik, mota honetako izenondo gehiago edukitzea C garaiak baino.

Izenondo partizipioen iturburuari begiratzuz gero, gainerako adjektiboekin baino areago gertatzen da pareko egitura baten ordain izatea, hau da, euskarazko partizipioaren jatorrian, ia beti, ondoko adibideek erakusten duten bezala, erdarazko partizipio bat dagoela (226a-f), bi salbuespen bakarrekin (226g), eta (226h):

(226)

(a)	37	<i>nekaldu</i>	inculpadao
(b)	37	<i>bazkun mugatu</i>	sociedad limitada
(c)	78	<i>testu berritu</i>	texto refundido
(d)	78	<i>testu berregin</i>	texto refundido
(e)	80	<i>kopia zertifikatu</i>	copia certificada
(f)	80	<i>testu eraberritu</i>	texto refundido
(g)	9601p	<i>txanda ireki</i>	turno libre
(h)	9203f	<i>zorpetu</i>	deudor

### 6.2.2.4.- Konparazio-izenondoak

Oso gutxi dira: ondoko adibidean ikus daitezken hiru hauek bakarrik:

(227)

37	<i>eskubide berezien</i>	derecho preferente
9406P	<i>maila txikien</i>	grador menor
9416P	<i>toki erakunde txikiagoa</i>	entidad local menor

### 6.2.3.- Adjektibo erreferentzialak

Adjektibo erreferentzialen gaia inguruko hizkuntzetan hizkuntza orokorrari dagokion gaia izaten da, baina euskaraz, aipatzen den aldiro,

terminologia edo hizkera bereziak daude tartean. Izan ere, gai horri buruz hertsiki zuzenduak argitaratu diren lan ezagunenetan<sup>41</sup> terminologia erdi-erdian dago.

Zabalaren (1997) lana hartuko dugu azterketa honen gidari, bertan jasotzen direlako aurreko ekarpen guztiak eta lehenago multzo bakar bezala azterturiko horretan azpisail guztiz baliagarriak proposatzen dituelako.

Gure euskal corpusean izenondo erreferentziala esatea ia-ia maileguzko hitza esatea da. Egia da ez direla ugari horrelako izenondoak euskal tradizioan, baina Zabalak (1997:541) oharrarazten duenez, *-tar* atzizkiaz sorturiko adjektibo batzuk erreferentzial sailkatzailetzat eman daitezke. Gorago (VI. 4.7.1., VI. 6.2.2.) ikusitako *ekintza herritar* eta *Elkarte Europear* okerrak dira adibide bakarrak.

### 6.2.3.1.- Erreferentzialak eta besteak

Erreferentzialak direnak eta ez direnak banatzeko Zabalaren irizpideak aplikatzerakoan, ez da beti erraza bereiztea maileguzko izenondoen artean zein den erreferentziala eta zein kalifikatzailea.

Badira, Demontek (1999:138) proposatzen dituen hiru froga sintaktikoak pasa ondoren gure ustez argi eta garbi erreferentzialtzat eman daitezkeenak; baina aitortu behar da erabilera batzuetan kalifikatzaile gisa jokatzeko dutela. Ondoko hauek aurkitu ditugu:

(228)

<i>administrari(sic)</i>	<i>ierarkiko</i>	<i>komunal</i>	<i>sindikal</i>
<i>ekologiko</i>	<i>instituzional</i>	<i>konstituzional</i>	<i>sozial</i>
<i>fisiko</i>	<i>intelektual</i>	<i>lokal</i>	<i>zentral</i>
<i>fiskal</i>	<i>judizial</i>	<i>okupazional</i>	<i>zibil</i>
<i>foral</i>	<i>juridiko</i>	<i>organiko</i>	<i>herritar</i>
<i>geografiko</i>	<i>komertzial</i>	<i>penal</i>	<i>europear(sic)</i>
<i>administratibo</i>	<i>ofizial</i>	<i>publiko</i>	

Baldintzak betetzen ez zituztenez, kalifikatzailetzat jo ditugu ondoko izenondo maileguzko hauek:

(229)

<i>adizional</i>	<i>esklusibo</i>	<i>subsidiario</i>
<i>autonomo</i>	<i>jeneral</i>	<i>partzial</i>
<i>aurreautonomiko</i>	<i>kolektibo</i>	<i>preautonomiko</i>
<i>normatibo</i>	<i>tekniko</i>	<i>profesional</i>

Ondoko taulan ikus daitezke garaiz garaiz erreferentzialtzat eman ditugun kopuruak.

<sup>41</sup> Gai horretara berariaz zuzendutakoak honako hauek dira: Ensuntza:1987, Loinaz:1995, España:1997, Zabala:1997

	Adj Erref.
<b>A garaia</b>	0
<b>B garaia</b>	35
<b>C garaia</b>	5
<b>D garaia</b>	40
<b>Guztira</b>	80

**108. taula: Izenondo erreferentzialak garaika**

Oso deigarria da B garaian dagoen agerpen ugaritasuna; gainera, hurrengo hamarraldi osoan 5 EUSBetan besterik ez agertzeak areagotu egiten ditu garaien arteko diferentziak. D garaian, berriro ugari dira, baina proportzioan, B garaian baino askoz urriago. Adjektiboen erabilerari buruzko joerak hemen areagotuak agertzen zaizkigu.

Euskaraz izenondo erreferentziala duten EUSB zein ESTetatik eratorriak diren aztertzen badugu, ondokoak bezalako sorburuak aurkitzen ditugu:

(230)			
(a)	80	<i>plantila organiko</i>	plantilla orgánica
(b)	80	<i>jabego intelektual</i>	propiedad intelectual
(c)	9103P	<i>pertsona juridiko</i>	persona jurídica
(d)	9104P	<i>erabaki administratibo</i>	resolución administrativa
(e)	9105P	<i>estatuaren administrazio zentral</i>	administración central
(f)	79	<i>egoitza administrari</i>	vecindad administrativa
(g)	9416P	<i>Inpaktu ekologikoaren balioespen</i>	evaluación de impacto ambiental

Adibideok adierazten dutenez, erdal 'izen + adjektibo' sekuentziaren parean beti daukagu euskaraz 'izen + izenondo' bat non bi osagaiak gehienetan maileguzkoak diren, eta adjektiboari dagokionez, beti forma (oinarri + atzizki) berekoak, (230f) eta (230g) salbuespen direlarik.

#### 6.2.3.2.- Sailkatzaileak ala tematikoak?

Erreferentzialen artean bereiz daitezkeen azpi-multzoei dagokienez, EUSBetakoak (eta ESTetakoak) gehien-gehienak sailkatzaileak dira, azalduko ditugun salbuespenekin, baina oharrarazi behar da mota batekoak izan, zein bestekoak, denak erabiltzen direla sailkatzaile hutsak bailiran. Horren froga gisa ikus daiteke EUSBak itzulpenez eratzekoan hitzaren ordaina ematen dela gehienetan; baina erlazioa esplizitatu nahi denean irtenbide desberdin asko proposatzen dela. Eta horietako guztiak ezin zuzenak eta zehatzak izan. Begira ditzagun kasu batzuk.

- **Sindical**

10 bider agertzen da ESTetan, eta 6tan euskal ordaina hitz-elkartea da (231a) adibidean bezala. Besteetan, badugu egitura kalkatua (231b), (231c) edo izaera tematikoa azaldu nahi duena (231d). Esan beharko da testuinguruan zuzena

izan daitekeela baliokidetzatza, baina testuingurutik at ez duela balio. *Sindikalk* adjektiboa erabiltzen dutenak (hitz-hurrenkera okerra alde batera utzita) badute hitz-elkarteen erabilgarritasun bera, beti ere hitz hori adjektibo sailkatzaile hutsa kontsideratzen delarik.

(231)

(a)	8102P	<i>sindikaritzatza erakunde</i>	central sindical
(b)	8108T	<i>sindikalk elkarte</i>	central sindical
(c)	9204P	<i>delegatutza sindikalk</i>	delegado sindical
(d)	9204P	<i>sindikatuetatoko ordezkari</i>	delegado sindical

### • Administrativo

Begira dezagun erdarazko 'izen + administrativo' duten 64 ESTetatik abiatuta zer dugun EUSBetan

- o 'Izen + izenondo'. (232) adibideko horietan bakarrik agertzen da 'izen + izenondo' sekuentzia euskarazkoetan.

(232)

(a)	78	akto administratibot	acto administrativo
(b)	80	kontzesiot administratibot	concesión administrativa
(c)	9202P	kontratu administratibot	contrato administrativo
(d)	80	egoitza administratibot	vecindad administrativa
(e)	79	egoitza administrari	vecindad administrativa

*Administratibot* izenondoaren erabilerak erakusten du haren izaera bikoitza: batzuetan, tematikoa da, (232 a-c)<sup>42</sup>. Aldiz, (232d) ezin da azaldu 'administratziot egiten duen egoitza', edo 'administratziotaren egoitza', baizik eta 'administratziotarekiko harremanetarako norbaitek duen egoitza'. Baina parafraasi horiek posible badira ere, esan behar da EUSBen jatorrizko ESTetan *administratibot* adjektibot sailkatzaile gisa funtzionatzen duela:

Azpimarratzekoa (232e)-ko kasua, zeinetan, erdarazko hitz osoa mailegatu ordezt, euskal izenondo eratorri bat eratu nahi izan den, izenak sortzen dituen *-ari* atzizkiaren bidez.

- o Hitz-elkarketa 42 kasutan. Bi oinarri erabiltzen dira *administratziot-* edo *arduralaritza-*

(233)

8201P	<i>arduralaritzasail</i>	órgano administrativo
8309P	<i>arduralaritzat-egintza</i>	acto administrativo
8314P	<i>arduralaritzat-itun(e)</i>	contrato administrativo
8201P	<i>arduralaritzat-isil</i>	silencio administrativo
9406P	<i>administratziot-zuzenbidearen lege bide</i>	derecho administrativo
9417P	<i>administratziot-isilbide</i>	silencio administrativo
9605P	<i>Administratziot Jardunbide</i>	procedimiento administrativo

<sup>42</sup>Izan ere, 'administratziot egiten duen "aktoa"' edo *kontzesiot* edo *kontratua* parafrastatu daitezke.



Esan daiteke ez dela inolako bereizketarik egiten *administrativo* adjektiboarekin eraturiko terminoen esanahi desberdinen arabera. Badirudi elkarketa-egitura haren ordain automatikoa dela. Izan ere, izenaren eta modifikatzailearen arteko erlazioa ezkutuan geratzen denez, baliabide eroso gertatzen da.

- o Izenlagunarekiko egitura 16 kasutan daukagu.

4 dira *-ren* (234a,b) eta 12 *-ko*. Baina *-ko* izenlagunen artean hainbat aukera daude: *administrazio / ardulararitza + -ko* (234c), (234d); *administrazio / ardulararitza + -z + -ko* (234d),(234e), eta azkenik, *administrazio-mailako* postposizioa (234f).

(234)

(a)	8318P	<i>ardularitzaren erantzunik ez</i>	silencio administrativo
(b)	9104P	<i>Administrazioaren Jardunbide</i>	procedimiento administrativo
(c)	8312P	<i>ardularitzako ihardutze-sail</i>	órgano administrativo
(d)	9605P	<i>administrazioko organo</i>	órgano administrativo
(d)	8504T	<i>ardularitzazko lege</i>	derecho administrativo
(e)	8508P	<i>ardularitzazko bide</i>	procedimiento administrativo
(f)	9005P	<i>administrazio-mailako goradei</i>	recurso administrativo

Adibide horiek guztiek erakusten dutena da erosotasuna eta zehaztasuna batzuetan borrokan daudela. Izan ere, erdarazko 'izen + adjektibo erreferentziala' eta euskarazko egitura bera nahiz hitz-elkarketa, biak dira zehaztasun gabeak eta neurri horretan, erabilera erosokoak. Aldiz, deklinabidearen bidez zehaztu nahi delarik erdal adjektiboaren esanahia, gure ustez EUSBetan ez da beti behar bezala asmatzen.

### 6.2.3.3.- Erreferentzialak eta beste bideak lehian EST bera itzultzeko.

Orain arte ikusi dugu EUSBetan erreferentzialak badaudela, itzulpen-kalkoak izaten direla, eta hitz-elkarketarekin konpartitzen dutela hala erabilerosotasuna nola zehaztasun eza, izan ere, sailkatzaile hutsak bailira erabiltzen baitira. Orain ikusi nahi dugu, aurrekoen bidetik, beti ere ESTak eta EUSBak erlazonaturik erabiliaz, zenbateraino den beharrezkoa eta zenbateraino arazoak konpondu edo gaiztotzen dituen.

Corpusean agertzen diren *izen + izenondo erreferentziala* egiturak beharrezkoak diren, edo, alderantziz, ordain desberdinez ordeztea erraz den aztertzeko, beste kasu batzuetan bezala, ordainetan egitura hori ematen duten ESTak beste egituren bidez itzultzen ote diren beha dezakegu.

Lehn bezala, adibide batzuk hartuko ditugu.

- **Orgánico**

(235)

	<b>ley orgánica</b>
36	<i>oñarri-lege</i>
78	<i>lege organiko</i>
8001P	<i>lege organiko</i>
8207P	<i>oinarrizko lege</i>
8503P	<i>ihardutze-lege</i>
8803P	<i>funtsezko lege</i>
8906P	<i>oinarri-lege</i>

Argi dago erdal *orgánico* ez dela erreferentzial tematikoa, sailkatzaile hutsa baizik: nekez egin bailiteke lotura zuzena oinarrian duen *órgano* hitzarekin. Adigai horren berri emateko asmatu diren beste hitzek, ez dute, gure ustez izendapen zehatz horren bidez adierazten dena ematen.

- **Oficial**

(236)

37	<i>agintaritza-izparkari</i>	boletín oficial
37	<i>agintaritzaren egunerokoa</i>	diario oficial
78	<i>estatuko aldizkari ofizial</i>	boletín oficial del estado
80	<i>euskal herriko aldizkari ofizial</i>	boletín oficial del país vasco
78	<i>eusko kontseilu nagusiaren aldizkari ofizial</i>	boletín oficial del consejo general del país vasco
9605 p	<i>euskal herriko agintaritzaren aldizkari</i>	boletín oficial del país vasco

Hemen ez dugu hain epai gogorrik egiten; izan ere, ditugun adibide guztiak aldizkarien izenburuak dira, eta ez dago dudarik zilegia dela bi hizkuntzetako izenburuak elkarren itzulpen ez izatea; baina, testuinguru horretatik at, oso nolabaitekoa izango litzateke *agintaritzaren X* proposatzea *X ofizial* itzultzeko.

Halaz eta guztiz ere, arazoak eta akatsak seinalatuaz, ez dugu adierazi nahi 'izen + izenondo erreferentzial' egitura erabiltzea bere horretan onuragarri denik; izan ere, kasuak eta kasuak bereizten ari garenez, ondoko lerroetan, egitura hori mimetikoki ez erabiltzeaz irabazten dena erakutsi nahi dugu adibide baten bidez.

- **Social adjektiboaren ordainak**

39 EUSBen jatorrian dauden 12 ESTtan agertzen da. Baina 2 EUSBetan bakarrik aurkitzen dugu *sozial* izenondoa. Jakina denez, *social* erreferentzialaren erroan *sociedad* hitz polisemikoa dago eta hau bezala, hura ere polisemikoa da ondoko adibideok erakusten duten bezala.

(237)

(a)	(b)
asistencia social	domicilio social
cargas sociales	denominación social
reinserción social	patrimonio social
seguridad social	capital social
	estatutos sociales

Izan ere, (a) multzokoak, gizarteari osotasunean egiten diote, nola-hala, erreferentzia; (b) multzokoak aldiz, elkarte jakin bati.

Hori kontuan hartuta, argi dago 'izen + izenondo' egitura kalkatuaz, eta adjektiboa mailegatuaz, erdarazkoaren polisemia edo anbiguotasun bera izango genukeela. Ondoko adibideok (238)erakusten dutenez, corpusean ez da inoiz erreferentziala mailegatzeko *gizarte* adigaiari erreferentzia egiten dionean, eta bi kasutan, soilik *elkarte*-ri egiten dionean. Hortaz, *sozial* izenondoa adiera guztietarako erabiliaz gero, *elkarte* edo *gizarte* adierak aukeratu beharrak ematen duen zehaztasuna galdu egingo litzateke. Horrek ez dakar, ordea, ondoko zerrendako ordain ez kalkatuak denak onargarriak izatea.

(238)

36	<i>gizarte-laguntza</i>	asistencia social
9605p	<i>gizarteratze</i>	reinserción social
8206r	<i>birgizarteratze</i>	reinserción social
8108p	<i>gizarte-zorpideak</i>	cargas sociales
8601g	<i>gizarte segurantzaren jaurpide orokor</i>	régimen general de la seguridad social:
8201p	<i>baltzu-araudi</i>	estatutos sociales
9503p	<i>estatutu sozialak</i>	estatutos sociales
8201p	<i>baltzu-ogasun</i>	patrimonio social
8803p	<i>bazkun-ondare</i>	patrimonio social
9003p	<i>baltzu-izen</i>	denominación social
8803p	<i>bazkun-egoitza</i>	domicilio social
9103p	<i>baltzu-kapital</i>	capital social
9506p	<i>kapital sozial</i>	capital social

#### 6.2.4.- Ondorioak

Izenondoen erabileraz hainbat gauza esana dago EUSBen egiturak aztertzerakoan. Han bezala, esan behar da hizkuntza bietako corpusen konparazioan, izenondo gutxi dagoela euskaraz.

Bestalde, eta aurreko atal hartan bezala, nabarmentzekoa da zein diferentzia handiak dauden garai batetik besterako erabileretan. Era berean, gogora dezagun zein erlazio estua ageri den hitz-elkarketaren eta izenondoaren erabileren artean: bata handitzen delarik bestea urritu egiten da.

Joera nagusi bezala esan daiteke EUSBetan izenondo bat agertzen bada, ia segur delá ESTan adjektibo lexikoa izatea.

Aurkakoa, aldiz, ez da egia, ESTetako adjektibo gehienen ordainetan ez dago izenondo bat, beste zerbait baizik.

Deigarria da izenondoen artean zein proportzio handitan dauden maileguzkoak<sup>43</sup>.

Joera horiek are nabarmenagoak dira adjektibo erreferentzialen kasuan: ia guztiak maileguzkoak dira, eta beti datoz egitura paralelo baten ordainetan.

Era berean, ikusi dugu corpora bere osotasunean harturik nola 'izen + izenondo erreferentzial' gutxitan aukeratzen den egitura den, beste hainbat daudelarik alternatiba gisa; usuena, hitz-elkarketa.

Eta azkenik, adibide batzuen bidez egiaztatu dugu egitura hori alboraturik egindako EUSB batzuetan terminologiak eskatzen duen zehaztasunaren baldintza ez dela betetzen.

### 6.3.- Juntagailuak EU segmentuetan

EUSBen behaketak erakusten du bertan badagoela ohiko terminologietan (supra II., 2.2.3.4.) aski urria den kategoria gramatikal bat: juntagailua, eta horrek dakarren egitura sintaktikoa.

Hasi baino lehen egiaztatu nahi izan dugu zer jazotzen den ESTetan. Ondoko emaitzak lortu ditugu: 880 ESTetatik 9tan, hau da %1,02, agertzen da 'y' juntagailua. Horietako 3, EKA izenak hau da, erakunde edo legeen izendapen indibidualak, (239) adibideetako (a), (b) eta (c); beste 6ak oso termino arruntak eta erabiliak dira espainiar zuzenbidean. Ondoko (d)-(i) adibideetan ikus daitekeenez, juntagailuak dituzten ESTak esapide ihartuak eta oso erabilera ugarikoak dira.

(239)

- (a) Impuesto sobre sucesiones y donaciones
- (b) Corte internacional de arbitraje y conciliación ambiental
- (c) Ley de Régimen del Suelo y Ordenación Urbana
- (d) conflicto de competencia y de jurisdicción
- (e) cuenta de pérdidas y ganancias
- (f) derechos y obligaciones
- (g) seguridad e higiene
- (h) personas físicas y jurídicas
- (i) daños y perjuicios

---

<sup>43</sup>Esan dugun bezala, mailegutza adigaia ez dugu adiera filologikoan erabiltzen, baizik eta itzulpengintzan ematen zaion zentzuan, alegia, itzultzaileak, itzultzerakoan sorburu testutik hartzen duen hitza.

Begira dezagun orain zenbat juntagailu dagoen EUSBetan garaiz garai.

<b>Juntag</b>	
<b>A garaia</b>	1
<b>B garaia</b>	5
<b>C garaia</b>	39
<b>D garaia</b>	33
<b>Guztira</b>	78

**109. taula: Juntagailuak**

Ehunekoari dagokionez ( $78/2.858 = \%2$ ), ez dirudi gaztelaniazkoen ehunekoa bikoiztu arren oso kopuru handia denik; garaikako banaketa ere, zenbaki orokorreari nahiko egokitua iruditzen zaigu, esan nahi baita, ez dela joera nabarmenki desberdinik sumatzen garai batetik bestera.

Azpimarra daiteke ESTetan juntagailu bakarria dagoela 'y', euskal segmentuetan, berriz, 'eta', 'edo' 'ala' eta 'nahiz' ditugu.

(240)		
8805P	<i>zuriztapen edo ezabapen</i>	prescripción
37	<i>ezkongai ala ezkondu</i>	estado civil
9003P	<i>Ekonomi eta Administraritzako Epaitegi</i>	tribunal económico-administrativo
8801P	<i>gizabanako nahiz lege-nortasundun</i>	personas físicas y jurídicas

### 6.3.1.- Zein ESTetatik datozen

Bere baitan juntagailua duten 78 EUSBetatik, 55 dira erdarazkoen oihartzun, (241 a-e) bezala. Badira, halaber, erdarazkoak azalean ez duen batura juntagailuen bidez erakusten duten batzuk (241f).

(241)			
(a)	8201P	<i>eskubide eta egitekoak</i>	derechos y obligaciones
(b)	79	<i>hiri antolakizun eta orube errejimenari buruzko lege</i>	ley sobre régimen del suelo y ordenación urbana
(c)	8201P	<i>ondamen eta kalteak</i>	daños y perjuicios
(d)	8903P	<i>jarauntsi eta emaitza-zerga</i>	impuesto sobre sucesiones y donaciones
(e)	8906P	<i>laneko segurtasun eta higiene</i>	seguridad e higiene en el trabajo
(f)	9601P	<i>azterketa eta meritu bidezko lehiaketa</i>	concurso oposición

Baina badira 22 euskaraz juntagailua dutenak, horretarako arrazoia ez dagoelarik jatorrizko ESTan. Horietako zenbaiten arrazoia da hauetako adberbio-esapideren bat egotea: *behin eta berriz*, *behin eta berriro* bezala.

(242)

9306P	<i>Arau-haustea behin eta berriro egin</i>	reiteración
9407P	<i>arau-hausteak behin eta berriz egite</i>	reincidencia
8815P	<i>hauspenak behin eta berriz egite</i>	reincidencia
9407P	<i>behin eta berriz egite</i>	reiteración
9411P	<i>behin eta berriz erortze</i>	reincidencia
9605P	<i>behin eta berriz egin</i>	reincidencia
8205P	<i>zio eta gutzizko erabaki</i>	resolución motivada

Gainerakoetan, benetako parafrasiak ditugu terminoen ordainetan.

(243)

79	<i>konpetentzia lehiakide edo partekatu</i>	competencia concurrente
37	<i>ezkongai ala ezkondu</i>	estado civil
8201P	<i>ordezkatzeko edo bigarren mailako erantzukizun</i>	responsabilidad subsidiaria
8201P	<i>erabat eta berez baliogabeko</i>	nulo de pleno derecho
8205P	<i>zio eta gutzizko erabaki</i>	resolución motivada
8314P	<i>luzaroko eta etengabeko jaurgo</i>	usucapión
8805P	<i>zuriztapen edo ezabapen</i>	prescripción
9003P	<i>Ekonomi eta Administrazaritzako Epaitegi</i>	tribunal económico-administrativo
9003P	<i>asegurotako Izaiki edo Baltzu</i>	aseguradora
9004P	<i>egitarau eta gutziko hirigintza-lanetarako gai izanezko lur</i>	suelo urbanizable programado
9412P	<i>X-k du, eta ez beste inork, aginpidea</i>	competencia exclusiva
9601P	<i>Estatuaren eta autonomi elkartearen arteko aginpidea</i>	competencia concurrente
8308P	<i>hauspenak berriz edo beste batzutan egite</i>	reincidencia
8308P	<i>hauspenak berriz edo beste batzutan egite</i>	reiteración
9306P	<i>behin eta berriro egite</i>	reiteración

### 6.3.2.- Iruzkinak

Agerpenen kopuruak ez du ematen ondorio biribilik ateratzeko. Hala ere, Hainbat iruzkin egin daitekeela uste dugu, joera batzuk gutxienez, ematen baitira aditzera adibide horietan.

Oro har, adigai batzuk izendatzeko saioa baino gehiago, testu batzuen itzulpen librearen aurreko jokabidea erakusten dute. Juntagailua barnean duten EUSB horiek azalpenen kutsu gehiago baitute terminoena baino<sup>44</sup>.

Kasu batzuetan, (*asegurotako Izaiki edo Baltzu, zuriztapen edo ezabapen, esate baterako*) badirudi zalantza aurrean erabakirik ez hartzearen bi hitzak ematen direla, irakurleak aukera egin dezan.

<sup>44</sup>Orokortasun berarekin esan daiteke mailegutari ihes egiteko joera nabarmena dela, eta joera horrek hitzen ordeztalpenak ematera behartzen duela zenbaitetan

Adberbio-esapide aski erabili haiei buruz, esan daiteke ez diruditela egokienak mota honetako testuetarako, eta esanahi beretsuko bakunagoak aurki daitezkeela.

#### 6.4.- EU segmentuetako plural-markak

Plural-marka esaten dugunean, hitz deklinatuetan nahiz konjugatuetan agertzen diren pluralaren marka morfologikoari egiten diogu erreferentzia. Gogora dezagun EUSBak mugatzerakoan (V., 7.4.) erabaki genuela hainbat izen-sintagmari bere determinatzaile-pluratzailleak ez kentzea eta EUSB absolutibo pluralean uztea. Horrela jokatu genuen mugagabeen lematizatu, eta singularrean erabiliz gero haien esanahia aldatu egiten zelakoan. Guztira, 98 dira pluralean gorde ditugun izen-sintagma egiturako EUSBak.

Baina, sintagmaren plural marka gordetzea ez da EUSBen bereizgarria, izan ere, EST askotan gorde baititugu arrazoi berberengatik, eta bestalde, sintagma osoari eragin gabe ere, plural marka ugari aurkitzen ditugu ESTetan.

Bere baitan plurala duten ESTak 77 dira, hau da, guztira dauden 880ren 8,75%.

Plurala adierazten duen elementu morfologikoren bat daukaten EUSBen kopurua, 269koa da, hau da, guztizkoaren (2.858) 9,41 %. Aurreko ehunekoarekin konparatuta, aldea ez da handia; hortaz pentsa daiteke ez dagoela diferentzia nabarmenik gaztelaniazko eta euskarazko terminoen artean pluralaren erabilerari dagokionez.

Batzuk eta besteak erlazionatuaz, ateratzen dugu 77 EST haietatik, 63k ematen dutela plurala duen EUSBen bat; beraz, 14 kasutan, ESTan plurala egonda, ez da plural-markarik EUSBetan. Horren arrazoi nagusia da erdal 'izen + preposizio + izen' egitura duen sintagma baten ordaina euskarazko hitz-elkarketa denean, bigarren izena mugatzaile bihurtzen delarik pluralaren markak galdu egiten direla. Hori gertatzen da ondoko (244 a-e) adibideetan. Beste kasu batzuetan ordea, pluralaren ordainetan singularra egotea, gramatikarekin zerikusirik ez duen arrazoi batengatik izan daiteke (244f).

(244)

(a)	80	<i>kompetentzia- liskar</i>	conflicto de atribuciones
(b)	8102R	<i>Diputadu-Batzar</i>	congreso de los diputados
(c)	9005P	<i>taldeburu-Batzorde</i>	junta de portavoces
(d)	9103P	<i>kontu-ikuskaritza</i>	auditor de cuentas
(e)	9003P	<i>ogasun-elkargo</i>	comunidad de bienes
(f)	9203F	<i>Zuzenbidearen iturburu</i>	fuentes del derecho

Alderantzizko ikuspuntutik begiratu, 269 pluraldun EUSBetatik 148k daukate jatorria plurala duen EST batean (245 a-c), eta beste 121, pluralgabe batean (245d) eta (245e).

(245)

(a)	8312P	<i>baltzuen zerga</i>	impuesto de sociedades
(b)	8901P	<i>txatalen zerrenda</i>	pliego de cláusulas
(c)	8104P	<i>gorte nagusiak</i>	cortes generales
(d)	8332P	<i>eginbeharrak betetze</i>	cumplimiento de deber
(e)	9406P	<i>erakundeen administrazio</i>	administración institucional

Ondoko taulan ikus daiteke nola banatzen diren garaika 121 EUSB horiek:

	<b>EUSB + pl, EST -pl</b>
<b>A garaia</b>	9
<b>B garaia</b>	3
<b>C garaia</b>	66
<b>D garaia</b>	55
<b>Guztira</b>	121

**110. taula: Pluralak EUSBetan eta ESTetan**

Banaketak ez du ezer nabarmenik erakusten. Azpimarratzekotan, seinalatuko genuke B garaian gutxitan gertatzen dela.

#### 6.4.1.- Pluralaren esanahiak eta erabilera

Nolabait logikotzat eman daitezke ESTko pluralaren ordaina diren EUSBetako pluralak, Orain azterkizun daukaguna da zertarako erabiltzen den euskaraz plurala jatorrizkoak “eskatzin” ez duenean.

- **Plural “multzokaria”**

Hainbat kasutan, ESTan badago hitzen bat esanahi multzokaria duena. Gerta daiteke euskaraz ez egotea ohiko hitzik balio hori duenik. Itzultzaileak, sorburu-testutik xede-testura aldaketa handiagoak eragin nahi ez baditu, hainbat aukera dauzka: hitza mailegatu (*codigo = kode*) eratorpenez edo hitz-elkarketez adiera hori ematen duen unitate lexikoren bat osatu (*código = lege-bilduma; legedi = legislación*), edota, besterik gabe, deklinabideak eskaintzen duen plural-marka erabili (*legeak = código; langileak = personal*).

EU segmentuetan, *lanarigo*, *kidego* eta *gehiengo* hitzetan bakarrik aurkitu dugu *-go* atzikia adiera kolektiboan; *-eria-ri* buruz, agerpen bakarra dauka, *legeria* hitzean, eta *-di-ri* dagokionez, *legedi*, *araudi*, *aldundi* eta *Euz/skadi* besterik ez dugu ediren.



Hirugarren bidea daukagu hemen aztergai. Horren kasu argienak dira ESTan izen singular bat dagoelarik, EUSBan izen plurala, erreferentzia bera egiten duena, dagoenean. Honako kasu hauetan gertatzen da (errepikatuak kenduaz):

(246)	36	<i>agintaritzari ez dagozkion diru- etxeak</i>	banca privada
	36	<i>saleroste-arauak</i>	código de comercio
	36	<i>ondasunak</i>	herencia
	8510T	<i>lan-orduak</i>	jornada de trabajo
	9413P	<i>administrazioarekiko auzitarako auzitegiak</i>	orden contencioso- administrativo
	8103P	<i>legeak</i>	ordenamiento jurídico
	8315P	<i>legebideak</i>	ordenamiento jurídico
	8801P	<i>lege antolapideak</i>	ordenamiento jurídico
	8910T	<i>laneko segurantzaz eta osasunbideak</i>	seguridad e higiene en el trabajo
	8103P	<i>indarreango lege(ak)</i>	legalidad vigente
	8806R	<i>ezkontideak</i>	matrimonio
	8804P	<i>aitortutako zorpideak</i>	obligación reconocida
	8504T	<i>aldarteko lanariak</i>	personal eventual
	8805P	<i>zigor-jaurpideak</i>	régimen sancionador
	9605P	<i>legeak gauzatze</i>	ejecución de la legislación
	9203F	<i>adituak</i>	doctrina
	9203F	<i>jakintzuak</i>	doctrina

Beraz, adibide horien arabera, esan daiteke berdintasun hauek formula daitezkeela:

(247)		
	<b>EST</b>	<b>EUSB</b>
	doctrina	<i>adituak jakintzuak</i>
	código	<i>arauak</i>
	orden	<i>auzitegiak</i>
	deber	<i>beharkizunak betebeharrak eginkizunak egitekoak betekizunak</i>
	banca	<i>diru-etxeak</i>
	obligación	<i>eginbeharrak egitekoak eginkizunak zorpideak</i>
	matrimonio	<i>ezkontideak</i>
	personal	<i>lanariak langileak</i>
	legislación	<i>legeak</i>
	ordenamiento jurídico	<i>legeak legebideak lege antolapideak</i>
	herencia	<i>ondasunak</i>
	higiene	<i>osasunbideak</i>

Baieztapen horren alde egiten dute honako adibideok zeinetan agertzen baitira pluralen ordezkoko beste hitz batzuk, eratorpenez zein elkarketez eratuak.

(248)

36	<i>salerosle-legedi</i>	código de comercio
36	<i>saleroste-arauak</i>	id.
9605p	<i>legeak gauzatze</i>	ejecución de la legislación
9601p	<i>legeria gauzatze</i>	id.
8201p	<i>merkataritzako araubilduma</i>	código de comercio
9203f	<i>merkataritza-kode</i>	id.

- **Beste itzulpen parafrastikoak.**

Aurreko adibideetan (246), (247), (248), pluralak funtzio lexikoa duela esan badaiteke ere, beste kasu askotan ez da erraz hitzaren esanahira mugatzea pluralaren eginkizuna, baliokidetzaz emateko erabili diren tekniken arabera egitura desberdinak ditugulako.

Kasu batzuetan plurala agertzen da funtzioa edo egintza izendatzen duen hitz abstraktuaren ordezkari, aditza gehi aditz horren objektuak izendatzen direnean. Ondoko adibideotan jaso ditugu horrelako batzuk.

(249)

9007P	<i>lur-zatiketarako egiteko baimen</i>	licencia de parcelación
9605P	<i>araudiak egiteko ahalmen</i>	potestad reglamentaria
9406P	<i>elkartek sortzeko eskubide</i>	derecho de asociación
8909P	<i>derecho de urbanización</i>	hirigintza-lanak egiteko eskubide
8909P	<i>derecho de urbanización</i>	Hirigintza-lanetarako eskubide
8308P	<i>reincidencia</i>	hauspenak berriz edo beste batzutan egite
8308P	<i>reiteración</i>	hauspenak errepikatze

Beste kasu batzuetan adigaia adierazteko bideak aski igarriezinak dira, ondoko adibideotan bezala

(250)

79	<i>zor publikoaren agiriak emate</i>	emisión de deuda pública
9610t	<i>itsasuntzien ugazaba</i>	consignatario
9409p	<i>erakundeetako administrazioa</i>	administración institucional
9605p	<i>erabakia hartzeko izandako arrazoiak azaldu behar</i>	resolución motivada
36	<i>erritarren arkibideko lege</i>	ley del registro civil

#### 6.4.2.- Iruzkina

Begi bistakoa da modu desberdinean erabiltzen direla plurala markatzen duten baliabide morfologikoak EUSBetan eta ESTetan. Kasu batzuetan, noski, erabateko korrespondentzia dago, baina besteetan ez.

Erabilera horietan interesgarriena iruditu zaigu plural “multzokaria” deitu duguna. Horietan, euskaraz pluralaren bidez adierazten da erdaraz hitz bakun edo eratorri baten bidez adierazten den multzo-izatea.

Baina hainbat kasutan, ESTan “multzokari” bezala deskribatu dugun hitzak ez du izaki konkretuen pluraltasuna bakarrik adierazten, baizik haien izatasunari edo sistematasunari egiten dio erreferentzia, eta hori nekez erdiets daiteke, pluralaren marka morfologiko hutsez. Esate baterakoa *código* hitzak lege-multzoa adierazten du, baina ez hori bakarrik, lege-multzo guztiek ez baitute *código* bat osatzen. Euskaraz horren ordaina *lege* hitzaren pluralaren bidez emanaz, esanahiaren galeran egiten dela uste dugu.

Nabarmena da, gure ustez pluralaren erabilera horietan abstraktutasun apalagoa, eta konkretutasun handiagoa ageri dela. Hizkeraren apaltze hori ez da beti zehaztasunaren kalterik gabekoa. Esate baterako *general* eta *público* adjektiboek *interés general* eta *bienes de uso público* terminoetan, orokortasun abstraktua adierazten dute, baina “guztitasuna” ez da beharrezkoa. Euskarazko *guztien zudu*, *guztien interes*, *guztien on*, eta *orok erabiltzen dituzten ondasunak* erabatekotasuna adierazten dutenez, kasu batzuetan gerta daiteke interpretazio desberdinak egin ahal izatea, hitzaren balioa zalantzazkoa bihurtuaz.



## 7.- ALDERDI TERMINOLOGIKO BATZUEN AZTERKETA

Kapitulu honetako aurreko ataletan corpusaren azterketa hainbat alderdi linguistikotatik burutu badugu, honetan, EUSBek terminologiaren normalizazioaren ikuspegitik dauzkaten zertzelada batzuk aztertzeari ekingo diogu.

Horrela, lehenengo lau puntuetan EUSBak orokorrean harturik, jatorrian dituzten ESTekin erkatu ditugu, hala koantitatiboki nola hitz kopuruari, nola egiturari dagozkion hainbat puntu kontuan hartuaz.

Alde batetik, (7.1., 7.2. terminologiaren normalizazioari gomendatzen zaion helburua (supra II. 1.1.4.2.), adigai bakoitzari termino bat egokituko zaiola, eta termino bakoitzak adigai bakarra izendatuko duela dioena, nola betetzen den aztertuko dugu hainbat aldetatik. Esan beharra dago modu aski berezian ekingo diogula ikerlan horri: adigaia eta terminoa konparatu ordez, erdarazko terminoa (EST) eta euskarazko segmentu baliokidea (EUSB) izango ditugu konparakizun, hainbat aldiz egin dugun bezala.

Hurrengo puntuan (7.3.) ESTetako egitura bakoitzaren ordainetan nolako egiturako EUSBak dauden aztertuko dugu, kapitulu honetako 2. atalean egindakoa osatuaz.

Horren ostean, (7.4.) terminologiaren normalizazioaren beste eskakizun bat, terminoen erabilgarritasunari dagokiona, EUSBetan nola betetzen den begiratuko dugu, hala terminoen ordainetan ditugun segmentuen egiturak nola luzerak kontuan hartuaz.

Ondoren, (7.5.) terminologia juridikoan garrantzia berezia daukaten 3 erakunde juridikok —legeak, zergak eta eskubideak— konkretatzen direnean hartzen dituzten izendapenak, hartuko ditugu aztergai. III kapituluko 5.4. puntuan arrazoitzen genuen erakundeen, karguen eta arauen izenak, izen arruntez osatutako izen propioak, alegia, termino juridikoak zirela. Hemen aztertuko ditugun legeen eta zergen izendapenek, izen propioak direnez, forma finkatua eta zalantzarik gabekoa daukate jatorriko ESTetan. Eskubideei dagokienez, ez dira testu jakin batzuen izendapen bereziak, baina adibide gisa hartzen ditugu corpuseko termino batzuen zenbait ezaugarri aztertzeko.

### 7.1.- EST bakoitzak zenbat EUSB

Gure corpusean 880 EST hartu ditugu abiapuntu, eta 2.858 dira haien itzulpen-baliokide; horrek esan nahi du, EST guztiek, edo batzuek, EUSB bat

baino gehiago ematen dutela ordain gisa. Hurrengo lerroetan saiatuko gara aztertzen EST bakoitzak zenbait ordain ematen dituen, eta nolako multzoak egin daitezkeen ESTen artean emankortasun hori kontuan hartuta.

Ondoko taulan ikus daiteke nola banatzen den ESTen emankortasuna, esan nahi baita, zenbat EUSB dituen ordainkide. Horretarako, bilatu dugu zenbat diren ordain bakarria dutenak, zenbat bi EUSB ematen dituztenak, zenbat hiru, eta hortik gora, 10 edo gehiagora arte.

Zenbat ordain desberdin	ESTen kopurua	%
EUSB = 1	301	34,2
EUSB = 2	170	19,3
EUSB = 3	114	13
EUSB = 4	89	10
EUSB = 5	64	7
EUSB = 6	37	4
EUSB = 7	31	3
EUSB = 8	21	2
EUSB = 9	22	3
EUSB =>10	31	4
GUZTIRA	880	99,6

**111. taula: EST bakoitzak zenbat ordain**

Emaitza horien arabera, %34 dira ordain bakarria dutenak eta %66, ordain bat baino gehiagokoak. Heren handi batean, beraz, ez dago inolako sinonimiarik<sup>45</sup>: EST bakoitzeko EUSB bakarria baitago. Erdiak baino gehiagok (52,5) ordain bakarria edo bi ditu. Hortik aurrera gero eta gutxiago dira ordain asko ematen dituztenak, baina hala ere, kopuru handi samar batek ematen ditu ordain ugari: 206 dira 5 edo gehiago ordain ematen dituztenak, eta 31 EST dira 10 EUSB edo gehiagokoak.

Sinonimia handia daukatenean artean, ordain gehien ematen dituenak, *ordenamiento jurídico* terminoa da. Ikus ditzagun, adibide gisa, 16 ordain hauek:

(251)

<b>ordenamiento jurídico</b>		
(a)	8103P	<i>legeak</i>
(b)	8104P	<i>lege-erapidetza</i>
(c)	8210P	<i>lege-antolapidetza</i>
(d)	8315P	<i>lege-antolakuntza</i>
(e)	8315P	<i>legebideak</i>
(f)	8316P	<i>lege-bideak</i>
(g)	8327P	<i>lege-erabidetza</i>

<sup>45</sup>EUSB bi edo gehiago EST beraren baliokide direnean, esango dugu "sinonimoak" direla, nahiz eta izendapen hori ez den oso zehatza.

**ordenamiento jurídico**

(h)	8602P	<i>lege-antolaketa</i>
(i)	8605G	<i>lege ordenamendu</i>
(j)	8801P	<i>lege antolapideak</i>
(k)	8805P	<i>legebideak</i>
(l)	9002P	<i>lege-erakuntza</i>
(m)	9203F	<i>legebide</i>
(n)	9103P	<i>legedi</i>
(o)	9103P	<i>ordenamendu juridiko</i>
(p)	9605P	<i>zuzenbide-antolamendu</i>

Adibide honen bidez azal daiteke EUSBetako “sinonimiaren” hainbat zertzelada. Esate baterako, desberdintzat jaso ditugu 4 EUSB (e), (f), (k), eta (m), formalki desberdinak zirelako, eta *bide*-ren erabilera aztertzekeo baliagarri izan zitezkeelakoan. Eta gure ustez, baliagarri izan zaizkigu. *Legebide* eta *legebideak* desberdintzat jasotzeko arrazoiak ere azaldu ditugu pluralaren erabilera aztertzerakoan.

Beste adibideetan, diferentziak handiagoak dira: oinarri lexiko desberdinak (*antolamendu* / *erabidetza* / *ordenamendu*), edo oinarri beraren gaineko aldaera morfologikoak (*antolamendu* / *antolaketa* / *antolakuntza*), egitura desberdinak (hitz eratorria: *legedi*, hitz elkartuak (gehienak), 'izen + izenondo erreferentzial' eraikuntza sintaktiko kalkatua (*ordenamendu juridiko*).

Oharrarazi behar dugu ezin dela jakin ESTen emankortasun desberdin horren zergatia corpus honetan. Izan ere, kasu batzuetan erdal terminoa behin edo oso gutxitan erabiltzen delako izan daiteke, eta besteetan, berriz, agerpen guztietan ordain bera eman zaiolako. EUSB desberdinak bakarrik gordetzeko hautua egin genuenez, berdinak ez dira jaso, eta ezin dezakegu azterketa zehatzagorik egin. Edozein modutan, uste dugu “sinonimoen” kopuru handi horrek adierazten duela corpuseko terminologiaren “esperimentaltasuna” eta finkotasun eskasia.

## 7.2.- EUSB batzuen esanahi anizkoitza

Ikusia dugu, 7.1 puntuan, oso ugaria dela “sinonimia terminologikoa”, hau da, bi, hiru, edo gehiago EUSB egotea erdal termino bakoitzeko. Ezinbestekoa EUSBen eta ESTen kopuruak (2.858/880) alderatuz gero.

Baina galde dezakegu “polisemia terminologikorik” ba ote dagoen, esan nahi baita, ESTa “adigaia” balitz bezala hartuaz, EUSB batek EST desberdinak itzultzen ote dituen.

Azterketa horri ekin diogu, honako emaitzekin: 96 kasutan EUSB berak EST bat baino gehiago itzultzen du. Forma hutsari begiratuz gero esango genuke

96 EUSB daudela esanahi bat baino gehiagorekin. Kopuru hori, aurrerago ikusitakoerekin alderatuz, esan daiteke, bada, “polisemia” askoz urriagoa dela “sinonimia” baino.

Beste tresnak beharko genituzke puntu honetan sakontzeko, baina hainbat xehetasun eman daitezke “sinonimoen” zerrenden behaketa egin ondoren:

Kasu batzuetan itxurako “sinonimia” hori ezinbestekoa da, ESTek, formalki desberdinak izan arren, adigai bakarra izendatzen dutelako. Ondoko (252) adibidean ikus daitezkeen ESTetako *procedimiento* eta *vía* sinonimoak direnez, ezin daiteke EUSBen “polisemiaz” hitz egin.

(252)	9005P	<i>Administrarritza-Bide</i>	procedimiento administrativo
	9006P	<i>administrarritza-bide</i>	vía administrativa
	9005P	<i>administrazio-bide</i>	procedimiento administrativo
	78	<i>administrazio-bide</i>	vía administrativa
	8312P	<i>Ardulararitza-bide</i>	procedimiento administrativo
	8205P	<i>ardulararitza-bide</i>	vía administrativa

Beste batzuetan testuinguruaren arabera forma desberdineko bi EST sinonimo gerta daitezke, eta orduan ere ezingo litzateke esan EUSBetan “sinonimia” dagoenik<sup>46</sup>. Beha dezagun zer gertatzen den ondokoetan:

(253)	(a)	8206R	<i>ardulararitza-sail</i>	órgano administrativo
	(b)	8309P	<i>ardulararitza-sail</i>	unidad administrativa
	(c)	8315P	<i>eskribau-agiri</i>	documento público
	(d)	8201P	<i>eskribau-agiri</i>	escritura pública
	(e)	9203F	<i>eskribau-agiri</i>	acta notarial

Bistan denez, (253b) adibideko *unidad administrativa* guztiak ez dira *organo administrativo*, baina gerta daiteke testuinguru horretan izatea. Horrela izanez gero, *sail* hitza, —aldez aurretik (253 a) erabaki bada hitz hori dela erdal *órgano administrativo* terminoaren ordaina—adigai beraren izendapena izango litzateke, eta ez "sinonimia" kasu bat. Gauza bera esan daiteke (253c) adibideko *documento público*-ri buruz: izaera hori duten agiri guztiak ez dira *eskribau-agiri*, baina badaiteke testuinguruan horrela gertatzea.

Beste kasu askotan, ordea, EUSB baten jatorri-baliokide bezala EST desberdinak ikusten ditugularik, “polisemiak” arazoren bat ezkututzen du. Beha dezagun zer gertatzen den ondoko adibidekoekin:

<sup>46</sup>Hori horrela dela egiaztatzeko testuinguru luzeak beharko lirateke.



(254)

(a)	8815P	<i>bahikuntza</i>	decomiso
(b)	8314P	<i>bahikuntza</i>	hipoteca
(c)	8312P	<i>bahitu</i>	embargar
(d)	37	<i>baitu</i>	hipoteca
(e)	37	<i>baitu</i>	embargar
(f)	9203F	<i>bahitura</i>	embargar
(g)	36	<i>baitura</i>	hipoteca
(h)	8205P	<i>bahitura</i>	hipoteca
(i)	8314	<i>bahitura</i>	embargo

*Bahitu*, *bahitura*, *bahikuntza* oinarri bereko hitzen erabilera ikus daiteke arazo-mota bat. *Embargo/ embargar* adigaia aski zabala eta erabilera askotakoa da; *hipoteca*, aldiz, zehatzagoa, eta haren hiponimotzat har daiteke. Gaztelaniazko hizkera juridikoan bereizi beharreko adigaiak direnez, ez da inoiz idazten '*embargo*' '*hipoteca*'-ren orde. Gure corpusean, oinarri bereko hitzak nahasian erabiltzen dira A eta C garaian. Egindako hustuketaren bidez ezin dugu frogatu, baina uste dugu *bahi* oinarriaren polisemia<sup>47</sup> arriskugarri hori D garaian baztertu egin dela.

Kasu askotan (aurrekoetan ere ikus daiteke), euskal hitz edo hitz-andana batek bi erdal baliokide edo gehiago dituelarik, EST horietako bat generikoa edo hiperonimoa da, eta bestea edo besteak, espezifikoak edo hiponimoak. Begira ditzagun horrelako kasu batzuk:

(255)

(a)	8312P	<i>berme</i>	fianza
(a')	8105P	<i>berme</i>	aval
(b)	8312P	<i>gaudimen</i>	fianza
(b')	8214P	<i>gaudimen</i>	aval
(c)	37	<i>lege-auste</i>	delito
(c')	36	<i>lege-auste</i>	infracción

Kontsidera daiteke *fianza* hitzak balio generikoa duela, eta genero horretako espezifikoa dela *aval*. Euskaraz (255a) eta (255b) hitz berarekin adierazten dira biak. Antzeko iruzkina egin daiteke *infracción / delito* bikoteaz, jadanik *lege* hitzaren erabilera aztertutakoan ikusia genuen bezala.

Beste kasu batzuetan, ordea, arazoak ez dagozkio zehaztasunari soilik, ondoko adibideok erakusten dutenez:

(256)

(a)	8312P	<i>Arduralaritza-Auzipide</i>	jurisdicción contencioso-administrativa
(a')	8906P	<i>Arduralaritza-Auzipide</i>	procedimiento administrativo
(b)	8315P	<i>alogeratzaile</i>	arrendador
(b')	8201P	<i>alogeratzaile</i>	arrendatario
(c)	8201P	<i>lantoki</i>	centro de trabajo

<sup>47</sup>Euskaraz, hainbat kasutan, oinarri batetik eratorritako hitzek oso esanahi desberdinak izan dezakete, eta horrela denean, ez dago arazorik, baina ez dugu uste kasua denik.

(c') 8201P *lantoki* puesto de trabajo

*Arduralaritza-Auzipide* euskal terminoa bi gauza guztiz desberdin izendatzeko erabiltzen da (256a) eta (256a') adibideetan.

*Alogeratzaille*-ren kasuan (256b), (256b') adierazten direnak ez bakarrik desberdinak baizik guztizko aurkariak dira erlazio juridikoan.

*Lantoki* hitz polisemikoak berez (256c) adbidetako edo (256c') adibidetako esanahia eduki dezake, baina bietarako erabiliz gero, arazoak sor daitezke terminologia juridikoan.

Ondorioz esan daiteke, askoz gehiago izanik euskal ordainak jatorrizko terminoak baino, EUSBen polisemia ez dela oso ugaria, baina hainbat kasutan, erdal terminoen teknikotasuna urtuta eta lausotuta geratzen dela euskal "baliokide" polisemikoetan.

### 7.3.- ESTak zer bihurtzen diren

Kapitulu honen 2. atalean, EUSBen egitura aztertzerakoan, ikusi dugu EUSB-mota bakoitzak zein ESTtan duen sorburua; bide beretik baina beste norantzakoa hartuta, ikus dezakegu mota bakoitzeko ESTak zer ematen duen, hau da, nolako EUSBa(k) d(it)uen euskal bertsiotan.

Horrela, jakin dezakegu, corpusari dagokionez, esate baterako, izen soila den espainierazko terminoaren baliokidea edo baliokideak izenak, izen elkartuak, edo zein egituratakoak diren; eta gauza bera, gaztelaniazko termino-egitura bakoitzeko. Hona, taula bakarrean bilduta erdarazko ESTen eta euskarazko ordainen egitura ugarienen arteko korrespondentziak.

	ESTen egiturak	EUSBen egiturak						AS
		iz	iz elk	iz + izond	ErIP +IS	Izlg + IS	ad-iz buru	
1.- iz	204	325	181	11	0	34	65	79
2.- iz +adj	361	47	493	214	31	521	24	0
3.- iz + de + iz	254	21	234	5	8	293	60	6
4.- iz + prep + iz	19	0	3	2	1	40	0	1
5.- AS	25	1	0	0			10	60

112. taula: ESTen etaEUSBen egituren korrespondentziak

Hona, labur, taula horren irakurketak erakusten duena:

**Erdal terminoa hitz bakarreko izena denean** %46,7tan egitura eta kategoria bereko elementua dugu EUSB; %26tan, izen elkartuak dira gaztelaniazko izenen ordain. Izen hutsen eta izen elkartuen artean, ia %73 osatzen dute. Beste egiturek, askoz maiztasun txikiagoa dute. Hortaz, esan daiteke, joera

handia dagoela erdal terminoa izen hutsa bada euskaraz ere izena, bakuna edo elkartua, lortzeko

**ESTa *iz + adj* egiturakoa denean**, 1250 EUSB dugu ordainetan, eta horietatik 214 bakarrik dira *iz + adj*. Ugarienak, 521, *Izlg + IS* egiturako baliokideak dira, eta izen elkartuak, 493, bigarren. Izenarekin gertatzen denaren aurka, *iz + adj* egituraren kasuan oso argi ageri da corpusean ez dela gertatzen egituren kalko automatikoa. Jakina da, inguruko erdaretako zuzenbideko terminologian (besteetan bezala) erabiltzen diren adjektibo gehienak izenetik eratorritakoak direla, hein handi batean erreferentzialak. Gaztelaniazko *iz + adj* egituraren mugakizun/ mugatzaile jokoa beste egitura bikoien bidez ematen da euskaraz.

***Iz + de(preposizio)+ iz* egiturak** % 47tan *Izlg + IS* ematen du, eta % 37tan izen elkartua. Erdaraz bi izenez osaturiko egitura bitarrak ere beste multzo bikotan du euskal ordaina. Hein handi batean, gaztelaniazko egitura preposizional horren ordaina, *Izlg + IS* izaten da. Beste aldetik, kontuan hartzeko ehunekoa (%9,5) daukate aditz-izen bat buru duten izen-sintagmen agerpenek, gehienbat, ESTan aditzetik eratorritako izena dagoenean.

**‘De’ ez beste preposizioen inguruan eraturiko terminoetan**, berriz proportzioak erabat aldatzen dira, zeren eta, %85etan, *Izlg + IS* egitura duen euskal baliokidea ematen dute. Gainera, hainbat bider egiaztatu dugunez, izenlagun horietako asko konplexuak dira, eta aditz sintagmak dauzkate barnean.

**Gaztelaniaz aditz jokatua buru duen egitura** izanez gero,%84,5etan antzeko egitura aurkitzen dugu EUSBetan, eta beste %14etan, izen-sintagma izan arren, aditz-izena buru duenetakoa. Hainbat puntutan egiaztatu dugun bezala, aditzaren eta aditz-sintagmaren presentzia askoz ugariagoa da euskal segmentu baliokideetan gaztelaniazko jatorrizkoetan baino. Erdarazkoan aditza dagoelarik, ia hutsik gabe aurkitzen dugu parekoa euskaraz.

## 7.4.- EUSBen luzera

Euskal segmentu terminologikoen egiturek zerikusi handia daukate segmentuen luzerarekin, hau da, hitz-andana osatzeko erabiltzen diren hitzen kopuruarekin.

Ondoko taulan ikus daiteke nola banatzen diren EUSBak osagai dituzten hitz-kopuruaren<sup>48</sup> arabera.

---

48 Zenbaketa honetarako, irizpide materiala erabili dugu, hau da, hitza da bi zuriuneraren arteko karaktere-segida. Hortaz, bakartzat ematen dira jarraian idatzitako elkarteak, eta bi hitz izango dira marratxoaz loturikoak eta tartean zuriunea duten guztiak.

Zenbat hitz	Kop.	Ehunekoa
Hitz bat	580	20,4%
2 hitz	1460	51,2%
3 hitz	443	15,5%
4 hitz	252	8,8%
5 hitz	80	3,0%
6 hitz	27	0,95%
7 hitz	14	0,5%
8 hitz	2	0,06%
Guztira	2.858	100

**113. taula: Hitz-kopurua EUSBetan**

Irizpide material hutsez zenbatu baditugu ere, aski adierazgarriak dira taula horretako kopuruak. Kontuan izan behar da, aipatu diren juntagailuez, eta postposizioez at, oso gutxi direla EUSBetan aurkitzen diren funtzio-hitzak, hau da, zenbaketa horrelako hitz gehien gehienak, izenak, adjektiboak, aditzak edo adberbioak dira.

Konparazio-puntutzat, gogora dezagun erauzketarako erabilitako 1.811 ESTak deskribatzerakoan (supra V., 4.3.) 113. taulan jasotzen diren ehunekotan zeudela hitz-kopuruaren arabera. Konparaziorako, hala ere, ez da ahantzi behar espainierazko terminoetan hitz asko (hirutik bat baino gehiago) preposizioak edo artikulua direla, eta euskaraz, esan berri dugun bezala, hitz “trinkoen” proportzioa askoz handiagoa dela.

Zenbat hitz	Ehunekoak
Hitz bat	17%
2 hitz	40%
3 hitz	26%
4 hitz	11%
5 hitz	4,2%
6 hitz	1,4%
7 hitz	0,4%

**114. taula: ESTak hitz-kopuruaren arabera**

Hitz batekoetan ez dago alde handirik jatorrizkoen eta itzulien artean: %17 ESTetan, eta %20 EUSBetan. Hala ere, barne-egiturari gagozkiola, EUSB asko hitz elkartuak dira; hainbat, lexikalizazio-maila apalekoak direnez, bi hitzez osatuta hautematen direnak.

Oso nabarmena da bi hitzekoen gehiengoa: erdia baino gehiago neurri horretakoa baita. Ikusi dugunez, bi egitura dira nagusiki hor sartzen direnak: hitz-elkarketa (marratxoarekin edo bereiz idazten delarik), eta 'izenlaguna + izena' egitura. Izenak eta adjektiboak osaturiko sintagmak ere badira, baina hein apalagoan. Gaztelaniazkoak baino askoz ugariagoak dira, normala den bezala,

hitz-elkarteak, hizkuntza horretan bi izen elkarri lotzeko gehienetan preposizioa erabiltzen baita.

Hiru hitzekoetan berriro ere ehunekoak oso desberdinak dira: %26 ESTetan, %15,5 EUSBetan. Erdarazkoetan, preposizioak dira sarritan kopuru horretakoen osagarriak; euskaraz, ordea, hiru hitzez osatutako unitateek karga lexikoa handiagoa dute, eta egiturak, ikusi den bezala, hainbat izan daitezke: *iz + iz + adj*; *iz + adj + adj*; *adb + iz + ad- iz*, eta abar.

Lau hitz eta gehiago daukatenetan, gero eta nabarmenago egiten da EUSBetan hitz “autosemantikoen” proportzioa oso handia dela ESTetakoetan preposizioak eta artikuluak ugari diren bitartean.

Beste aldetik, kontuan izan behar da 5 hitz edo gehiagoko ESTetan ia erdia inguru erakunde, kargu eta arauen izenak (EKA izenak) zirela. Termino berezi horien ezaugarritzat ematen genuen ia beti horien egiturak, izen-sintagma sinpleen kateak izaten direla. Euskaraz, bost hitzekoen artean EKA izenak 15/80 proportzian, sei hitzekoetan 5/27koan, eta zazpikoetan, 6/14koan bakarrik daudenez, EUSB luze horiek, askozaz gehiago dira, ikusi dugun bezala, EST laburren itzulpen perifrastikoak, maiz egitura konplexukoak.

Dena dela, oro har, kontuan izanda, hitz bakarrekoak eta bikoak batuaz, %72ra iristen direla, eta hirukoekin %86,5ra heltzen garela, hitzen kontaktak, ez du aditzera ematen EUSBak bereziki luzeak direnik.

Terminologiaren baldintzei dagokienez, beraz, proportzioan gutxi izango lirateke neurritz kanpoko luzera dutenak, baina askoz garrantzitsuagoa da terminologiaren normalizazioaren aldetik adigaiak izendatzeko aukeratzaren diren egiturak berrerabiltzeko erosoak izatea.

Alde horretatik, uste dugu EUSB batzuetan aurkitzen diren aditz-sintagmetan daudela deseorosotasun nabarmenenak.

## 7.5.- Legeen, zergen eta eskubideen izendapenak euskaraz.

### 7.5.1.- Legeen izendapenak euskaraz

Corpusean (supra VI. 5.2) *lege* hitza balio anitzetan erabiltzen da. Horietako bat, nolabait esateko zehatzena edo garbiena, da lege formal bakoitzaren izendapenean agertzen dena. Izan ere, EKA izen (supra III. 5.4.) diren legeen 42 izendapenetan, hutsik gabe agertzen da *ley = lege* erlazioa, baina izendapen horietan beste elementuak ere agertzen dira.

ESTetan, bi modutan bakarrik lotzen da *Ley* hitza haren edukia adierazten duen izen-sintagmarekin: *de* preposizioaz eta *sobre* preposizioaz. Zein egitura erabiltzen den euskarazko segmentu baliokideetan da ondoko lerroetako ikergaia.

Lehenik, EUSBetan dauden lege-izen guztietan erabiltzen diren egituren berri emango dugu, iruzkin batzuk eginez; ondoren, hainbatetan errepikatzen diren lege nagusi batzuk euskaraz nola agertzen diren ikusiko dugu.

#### 7.5.1.1.- Egitura desberdinak.

Ondoko egituren bidez ematen dira legeen izenak:

- **Hitz elkarteak** ( 4 kasutan)

(257)

(a)	8110P	<i>Arduralaritzabide-Lege</i>	Ley de Procedimiento Administrativo
(b)	37	<i>Erritarren Arkibidetze Lege</i>	Ley del Registro Civil
(c)	79	<i>Plangintza Orokorra Orube eta Hiri Antolaketa Lege</i>	Ley sobre Régimen del Suelo y Ordenación Urbana
(d)	37	<i>Erritar-Arkibidea Legea</i>	Ley del Registro Civil

Lau adibide horiek aurkitu ditugu. (257d) argi dago aposizioa dela, legearen edukia adierazten duen sintagma mugatua baitago. Aurreko hiru adibideetan, aldiz ez dakigu menpekotasunezko elkarteak edo aposizioak diren.

Adibideon datei begiratuta azpimarratzeko iruditzen zaigu guztiak hasierakoak izatea, eta 1981tik aurrera egitura hori ez gehiago azaltzea.

- **Izenlaguna -ren** (8 agerpen)

(258)

78	<i>Prozedura Administratiboaren Lege</i>	Ley de Procedimiento Administrativo
8201P	<i>Akziozko Baltzuen Lege</i>	Ley de Sociedades Anónimas
8604G	<i>Iharduera Komertzialaren Antolamenduaren Lege</i>	Ley de Ordenación de la Actividad Comercial:
9506P	<i>Auzipetze Zibilaren Lege</i>	Ley de Enjuiciamiento Civil

1936-37 aldian izan ezik garai guztietan aurkitzen da egitura hau; ikusiko denez, hainbatetan beste egiturekin alternantzia dagoelarik.

- **Izenlaguna -ko: (inesiboa+ -ko)** (4 agerpen)

(259)

36	<i>Erritarren Arkibideko Lege</i>	Ley del Registro Civil
80	<i>Kontentzioso Administratiboko Jurisdikzioko Lege</i>	Ley de la Jurisdicción Contencioso Administrativa
80	<i>Administratiboko Prozedurako Legedi</i>	Ley de Procedimiento Administrativo
9007P	<i>Administrazio-bideko lege</i>	Ley de Procedimiento Administrativo

Urria da egitura honen erabilera; C garaian ez dugu kasu bakarra ere aurkitu.

- **Izenlaguna –ko (soziatiboa + -ko)** (agerpen bat.)

(261)

8201P	<i>Koperatibekiko Euskal legea</i>	Ley de Cooperativas de Euskadi
-------	------------------------------------	--------------------------------

Izenlaguna eratzeko atzizki konposatu honen erabilera ez ohiko hau aztertua dugunez, ez gara gehiago luzatuko.

- **Izenlaguna –ko (-ri buruzko postposizioa)** (14 agerpen)

(262)

78	<i>Lurraren Errejimen eta Hiri Ordenamenduari buruzko lege</i>	Ley sobre Régimen del Suelo y Ordenación Urbana
8604G	<i>Iharduera Komertzialaren Antolamenduari buruzko Lege</i>	Ley de Ordenación de la Actividad Comercial:
9005P	<i>Administrarritza-Bideari buruzko Lege</i>	Ley de Procedimiento Administrativo

Egitura hau da maizenik agertzen dena: lege-izen diren EUSBetatik 14k, beraz, heren batek, dauka egitura hau. A garaian ez da behin ere agertzen. D garaian berriz, egitura hau nagusi da.

- **Izenlaguna –ko (adlatiboa + -ko)** (6 agerpen)

(263)

8605G	<i>Merkataritza Jardunaren Antolaketa Lege</i>	Ley de Ordenación de la Actividad Comercial:
8803P	<i>Herri-Legepeko Epaibidetakoko Lege</i>	Ley de Enjuiciamiento Civil
9007P	<i>Nahitaezko Jabego-kenketarako lege</i>	Ley de expropiación forzosa

Adlatiboa + -ko agertzen denean, maiz aditzetik eratorritako izenak (*antolaketa, kenketa*) ditugu euskarazkoetan, eta nominalizazioak (*ordenación, enjuiciamiento, expropiación*) ESTetan.

- **Izenlaguna-ko (aditz-izen + ko) (-tzeko, -tzezko).** (3 agerpen)

(264)

8108T	<i>Nahitaezko Jabegoa kentzeko Lege</i>	Ley de expropiación forzosa
8318P	<i>Nahitaezko Jabegokentzeko Lege</i>	Ley de expropiación forzosa
8802R	<i>Toki Jaurpidetakoko Oinarri- Arauak Araupetzeko Lege</i>	Ley Reguladora de Bases del Régimen Local

Adibide gutxi dira, hirurak garai berekoak. 'Adlatibo + ko' kasuan bezala nominalizazioen odainak dira. Atzizki eta egitura horien azterketa ere egina dago.

- **Izenlaguna -ren (-tzearen)** (agerpen bat)

(265)

8909P	<i>Nahitaezko Jabego-Kentzearen Lege</i>	Ley de expropiación forzosa
-------	--	-----------------------------

Egitura ez ohiko honek aurrekoaren balio berbera du nabarmenki.

- **Perpaua erlatiboa.** (agerpen bat )

(266)

9605P *Toki-Jaurbidearen Oinarriak* Ley de bases de régimen local  
*Arautzen dituen Legea*

Bederatzi egitura desberdinez ematen dira legeen izenak azterturiko corpusean. Corpusa sinkronikoki hartuta, finkapen-eza nabarmena ageri da, baina kontuan izan behar da oso denbora luzea jaso dela, eta hain zuzen ere, 1936-37 garaian egitura asko saiatzeko direla.

D garaian, 13 lege-izen daude, horietatik 8 dira *-ri buruzko*, 2 *-ren*, 1 *-rako*, 1 *-ko*, eta 1 erlatibo egiturakoa. Badirudi, beraz, aurreko garaietan entsegu-moduan erabilitako hainbat modu baztertu direla

#### 7.5.1.2.- Lege-izen errepikatuenen azterketa

Aurreko puntuan ikusi ditugun aukerak ez dira gertatzen lege desberdinen izendapenetan soilik. Deigarria da corpusean, lege-izen bera itzultzeko zenbat aukera desberdin erabiltzen diren egiaztatzea. Hona adibide batzuk corpusean dauden aukeren eta zalantzen adierazgarri.

- o **Ley de Procedimiento administrativo**

(267)

78 *Prozedura Administratiboaren Lege*  
80 *Administral Prozedurako Legedi*  
8110P *Arduralaritzabide-Lege*  
8815P *Arduralaritza-Bidetarako Lege*  
8906P *Arduralaritza-Auzipidetarako lege*  
9005P *Administrarritza-Bideari buruzko Lege*  
9007P *Administrazio-bideko lege*  
9104P *Administrazioaren Jardunbideari buruzko Lege*

- o **Ley sobre Régimen del Suelo y Ordenación Urbana**

(268)

79 *Plangintza Orokorra Orube eta Hiri Antolaketa Lege*  
8909P *Lurraren Jaurpideen eta Hiri-Antolaketaren Lege*  
78 *Lurraren Errejimen eta Hiri Ordenamenduari buruzko lege*  
79 *Hiri Antolakizun eta Orube Errejimenari buruzko Lege*  
8318P *Lur-Jaurpide eta Hiri-Antolaketari buruzko Lege*  
8708P *Lurraren eta Hiri-Antolaketarako Jaurpideei buruzko Lege*  
9004P *Lurraren Jaurpideari eta Hiri-Antolakuntzari buruzko Lege*  
9004P *Lur-Jaurpideei eta Hiri-Antolakuntzari buruzko Lege*  
9417P *Lurren Jaurbide eta Hiri Antolakuntzari buruzko Lege*  
9701P *Lurraren Araubide eta Hiri Antolaketari buruzko Lege*

- o **Ley de Registro Civil**

(269)

37 *Erritar-Arkibidea Legea*  
36 *Erritarren Arkibideko Lege*



o **Ley de Expropiación Forzosa**

(269)

8108T	<i>Nahitaezko Jabegoa kentzeko Lege</i>
8318P	<i>Nahitaezko Jabegokentzeko Lege</i>
9007P	<i>Nahitaezko Jabego-kenketarako lege</i>
8909P	<i>Nahitaezko Jabego-Kentzearen Lege</i>
9207P	<i>Derrigorrez Jabetza Kentzeari buruzko lege</i>

## 7.5.2.- Zergen izendapenak euskaraz

Aurrekoan bezala, aztertu nahi dugu nola ematen diren euskaraz zerga nagusien izendapen zehatzak.

ESTetako egiturei dagokienez, bi daude, baina oso modu ezberdinean banatuta: denak bat izan ezik dira “*impuesto sobre X*”. Salbuespen bakar hori, “*Impuesto de X*”.

## 7.5.2.1.- Egitura desberdinak

Hona euskarazko egiturak:

• **Hitz elkarte** ( 2 kasutan)

(270)

8502P	<i>Baltzu-Zerga</i>	Impuesto sobre sociedades
8903P	<i>Jarauntsi eta Emaitza-Zerga</i>	Impuesto sobre sucesiones y donaciones

Legeekin gertatzen den bezala, hitz elkarte hasierako garaietan soilik agertzen da.

• **Izenlaguna -ren** (2 agerpen)

(271)

8312P	<i>Baltzuen zerga</i>	Impuesto sobre sociedades
8903P	<i>Balio Erantsiaren Zerga</i>	impuesto sobre el valor añadido

• **Izenlaguna -kiko** (7 agerpen)

(272)

8108T	<i>Norbanakoen urteirabaziekiko zergapide</i>	impuesto sobre la renta de las personas físicas
8502P	<i>Enpresen garazpideekiko zergapide Orokorra</i>	Impuesto general sobre el tráfico de las empresas
8903P	<i>Ondarearekiko Zerga</i>	Impuesto sobre el patrimonio
8903P	<i>Baltzuekiko Zergapide</i>	Impuesto sobre sociedades

• **Izenlaguna -gatikako** (9 kasutan)

(273)

8315	<i>jabego-aldakuntzagatikako zergazor</i>	impuesto de derechos reales
8312P	<i>Norbanakoen ondare garbiagatikako zerga</i>	Impuesto sobre el patrimonio
8312P	<i>Norbanakoen Urteko Irabaziegatikako zerga</i>	impuesto sobre la renta de las personas físicas
8312P	<i>Oinorde eta emaitzegatikako zerga</i>	Impuesto sobre sucesiones y donaciones

8403P	<i>Ondareagatikako zergapide</i>	Impuesto sobre el patrimonio
8507P	<i>Balio Gehikuntzagatikako Zerga</i>	impuesto sobre el valor añadido
8817T	<i>Balio-Erantsiagatikako Zerga</i>	impuesto sobre el valor añadido

- **Postposizio-izenlaguna -ri buruzko (2 agerpen)**

(274)

8910T	<i>Norbanakoen Urteko Irabaziei buruzko Zerga</i>	impuesto sobre la renta de las personas físicas
9005P	<i>agiri-bidezko lege-egiketei buruzko zergapide</i>	Impuesto sobre actos jurídicos documentados

- **Postposizio izenlaguna -ren gaineko (agerpen bat)**

(275)

9208T	<i>Balio Erantsiaren gaineko Zerga</i>	impuesto sobre el valor añadido
-------	--	---------------------------------

- **Izenlaguna partizipio + - ta +ko (agerpen bat)**

(276)

9003P	<i>Balio Gehigarriari erantsitako Zerga</i>	impuesto sobre el valor añadido
-------	---	---------------------------------

Gure ustez (276)koa itzulpen-akatsa , ESTko *añadido* itzultzeko beste kasuetan (275) aukeratzen den aditza (*erantsi*) erabiltzen baita lotura egiteko

Legeen izendapenetan bezala, aukeren artean erabakitzeke zailtasunak, finkatu gabeko hizkera baten adierazgarriak nabarmenak dira. Zergen izendapenetan, ez dira agertzen aditz-izenen gaineko egiturak.

### 7.5.2.2.- Zerga-izendapen errepikatuenak

Legeak izendatzeko erabilitako egiturak aztertzerakoan bezala, ikus dezagun nolako aukera desberdinak erabili diren zerga bakoitzaren izendapenak euskaratzekoan.

- o **Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas**

(277)

8108T	<i>norbanakoen urteirabaziekiko zergapide</i>
8312P	<i>Norbanakoen Urteko Irabaziegatikako zerga</i>
8910T	<i>Norbanakoen Urteko Irabaziei buruzko Zerga</i>

- o **Impuesto sobre el Valor Añadido**

(278)

8507P	<i>Balio Gehikuntzagatikako Zerga</i>
8817T	<i>Balio-Erantsiagatikako Zerga</i>
8903P	<i>Balio Erantsiaren Zerga</i>
9003P	<i>Balio Gehigarriari erantsitako Zerga</i>
9208T	<i>Balio Erantsiaren gaineko Zerga</i>

o **Impuesto sobre el patrimonio**

(279)

8312P	<i>norbanakoen ondare garbiagatikako zerga</i>
8403P	<i>ondareagatikako zergapide</i>
8903P	<i>Ondarearekiko Zerga</i>

o **Impuesto sobre Sociedades**

(280)

8312P	<i>Baltzuen zerga</i>
8502P	<i>Baltzu-Zerga</i>
8903P	<i>Baltzuekiko Zergapide</i>
8903P	<i>Baltzuekiko Zerga</i>

### 7.5.3.- Eskubideen izendapenak euskaraz

Eskubideen izendapen diogunean esan nahi dugu zerbait izateko, egiteko, edo ukateko, oro har, ahalmen zehatz bakoitzari zuzenbidean ematen zaio izena. Erdaraz, eta horrela egiaztatzen dugu ESTetan, beti *derecho* hitza, *de* edo *a* preposizioa eta ondoren eskubidearen edukia adierazten duen hitz edo hitzak ditugu<sup>49</sup>.

Adigai-mota hori, guztiz argia eta zuzenbidean finkatua, euskaraz nola ematen den aztertu nahi dugu. Horretarako, abiapuntu ona dugu, zeren eta euskaraz finkatuen dugun adigai/ hitza bikotea horixe baitugu: *eskubide* hitza agertzen da hutsik egin gabe. Galdera, beraz, da, nola eransten zaio edukia adierazten duen beste hitz edo hitz-andana *eskubide* hitzari.

Aurrekoetan bezala, ikus dezagun zein egiturak agertzen diren EUSBetan.

#### 7.5.3.1.- Egitura desberdinak

Hiru egitura-mota aurkitu ditugu EUSBetan. Horietako bi, izenlagunak, beraz, ezker-hedapen sintaktikoak ditugu, eta hirugarrena, hitz-elkarketa. Hona aurkitu ditugun agerpen desberdin guztiak:

---

<sup>49</sup>Hizkuntza erromantzeetan, egitura berdinak ditugu: esate baterako frantsesez, catalanez edo italieraz, *de/di* eta *a/à* preposizioen bidez egiten dira loturak: *droit de propriété, droit à la vie, dret de propietat, dret al treball, diritto de godimento, diritto allo scipero*. Ingelesezt, oso antzekoak alde batetik: *right of preemption, right of assembly, right of association, right to employment*, baina hizkuntza horretan ugari dira hitz-elkarteen bidez ematen direnak: *superficy right, copyright, fishing rights, voting right, eta abar*.

- **Izenlaguna -rako (8 agerpen)**

(283)

8909P	<i>Hirigintza-lanetarako eskubide</i>	derecho de urbanización
9601P	<i>intimitaterako eskubide</i>	derecho a la intimidad
8906P	<i>grebarako eskubide</i>	derecho de huelga
8906P	<i>gozamen-saritarako eskubide</i>	derecho pasivo
9007P	<i>haztaketarako eskubide</i>	derecho de tanteo
8906P	<i>araudigintzarako ahalmen</i>	potestad reglamentaria

Era guztietako izenak dira adlatibo-marka + -ko hartzen dutenak. Izan ere, azken biak bakarrik dira aditzetik eratorriak.

- **Aditz-izen izenlaguna + -ko (-t(z)eko).(5 agerpen)**

(282)

8905P	<i>prezio berean jabetzeko eskubide</i>	derecho de tanteo
8308P	<i>atzera egiteko eskubide</i>	derecho de desistimiento
8909P	<i>hirigintza-lanak egiteko eskubide</i>	derecho de urbanización
9406P	<i>elkarteak sortzeko eskubide</i>	derecho de asociación
9203F	<i>itzultzeko eskubide</i>	derecho de reversión

Bost agerpenetan, argi dago ESTetan aditzetik eratorritako izena dugula.

- **Hitz elkarketa (11 agerpen)**

(281)

37	<i>jabetza eskubide</i>	derecho de propiedad
78	<i>tanteo-eskubide</i>	derecho de tanteo
8201P	<i>gozamen-eskubide</i>	derecho de goce
8605G	<i>jabetasun-eskubide</i>	derecho de propiedad
8709P	<i>toki-eskubide</i>	derecho de superficie
8808T	<i>haztaketa-eskubide</i>	derecho de tanteo
8807P	<i>haztatze -eskubide</i>	derecho de tanteo
8909P	<i>jabego-eskubide</i>	derecho de propiedad
9204P	<i>defentsa-eskubide</i>	derecho de defensa
9203F	<i>saka-eskubide</i>	derecho de saca
9416P	<i>tanteo-eskubide</i>	derecho de tanteo

Hitz-elkarketa da, hortaz, eskubide konkretuen izendapenetan maizenik aurkitzen dugun egitura. Mugatzaile-posizioan, hala izen arruntak nola aditzetik eratorritakoak ditugu, erdarazko terminoetako ezaugarri beraren isla, kasu guztietan.

### 7.5.3.2.- Eskubide beraren euskal izendapen desberdinak.

Hainbat kasutan, erdaraz EST bakarrez ematen den adigai bakarra adierazteko hainbat modu desberdin aurkitzen da EUSBetan. Ikus ditzagun adibide batzuk

- o **derecho de propiedad**

(288)

37	<i>jabetza eskubide</i>
8605G	<i>jabetasun-eskubide</i>
8909P	<i>jabego-eskubide</i>

Hirurak hitz-elkarteak eta oinarri bereko hitzekin osatuak dira. Aldatzen den gauza bakarra, mugatzailearen atzizkia.

o **derecho de asociación**

(286)

9406P	<i>elkartek sortzeko eskubide</i>
8803P	<i>elkarketarako eskubide</i>

o **derecho de urbanización**

(287)

8909P	<i>Hirigintza-lanetarako eskubide</i>
8909P	<i>hirigintza-lanak egiteko eskubide</i>

Aurreko bietan, antzeko bikoteak ditugu.

o **derecho de tanteo**

(285)

78	<i>tanteo-eskubide</i>
8808T	<i>haztaketa-eskubide</i>
8807P	<i>haztatze -eskubide</i>
8905P	<i>prezio berean jabetzeko eskubide</i>
9007P	<i>haztaketarako eskubide</i>
9416P	<i>tanteo-eskubide</i>

Beste kapitulua batean ikusi dugun adibide honetan, egitura-ugaritasunaz gain, deigarria agerpen batzuen eta besteen artean suma daitekeen entsegukutsua, eta *hazta* erroari eman nahi izan zaion esanahi desbideratua.

o **derecho a la intimidad**

(284)

8604P	<i>barnekoitasunerako eskubide</i>
8205P	<i>urkotasunerako eskubide</i>
9007P	<i>barnekoitzasun -eskubide</i>
9605P	<i>intimitatea gordetzeko duen eskubide</i>
9601P	<i>intimitaterako eskubide</i>

Antzeko iruzkina egin daiteke, batez ere, erdal intimitad euskal hitz baten bidez emateko ahaleginari buruz.

Esan daiteke, beraz, eskubideen izendapenetan hiru egitura desberdin bakarrik erabiltzen direnez, corpusean ez dela gertatzen legeen eta zergen izendapenetan aurkitu dugun ugaritasuna.

## 7.5.4.- Iruzkinak

Oro har esan daiteke lege, zerga eta eskubide konketuak izendatzerakoan sakabanaketa dagoela, gutxiago beti ere eskubideen kasuan. Ugaritasunaren zergatia, batzuetan oinarri lexikoen aukeran (*urkotasun, barnekoitasun, intimitate*

‘intimidad’ adierazteko) badago ere, askozaz garrantzitsuagoa dirudi egitura sintaktikoei dagokiena.

Hala ere, badirudi azken garaian egitura gutxiago aukeratu, eta haiek erabiltzeko joera dagoela, A garaiko hitz-elkartuen eta C garaiko “birdeklinaketaz” osaturiko izenlagunen kaltetan, baina finkotasunaren mesedetan.

## ONDORIOAK

1.- Adostasunetik urrun dauden bi terminologia arazo erabaki behar izan ditugu lehenik eta behin. Hain zuzen ere, tesi honen izenburuan bertan agertzen diren hitzak dira: lehena *'hizkera'*, hau baita gure ustez modurik egokiena hizkuntza baten berezitasunezko erabilerari deitzeko, eta *'zuzenbide'*, aztertu dugun hizkeraren gaiaren izena, ondoren.

Egia esan, ez batarentzat, ez bestearentzat ez dugu aurkitu tradizioan ezer erabakigarriarik. Hala ere, *'hizkera'*ri buruz, ikusirik, hala tradizioan nola gaurkoan batzuek egiten duten hautua, uste dugu egokia dela *hizkuntza / hizkera* bikotetik azken hitza aukeratzea hizkuntzaren edozein aldaera edo erabilera izendatu behar denean.

*'Lege'* eta *'zuzenbide'*-ren arteko lehiari buruz ere, egia izanik *'lege'* hitzarekin konpondu direla gehienbat horrelako gaiez idatzi izan duten euskaldunak, izendapen hori ez da bakarra izan tradizioan. Beste aldetik, azken urteotan sortu da arlo horretako erabilpen teknikoak, eta teknikotasunez erabili behar dutenen artean ia aho batez ikusi da LEX eta IUSen arteko bereizketa ezinbestekoa dela. Gure ustez, *'zuzenbide'* hitzaren aldeko hautua baitezpadakoa da bereizketa beharrezkoa den edo teknikotasunez hitz egin behar den kasu guztietarako.

2.- Edozein hizkuntza bizitan, gizarteko eginkizunen banaketaren arabera egiten diren ofizio eta lanbide desberdinetako jende-multzoetan garatu ohi dira hizkera bereziak. Esan daiteke hori fenomeno unibertsala dela, baina, aldiz, hizkuntza gutxi batzuk izan dira historian zehar agintearekin edo irakaskuntzarekin loturiko goi mailako lanbideetako hizkerak garatu dituztenak. Izan ere, hainbat baldintza bete behar dira horrelako hizkerek (LSPek, xede berezietarako hizkerek, edo hizkera bereziek) garapen normala izan dezaten. Lehenbizikoa da hizkuntza batek erabilera idatzia aski luzea eta zabaldua behar duela, eta beste bat, hizkuntza hori, gizarte teknologikoki aurreratu batena izanik, maila batean edo bestean, funtzio anitzetan erabilia izatea, hau da, ez gertatzea egoera guztiz diglosiko bat zeinetan beste hizkuntza batek betetzen dituen goi-mailako funtzioak. Uste dugu, beraz, hizkera bereziak (LSPak) ez daudela hizkuntza guztietan, eta azken finean kontua dela hizkera horretako testurik

badagoen edo ez. Hori horrela izanik, testuen nolakotasunak aztertuz hainbat zertzelada zehatz daiteke hizkera berezi bakoitzaren sortzeaz eta garatzeaz..

XIX. eta XX mendeetan, ordura arte egoera diglosikoan bizi izandako hizkuntza anitz nazional edo ofizial izatera igarotzen direlarik, hizkera bereziak eta terminologia lantzeari ekiten zaio. Baina jakintzei eta teknologiei dagozkien sorkuntzak eta aurrerapenak ez dira edozein hizkuntzatan gertatzen. Izan ere, nabarmena da hizkuntza batzuk terminologiaren alorrean sortzaileak direla, eta beste batzuk, hartzaileak. Terminologiagintzan sortzaileak ez diren hizkuntzetan ahalegin handiak egin behar izaten dira, hain zuzen ere, hizkuntza sortzaileen (edo bitartekoen) eragina nabarmenegia izan ez dadin.

3.- Intuitiboki eta pragmatikoki testu jakin batzuk hizkera berezi bati egozte egingarri bada ere, zaila da hizkera horien ezaugarri linguistikoak zein diren zehaztea. Izan ere, desberdintasunak hainbat mailatan suma daitezke, baina hizkera jakin batzuen kasu bereziak kenduz gero, baliabide linguistikoaren erabilera-maiztasunari so egin behar zaio. Hortaz, hizkera berezi batzuetan (matematika-hizkeran, esate baterako), arau sintaktiko orokorren salbuespenak gertatzen dira, eta beste batzuetan, badira morfologiaren erabilera ezohiko batzuk (kimikakoan, adibidez); baina oso formalizatutako arlo horietatik kanpo nekez aurkitzen da horrelakorik, eta inoiz ere ez gizarte-arloetako hizkeretan.

Gainera, hizkera berezi bakoitzaren ezaugarriak eta mugak ezartzerakoan baliabide linguistikoaren erabilera ere aldatu egiten da hizkeren barnean egoten diren erregistro eta azpihizkeren arabera.

Gizarte-hizkerez den bezainbatean, bada, hainbat faktoreren mende dauden aldagarri estilistiko batzuetatik at, arlo bakoitzari loturiko lexiko bereziaren erabilera besterik ez dugu ezaugarri linguistiko gisa.

Edozein modutan, gure hurbilpena ez da izan ezaugarri linguistikoaren arabera bereizitako testu batzuetatik abiatzea, baizik, eta kanpoko irizpide batzuen arabera hautaturiko testuak banatu ondoren haien ezaugarri linguistikoak aztertzea.

4.- Xede berezitarako hizkeren edo LSPen ezaugarriak gehienbat hizkera zientifiko eta teknikoak eredu gisa harturik deskribatu izan dira, eta hortaz, zuzenbideaz jarduteko erabiltzen diren hizkerak ez dira beti oso ongi moldatzen eredu haietara. Baina hizkera berezien aniztasuna onartuz gero, zuzenbidekoari ezin zaio ukatu adjektibo hori. Besteek bezala, hizkera juridikoak bere lexiko berezian dauka bere ezaugarriak behinena. Baina zuzenbideko terminoak



osatzeko erabiltzen diren hitz gehienak, beste diziplinetakoak baino maizago, ez dira formalki bereziak. Esan nahi baita, testu juridikoetan ehuneko txikian erabiltzen direla hizkuntzako hiztegi orokorretan jasotzen ez diren hitzak, baina maiz, zuzenbidearen arloan adiera berezia ematen zaie hitz horiei. Jakina, hitz bat baino gehiagoko terminoetan, zuzenbidean aurkitzen ditugun hitz-segidak eta kolokazioak guztiz bereziak izaten dira.

Zuzenbideko hizkera lantzeko izaten diren hiztegien eta gainerako laguntza-testuen ugaritasuna kontuan hartzea nahikoa da ohartzeko hizkera horren berezitasunen kontzientzia oso zabaldua dagoela gizartean. Baina, beste aldetik aitortu behar da, zenbait hiztegi juridiko arakatu ondoren, zaila dela, oso irizpide lexikografiko eta terminologiko ahulak erabiltzen direnez, —salbuespen ohoragarriak badira— berezitasun haiei buruzko berri zehatzik bertan atzematea.

5.- Euskaraz, hizkuntza guztietan bezala, lanbide-hizkerak betidanik egon badira ere, oso garapen urria izan dute hizkera zientifikoek, eta oro har, goi mailako hizkera bereziek. Euskal testu historikoek erakusten dutenez, asko zabaldu behar da hizkera zientifikoaren adigaia horrela sailkaturiko testuak aurkitzeko euskal letretan. Detxeparek, Sarako Etxeberriek, Larramendik eta beste askok salatutako eskastasun hori gainditzeko saioak zertxobait ugaltzen dira XX. mendearen hasieran, baina euskaltzale adoretzu haien idazkiak ez lirateke jakintza-liburutzat hartuko, ez goi mailakotzat bederen, beste hizkuntzetan. Beraz, ezin esan benetako LSPrik izan denik euskal tradizioan. Azken 30 urteotan, aldiz, hainbat arlotako hizkera bereziak landu dira, garapen-maila aski garaia lortuaz. Ereku askotan oraindik ekoizpen urria badago ere, beste hainbatetan unibertsitate-ikasketak aurrera eramateko moduko testuak badaude, eta gutxi batzuetan ikerkuntza-mailakoak ere bai. Testu berezi horiek euskararen estandarra finkatu gabe zegoelarik sortu izanak hainbat arazo eta gorabehera sortu ditu.

Hizkera bereziak garatzen hasi diren garai honetan, nabarmena denez, gure hizkuntza ez da izan terminologia-sortzaileetako. Aitzitik, beti izan da beste hizkuntzen zordun; besteetan sortutakoa euskarara aldatzea izan da neurri handi batean gure terminogintza.

6.- Hizkera berezien eta terminologiaren teoriarik formulatu izan den zuzenbideko hizkeraren toki berezia beste espezialitate-hizkera edo LSP prototipikoei buruz, guztiz sendetsia agertzen da euskal hizkera juridikoaren historian. Oro har esan behar da ez dagoela salbuespenik bestelako idazkiei buruz: euskarazko testu juridiko historikoak oso xumeak eta teknikotasun

apalekoak dira, inguruko hizkuntzetakoekin alderatuz gero, eta oro har, mendez mende ugarituz doaz. Baina bere xumetasunean, zuzenbideko testuen ekoizpenak, beste motatakoek ez bezalako uneak eta erritmoak izan ditu, denboran zehar, gertakari politiko jakin batzuen arabera. Horren adierazpen argienak dira Iraultza Frantseseko garaian Iparraldean izandako “loraldia”, 1936-37ko autonomia eta koofizialtasunaren garaian lurralde autonomoan egon zen produkzio ugaria eta jaso, 1937tik aurrera guztizko etenaldia jasaten duena, eta 1978 urtean, ia goizetik gauera gertatzen den suspertze berria.

Gertakari politikoekiko mendetasun horrek ondorio astunak izan ditu hizkera juridikoaren garapenean, ez bakarrik aldaketa politikoarekin batera testuen ekoizpena bertan behera gelditzen delako, baizik eta produkzioaren zer-nolakoak ere baldintzatzen dituelako. Alde batetik, hizkuntzaren ofizialtasunak dakar testu batzuk ezinbestekoak gertatzea, esate baterako, aldizkari ofizialetakoak. Horrela, bi bider historian, ia bat-batean hainbat testu ofizial euskaraz argitaratu behar izan da, legearen aginduz, ez komunikazio-beharren arabera. Ondoren, mota bateko eta besteko testuen ekoizpena, hainbat aldagai politiko-juridikoren mende egon da, benetako komunikazio-beharren zerbitzura baino gehiago.

Zertzelada horiek guztiak kontuan hartuta esan behar da, zuzenbideko hizkerak euskara osoaren erritmoak eta garabideak ezagutu dituela neurri handi batean. XVII eta XVIII. mendeetan Iparraldeko prosaren emankortasun eta heldutasun bera dute testu juridikoek; XIX. mendetik aurrera Hegoaldean gehiago idazten da, baina ez dago eredu bateraturik, eta bertako joera guztiak (Larramendi, Arana, Azkue-Altube...) jarrai daitezke zuzenbidez aritzeko idazten diren testuetan, eta gauza bera, noski, azken garaian.

7.- Hizkera berezi baten garapenaz hitz egiterakoan testuen kopuruari so egiten badiogu esan behar dugu zuzenbide-hizkeraz idatzitako testu-multzo handia dagoela euskaraz. Beste arloetakoekin zehazki alderatzea ezinezkoa bazaigu ere, kontuan hartuaz hainbat erakundetako arauteria guztia, eta administrazioko erakunde askoren harreman juridikoak elebidunak direla, ohartuko gara garapen koantitatiboa oso handia izan dela. Teknikotasuna baldintzatzen duen edukiaren aldetik ere, maila garaiko eta zuzenbideko azpialal askotariko testu-multzoak ditugula esan behar da.

Besterik da testu horien nolakotasunari dagokiona, funtzionaltasunaren aldetik eta euskararen kalitatearen aldetik. Izan ere, aurreko puntuan azaldu dugu hizkera honen garatze-erritmoak bereziak izan direla; baina baldintzapen juridiko-politikoaren eragina beste alderdi askotara ere iristen da.

Alde batetik, parte handi bat modu elebidunean argitaratzen denez, ezin da jakin zenbateraino betetzen duen egotzi zaion eginkizuna, edo erdal testua den praktikan erabiltzen dena. Azken hamarraldian, administrazio-atal batzuetan eta mundu juridikoko beste gune txiki batzuetan ere, euskara lan-hizkuntza gisa erabiltzen denetik, aurrerapen nabarmenak ageri dira alde horretatik.

Badago inguruabar juridiko-politikoekin guztiz loturik datorren euskarazko zuzenbide-hizkeraren beste ezaugarri bat: euskal testu juridikoen ekoizpena oso hein handian itzulpenezkoa izatea, ala historian zehar nola gaurko egunean. Itzulpena euskal idazki-mota guztietan oso ugaria bada ere, zuzenbidekoetan dagoen proportzioa askoz handiagoa da, eta gainera, azken garai honetan gaztelaniazko zuzenbide-testuak direnez itzultitakoak, hizkuntza bakarretikako itzulpenaren arriskuak eta ondorioak maila gorenean gertatzen dira hizkera berezi honetan.

Gainera, unibertsitaterako testuak 1990eko hamarraldian argitaratzen diren arte, zuzenbideko testu espezializatuen produkzioaren ardura ia erabat itzultzaileen gain egoteak esan nahi du ekoizleen aldetik ere hizkera hau baldintza berezietan sortu eta garatu dela: ez da sortu gaiko espezialisten, juristen, eskutik.

Horrez gainera, testu juridikoaren ekoizle izan diren itzultzaileek terminologi -lanak bete behar izan dituzte oso neurri handian.

Beste aldetik, data zehatzei eta legearen aginduei men egin beharrak ekarri du zuzenbide-hizkeraren garapena ez izatea graduala hau da, testu xumeetatik teknikotasun handikoetara arian-arian igarotzea beste hizkeretan, oro har, gertatu den bezala. Gaztelaniaz prestatuturiko arau-testuaren teknikotasuna zein-nahi izanda, euskarazko itzulpena beharrezkoa zenez, itzuli egin behar zen, horretarako inprobisazio hutsean jardun behar bazen ere.

Beste aldetik, testu juridikoak, itzuliak izateaz gain, gehienetan jatorrizkoekin batera argitaratzen direnez, ez dago jakiterik funtzio komunikatiboa betetzen duten ala ez. Izan ere erabiltzaileek aukeran izaten dute gaztelaniazko zein euskarazko testua irakurtzea, eta euskarazkoa ez ulertzeak ez dakar komunikazioaren etenik.

Betekizun politikoei, eta ez komunikatiboei, erantzun beharraren ondorioz, zuzenbideko hizkeraren atalak, erregistroak eta azpihizkerak oso modu desorekatuan garatu dira.

8.- Testu juridikoen tradizioa hain eskasa izanik, corpusaren abiaburuan zuzenbideko adigaiak izendatzeko lexikoa nahitaez eskasa zen. Corpuseko euskal testuak ondu dituzten itzultzaileek, ordura arte izendatu gabeko adigaiak izenez

hornitu behar izan dituzte hamaika aldiz. Ezinbestean, hainbat kasutan mailegutuzaz baliatu dira, erdal terminoak egokituaz euskarazko terminoak osatzeko, baina oro har, euskararen baliabide lexikogenetikoak sakonki ustiatu dira. Mailegutza lexikoa bereziki aztertu ez badugu ere, agerikoa da corpuseko terminologian ahalegin handia dagoela beste hizkuntzetako hitzak mailegatu gabe euskal ondare lexikoaz baliatzeko, eta baliabide morfologikoak zein sintaktikoak baliatzeko. Ikus dezagun ondoren nola baliatu diren baliabide horiek.

9.- Hitz-elkarketa, corpuseko termino askoren (heren baten) egitura izateaz gain, beste askoren osagaien bat moldatzeko erabili da; benetan ugaria da elkarteen presentzia, eta, gure ustez, ohikoa baino handiagoa berrelkarketarena. LEF batzordearen sailkapeneko elkarte moten artean batzuk, oso ugariak dira, beste batzuen agerpenak, berriz, urriak dira, eta badira inoiz edo ia inoiz agertzen ez direnak. Horrela, ez dugu aurkitu izenondo bahuviirik ez izengoiti-elkarterik ez eta sinbolismo fonetiko edo hots-uztarduraz osaturikorik. Izan ere, elkarte gehien-gehienak izen kategoriakoak dira-eta. Beste mota batzuen presentzia, aldiz, bereziki sintetikoena menpekotasunezko izen-elkarteena oso kopurutsua da. Izen-elkarte arruntak dira alde handiz ugarienak. Ez dira, aitzitik, ugari erabiltzen *aditzoin* + *izen* osaerakoak, ez bada mugakizun bereziko batzuen kasuan.

Berrelkarketari dagokionez, bi garaitan bereziki agertzen da: 1936-37an eta 1980-89an. Hainbat kasutan, oso elkarketa-kate konplexuak eta ulergaitzak aurkitu ditugu.

Menpekotasunezko hitz-elkarteen egitura bitarra oso ondo egokitzen zaio izendapen terminologikoari. Horrela, albo hizkuntzetako, eta zehazki, gaztelaniazko corpuseko *iz* + *adj* eta *iz* + *prep* + *iz* egiturak, hain ugariak zerrenda terminologikoetan, euskal hitz elkartearen bidez itzultzen dira sarritan. Oso bide emankorra da, hortaz, hitz-elkarketa corpuseko terminogintzan.

10.- Eratorpenaz ere erruz baliatu dira itzulpenaren beharrek eraginda euskal baliokideak moldatu dituztenak. Izenak eratzen dituzten atzizkiak dira alde handiz erabilienak, eta horien artean, toki berezia hartzen dute *-tasun*, *-tza<sub>1</sub>* eta *-tza<sub>2</sub>*, *-ari*, *-tzaile*, *-garri* eta aditzoinari eransten zaizkionek. Ikusi dugunez euskaraz aditza baliatzeko joera gaztelaniaz baino askozaz markatuagoa den arren, aditz-izenaren erabilera handia da, batez ere, *-pen*, *-keta*, *-men* eta *-kuntza* atzizkiez osaturikoei dagokienez. Puntu horretaz den bezainbatean, baieztatu ahal izan dugu kasu askotan atzizki bata edo bestea aukeratzeko arrazoa ez dela oso gardena, ez baita argi atzematzen haiez osaturiko hitzen arteko desberdintasun

semantikoa. Izan ere, oinarri berari atzizki ezberdinak erantsiaz erdal adigai bakarraren baliokide ugari eratzen da.

Zenbait aldetatik, corpuseko hitz eratorrien azterketak oraingo euskaran salatu izan diren arazo beretsuak erakusten baditu ere, beste alderdi batzuk aski bereziak direla esan daiteke. Esate baterako, *-ari/ -ario* edo *-garri/-kor*, edo *-go* atzizkien inguruan azken garaiotan agerturiko arazoek ez dute garrantzi handirik gure corpusean, eta *-tar* atzizkiaren erabilera guztiz tradizionala da, alegia, jatorri-tokiarekin lotzen duena. Beste aldetik, berriz, esan daiteke atzizkibidearen erabilera bitxiak daudela corpusean. Gaur guztiz bazterrekoak badira ere, garai hartako hizkuntz jokabide batzuei ongi egokitzen zitzaenez, ez ditugu bitxitzat joko 1936-37ko molde batzuk, baina bai, ordea, 1980tik aurrera, bereziki 1990 inguru arte, hain ugari agertzen den *-ko* atzizkiaren gaineko metaketa. Izan ere, ohikoak diren kasuez gainera, hainbat atzizkien (*-ngo*, *-kiko/-kingo*, *-gatikako*, *-zko*) erabilera ezohikoak aurkitzen dira. Agian denetan aipagarriena izan daiteke *-z + -ko* atzizki-metaketa aditz-izenei erantsita (*eskatzezko*) ikustea. Atzizki-metaketa horien erabileraz eta balioaz esan beharra dago garai jakin batetik aurrera desagertu egiten direla, eta esanahiaren aldetik, ez dutela zehaztasunik gehitzen, egiaztatu baitugu haiez osatutako termino guztiek ba dauzkatela beste motatako baliokideak. Horrez gainera, badira garai horretan askotan erabiltzen diren beste atzizki metaketak: *-ari+ -tza*, eta *-bide + -tza* bereziki, hurrengo garaian desagertu egiten direnak.

Azpinarratzekoa da, beste aldetik, corpus osoan aurrizkibideak oso toki txikia duela: lehen garaian, eta 1980-1989koan, ez dago alerik ere, eta beste bietan ere, gutxi. Halaber, atzizki multzokarien erabilera ere oso urria da. Aitzitik, hainbat kasutan, pluralaren markak erabiltzen dira gaztelaniazko izen multzokariak itzultzeko: esate baterako, *legeak* erdal *legislación*-en ordainetan.

Corpusaren eratorpenaren azterketan ohartu ahal izan gara erlazio bat dagoela oinarriaren “maileguzkotasunaren” eta eratorpenaren erabileraren artean: maileguzko hitzak gutxiagotan dira eratorpenaren oinarri euskal jatorrikoak baino. ‘Mailegu’ eta ‘jatorri’ hitzak ez ditugu, noski adiera filologikoan erabiltzen: *mailegua* esaten diogu azken orduko hartu berriari bakarrik.

11.- Euzkadi- Euskal Herriko Autonomi Erkidegoko aldizkari ofizialetako terminologiaren hustuketak erakutsi digu, gehien-gehienetan, zehazki muga daitekeen, eta barnean beste informaziorik ez duen testu-zati batean, badagoela gaztelaniazko terminoak adierazten duenaren itzulpen-baliokidea.

Datu-basea hustiatu ondoren zehaztu ahal izan dugu itzulpen-baliokide horiek zer diren, eta mota bakoitzekoak zer erlazioa duen ESTen kategoria edo

egitura bakoitzarekin. Esan behar dugu corpuseko egiturak bat datozela Elixabete Perez Gazteluk, Mitxelenak erabilitako hizkuntzalaritzako terminologiaz ari dela, egindako sailkapenekoekin.

Hona kopuru orokor nagusiak: izen sintagmak %92 baino gehiago dira; aditz sintagmak % 7 baino gehiago, eta gelditzen diran apurrak, adjektibo-sintagmak eta sailkagaitzak dira. Argi dago, beraz, gure aztergaia, itzulpen bidez sorturiko testu-zatiak, eta ez zerrenda terminologikoak, izanik ere, segmentu baliokide horien egiturak, printzipioz, termino gisa erabili ahal izateko modukoak direla. Baina begira ditzagun egitura bakoitzari dagozkion zertzelada interesgarrienak.

Izen bakunen ehunekoa %14,65 da. Hein handi batean erdarazko izen bakunen baliokide dira, baina proportzioan, askoz ugariagoak dira forma horretako espainierazko terminoak (%24,41). Izan ere, izen bakun diren EST askoren ordainetan euskal hitz elkarteak dugu. Guztiz normala izanik, horrek adierazten du hitz bakun gutxiago dagoela euskaraz adigai juridikoak adierazteko ahalmen osoz.

Izen-elkartera (%32,85) da EUSB askoren egitura. Egia da hitz-elkarterean sailkatu ditugun hainbat guztiz lexikalizaturiko hitzak direnez, espainierazko izen bakunak bezain laburrak eta erabilerosoak direla, baina gehienak lexikalizatugabeak dira. Hitz-elkarketa, beraz, oso emankorra agertzen zaigu. Gaztelaniaz ia horrelako elkarterik ez dagoenez, erdarazko izen bakunen, nahiz '*iz + adj*' edo '*iz + prep + iz*' egiturakoen baliokideak dira.

'Izen + izenondo' egitura, aldiz, askoz maiztasun txikiagoa dauka EUSBetan (%9 inguru), erdal terminoetan erakusten duena (%41) baino. Izan ere, espainierazko segida hori itzultzeko maiz jotzen da euskaraz hitz-elkarketara nahiz '*Izlg + iz*' egiturara. Aurrerago azalduko dugun bezala, egitura honen erabileran agertzen dira modurik argienez garaien arteko diferentziak.

Izenlagun gehi izen egiturak (%37,72) dira ugariak EUSBen artean, eta ikusi dugunez, askotarikoak dira (*-ren* edo *-ko* atzizkien bidez osaturikoak, aditz-izen edo partizipioarekikoak...). Euskal egitura berezi honen jatorria % 60an erdarazko 'izen + adjektibo' egituran dago.

Perpauk erlatiboak eta izenak osatzen duten egitura izenlagunetan sar badaiteke ere, uste dugu merezi duela berezirik aipatzea, ehuneko 1,67 kontuan hartzeko kopurua baita. Gaztelaniazko '*iz + adj*' eta '*iz + prep + iz*' egiturakoen ordainetan azaltzen zaigu. Aipagarriak dira egitura horretako EUSBen luzera eta konplexutasuna.

Aditz-sintagma egitura duten EUSBek guztizkoaren %7,31 osatzen dute, 209 ale, beraz. Gaztelaniazko terminoetan aditz-sintagmen ehunekoak % 3 baino txikiago denez, hein handi batean egitura nominaletan daukate jatorria. ESTetako izenen azterketarik ez dugu egin, baina begi-bistakoa da ikusitako adibideetan, nominalizazioak daudela gehienetan. Hiru multzotan banatu ditugu aditz sintagmak: aditz soilak, 'aditza + adberbioa' egiturakoak, eta 'ad + IS obj' egiturakoak, eta denetan egiaztatu dugu aurrekoa. 'Ad + adb' egiturakoetan, gainera, ikusi ahal izan dugu % 74an jatorria hitz bakarreko ESTan, (aditza soila zein izen soila) zegoela. Horrek adierazten du, berriro, gaztelaniazko hitz bakunen baliokideak eratzeko EUSBetan hitzak konbinatzera jotzen dela.

Proporzio txiki batean, adjektibo hutsak aurkitu ditugu. Horietako batzuk erdal adjektiboaren baliokideak dira.

12.- Erdarazko terminoetan, inguruko hizkuntzetako terminologietan oro har bezala, oso ugaria den baliabide baten inguruko azterketa egin dugu. Adjektibo erreferentzialaz ari gara. Izan ere, euskaraz izenetik eratorritako adjektibo mota hori oso urria denez, erdaraz 'izen +adjektibo erreferentzial' egitura dutenen baliokideak eratzeko erabiltzen diren estrategiak aztertu ditugu.

Alde batetik, maileguz eraturakoak. Esan nahi baita, erdarazko izen + adjektibo egitura berari atxiki eta adjektiboa mailegatzea, ezinbesteko egokitzeak eginez (*erabaki administratibo, jabetza intelektual, plantila organiko*). Badira horrelakoak, baina deigarria da garaien arteko banakera: bat ere ez da agertzen A garaian, 35 B garaian, 5 bakarrik C garaian, eta 40 D garaian.

Horien aldaeratzat jo daitezke kasu gutxi batzuetan, erdal adjektiboaren oinarria erabiliaz sortutako euskal erreferentzial bitxiak (*egoitza administrari, Elkarte Europear*).

Kasu gutxitan bada ere, *-ren mailako* postposizioa erabiltzen da erreferentzialen baliokide gisa. Horrela, *industria mailako jabetasun eskubide, fiskal mailako diru-sarrera*, edo *erakunde mailako administrazio* EUSBak dauzkagu *propiedad industrial, ingreso fiscal* eta *administración institucional*, hurrenez hurren, itzultzeko.

Izenlaguna ere (*administrazioko organo = órgano administrativo, funtsezko lege = ley orgánica*) hainbat kasutan erabiltzen da erdal adjektibo erreferentzialaren ordaina emateko.

Azkenik, hitz-elkarketa da baliokide ugariena, garai guztietan, 1978-1980 aldian izan ezik. Horietako asko esanahiaren aldetik erdarazkoaren baliokide eroso eta zehatza bada ere, hainbat kasutan sumatu dugu zehaztasunaren aldetik

arazoak sor ditzakeen joera bat, hau da, erdal erreferentzial jakin baten ordainetan modu automatikoan hitz elkarte berera jotzea, kontuan izan gabe erdarazkoa batzuetan tematikoa eta beste batzuetan sailkatzailea izan daitekeela.

13.- Gure corpuseko espainierazko terminoak ondo doitzen dira terminologia normalizatzaileak (Dubuc, Kocourek, Otman...) terminologiarako egokitzat jotzen dituzten egituretara, eta euskarazko baliokide gehienak ere bai. Izan ere, hamarretik bederatzi baino gehiago izen-sintagmak dira, eta aditz-sintagmetan asko dira bakunak.

Hortaz, iduriz, terminologiarako baliagarri izan daitekeen euskal segmentua aurkitu dugu erdal terminoaren parean, kontuan hartzen bada *Izlg + IS* egitura bakunak, erdarazko *iz + prep + iz* bezain erosoak direla. Baina egiturari dagokionez, EUSBen hainbat xehetasun kontuan hartu beharrekoak dira.

Aditz-sintagmek agerpen ugari daukate euskarazko segmentu baliokideetan, hala terminoaren egitura nagusi gisa nola izen-sintagma direnen osagai modura. Aditza, forma jokatueta nola jokatu gabeetan oso maiz agertzen da; hori da, hain zuzen ere, corpus honetako EUSBen ezaugarri bat, inguruko hizkuntzetako terminologiaren aldean, bederen. Horren arrazoi nagusia gure ustez bilatu behar da erdarazko terminoetan aditzetik eratorritako izenek daukaten presentzia ugarian. Jakina denez, nominalizaziorako joera ez dago oso garatua euskaraz. Aditz-sintagmen ugaritasun horrekin lotuta dago, zalantzarik gabe, aztertu ditugun euskal baliokideetan era guztietako adberbioen presentzia oso nabarmena izatea. Esan daiteke beste hizkuntzetako terminoetan adjektiboak duen funtzioa, euskarazkoetan adberbioak betetzen duela neurri batean.

Desberdintasun handienak, hortaz, aditz-sintagma egiturakoen agerpen ugarietz gain, izen-sintagma egituraren barnean aditz-sintagmak (erlatiboak, perpausak, aditz-izena buru dutenak eta partizipioa buru dutenak) dituztenetan daude. Horrelako egitura duten EUSBak luzeak izaten dira, eta izendapen baino gehiago esanahi baten azalpenak dirudite.

13.- Euskarazko segmentu baliokideen balio terminologikoaz ari garelarik, luzera ere kontuan hartzekoa da. Izan ere, terminoak erosotasunez erabili ahal izateko gomendagarria izaten da laburrak izan daitezen. Hain zuzen ere, normalizaziorako baldintza bat izaten da erabiltzeko erosotasuna, terminoaren luzerarekin erlazioan dagoen tasuna. Gure corpuseko gehienek betetzen dute baldintza hori, izan ere, hitz bakarrekoak %20,4, eta bikoak %51,2 dira, beraz, ia hiru laurdenera iristen dira; hiru hitzekoak gehituz gero (%15,5),



ehuneko 87a osatzen dute. Halaz eta guztiz ere, %13a lau hitzez edo gehiagoz osaturik egoteak adierazten du oraindik multzo handi samarra dela neurritz gainera. Kontuan izan behar da, gainera, inguruko hizkuntzekin konparatzen denean, haietan preposizioa eta artikulua bezalako kategoria "arinek" agerpen ugari dutela; euskarazkoetan, postposizioak eta juntagailuak, askoz bakanagoak izaten dira.

#### 14.- Garaien artean agertzen diren desberdintasunak. ereduak

Aukeratutako corpusak oso aldi luzea hartzen du, nahiz eta 1937tik 1978ra hutsartea dagoen; bertako testuetan nabarmenak dira termino juridikoei dagokienez 1936-37 garaiaren eta besteen artean aurkitu ditugun desberdintasunak. Hizkuntzaren oraingo estandarizazioa hasi gabe zegoelarik, lehen garai hartan egiten ziren aukera lexikoak eta morfologikoak, neurri handian idazle edo itzultzailearen ezaguera edo joeren arabera izaten ziren. Hurrengo aldietan, Euskaltzaindiaren normalizaziorako arauak garatuaz doazela, hainbat alderdiri buruzko zalantzak desagertu egiten dira, baina hala ere, eremu zabala dago asmaketarako edo proba-saioterako, corpusak erakusten duen bezala.

Aukera lexikoak alde batera utziz gero, hitz-elkarketa ez-arauzkoaren erabilera dago desberdintasun formalik handiena 1936-37 garaiaren eta besteen artean.

Baina 1978tik aurrerako corpuseko testu guztietan euskara batuaren araugintzak, eta gramatikaren ezagupenak egindako aurrerabideak gauzatzen badira ere, diferentzia nabarmenak sumatzen dira garai batetik bestera.

IV. kapituluaren zuzenbideko terminologian eta hizkeran oro har 1980tik aurrera sortzen diren eredu ezberdinei buruz idatzitakoaren berri ematen dugu. Gure ustez, corpusaren azterketa xehetuak hainbat argibide eskaintzen du ereduaren arteko balizko ezberdintasunak zertzelada linguistikoz janzteko. Hona aurkitu ditugunak, laburbildurik.

1978an estreinatzen den *Eusko Kontseilu Nagusiaren Aldizkarian*, (corpuseko B garaia) testu juridikoetan aurrekari gutxi zituen euskara-eredu bat azaltzen da. Testu horietan mailegutza lexikoak eta kalkoak pisu handia daukate. Nabarmen agertzen da hori corpusean aztertu ditugun *iz+* *izond* egituretan: garai horretan besteetan baino askoz ugariagoak dira. Gehienetan, izenondo horiek erreferentzialak izaki, maileguzkoak dira, eta egitura osoa, erdarazkoaren kalkoa. Zer esanik ez, egitura hori beste batzuen, bereziki hitz-elkarteen kaltetan erabiltzen da. Baliabide sintaktikoak aski erabiliak dira, eta morfologikoak (eratorpena eta elkarketa), neurri apalean.

*Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariarekin* eredu berri bat nagusitzen da, hau ere berria. Neurri batean, aldizkariaren izenburuak aditzera ematen duen bezala, 1936-37 garaiko lexikoa eta joera batzuk berreskuratzen dira, baina mailegutzari itzuri egiteko asmo komun batetik at, ez dago antzekotasun handirik bien artean. 1980-89 garaiko terminogintzari dagokionez, ezaugarri nagusia da morfologiaren eta sintaxiaren baliabideen ustiapen sakona. Esan nahi baita, terminoak eratzerakoan eratorpena eta elkarketa erruz erabiltzen direla, hainbat kasutan tradizio eskaseko moldeak erabiliat, eta maiz, birdeklinaketaren eta berrelkarketaren kasuetan bezala, ulermen zaileko unitate lexikoak sortuaz. Oro har esan daiteke *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren* aurreneko urteetan euskara-eredu “trinko” bat erabiltzen dela, aurreko *Eusko Kontseilu Nagusiaren Aldizkari Ofizialekoari* oso gutxi zor diona.

Gurk erabilitako metodologiak ez digu biderik ematen eredu hori noiz eta nola baztertzen den zehazki deskribatzeko, baina aurreko garaiko hainbat egituratako adibide berririk ez agertzeak, eta berri batzuk ugaltzeak esan nahi du baliabide lexikogenetikoak aldatu egiten direla 1990tik aurrera. Izan ere, aurreko garaiko ezaugarri nabarmenenak desagertu egiten dira: eratorpena eta elkarketa konplexuak gutxiagotan agertzen dira, eta neurri batean, maileguzko hitzen erabilera ugaltu egiten da.

15.- Tesi honen langintzan, hustuketa egin ondoren lortu ditugun kopuruek (880 EST eta 2.858 EUSB), erakusten dute erdarazko termino bakoitzeko 3,24 euskal baliokide daudela corpusean, bataz beste. Zenbaki horiek xehe-tuaz, ikusi ahal izan dugu ESTen herenak baliokide bakarra duela, eta  $\frac{3}{4}$  direla baliokide bat, bi edo hiru dutenak; beraz, laurden batek 4 edo gehiago dituela; ez dira falta 16 baliokide dituztenek. Badirudi, gainera, euskal izendapen berriak sortzeko joera ez dela desagertzen azken aldian, forma berriak etengabe aurkitu baititugu corpusean. Horrek adierazten du —beti ere kontuan hartuaz corpora osotasunean hartzen dugula— ez dagoela finkatuta zein den adigai jakin bati (gaztelaniazko termino bati) dagokion euskal izendapena.

Alderantzizko azterketa egin ondoren, alegia, aukeratutako euskal segmentu bakoitza zein erdal terminoren ordainetan dagoen, baieztatu ahal izan dugu gehienetan euskarazko bakoitza erdarazko bati dagokiola. Kasu gutxitan gertatzen da EUSB bera EST bat baino gehiago itzultzeko erabiltzea: 96 kasutan bakarrik.

Finkapenaren gaiari eutsiaz, egiaztatu dugu corpus juridikoetan askotan errepikatzen diren adigaiak, beste hizkuntzetan forma terminologiko finkatua izan

ohi dutenak, hala nola legeen, zergen, eta eskubideen izendapenak, euskaraz ez dutela egitura finkaturik, hainbat moldaera desberdin baitaude lehian.

16.- Aztertu dugun corpusa, —zuzenbideko testu gehienak bezala— itzulpenez sortu izanak eragin nabarmenak dauzka hainbat EUSBtan. Horietako bat agertzen da euskal terminoa gaztelaniazkoaren isla hutsa denean, kontuan izan gabe espainierazko terminoak, tradizioan finkatutako hizkera berezi batekoak izanik, linguistikoki aski arbitrarioak izan daitezkeela. Islatzearen modu zuzenena mailegutza da. Hainbat kasutan, hitzak mailegutzen dira; beste batzuetan hitz-kate osoak, egiturak ere kalkatuaz. Kalko sintaktikoak, gehienetan mailegaturiko hitzekin gainera, gehienbat 'izen + izenondo erreferentzial' sekuentzietan gertatzen dira. Ikusi dugunez, ez dira ugariegi horrelako maileguak, EKNAOren garai laburrean ez bada.

Baina badago beste modu mozorrotuago bat euskal terminoa espainierazkoaren isla izateko. Beste modu hori, *herri*, *lege*, *zigor*, *lan*, *administrazio*, edo *arduralaritza* bezalako hitzez osatutako termino batzuetan gertatzen da. Izan ere, baieztatu dugunez, hitz horiek, elkarketako mugatzaile-posizioan daudelarik, maiz erabiltzen dira gaztelaniazko adjektibo erreferentzial jakin batzuen orde, kontuan izan gabe haien erabileraren berezitasun batzuk. Gure ustez, horietako batzuk, erdarazko hitz batzuen ordain “automatikoa” bihurtu dira, sortutako terminoen gardentasunaren eta zehaztasunaren kaltetan.

Beste aldetik, *bide* mugakizunarekin eratutako elkarteak dituzten hainbat terminotan halako iluntasun nabarmena dago; bereziki *izena* + *bide* osaturikoetan: ez daukate corpusean esanahi finkorik, eta ez datoz bat tradizioan izan duten erabilerekin.

Itzulpenaren ondorio dela beti ziurtatzerik ez bada ere, haren eragina suma daiteke hainbat kasutan lexikalizatutzat agerrarazten diren hitz batzuetan. Gehien bat hitz-elkarteetan ageri da joera hori. Oso nabarmena da 1936-37 garaian *agintaritzizparkari*, *atzergetxe*, *latziñaldaritegi*, *salostetxe*, *saloste*, *salostari* bezalako hitzetan, zeinetan hitz-elkarketaren ohiko arauak erabat baztertu diren. Horrelakorik ez da ia bat ere agertzen hurrengo garaietan, baina idazkeraren bidez, benetan duten baino lexikalizazio maila altuagoa ematen zaie hainbat hitzi: *legenortasundun*, *herrizerbitzu*, *zigorjaurpideak*, *udalbatzarburu*, *herrizudu*, esate baterako. Beste zenbaitetan, hitz-elkarte bailiran agertzen dira *iz* + *izond* segida batzuk: *legezar*, *obenaundi*.

17.- Euskarazko testu juridikoen ezaugarri berezi samarra da, esan dugun

bezala, hain proportzio handian itzuliak izatea, eta gainera, gehienetan bi hizkuntzetan batera, testu paraleloetan, argitaratuak izatea. Gure ustez, zertzelada horiek, gure tesi honetan egin dugun bezala, baztertuezinekoak dira hizkera juridikoaren azterketaren beste alderdiei ekiterakoan.

Tesi honen bidez, euskal hizkera juridikoa, dauden testuetakoa, zertxobait hobeto ezagutzeko urrats batzuk egin ditugulakoan gaude. Bosgarren kapituluan xeheki deskribatzen dugun hustuketarako metodologia edo teknika neurri batean probatzeke zegoen. Ez genekien zein izango ziren emaitzak. Tesia burutu ondoren esan dezakegu metodologia horren emaitzak aski fidagarriak izan direla, oso ehuneko handian erdietsi dugulako erdal terminoaren segmentu baliokidea euskal testuan bakartzea.

## ERANSKINAK



## ERANSKINAK

## I. KAPITULUA.

## 6.- EUSKARAZKO ESPEZIALITATE-TESTUAK.

## 6.2.3.- Espezialitate-testuak 1900 arte

ARAMBURU Martin eta BAGO AGUIRRE Manuel (1899). *Manual de Higiene y Medicina Popular /Osasun legueac eta medicantzaco Arguibideak*, 179-311 orriak euskaraz. Gipuzkoako Diputazioak argitaratua

ARANZADI Telesforo (1897). «Euskalerriko perrechikuak». Atlas. Madrid

DASSANÇA, Monjongo (1692). *Laborarien abisua*. Patri Urkizu-ren edizioa ASJU XXXIII-1, 1999, 239-304

DUVOISIN Jean (1858). *Laborantzako liburua edo bi aita semeen solasak laborantzaren gainean*. Baiona ; Facsimil Donostia, Hordago, 1978

EGIATEGI Jvsef (1785). *Lehen liburua edo filosofo euskaldunaren ekheia. Dominique Peillen-en moldaketaz argitaratua*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1983.

*Escualdun cocinera ceinarekin normahic cocina ona errechki eguin baiteçake 186*. Baiona: Cluzeau

HOYARZABAL Martin (1677). *Liburu hau da ixasoco nabigacionecoa Martin de Hoyarزابalec egiña Francezes. Eta Piarres Detcheverry edo Dorrec escararat emana*. Baiona 1677, Facsimil Donostia: Txertoa 1985

IZTUETA Juan Ignacio (1903). «Gipuzkoan beren izen euskarazkoakin ezagutzen diraden belarren argibidea» *Euskal Erria*, 1903, Lil, 151-158.

LACOIZQUETA Jose Maria (1888). *Diccionario de los nombres éuskaros de las plantas en correspondencia con los vulgares castellanos y franceses y científicos latinos*. Pamplona

LOPEZ Eusebio (1889). *Cocinan icasteco liburua chit bearra famili gucietan lendabicoa eusqueras* Tolosa: Eusebio Lopez

## 6.2.4.- 1900tik 1936ra arte

ALTHABE Jean Bautiste (1900). Çiberuko botanika edo lantharen jakitatia. Bayonne  
ARAMBURU Dr. (1901). Gizonaren osasunean ordikeriaren kalteak 1901, Azpeitiako Euskal jaietan saria jaso

BAHR Gerhard (1929). «Nombres de plantas en vascuence», RIEV 1929, 449

—, (1931). Ostraillika ta ostadarra (la vía láctea y el arco iris). Bilbao ed. vasca 1931

BARANDIARAN J M (1934). Euskalerriko Leen-gizona

BIDAURRATZAGA, Gotzon (1927). Argija kirijotz-alija edo Argijak gorputza elikattu eitten dauala. Donostia, Iñaki Deuna

- EGILE EZEZAGUNA (1933). *Zenbakizti-lengaien ikastia* "Eusko Ikaskuntza" k baietsia
- EGILE EZEZAGUNA (1901). *Erari espirituzkoak gueyegui eratic personai eta familiai etortzen zaizten ondoren caltegarrien gainean*. Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia
- EGILE EZEZAGUNA (1906). *Abere gorrietan hiltzearen kontra asuramendiazko konfrariaren erreglamendua*. Baiona Lasserre 1906
- EGILE EZEZAGUNA (1915). *Txorijak, Eliak, Konkeak* Durango: Florentino Elosu
- EGILE EZEZAGUNA (1918). *Gripe izurri-gexoa galazoteko Bilbao'ko Osalari Bazkunak aginduten dauzan egin-bearrak*. Bilbao: Bizkai-Aldundija, 1918
- EGILE EZEZAGUNA (1920). *Euskal Zenbakiztia*. Bilbao: Alvarez 1920
- EGILE EZEZAGUNA (1920). *Irakastia. Cartilla de puericultura..* Eusko Ikaskuntza. Editorial Vascongada
- EGILE EZEZAGUNA (1930). *Euskal Zenbakiztia*. Bilbao 1930
- EGILE EZEZAGUNA (1932). *Zenbakiztiya. Lenengo mallea*. Bilbao 1932
- ETCHEPARE Jean (1984-1996). *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935). idazlanak*. Piarres Charriton-en edizioa. Donostia: Elkar, DL II. *Mediku-solas* )
- JAUREGI URIBARREN Gabriel (1935). *Pisia*, Bermeo 1935
- (1936). *Kimia*, Bermeo 1936
- LOPEZ MENDIZABAL'DAR Ixaka (1913). *Zenbakiztiya edo Aritmetika*., Tolosa 1913
- OLABIDE Erramun (1917). *Giza-soña*. Tolosa: E. López, 1917
- UGALDE Dr. (1909). *Itz bi Eche-Bataioaren gañean* (abortoaz zenbait kapitulu dakar)
- ULACIA ETA KARDONA Rafael (1909). *Ama-entzako liburu tso berri osasungarria*. Rafael Ulacia eta Kardona, bularreko umeen lenengo konsultorio-ko zuzentzalla Jaunak Madrillen argitaratua eta "Consejo Real de Sanidad" deitzen den Batzarrak ontzat emana eta euskaldun batek euskarara itzulia.. Durango: Florentino Elosu
- ZABALA-ARANA Jose M de (1922). *Euzko Lutelesti txikia*, Tolosa
- (1923). *Daneurtiztia. Amabi ataltxotan*. II X.X.. Donostia: Iñaki Deuna

### 6.2.5.- 1936 tik 1975era arte

- BARANDIARAN Joxemiel (1972). *Lehen euskal gizona*. Donostia: Lur
- EGIA Luis (1972). *Neurritzia*. Donostia: Kardaberaz, 323 or.
- ELHUYAR (1973). *Fisika Gaiak I*. Donostia; Elhuyar 1973
- GARMENDIA Xalbador (1970). *Lurraren Kondaira*
- GUILLOT René (1970). *Izartegia*. Barcelona: Timun Mas
- ITURBE Jazinto (1974). *Hartree-Fock-en methodoaren hurbilketa erdi enpirikoak*. Leioa. (lehen euskal tesina zientifikoa)
- KRUTWIG Federiko (1961). «Physica Berriaren Problemat Batzuei Buruz», *EGAN* 1961 (4-6), 168-181
- MINVIELLE Dr. (1939). *Petit traité de puericulture en basque*. Bayonne: 1939
- MUNITA Inocencio (1952). *Gure mendi ta Oianak*
- SAIZARBITORIA Ramon, Sarasola, Ibón, Urretabizkaia, Arantxa (1970). *Mendebaleko Ekonomiaren historia Merkantilismotik 1914era arte*. Donostia: Lur
- SAN MARTIN Juan (1958). «Eibar'en erabiltzen diran burdin langintzako itz teknikoak», *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* 1958, 141-158
- (1959). «Eibar'en teknika gaietan egin dan eboluzioari buruz» *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* IV (1959). 127-139



### 6.3. Euskarazko hizkera bereziei buruzko testuak

#### 6.3.3. Lan teoriko-metodologikoak 1975 arte

- AMURIZA Xabier (1974). «Euskal Aurrizkiak», *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* 1974, 9.
- AZURMENDI Joxe (1963). «Jakín: Euskal kulturaren bideak lantzen», *Euskera Euskaltzaindiaren lan eta agiriak VIII-IX*, 1963-64, 336-371
- BARANDIARAN'dar Gaizka (1963). «Euskeraren iztegia, nola litzaken, », *Euskera Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* 1963-64, 372-378.
- BERRIATUA Imanol, (1963-64). «Bermeoko Arraintzaleen leksikua», *Euskera Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* 1963-64, 385-392
- ETXEBARRIA Jose Ramón (1975-76). «Euskara teknikoari buruz iritzi batzu», *Elhuyar* 4-5-6 (1975-76), 37-49, 35-51, 51-60
- EUSKALTZAINDIA (1970). «Euskaltzaindiaren Agiriak: 1970.11.27»: Etxegintza hiztegiaren asmoa», *Euskera Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* 1970.11.27
- MICHELENA Luis (1973). «Lexicografía técnica», *III Semana de Antropología Vasca* 359-371, [SHLV 400-408 ]
- OSKILLASO (1963-64). «Batasunerako urhatsak, euskal-analfabetismua ta kultur-hiztegia, », *Euskera Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* 1963.64, 378-385
- SAN MARTIN Juan (1959). «Eibar'en teknika gaietan egin dan eboluziñoari buruz», *Euskera. Euskaltzaindiaren lan eta agiriak IV* (1959). 127-139
- SANTAMARIA Carlos (1973). «Euskal Hiztegi analogikoari buruz», *Euskera Euskaltzaindiaren lan eta agiriak VXIII*, 1973, 167-172
- VILLASANTE Luis (1963-64). «Sebero Altube, iztegi arazoetan maisu», *Euskera, Euskaltzaindiaren lan eta agiriak VIII-IX*, 1963-64, 292-313
- , (1973). «Lege gizonen behar duten hiztegi berezia», *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak XVIII* (1973) 203-204
- ZALBIDE Mikel (1974). «Zientzi eta teknikarako hizkuntzaz», *Elhuyar* 1, 1974, 36-48
- ZATARAIN'dar Ambrosi (1968). «Euskerazko itz berriak», *Euskera Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* 1968, 163-173
- ZUMALABE J M (1974, «Etxegintza eta arkitekturako hiztegiaren gertuketa », *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak XIX* (1974), 291-295

#### 6.3.5.- 1976-1999ko bitartekoak

##### Lan teoriko-metodologikoak

- AGIRREBALTZATEGI Paulo (1976, «Atarian», *Natur Zientziak. Hiztegia*. Oñati: Jakín Arantzazu
- , (1985). «Hiztegi tekniko-berezituak. UZEIren hiztegi gintza», *Senez. Itzulpen eta terminologiazko aldizkaria* 4. zk (1985, 31-51
- AIZPURUA J R (1984). «Alfabetatze teknikoa», *Zutabe.: Euskalduntze-alfabetatzearen aldizkaria* 4. zk. (1984), 107-110
- ALDEZABAL et al. (1997, «Terminologiaren erauzketa automatikoa eta bere aplikazioa euskararako», *Nazioarteko Terminologia Biltzarra*. Donostia: IVAP-HAEE: UZEI, (1997: 495-508)
- ALTONAGA Kepa (1998). «Ajeak eta aje ez direnak», *Berba* 26. zk. (1998). 1-2
- AMUNDARAIN Dionisio (1990). «Euskararen egoera soziolinguistikoa, hizkuntz erregistroak eta euskararen irakaskuntza», *Zutabe*, VIII 23. 9.22

- ARANBURU Pello Jose (1986). «8. Urratsean Lexiko "teknikoa" lantzen»,. *Zutabe*, 10, 1986, 78-80
- AZKARATE Miren (1988). «Neologisms and Lexicography in the Basque Language », *Budalex'88 Proceedings*, 467-472 I. Budapest Akadémiai Kiadó
- , (1996). «La academia de la lengua vasca»,. *Terminometro* (Unión Latina) Ale berezia (1996). 28-29
- , (1997). «Euskal terminologiaren egoeraz», in *Nazioarteko Terminologia Biltzarra* 1997, 249-272
- , (1999). «Steps towards the Modernization of Basque: Challenges of a Standardize Lexicon»,. *Modernisierungdes Wortschatzes europäischer Regional und Minderheitensprachen* (Spiess 1999).Tübingen Gunter Narr Verlag
- BARRENETXEA Tere (1985, «Terminologi zentru eta bankuak», *Senez. Itzulpen aldizkaria* 2, 1985, 29-42
- , (1990). « Xede berezietarako hizkuntz irakaskuntza. Historia joerak eta arazoak.»,. *Zutabe* VIII 23. 9-22
- , (1990). « Xede berezietarako hizkuntz irakaskuntza. Laneko euskara.», *Zutabe* VIII 23, 35-45.
- BARRENETXEA Tere, SAGARNA Andoni, EGAÑA J. (koord) (1986). *Zientzia eta teknika*,. Donostia: HABE
- BIGURI Koldo, (1996, «Miren Azkaraterekin berbetan» [elkarrizketa] *Senez. Itzulpen aldizkaria*, 17 1996 75-82
- DIAZ DE LEZANA Arazeli (1996). «Terminologia lanaren metodologia», *Senez Itzulpen aldizkaria*, 17. zk. (1996). 29-38
- , (1996). «Terminologi hustuketarako irizpideak», *Berba* 8. zk. (1993) 1-2
- EGUZKITZA Andolin (1976). «Danobat "Tekniko-industrtrial Hiztegia"z»,. *Elhuyar*, 8, 1976, 3-8
- ELHUYAR (1977, «Euskal matematika hiztegiaren azterketa »,. *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* XXII 2. aldia (1977), 100-109
- , (1975). Informatikaren Hiztegi laburra»,. *Elhuyar* 5, 1975, 29-34
- , (1990). *Munduko leku-izenak*.. Elhuyar-Elkar. Donostia
- , (1992). *Munduko pertsona-izenak*. Elkar Donostia
- ESTURO J, AIERBE M. *Terminologia. Arauak. Xake* 31-35
- ETXEBARRIA Jose Ramón (1992). «Zientziaren arloko euskararen batasunaz», *ELE* 11/12, 1992, 99-112
- EUSKAL ESTATISTIKA ERAKUNDEA (1995). *Izendegiak eta kodeak = Nomenclaturas y códigos*. Gasteiz: EUSTAT, 1995, 593
- EUSKO JAURLARITZA. ESTATISTIKA ZUZENDARITZA (1982). *Kodeen normalizazioa = Normalización de códigos*. Eusko Jaurlaritza, 1982.
- GURRUTXAGA Antton, PIKABEA I (1990). «Alfabetatze Zientifiko/Teknikoa EHU»,. *Zutabe* 23, 1990, 23-34
- IRAZABALBEITIA, I; ELHUYAR FISIKA ETA KIMIKA TALDEA (1988). «Nomenklatura eta formulazio kimikoa »,. Donostia: Elkar, 1988.
- KINTANA Xabier (1994). «Mitologi eta astronomi izenen inguruan »,. *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* 39. 2.aldia (1994, 3) 1355-1361
- LOINAZ Miel (1996). «Euskalterm, el banco de datos vasco de terminología»,. *Terminometro* (Unión Latina) ale berezia, 1996
- , (1997, « Terminologiako Datu-Bankuak», *Nazioarteko Terminologia Biltzarra*.157-185 «
- LOPEZ DE ARANA I, BEITIA L (1996). «Hizkuntza eguneratzeaz »,. *Senez Itzulpen aldizkaria* [17. zk. (1996), 61-73

- MANJON LOZOYA R. (1996). «Administrazio sanitarioko euskara: egoera, itzulpena eta arazo terminologikoak», *Senez: Itzulpen aldizkaria* 17. zk. (1996), 39-60
- , (1998) «Medikuntzako testuetako zenbait okerbide eta balizko aje», *Senez: Itzulpen aldizkaria* 20, 1998, 67-84 »
- MENDIGUREN BEREZIARTU Xabier, (1977), «Euskarazko neologismo eta terminologiaren inguruan », *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* XXII 2. aldia, 1977, 97-99
- , (1996). «Terminologia eta traduktologia EHU-UPVn », *Senez: Itzulpen aldizkaria* 17. zk. (1996). 17-27
- MICHELENA Luis, (1981), «Nuestra irresistible ascensión de la poesía a la ciencia», *Muga* 19, 1981.4-19 (Berrarg., Lakarra J A (arg) *Sobre historia de la Lengua Vasca* 1001-1010
- MITXELENA Koldo, (1982). «Atarikoak»,. *Hauta Lanera Euskal Hiztegia*. (Eu.Donostia: Kutxa Fundazioa
- MUJIKA Jose Antonio (1997). «Nazioarteko hitzak noiz eta nola: irizpideak », *Berba* 24. zk. (1997), 2-4
- MUJIKA ULAZIA Nerea (1997). «La problemática de la terminología geográfica dentro de los trabajos de normalización toponímica. », *Nazioarteko Terminologia Biltzarra*,. 785-809
- NAVARRO Koro (eus. itz) (1996). «Maria Teresa Cabré Castellví » [elkarrizketa]. *Senez: Itzulpen aldizkaria* 17. zk. (1996), 7-15
- ODRIOZOLA Juan Carlos (1993). «Normatibizazioari buruzko zenbait gogoeta»,. *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* XXXVII (2. aldia) 1225-1243
- ODRIOZOLA Juan Carlos, ALTONAGA Kepa, ENSUNZA Martxel (1987). «Euskara gaurkotzeko bideak», *Unibertsitate-hedakuntzarako koadernoak*. Erandio: EHU Argitarapen Zerbitzua
- PALAZIO J (1997, «Laburkindegi orokor baten berezitasunak eta ekarri lexikoa kazetaritza-terminologikoaren alorrean», *Nazioarteko Terminologia Biltzarra*,. 639-649.
- , (1997, «Laburkinen itzulpena kazettagintzan », *Nazioarteko Terminologia Biltzarra*,. Donostia: IVAP-HAEE: UZEI, 1997. 651-660
- PEILLEN Txomin. (1982). «Zuberotar lege hiztegia hamaseigarren mende hastapenean»,. *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* XXVII 1982.1
- PERALES Josu (1984). «Xede berezitarako euskara?»,. *Zutabe* 6, 1984, 162-163
- PEREZ GAZTELU Elixabete (1995). *Koldo Mitxelena Elissalt. Egitasmoa eta egitatea*. Errenteria: Errenteriako Udala
- SAGARNA Andoni (1984). « Elhuyar eta UZEI: Euskara laneko hizkuntza bihurtu nahian », *Senez: Itzulpen eta terminologiazko aldizkaria* 1. zk. 1984 35-62
- , «Lexiko-sorkuntza».. UZEI., Mekanografiatua
- , *Fisika eta Kimika jakintzagaietako ikasliburuetatik jasotako terminologiaren ikerketa*.. Uzei: Mekanografiatua
- , (1985). «Terminologiaren teoria orokorra», *Senez: Itzulpen eta terminologiazko aldizkaria* 2. zk.1985, 11.
- (1988). «Lexikologia, lexikografia, terminologia, terminografia: euskal lexikoaren berrikuntzari egin beharreko ekarpenak»,. *II Euskal Mundu-Biltzarra, Euskara Biltzarra*, I. Atala: Hizkuntz Deskribapena I. Alea. Komunikazioa,
- (1988). *Algunos aspectos de la modernización del léxico en varias lenguas*.. Tesi doktora. Bartzelonako Unib. (Arg. gabea. )
- (1991). «Modernisation de la langue basque et activité terminologique», *TermNet news* 1991 32/33

- (1994). «Hiztegi teknikoak », *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, 39.(2.aldia) (1994, 3) 1269-1278
- SARASOLA Ibon (1997). «Euskal hiztegi gintzaren eta terminologiaren inguruan», *Nazioarteko Terminologia Biltzarra*, 69-86
- TXURRUKA J.M (1997). « Maileguzko hitzetako x letrari buruz hartu beharreko erabakiaz. X letraren balio erabakiora zientzi », *Nazioarteko Terminologia Biltzarra*, 725-747
- UGARTEBURU Iñaki (1996). «Medikuntzako euskara ereduak I, II», *Berba* 21., 22, 1996, 1997
- UZEI ( ZALBIDE Mikel) (1978). *Matematika: hiztegia. Hizkera. Irakurbideak*. Gipuzkoako Ikastolen Elkartea Arantzazu: Jakin
- ZABALETA Josu. (1996). «Terminologia gora-behera », *Senez: Itzulpen aldizkaria* 17. zk. (1996), 83-91
- ZALBIDE Mikel (1976). «Zientzi eta teknika hizkuntzarako proposamenak», *Elhuyar* 9, 1976, 27-52
- , (1979). «Zientzia eta teknika alorreko hiztegi bati buruz» *Arkitektur Hiztegia. Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak XXIV*, 2. aldia (1979-2). 291-305
